

Colección **MENDAUR** bilduma

# III

## Luzaideko Euskararen Hiztegia

Peio Kamino Kaminondo  
Patxi Salaberri Zaratiegi



**Nafarroako  
Gobernua**



**EUSKALZAINDIA**  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LINGUE BASQUE

Liburuaren izenburua: Luzaideko Euskararen Hiztegia

Liburuaren egileak: Peio Kamino Kaminondo  
Patxi Salaberri Zaratiegi

© **Nafarroako Gobernu**a. Hezkuntza Departamentua  
© Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.  
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Diseño/Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.  
San Miguel industriagunea  
31132 Villatuerta  
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-235-2935-3

Lege gordailua: NA-616-07

**Nafarroako Gobernu**a  
Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileak eta banatzaileak:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa  
Navas de Tolosa kalea, 21  
31002 IRUÑA  
Tf.: 848427121  
Faxa: 848427123  
fondo.publicaciones@navarra.es  
www.cfnavarra.es/publicaciones

\*\*\*\*

**Euskaltzaindia / R.A.L.V.**  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Tel.: 94 415 81 55  
Faxa: 94 415 81 44  
info@euskaltzaindia.net  
www.euskaltzaindia.net

***Eskaintza:***

*Añes Kaminondori eta Jose Mari  
Satrustegiri, Luzaideko eskuara  
ederra maite zutelakotz.*

# AURKIBIDEA

<b>Aitzinsolasa</b> .....	IX
<b>Hiztegia</b> .....	1
<b>Bibliografia</b> .....	201

**AITZINSOLASA**

---

Luzaideko euskararen hiztegi hau gehienbat Garaziko herri horretako hizkera bizian dago oinarriturik, baina egungo euskarari ez ezik, horko testu ugariak ere, oraingoak eta iragan mendeetakoak, baliatu ditugu, baitakigu beste alderdi anitzetan, gehienxkoenetan, patua ez dela hain aldekoa izan eta izkriburik ez dela edo, baldin bada, arras urriak direla. Horregatik, alderdi berekoa zen Bernat Etxepareren olerkiak aintzat hartu ditugu Luzaideko egungo materialak aztertzean, hitzen bila-kaera ikusteko, eta, halaber, XIX. mendeko Nafarroa Behereko gutun-predikuak, 1856ko Salaberri Ibarrolakoaren hiztegi interesgarria eta Bonaparte printzearen hitz bilduma tipia, besteak beste. XX. mendean idazki eta datu franko ditugu, Luzaiden bikario egondako Jose Mari Satrustegiren lanaren ondorioz batez ere, hots, idazki eta datu horiek ardura hark bilduak dira edo haren egitez eta eraginez jasoak, nahiz ez beti. Orobat, Ana Maria Etxaidek 1989an argitara emandako informazio aberatsa baliatu dugu, Aranzadi Zientzia Elkartek 1990ean karrikaratu zuena eta, berrikiago, Euskaltzaindiak 1999an CD formatuan kaleratutakoa, bai eta ere, artetan, *EHHA*-eko datu bakan zenbait.

Jose Mari Satrustegik bildu edo bilarazi zituen materialen artean gelari zuen Maria Dolores Etxeberriari Luzaideko adiskide-ahaideek Urdiaina igorritako gutunak aipatu behar ditugu, hizkera herrikoian izkiriatuak izateaz landara biziki aberatsak direlako, eta hagitx egokiak Luzaideko euskara sakonki aztertzeko, guk ahoz bildutako datuak idatziz ageri diren horiekin erkatzeko aukera eman digutelako lehenik, eta inspirazio iturritako ibili ahal izan ditugulako gero, hots, gutunetan azaltzen direnak egun bizirik ote dauden galdegiteko. Izan ere, ez egile bata ez bestea ez gara sekulan lexikografian aritu eta, beraz, ez genuen esperiantzirik batere arlo honetan, hiztegia hasi aitzinetik, eta hori, garbi dago, nabaritzen da.

Ez dugu dudarik egiten lexikografo adituek akats eta oker bat baino gehiago ikusiko dutela gure lan hau egiteko ibili dugun metodologian, sarrerak eta azpisarreak emateko eran, etsenpluak sartzeko eta menturaz izkiriatzeko moduan, baina gure burua zuzitzeko besterik ez bada ere erran dezakegu hiztegia osatzera bultzatu gaituen asmoa ona dela: Luzaideko euskara galbidean dago, Karrika aspaldixkotik dago erdaldundua (edo orain idazten den bezala, erdararatua) eta bertako hizkera ongi atxiki duten baserrietan bizilagunak eskastuz doaz, Luzaideko patarretako bazterretxe bakartuetan bizimodua ateratzea gero eta zailago delako. Hortaz, presako egin-beharra zen Iparraldeko mugako herriaren hizkera jasotzea, eta ez diogu hau anitzetan aipatzen den topikoa errepikatzeagatik: gure informatzaile nagusia izan den Añes Kaminondo luzaidarra hiztegia oraindik bide erditan zegoelarik joan zitzaigun eta

berekin hilobira eraman hain ongi ezagutzen zuen hizkeraren aberastasun eta sekretuetarik anitz.

Aipatu ditugun Luzaideko gutun horietako gehienak Azoletako Bidartea etxe-ko Anastaxi Bartzelonarenak eta auzo bereko Madaritzeta etxe-ko Mailuiz Auzkire-nak dira. Hauek, eta hauen idazki zoragarrien pasarte anitz, hiztegian zehar hamai-ka aldiz agertzen dira, lehena AB gisa eta bigarrena MA bezala. Hauetaz gainera, Arnegin sortu eta Ameriketara luzaz bizi ondoren han hil zen Arño Auzkiren (AA) eskutitzak ere baliatu ditugu, baina franko gutiagotan, eta inoiz Uharte Garaziko Kattalin Barboten (KB) aipuño bat edo beste ere egiten dugu, baina arras gutitan. Honelakoetan usaian pertsona eta etxe izenak X (eta Y, Z, pertsona edo etxe bat baino gehiago direnean) batekin ordezkatu ditugu, salbuespen zenbait egonagatik ere. Gure xedea beti hitzak eta erranairuak garbi adieraztea izan da, irakurleak hitz eta errateko manera horiek zer adiera duten eta nola ibiltzen diren argi ikus dezan, ez gutunak argitara ematea, lanean hauen pasarte franko sartu baditugu ere, azaldu nahi ditugun item linguistiko horien lagungarri.

Hiztegian laburdura franko darabiltzagu, alferreko errepikapen gogaikarriak saiheste aldera. Hauek dira:

- Ad.* → *aditza*
- Adier.* → *adierazkorra*
- Adlag.* → *adizlaguna*
- Adond.* → *aditzondoa*
- Aurritz.* → *aurritzia*
- Atziz.* → *atzizkia*
- Banat.* → *banatzailea*
- Buk.* → *bukaera*
- Cf.* → *confer, alderatu, ikus*
- Esam.* → *esamoldea*
- Gald.* → *galdetzailea, galde hitza*
- Interj.* → *interjekzioa*
- Iz.* → *izena*
- Izlag.* → *izenlaguna*
- Izond.* → *izenondoa*
- Izord.* → *izenordaina*
- Junt.* → *juntagailua*
- Lok.* → *lokailua*
- Mailakat.* → *mailakatzailea*
- Mend.* → *menderagailua*

*Post.* → *postposizioa*

*Zenb.* → *zenbatzailea*

Ikusten den bezala, gehien-gehienak hitzaren kategoriari dagozkio, garrantziko iruditu baitzaigu hitz bakoitza zer den adieraztea, hau ematen duen baino lan zailagoa bada ere. Zenbait aldiz zalantzan egon gara, hitz bat zer kategoriatakoa den ezin erranez; honelakoetan, hiztegitik aditu-arituek egiten dutenari jarraiki gatzazkio, eta kategoria oker eman baino ez eman nahiago izan dugu zenbait aldiz. Holakoetan laburdurarik gabe utzi dugu delako hitza.

Bestalde, badakigu oraingoan kausitu ez ditugun hitz franko aurkituko ditugula gero, edo ematen ditugunen aldaera eta adiera desberdinak; hemen gogoan eduki behar da galbidean badago ere, Luzaideko hizkera oraino bizirik dagoela, eta arrunt nekeza dela hizkera bizi baten, are herri bakar batekoa delarik ere, hitz guztiak biltzea, jakina den bezala hiztun batzuek besteek ibiltzen ez dituzten formak baliatzen dituztelako, izan duten bizimoduaren eta lanbidearen arabera, erraterako. Ez diogu, halarik ere, hitzak biltzeari utzi gogo eta ondoko beste argitaraldi batean, araiz, hemengo honek eskas dituen itemak bilduko ditugu. Hola izanen ahal da! Agian bai.

Hiztegiko sarrerak beltzez eman ditugu eta, hitza bizirik dagoenean, azentua ezarri diogu, arrunki bakarra, nagusia, baina inoiz bigarrenkaria ere idatzi dugu, edo maila bereko bi azentu. Hitzak tilderik ez izateak, azentu grafikorik ez eramateak erran nahi du ez dugula belarriz jaso, ez dugula hizkera bizitik hartu, Luzaideko euskaraz arduratu diren ikertzaileek egindako lanetarik edo gorago aipatu ditugun gutunetarik baizik. Gauzak argitze aldera, erreferentzia ematen dugu beti, hots, datuak nondik hartu ditugun zehazten dugu, non ez den oraino bizirik dagoen elea, baina holakoetan azentua agertzen da, erran moduan. Aldaera bat baino gehiago daudenean, denak ematen ditugu, era batera edo bestera, eta beharrezko iruditu zaigunean edo irispidean genuenean etsenplua ere sartu dugu, ez kasu guztietan halere, ardura alferrik delako eta artetan adibiderik eduki ez eta gerok sortzeko gauza ez ginelako.

Bestalde, erran behar dugu transkripzio erdi fonetikoaren egiten hasi ginela, zehaztasun eta xehetasun zurrean, baina informatikaren munduak daraman ziztuak hastean generabilen letra mota fitexko zaharkitua utzi zuen, eta idazten errazagoa den sistemara igaro ginen: idazkera ohikoa da orain, eta bakarrik goranzko diptongoak irudikatzen ditugu, ohikoa denaz landara. Adibidez, *familiatu* ‘familia egin edo izan, ezkondu-eta haurrak ukan’ *familjátu* izkiriatu dugu, azentuekin, bizirik dagoenez geroztik, eta diptongoz ebakitzen dela adierazten duen <j> horrekin. Hots, eta transkripzio osoa eginez, [familjátu] erraten dela eman nahi dugu aditzera. Era berean, *gawérdi* eman dugu, ez *gauerdi*, tildearekin hitza bizirik eta onik dagoelako, eta <w>-rekin jatorrizko bokal osoa kontsonante erdi bihurtu delako.

Sarrerak ia beti mugagabe ematen ditugu, salbu beti edo gehienetan pluralean ibiltzen den hitzen bat denean. Hemen jakin beharra da oinarriak artikulua hartzean, edo deklinabide hondarkia, bukaerako bokal osoak bokaltasuna galtzen due-



la eta soinu irristari bilakatzen dela: *ahalge* + *-a* > *ahálgja*, *buru* + *-a* > *búrja*, argibidez, baina hau azalpen sinkronikoa da, diakronikoki tartean [j] soinua izan delako, hitz bukaeran *-u* zegoenean behintzat (cf., gainera, *ké* baina *kéja*): *buruja* > *búrja*, *eskuja* > *éskja*...e.a. Hau adizkietan ere gertatu eta gertatzen da, menderagailua hartzean: *du* + *-ela* > *dujela* > *djéla* > *díla*, erraterako, baina gaia kasuz kasu aztertu behar litzateke, eta hiztegia ez da horretarako leku egokia. Honetaz Salaberri (2000) eta Kamino & Salaberri (2004) ikus daitezke. Orain artekoak erran nahi du, bestalde, *giél*-en tankerakoak hiatoarekin ahoskatzen direla, [giél] alegia. Hone-lakoak ohikoak dira, baina ez orokorrak, tarteko kontsonanteren bat erori denean. Beheranzko diptongoak, arazo informatikoak tarteko, ez ditugu inola ere irudikatu.

Luzaide muga herria izan da eta horregatik, hain justu, dago euskara egun dagoen egoeran: muga eta aduanaren kariatara ehunka erdaldun jin ziren herrira eta zenbaitek berehala alde egin bazuten ere, beste anitz Luzaiden plantatu ziren eta familiatu. Edo familiatu eta plantatu, gauza bera baita hondarrean. Manezaundik erraten duenez (1990: 241) Arnegiko jendarmak euskaldunak izan dira beti, ez biziki urrunekoak gainera, baina Luzaideko karabinero eta funtzionarioak lekutakoak ohi ziren, erdaldunak. Bestalde, frantsesarekiko ukipena handia izan da Donibane Garazira joera zuen eta duen herri honetan, eta, beraz, ez da mirestekoa Luzaideko euskarari ibiltzen diren mailegu ugarietarik anitz frantsesetikakoak izatea, eta Iparraldean frantsesaren nagusitzea hain zaharra ez denez gero, ez da harritzeko orain gainbehera amiltzen hasia den gaskoiaren eta beregainki honen dialektoa den biarnesaren eragina oraintsu arte Luzaideko hizkeran nabarmena izatea. Hau dela eta, Manezaundi luzaidar idazlearen «orotzapen zaharrak» izeneko kontakizuna irakur daiteke (1990: 79-81), adibidez.

Maileguez kestione, bakoitzaren etorkiaren berri ematera entseatu gara, baina alde-aldeko lana burutu gabe, hori egiteko gai ez garelako: hitz batzuen jatorria argia da (*míta*, frantseseko *mite* ‘pipia’-tik, *papillóta*, biarnes-gaskoiko *papilhote* ‘tximeleta’-tik, *póstre*, gaztelaniako *postre* ‘otorduburukoa’-tik), beste batzuen gaztelanian eta frantsesean xerka daiteke (*adorazjón*), biarnes-gaskoian eta frantsesean (*adréza*), edo biarnes-gaskoian eta gaztelanian (*kanbjátu*). Beste batzuen, azkenik, iluna da, guretako segurik, ez baikara, pentsa daitekeenez, Iparraldeko latin hizkuntzetan adituak. Norbaitek ausardia handiegia erakutsi dugula iritziko dio eta menturaz arrazoia duke, arrazoia handia, baina gure xedea ez da izan hitz guztien jatorriaren erroraino iristea, nonbaiteko edo nolabaiteko arraiza genuenean irakurleari hitzen nondikakoa pittin bat azaltzea baizik, gauzen hobeki konprenitzeko. Ez dira gutxi, ikus daitekeen bezala, galdera markak arlo honetan.

Hitzen adiera emateko tenorean ez dugu azalpen luze-gogaikarririk sartu nahi izan. Gurea hizkera baten hiztegia denez geroztik, batuan ibiltzen den hitza eman dugu gehienetan, baita Luzaiden eta estandarrean hitz bera ibiltzen denean ere: *baztértu* ad. (*da-du*) *Baztertu*, *bazterrera* egin; *ezpáin* iz. *ezpaina*; *itsusi* izond. *Itsusia*; *zaharrérja* iz. *Zaharrerria*...e.a. Norbaitek zalantza bat badu *Orotariko Euskal*

*Hiztegia*-ra edo egun aski ezagunak diren beste hiztegi batzuetara jo dezake, argitasun eske. Bestalde, zenbait aldiz adiera gaztelaniaz eman dugu, hobeki uler zitekeela iruditu zaigunean, partikulazki esamoldeen kasuan.

Bukatzeko, erran nahi dugu maizkara Luzaideko gutunetako pasarteak ez ezik Iparraldeko literaturako idazleak eta testuak ere ekarri ditugula hiztegiara. Luzaideko euskara mugaz haraindikoa da, Garaziko gainerateko herrietakoetarik hurran dena, Arnegikotik partikulazki, bi herriak onddo-onddoan izanik bien arteko harremanak ardurakoak eta usuak izan baitira beti. Adibidez, Peio Kamino Kaminondoren amatxi Ondarrolakoa zen, legez Frantzia baina elizaz Espainia den auzokoa; frantsesik, ordea, ez zekien batere eta espainola kutsua baizik ez. Sorterriko euskara, ordea, xarmanki ematen zuen. Horregatik, Luzaideko hizkera ukitzean erreferentziak gehienetan Iparraldeko autoreei egin dizkiegu. Artetan, halarik ere, ekialdeko ezaugarri franko aurkezten dituen Joakin Lizarraga Elkanokoa aipatzen dugu, hitz bat edo esamolde bat Iparraldetik Iruñerriraino hedatzen zenean.

**HIZTEGIA**

---

## A

- aarrósi, arrósi** *iz.* Aharrausia, ahozabaltzea / **arrósi ín ad.** (du) Aharrausi egin.
- aarrósika aizán, arrósika aizán ad.** (da) Ahozabalka ari izan.
- abandonátu ad.** (du) Utzi (espainoleko *abandonar*-etik edo frantseseko *abandonner*-etik): *Trástu háundi bát zén gizón húra, tá háurrak tá máztja abandonátu tá Améike-tat jwántzén.*
- abantáila, ahantáila** *iz.* Abantaila.
- abantzátu, ahantzátu** 1- *ad.* (da) Aurreratu, aitzinatu: «Artuake ari tuxu anitz ahanzaten, izigarriko beruak in tixi» (MA), 2- *izond.* Aurreratua, aitzinatua: *Béhi ernári hóri frángo abantzátja úk.*
- abantzu, ahántxu, ántxu adond.** Abantzu, ia-ia: *Lán háu ántxu ína íxit, behála jwáin núxu.* Luzaideko eskutitzetan *abantzu, ahantxu* ageri da, ‘aurreraturik’ adieraz: «...eta urte xaharra abantzu baita, desiratzten dauziet familia guziaín izenian urte berri hun baten pasatzeko grazia, konbeni diren guziekin» (AB), «orai urte xa[ha]rra ahantxu baita, desiratzten deat heure familia guziaikin urte hun baten pasatzeko grazia» (AB) / **abantxuño, antxuño adond.** Ia-ia: *Antxuño finítja íxju* ‘pixkatxo bat falta zaigu bukatzeko’. Satrustegik (1963-64: 255) *abantxu* eta *abantxuño* bildu zituen.
- abár** *iz.* Su egiteko adarra (≠ **adár** aziendena, zuhaitzenak eta ‘adabegia’). Salaberri Ibarrolakoak dio (1856) bakarrik sua egitekoa dela.
- abarkéta jwán ad.** (da) Abar bila joan.
- abarrikátu ad.** (du) 1- Txikitu, abarrakitu: *Hárrjak baztér gúzjak abarrikátu txí,* 2- Izorratu, joditu: *Úljek abarrikátja níxje* (‘las moscas me están jodiendo vivo’);
- íten báute botíga bérri bát béstjak abarrikátuko txjé.*
- abarzama.** Luzaideko arotzaren kontu liburuan ageri da (Satrustegi, 1969: 93, 258): «oguei abarr zama», «zazpi abar zama», «oguei abar zama ecainian».
- abéla** *iz.* Habaila. Etxaidek (1989: 188) jasotzen du.
- abéndo** *iz.* Abendua.
- aberastasún** *iz.* Aberastasuna.
- aberástu ad.** (da-du) Aberats bihurtu.
- aberáts** *izond.* eta *iz.* Diruduna.
- abére** *iz.* Zaldi jendea: zaldi, behor, mando eta astoa.
- abíl** *izond.* Buruz argia, azkarra, ernea: *Denbóraz abílak zirénak estudjátzea Irúñeat jwáiten zítxun.*
- abillón, abillun, babillun, pabillón** *iz.* Satrustegik dio (1963-64: 260, 1969b: 22) lau isuriko teilatua dela, baina guk ez dugu bildu ahal izan. Nolanahi ere, aski bitxi suertatzen da *-ill-* segida hori Luzaideko euskaran, despalatalizazioa edo palatalizaziorik eza delako nagusi. Badira, halarik ere, salbuespen bakan zenbait (*óllwa, ollárra, ollánda, olláskwa*).
- abís** *iz.* Torlojua (frantseseko *un vis*-etik?): *Traktórrai abís bát eróri záko.* Luzaideko arotzak ere ibiltzen zuen (Satrustegi, 1969): «Bi abis» (135), «buztarri bat arriñatu abisaiquin» (150), «granpoin bat bi abisequin» (202).
- abisátu ad.** (du) Gaztigatu. Ondarrolako eskutitzetan behin *gazitigatuco* ‘gazitigatuko, abisatuko’ ageri da (Satrustegi, 1971: 294).
- ábjan izán ad.** (da) Martxan egon: *Zé, mézát ábjan (xírea)?*

**abjátu** *ad.* (da) 1- Abiatu: «Ez diakixut jina den; hura abiatzen delaik jinen gitxu. Jinkuak nahi badu egoin gitxuxu bulttat goxoki» (MA); ikus **partítu**. 2- Hasi: «Gizonak ari tuxu ihatzian, bana orai ja usuak abiatu tuxu eta badakizie zer pasatzen den hemen» (MA). Inesiboarekin eta adlatiboarekin ere ageri da: «Bidarteko Anastasia untsatia duxu, abiatia duxu mezan; Aña Marire polliki», «kaderatik erori eta geroztik medikiare ibilia dixie eta injizione zenbait eman eta gaizkonduik egona duxu. Orai abiatia duxu mezat, bana anitz galdu dixi» (MA).

**abjón** *iz.* Abioia. Luzaideko eskutitzetan *abio-na* eta *abionia* azaltzen dira.

**abokát** *iz.* Abokatu.

**abriztu** *iz.* *Zakúrrer íten zén xístja, ezpáinak biribíldu gábe íten déna, zombáit aldíz érkak sártuz.* Azkuek arriztu dakar / **abriztu ín** *ad.* (du) Abriztu egin.

**abriztuka áizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Abriztuka aritu, hasi, ibili.

**aburrítu** *ad.* (da-du) Aspertu, pixka bat nazkatu. Cf. Luzaideko gutunetako pasarte hau: «Treineko tenoriarin bea aburrituik egon ninduxun; gero X gibealeat juaiteko tenoria frango justian [t]zixin» (AB).

**adáilu** *iz.* Adreilua. Cf. eskutitzetako pasarteño hau: «X gaitzeko obran ari uxu gaineko pisuan; denak, paeta guziak, karrakatuik, artemurru guziak botaik, denak adailiekin in omen txi eta zoladurak plastratu» (AB).

**adár** *iz.* 1- Zuhaitz adarra, 2- Azienden adarra, 3- Adabegia. Ikus **abár**.

**adarbíldu** *iz.* eta *izond.* Aziendetan, ardietan partikulazki, adarrak barnerat sartuak dituen: *Égun góizjan harrapátu íxit érdik adarbíldu hóri.*

**adarmótx, adarmótx** *iz.* eta *izond.* Aziendetan, behietan eta ardietan, adarra hausten duenari erraten zaio *adarmótxa*.

**adarrukáldi** *iz.* Adarkada, adarrekin ematen den kolpea. *Áurten, sanfermínetan, zezén baték izígarriko adarrukáldja emántzakón toréro ménts báti, áski zín hainbéste ez hurbíltzja!*

**adarrukáldika aizán, hási, ibíli** *ad.* (da): *Entzjérotan, izáiten dén jendeáldjaikin, estonátzeko úxu zezének, adarrukáldika*

*hásten djélaik, nóla ezutén jénde géjo garbítzen.*

**adarxabál, adarxaál** *iz.* eta *izond.* Aziendetan, ardietan partikulazki, adarrak kanpo aldera ateraiak dituen: *Aurténgo sanfermínetako zezénak adarxaáalak zjén gejenskwénak.*

**adín** *iz.* Adina: *Bordérreko mutíko gejena ené adínekwa úxu; Péjo éne adínsukwa dá.*

**adjó, ajó.** Agur: *Adjó, bestáldi bát artjó; adjó zjén* (bat baino gehiago daudenean).

**adorátu** *ad.* (du) Adoratu, gurtu.

**adorazjón** *iz.* Adorazioa, gurtzea (gaztelania-ko *adoración*-etik edo frantseseko *adoration*-etik).

**adrét** *izond.* Trebea (biarnes-gaskoiko *adrét*-etik).

**adréza** *iz.* Helbidea (biarnes-gaskoiko *adrésse*-tik edo frantseseko *adresse*-tik).

**adrezatu** *ad.* (da) Zuzendu (biarnes-gaskoiko *adressà*-tik edo frantseseko *adresser*-etik). Luzaideko gutunetan ageri da: «X lanik gabe beti; orai juana duxu Bilbaorat, lehengo X-in familiari adrezatuik» (MA).

**adwána** *iz.* Aduana.

**aétx** *iz.* eta *izond.* Aetza, Aezkoakoa. Ikus **ferblankier**.

**afáite-** *iz.* Afaltze-: **Afáiten aizán** *ad.* (da) Afaltzen ari izan / **afáitea jwán** *ad.* (da) Afaltzera joan / **afáitetik jín** *ad.* (da) Afaltzetik etorri / **afáiteko adlag.** eta *izlag.* Afaltzeko / **afáitean adlag.** Afaltzean. Nola baitaiteo aditza ere izan daitekeela dirudi: *Gúk béti tenóre bérjan afáiten dú.* Dena dela, bestelako aldietan **afáldu** ibiltzen da: *Bíhar tenóre húntan afálduko dú.*

**afáldu** *ad.* (da-du). Afaria hartu: *Xarmánki afáldu ginén ostátu hórtan / xarmánki afáldu gínin Donjánen.* Ikus **afáite-** eta **bazkáldu**.

**afaltjár, afaltjér** *iz.* Afaritarra jin edo jinen dena: *Zónbat afaltjár zinezén bárdá?*

**afári** *iz.* Afaria: *Zé afári edérna ín ginín Donjánen.*

**afér** *izond.* Alferra. Ikus **gohótx / afér gohótxu** *izond.* Arrunt alferra: *Errínt bérria afér gohótxu bát dúxu; hígi ádi hórtik úrde afér gohótxja.* Cf. Patziku Perurenaren «Gorotz usaiari gorazarre» artikuluxkako hau (*Euskaldunon Egunkaria*, 2000ko maiatzaren

5a): «Altzadi ortik demonio gorotza! Eun guzin pikoik yo gabe so alfer gorotz ori».

**aféra** iz. 1- Kontua, gaia, 2- Mugimendua, espantua, 3- Arazoa (frantseseko *affaire*-tik). Lehen adiera etsenplu honetan du: *Bárda herriko aixkíde gúzjak bíldu etá lanéko aférez mintzátu ginén*. Halaber Manezaundiren honetan (1990: 336): «Eta gehienak adostu ondoan, bathere samurtu gabe afera horri buruz, han gelditzen dira bere baitan erranez: “Ba, ixilaraziko diat ba, emaztia, moltsa gizen hunekin”». E. Etxamendiren ondoko aipuan ‘mugimendua’-edo da (1988: 25): «Oilo koloka ukuluan zabilan, klok, klok, klok, dena afera». Luzaideko gutunetako honetan, berriz, ‘espantu handian’ edo da: «Hor baixie eskola berri zombaitz ina, *Escuela Laboral*. Eztiaxu bate plazer iten; le[he]n afera haundian abiatu zitxun Orrian in behar zutela, eta gero deuse. Etxu ez biziki [haur], hemengoik bizpala. Denborak errain dixi» (AB). Beste gutun honetan, berriz, ‘arazoa’ adieratik hurbil dago: «Berant bada berant hasten nuxu bi lerroin igortzen, erraiteko errezibitu niela xure bestetako felizitazioia; untsa pasatu tuxu bestak, geiagoko aferarik gabe» (AB) / **aféra gáitzjan, gáitzeko aféran adlag**. 1- Espantuka, espantu handitan, 2- Mugimendu handitan. Cf. Luzaideko eskutitzetako pasarte hauek: «...eta gero xerriteia in behar zela afera gaitzian hasi eta orai finitzeko» (MA); «Atzo gaitzeko aferetan zia[il]tatzun guardia hok; usua pasatu ta ondolik pasatu duxu gizon bat Frantzian, autua Edarretako onduan utzita. Autua ebatsia omen (t)zixin; ze trastiak dailtzan! Orai etxu nehoindako beldurrik», «egun biziki denbora ederra ixiu; etxequak ari txu soruan. Ameriketako berrik eztixiu; gaitzeko aferan igorri ziauxun jinen [t]zie-la otubr[e]z, bana ono etxu ageri» (AB) / **aférek xúxen ez izán** ad. (da-du) Gauzak ongi ez joan: *Frántzjan undárreko álđi húntan aférek ezúzte xúxen* ‘Frantzian azken aldi honetan gauzak ez doazkie ongi’ / **aféran izán, aferátja izán, aférek izán, aferátwuik ibili** ad. (da) 1- Espantu handian ibili, 2- Pixka bat asaldatu, berotu: *Zé aféran dén gúre gízóna, bakántzetako ba-*

*léntrien kondátzen!*; *zé aférek tén gúre gízónak, bakántzetako baléntrien kondátzen!*; *zé aferátja dailán gúre gízóna!* Cf. frantseseko *être affairé, s’affairer*.

**aferkérja** iz. Alferkeria. *Mutíko hórrek égún gúzja pásten díxi aferkérjan*.

**aferma** iz. Alokairua (biarnes-gaskoiko *aferme*-tik edo frantseseko *à ferme* sintagmatik). Luzaideko arotzaren kontu liburuan agertzen da (Satrustegi, 1969: 141): «Beñardoin afermatic beratia parazeco», hau da, ‘Beñardoren alokairutik gelditua ordaintzeko’. Egun, dakigunez, ez da ibiltzen Luzaiden, baina Ezterenzubiko E. Etxamendik badarabil (1988: 117) «Nik eniakoián saltzeik galditen, aferman bakarrik. Bana madarikatu hak uste zikan, hola jokatuz xerbitxu inen zaala!».

**afertu** ad. (da-du) Alfertu: *Bétti léhen izígarri langúlja zúxun, bána orái afértja úxu ánit*.

**afrontátu, afruntátu** ad. (du) Molestatu: *Pasátzjan afróntatu níxi* ‘pasatzean traba egin dit’. ABk *aforontatu* darabil, erranahi berarekin.

**afróntu, afruntu** iz. Traba, eragozpena: *Kentxíte afrúntutik* ‘ken xaitez paretik, ken xaitez bidetik’; *kadéra hóri afrúntjan dúxu hór érdjan* ‘aulki hori traban da hor erdian’.

**agéri izán, agérjan egón, agérjan geldítu, agérjan izán** ad. (da) Agertu, agerian egon, agerian gelditu, agerian izan: *Agéri íxí sobéra ján duxúla* ‘ezagun du sobera jan duxula’; *bixkár hórtaiak agéri úxu Bidóndwa*; *agérjan geldítuxú zónbat balío zín mahájak*. Maiz etorkizunean erabiltzen da, laguntzailerik gabe: *Agérikó zé pástuko dén hémen* ‘ikusiko dugu, ikusiko da, zer gertatuko den hemen’.

**Agérre** iz. Gaindolako *Agérrja*-ko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan. Bestela *-ko + pertsona izena* erabil daiteke: *Bartzelónako Péjo, Bidárteko Ferránddo, Xaindjáingo Jwanés...e.a.* **Agerrésa** iz. *Agérrja*-ko etxeakoandrea.

**agértu** ad. (da) Azaldu. *Añésez mintzátsen ái ginén eta meménto hártan agértu zén kúsjaikín*.

**ágjan** Oxala: *Ágjan eztík elúrrík inen bihár* ‘ez ahal du elurrik eginen bihar’. Azkuek (1969 [1923-33]: 257) «Luzaire»-n ikasitako «*Agian ilen aiz!* ¡jojalá te mueras!» jasotzen du. B. Etxepareren *agian* (1980 [1545]: 32) ‘beharbada’ dela dirudi: «Eta dolu ukhen baduk bertan oro barkhatu / Eta dolu hik eginen bertan berriz bekhatu».

**agorríl** *iz.* Abuztua. Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969) *aburrilian* ‘agorrilean’ ibili ohi du, eta irudi luke *agorrilean* eta *abuztuan*-en arteko nahasketa zerbait datekeela: «aburrilian einic» (144), «Achuaingo condia aburrilian» (181).

**agradezimendu** *iz.* Esker ona; Luzaideko gutunetan ageri da.

**agúrtu** *ad.* (da-du) Agortu: *Túrrí hóri agúrtuxú*. **ahágo** *iz.* Belar baten izena da: *Belár zikín bát, péntzetan ateátzen déna*. Barandiaranek dio (1974: 95) espainolez *romaza* dela.

**ahakái** *iz.* Haragitako ardia. Satrustegik (1963-64: 257) *arakai* edo *aakai* biltzen du. Luzaideko arotzak *aracai* (behin) eta *aracayo* (beste batean) darabil (Satrustegi, 1969): «Aracayo borz emerezira libera» (201), «errezibitia bi aracai» (203).

**ahál izán, ál izán** *ad.* (da-du) Ahal izan: *Nái dílaik jítén ál dá; étxeat jwáiten ál nintzán*. Cf. «...plastrian zarri ziokoxuten [zangoa], eta ono hortan delaik! Geiore ukaiten ahal zixin» (AB) / **ahál déna izán** *ad.* (da) Oso txarra izan: *Hóla bizítzjaré ahál déna úxu* ‘vivir así da asco’. Honela dio ABk: «X gaiztuare hil izan [t]zuxun, eztiakixut jakin duxun; eztukexu eskelaik ikusi. Jinkuaikin dola! Horren biziare ahal dena zuxun». Cf. Larrerren hau (2001: 95): «Elkor izaitea ere ahal dena baita, Jainkoak begira gaitzala» / **ahál gúzja ín** *ad.* (du) Ahal den guztia egin; inoiz, gutunetan, bakar-bakarrik ageri da *ahal guzja*: «Ahal guzja juaiten gituxu» ‘ahal dugun guztietan joaten gara’ (MA).

**ahálaz** *adond.* Ahal bada. Ikus **untsálaz** sarrera eta Camino (2004: 98). Cf. hau: «Beharrik ez baitut ahalaz uzten norbait jin artio» (MA).

**ahálge** *iz.* Lotsa (≠ **lótza** ‘beldurra’).

**ahalgegábe** *izond.* Lotsagabea: *Zernái erránka ái dúk ahalgegábe hóri!*

**ahalgegabekérja** *iz.* Lotsagabekeria.

**ahalgetór** *izond.* Lotsatia: *Ostátu hórtako xer-bitxárja étxu báte ahalgetórra, tupéta háundja báxi*.

**ahalgétu** *ad.* (da-du) Lotsatu. Cf. letretako pasarte hau: «Eskerrak emaiten dauzkixut igorriak dazkiatxun letra guziendako; nihaur ahalgetzen nuxu, eta azkenian deliberratu ixit bi lerro in behar dauzkixutal» (AB).

**ahalingárrí** *izond.* Ahalkegarria. *Ahalingárrí dá nóla daitzán egúngo gáztjak*.

**ahán** *iz.* 1- Arana, 2- Aranondoa / **ahán berdaílún** *iz.* Aran mota bat, gaztelaniaz *claudia* deitzen dena. Lhandek (1926: 143) *berdaílun* ‘reine-claude’ dakar.

**ahapáldi** *iz.* Iraina: *Zé ahapáldjak erráiten dázkjatxun!*

**ahápeka adond.** Ahapetik / **ahápeka aizán, mintzátu** *ad.* (da) Ahapeka aritu, mintzatu: *Ahápeka mintzátzen ái dá Péjo*.

**ahápetik** *adond.* Ahapeka, apal: *Béttik ahápetik errántzjákoxon jwántzán zakúrrain púrdira* ‘Bettik ahapetik erran zioxun joan zedin zakurraren ipurdira’ / **ahápetik aizán** *ad.* (da) Ahapeka, isilka ari izan.

**ahapílo** *iz.* Tresna baten ahoa. Satrustegik (1963-64: 255) *aapilu* bildu zuen.

**ahári** *iz.* Axuri arra. Cf. **márro**.

**ahárre** *iz.* Liskarra. Satrustegik (1963-64: 255) ‘riña’ adiera ematen dio.

**ahárran áizán** *ad.* (da) Liskarrean ari izan. Añes Kaminondoren arabera bakarrik animalien arteko borroka da: *Bixkáiko zakúrra etá Unajáingwa ahárran ái txú, kalapíta górrjan*.

**aháte** *iz.* Ahatea.

**ahatéki** *iz.* Ahatekia, ahate haragia.

**ahátxe** (eskuarki), **ahátze** (gutiatogan) *iz.* Aratxea. Manezandik eta ABk *ahetxe* ibiltzen dute, eta MAK *ahatxe*. Cf. etxenplu hauek: «Erraiten daxu hor ahetiaki ze prezio iten din (AB); «hemen ez dixie ez ahatek hor bezanbat iten ohono» (MA). Aratxeetan **ohótsa** ‘arra’ eta **urríxa** ‘emea’ bereizten dira.

**ahatxéki** *iz.* Zekorkia, zekor haragia.

**ahátzi** *ad.* (da-du) Ahantzi: *Ahátzi zják kártzja libúrja*. Cf. letretako pasarteño hau: «Frantzesen egunian izan nuxu Orrian; untsa

ohitu ninduxun ene familia guziez. Andre Dena Mariain aitzinian etxintuan ahazti; otoiitz inixin denendako» (AB).

**ahazkór** *izond.* Ahanzkorra, ahazteko joera duena.

**ahaztorrátu** *ad.* (du) Erdi ahantzirik izan. *Hítz háu aháztorrátja níxin.* Satrustegik (1963-64: 255) *aantzorratu* dakar; Azkuek *ahaztoratu* ‘comenzar a olvidar’ biltzen du.

**ahíde, aíde** *iz.* Ahaide. Ikus **askazi, jendáki** eta **urrún**.

**ahidégo, aidégo** *iz.* Ahaidetasuna. Hau da usaiako hitza. Ikus **aidántxa**.

**áho** *iz.* 1- Ahoa, gorputzekoa, 2- Tresna baten ertz zorrotza. Luzaideko arotzak *ago* izkiriari du behin eta berriz (erraterako, «aizur bat zabala agoyoric» ‘aitzur bat zabala aho jorik’, Satrustegi, 1969: 232) hain segur ere [*áho*] adierazi nahi zuelako, ez franko zabaldurik dagoen [*áyo*]. Izan ere, egun hitz honek duen aspirazioa arrunt gogorra baita, gaztelaniako *jota* delakotik hurbil dagoen soina, alegia. Cf. «Pedrogan garbayo» ‘Pedro Juan Garbayo’ (ibid., 157), «condiac einic sanguanez» ‘kontuak eginik Jaun Done Joane egunean’, «gabi(e)rren condia buruilian asia» ‘Jabierren kontua irailean hasia’ (ibid., 230). Nolanahi ere den, Satrustegik (1969b: 41) *ago* bildu zuen ondoko haur igarkizunean: «Agotik so egin eta kostelet guziak ageri» (labea) / **aho barne** *iz.* Maren eskutitzetan ageri da: «Egon nuxu hamabots bat egunez arras fattalian; zintzurretik lotu zuxun eta jateko gutiziaik bate gabe, eta gero jateko gutizia ba eta ezin jan, aho barne guzia zaurtia níxin, mihi gainak eta denak» / **ahoa luze izan** *ad.* (da) Luzea izan. Maren gutunetan ageri da: «Beharrik xerriak untsa gizenduik hiltzen baititu, urtiak ahua luze baitu» / **ahóz góra, ahóz góiti** *adond.* Ahoz gora: *Ahóz góiti ló djóxo / ahoz aho adond.* Bekoz beko, aurrez aurre eta sekretuan. MAK darabil: «Enfin, hok erraiten daukitxut ahoz aho bagina bezala», «ez níxin ez erran behar, ahoz aho ari bagina bezala erraiten dauxut». Ikus **mihiz, míhi** sarreran.

**ahoáundi** *izond.* Aho handia, ahoberoa: *Zé ahoáundja hízan!* Ikus **espántuáundi**.

**ahoberritu** *ad.* Luzaideko arotzak dakar (Satrustegi, 1969) *agoberritu* idatzirik. Ikus **áho** sarreran erran duguna: «Pala bat agoberrituric» (142), «pala bat: agoberritu macharro bat arriñatu» (254). Ikusten denez, beti palak *ahoberritzen* ziren. Ikus **aztalberritu, begiberritu** eta **buruberritu**.

**ahoyo** *ad.* Luzaideko arotzak darabil, kontino (Satrustegi, 1969): «Aizur bat agoyoric» (139), «aizur bat eracachi, bat alzairatu, bat agoyo» (140). ‘Lanabesen ahoa pikatu’ adiera duela irudi du; Satrustegi (ibid., 271) ‘rectificar el corte’ dela dio.

**ahosári** *iz.* Aho-sabaia.

**ahóspeska, aóspeska** *adond.* Ahoz behera: *Háurra aóspeska ló djóxo.*

**ahótz, aótz** *iz.* Arotza.

**ahozikín** *izond.* Sakreka mintzo dena: *Hágo ixilik urde ahozikín ustéla, etzákala hólako astokérjaik errán!*

**ahózko** *iz.* Arozgoa, arotzaren lanbidea.

**ahúl** *izond.* Goseak ahuldua, goseak flakatu. Ikus **fláko**.

**ahúldu** *ad.* (da-du). Goseak flakatu: *Présta záxu afári hún bát, ahúldja bainíz.*

**ahulézja** *iz.* Partikulazki goseak eragindakoa denean erabiltzen da: *Góiz gúzja ján gabé njóxo éta baíxit alimáleko ahulézja.*

**ahúntz** *iz.* 1- Animalia, 2- Supazterean jarria egotean zangoetan ateratzen diren gorriunak. Erdaraz *cabra* erraten zaio eta Goizuetan *antxume*. Etxaidek *bi háhuntz* ‘bi ahuntz’ biltzen du (1989: 386), baina guk biziki drole kausitzen dugu forma hau, 3- Erabakigarri suertatuko den partida, musean; erdaraz *cabras* erraten diote.

**ahúña** *iz.* Antxumea. Ikus **pittíka**.

**ahúr** *iz.* Ahurra. MAK *ahurrain laxatzea* ‘dirua gatatzea’-edo darabil. Ikus **laxátu**.

**ahútra** *iz.* Ahurtada: *Kárrak ahútrat ártopikór.* Etxaidek (1989: 203) *ayúrra* bildu zuen.

**áida** *interj.* Behiei aitzina joateko erraten zaien hitza: *Áida béhja!*

**aidántxa** *iz.* Ahaidegoa; behin aditu dugu.

**aíen** *iz.* Satrustegiren arabera (1963-64: 256) ‘esqueje, sarmiento’ da. Bi mota bereizten ditu, *aíen beltxa* eta *aíen xuria*.

**aingéru** *iz.* Aingerua. Bonapartek (1881: 162) *ainguru* biltzen du, baina egun *aingéru*



- erran ohi da. Guztiaz ere, kontuan hartu behar da Etxaidek (1989: 205), oker edo zuzen, *aingurja* jaso zuela. Eskutitzetan *aingeru*, *aingeria* agertzen da.
- aingira** *iz.* Aingira.
- aiotz** *iz.* Aihotza. Luzaideko arotzak darabil: «Bi ayo azogoyoric», «bi ayoz eracachi», «ayoz bat eracachiric» (Satrustegi, 1969: 117, 146).
- aipaaldi** *iz.* ABK darabil, behin: «Izan gintxun Alemanian atsalde batez eta Berdunen, hamalauko gerlan zenbait aipaaldi emana».
- aipátu** *ad.* (du) Zerbait ahotan hartu: *Xahárrek béti gázte dénborako gáuzak aipátzen txjé; etzaxúla áipare!*
- airátu** *ad.* (da-du): *Arbóla hártan úso át airá-tu zítzjájun.*
- áire** *iz.* 1- Iria: *Jínen gitúk egwérdi áire hórtan; jínen gitú zórtzjak áirjan.* Cf. MAREN hau: «Pedro Ferraneke jin behar omen dixi seurki. Sarri primadera aire horri jinen tuxu seurre, orai negia baita eta eguna labor». Aezkoan eta Alduden ere ibiltzen da era honetan (Camino, 1997: 314), 2- Airea: *Ganbára húnek áire fréskua beháixi, 3- Doinua.* Cf. Ondarrolako Pedro Juan Etxamendi «Udiri»-ren hau (2004: 209): «Guk (Airia) erten dugunari Españako partian erten diote (Doñua)» / **áirez áire jwán, áire míla demónjo jwán** *ad.* (da) (esam.): Fite, laster joan: *Áirez áire bádjatzik úrtjak! = áire míla demónjo bádjatzik úrtjak!* Ikus **ehún déurrjen zítzjan jwán** eta **zálu**.
- airegáixto** *iz.* Tximista: *Jwan dén igándjan airegáixto aték híl dázku ánitiz árdi.* Satrustegik (1963-64: 256) *-s-dun* forma biltzen du (*airegaisto*).
- airetikáko** *iz.* Airetikakoa. Ezezko perpaus honetan ibiltzen da, zaizkikoa dela adierazteko: *Etxí airetikákwa 'de casta le viene', 'de raza le viene'.*
- airós** *izond.* Alegera edo. Arropekin, jendeekin ibiltzen da: *Údan néskek arrópa airósak eremáiten dúzte.*
- áisa** (normalean), **áise** (inoiz edo behin). Aditxondoak ohi dira; izenondotzat **aiséta** (arrunki) eta **erréx** (artetan) erabiltzen dira: *Ibáñetatik pástu ginén áisa.* Bestalde, 'zaila da' adierazteko *etzá áisa* erraten da ardura. Nolanahi ere, Satrustegik (1969b: 80) adjektibotzat bildu zuen «saldurik! Lanik aisena inik» esaldian.
- aisáski** *adond.* Franko aise: *Lán hóri aisáski ínén dúzje, hainbéste jéndeikin.*
- aisérja** *iz.* Bizi eroso. *Péjo aisérjan bízi dá, lán gúti eta sós ánitiz.* Manezaundik ere ibiltzen du; cf. aipu hau (1990: 64): «Emeki, emeki, sos pilixta bat bildurik, artalde baten yabe egin zen, eta gerla haundiaren denboran ardiak nahi zuen prezioan saldurik, itzultzen zen bere sor-xokorat, ez abetrats okitua, bana bizia aiserialan iragaiteko doian, eta etxalde baten erosteko xedean, bere betiko ametsa ardiesteko».
- aiséta** *izond.* Erraza: *Háu lán aiséta úxu 'hau lan erraza da. Ikus áisa eta erréx.*
- aisetásun** *iz.* Erraztasuna. *Mutíko hóri eskwáraz mintzátzen dá aisetásun háundiaikin, áita bezála.*
- aiséz** (< *aisa, aise* + *ez*, irudi duenez). Hau **éztó, éz oixó**-ren parekoa da: *–Eztukála kausítzen háu nóla dén! –Éz, aiséz ('!no, qué va!), kausítu gábe!; –Eztákixula nóla értén dén «supurar» eskwáraz! –Éz, aiséz, kárrí értén dúxu.*
- áita** *iz.* Aita. Deikietan *aitá* erraten da / **áita famíjako** *iz.* Familiako aita, aita, etxe burua edo etxe burukidea (frantseseko *père de famille*-tik segur aski, Iparraldeko idazleek usu ibiltzen baitute, baina espainoleko *padre de familia* ere hor da). Ikus **áma famíjako**.
- aitagúre** *iz.* Aitagurea (otoitza).
- áitajarreba** *iz.* Aitajinarreba.
- áitalábak** *iz.* Aita-alabak. Luzaideko arotzak ere badarabil: «Alabac bi egun arto yorran aita alabac egun bana» (Satrustegi, 1969: 255).
- aitámak** *iz.* Gurasoak. Luzaideko gutunetan *aita-amak, aita-amekin, aita-amer...* eta beste ditugu, baina *aitamen etxian, aitamekin* ere bai. Inoiz, gainera, *aita eta amak*-en modukoak ere ageri dira. Satrustegik *gurasoak* jasotzen du (1969b: 67), baina ez dugu uste ele hau Luzaidekoa den.
- áitasémjak** *iz.* Aita-semeak. Cf. ABren hau: «Xu gu bano kunplítio izan xira gure aita-semen felizitatzeko». Arotzak ere bazerabilen: «Eiaran egun bat aita semec» (Satrustegi, 1969: 209).
- aitátxi** *iz.* 1- Aitona, 2- Aita besoetakoa: «Izan gituxu Ximon eta ni Arbonan Karmeloin

haurrain bataiotan; alabañoat baixi pollita. Ximon zuxun aitaxi» / **aitáxi xahár** *iz.* Birraitona. Satrustegik (1969b: 67) dio *aitaxi xaharra* eta *amatxi xaharra* aiton-amonak (*los abuelos*, hitzez hitz) aipatze-ko bidea dela.

**aitatxitu** *ad.* (da) Aitaxi egin, bihurtu: «Fiersko zira, ba, aitaxiturik! Eta bietan ohono, sematxia baizinin!» (Satrustegik biltzen du, 1961: 225), «Don Jose Mari anitz lane-tan diailaxu, aitatxituik. O[ho]re haundia izan dixi; besta ederra zelebratu zixien araz».

**aitórtu** *ad.* (da) Aitortu, baina ez elizan: *Undárrjan aitórtu zixin bérak ebátsi zila óllwa*. Ikus **koosátu**.

**áitu** *ad.* (du) Aditu: *Gizón zahár hórrek gérlan izantzénetik etxi jaeré áitzen*. Ikus **entzún**.

**aitxintxáki** *iz.* Ardiei belarran egiten zaien marka, ebakia. Ikus **gjeltxáki** eta **sáki**.

**áitzia izán** *ad.* (du) Entzuna izan: *Áitzia baí-xit badéla médiku izíggarri hún bát Bajóna áldjan*.

**aitzín, aintzín** *iz.* Aurrea. *Ai(n)tzína* ‘aurrera’, ‘aurrerantzean’. Ikus **éla**. MAK pare bat aldiz *aitzinea* darabil, baina aruntean *aitzina* ohitu du: «Fontsian hilaindako berdin baliu dixi; nor bera untsa presta dailela Jinkuain aitzinea juaiteko»; ABk beti *aitzina* du. *Ai(n)tzínjan* ‘aurrean»; aditz batekin ere erabil daiteke: *Láneat jíteko aitzínjan ógi puxkát erósi íxit askáiteko*; «Don Pepe izan [t]zuxun Romat juaiteko aitzinian; bi egun pasatu zi[t]xin, Pedromarinian» (AB). *Ai(n)tzínetik* ‘aurretik’, *ai(n)tzíneko* ‘aurreko’, *ai(n)tzínako* ‘geroko, aurreragorako»: «Axuriak ohono ez dixiu kenduik biziki, bana uzten tixie ahal guziak aitzinako» (MA). Batuko *antzina lehen* erraten dute. *Aitzíne hórta*n ‘lehentxoago»; Luzaideko gutunetan agertzen da (AB): «Aitzine hortan izan zixin bulta [t]xar bat, bana pasatu zitziakoxun, eta berriz huneat eman dixi»; *aitzíneño hórta*n ‘justu-justu lehena-go»: *Jwanési atáke át emántzjakoxón ostátjan zélaik, aitzíneño hórta*n *enékin eláka aizána zúxun*.

**aitzinaméndu, aintzinaméndu** *iz.* Aurrerape-na: *Aitzinaméndu gáitza ín díxju hérrjan undárreko úrte húntan*.

**aitzinátu, aintzinátu** *ad.* (da-du) Aurreratu, aurrera bultzatu: *Gúre mutíkwa matemáitketan frángo aitzinátu dá; háur hóri ánitiz aitzinátu úxu*. Cf. pasarteño hauek: «Éne iduriko sobera fite aitzinatia zuxun Iruñeko pisuain erosteá; sosa koberatutare bazixin, ba, denbora afera horietan behala plantatu gabe», «badakixu azkenian deliberatu zielela juaitia, ez hain aisa, bana amain kontseiliek etxie aitzinatu ez gibelatu. Bera aski uxu; berak kausitzen badu etxit uste gaizki izain den» (AB).

**aitzindári, aintzindári** *iz.* Burua, buruzagia. **aitzínđu, aintzínđu** *ad.* (da-du) Aurrea hartu norbaiti edo zerbaiti: *Aitzínđu xíra tá ez-táxu útzi náhi nínan ítea; ótwak kamjóna aitzínđu zixin Ibañétako bihurtgúne lanjerós bátjan*. «Barda errezibitu dixit xure letra. Nik ingo nauzun, bana aintzínđu nuxu» (AB) ‘Bart jaso dixut xure eskutitza. Nik egin gogo nixun, baina aurrea hartu didaxu’.

**aitzinekálde, aintzinekálde** *iz.* Etxearen edo beste edozein gauzaren aurrealdea. Ikus **gielekálde**.

**aitzínka, aintzínka** *adond.* Aurreraka. Ikus **giélka**.

**aitzínxko, aintzínxko** *adond.* Franko aitzina: *Nik ikúsi ordúko aitzínxko jwána zén*.

**aitzúr** *iz.* Aitzurra. Satrustegik (1969: 271) dio Luzaideko arotzak *aizur zabala, aizurroch* eta *larre aizur* darabiltzala, *yorrai* ez ezik: «Aizur bat zabala agoyoric» (232), «larre aizur bat berria» (188).

**aitzur zabal** *iz.* Ikus **aitzúr**.

**Aitzúrre** *iz.* Azoletako edo Aitzurreko zokoko *Aitzúrre*a etxeko nagusia gehienetan, baina bertako beste norbait ere izan daiteke, aitzinetik izena ezartzen bada beregainki; **Aitzurrésa** *iz.* *Aitzúrre*a-ko etxekoandrea. Mitxelenak biltzen duenez (1964: 37), *Ayçurra* Luzaideko aurkintza baten izena zen, 1284an.

**aitzurrotx, aitzurrotx** *iz.* Luzaideko arotzak darabil: «Aizurroch bat arriñaturic», «aichurroch bat eracachiric», «aizurroch bat erracachiric», (Satrustegi, 1969: 142, 147); Arruazukoaren arabera (ibid., 271) ‘escardillo de dos púas’ da.

- aitzurrukáldi** *iz.* Aitzurrarekin ematen den kolpea: *Aitzurrukáldi batéz garbítu ík zakúrra.*
- aitzurrukáldika aizán, hási, iblí** *ad.* (da): *Aitzurrukáldika ibíli txú astapíto zikín hórjek hór, ezpáitute óno elgár garbítu!*
- aitzúrto** *ad.* (du) Aitzurto.
- aixkidántza, aixkidántxa** *iz.* Adiskidetasuna. Ikus **amistantxa**.
- aixkíde** *iz.* Adiskidea. ABk *adixkide* (edo *adis-kide* menturaz) ibiltzen du eta MAK *adiskide* eta *adixkide*; Ondarrolako 1841eko eskutitzean (Satrustegi, 1971: 293-294) *adisquide* dago.
- aixkidétu** *ad.* (da) Adiskidetu, adiskide egin: *Denbóraz etzixún báte úntsa arrańátzen, bána undár áldi húntan aixkidétu txú.*
- aixtúrrak** *iz.* Aitzurrak, guraizeak.
- aizánki** *ad.* **Aizán** (< *ari izan*) aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).
- aizína** *iz.* Denbora librea: *Etxít aizínaik horrén íteko.*
- aizinátja izán** *ad.* (da) Astia eduki, astiduna izan: *Intzáxu lán hóri, aizínátu edérra baitxíra xu!* ‘egin ezaxu lan hori, denbora anitz baituxu!’; *aizínátu edérra híz hí!*; *Manéz gizon aizínátja úxu, etxí lán háundik íteko.*
- aizkóra** *iz.* Aizkora. Luzaideko arotzak «aizcora bi agotaco bat» dakar (Satrustegi, 1969: 229). Ikus **esku-aizkora**.
- aizkorukáldi** *iz.* Aizkorakada: *Gúre osébaték zakúrra aizkorukáldi batéz garbítu zín.*
- áizpa** *iz.* Ahizpa. MAK *ahizpa* izkiriatzen du: «Denboraingatik ez duxu ateatzen, Kattalin falta. Bate ez niakixun, ahizpa Madalena operatia omen dixie eta harekin egoitea juana».
- ajázi** *ad.* (du) Oihuka, oihu handika zerbait erran (*adiarazi*-tik, itxuraz): *Léhen étxe bátetik béstea zerbáiten erráiteko ojúka ártzen zjén eta hórri erráiten zakóten «ajázi»; ohítzen núxu éne háur dénboran Xapárreko séme aték nóla ajázi záun gúre béjak bére péntzjan sártjak zjéla: «Hóu, Bartzelóna, hóu, zjén béjak gúre péntzjan sártjak djéla!».*
- ajendrátu** *ad.* (du) Lortu. Zaharrek ibiltzen zuten hitza; Satrustegik ere bildu zuen (1963-64: 256). Ikus **ardjétsi**, **atrexátu** eta **kontsegítu**.
- ajuntaméndu** *iz.* Udaletxea. Ikus **Herríko Étxe**.
- ajúta** *iz.* Kolpea, pasoa / **ajútat éman** *ad.* (du) Kolpe bat eman, paso bat eman: *Emáin dját ajútat ezpaíz íxilík egóiten!* Baztanen ere ibiltzen da (ikus Salaburu & Lakar, 2005: 273).
- akér** *iz.* Akerra.
- akétx** *iz.* Aketza, apotea. Satrustegik (1963-64: 256) *aketz* bildu zuen. Ikus **ohóts** eta **or-dóts**.
- akiáldi** *iz.* Nekealdia / **akiáldja bíldu, hártu** *ad.* (du): *Akiáldi edérra hártu txju belárretan.*
- akiázi** *ad.* (du) Nekarazi: *Akiázten ái xítuta éne solásekin?*
- akidúra** *iz.* Nekea: *Háu akidúra!, lehérrina núxu!*; *akidúra hunékin enúxu xútik egóiten ál.*
- akigárrri** *izond.* 1- Nekararria, 2- Aspergarria.
- akíta** *iz.* Satrustegiren arabera (1969: 271) ‘permiso de aduana’ da (frantseseko *acquit* edo biarnes-gaskoiko *aquit*-etik). Luzaideko arotzak darabil: «Aberren aquitac beorra» (250), irudi duenez ‘abereen akitak behorra’ erran nahi du.
- akítu** *ad.* (da) Nekatu: *Nóla akítu nízán pilótan aizánezt!*
- akór(t) izán, akór(t) járri** *ad.* (da) Ados egon, ados jarri. Satrustegik (1963-64: 263) *elgar artu* biltzen du, ‘ados jarri’ adieraz.
- akordeón** *iz.* Akordeoia, eskusoinua.
- akórt éta apárt, akórtetapárt:** *Horjékilan akórtetapárt.* Honekin adierazi nahi da norbaitekin ados egon arren ez dugula berearekin ibili nahi, fidagarria ez delako edo. Baztanen ere, Arizkunen (Izeta, 1996: 214), ibiltzen da *akort eta apart*.
- akulátu** *ad.* (du) Eztendu, akuilatu: *Akulázkitxú béhi hórjek* ‘akuila itzaxu behi horiek’.
- akúlu** *iz.* Akuilua.
- ála** *junt.* Ala: *Jínen xírea ála hémen geldítuko xíra?* / **aléz** ala ez. Galderetan ibiltzen da, batuko ‘ezta?’ adierarekin: *Mutíko hóri híre herríkwa úk, aléz?*
- alába** *iz.* Alaba / **alabáño** *iz.* Alabatxoa.
- alabátxi** *iz.* Alaba besoetakoa. Ikus **semátxi**.
- alabér** *adond.* Halaber, berdin. Gure berriemaileari ezaguna zaio, baina ez daki nola

erabili. Satrustegik (1963-64: 256) *alaber* biltzen du eta «Igualmente. Contestación al saludo» dela dio. Guk Mezkitzen aditu dugu, agurraren arrapostutzat.

**aláin** Sakreetaiko indartzailea da: *Urdía aláina!*, *urdía aláin urdía!*, *zérnja aláina!*, *zérnja aláin zérnja!* Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 319).

**aláindaine.** Lokailu aurkaria da hau, nahiz adiera zehatza zein den ez dakigun. Cf. MAren pasarteño hau: «Denbora txarra du, anitz haize eta euri, negia baita. Aláindane ez dut nehorri erran, orai zuri bezik jauna, bana biziki egun trixtiak pasatu ditut ziek juan eta, eta pentsatzen dut beste zenbaiteke berdin egin duzketela».

**aláintso** *interj.* Arraioa, arranopola edo, gaztelaniako *¡vaya!*, *¡hostia!* goiti-beheiti, *alajinkwa*-ren biziki antzekoa: *Aláintso!*, *zé óto edérra erosi uzún!*; *aláintso!*, *zé espántjak íten tín astapíto háundi hórrek!* Cf. Manezaundiren hau (Irigarai, 1958: 50): «¡Alaintso! ¿Ordian egun latzak pastu dituk debru Ameriketa hortan?».

**alajínko** *interj.* Alajainkoa, alaintso: *Alajínkwa!*, *zé ajúta emántzakón erríntak pantalónetan kakíntzlaik!*

**álan aizán** *ad.* (da) Larretzen ari izan: *Béjak álan ái txú bórda gainékaldeko péntze hórntan.*

**alargún** *iz.* eta *izond.* Alarguna (gizona).

**alargúndu** *ad.* (da) Alargun gelditu: *Ordúko bják alargúndjak zjén.*

**alargúntsa** *iz.* eta *izond.* Alarguna (emaztekoa). Cf. MAren hau: «Gure kusia, Jeanne Marie alarguntsare Galerietatik zualaik lanetik, bere mobiletian Izpurako bide hortan erori omen duxu eta biziki minartia gaizki omen duxu, soinburia hautsia dila, eta buriane».

**alátu** *ad.* (da) Larretu: *Kabálak péntze hórntan alátzen túk normáljan.*

**aldaátu** *ad.* (du) Aldaratu: *Eztjákoxo bégik aldaátzen 'ez dio begirik kentzen'.* Satrustegik (1963-64: 265) *eskuz aldatua* 'fuera de sitio' jasotzen du, baina, izatekotz, *eskuz aldaatia* behar luke izan. *Sósa aldaátu* 'dirua aurreztu' ere ibiltzen da Luzaiden.

**Aldábe** *iz.* Ondarrolako *Aldábja*-ko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada,

etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan. Bestela *-ko + pertsona izena* ere erabil daiteke: *Bartzelónako Péjo*, *Bidárteko Ferránddo*, *Xaindjáingo Jwanés...e.a.*

**aldáre** *iz.* Aldarea.

**aldarrokatú** *ad.* (da) Zenbait barazkirekin ibiltzen da, hostatzen eta gorpuzten ari direla adierazteko: *Ilárrak aldarrokátzen ái díra*; *jáz bábak etzjén úntsa aldarrokátu.*

**Aldáts** *iz.* Gaindolako *Aldátsja*-ko nagusia edo bertako beste norbait; **Aldatsésa** *iz.* *Aldátsja*-ko etzekoandrea.

**aldátu** *ad.* (da) Arropa aldatu: *Lánetik izérdi trenpátwík átea níz éta bánwa étxeat aldá-tzea.* Gainerakoan **kambjátu** edo **sañátu** erraten ohi da. Larresoron ere berdin; ikus Epelde (2003: 230).

**-álde** *atziz.* 1- Multzo handia: *Enterraméndjan gáitzeko jendeáldja zúxun*; cf. MAren hau: «Kontent tuxu gure gizonak; seur sabaiak untsa beteik gelditu tuxu aurten. Ihatze aldeate baixie inik». *Artoáalde*, *belarráalde*, *egurráalde*, *ihatzeáalde*, *ilarbiribiláalde*, *ilarráalde*, *jendeáalde*, *lekaáalde*, *lúsarráalde*, *ondoáalde*, *soroáalde* edo *sohoáalde*, *sugajáalde*, *tomateáalde*, *úsoáalde*, *xixáalde*, *xoriáalde...e.a.* ere erabiltzen dira, 2- Ingurua, hurbilekoa: *atsáalde*, *sukáalde*.

**álde** *iz.* Alderdia: *Bartzelóna Luzáideko behéreko áldjan díxu.* Absolutiboan edo leku genitiboan eraman dezake: *Donjáne áldjan alimáleko hárrí eráuntsja ín díxi*; *Aurízko aldetík etxú héldu gáuza húnik / -ain áldjan, -en áldjan.* Erkaketan ibiltzen da: *Mutíko hóri bizíki háundja úxu, éne áldjan séurik.* Cf. «Manez biziki untsa diailaxu, egona den aldian» (AB), «Aña Mari polliki duxu biziki, tentsionia juan ziaokoxu eta albuminare ba; diabeta ohono ez arras, bana juain ote zako? Betire izan denain aldian bera ohono ez kontent, ez dela lehen bezala» (MA) / **áldjan béste** *adond.* Alderen alde, alderen beste: *Ihízín ái zjélaik náí gábe túrwat emán tá bés-wa pástu zakón áldjan béste / Gainekáldjan, behéreko áldjan, beherekáldian, erdikáldjan, eskwinekáldjan, ezkerrekáldjan, pekáldjan (= behéreko áldjan).*

**áldeat** *adond.* Erabat, behin betiko, behingoa: *Beháixju lána áldeat finítu* 'lana erabat bu-

katu behar dixugu'; *Améiketat jwán dúxu áldeat* 'Ameriketara joan duxu betiko, ez itzultzeko'; cf. MAren hauek: «Nahiz erreposki, hasten nuxu egun etsi-etsia xurekin lehenik eta hasian hasi in behar tutan guzien aldeat egiten», «nik ez dixit ikusi bana dioxute aldeat jinak diela» / **áldeat aizán, hártu, ibíli** *ad.* Alde batera ('a destajo') ari izan, hartu, ibili: *Lána hártu íxje áldeat; denbóra horjétan áldeat ártzentzjén oihánjan.*

**aldérdi** *iz.* 1- Aldea: *Aldérdi hórtan etxú arbólaik báte;* cf. MAren hau: «X-re paarlesia kolpe bat izanik duxu; eskuineko alderdia hartia omen, zangoa eta besoa, bana pollikiño omen duxu», 2- Partidu politikoa: *Zé aldérditakwa dá hór telebisjónjan agértzen den hóri?*

**-áldi** *atzi.* Denbora: *aipaaldi, akiáldi, ate(r)áldi, egonáldi, harroáldi, pasáldi, pausáldi, torroskáldi, ukáldi.* Ikus azken hau.

**áldi** *iz.* Txanda, aldia: *Áldi húntan eztxi gáuza húnik ín; -Zé, heméngo áldi?; -Bá, hála íxju; -Norén áldi dá órai? -Énia.* Cf. MAren hau: «Aspaldian beti zier ixkiatzia gogan, bana beti gieleat; orai jin duxu aldia» / **áldi gúziz** *adlag.* Aldi oro: *Harékin izáiten nizán (áldi) gúziz samúrtwik itzúltzentz étxeat / zombáit aldíz adlag.* Batzuetan: *Zombáit aldíz karríkan ikústén dút, mozkórtwik.*

**aldíka** *adond.* Tarteka, artetan. Cf. ABren hau: «Ikusten dixit xure letran lana frango itzulikatzen duxula eta bestalde hoinbeste bisiten errezibitzen. Untsa akitzen xira aldíka seurik». Ikus **artétan.**

**aldízka** *adond.* Txandaka: *Lán hóri bí anájen ártjan aldízka íten djáu.*

**aldizkátu** *ad.* (da-du) Txandakatu: *Hórjek aldizkátu díra lán horrén iteko.*

**áldo-máldoka** *adond.* Bestela **balántzaka** ere erraten da. Satrustegik (1963-64: 268) *ildimaldo* 'balancearse' ere biltzen du, *aldomaldoka* ez ezik.

**aldudár** *iz.* eta *izond.* Aldude herrikoa. ABk *aldudiar* darabil.

**alégera** *izond.* Alaia. Era mugatuan *alegerája* erraten da.

**alegerátu** *ad.* (da): *Gú ikústjaikin áma alegerátu zén ánit.*

**alégja déus éz adond.** Bestela bezala, itxurak eginez: *Botígan sártu zén éta alégja déus éz dénen aitzínjan járri zén lérrwan.* Aezkoako erabilerarako ikus Camino (1997: 487).

**alégja ín ar.** (du) Itxura egin: *Alégja itzín étxeat zwála, bána ostátjan sártu zúxun.*

**alegrántzja** *iz.* Poza. Ez da biziki ibiltzen. Ikus **bozkárjo.**

**alfórtxak** *iz.* Astoei-eta gauzak eramateko jartzen zaizkien zaku modukoak (gaztelaniako *alforja*-ren aitzineko aldaera batetik, \**alforxa*-ren tankerako batetik). Jendeek ere ibiltzen dituzte.

**alímale, alimále** *izond.* Arrunt handia da eskuarki, baina sakreetan 'tresna (pertsonen mintzatzerakoan)' adiera hartzen du: *Alimále déurrja úxu hóri! Errekáitu*-ren modukoa da. Manezaundik (1990: 34) 'arrunt handia' adieraz ibiltzen du, baina ez, dakigula, juramentutako: «Bainan, anartean, harramantzak yendea bilharazten du, eta multzoaren artetik agertzen da mutiko alimale bat, ukhondoka bidea idekiz, eta Gaxuxari erraiten dako (...)». Ikus **animále / alímaleko, alimáleko** *izlag.* Arrunt handia (ikus **gáitzeko, ikaragárrri, izigarri, kristóin**): *Alimáleko bés-ta ín giníxin bárdá* 'bart izugarritzko jaija, parranda egin genixun'.

**alkáte** *iz.* Auzapeza, mera.

**alkatésa** *iz.* Emazteki alkatea.

**álki** *iz.* Bankua (≠ **kadéra** 'aulkia'), elizakoak, erraterako. Etxaidek (1989: 189) *álkia* 'zi-zeilu, escaño' jasotzen du.

**alkontrárjo** *lok.* Aitzitik (gaztelaniako *al contrario*-tik). Cf. MAren hau: «...bueno ez badu erran untsa dela eta erran badu ez dezan geio erran, eta haren Iruñeat juaitiaz ez duala deuse erran. Al kontrario, niaurek igorria zela komisionia».

**alkúntze** *iz.* Alua, animalia emetan.

**alméiz** *iz.* Almaiza, motrailua.

**álo** *interj.* 1- Zera, 2- Hatozea, 'venga'. *Álo gizona, hágo géldik!; álo mutíkwa, hágo géldik, eztxika kústen lánjan ái nizála?; álo, hígi zítzte hórtik!, zé ái zítzte hór?* Cf. *arrópa xúrjak, miúsetá, álo, trápu tá gáuza xúrjak* (Euskaltzaindia, 1999: 110). Entonazio berezia du; desira adierazten duela dirudi. Ikus **áre.**

**alór** *iz.* Arto landa edo lursagar landa. Etxaidek (1989: 103) *ahórra* bixia biltzen du. Erdaraz *pieza* erraten diote.

**alorléku** *iz.* Alorra egiten zen lekua. Barandiaranek Donoztirin (1974: 45) *arbilekia* eta *ogilekia* biltzen ditu.

**alorrárte** *iz.* Bi alorren arteko eremua.

**alrêbes** *adond.* Alderantziz, aldrebes (espainoleko *al revés*-etik): *Gúk êrtên dakôu gâuzak hôla ín ditzân éta bérak dénak alrêbes íten tú bêti.* Ikus **errebés**.

**altá lok.** (aurkaritzakoa): *Eztjáđ ótwatên eróste-ko sósik; altá banikék behárra; –Híri etzáik játen dukána agéri –Altá játen dját ánit.* Satrustegik (1963-64: 267) *halta* dakar, *h-z*, eta beranduagoko beste lan batean ere (1969b: 29) aspirazioidun aldaera ageri da: «Itsusia! Halta, moda xaharrian, iru aldi ingurata nixin lahatzian! (...) Qué calamidad! Y eso que, a la antigua usanza, le había dado tres vueltas alrededor del llar...». Cf. eskutitzetako pasarte hauek: «Barkatuko uxu guk ez igortziaz xure felizitazionia. Untsa ohitu gintuxun, bana ez kunplitu! Alta, ez hola me[he]xi uxulakotz» (AB), «nihaureke ez diakixut zer pasatu zaitan hoinbeste denbora xure letrain errepostiaín iteko. Alta ez ahazten xituala-kotze» (MA).

**altxaárri** *iz.* Legamia, orantza. Etxaidek (1989: 159) *áltxaárria* eta *altxaarría* jaso zituen; bigarrena drole kausitzen dugu. Satrustegik (1969b: 30) *altxagarria* dakar.

**altxátu ad.** (du) 1- Gorde: *Tirántan altxátu út* ‘tiraderan gorde dut’, 2- Jaso: *Hárrri bát lurré-tik altxátu út.* Ikus **beirátu**, **goitútu** eta **irán**.

**altzairatu ad.** (du) Luzaideko arotzaren kontu liburuan ageri da: «Aizur bat eracachi, bida alzairatu», «bi aizur alzairatu, bida ago yoriko» (Satrustegi, 1969: 136, 138). Arruazuko euskaltzainak ‘acerar’ dela dio. Ez da dudarik *altzairatu* zatekeela; cf. **altzáiru**.

**altzáiru** *iz.* Altzairua.

**áltzo** *iz.* Magala: *Atxíkazu ixtánpat háurra áltzwan.*

**Altzón** *iz.* Karrikan den *Altzonénja* etxeko nagusia; lehen *Ardandéja* erraten zioten. Komunzki *Altzonénja*-ko nagusia adierazten du, baina ez beti. Izen baten giblean ezarria delarik eramailea etxe horretakoa dela

ematen du aditzera, baina ez baitezpada etxeko jauna edo etxekoandrea: *Pédro Altzón elakátu nín átzo góizjan.* **Altzonésa** *iz.* *Altzonénja*-ko etxekoandrea.

**álu** *iz.* Urdea (biraoa): *alúja!, álu zárra!, álu zár zikína, álu zikína!, alúja aláina, alúja aláin alúja, alúja ez bértzja!, álu háundi zikína, álu háundja (hí), úrde álu háundi zikína, urdé álu zár zikína!, urdé álu zikína (hí)!, urdé alúja!* Ikus **potxótxa** eta **alkúntze**.

**alukérja** *iz.* Aluaren egitate gaitzesgarria.

**áma** *iz.* Ama. Deikietan *amá!* erabiltzen da.

**áma famíljako** *iz.* Familiako ama, ama, etxe burua edo etxe burukidea (frantseseko *mère de famille*-tik segur aski, Iparraldean aski erabilia baita sintagma hau, baina espainoleko *madre de familia* ere hor da). Ikus **áita famíljako**.

**amableki adond.** Amultsuki. Luzaideko gutu-netan ageri da, behin.

**ámairréba** *iz.* Amaginarreba.

**amaizún** *iz.* Amaordea.

**amalábak** *iz.* Ama-alabak: *Arnéiko Argáiko amalábak izána(k) tíra bisítan.*

**Amalláu** *iz.* Pekotxetako *Amalláinja*-ko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan. Bestela *-ko + pertsona izena* erabil daiteke: *Bartzelónako Péjo, Bidárteko Ferránddo, Xaíndjáingo Jwanés...e.a.* **Amalláusa** *iz.* *Amalláinja*-ko etxekoandrea.

**amáño** *iz.* Inudea. *Kattalín ukán zutén amáño-tako.*

**amarrátu ad.** Amorratu. Bakarrik tankera honetako esaldietan ibiltzen da: *Gósjak amarrátja núxu, gósjak amarrátwík jín dá.* Ikus **errabjátu**.

**amasémjak** *iz.* Ama-seeak.

**amátu ad.** (da) Satrustegik (1963-64: 256) ‘ugaldu’, ‘orokortu’, adiera ematen dio; guk *súja amátu* esaldian aditu dugu, ‘sua zabaldu edo’ adierazten duenean: *Súja amátu dá méndjan.*

**amátxi** *iz.* 1- Amona, 2- Ama besoetakoa / **amátxi xahár** *iz.* Birramona.

**amazílo** *iz.* eta *izenond.* Amazuloa.

**Améka** *iz.* Ondarrolako *Amekáinja*-ko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen

- bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan: *Péjo Bartzelóna, Féli Kittérja, Lúrdes Okaztrán*. Bestela *-ko + pertsona izena* erabil daiteke: *Bartzelónako Péjo, Bidárteko Ferrándeko, Hargináingo Fakúnda, Xaindjáingo Jwanés...e.a.*
- amén.** Bego. Ondoko esamolde honetan ibiltzen da: *Amén, hí hór ta ní hemén!*
- amén, hamén iz.** Ahamena: *Amén bát ján tá partítuko gítxu berehála méndirat.*
- amengáu ad.** (da) Mendekatu: *Ahá! dílaik amengátuko dá, bá.* Ikus **mendekátu.**
- aménts iz.** 1- Ametsa, 2- Galderetan ibiltzen den *ala* juntagailuaren eta *beharbada*-ren arteko zerbeit, espainoleko *acaso*-tik hurrana dena: *Zér txíra, presénta étxean útzik jín, aménts?*; cf. Bidegainen hau (2002: 172): «Zer záigu eta, gure anderea gaitzitu, aments?» / **aménts in ad.** (du) Amets egin. Soziatiboa eskatzen du: «Egun hotan anitz aments in dixit xurekin, ez diakixut zeren-dako; anitz plazer egin daxu berriak hoin xeheki igortziaz» (MA) / **améntsetaik aizán ad.** (da) Ametsetan egon, amets egin: *Gáu gúzja améntsetaik aizána núxu.*
- ametítu ad.** (du) Onartu: *Eztút ametítzen ál hóri ín dezáxun.* Ikus **hun hartu** aditza, **hún** sarreran.
- amistantxa iz.** ABk darabil, behin: «X zena in amistantxak ageri zuzketxun, eta Xn launake baziela frango». Ikus **aixkidántxa, aiskidántxa.** Salaberri Ibarrolakoak (1856: 9) *amistanza* ‘amitié intime’ dakar.
- amódjo iz.** Maitasuna.
- anáiz iz.** Anaia. ABk *anaia* ibiltzen du.
- anájerdi iz.** Amaren edo aitaren aldetikako anaia.
- analísi** (espainoleko *análisis*-etik), **analís** (frantseseko *analyse*-tik) *iz.* Analisia.
- anbulántzja iz.** Anbulantzia.
- andána iz.** Taldea, multzoa: *Bazén gázte andánat ostátjain aintzínjan.*
- anderjár iz.** Erdaraz ‘lechezuela’, ‘asadura’. Satrustegik (1963-64: 257) *anyiyar* dakar.
- andeátu ad.** (da-du) Hondatu: *Órwa sobéra fíte ibilíz andeátu djár; órwa izjárri zahárra úk tá andeátu úk.*
- andeatzále iz.** eta *izenond.* Hondatzailea.
- andére iz.** **Jáun** hitzaren kidea, emaztekieztakoa: *Mézan ikúsi tú záutzen ez gintín andére háundi átzu.*
- Andikórrri iz.** Azoletako *Andikórrja* etxeko nagusia, edo bertako norbait; **Andikórrisa iz.** *Andikórrja*-ko etxekoandrea.
- andjedár, anddeddár iz.** Erbiuidea.
- andóila iz.** Birika (hestebetea) (biarnes-gas-koiko *andoulhà, andoulhe*-tik beharbada; cf., gainera, frantseseko *andouille*). Ikus **birika** eta **bulár.**
- andraái iz.** Etxean gelditu behar duen alaba zaharrena. Ikus **maztegai** eta **prému** sarre-rak. Luzaideko arotzaren liburuan ere ageri da adiera honekin, baina *andregai* moduan (Satrustegi, 1969: 259): «Totain andregayac aizur bat eracachi... 1’5».
- Andredénamári iz.** Ama Birjina. Luzaideko arotzak ere badarabil, baina ez berdin-berdin (Satrustegi, 1969: 154): «Condiak e(i)nic anderdenamaric» ‘kontuak eginik Andredonamariz’. Satrustegik berak (1969b: 38-39, 67) *Anderdena Maria, Anderdena maitia* eta *Orria’ko Ander Dena Mary* bildu zuen. Luzaideko gutunetan *Andredenamari* agertzen da: «Ohono ez bainiz juaiten mezarat. Orai nahi nikexi juan Andredenamaritan» (MA).
- animále iz.** Animalia, aberea. Ikus **alimále.**
- ánitz 1- adond.** Asko: *Ánitz ján dixit éta orái áse núxu.* 2- *zenb.* Asko: *jénde ánitz / ánitz jénde jínen dúxu bestéta.* Pluralean ere erabil daiteke: *Anítzak híltzen txú xángrjaz,* 3- mailakatzaila (ez da normala; partizipioekin partikulazki): «X-k ez-tikexi anitz inen hori ez baitzen anitz kolpatia» (AB); «etxi aski erraiten ahal ze hamar egun goxuak pasatu tin zien konpañian; anitz estimatia xixi, gaixua!» (AB); «eta Maria Jesus ono eztea sendatzen hoinbeste egun huntan? Anitz luze diaxu gaizua» (AB) / **ánitz aldíz adond.** Askotan: *Ánitz aldíz izána núxu Donjá-nen / anítzek ez ín ad.* (du) (esam.) Ia-ia, gutigatik: *Etxí anítzek ín ezpainíz eróri* ‘gutigatik ez naiz erori’. Iparraldean ibiltzen diren *gutik egin du, gutitarik egin du, doi-doiak egin du, doi-doiatarik egin du* (ez bainaz erori) formen baliokidea da. Ikus **doi-dójetaik / anítzez adond.**

Alderaketan ibiltzen da: *Martzelinóinja Putiláinja báno anítez haundjógwa dá.*

**anjelúr** (*anjelúrra* era mugatuan; frantseseko *engelure*-tik) *iz.* Ospela. Ikus **uspél.**

**ankoztíka** *iz.* Berniza / **ankoztíka emán ad.** (du) Berniza eman, bernizatu: *Aizína dwálaik ankoztíka emán behár djákoxtot gúre ganbárako zólai.*

**áno** *iz.* Ardoa. Etxaidek (1989: 153) *ánhoa* bil-tzen du, lehen bokala sudurkaria delarik. *Ardandéja* etxe izena bada Luzaiden, *Ardandeguína* 1863an (Satrustegi, 1969b: 93), antzina hitz hori erabili zelako seinale. Lu-zaideko arotzak ere *ano* darabil (Satrustegi, 1969): «Canteroerdi bat ano» (197), «cantero bat ano» (228), «bi pinta ano» (238). Ikus **mahásti.**

**antazjóna** *iz.* Harremana / **antazjónja izán ad.** (du) Harremanak izan: *Ahíde horrékílan báixje antazjóna háundja.*

**Antónjo** *iz.* Ondarrolako *Antonjójinja*-ko nagu-sia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan: *Péjo Bartzelóna, Féli Kittérja, Lúrdes Okaztrán.* Bestela *-ko + pertsona* izena erabil daiteke: *Bartzelóna-ko Péjo, Bidárteko Ferránddo, Hargináingo Fakúnda, Xaindjáingo Jwanés...e.a.*

**Antonjósja** *iz.* *Antonjójinja*-ko etxeoan-drea.

**ántrexántak** *iz.* Luzaideko «ddantzetako» mu-gimenduetako bat, non oin bateko aztal-or-katilarekin besteko aztagaina jotzen den / **antrexántak kúrri** *iz.* Luzaideko «ddan-tzetako» urrats baten izena; antrexantak ja-rraia egiteari deitzen zaio honela.

**-ántxa** *buk.* Beste hizkera batzuetako *-antza* bera: *Arribántxa, aidántxa, aiskidántxa, espe(r)ántxa, konfiántxa, laborántxa.* Lu-zaideko euskaran *-ántza* ere bada, *aixki-dántza*-n.

**antxára** *iz.* Enkantea (frantseseko *enchère*-tik). Galduxea bide dago hitz hau; orain **su-básta** erraten da.

**ántxu** *iz.* Urtebeteko ardia edo urte batean ume egin ez duena: *Luzáiden árdjak éta ántxjak beéx zártzen díra / antxu ttípi.* MAK, irudi duenez, urtebeteko antxuak (antxu ttípiak) eta gaineratekoak (*ántxjak*) bereizten ditu: «Hazindake untsa tixiu orai; ilaitiain lehe-

nian ekarri zixien Andikoberrikuak antxu ttípiak eta ardi axurdunak». Ikus **ántxu.**

**Antxúriz** *iz.* Karrikatik hurbil den *Antxwizén-ja* etxeko nagusia. Aitzinetik pertsona ize-na sartzen bada, etxe horretakoa dela adie-razten da, nagusia izan edo ez izan: *Péjo Bartzelóna, Féli Kittérja, Lúrdes Okaz-trán.* Bestela *-ko + pertsona* izena erabil daiteke: *Bartzelónako Péjo, Bidárteko Fe-rránddo, Hargináingo Fakúnda, Xain-djáingo Jwanés...e.a.* **Antxwizésa** *Antxwizénja*-ko etxeoandrea. MAK <tz>-rekin izkiriartzen du: «A[n]txuritzenguake jinak tuxu etxe berrirat eta Beorleikuake ba, Antxuritzeneat gaztiak, xaharrak Behor-leian».

**-ántza** *buk.* Ikus **-ántxa.**

**antzár** *iz.* Antzara / **antzára ferrátzea jwán ad.** (da) (esam.) Pikutara joan. *Jwán* baldin bada ere, *háil* erraten dute, Luzaiden agin-terako *hoa*-ren modukorik ez baita ibil-tzen: *Háil antzára ferrátzea ta útz nezák tránkil!*

**ántzu** *izond.* eta *iz.* 1- Ume egiten ez duena, 2- Esnea kendu zaiona, 3- Ernari gelditu ez den kabala,azienda. Ikus **ántxu, an-txu ttípi.**

**antzútu ad.** (da-du) Azienda bati emeki-emeki esnea galarazi: «*Antzútu*» *érlen dú, konpa-razjóna, déizten ái gjén árdjak méndirat igórri náhi túlaik égun gúziz déizteko pár-tez hásten gíra bakáno déizten éta hóla, eméki-eméki, ésnja gáltzen dú árdjak.*

**aótz** *iz.* Arotza (≠ **zurgín**).

**apáindu ad.** (du) Adabatu, adabakia ezarri: *Gúre mutíkwer pantalónak tarratátu zjéz-texu tá apáindu behár djéztexu.*

**apáiru** *iz.* Otordua: *Apáiru edérna ín dú* ‘otor-du ederra egin dugu’, *egúnak láu apáiru tík: baruráustja, askárja, bazkárja, atsa-laskárja ta afárja.* Ikus **otórdu.**

**apál** 1- *izond.* Goratasun gutxikoa: *Maái hóri béste hóri báno apálo dá,* 2- *adond.* Baxu: *Gizón hóri érdi elkórna dá bána hálaré bí-ziki apál míntzo dá.* Cf. **góra.** Ikus **atsálde** eta **umíl.**

**apáldu ad.** (da-du) Beheititu: *Préjjoak ezúra áisa apáltzen egúngo egúnjan.*

**apégo** *iz.* Usategia, usoak harrapatzeko pos-tua (biarneseko *apeu, apèu* ‘usoak erakar-



tzeko ibiltzen den gailua' hitzetik dator, irudi duenez). Ikus **ihiziko pwésto** sarre-  
ra. NTEM-XXXV-en *Xirrixkinengo apre-  
guak* toponimoa biltzen da (216. or.),  
baina guk ez dugu sekulan dardardaridun  
(-r-dun) aldaerarik aditu.

**apéntzja** *iz.* Itxura edo (gaztelaniako *apa-  
riencia*-tik): «X-k sosa esperantxa zixien  
Ameriketaik, bana bost urteindako zarría  
omen dixie intresian bankuan eta ono ez  
denbora betia, eta eztiexute igorri. Gero  
apentziaz galdein dixie sosa, Iruñekoat  
edo agentziat eta hitzeman diexute» (AB).  
Bordelek beste adiera batekin ibiltzen  
duela dirudi (Satrustegik, 1965: 154):  
«Españako belarraz / Da diferentzia / Guk  
ere desiratzen / Defendiatzia; / Frantzia-  
kua zela / Zer aperentzia! / Iretsi nahi zu-  
ten / Gure Probintzia». OEH-n 'preten-  
sion' erranahia ematen diote. /  
**apéntzjaiké éz ukán, izán** *ad.* (du). Itxu-  
rarik ez izan. Uharte Garaziko letra bate-  
ko pasarte hau: «Etxu aparentziaike le-  
hengo X: buria galtzen dixi bultaka».

**apetítu** *iz.* Jateko gogoia. *Zé apetítja dín mutí-  
ko húnek, idúri dú dénak ihétsi behár tíla;*  
cf. MAren hauek: «Gripa gaixtua duxu  
aurten; ez dixit medikuik izan. Pasatu duxu  
jeiki etzanka, bana fattalian utzi nixi. Orái  
iduri dixi apetitia heldu dela», «baixit ape-  
titu bat xarmanta eta gau guzía lo».

**apéz** *iz.* Apaiza. Cf. gutunetako pasarte hau:  
«Behar da ikusi jakiteko zer den herritik bi  
artzainak batian juaitia, apez nausia juan  
zen igandian» (AB).

**apez nausi** *iz.* Erretorea, itxuraz. MAK darabil:  
«Behar da ikusi jakiteko zer den herritik bi  
artzainak batian juaitia, apez nausia juan  
zen igandian». Ikus **ertór**.

**apezetxe** *iz.* Apezetxea, apeztegia. Luzaideko  
gutunetan ageri den hitza da: «Apezetxiare  
finitia ixie; orai garbitzeko. Biziki ederki  
gelditu dela erran dixie» (AB). Ikus **apez-  
téi**. Satrustegik (1969b: 95) 'casa cural'  
adiera ematen dio.

**apezgái** *iz.* Apaizgaia.

**apézgo** *iz.* Apez izatea, apez lanbidea.

**apeztéi** *iz.* Apezetxea.

**apeztítipi** *iz.* Gaztelaniako *coadjutor* da. Cf.  
**apez nausi**.

**apéztu** *ad.* (da) Apez bihurtu: *Oséba apéztuetá  
jwántzúxun Áfrikát misjonést.*

**apíl** *iz.* apirila. ABren gutunetan *apirila* ageri  
da; MArenetan ere *apirila* azaltzen da zen-  
bait aldiz, baina ohikoena *apila* da. Etxai-  
dek (1989: 58) *apílla* bildu zuen. Hilabete-  
en izenekin instrumentala ezartzen da  
baldin eta erdarazkoa bada: *Júljoz, setjén-  
brez, otúbrez*, baina inesiboa normalean  
euskarazko forma ibiltzen delarik: *Uztái-  
ljan, otsáüljan, apíljan...*, nahiz, jakina, sal-  
buespenak badiren. Luzaideko artozak *api-  
ril* ibiltzen du (Satrustegi, 1969: 194):  
«Miga estalarazi apirilian», «beia estalarazi  
apirilian».

**ápo** *iz.* Zapoa, kunkuna. Etxaidek (1989: 119)  
*áp<sup>h</sup>oa* jaso zuen.

**apozáal** *iz.* Zapaburua, apozaulia. EHHA-en  
bildutako datua da, ez gerok jasotakoa.

**-ár** *atziz.* Jatorria adierazten du, ezaguna den  
bezala: *Arneítár, auriztár, baxenabartár,  
baxandár, donjandár, lasár, luzaidár, ùn-  
darlár, xùberatár...* Ikus Kamino & Salabe-  
rri (2001: 70-71). Ikusten denez, **-tár** alda-  
era ere ibiltzen da, oikonimian beti (ikus  
-**tár** sarrera). Ikus, orobat, **-tjár, -tjér**.

**ár** *izond.* eta *iz.* Arra, emea ez dena.

**arábera** *adlag.* 1- Batuko adiera bera, genitibo-  
arekin: *Ámain arábera léhen maztékjek  
mantelína ibíltzentzúxjen elúzan;* 2- 'Propor-  
tzioan' adiera ere izan dezake (ikus **aráu-  
ka**): *Arábera xúk zángwa ník báno háundjo  
úxu.*

**aráíz** 1- Noski, jakina: *-Kásiko íxit hóri, ba  
-Baaráíz!* (ba aráiz; 'bai noski!'); *-Záu-  
tzen dúxja? -Baaráíz,* 2- Agian, espero  
dut: *Aráíz jínen dúxu tenóreko* 'espero dut  
garaiz etor dadin'; *etxíra aráíz kánpwat  
atéako denbóra hunékin!* = *aráíz etxíra  
kánpwat atéako denbóra hunékin!* Gazte-  
laniaz 'no se te ocurrirá salir...' da. Indar-  
tzeko *aráiz* errepikatu egin daiteke: *Aráíz,  
aráíz jínen dúxu tenóreko* 'benetan espero  
dut hura garaiz etortzea'.

**arakai.** Ikus **ahakái**.

**arakeitz, arakeitzu.** Satrustegik biltzen du  
(1963-64: 257) eta 'mala encarnadura', 'in-  
fectarse' adiera ematen, hurrenez hurren,  
baina guk ez dugu aditu ez kausitu. Bigarre-  
na errateko **gaizkóndu** erabiltzen da.

**arartéko** *iz.* Arartekoa, bitartekaria. Satrustegik (1986: 30) Etxeberriren dotrinaz mintzatzean honela dio: «Hitzei dagokienez, zahar itxurako zenbait gorde izan da eliz-hizkuntza eta otitzetan. Dotrina honetan hiru aldiz aipatzen da *ararteko* hitza eta arrunta zatekeen orduan. Duen gaurkotasun erakarriagatik, bere esanahia aipatuko dut». Beraz, badirudi egun ez dela erabiltzen erran nahi duela, baina hau ez da horrela, indarrean baita oraino.

**aráuka adond.** Proporzioan. Cf. Uharte Garaziko letra baten ageri den pasarte hau: «Orai Amatxi gabe etxia hutsa dixiu, bainan ez baigira hemengo eginak... Maluroski arauka gazte geio hiltzen tuxu». Ikus **arábera**.

**árbi** *iz.* Arbia.

**arbóla** *iz.* Zuhaitza.

**ardái** *iz.* Satrustegik (1963-64: 257) biltzen du eta erraten 'yesca' dela. Guk Luzaiden ez dugu aditu, baina Euskaltzaindiak (1999) egindako Arnegiko grabaketan ageri da hitz hau.

**ardatz** *iz.* Goruaren ardatza, irudi duenez. Luzaideko artzak darabil, bitan (Satrustegi, 1969: 210), baina guk ez dugu aditu: «ardaza eracachiric», «zintac ardazac».

**árdi** *iz.* Ardia. Ikus **gásna** sarrera.

**ardibázka** *iz.* Ardientzako belarra.

**ardigásna** *iz.* Ardi esnez egindako gazta. Ikus **gásna**.

**ardíki** *iz.* Ardi haragia.

**ardimíhi** *iz.* Belar mota bat, pentzeetan ateratzen dena.

**ardimoxtóle** *iz.* Ardi moztaila. Ikus **moxtóle**.

**ardimóxte** *iz.* Ardiei ilea, artilea, moztea: *Bjár ardimóxtja íxju*.

**arditéi** *iz.* Arteria.

**ardjétsi ad.** (du) Erdietsi, lortu. Biziki guti ibiltzen da; normalean **kontsegitu** erraten da. Ikus sarrera hau, **ajendrátu** eta **atrexá-tu**. Etxaidek (1989: 306) *ardjétsi* dakar.

**ardúra adond.** Maiz (≠ **úsu** 'tapitua', **bakán**-en kontrakoa; ikus sarrera hauek): *Laborárjak ardúra kéxu díra*. Etxaidek (1989: 388) *ardurá sa:ldú izán tu* biltzen du, baina bistan da azentuatze hori ez dela Luzaidekoa. Cf. pasartetxo hau (MA): «Donianeat ez nuxu ardura juaiten; Urthats in-

gurian izan ninduxun osebain eta ttanttain ikusten».

**ardúrenjan adlag.** Gehienetan.

**áre** *iz.* 1- 'Rastra', nekazalgotako tresna bat. Cf. Luzaideko artozaren pasarteño hau: «Lapizec are berri bat» 'Lapitzeneko nagusiak are berri bat' (Satrustegi, 1969: 264), 2- *interj.* 'Venga' espainolez (≠ **álo**): *Áre gwázen* 'venga vamos!'. **Áre** eta **álo**-ren arteko aldea ondoko honetan ikusten da: *Áre mutíkwa, gwázen*; eta mutikoa mugitzen ez bada: *Álo, hígi hádi hórtik!*

**are zur** *iz.* Luzaideko artzak biltzen du (Satrustegi, 1969: 198): «Are zur bati lau burdin ezarri». Arruazuko euskaltzainak 'armazón de la narria' adiera duela dio (ibid., 272).

**Argái** *iz.* Arnegiko *Argája*-ko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan. Bestela *-ko + pertsona izena* erabil daiteke: *Bartzelónako Péjo, Bidárteko Ferránddo, Xaindjáingo Jwanés...e.a.* MAk «Hargaike Geaxan» dakar. **Argáisa** *iz.* *Argája*-ko etxeoandrea. Gaztelaniaz *Argarái* erraten zaio etxeari.

**argál izond.** Ehunez-eta mintzatzerakoan tapi-tuaren kontrakoa, ez da pertsonendako ibiltzen. *Idúritzen zjáxu báhja mázja báno argálogwa déla*.

**árgi** 1- *iz.* Argia, gauzak ikusgai bihurtzen dituen, 2- *izond.* Ilunaren kontrakoa.

**argiáste** *iz.* Egunsentia. Etxaidek (1989: 80) *ateáko girá argiástian* dakar.

**argitasún** *iz.* Argia denaren nolakotasuna.

**argítu ad.** (du) Argi egin, eguna hasi: *Ekáina baljátu behár dú méndirat jwáiteko, goízik argítzen báitu*. Cf. MAren hau: «Egun goizian biziki denbora ederra argitu dixi eta orai ja iduri dixi berriz euriu behar dila».

**-ári, -kári, -lári atziz.** 1- Gaia, objektua: *Afári, atsalaskári, bazkári, edári, janári*, 2- Izen abstraktua: *Nahikári*, 3- Denbora (**-kári**): *Egwerrikári, urteberrikári*, 4- Egiletasuna: *Aitzindári, arraintzári, beilári, eskelári, gelári, gidári, laborári, musikári, makilá-ri...e.a.*, 4- Zaletasuna: *Elakári – elekári, maztekári, mendikári, zokokári*.

**ári, aizán, ártzen, artzéko, ártzea** 'aritzera', **aríko ad.** (da-du) Ari izan: *Áire pollít ba-*

*tén kantátzen ái dú; aríko girá pilótan hérríko mutílaikin; hainbéste hargínekin eztá lánjan ártzen ál; norékin aizán zirá músjan?; norékin ártzen zirá músjan? (≠ **joká-tu** 'dirua jokatu' ≠ **jostátu** 'dibertitu'). Bu-kaerako -i hori galtzen da; *ártzen* 'aritzen', *artzéko*, *ár bédí* 'ari bedi' e.a.: *Árradi ár; gústu-gústjan* 'ari hadi, ari, gustu-gustura'. Beste hizkera batzuetako *aritu*-ren tankera-*korik* ez da ibiltzen: *Kántuz aizán ginén izf-garri úntsa; eláka aizán, futbóljan aizán, kartétan aizán, katzákan aizán, kázkikan aizán, lánjan aizán, menskérjetan aizán, músjan aizán, pálan aizán, pilótan aizán, zozókerjetan aizán... Zé, ári lánjan?**

**aríma** *iz.* Arima; *aríma bélzta* 'gaizto errepi-katua': *Aríma bélzbát úxu hóri!*

**arín** 1- *izond.* Arina, 2- *izond.* Leuna 3- *adond.* Agudo, fite: *Idúrixí záma háu béstja banó aríno déla; pástu zjáxu marránta háu frán-go arín, tá sukárrare bá.* Cf. ABren hau: «Aurten ze negu arina duan, onokuan seu-rik. Geioko elurrik in gabe azindak beti kanpuan ibili txu». Satrustegik (1963-64: 257) 'ligero, irreflexivo' adiera ematen dio *arín*-i. Ikus **burwarín** eta **kaskarín / aríño** *izond.* Pixka bat arin, arintxo. Luzaideko letra batean aurkitu dugu: «Bestiak denak untsa tuxu; haurrak beti bezala eskolan denbora pasatzen dixie. Ez geiagoko haundik mafe]stra aríño hunekin» (AB) / **arín-txoño** *izond.* eta *adond.* Arintxeago(a): *Idúrixí aríntxoño utála marránta háu.*

**aríndu** *ad.* (du) Arindu, eguraldiaz mintzo edo eritasun batez: *Bí orénez eurín díxi, bána orái idúrixí aríntzen díla* Cf. «Atsalde atez izan ninduxun X-ain bisita baten iten eta biziki pozatu nindixin; berriz gibleat orai idurixi puskaño at hasi dela arintzen», «egun denbora [t]xarra uxu; goiti elurra ari zixin goizian go[h]otik, bana atsaldeko arindu xixi» (AB).

**arínki** *adond.* Era arinean: «Anastasia Bidartekuare marranta arrapatuik, ohono ez dila ezutlik, hartu tixi injekzioeak; juan den urtiane arinkio pasatu zila» (MA).

**aríña** *iz.* Harea. Salaberri Ibarrolakoak (1956: 78) *harinna* dakar, hots, *haríña*.

**Árjas** *iz.* Karrikako Arjasénja (*Gauxórja* lehen) etxeko nagusia, edo bertako beste

norbait; **Arjasésa** *iz.* Arjasénja-ko etxeko-andrea.

**-árjo, -kárjo** *atziz.* Izenak sortzen ditu: *Hilá-rjo, bozkárjo*.

**arkáldu** *ad.* (da) Arkara jarri: *Gure árdja arkálduxú. Ikus susáldu*.

**arkára** *iz.* Ardiaren beroaldia / **arkára izán, egón** *ad.* (da) Ardia bero egon: *Gúre árdja arkára úxu. Ikus iháusi, ohára eta susára*.

**arkín** *iz.* Altxirria.

**arkúma** *iz.* Intziria.

**arkúmaka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da): *Béhja arkúmaka ai dúxu*.

**árma** *iz.* Ehizan aritzeko eskopeta.

**arneitár** *iz.* eta *izond.* Arnegitarra, Arnegikoa.

**-áro** *atziz.* Denbora: *Beláro, usoaro*.

**áro** *iz.* Zerbaitetarako egokia den eguraldia: *Átzo áro háuta ginín onddóketa jwáiteko*, «Egun denborat ederra ixíu; biziki denbora freskuak ari tixi hemen, eta belaro guti: hamabi egun in tixi mutu eta euri» (AB), «in tixi biziki denbora hunak; ardiak ja erdixe tuxu. Beharrik orai ez baita biziki haro huná» (MA). Honek *h*-rekin izkiriatzen du, baina **háro** 'kalapita'-edo da. Ikus sarrera hau.

**arrabota** *iz.* Arotzaren marrusketa mota bat, Garmendiaren arabera (1969: 224).

**arrabóts** *iz.* Azantza handia.

**arradátu, arraátu** *ad.* (du) Inausi: *Arbólak négjan arradázen txú*.

**arráila** *iz.* Arraildura: *Artemúrru hórtan arráila háundi bát átea dá gáinetik béiti*.

**arráildu** *ad.* (da-du) 1- Pitzatu: *Lurrikárjaikin etxéko paétat arráildu zíauxu*, 2- *Mozkór* hitzarekin erabiltzen da, indartzeko: *Bánda mozkór arráildja arribátu nántzan étxeat*. Manezaundik (1990: 29) *hordi* arrailak darabil, baina lehen hitz hori egun ez da ibiltzen Luzaiden, dakigula, eta bigarrena errateko normalago dirudi dela *arráildjak* erabiltzea.

**arráin** *iz.* Amuarraina. Ikus **peskádo** sarrera. Etxaidek (1989: 107) 'pez, pescado' adierekin *itxásoan bada anítz árrain* bildu zuen. MAK 'arraina' adieraz darabil behin: «20 egunendako ohian ezarri dixi; lehenbiziko 10 egunez berdura eta fruta bakarrik eta orai utzi diakoxu 100 grama arrain eta ehun grama haragi erreik».

**arráinki** *iz.* Erdararikako **peskádo**-ren balio-kidea.

**arráintza** *iz.* Arrantza, arrainak harrapatzea.

**arráintzari** *iz.* Arrantzalea. Cf. Manezaundi-  
ren «*Kokotz*» *arráintzaria* kontakizuna  
(1990: 40 eta hurr.).

**arrakia** *iz.* Arotzaren lanabesetako bat, Gar-  
mendiaren arabera (1969: 224). Autore ho-  
nek hitzak era mugatuan ematen dituen-  
ez gero, ez dakigu oinarria *arrake*, *arraku* ala  
*arraki* den, Luzaiden artikulua eranste-  
an, *-e*, *-u* eta *-i + a > -ia (-ja)* egiten baita.

**arrakóil** *izond.* arrunt mehea (*raqúitico* es-  
painolez). Mailakatzea hau da: **méhe** →  
**flakósta**, **mehakóil** → **arrakóil**. Lhande-  
ren arabera (1926: 70) Hiribarrenek ibil-  
tzen duen *arrakoil* ‘porc, etc., mal châtré’  
da; *OEH*-n ‘barrabil bakarrekoa’, ‘boz er-  
lastua’, ‘aldatzen ari den ahotsa’ adiera  
ematen zaio *arrakoil*, *arcoil*-i.

**arrakóildu** *ad.* (da) Arrunt mehetu: *Arrúnt*  
*arrakóilduxú Jwanés / arrakóildja ízan*  
*ad.* (da) arrunt mehe egon: *Jwanés arra-  
kóildja úxu wái*.

**arránda** *iz.* Ikus **zahár arránda**.

**arrángura** *iz.* 1- Kezka (ikus **kézka** sarrera);  
cf. MAREN hau: «Joakinaire eman diazko-  
txut goraintziak; arrangura duxu paketta  
izan xinin», 2- Ezuntsa, mina: *Báixit*  
*arrángurat bulárrjan*. Cf. hau: «Gu denak  
untsa gituxu; artetan zenbait arrangura  
puskatzuikin, deuse gabe etxu izaiten  
ahal» (AB), «Juanito Arroyore egun opera-  
tu behar zuela; hunek berriz estomakan zila  
arrangura» (MA); 3- Protesta edo. Hemen  
sar daiteke erronkatzat botatzen den (*hík*)  
*báuka arránguraik?*, *báuka zéáit arrángú-  
ra?* Gaztelaniako *¿te pasa algo?*-ren tan-  
kerakoa da. Cf. DUNY-PÉTRÉREN hau (1996:  
169): «-Zer duk hik? -Hik ez dukana!...  
-Baduka arrangurarik? / **arrángura ín**  
*ad.* (du): *Nehóke etxi arránguraik ín* ‘inork  
ez du deus ere erran’, ‘nadie ha dicho ni  
mu’ / **arránguran egón** *ad.* (da) Kezkatu-  
rik egon: *Etxítela gurégatik arránguran*  
*egón, léku séurretik jwáin baigíra*.

**arrangurátu** *ad.* (da) Kezkatu: *Áma gúta-  
z arrangurátzen díxu áisa*.

**arráno** *iz.* Putrea.

**arránpa** *iz.* Karranpa.

**arrañamédu** *iz.* Konponketa. **Erreparazjó-  
ne** ere ibiltzen da, baina gutiago. MAREN  
letra batean *arranjamendu* ageri da.

**arrañátu** *ad.* (da-du) Konpondu: *Arráña hór*  
‘hor konpon’; *mekanika zikín háu etxít ne-  
hóntikane arrañátzen ál*. Biarnesez eta  
gaskoiz *arranja* eta *arranjamen* ditugu eta  
frantsesez *arranger*. Luzaideko arotzak,  
berriz, *arrañatu* ibiltzen zuen (Satrustegi,  
1969): «Bi gatina pare arriñatu» (151),  
«suas pare bat arriñaturic» (153), «a(i)zur  
bat mailu bat arriñaturic» (253). Luzaideko  
gutunetan *arranjatu* ageri da.

**arrañátzale** *iz.* eta *izond.* Konpontzailea.

**arrañátze** *iz.* Konponketa. Ikus **zérri arra-  
ñátze**.

**arrapakári** *iz.* eta *izond.* Lapur antza, dena be-  
retako nahi duena.

**arráro** *izond.* Bitxia. Ikus **dróle**.

**arrarotasun** *iz.* Luzaideko gutunetan kausitu  
dugu: «...bana ez omen [t]ziakoxu deuse  
inportatzen, orai haren arrarotasunak zau-  
tzen omen baitu untsa».

**arrás** *adond.* 1- Biziki, izigarri (dakigula, gu-  
txi ibiltzen da adiera honekin). Ikus Satrus-  
tegiren hau (1981: 344): «Lusarrare arras  
huna». 2- Erabat (ezezko perpausetan):  
*-Finituka lána? -Ez arrás; -Háurrek jan*  
*dútea déna? -Ez arrás, eztié arrás finítja*.  
Cf. Satrustegi (1981: 345): «Berdin hola  
denak erosiz, mila bedera libera pagatu  
baititu, arras ez, etxola barne». Luzaideko  
eskutitzetan ere ardura agertzen da: «Atzo  
Irulein zitxun X-n emaztega[i]n etxian.  
Arras kontent jinak tuxu, bizi omen tuxu  
ohono xaharrak, a[i]tatxi eta amatxi»,  
«orai ja pasatu dira oro, baititu bi apez  
arras planttakuak, Jinkuari eskerrak»  
(MA).

**arraska** *iz.* Luzaideko arotzak darabil; Satrus-  
tegiren arabera ‘rascadera que se utiliza  
para recoger los residuos de masa adheri-  
dos a la artesa’ da (1969: 143, 238, 272).

**arráspa** *iz.* Metalak eta zura leuntzeko erabil-  
tzen den tresna, ‘lima’ espainolez (biarnes-  
gaskoiko *arraspe*-tik atera dateke). Ikus  
**líma**.

**arrásta** *iz.* Balazta, galga. Luzaideko arotzaren  
kontu liburuan (Satrustegi, 1969: 159, 197)  
maiz ageri da *arrasta*: «Orga arrasta bat

- eracachiric», «arrasta burdina bat arriña-tu»...e.a. ikus **orga arrasta**.
- arráza** *iz.* Arraza: *Béhi górrja arráza húna dá gúre ménditan ibiltzeko*.
- arrazóin** *iz.* Arrazoia: *Erríntak mokokátu nindíxin, éta arrazóinekin, eskólako léjwa háutsi bainín / arrazóin (háundja) ízan ad.* (da): *Arrazóin dúxu / arrazóin sobe-rátja ízan ad.* (da) Arrazoi osoa izan: *Arrazóin soberátja xíra* ‘arrazoi osoa duxu’, «Pentsatzen dixit engontik xeure mueble hon bea. Arrazoi handia uxu, beti erraiten ari gitxu eta beti hitzemaiten eta sekulan ez eremaiten! Jende eternal garrrik gabekuak!» (AB).
- arrazoinaméndu** *iz.* Arrazoibidea: *Zé arrazoi-naméndjak dirá hórjek? Nóla értén al txú hólako zozokérjak?*
- arrazoinzarka adond.** Modu txarrean, mutirikiro. Satrustegik biltzen du (1963-64: 258).
- arréba** *iz.* arreba.
- arren.** MAk ‘hortaz’ adieraz ibiltzen du, *beraz*-ekin batean: «Xure letra altxatu nixin errepostiaín iteko eta ez dixit atzemaiten ahal. Arren itsura haizan beharko», «arren heldu nitzauzu urte berri hun baten desiratzera, osagari hun batekin eta Jinko hunaren laguntza haundi batekin eginbide guzian behar bezala betetzeko».
- arrestélu** *iz.* Arraztelua, zarrea. Luzaideko arotzaren liburuan beti *arrastelu* agertzen da (Satrustegi, 1969). Arruazuko euskaltzainak (271) arraztelu berezitat hartzen du aipatu liburuan ageri den hamar hortzekoa: «Amarortzeko arrastelu bat einic» (188).
- arrestelukáldi** *iz.* Arrastelukada: *Emántzakón arrestelukáldi bát izigárria!*
- árri** *interj.* Astoei-eta erraten zaiena, aitzina joan daitezen edo abian jar daitezen.
- arribántxa** *iz.* Iristea.
- arribátu** *ad.* (da) Iritsi (≠ **héldu**) (biarnes-gaskoiko *arribà*-tik segur aski): *Arribátu girá Irúñeat; góizeko bostóntan arribátu gíntxun étxeat lehérrinik*. Baina armairu baten gaineko aldean dauden gauzez ezin hartzez az ari bagara *eníz héltzen* erraten da.
- arrirolátu** *ad.* Jan ondoan aserik gelditzea (biarnes-gaskoiko *arregoulá* ‘rassasier, dégoûter’-ekin lotua). Behin bakarrik aditu dugu.
- arrikonkolótx adond.** Hankalepotas. Ikus **konkolótx**.
- arrixína** *iz.* Erretxina. Barandiaranek (1974: 22) *arrixína* bildu zuen Donoztirin.
- arroátu** *ad.* (du) Lapurtu. Behin bakarrik aditu dugu; normalean **ebátsi** erraten da. B. Etxeparek (1980 [1545]: 180, 182) *arrobatu* zerabilen (espainoleko *robar*-etik?).
- arróila** *iz.* Lubakia, kanal ttipia.
- arróka** *iz.* Haitza (gaskoiko *arroc*-etik edo espainoleko *roca*-tik). **Péña** ere erraten da.
- arrópa** *iz.* Jantzia, arropa. Ikus **beztiménta** eta **soinéco**.
- arrósa** *iz.* 1- arrosa (lore), 2- kolorea: *Máztjak erósi dín trikóta bérrja arrósa dá, arrósa kolórekwa*.
- Arrosagarái** *iz.* Karrikako Arrosagaráinja (*Lilidóinja* lehen, omen) etxeko nagusia, edo bertako norbait; **Arrosagaráisa** *iz.* *Arrosagaráinja*-ko etxekoandrea.
- arrosárjo** *iz.* 1- Elizkizuna, 2- Arrosarioan erabiltzen den aledun haria.
- arrosina** *iz.* Erretxina. Luzaideko arotzak biltzen du (Satrustegi, 1969: 182): «Bi burdina arrosina echiquizeco».
- arrúltze** *iz.* Arrautza: *Égun askáiteko arrúltze ta xingár.* Etxaidek (1989: 155) *arróltziak* bildu zuen.
- arrúltze-koxkál** *iz.* Arrautza azala, arrautza koskoa. Ikus **koxkál**.
- arrúltze-moléta** *iz.* Arrautzopila. Bigarren osagaia frantseseko *omelette*-tik aterata da.
- arrún(t)** 1- *adond.* Erabat (≠ **izigarri**, **bíziki**). **Arrún(t)** gogorragoa da eta *hagitz* ez da ibiltzen; **arrás** bai, **bíziki** edo **izigárrri**-ren indarrarekin, baina gutxiagotan): *Gáuza hórjek errán óndwan arrún(t) tránkil gel-dítu nintxun*, 2- *izond.* Kalitate txarrekoa edo, ez sobera ona: *Harági háu arrúnta úxu*.
- árte** *iz.* 1- Artea (animaliak harrapatzekoa), 2- Bitartea: *Etxétik átea nintzán tá árte hórtan alkátja jíntzén gúre xéka*.
- artéka-martéka adond.** Tarteka, artetan.
- artéki** *iz.* Hirugiharra.
- artemúrru** *iz.* Erdaraz *tabique* erraten dena da: «X gaitzeko obran ari uxu gaineko pisan; denak, paeta guziak, karrakatuik, artemurru guziak botaik, denak adailiekin in omen txi eta zoladurak plastratu». Ikus

- múrru.** Satrustegik (1969b: 95) ‘medianil, tabique interior’ adiera ematen dio.
- artétan** *adlag.* Tarteka: *Artétan jwáiten gíra ttánttain bisítatzea Donjáneat.* Cf. ABren aipu hau: «Orai urte zaharra ari ixíu bururutzen. Izan dixíu grazia untsa pasatzeko, artetan zeait arrangurekin». Ikus **aldíka.**
- artizar.** Satrustegik (1963-64: 258) biltzen du, baina guk ezin izan dugu jaso. Ikus **góizi-zár.**
- ártjo.** Denbora muga adierazten duen hitza, ‘arte’: *Néska gízáizo horrékin egón dá sós gúzja xahútu ártjo.*
- árto** *iz.* Artoa. Pluralean ere erabiltzen da: «Ideia nikexi artuak ereiten tulaik eta untsa baniz, ordian jinen nizala» (AB), «lusararre arras huna eta artuake jua den urtian bana hobiak (MA) / **árto púskat bezálakwa izán** *ad.* (da) On puska izan: *Hóri ártjo púskat bezálakwa úxu.*
- árto bihítu** *ad.* (du) Artoa aletu. *Léhen ásetan ártjo bihítzen ártzen zúxun herríko jéndja.*
- arto opil** *iz.* Satrustegik *arto opila* ‘arto irinez egiten den opila’ jasotzen du (1969b: 54). Ikus **opil.**
- artóalde** *iz.* Arto meta handia: *Áurten gáitzeko artóaldja bíldu íxju.*
- artobihítze** *iz.* Artoa aletzea.
- artobúru** *iz.* Artaburua.
- artojórra** *iz.* Cf. letretako pasarteño hau: «Egun hotan denbora ederra ixíu; orai artojorran ari tuxu gure jendiak egun hotan» (AB). Cf. **lusarjóra.** Luzaideko arotzak ere bazerabilen: «Alabac bi egun arto yorran aita alabac egun bana» (Satrustegi, 1969: 255).
- artokána.** Ikus **kána.**
- artoléku** *iz.* Artoa egiten zen tokia, artolanda edo.
- artopikór** *iz.* Arto bihia: *Kárrak ahútrat artopikór.* Ikus **bíhi** eta **pikór.**
- artoxuítu** *ad.* (du) Artazuritu, artaburuari hostoak kendu.
- artoxuízte** *iz.* Artazuritzea. Satrustegik (1969b: 49) *arto-xurítze* dakar.
- Ártxa** *iz.* Ondarrolako *Artxáinja*-ko nagusia: «Egun hotan Frantziska Bidondokua frango apal duxu; Juanes Artxare hil izan duxu, ohit xira, Arneiko pietun izana» (AB); **Artxésa** *iz.* *Artxáinja*-ko etxeoandrea: «Juan den egun batez izan ziaxu Artxesa bisitan» (MA).
- artzáin** *iz.* Artzaina. Etxaidek dio (1989: 234) diptongoaren lehen osagaiak *e* irekia duela.
- artzáin jóko** *iz.* Josteta bat da, erdaraz *tres en barra* deitzen denaren irudia. Honen azalpena Duny-Pétrek (1996: 96) eta Aintziburu & Etxarrenek (2002: 104) egiten dute.
- artzainsa** *iz.* Satrustegiren arabera (1969b: 97) artzainaren emazte da.
- artzár** *iz.* Ardi zaharra, partikulazki jaten dena. Satrustegik (1969b: 54) *arzarrek* jasotzen du.
- as.** Atzizkitzat har daiteke *atórras, bésoas* eta *búruas* aditzondoetan. Ikus **hásasa átea.**
- áse** *ad.* (da-du) Ase (instrumentala galdegiten du): *Egún guzíz asézen núxu bazkáitjan;* «Ohono belar kutsia baixiu iteko; eurriain beharra bazuxun, bana orai asetzen gítxi, bana soro anitz atera dixí» (MA). Bada erranairua: *Óro ján, óro áse (zéin únsta)! Otórdu báitjan déna játen délaik ta dénak asézen djélaik erráitendá / ájsja izán* *ad.* (da) Aserik egon: *Ájsja núxu harágiz.*
- asegárrri** *izond.* Nekagarria, gogaikarria: *Zé aségarrja hízán besténaz, bájka emáin duká noizpáit!* Ikus **hastjál.**
- áska** *iz.* 1- Aziendentzako harraska, edangua, 2- Ardiei zaldarea emateko ganbela. Ikus **górbe** eta **mañatera.**
- askáite-** *iz.* Askáltze-: *Askáitén aizán, askáitea jwán, askáitetik jín, askáitean, askáiteko, askáitén dú* ‘askaltzen dugu’. Ikus **afáite-, askáldu** eta **bazkáite-.**
- askáldu** *ad.* (da-du) Goizeko bederatziatanedo egiten den oturuntza. Otordu azkarra da hau: *Askáldu íxit xarmánki, askáldu núxu xarmánki.*
- askári** *iz.* Goizeko bederatziatetako oturuntza.
- askazi** *iz.* Satrustegik (1969b: 68) **jéndáki-**rekin berdintzen du eta dio ‘ascendencia, comunidad de sangre, parentesco’ dela. Ikus **gazaita.**
- áski** *adond.* Nahikoa. Bakarrrik joan daiteke: *Áski ján díxju egún.* Aurrean izen bat duenean partitiboa eskatzen du: *Íráixjú sósik áski áurten.* *Áski* aitzinean badago, ordea, partitiboaren beharrik ez da: *Áski sós írá-zíxjé jáz.* Beste aditzondo batekin ere joan

daiteke: *Untsáski finítu íxju lána*, edo ize-nondo batekin: *Mahái hóri etxú áski háundi ganbára hüntan zártzeko / áski izán, áski ukán* (agindua adierazteko) *ad.* (du). *Áski dík zorrátzja* ‘izorra dadila’, *áski úxu xuháuk ítja*. Cf. «Le[he]nbailen aski txu karratzia; seur nuxu bautela garbitzen lana, Maria Jesusek eta biek aski tuzie garbitzia» (AB, sic). Normala da aditza datiboan paratzea, hizkuntza estandarrean hau erakuslearen bitartez egiten bada ere: «Medallaño hau Orrián hartu nixin M<sup>a</sup> Ignaziarendako, aski dakoxu emaitia ene partez» (MA), alegia ‘...aski duxu berari ematea’ / *áski séurik adond*. Behar baino gehiago ere: *Baíxit áski séurik trakása hüntaik!*; cf. hau: «Enfin, aski seurik fanfarron zuxun emazte hura bere haurrekin eta hura bezala beste batzure batuxu» (MA) ‘behar baino aise fanfarronago zen...’ / *askíko izán, ukán ad.* (du) Etorkizunaz mintzo garenean erabiltzen da (cf. beste hizkera batzuetako *hobeko*): *Eztjakixút askíko után sós hunékin* (= *eztjakixút áski izáin dután sós hunékin*).

**askóri egón** *ad.* (da) Hodeien arteak eguzkia atera eta gogor berotzen duenean *askóri djóxo* erraten da. *Sínka* hitzak hurbil dagoen kontzeptua bideratzen du; ikus sarrera hau.

**aspáldi** *iz.* eta *adond*. Maiz deklinaturik ageri da: *aspáldian, aspáldiko, aspálditik*: *Aspáldiko usáiak gáldu txú arrúnt*; –*Eh, aspáldíkwa!*, *zer djozú?*, –*úntsa ta zú?*; *aspáldi hüntan eztút apéza ikúsi*.

**aspíl** *iz.* Ganbela: *Zérrjer játea emáiteko zurézko úntzi zabála*. Ikus **plát**.

**astaña** *iz.* Astemea. Sakretako ere erabil daiteke, emakumeekin: *Astáña zikína!*, *zé ín dúxu?* Cf. «Eta emaztekoa hipaka eta ahuenka ari zelarik “herritar” batek erraiten dako, “Debru astaña, mendikoak ez gitun hain pulloak”» (Manezaundi, 1990: 84) eta «Atso astaña zozo horrek hara nolako briganta formatu dien» (E. Etxamendi, 1988: 44).

**astapíto** *izond*. Astoa, astapotroa: *Astapítwa!* Anitz ibiltzen den sakrea da hau, kide dituen *astopúllo* eta *astozíri* baino aise gehiago: *Astapíto zárra!*, *astapíto zár zikína!*, *astapíto zikína!*, *astapítwa aláin*

*astapítwa!*, *astapítwa aláina!*, *astapíto háundja!*, *urdé astapíto zár zikína!*, *urdé astapíto zikína!*, *urdé astapítwa!*, *ze astapítwa hizán!*

**astapitokérja** *iz.* Astapitokeria, astapitoeak egiten duten ekintza gaitzesgarria: *Astapitokérja háundi bát ín dú zúre kúsi hórrek*.

**aste** *iz.* Astea / **Aste Sáindu** *iz.* Aste Santua. / **áste undár** *iz.* Asteburua: «Mina zerratu ziaxu; medikiak utzi nixi, orai aste undarreat juan behar dixit Iruñeat» (MA).

**asteárt, asteárte** *iz.* Astearte (*asteárta, asteárta* era mugatuan).

**astelén** *iz.* Astelehena. Etxaidek (1989: 48) *astelél:na* biltzen du, *e* luzearekin.

**astezkén** *iz.* Asteazkena. Etxaidek (1989: 50) *asteazkéna* jaso zuen.

**ásto 1- iz.** Astoa, 2- *iz.* eta *izond*. Astakiloa.

**astoferra** *iz.* Astoen ferra. Luzaideko arrotzak darabil: *Bi asto ferra* (Satrustegi, 1969: 162, 214).

**astokérja** *iz.* astakeria.

**astokúme** *iz.* Astakumea, astokoa.

**astopúllo** *izond*. Astapittoa. Ikus **astapíto** eta **púllo**. Cf. Manezaundiren adibide hauek: «Asto pullo bat bezala, ilunbetan bizi hiz, gaizo Beñat» (Irigarai, 1958: 69), «asto pullo bat hiz, bethi aphotzarra bezala zilotik ez urrundu nahiz» (1990: 48).

**astozíri** *izond*. Astapittoa: *Zé astozírja hizán!*

**asún** *iz.* Asuna (landarea).

**atalága** *iz.* Kanpotik ez irekitzeko ateen barneko aldean duten haga. Kontuan har Luzaiden **bórta** erraten dela, ez *atea*, eta *atari* ezezaguna dela egun. Ikus **bortaga** eta **hága**.

**atalórtze** *iz.* Atearen azpiko zura, kentzen ahal dena, bordetakoa bereziki. Ikus aurreko sarreran erran duguna. Satrustegik (1969b: 95) *atalatz, atalotz, atalartze* biltzen ditu eta honela definitzen: «Tope o escalón de la entrada, para sujetar la hoja de la puerta. Puede ser de piedra o madera y va fijo en el suelo».

**átea, atéra** *ad.* (da-du) Atera: *Átea záxu gásna puxkát atsálaskáiteko; átea zíte éxe hüntaik lehénbailén; egún egún edérra átea íxi*. Adiera honetan *argitu* darabil MAK: «Egun goizian biziki denbora eudera argitu dixi eta orai ja iduri dixi berriz euritu behar dila». Etxaidek (1989: 80) *ateáko girá ar-*

- giástian* dakar. ABk aldi batean ez gainera-ko guztietan *atera* ibiltzen du; MAK, ber-*rizz*, *biak* (*atera* eta *atea*) erabiltzen ditu frankotan.
- ateáldi** *iz.* 1- Ustekabeko esaldi edo erantzuna: *Zé ateáldja izán dín hórrek!*, 2- Irtenaldia, bidaia. Cf. «Letra hau leitzen hasten xie-laik estonatuko xira ene atera aldi haundiaz» (AB).
- atentzjone** *iz.* Atentzioa, arreta, kunplimendua: *Atentzjone háundiaikín entzún zixin gúk errán ginína*; cf. pasarteño hauek: «Maria Dolores, anitz estimatzen dixit xure atentzio-*nia* ene horrat zien ikustea jiteko», «aten-*tzio*ne haundiekin atxiki nixie aski konpli-*men*du ezin inez; biziki kontent nuxu eman detan plazerraz ene han ikustiaz» (AB).
- atentzjone fálda** *iz.* Atentzio eza.
- atentzjone gabetasun.** Luzaideko letra batean ageri da: «Lenbizikoik galdeiten daixut barkatu beharko uxula gure atentzjone ga-*betasuna*» (AB).
- aterbe** *iz.* Aterpea, babeslekua.
- ateri egón** *ad.* (da) Ateri egon: *Wái eztik éurik ári, atéri djók.*
- aterrárte** *iz.* Aterrunea (cf. Arruazuko «ater-*kuntz*». Satrustegi, 1963-64: 258). Iker-*tza*ile honek *ederrarte* ere biltzen du (ibid., 263), antzeko adierarekin, irudi duenez.
- atértu** *ad.* (du) Atertu: *Óstjan éurja ái zixin bána atértu íxi.*
- atórra** *iz.* Atorra. Bonapartek (1881: 162) *a-  
thor* biltzen du, baina orain ez ohi da *th* en-*tzu*n. Egun ebakitzen ez diren *h*-ak ditugu, orobat, Printzeak bildurikako hurbilen hitzotan: *erhi, ilhe, ilhargi, manthar, ukhan.* Hauek *éri, ile, ilárgi, mantárra, ukán* ahos-*katzen* dira orain.
- atorrabarnéko** *iz.* Larruasekoa, kamiseta. Ikus *kamiséta* eta *larrwaséko*.
- atórras adond.** Atorra hutsik: *Hólako hótzai-  
kin tá zú atórras?*
- atrebítu** *izond.* Lotsagabea, ausarta: *Urdé atrebítu zíkína hí!* E. Etxamendik ere bada-*rabil* (1988: 35): «Behazok huni! Atrebitia!!!»; Salaberri Ibarrolakoak (1856: 19) ‘hardi, impertinent’ adiera ematen dio. Ikus *frikún*.
- atrexátu** *ad.* (du) Lortu, erdietsi (biarnes-gas-*koiko atrassà* ‘ramasser’, ‘procurer’,

- ‘avoir’-etik?): *Núntik atréxatu úk libúru hau?* Ikus **ajendrátu** sarrera.
- áts** *iz.* Arratsa, gauaren lehen orduak. Ikus **atsálda**.
- atsalaskáite-** *iz.* Askaltze-: *Atsalaskáiten ai-  
zán* ‘merendatzen ari izan’, *atsalaskáitea  
jwán* ‘merendatzera joan’, *atsalaskáitetik  
jín* ‘merendatzetik etorri’, *atsalaskáitean*  
‘merendatzean’, *atsalaskáiteko* ‘merenda-*tze*ko’, *átsalaskáiten dú* ‘atsalaskaltzen  
du(gu)’. Ikus **afáite-** eta **bazkáite-**.
- atsalaskáldu** *ad.* (da-du) Merendatu: *Zóin ún-  
tsa atsalaskáldu ginén atzó!*, *lánetik itzúl-  
tzen nizálaik atsalaskálduko út gústjan.*  
Ikus **atsalaskáite-**.
- atsalaskári** *iz.* Merendua. Etxaidek (1989:  
167) *atsalaskáldu* jaso zuen ‘merienda’  
adierarekin, baina hori aditza da, ez izena.
- atsálda** *iz.* Arratsalde: *Atsaldeún* ‘arratsalde  
on’.
- atsálda apál** *iz.* Arratsaldearen azken orduak:  
*Atsálda apáljan jwáin níz zúre étxeat.* Ba-*naketa* hau da: *atsáldja, atsálda apála, ilu-  
nárra, átsa ta géro gáwa.*
- átso** *iz.* Emakume zaharra, baina mespretxuz  
deitua: *Átso zikín hórri etzakóxola déuse  
sinéts, ezpaitú gezúrrik bezik erráiten!*
- atsulútoki** *adond.* Kosta ahala kosta, kostatzen  
dena kosta (cf. frantseseko *absolument*):  
*Atsulútoki jwán nája úxu* ‘kosta ahala kosta  
joan nahia duxu’. Gutunetan bestelako al-*da*erak ageri dira: «Juan den urtian bezala,  
eta behar bada absolutuki, ze in beharko  
du?» (KB); MAK *atsulutuki* eta *adsolutuki*  
darabiltza: «Berriz juanak tuxu Iruñeat; be-*rak* atsulutuki jua nahi, erran zakotela  
juaiteko zenbait egunen burian», «...eta  
horire gauza trixtia, eta makurro dena, bera  
ez konformatzen, adsolutoki sendatu nahi».
- átx** *interj.* Harridura edo mina adierazteko in-*terj*ekzioa: *Átx, zé káska hártután bórtatik  
pástjan!* Zaraitzun ere ibiltzen zen lehen  
euskaraz (Arana, 2003: 36), eta ibiltzen da  
oraino erdaraz.
- Atxétatupínak.** Luzaideko ihauteetako per-*ts*onaiak. Bi gizon dira, bata emazteki arrop-*ta* petan bezitua eta bestea ardi larru batekin.  
*Atsoa eta tupina* bide da etimologia.
- atxíki** *ad.* (du) 1- Mantendu: *Hérrí húntan be-  
hár djáu eskwára atxíki*, 2- Gorde: *Ánwa*



*sótwan atxikítzen dúk*, 3- Eutsi: *Atxikizák éskjan aitzúr hóri*; *atxíki zaxú hóri ez daín erór*, 4- Eduki: *Etxít náhi botíga hórtako frwíta*, *arrúnt eskupilátwik atxikítzen baituté* ‘ez dixut nahí denda horretako fruta, arrunt eskuztaturik eukitzen baitute’; cf. MAren hau: «Ez diakixut badakixun, X Iruñen duxu bulta xar izanik, beti bere biotzaikin; anbulantzia xeka jinik eraman zixien. Lehenik ospitalian atxiki dixie eta orai pasatu omen dixie *al Opus*». Bestalde, beste hizkeretan *eduki*-rekin osatzen diren adizkiak *atxiki*-rekin egiten dira Luzaideko euskaran, trinkoetarik kanpo: *Sósa górzeik daukát* (orain) baina *sósa górzeik atxíki dút* (lehen). Ikus **idúki**.

**atxíki-atxíkja jwán** *ad.* (da) Gelditu gabe joan, baina ez zalu-zalua: *Gwázen atxíki-atxíkja gizónak, kúsiko uzjé zé bazkári húna inen dún arribátzen gjélaik!*

**atxikiméndu** *iz.* Atxikimendua. Cf. Gutunetako pasarte hau: «Hortatik ageri uxu jendek atxikimendu haundia badauzietela» (AB).

**atximakor**. Satrustegik (1963-64: 259) ‘tómala; ahí la tienes’ adiera ematen dio. Guk ezin izan dugu bildu (< *atximak hor?* Cf. *kásumák* ‘kasu emak’, ‘kontuz ibil hadi’).

**Átxwa** *iz.* Gaindolako *Atxwáinja* etzeko nagusia, edo bertako norbait; **Atxwésa** *iz.* *Atxwáinja*-ko etzekoandrea.

**atzemán** *ad.* 1- Aurkitu: *Atzemán dját gáldu nín pilóta*, «Mundian azken puntara juanike langilia denak lana atzemain» (MA), 2- Harrapatu: *Donjánen atzémán díxje botigán ebátsi zín ohóina*; *jwán den négian alímaleko marránta atzémán nín*. Ikus **harrapatú** eta **kausitu**.

**átzo** *adond.* Atzo.

**Auntxáina** *iz.* Gainekoletako *Auntxaináinja* etzeko nagusia edo beste norbait (oinarrian *ahuntzaina* dago); **Auntxainésa** *iz.* *Auntxaináinja*-ko etzekoandrea.

**áupa** *interj.* Bihotz emateko hitza. Ikus **bíba**.

**auriztár** *iz.* eta *izond.* Aurizkoa.

**aurpégi** *iz.* Begitartea. Lehengo zahar zenbaitu aditua diogu; orain **bisája** erraten ohi da. Ikus orobat **begitárte**.

**áurten** *adond.* Urte honetan.

**aurtíki** *ad.* (du) Bota (zuhaitzak bereziki). Biziki guti ibiltzen da. Cf. Luzaideko arotza-

ren kontu liburuko pasarte hauek (Satrustegi, 1969: 148, 214, 228): «Gaztain ondo baten artiquizen ... 2», «gaztainain artiquize ... 2», «gaztainen artiquizian ... 2», «gaztainain artiquizen egun bat».

**ausárki** 1- *adond.* Anitz, ugari: *Badját ausárki, eztját géjo náhi*; *irázi dík ausárki* ‘asko irabazi dik’, 2- *zenb.* Anitz, ugari. Normalean eskuinetan joaten da: *Úda hártan lán ausárki izán gínin étxjan*. Behin edo beste ezkerretan ere ager daiteke: *Órdjané ausárki jéndekin ibili gínen*. Ikus **izigárrí**.

**ausartatu** *ad.* (da) Ausartu. MAk darabil, behin: «...eta Dn. Jose Mariri ez nuxu ausartatzen deusen galdeitia». Guk beti aditu duguna **menturátu** da. Ikus sarrera hau.

**ausíki** 1- *iz.* Hozka. Metaforikoki ere ibil daiteke; MAren gutun batean ‘artalde handia’ adieraz ageri da: «Ordian gure Ximon kontentuxu, hau artzain xaharra baita. Gazte hok hausiki haundiak behar lizketxie eta iduri bi egunez oro iretsi behar duzela», 2- *ad.* (du) Hozkatu: *Zakúrrak ausíki níxi / ausíkin* *ad.* (du) Hozka egin: *Ausíki bát ín dják zakúrrak* ‘hozka egin zidak zakurrak’, *ausíkin djákoxo* ‘ausiki egin dioxu’.

**ausíkika aizán, hási, ibili** *ad.* (da) Hozkaka ari izan, hasi, ibili.

**ausmárrjan aizán, egón, izán** *ad.* (da) Hausnarrean ari izan, egon: *Béjak denbóra gúzjan ausmárrjan egóiten txú, etxú geldítzen*.

**áuto** *iz.* Beribila (espainoleko *auto*-tik). Ikus **óto**.

**áuzo** *iz.* Auzokoa, ondoko bizilaguna. Ikus **kartjér** sarrera. ABrendako *auzo* ‘kartierra’ da; MArendako, berriz, ‘auzoa (bizilaguna)’ eta ‘kartierra’. Ez batak ez besteak ez dute *kartier* ibiltzen. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 20) *auzo* ‘voisin’ du, baina ez *kartier*.

**auzolán** *iz.* Auzoen arteko elkar-lana.

**axéri** *iz.* Azeria. Ikus **azéri**.

**axèribuztán, azèribuztán** *iz.* Belar mota bat. Satrustegik *atxeri-buztan-belar* biltzen du lehenik (1963-64: 259) eta *azeri buztan gero* (1969b: 59). Autore honen arabera, gernuko gaitzaren kontra erabiltzen da.

**axérjain eztéjak** *iz.* Satrustegik (1963-64: 259) «Se dice cuando llueve con sol. Tam-

bién cuando sale el sol inmediatamente después de una tormenta» deskribatzen du.

**Áxi** *iz.* Ondarrolako *Axínja* etxeko nagusia, edo bertako beste norbait.

**axikátu** *ad.* (du) Txakurra xaxatu: *Axíkazkítxu zakúr hórjek*.

**axíta** *izond.* Arina, erabilerraza: *Aizkóra háu zóin axíta dén!*

**axolagábe** *izond.* Axolagabea. Ez dugu *axola* biltzerik izan, Satrustegik (1963-64: 259) Luzaidekotzat ematen badu ere. **Ezazól** ere erraten da.

**axpixiñ.** Satrustegik biltzen du (1963-64: 259) 'lomillo de cerdo' erranahiaz. Guk hau errateko **lómo ttíjja** jaso dugu. Ikus, dena dela, *azpizun*, *azpisiun*, edozein hiztegitan. Arruazuko ikertzaileak bildurikako hitzaren amaierako *-ñ* hori bitxia da, Luzaiden despalatalizatzeke joera baita. Ikus **lómo**.

**axurdún** *izond.* Axuria duen ardia: «Hazindake untsa tixiu orai; ilaitia in lehenian ekarri zitxien Andikoberrikuak antxu ttipiak eta ardi axurdunak» (MA).

**axúri** *iz.* Axuria. Hau da ohiko hitza; zenbaite-tan, halere, **bildóts** ere erabiltzen da.

**axúrki** *iz.* Bildoskia, bildots haragia.

**axúrki kostelét** *iz.* Ikus **kostelét**.

**axurzai** *iz.* Satrustegiren arabera (1969b: 97) 'axuri zaina' da hitz honen erranahia. Luzaiden, halarik ere, *axurzain*-en moduko zerbaít espero genuke. Cf. *artzáin*, *haurtzáin*...e.a.

**áza** *iz.* Aza.

**azál, axál** *iz.* Azal lodia, azal mehea.

**azántz** *iz.* Zarata. Ikus **harrabóts** eta **kalapíta**.

**azantzile.** Satrustegik honela azaltzen du (1963-64: 259) «(Mitología). Especie de duende que turba la paz de las casas con estruendo de ruidos nocturnos. Se relaciona con la presencia de algún espíritu que recaba la ayuda de los suyos. Se les llama también *tarrataile*». Ikus, orobat, Satrustegi (1969b: 45). Etimologia *azantz(a)* + (*e*)*gile* dateke.

**azáro** *iz.* Urteko hamaikagarren hila.

**azazkál** *iz.* Azazkala. Bonapartek ere (1881: 162) *azazkal* bildu zuen.

**azekia** *iz.* Zekia, erreko erretena beharbada. Luzaideko arotzak darabil: «Eiaraco condia; garbizen gaineco azequia» (Satrustegi, 1969: 120).

**azéri** *iz.* Azeria. Ikus **axéri**.

**ázi** *ad.* (du) Arazi: *Eremanázi, harrázi, ikusázi, sarrázi*...e.a. B. Etxeparek (1980 [1545]: 6) *erazi* darabil: «Irudi bazautzu inprimi erazi ditzazun».

**ázi** 1- *ad.* (da-du) Hazi, 2- *iz.* Hazia. Luzaideko arotzak ere badarabil: «Errezibitia azitaco erregu bat artu», «errezibitia azitaco artu(a) borz gaizuru» (Satrustegi, 1969: 223, 224).

**azidénte** *iz.* Istripua (espainoleko *accidente*-tik; cf. Iparraldeko *akzident*). Ikus **errekóntru**.

**azínda** *iz.* Edozein azienda, baina irudi du 'ardia' adierazteko ibiltzen dela gehienbat; ikus **kabála**, **kaála**. MAk bi aldiz *azienda* darabil, baina normalean *azinda* izaten du / **azjénda xúri** *iz.* Ardia. Cf. ABren hau: «Azinda xuriaindako egun [t]xarrak; kanpua extie deuse jaten, karroinak denak arrunt zuritiak ditixi. Ze inen da? Pazientzia!».

**azíta** *iz.* Platera (frantseseko *assiette*-tik edo biarnes-gaskoiko *assiéte*-tik).

**azkái** *iz.* Sei bat hilabeteko zerria.

**azkamila** *iz.* Satrustegik (1963-64: 260) 'harri edo haiz izugarria' dela dio.

**azkamilka ibili** *ad.* Satrustegik (1963-64: 260) biltzen du, eta dio pisu handiko gauzak erabiltzea dela.

**ázkar** *izond.* eta *adond.* Sendoa, indartsua, gogor: *Zé azkárta dén mutíko hóri!*; *háize azkárta dáila égun, ázkar jóiten dú.* Cf. Luzaideko gutunetako pasarteño hau: «Izigarriko haize hotza, norteko haizia, hegua bezain azkar». Ikus **fjér** / **azkárrik** *adond.* Cf. hau: «Ze apiril tristia in din! Beti euria eta lohitaik ezin ateraz. Egun maiatzain le[he]n eguna ze kanbioa! Hai-ze hegua azkarrik atera ixi, ez baitakit kontinatu din» / **azkárrijan izán** *ad.* (da) Senda, bizkor egon: *Zé, azkárrijan híza gizoná?* Ikus **pixkórrjan izán**.

**azkárki** *adond.* Larriki, gogorki: *Azkárki kolpátuxú azidénteátjan* 'larriki zauritu duxu istripu batean'. Cf. pasarteño hau: «Orai biziki denbora ederrak tixiu, bero iten dixi. Kanpua azkarki piztu duxu, bahatziak eder tuxu» (MA).

**azkartasún** *iz.* Sendotasuna.

**azkárta** *ad.* (da-du) Sendotu, indartu: *Erremé-djo hórrek azkárta íxi gúre mutíkwa*. Ikus **pixkórta**.

**azkén** *izond.* Hondarrekoa / **azkénjan** *adlag.* Hondarrean / **azkénékotz** *adond.* Azkene-ko aldiz, hondarreko aldiz / **azkénik** *adond.* Hondarrik: «Orai azkenik X hil izan duxu, aspaldian xokuan zena» (MA). Ikus **undár**.

**azkón** *iz.* Azkonarra.

**azkúrri** *iz.* Satrustegik (1963-64) 'elikagaia' dela dio. Guk Luzaiden *azkúrri típikwa izán* aditu dugu, nekez hazten den azienda-rendako.

**azoletár, azoltár** *iz.* eta *izond.* Azoletakoa.

**ázpi** *iz.* 1- *Pea: Zapétak mahái ázpjan díra; horrén ázpjan txú xúre gáuzak*, 2- Izterra, pertsonetan eta kabaletan. Ikus **xingárrazpi**.

**azpildúra** *iz.* Jantzi baten azken tolesa.

**ázpjan harrapátu** *ad.* (du) Azpian harrapatu: *Zerrámak kúmeát ázpjan arrapátu íxi éta híl*.

**aztál** *iz.* Aztala, orpoa. Luzaideko arotzak darabilen *aztal* hitzari Satrustegik (1969: 273) 'segaren saihetsa' adiera ematen dio: «Bi tailu aztal berritu bat lamaturic», «tai-

lu bat aztala ezarriric», «tailu bat pezaturic(c) bat aztala ezarriric» (ibid., 212, 225, 228).

**aztalbehárrri** *iz.* Orkatilako hezurak, bi aldeetakoak: *Aztalbehárrja bi(h)úrtu zixin mutíkwa*.

**aztalberritu** *ad.* Luzaideko arotzak darabil, *aztala berritu*-rekin batean: «Bi tailu aztal berrituric», «bisar tailu bat aztal berritu», «bi tailu aztal berritu» (Satrustegi, 1969: 185, 266). Ikus **aztál**.

**aztalezarri** *ad.* Luzaideko arotzak darabil, *aztala ezarri*-rekin batean: «Tailu bat aztal ezarriric» (Satrustegi, 1969: 139). Arruazukoak dio (273) 'acción de reforzar el arranque de la guadaña' dela. Ikus **aztál**.

**aztalka**. Satrustegik (1963-64: 260) 'pataleo' adiera ematen dio; guk ez dugu bil-tzerik izan.

**aztapár** *iz.* Atzaparra.

**aztapárka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da). Atzaparka aritu, hasi, ibili: *Aztapárka ái zjáxu gátu zikín háu!*

**aztaparkátu** *ad.* (du) Atzaparkatu, atzapar egin.

**aztopatu** *ad.* Satrustegik (1963-64: 260) 'tropezar' adiera ematen dio; guk ez dugu bil-tzerik izan.

## B

**bá** 'bai', baina **bajétz**. Satrustegik (1963-64: 260) *baia eman* 'apalabrarse' biltzen du; guk **hitzéman** bildu dugu.

**ba óte** (¿de veras?): *–Mizél badják Améiketat, –Ba óte, –Bá, bá, ótja lárrjan utztaré.*

**baázizkór** *iz.* Zizerkora, kazkabarra. Ikus **hárrri**. Etxaidek (1989: 32) *báazizkórra* biltzen du.

**baázizkórr eráuntsi** *iz.* Kazkabar erauntsia.

**bába** *iz.* Baba (landarea).

**babaléka** *iz.* Baba freskua, lekan dagoena.

**babillun**. Ikus **abillón**.

**badwajá?** Berez 'badoa' da, baina 'zer moduz?' adieraz ibiltzen da, **zér djóxu?**, **zér djózu?** bezala.

**bahatxúri, baatxúri** *iz.* Baratzuria.

**bahatxúrikórda, baatxúrikórda** *iz.* Baratzuri porka.

**bahatxúrixixtér, baatxúrixixtér** *iz.* Baratzuri alea.

**bahátze, baátze** *iz.* Baratzea. Cf. MAren hau: «Orái biziki denbora ederrak tixiu, bero iten dixi. Kanpua azkarki piztu duxu, bahatziak eder tuxu». Satrustegik (1969b: 47) *baratzia* jaso zuen.

**báhe** *iz.* Bahea, galbahea. Ikus **máze** sarrera.

**baigorrjár** *iz.* eta *izond.* Baigorrikoa.

**baimén** *iz.* Baimena. **Permisjóné** ere ibiltzen da.

**báitan** Bizidunen deklinabidean ibiltzen den adizlaguna: *Egón nintxún néure báitan pentsáketa*. Cf. MAren hau: «...bana zinez egia duxu fedia behar dela izan hemengo gauzen eremaiteko; ez balitz fedeik Jinko baitan, ez lukexu bizik».

**baitó** *interj.* **Éztó** eta **éz oixó**-ren baiezko aldaera da. *–Hóri eskwáraz xarmánki mintzátzen dúxu; –Bai tó; hórrek etxi idé-jaiké.*

**baiziketá mend.** Perpaus osagarrietan ibiltzen da: *Ámak errán zjáxun baiziketá serórak jwán behárrak zjéla Luzáidetik*. Ikus **beziketaré**.

**bája?** *Ba* 'bai' aditzondoaren galderazko era: *–Eróri zjáxu lotería, –Bája?*

**bájesús!** (*interj.*) Kontrarietatea adierazten du.

**bajétz** *Ba* 'bai'-ren zeharkako era, 'baietz'.

**bakán, bákán** *iz.* eta *adond.*, **úsu**-ren kontra-koa: *Gáizo zahár horri bílo bakán bátzu geldítzen zazkó bakárrik; ártwa sórtu úk bákán.*

**bakándu** *ad.* (da-du) Bakandu: *Baátzeat jwán beáut ártwen bakántzea.*

**bakántzak** *iz.* Oporrak (frantseseko *vacance(s)*-etik): *Háurrak Egwérritako bakántzen béa djáudexu.*

**bakár** 1- *izond.* Bakarra: *Miljún bakárra ginín bánkwan órdjan*, 2- Bakoitza: *Batút bi sagár bakárraindako* 'badituz bi sagar ba-koitzarendako'; *batút bí sagár bakótxaindako* ere erran daiteke, 3- *adond.* Bakárrik: **MAk** darabil era hau: «Bi lerro bakar-bakarra erraiteko untsa arribatu zirela gure gizonak; goizik hemen zitxun», 4- *adond.* Anitz: *Úswak bakárrak eta bakárrak pástu txú áurten / bakár zombáit zenb.* Gutxi batzuk: *Turista ánitx pasátzen dá Luzáidetik, éta bakár zombáit geldítzen dá erósteko / bakárretan adlag.* Anitzetan; **bakárretan eta bakárretan adlag.** Asko-askotan: *Bakárretan áitu út hóri!*; *bakárretan éta bakárretan izániz Donjáneko merkátjan, astelénetan / bakárrik, bakár-bakárrik adond.* *Bakár-bakárrik geldítu zén gáizo háurra étxjan, gáu hártan.* Ikus **bakótx.**

**bakartasún** *iz.* Bakardadea.

**bakótx** *izord.* Bakoitza: *Bakótxak ín behár dú ahál dína*. MAk *bakotxetan* darabil behin ‘bakarretan, anitzetan’ errateko: «Ez tixi ez haurrak abandonatu ez etare auzoik afontatu; bakotxetan haur típia besuan eta beste zenbait gioletik ikusi dixiu kabalen arranjatzen».

**balakátu** *ad.* (du) Losintxatu, lausengatu.

**balakuz** *adlag.* Satrustegik (1963-64: 260, 1969b: 87) biltzen du eta ‘con halagos, a buenas’, ‘con suavidad’ erranahia ematen. Guk ez dugu bildu, baina bai **balakátu**.

**balántzaka** *adond.* Aldaroka, zealdoka. Ikus **áldo-máldoka** eta **zútibalántzan izán**.

**balastra** *iz.* Satrustegik (1969b: 95) eskailere-tako baranda dela dio.

**baldar** *izond.* ‘Contrahecho’, Satrustegiren arabera (1963-64: 260); ez dirudi Luzaideko elea denik.

**baldín, balín, balín ba** *Baldintzako mendera-gailuak.* Lehena arruntean, dakigula, esaldiaren hasieran ibiltzen da eta horzkaririk gabeko aldaera bestelakoetan: *Jwáiten balín baníz Iruñeat kárriko dázkixut bunbúnak ausárki*.

**balekibále** *adond.* Badaezpada: *Hártzáxu páltwa balekibále, géro ilúntzjan hóztuko baitú méntwaz*.

**bali aizan** *ad.* (da), **bali in** *ad.* (du) Baliatu, profitatu. Luzaideko eskutitzetan agertzen dira: «Oraiko pidaia duaiké bali inen dixi; berak erran díñ arabera, esposatzea juan duxu» (AB), «Fakunda eta Ines untsa tuxu; hau ez dixit ardura ikusten. Fakundaikin denbora bali hartzen gituxu elgarretatzen gielaik» (MA). Ikus **baljátu**.

**baljátu** *ad.* (da-du) Profitatu: *Anájain ótwa xarmánki baljátu íxju Iruñeat jwáiteko; aítámeék útzi sósz baljátu gítuk piája horréñ iteko*. Cf. MAren hau: «Zenbait meza entzunik juan da mundutik; nik uste baliatuko zazkon». Ikus **profitátu**.

**báljo izán** *ad.* (du) 1- (Sosa...) balio izan: *Óto hórrek ánitx báljo ík*, 2- Merezi izan: *Étxi báljo zozokérjetan íbiltzja*, 3- Berdin izan, gauza bera izan. Cf. MAren gutunetako pasartetxo hauek: «X-ke segitzen dixi untsa ez baitu berdin balio seurki, bana kasuin behar baitu», «hoinbeste denbora zor nila letra eta naski biga, fontsian berdin balio bai-

tu. Oraí ja lanak típitu baitira», 4- Deustarako balio ez izan (entonazio bereziz): *Báljo dík púskat gure lan gúzjak géro nehóke ez léitzeko!* / **berdín báljo ez izán** *ad.* (du) Erabat desberdina izan edo, erdarazko ‘ser otra cosica’: «Oraí karreteraño hunekin ez baitu berdin balio gauaz ibiltzeko» (MA) / **berdín báljo izán** *ad.* (du) Berdín izan: *Berdín dixi báljo, bá* ‘berdin da, bai’, xuka. Cf. MAren hau: «Oraí biak berriak izain tuxu; duaiké berdin balio baitu». Ikus **igwál báljo izán**.

**baljós** *izond.* Balio duena, balioa baduena: *Mutko baljósja dá gúre lehén kúsja*.

**balúsak** *izlag.* Panazkoak (biarnes-gaskoiko *balous*-etik): *Pantalón balúsak* ‘panazko galtzak’.

**bána**: 1- *junt.-lok.* Baina: *Ánitx sósz irázten dú bána ezáko agéri, irázjak óro xahúntzen baititú*; cf. ondoko pasartetxo hau: «Pentsatzen dixit ingoitik arrunt berantetsia xirela xure letrain errepostia, bana espres egon nuxu, bainakin baxinila Luzaidetik berri frango» (MA), 2- *junt.-lok.* Baizik: *Azidéntja eztú ukán Enauténgwak, bána Zipilíngwak*. Ikus **bézik**, 3- *zenb.* Bana (banatzailea, normalki **bedéra**): *Sagár bána, emán gúri kullérana, kátxu pílotana*.

**bandéra** *iz.* Bandera.

**banderári** *iz.* Bolant egunean bandera eramaten duena. Ikus **zapúr**.

**bandíl** *izond.* Alferra, bizitze txarrekoa. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 23) *bandít* ‘bandit’ biltzen du; Manezaundi luzaidarrak etsenplu hauek ditu, besteak beste: «Bestea da, lanpide ezaguturik gabeko gizon bat, abila eta ernea, bainan bandila. Ez da laborari, ez da hargina, ez da zurgina, ez du etxerik ere, eta gauak iragaiten ditu barruki edo aterbe batean» (1990: 40), «azkenian asto bandil eta afer hura etzan zen, edo hobeki erraiteko, belhaunikatu» (ibid., 200). E. Etxamendik ere badarabil (1988: 116): «Ez zakala nigarrrik in Zaaiztian, ez dik balio! Ze? Bandil tzar horrek doluin? Ez dik seurki mehexi! Urde kuskulla!». Baztanen *mandile* ‘alferra, alfer handia’ ibiltzen da, Izetaren arabera (1996: 127).

**bandilkérja** *iz.* Bestilekeria, alferkeria, bizitze txarra: *Gúre aixkíde hóri béti bandilkérjan*

- djáilaxu, etxi fundaméntu erréstoikè.* Ca-minok (1997: 601) Aezkoan *bandilkeria* ‘alferkeria’ ibiltzen dela dio.
- bankár iz.** eta *izond.* Bankakoa.
- báno** 1- Alderaketan erabiltzen den hitza, ‘baino’: *Maztéki hóri xú báno zahárro úxu,* 2- *izond.* Koldarra, eulia: *Zé gizón bánwa!, herríko béstetan dének irríten djakóxote tá eztíxi já eré erráiten!*
- bapátjan, bápátjan adlag.** Bat-batean: *Ótwai-kin zoálaik bapátjan arbólat eróri tá séko hílik geldítu zén.* MAK *bat-batian* darabil: «Bat-batian oroitu ninduxun eta erran nie-xun zer lana inin», «egun denborare sanja-tu dixi bat-batian». Ikus **bet-betan.**
- bapór iz.** Lurruna. Ikus **láno.**
- barátu ad.** (da-du) Gelditu: *Éurja ái díxi bará-tu gábe* ‘euria ari dixu gelditu gabe’. Irudi du Luzaideko arotzaren liburuan *baratu* forma *paratu*-ren adiera berarekin ageri dela, egungo **paátu**-renarekin, hots ‘ordaindu’ erran nahi duela (*pahatu* MAren eskutitzetan). Nolanahi ere, Satrustegik (1969: 273, 281) *baratu* ‘quedar pendiente’ dela dio, eta inoiz horrela dela dirudi: «Arzeco baratu... 2,10» (195). Beste batzuetan, ordea, ‘ordaindu’ dela irudi du, hots, *paratu*-ren adierakide: «Condu zaarra baratia azaruan... 2,13» (154).
- barbarista iz.** Satrustegiren arabera (1963-64: 260) «Hormigüeo. Se dice del picor o escozor que provoca a veces la mala circulación de la sangre» da. Guk ez dugu bildu ahal izan.
- barbér iz.** Bizargilea. Lehen ibiltzen zen hitza da; orain ez da ohikoa. *Barberainbórda* Luzaideko etxe baten izena da. Arotzak badarabil: «Barbera paratia domingoin echian zoolaic» (Satrustegi, 1969: 163).
- Barberainbórda iz.** Pektotxetako *Barberainbórda* etxeko nagusia eskuarki, baina bertako beste edozein ere izan daiteke.
- bárda adond.** Bart: *Bárda mozkórtwik sártu nintzán ófjan.* Cf. MAren hau: «Nik uste nixin egun zenbait egoin ziela bat edo bestia harekin, bana barda berian jin zitxun etxeat».
- báre iz.** 1- Animalia, 2- Erraia.
- baresáre iz.** Barea (erraiari) loturik dagoen sare modukoa.

**barkaméndu iz.** Barkamena. Era mugatua *barkaméndja* da, ez Etxaidek (1989: 212) dakarren *bárkaménd*ªa.

**barkátu ad.** (du) Barkatu.

**bárna** 1- *adond.* Sakon(ki): *Baátzia bárna aitzúrtu behár dá, besténaz eztú báljo; lúrra bárna beháúxu zilátu satórren atze-máiteko,* 2- *adlag.* Barrenera: *Oihánjan bárna sártzen díra ihiztárjak basúrden harrapátzeko* / **bárna izán ad.** (da) Zale izan (inesiboa galdegiten du): *Ni arráin-kjan enúk báte bárna* ‘ez naiz batere arrainzalea (jateko orduan)’. Larrek ere (2001: 180) badarabil: «Ostatu bat begis-tatu ginuen behin, «Euskadi rojo» izena-rekin, bainan gu politika hortan, (politi-koa balinbazen), ez ginen batere barna» / **burumúñetan bárna sártu ad.** (da). Ikus **burumúñak.**

**bárne iz.** Barrena, barrua: *Bárne húntan béro-úxu izígarrí.* Etxaidek (1989: 273) erdaraz-ko *dentro*-ren baliokidetakoa *bárr<sup>n</sup>nián gíra* bildu zuen eta *de dentro, las cosas de dentro*-ren itzulpentzat *bárrenekó gáuzák (ido-rrág dírá)* (ibid., 274), baina ez dirudi hitz barreneko –e- hori adi daitekeenik. Honela deklinatzen da: *bárnétik, bárnjan, bárneat...e.a.* / **bárne tzárreko izlag.** Barren gaiztokoa, arima beltza / **barnéko iz.** Mahukarik gabeko jertse modukoa, aitzinaldean botoiz ixten dena (*chaleco* gazte-laniaz).

**barra iz.** Luzaideko arotzak darabil: «Furne-*co burdina barra bat*», «furneucó burdín barrac», «bi burdín barra arriñiatu bordaco» (Satrustegi, 1969: 184, 193, 202).

**barra-barra adond.** Satrustegik dio (1963-64: 260) ugaritasun adiera duela (*elurra barra barra*) edo ‘franko zigortu’ dela (*barra barra in artio eman*). Guk *elúrra zánpa-zánpa* besterik ez dugu bildu.

**barrabíl iz.** Barrabila, potroa. Ikus **koskóil.**

**barrabiláundi izond.** Potroandia: *Barrabi-láundi hí!, nún iblíli híz orái ártjo?* Ikus **koskoiláundi.**

**barradera iz.** Satrustegik (1969: 273) ‘com-puerta’ adiera ematen dio Luzaideko arotzak darabilen hitz honi: «Bost santelize berri barraderaco», «burusuri barradera eitan» (ibid., 222, 251).

**barráka** *iz.* Parrandazalea edo; gaitzesteko adiera du. Satrustegik dio (1963-64: 261) Luzaiden ‘poco sociable’ dela, eta Lapurdiko itsasaldean pertsona gaztuna, grazia-duna adierazten duela.

**barreátu** *ad.* (da-du) Barreiatu: *Irúzkja atéa-tzen balínbadú barreátuko txjú belárrak.*

**barrendatu** *ad.* Satrustegik biltzen du (1963-64: 261) eta ‘zelatan egon, zelatatu’ adiera ematen. Ikus **barréndun egón**.

**barréndun egón** *ad.* (da) Zelatan egon: *Bartzelóna barréndun egóitentzúxun háurrek etzitzáten ahának ebáts.*

**barríka** *iz.* Upela. Luzaideko arotzak ere bazerabilen: «Bi burdin barrica b(a)tendac(o)» (Satrustegi, 1969: 70).

**barrúki** *iz.* Trasteak sartzeko gela da Luzaiden. Satrustegik dio (1963-64: 261) «lugar de pastoreo provisto de cerradura. También borda. Cuarto de desahogo de las casas» dela. Guk bakarrik hondarreko adiera honekin bildu dugu.

**Bartzelóna, Bartzalóna** *iz.* Karrikako *Bartzelóna* edo *Bartzalóna* etxeko nagusia. Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969) beti *Barzalona* darabil. Komunzkí *Bartzelóna*-ko nagusia adierazten du, baina ez beti. Izen baten gibelean ezarria delarik erran nahi du eramailea etxe horretakoa dela, ez nahitaez etxeko jauna edo etxekoandrea: *Añés Bartzelóna, Péjo Bartzelóna*. Leku genitiboarekin ere joan daiteke: *Bartzelónako Añés zéna*. **Bartzelonésa** *iz.* *Bartzelóna*-ko etxekoandrea.

**barúr** *iz.* Baraura: *Barúra háustecai értentzáko baruráustja édo desajúnwa* / **barúrik** *adond.* Baraurik: *Barúrik jwániz medíkura ín behár baitazkján prwéba átzu* / **barúrik izán, barúrik egón** *ad.* (da) Baraurik izan, baraurik egon / **barúrín** *ad.* (du) Baraur egin.

**baruráuste** *iz.* Gosari txikia, ‘desayuno’. Etxaidek (1989: 164) *askál aitzína* eta *barúl-áustea* jaso zituen.

**baruráutsi** *ad.* (du) Jaiki eta berehala egiten zen otordua, normalean esnea edatea zen. Etxaidek (1989: 164) *barúl-áustea* eta *askal-aitzína* bildu zituen ‘desayuno’ errateko. **Desajunátu** ere erraten da edo **ésnja hártu** beste gisan. Aditz honek eskatzen

duen laguntzaileaz kestione, *du dela segurua da, baina ez dakigu da ere ez ote den, afáldu út - afáldu níz eta bazkáldu út - bazkáldu níz* erraten baita.

**bása** *iz.* eta *izond.* Salbaia: *Ené áuzwa bása úk arrúnt!*; *zé náuk átea bása hórtaik?* ‘zer atera nahi duk basati horrengandik’; *urdé bása zikína, zéndako ín dák lán hóri?* Ikus **salbája**.

**basaáte** *iz.* Basahatea.

**basagátu** *iz.* Basakatuá.

**basajáun** *iz.* Pertsonaia mitologikoa.

**basáuntz** *iz.* Orkatza.

**basaxarpota** *iz.* Landare baten izena; Satrustegik dio (1969b: 59) kokaluxearen kontra ibiltzen dela. Ikus **xarpóta**.

**básme** *iz.* Zaurietatik ateratzen den ura edo, gesala (ez da segurua). Satrustegik (1963-64: 261) *basne* biltzen du eta ‘tumor’, ‘bul-to’ adiera ematen.

**báso** *iz.* Edalontzia (gaztelaniako *vaso*-tik).

**básta** *iz.* 1- Albainua, 2- Basta, txalma handia: *Mándo háundja básta háundja* (esaera).

**basta burdina** *iz.* Luzaideko arotzak darabil: «Basta burdina bat» (Satrustegi, 1969: 167).

**basúrde** *iz.* Basurdea.

**bát, baño** *zenb.* **Báño** bakarrik erabiltzen da, ez izen baten ondoan; hortaz, *-Zónbat sagár náhi txú?*, *-Baño* / *bát*, baina *sagár bát*, ez *\*sagár baño*. Zenbaitetan, ezezko perpausetan, **báte**-ren kidea izan daiteke: *Ín behár zítin lánetaik étxi báte ín, báñoré ín* ‘egin behar zituen lanetatik ez du bat ere egin, baño ere egin’. -A, -e, -o ondoan hasierako *b-* galtzen du: *alábat* ‘alaba bat’, *atsálde atéz* ‘arratsalde batez’, *sagár óswat* ‘sagar oso bat’, baina ez *i* eta *u* ondoan: *Árgi bát, búru bát...* Atzizkia, *-ño*, beste zenbakiekin ere erabil daiteke. Cf. ABren pasarte hau: «Xuke aspal-diko bakantzak hartzequak txu; etxit uste Don Jose Mari sobera izain zakon hamar-ñoat egunen uzтия» / **báte** 1- Ezer: *Galdín dúxa baté?* ‘galdetu al duzu ezer?’, 2- *adond.* (mailakatzailea) Batere: *Lusár sálda háu etxú báte húna átea; ánwa étxi báte máite* ‘ardoa ez zaio batere gustatzen’. Ikus **jéuse** / **batéko** *iz.* Batekoa, lehen karta palo bakoitzean / **bátjan** *adlag.*

- Batera: *Sártu gintxún dénak bátjan; aná-jakilan bátjan jwán nintxun Donjáneko merkáturat.*
- bata** *iz.* Mantala. MAK darabil: «Josefinak laundu nindixin undarrrian lisatzen idorrazteko bata eta trikota»; guk beti **taulér** aditu dugu.
- batajátu, batejátu** *ad.* (da-du) Bataiatu: *Ní Luzáiden sórtu nintzán éta hán batejátu nindúten.*
- batajo, batejo** *iz.* Bataioa. B. Etxeparek (1980 [1545]: 16) *bateiarrira* darabil. Cf. MAren hau: «Izan gituxu Ximon eta ni Arbonen Karmeloin haurrain bataiotan; alabaño at baixi pollita. Ximon zuxun aitatxi».
- batasun.** Luzaideko gutunetan ageri da: «Biziki eleganki zarriak tixi, beztituik arropa zuri ederrekin; Santiago egunian estrenatiak tixie. Frantzes hokin gaitzeko batasun haundia ixie» (AB). Ikus **unione**.
- bátu** *ad.* (du) Edoski: *Ahátxjak batú dja?; axúrja bátzen ái dúxu xarmánki.*
- bátzu, bátzo** *zenb.* Batzuk. B. Etxeparek (1980 [1545]: 6) *batzu* darabil.
- baxaán, baxakán** *iz.* Patxarana. Satrustegik lehenik (1963-64: 261) *basakan* biltzen du, -s-z eta beranduago (1969b: 11) *baxakahan*.
- báxenabartár-** 1- *iz.* eta *izond.* Nafarroa Beheretako, 2- *iz.* Nafarroa Behereko euskara.
- baxtárt** *iz.* eta *izond.* Bastarta, borta: *Étxe hortáko náusi zahárta baxtártá zén.*
- bázka** *iz.* Aziendentzako jana: *Péntze hórtan báixu alímaleko bázka* ('belarra'). Ikus **bazkátu, urribázka** eta **zerribázka**.
- bazkaíte** *iz.* Bazkaltze-: *Bazkáiten dú* 'bazkaltzen du(gu)' / **bazkaítea** *jwán* *ad.* (da) / **bazkaítean** *adlag.* Bazkaltzean / **bazkaíten aizán** *ad.* (da) Bazkaltzen ari izan / **bazkaíten izán** *ad.* (da-du): «Erraiten daxu bestak zinuztela, eta Iruñeko apez kantariake bazkaiten hor zinuztela» (AB), «Omia Saindutan Ferranenian ninduxun bazkaiten» (MA) / **bazkaítetik jín** *ad.* (da) / **bazkaíteko** *adlag.* eta *izlag.* Bazkaltzeko: «Bueno M<sup>a</sup> Dolores maitia, behaixit finitu, bazkaiteko tenoria baita eta, erran bezala, juan behar baitut» (MA).
- bazkalaintzin.** Satrustegik (1963-64: 261) 'hora del aperitivo' adiera ematen dio.

**bazkálidi** *iz.* Aziendak bazkatzen diren aldi baikoitza: *Négjan, égum txárretan, árdjer híru bazkálidi emáiten deztéu.*

**bazkálidu** *ad.* (da-du) Bazkaldu: *Xarmánki bazkálidu íxju egún; izfgarri úntsa bazkálidu gintxun átzó.* Ikus **apáiru** eta **bazkaíte-**.

**bazkaltjár, bazkaltjér** *iz.* Bazkaltiarra, bazkaltzera gonbidatua dena edo bazkaltzera biltzen dena.

**bazkári** *iz.* Eguerdiko apairua, otordua / **bazkaríño** *iz.* Bazkari txikia, 'bazkaria, lagunarteko hizkeran'.

**bazkátu** *ad.* (du) Aziendei jatekoa eman: *Bazkatú txjá zérrjak?*, «Andikoberriko bazkak erosiak tixi Ximonek beti bezala, ohono gainian tixie ardiak bana biltzen tixie eta hasiak tuxu bazkatzen» (MA).

**Bázko** *iz.* Pazkoa: *Bazkótan jwanintzán hérrirat.* Luzaideko arontzak «angulenen bazcoco asuria balio... 4» 'Angel izeneko norbaiten pazkoko axuria(k) balio (du)... 4' dakar (Satrustegi, 1969: 172) / **Bázko áste** *iz.* Pazkotako astea / **Bázko biámun** *iz.* Pazko biharamuna. MAK *Bazko bihamun* darabil: «Bazko bihamunian izan ninduxun Bidartian» / **Bázko egún** *iz.* Pazko eguna / **Bazko ondo** *iz.* Bazkoren ondorengo egunak. MAK biltzen du: «Ni kontento nindukexu egun batez iten ahal banu, bana azkenian jinen nuxu, xuk erraiten duxun bezala, bana ja orai Bazko ondo artio nik uste utzi beharko dun. Hera zer iruditzen zaizien Bazko ondoko astian, fonsian igor» / **Bázko zahár** *iz.* Lehen ibiltzen zen, pazko ondoko lehen igandea adierazteko. Lhandek dio (1926: 120) Harriet eta Hiribarrenen arabera 'dimanche de Quasimodo' dela eta Zuberoako Zalgizen 'Pâques fleuries' adiera duela. Azkueren arabera (1969 [1905]: 139) *bazko-zar, basko-zahar*, zenbait euskalkitan, pazko ondoko lehen igandea da.

**baztandár** 1- *iz.* eta *izond.* Baztanen sortua, Baztangoa, 2- *iz.* Baztango euskara: *Gizón hóri mintzóuk baztandárrez.*

**baztér** *iz.* 1- Bazterra, 2- Lekua (pluralean komunzki): *Frántzjan baztérrek kéxu díra;* «Armeiko otuan jiten duxu, goizian puxkat bazterrak garbitu eta» (MA). Ikus **bide-baztér** eta **karríka baztér** sarrerak.



**bazterkín** *iz.* *Xíngar xáflaték álde atetík axála izáuten dík ta bestétík bazterkína, errétzeko kéntzentzakóna. Bazterkína, dena dela, edozein gauzarena izan daiteke, ez bakarrik zingarrarena. Zérrjain baztérkinak (ikus fardílak).*

**bazterrétxe** *iz.* Baserria. Gutí ibiltzen da hitz hau orain; usaian **laborári étxe** erraten da.

**baztértu** *ad.* (da-du) Bazertu, bazterrera egin: *Étxe hártan etzójxen sobéra máite, baztér-tzen zójxen.*

**béa egón, béha egón** *ad.* (da) Zain egon, espe-roan egon: *Híre béa egónuk atsálde gúzjan tá ehíz agértu, álu zíkína!* Egun honelako-ak Iparraldekotzat jotzen dira, arrazoiz gainera, baina oroitu beharra da 1596ko Betolatzaren dotrinan hau dagoela (Mítxe-lena, 1955: 55): «...Arima Santak egoz-nak bere etorrunen begira» zein honela itzultzen baita bertan: «...las Ánimas de los Santos Padres, que estaban esperando su santo advenimiento». Cf. gutunetako pasarteño hau: «Atzo jan zila fileteño at gohotik; nik uste hasiko den ba. Erran dia-koxut behar lukela zerbait hartu azkartze-ko; orai X-n beha diaudexu».

**beako.** Satrustegik (1963-64: 261) biltzen du, 'begirada' adieraz. Guk **só** bildu dugu. Etxeparek (1980 [1545]: 36) *beha* 'begi-ra(tu)' darabil: «Elas othoi hunat beha bekhatore guzia».

**beátzi** *zenb.* Bederatzi. Etxaidek (1989: 354) *beđrátzi* bildu zuen; *beátzira* 'bederatzi-na'. Luzaideko arotzaren liburuan «lau zaqu ogui bederazira» 'lau zaku gari bederatzina (franko)' ageri da (Satrustegi, 1969: 241), *beatzjeún* 'bederatziehun'.

**beátziurrún** *iz.* Bederatziurrena. Satrustegik (1969b: 80) *behatziurrena* biltzen du.

**beáuxu otói!** *interj.* Baito, bai zera: *–Gúre kúsi hórrek utziko daujá baldín gínákona? –Beáuxu otói!, etxú hórtaik ári* '–Gure lehengusu horrek utziko al digu eskatu geniona?, –Bai zera!, ez du ez holako asmo-rik'. J. Etxepare medikuak ere (1992: 353) badarabil: «–Ezagun da laguntzarik deus, behere hoitarik, ondarreko uholdeak hunki familientzat? –Berautzu otói, Geaxan! Ez dakizuiua mendi zokoetarat zoin nekez hel-tzen den sosa?».

**béden** *lok.* Bederen: *Emázu éni áno xórtát bé-den; xúk hóri ín baxinéza béden.* ikus **has-téko** eta **séurik**.

**bedéra** *zenb.* Bana: *Bedéra bunbúna = bunbú-na bána* 'karamelo bana'; *bedéra gízón ikúsi djáu.* Cf., halere, hau (Satrustegi, 1981: 345): «Mila bedera libera pagatu baititu (...). *Milána* (< *mila bana*) = *bedé-ra mila*.

**bederázka** *adlag.* Banaka: *Árdjak sártu zitxún bórdan bederázka.*

**bégi** *iz.* Begia. Satrustegik, Luzaideko arotzaren liburuko hiztegia aztertzean, dio 'lanabesen zuloa' ere badela (1969: 273): «Nabarra eracachiric beguia pezaturic» (139), «nabarra eracachi beguitic ausiric arinatu» (sic) (143), «ayoz bat beguia berria» (146) / **bégi atxíki** (ikus **atxíki**) *ad.* (du) Begi eduki, kontuz ibili. Cf. Aintzi-buru & Etxarrenen hau (2002: 130): «Joko hori errexa zen ikasteko, baina denbora pasagailu ona, noiztenka begia atxikiz artaldeari eta etor zitekeen pizti edo basabereari» / **bégik ez hétsi, bégik ez zerrátu** *ad.* (du) Begirik ez itxi: *Gáu gúzjan etxít bégik zerrátu / begiño* *iz.* Begitxo.

**begiberritu** *ad.* (du) Tresna baten begia berri-tu. Luzaideko arotzaren liburuan ageri da: «Yorrai bat beguiberrituric», «arrastelu bat beguiberrituric» (Satrustegi, 1969: 138), «aizur bat beguiberrituric» (142), «burdin sagarde bat beguiberritu» (155), «ayoz bat beguiberritu» (157), «picotina bat beguiberritu alzairaturic» (164), «ayzurroch bat beguiberrituric» (181). Ikus **ahoberritu** eta **buruberritu**.

**begigóse** *izond.* Jan dezakeen baino gehiago hartzen duena: *Zé begigósja dén gúre mutíko háu, azíta betétzen dú ta géro eztú já-ten!*

**begimakúr** *izond.* Ezkela. *Eskólan bazén mutíko át arrúnt begimakúr-ra; harékilan elá-ka ái zinélaik etzinakín nóat só ítentzín.*

**begitárte** *iz.* Aurpegia. Egun ez da ohikoa; normalean **bisája** erraten da; ikus sarrera hau eta **aurpégi**. B. Etxeparek *begitartia* zerabilen (1980 [1545]: 22).

**bégjan zíkína báno géjo ikúsi náhi ez izán** *ad.* (du) (esam.) Begiko zikina baino gu-

txiago maite izan: *Alú horí ez d́xit ḱsten ál b́gian ziḱna báno géjo.*

**behánt** *adond.* Berandu. ABk beti *berant* ibiltzen du: «Berant bada berant, nahi dauzkitzut igorri bi lerro aspaldiko partez, erraiteko errezipitu dula xure azkeneko letra, plazerrekin jakitiaz untsa ziztela, lana frangoikin».

**behár** 1- *iz.* Beharra: *Ník ezt́xit behár háundik.* Eskutitzetan *beharrena* ‘beharrezkoena’ agertzen da: «Egun hortan utzi lanak alde batea, beharrenak in eta» (AB), «enfin, denetan zerbait ba eta osagarria beharrena» (MA), 2- Izanen dena edo, gaia edo: «Igandian besta pollita ginixin, apez beharrain eskeintzain ofreitzia gure Jinkuari; ono diakono uxu. Hemen zuxun obispo jauna; apezgai pollita» (AB) / **behár izán** *ad.* (du) Behar izan: *Sós ḱtsja beháxit óto b́rri batén erósteko.* Maiz ondoko adizkiarekin bat eginin aurkitzen dugu *behar*, eta aspirazioa galdurik. Cf. *egún inbéaut bokáta* (F. Camino, Euskaltzaindia, 1999: 110). Cf., orobat, ondoko pasartetxo hau: «Bauxu ba, hane noat buru in, bana gauzak jten diren bezala hartu behar!» (AB) / **behárko**: *–B́har jwán behauxjá láneat? –Bá, behárko (jwán).* Hau, ikus daitekeen bezala, aditz partizipioarekin edo gabe erabil daitezke; lehen kasuan aditzondo baten iruditsua da / **behárrik** *adond.* Uroski, gaitz erdi: *Behárrik j́n baitzakó Jwánes!*, *behárrik j́ntziakoxó Jwánes!* Indar gehiagoko emateko errepikatu egiten da: *Behárrik eta behárrik!* Ikus **uróski** sarrera. Cf. Barbieren hau (1926: 20-21): «Ainhoako par hetan, gibelesko pottoka zonbeit irrintzireka hasi ziren, beren lagunak aintzinean sumatzearekin. Beharrik, laster ixildu baitziren, eta beharrik oraino, guardarik ez baitzen han gandi!» / **beharrik** *adond.* MAK aditzondotzat darabil *beharrik*, baina aitzinekoaz beste era batera: «Azkenian hasten nuxu xuri buruz [ixkiatzen], hoinbeste denbora huntan in beharrik» / **behárrikako** *izlag.* Beharrekoa, beharrezkoa: *Behárrikako Mañex d́xju étxjan, besténaz ezpáitakit nóla atéako ginén aitzína* ‘uroski Mañex etxean baitugu, bestenaz ez baitakit nola aterako ginen aitzina’. Cf. MAren

hauek: «Errain diakoxut Fakundaire igortzeko berriak; beharrikakua ixii auzuan», «atseko mezan izan eta segidan etxeat, holako denboraikin, xutik ezin egonez karroinaikin; beharrikako karretera!». Aezkooan ere ibiltzen da, Luzaiden bezalatsu, irudi duenez: «Norbait beste norbaitez behartu eta baliatu delarik hala esaten da laguntzaile gertatu denaz» (Camino, 1997: 601).

**beharbídjan, bearbídjan** *adlag.* Ordez, -teko partez: *Étxeat jwán be(h)arbídjan ostátu bátea jwán zítxun.* Gutxi ibiltzen da eta galdeginek baizik ez dugu atera ahal izan. Cf. Nicolas Politen hau (Satrustegi, 1987: 279): «...baicican eguiten dute ere bertze becatu mortal berri bat vere exemplu gaiss-to oquin aurrer emaiten duten esacandalaingatiq, eman behar vidian exemplu una vere itz eta obretan».

**behárrri** *iz.* Belarria. Satrustegik dio (1969: 272) Luzaideko arotzak darabilen *bearri* ‘muñón del yugo’ dela: «Buztarrri bat lau bearriac berrituric» (160), «buztarrri bat arriñatu lau bearriac berric» (261) / **behárrriko mín** *iz.* Belarriko mina.

**behárrimótz** *iz.* eta *izond.* Euskaraz ez dakiena; ikus **kaskóin**: *Mutíkwa eskwaldúna dá bá, bána néskak eztáki hitziké, behárrimótz dá.*

**behárrixílo, behárrizílo** *iz.* 1- Belarri zuloa, 2- Sakrea (behin aditu dugu): *Urdé behárrizílo ziḱna!*

**behárróndoko** *iz.* Belarrondokoa, zafla.

**behártu** *ad.* (da) Beste irtenbiderik ez izan: *Mutíkwa erítu úk tá behártu zják ospítale-at eréman* ‘mutikoa gaixotu duk eta ospitalera eramane beste irtenbiderik ez diat izan’; *ótwa andeátu zjáxu tá huñez jwán behártu zjáxu* ‘autoa hautsi zait eta nahitaez oinez joan behar izan dut’ (xuka). Cf. letretako aipu hauek hau: «Untsa pena izan dixit, undarreat utzi eta gero deuse, beti arin! Undarrian juan behartu ziakoxu uste bano lehen» (AB), «polliki duxu, jeikitzen hasia duxu, bana zangua ideki behartu eta Katrine untsa akitia duxu» (MA).

**behátu** *ad.* (da) Zerbaiti kasu egin. Ikus **beirátu**. Cf. Etxebarneren hau (1989: 134): «Beti, dena den, badakizue emaztea duzuen gizon horiek, behar dela haunitz aldiz

- emazteak erranari ere behatu». Gutunetan ere ageri da: «Ameriketatik ez dixie ohono ixkiatu Felixi, fite errain diaxu. Josefina hasteko anitz behatzen ziaxoxu» (MA).
- behátz** *iz.* Eri lodia. Ikus **éri** eta **kikíl**.
- behaztapátu** *ad.* (da) behaztopatu. Ikus **trabá-tu**.
- beherapén** *iz.* Ilbehera. Ikus **ilárgi**.
- behére** *iz.* 1- Behe (ikus **zóla**): *Ibañétan bá, bána behére hótan etxú elúrrik; Behéreko péntzjan badíra béhi átzó sártjak* 'beheko euntzean badira behi batzuk sartuak', 2- Beheitia, etxearen beheko estaia: *–Nún dá Manezúrura? –Behérjan*.
- behéx** *adond.* Bereiz: *Behéx zárri behár tjáu árdjak éta ántxiak* 'bereiz ezarri behar di-tiagu ardiak eta antxuak'. Cf. MAren hau: «Orai han miatuko dixie untsa duaiké. Ganbara behex batian utzi dula, bertze Tallalako gizon batekin».
- behéxi** *ad.* (da-du) Bereizi, bakartu: *Senár-mázte hórjek undárrjan behéxi txú*.
- béhi** *iz.* Behia / **béhi górrí** 'pirenaica', behi mota bat / **béhi ñabár** behi zuri-belta / **béhi ñapúr** (ikus **ñapúr**).
- behí gatina** *iz.* Luzaideko arotzak darabil, 'behiak lotzeko katea' balioarekin, Satrustegik dioenez (1969: 274): «Bei gatina pare bat(i) bi mail» (215). Cf. «bi gatina parre beiendaco» (158).
- behigásna** *iz.* Behi esnez egindako gazta. Ikus **ardigásna** eta **gásna** sarrera.
- béhin, béin** *adond.* Behin: *Béin izán núntxun Lúrdan / béine* *adond.* Inoiz: «Be(h)ine jiten bazauxu seur nuxu bultaño batez izain diela ze konda» (AB). Ikus **sékulan / béine éz** inoiz ez (= **sékula(n) éz, egúndaino éz**): *Exít béine ikúsi hólakoik / béin báno géjotán: Dónapaléun béin báno géjotán izána níz / nóizjan bé(h)in* noizean behin; cf. hau: «Hartzen tixi injezioniak noizian behin, bana hori duaiké ez baita aisa kasatzen». Ikus **noizténka**.
- behitéi** *iz.* Behitegia.
- behizáin** *iz.* Behizaina, behiak zaintzen dituená.
- behóka** *iz.* Behor ttipia, behor gaztea.
- behór** *iz.* Behorra.
- Behorléi** *iz.* Ondarrolako *Behorléja* etxeko nagusia; **Behorléisa** *iz.* *Behorléja*-ko etxekoandrea.
- béila** *iz.* 1- Erromeria (ikus **peregrinazjone** eta **prozesjone**): *Frantsésen béila zúxun*, 2- Gorpua laguntzea.
- beilári** *iz.* 1- Erromesa, 2- Gorpua laguntzen gelditzen dena. Satrustegik (1963-64: 261) *beilari* dakar lehenerako eta *beillari* bigarrenearako; guk ez dugu horrelako bereizketarik atzeman.
- beirátu** *ad.* (du) Gorde: *Orái beirátzen ál dáxu papér hóri*. Ikus **altxátu, behátu** eta **górde**.
- béiti** *post.* (datiboa eskatzen du): *Bídjai béiti jwán dúk; xáxi eskalerrér béiti*.
- beitíko** *iz.* Beheitikoa, beherakoa. Ikus **kanpatasún**.
- beitútu** *ad.* Beheratu, beheitutu.
- bekáda** *iz.* Oilagorra. Bonapartek (1881: 163) *pekada* biltzen du.
- bekáin** *iz.* Bekaina, bepurua.
- bekáitz** *iz.* Bekaitza, bekaizkeria. Ikus **jelósko**.
- bekáizko** *iz.* Jeloskoa.
- bekáizti** *izond.* Jeloskorra.
- bekatári** *iz.* eta *izond.* Bekatuan dagoena, bakatua egiten duena.
- bekátu** *iz.* Bekatua.
- bekátu ín** *ad.* (du) Bekatu egin.
- béko béko izán** *ad.* (da) Aurrez aurre egon. Ikus **mokoz moko izan**.
- belár** *iz.* Belarra / **belárrak ín** *ad.* (du): *Héldwén ihakóitzjan, beláro balínbadá, Luzáideat jwáinúxu belárren ítea*; «Azindak biziki untsa tuxu aurten; behiáke ba, aurten in baita belar eta soro frango. Halaike sarrioxoño eman behar diexu ardier zaldare puxkat, axuriak edero in ditzaten» (MA).
- belar epaite** *iz.* Belar ebakitzea; Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 254).
- belar gantxo** *iz.* Luzaideko arotzak darabil: «Belar gancho berri bat», «belar gancho bat berria» (Satrustegi, 1969: 198).
- belár páiteko mekaníka** (= **belár pikátzeko mekaníka**) *iz.* Belarra ebakitzeko makina.
- belár páiten aizán** *ad.* (da) Belar ebaten ari izan. Ikus **belár pikátzen aizán**: *Belár páiten aizának gítxu góiz gúzjan = belár pikátzen aizának gítxu góiz gúzjan*. Ikus **belar epaite**.
- belár pikátzeko mekaníka** (= **belár páiteko mekaníka**) *iz.* Belarra ebakitzeko makina.
- belár pikátzen aizán** *ad.* (da) Belarra ebakitzen aritu. Ikus **belár páiten aizán**.

**belár píru** *iz.* Belar izpia. Ikus **píru**.

**belarkéta jwán** *ad.* (da) Belar bila joan: *Jwán ginén belarkéta péntzeat*. Luzaideko arotzaren liburuan «belarqueta nausi gaztea egun bat», «belarqueta e(gun) bat» ditugu (Satrustegi, 1969: 194, 196).

**belarméta** *iz.* Belar-meta; handia edo txikia izan daiteke, hots, meta edo mukuru. Ikus **méta**.

**beláro** *iz.* Belarrak egiteko eguraldi egokia: *Egún beláro dá, behár dú belárrak barreá-tja lehénbailén*. Ikus **-áro** eta **áro**.

**belarpáile** *iz.* Belar ebakitzaila, segalaria.

**belarráide** *iz.* Belar pila: *Zé belarráldja in dún gúk áurten!* Kamino & Salaberri (2001: 69) lanean azentua oker ageri da.

**belárretan aizán, belárrjan aizán** *ad.* (da) Belarretan aritu: *Belárrjan ártzja léhen lán dór-pja zúxun, bána oráiko mekaníkekín áiso úxu*.

**belartórnu** *iz.* Belar zama. Ikus **tórnu** eta **záma**.

**belar[t]zamaketa** *adond.* Belar-zama bila. Cf. Luzaideko gutunetako pasarteño hau: «Nik enixin ikusten, bana erraiten [t]zixien goizetan goizik jeiki eta beti arditat. Gero, belar pikatzen belar[t]zamaketa, sasoinian gaztaina erauzten... Zertako hoinbestetano?, eta orai denak utzi eta juaiten!» (AB).

**beláun** *iz.* Belauna.

**belaunikátu** *ad.* (da) Belauniko jarri: *Mézan belaunikátzen gíntxun ardúra*.

**beláuniko** *adond.* Belauniko.

**beldúr** *iz.* Beldurra. Inoiz aditzoinarekin kausitzen dugu, eskutitzetan: «X jiten ziaxu atsáldetan, Y gizonekin baitzen bazkariaikin juan eta, eta bestia eraztunak eror beldur» (MA), «Maria Luisak erran [t]ziaxun egun batez hotz beldur zela» (AB). Ikus **lótsa**.

**beldúr izán** *ad.* (da), **beldúrria izán, ukán** *ad.* (du) Beldur izan, beldurra izan: *Beldúr núxu ez ote dín elúrrínen; hólako beldúrrik ezpalúte, xarmánki luzkétxu; gízón hóri arrúnt zahárria úk, bána eztík híltze-ko beldúrrik; éne áuzo hóri azkárria dá, bána eníz báte harén beldúr*. Luzaiden ezaguna da ondoko erranairu hau: *Elúrmelúr ez gitúk híre beldúr, badjáú étxjan árho ta egúr!* Baztanen *Elur, melur, ez diet ire beldur; badiet etxean artoa ta egur erraten da* (Izeta, 1996: 207). Inoiz aditz

nagusia ezabaturik dagoela irudi du: «X-k izan dixi berrize bere bulta; pasatu ziakoxu, bana anitz sofritu. Hotzain hoben iten dixie, bana ni beldur gaitz xarra den horire» (MA). Ikusten denez, mendeko aditza subjuntiboan joan daiteke: «Beldur handia bauxu zeait na[ha]skeria planta dain. Hobenik eztutenek patituko [i]xie, gai-xuak!» ‘Baduxu beldur handia nahaske-riaren bat izanen ote den. Errurik ez dutenek ordainduko dute, gai-xuak’ (AB). Cf. gutunetako beste pasarte hauek: «Don Jose Marik badiazkitxu xure goiti-beitiak, eztixit beldurrik deusetan faltaik inen dauxula. Orai egon trankil» (AB), «begitik operatia baita, tapatia dixi; gaizua, ze ukaldi itsusi izan din!, zer pasatu baitare, Joakina beldur duxu zerbait bulta izan ote din; bisaia desfiguratu ziakoxu puskat» (MA). *Beldúr háundja izán* ere erraten da; gutunetan, bestalde, mailakatzaile eta aditzondo zenbaitekin ere agertzen da: «biziki bildur zitxun», «untsa beldurraikin egonak» / **beldurra sartu** *ad.* Beldurtu. Cf. MAren pasarteño hau: «Denek kasu iteko eta kasu iteko, ordian beldurra sartzen zauxu» / **beldúrriaikin egón, beldúrrez egón** *ad.* (da) Beldurrez egon: «Guri etziauxu gertatu; untsa beldurraikin egonak» (AB); *béti beldúrrez egóiten zúxún bérriez atákja emán zezákon*. Cf. MAren hau: «Untsa duxu bana ni beti beldurrez nioxu noiz arte iraunen din eta hoinbeste ibiltze azindekin».

**beldurka** *adond.* Beldurrez. MAren gutun batean ageri da: «Medikiake bisitatie zuxun eta etzila deuse flakezia bezik, jan zezaten untsa, gauza azkarrak, garbantzo eta ilar haragi, bana hok nik uste orai beti beldurka ari zien eta, bestalde, hok orai norbaitek emanez hobeki luzketxu».

**beldúrta** *izond.* Beldurbera, erraz beldurtzen dena.

**beldúrta** *ad.* (da-du) Izutu, ikaratu. Manezaundik gutitan ibiltzen du eta Aintziburu & Etxarrenek behin bakarrik. Komunzki **izítu** erraten da. Ikus, orobat, **harrítu** eta **lotsátu**.

**beldurxko izan** *ad.* Intzak (1974: 159) Luzaideko esaera hau biltzen du: «Andredena

martxoko, behia larrean aseko: Erramu egunerako zezena da beldurxko».

**béle** *iz.* Belea.

**bélekáka** *iz.* Belar mota bat.

**belttór** *iz.* Zildorra.

**béltz** 1- *izond.* Kolorerik edo argirik gabea, 2- *iz.* Guardia zibila (lehen). **Béltz** ere ibiltzen da, baina gauza handiekin edo mespretxua adierazteko **béltz** baizik ez da erabiltzen.

**beltzúri ín ad.** (du) Betozkoa jarri. Ikus **kopéta txárra ín**.

**benedizjone** *iz.* Bedeinkazioa. Cf. ABren hau: «Maria Dolores maitia, desiratzen dauziet pasa ditzazien eguberri besta hun batzu Jesus haurrain benedizione guziekin».

**beneikátu ad.** (du) Bedeinkatu; cf. pasarte hau: «Baixi ilaite at ardi moxtia in ginila; orai ez dixiu etxian iten, karreteran ez pasatzeatik Bartzelonako bordan iten tixie. Ez dixiu apezik ekarrazten. Negian beneikatzen tixiu» (MA). Satrustegik (1969b: 44) *kabalen benedikatzia* biltzen du.

**bénta** *iz.* Benta.

**Béntta** *iz.* Gaineoletako *Benttáinja*-ko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan: *Péjo Bartzelóna, Féli Kittérja, Lúrdes Okaztrán*. Bestela *-ko* + *persona izena* erabil daiteke: *Bartzelónako Péjo, Bidárteko Ferránddo, Hargináingo Fakúnda, Xaindjáingo Jwanés...e.a.*

**Benttésa** *iz.* *Benttáinja*-ko etxeoandrea.

**bér** 1- *izord.* Bera: *Bérah ín dú, 2- izond.* *Gáuzá béra* 'berdin', *gizón béra jín dá, egún bérjan, orái bérjan, 3- adond.* Bakarrik, hutsik: *Bérah jwán dúxu méndira* 'bakarrik joan da mendira', *esnéa béra hártzen díxit* 'esne hutsa hartzen dut'. Honela deklinatzen da: *bérah* 'beraj', *bérah* 'berak', *bérek* 'berek', *bérah* 'berari', *bérah* 'bereraj', *bérah* 'bereraino', *bérah* 'bere', *bérah* 'beren', *beráikin, beráikilan* 'berarekin', *berékin, berékilan* 'berekin', *bérjan* 'berean, bertan', *bérbera* 'berbera'...e.a.: «Ene ideia berbera dila ilargirat juaitte hortaz» (MA), 4- Baldintzazko menderagailua: *Jwáiten ál zíte náuzjen lékura, bákjan úzten núzjen bér*. Cf. pasarte hauek: «Txekiarri berdin zitzaion, alegia-eta lanean karaskan ari egiten genuen ber» (Etxehandik

egindako Joanategiren lanaren itzulpena, 48), «bertzalde gaizkirik egiten ez duenak ez ote du, zerbait egiten duen ber, ongia egiten?» (Leon, 1993: 167).

**berantétsja, behantétsja, beantétsja izán ad.** (da) Berantetsirik egon: *Ámah arrúnt bean-tétsja zúxun sémja etzélakotz héldu*; Satrustegik (1981: 344) *berantetsia* du.

**bérah** *Lok.* Hortaz. Biziki guti ibiltzen da. Cf. pasarte hau: «Berah M<sup>a</sup> Dolores maitia iduritzen ziaxu xuk galdein guzien errepostia egin dauzuala. Xuke epistola luzia igortzen xinila; nik uste ez dutan laburroga eta ohono konprenditzen baduxu» (MA).

**berdagáilu** *iz.* *Sáldatén prestátzen ái xjélaik emáitentzazkón gáuzá hórjek, konparazjone típula, baatxúrja, pórrja... Hórjek txú berdagáiljak* 'salda bat prestatzen ari xarelarik ematen zaizkion gauza horiek, adibidez tipula, baratxuria, porrua... Horiek dituxu berdagailuak'.

**berdáil** *izond.* Berdexka. Ikus **berdáts**.

**berdáts** *izond.* Berdexka.

**berdátu ad.** (da-du) Berdatu, berde kolorea hartu: *Éuri hók berdátu dúzte baztér gúzjak*.

**bérde** 1- *izond.* Berdea, 2- *iz.* Belar berdea, ebakia edo ebakigabea.

**bérdin** (baina **desbárdin**): 1- *izond.* Nolokotasun berekoa: *Péjo ta Mánez berdín-berdínak dirá, 2- adond.* Era berean: *Bí hórjek lána berdín ín dúxje, 3- Menturaz* edo. Cf. MAREN hau: «Deuse ez dixi erran nahi hunek, gero berdin huna iten ahal baitu», 4- Azken batean, erdarazko *total*-en irudia: *Berdín Arnéirat jwáiteko ez ginín ótoain behárrik; eztjakoxót zórra paátu behár, berdín fite hílen dúxu!* Cf. Satrustegik biltzen duen hauen (1981: 345): «Bana nik beti erraiten niakoxun azindak beti eta geio balio dila. Berdin hola denak erosiz, mila bedera libera pagatu baititu». Villasantek *al fin y al cabo* itzultzen du Axularren *berdín*: «Orai atsegin har dezadan, ian dezadan, edan dezadan, zeren berdin eztut deusen eskasik, eztut gero koren perilik, badut ethorkizunekotzat behar den konplimendu guztia» (1976: 81). Iñaki Caminok dio (1997: 301) Elkanoakoak *desbárdin* darabilela eta Alliéresi

jarraikiz behe-nafarreran *bardin* dugula. Hau, Luzaideko datuak ikusirik, sakonki-  
xeago aztertu behar litzateke. Ikus **báljo**  
**izán**.

**berdínsu** 1- *izond*. Ia berdina dena: *Hórjek berdínsjak túk bják*, 2- *adond*. Ia berdin: *Ník hóri ín óndwan berdínsu geldítu úxu étxja*.

**berdúra** *iz*. Barazkia (espainoleko *verdura*-tik).

**beréhala**, **beréala**, **behála**, **beála** *adond*. Berehala: *Hóla ibíltzen báda sósik gábe gel-dítuko dá beréala*. Cf. MAren pasarte hau: «Izigarri untsa duxu, ez dixi berehala deli-beratu, badakixu sos haundia eman behar delakotz, bana nik beti erraiten niakoxun azindak beti eta geio balio dila».

**beretakótu** *ad*. (du) Beretako hartu: *Náixi do-áike péntzja beretakótu*.

**berkói** *izond*. Berekoa: *Néska zikín hóri zé berkója dén!*, *harrapatjak óro berétako náhi tú*.

**beró** 1- *iz*. Beroa: *Béro gáitza, gáitzeko bérwa, alimáleko bérwa, errétzeko bérwa, háu béro astapítwa!* 2- *izond*. Beroa: *Sálda bérwa goxóki sártzen dúxu / béro aizán ad*. (da), **beró ín ad**. (du), **beró izán ad**. (du) *Béro dá* ‘bero da’, ‘beroa egiten du’, *béro úxu izígarri* ‘izigarriko beroa ari du’, *béro ái dái* ‘beroa ari dixu’, *zé béro ái dín* ‘zer beroa ari duen’, *béro itsúsja ái dái!*. Cf. pasarteño hau: «Orai biziki denbora ederrak tixiu, bero iten dixi. Kanpua azkarki piztu duxu, bahatziak eder tuxu» (MA). Pluralean ere erabil daiteke: «Beruak hasten batu utzi beharko tixi» ‘Beroak hasten baditu utzi beharko ditixu’ (MA). Ikus **kál-da / errétzeko bérwa aizán, ín ad**. (du) (esam.) Bero izugarria izan, egin: *Aspáldi-ko sanfermín hétan errétzeko bérwa íntzín!*

**berógi(a)** *iz*. Toki beroa / **berogiaño** *iz*. Leku beroñoa edo. Cf. Luzaideko letretako pasarte hau «Hemen bauxu haurretan epidemia hori; anitz haur bauxu eritasun hunekin eta berogia behar» (AB), «elizako obrak ohono ez tuxu fini, bana orai ahantxu ari tuxu, ez dixi berdin balio. Aurten beste berogiañoat duxu, orai ohoitzen bagira gastia badila horrek eta ahurrain laxatzea» (MA).

**berotasún** *iz*. Berotasuna.

**berótu** *ad*. (da-du) Bero jarri: *Hótzúxun tá berótzeko supaztérrian járrri zítxun* ‘hotz zuxun eta berotzeko sutondoan jarri zituxun’, *ésnja berótu út láneat jwán báno léhen*.

**bérri** 1- *izond*. Zaharra ez dena, 2- Aditzekin ere ibiltzen da: *Péjo jwán bérria úxu; Güre béhi mañotárrak alimáleko órrwak íntzítin érosi bérrian*. Cf.: «...ta atsetan beti elurra; oraire in berri ixi», «nik uste apez hok harritu dien ez sosa bildu zen. Hok jin berri hartan hainbeste hil suertatu zuxun!» (AB), 3- *iz*. Albistea: *Añések emán djáxu háren bérri*; «Anitz plazer egin daxu berriak hoin xeheki igortziaz» (MA). Luzaideko gutunetan ardurakoa da *–ko berri* agertzea (*Ameiketako berriak*, *Luzaideko berriak...*), baita Hegoaldean *–ren berri* erranen genukeen testuinguruetan ere: «Plazerrekin jakin tixiu xure pidaiako berriak, eta inguru guziak inik untsa arribatziak» (AB), «horra M<sup>a</sup> Dolores gure tratuko berriak xeheki», «nehoke ez dixi jakiten ahal hunen gogoko berri» (MA) / **berríño** *izond*. Berritxoa. Cf. gutunetako pasarte hau: «Etzixin ez hola uste izaitia; etxe berríño hori inik horiendako, eztixi kusteko plazerrik izan. Mundia hola uxu! Ez jakin noiz artio giren!».

**berríki** *adond*. 1- Arestian, 2- Berriki, orain egun batzuk.

**berrítu** *ad*. (du) 1- Berritu. *Méndjan dún bórda berrítzen ái gíra*, 2- Aipatu edo: «Jakín dixit Aurelio Eduardoin kusia hil dela; jakina nixin eta Bidartian berritu dixiu» (MA).

**bérriz** 1- *adond*. Beste behin, 2- *lok*. Aldiz / **bérriz háste** ‘vuelta a empezar’: *Lána finítja ginín bána gáizki ín díxju ta orái bériz háste!*

**berrói** *zenb*. Berrogei; *berroitaámarr, berroitaámarr* berrogeita hamar. Etxaidek (1989: 366) *bérroói* jaso zuen.

**bértsu** *izond*. Ia gauza bera: *Atzó errán zán gáuza bértsja errán djáxu óstjan* ‘atzo erran zidan gauza berttua erran diadaxu arestian’.

**bértz** *iz*. Pertza. Etxaidek ere (1989: 182) *bértza* jaso zuen.

**bértze.** Ikus **béste**. B. Etxeparekoak *berze* ibiltzen du.

**besáinka bóta** *ad.* (du) Zakurraren ipurdira igorri, pikutara bota: *Mekanika háu bóta nezákexu besáinka!*

**besarkaldi** *iz.* Besarkaldia. Cf. MAren hau: «Naiz ikusi berria besarkaldi bat emain ginixin elgarri».

**besarkátu** *ad.* (du) Besarkatu.

**besátra** *iz.* Besatara: *Jwán sabáirat éta kárrak besátrat belár.*

**béso** *iz.* Besoa.

**bésoas adlag.** Mauka hutsik: *Elúrra gohótik ári tá mutko hóri bésoas.*

**besomótx** *izond.* Besomotza.

**besóndo** *iz.* Ukondotik sorbaldarainoko gorputz zatia.

**bésta** *iz.* 1- Festa, 2- Parranda / **bésta egún** *iz.* Jaieguna / **bésta ín** *ad.* (du) Parranda egin: *Bárda gáitzeko bésta ín ginján.*

**Bestabéri** *iz.* Corpus Christi eguna.

**bestabúru** *iz.* Edozein besta handi (Bestaberri, Bazko eguna...e.a.).

**bestálde** *lok.* Gainera: *Jwanések emán djaxú botóilat áno ta bestálde bunbúnatzú.*

**béste** (inoiz **bértze** ere bai) *det.* eta *izord.* Bera ez dena: «Untsa muntatuik, bana bestez behar delaik etxu nahi dena ukaiten» (AB). Gutunetan, inoiz, euskara batuan ohikoa ez den hurrenkeran kausitzen dugu: «Eguerri on eta Urteberri hun bat desiratzen daukiztuz Ximon eta ene partez, lehenik osagarri hun batekin, hura baita beharrena, eta beste desiratzen duzun guzietekin» (MA).

**béste gaineatékwan** *adond.* Bestela, gainerakoan. *Marránta pástu íxi, bána béste gaineatékwan xarmánki úxu.*

**besténaz** *adond.* eta *lok.* Bestela: *Etzazjéla gásta sós gúzja, besténaz hiláitjain undárrjan eztúzje jatékoikè izáin.* Cf. MAren pasarte hauek: «Horra bi ilaite bi egunen-gatik xure letra izanik. Nola pasatzen [den] denbora bestenaz!, beti oroitzen eta beti gibealeat!», «nik pentsatia diexut San Jose egunian juaitia, ohono baita hamabos egun, zier untsa heldu bazauzie, edo bestenaz igandian, bi egun besta baitira» / **besténaze**, **bertzénaze** Izan ere edo. Cf. MAren hauek: «Nik uste guk bezala berek ekarriko duketen errakia, bertzenaze oro

artzainak baitira», «bixtan dena, orai bertzenaze bauxu orai Luzaiden nexka gazte klikat jostatzia bezik pentsatzen ez dutena».

**bestíle** *iz.* Parrandazalea: *Anája alimáleko bestílja dá, betí bésta bestáin gáinjan ai dá.* Ikus **bésta**.

**bestóndo** *iz.* Mozkorrondoa. *Igánde átsjan gáitzeko bésta ín tá biamúnjan izígarríko bestóndwa zúten.*

**bet-betan.** Satrustegik (1963-64: 262) biltzen du, baina guk ez dugu horrelakorik aditu. Ikus **bápatjan**.

**béte** *ad.* (da-du) bete. *Éuri frángo ín dú tá depósitwa gáineano béte záu.*

**beterinájo** *iz.* Albaitaria.

**beterrába** *iz.* Erremolatxa (frantseseko *betterave*-tik). MAK *betarraba* darabil.

**betespál** *iz.* Betazala.

**betí** *adond.* Denbora orotan / **betídanik**, **betíko** *izlag.* Betikoa, eta *adond.* Betiko, **betíkotz** *adlag.* Betiko: *Étxe háu erósi díxju betíkotz*, **betiré** *adond.* Betiere: «Tentsionia juan ziakoxu eta albuminare ba; diabetita ohono ez arras, bana juain ote zako? Bettire izan denain aldian bera ohono ez kontent, ez dela lehen bezala» (MA).

**bettér** *iz.* Beretterra, meza-laguntzailea: *Bettér jwáuten níntxun bezpéreta.* Satrustegik dio (1963-64: 262) *beretter* ere erraten dela.

**Bétti** *iz.* Karrikako *Bettínja*-ko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan: *Péjo Bartzelóna, Féli Kittérja, Lúrdes Okaztrán.* Bestela -ko + pertsona izena erabil daiteke: *Bartzelónako Péjo, Bidárteko Ferránddo, Hargináingo Fakúnda, Xaindjáingo Jwanés...*e.a.

**Bexín** *iz.* Gainekoletako *Bexinénja*-ko nagusia edo bertako norbait; **Bexinésa** *iz.* *Bexinénja*-ko etxeoandrea.

**bezáin** Alderaketan erabiltzen den hitza: *Ni eníz zú bezáin abíla, bána kásumázu enékin.*

**bezála** *adond.* Alderaketan edo moduzko perpausetan ibiltzen den hitza / **bezál-bezála** *adond.*: *Gázte dénborako éne adíxkíde húra léhen bezál-bezála dá, eztá fítsik kanbjátu / bezálako izlag.* Bezalakoa.

**bezálatsu adond.** Bezala gutxi gorabehera: *Hórrek ník bezálatsu in dú lána*; «Toloxe-sare egon duxu ba aurtene juan den urtetan bezalatsu, bana orai pasatia dixi» (MA).

**bezálatsuko izond.** Bezalako gutxi gorabehera: *Xúre ótwa gúrja bezálatsukwa úxu*.

**bezálaxe adond.** Bezal-bezala: *Xúk errán bezálaxe ín díxju*.

**bezánbat.** Berdintasunezko alderaketetan ibiltzen den hitza, adina: *Alkátjak árdi frángo tú, bána ezítú gúk bezánbat*.

**bezíkunt.** Baizik. *Egúngo egúnjan telebisjónjan ezta desgráziak bezík áitzen; ezín Martínez de Irújok irázi, Olaizólak bezík*. Baldintzako menderagailutako ere ibiltzen da, **kúsi(k) bezík** 'ikusit ezean' esamoldean: *Kúsi bezík ezítú sinésten ál* 'ikusit ezean ez duk sinesten ahal', «alta, zeait sartu omen duxu aurtene etxe hortan, ez omen duxu holakoit izan, jendia ez omen duxu gelditu bi ilaite horietan, kusik bezik ez omen duxu erraiten ahal» (AB). Ikus **bána**.

**bezíketaré.** Perpaus osagarrietan ibiltzen den menderagailua, autore klasikoan *ezen-en* irudia dena: *Áitak errántzín bezíketaré as-telénjan jwan behar ginila sinfált Donjáneko merkátura zérrjain sáltzea*. Ikus **baizíketá**.

**bezpéra iz.** Aurreko eguna. *Soldádogwat jwáit-teko bezpéran gáitzeko bésta íntzúten / bezpéraz iz.* Lehen egiten ziren elizkizun batzuk, seigarren otoitz ordua, arratsaldean egiten dena. Cf. pasarteño hau: «Beti bezala bezperetat juan ginen eta ez apezik ez bezperaik» (MA).

**beztiménta iz.** Jantzia, arropa (biarneseko *bestiment* edo gaztelaniako *vestimenta*-tik); ikus **arrópa** eta **soinéko**.

**beztítu ad.** (da) Jantzi (biarnes-gaskoiko *bestit*-tik segur aski): *Goízan tarrápataka jéiki, beztítu tá etxétik atéa báno léhen ezítú dénboraik izáuten ésne xórtaten hártzekoré*. Etxaidek (1989: 302) *bestítzja* dakar. B. Etxeparek (1980 [1545]: 24) «Goiz etarrats egiten duk buluz eta beztitzia» izkiriartzen du. Ikus **jauntzi**.

**bí, bída, bíga zenb.** Bi: *Bí zílo* 'bi zulo', *bí nés-ka jín txú óstjan*. Lehen aldaera gibelean izena duenean ibiltzen da; bestela **bída** edo

**bíga** agertzen da: *–Zénbat erósi tzjé? –Bíga, bí ahátxe erósi tú*. Pluralean *bják* 'biak' erraten da; ohikoa da, bestalde, *nor-bait eta biak* izulia: «Atzo Pelo Heginian ninduxun atsaldian; X eta biak ari gituxu gaizo Maddai matalazen iten» (MA); *bíra* 'bina', Luzaideko arotzaren kontu liburuan «bi aldiz bira gaizuru» dago (Satrustegi, 1969: 172) / **bieta, bjéta adlag.** Bi erataria, bi eretara: *Hóri Luzáiden bjéta érten al dá, «xáto» édo «xáuri» / bíetan, bjétan adlag.* Bi aldiz: *Áurten bjétan izán (n)iz Bajónan; bíetan erdízka*. Luzaideko jauzietako urratsa da.

**biamún, biamúnjan adond.** eta *adlag.* Biharamun, biharamunean: *Biamúnjan óffjan geldítu zúxun hamekónak ártjo*. Satrustegik (1999: 498) *biramunian* bildu zuen; MAK beti *bihamun* darabil.

**bia[x]ánte iz.** Saltzaile ibiltaria (espainoleko *viajante*-etik): «Juan den egun batez erranzan zamorano biájante batek (...)» (MA).

**bíba interj.** Bihotz emateko hitza. Ikus **áupa**. Cf. MAren hau «Segi hola-hola, anitz lannian aizenez, gauza hunaindako eta biba eskualdunak beti».

**Bidárt iz.** Azoletako *Bidártja*-ko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan: *Péjo Bartzelóna, Féli Kittérja, Lúrdes Okaztrán*. Bestela *–ko + pertsona izena* erabil daiteke: *Bartzelónako Péjo, Bidárteko Ferránddo, Hargináingo Fakúnda, Xaindjáingo Jwanés...*e.a. **Bidartésa iz.** *Bidártja*-ko etxeoandrea.

**bidaxkákó iz.** Bikia: *Árdi hórrek ukán tík bidaxkákak*.

**bidázka, birázka.** Binaka.

**bíde:** 1- *iz.* Bidea, 2- Aditz partikula: *Ez bíde dúk sobéra sofrítu* 'no has sufrido mucho, no!'. Cf. hau: «Doraiko bidetik sartu ta Munoko lepoan eman bide zakon makilulkaldi bat gaitza» (Satrustegi, 1999: 499). Cf. Elkanokoak egiten duen partikula honen erabilera eta Iberoko katiximan ageri dena.

**bidebáztér iz.** Bide bazterra. Ikus **báztér** eta **karríka báztér**.

**bidejúnta iz.** Bidegurutzia.

**bidéxka iz.** Bide txikia.



**Bidóndo** *iz.* Azoletako *Bidóndwa*-ko nagusia.

Aitzinetik pertsona izena sartzan bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan: *Péjo Bartzelóna, Féli Kittérja, Lúrdes Okaztrán*. Bestela *-ko* + *persona* izena erabil daiteke: *Bartzelóna-ko Péjo, Bidárteko Ferránddo, Hargináingo Fakúnda, Xaindjáingo Jwanés...*e.a.

**Bidondósa** *iz.* *Bidóndwa*-ko etxeoandrea / **bidondotár** *iz.* eta *izond.* *Bidóndwa* etxe-koa: *Karríkan ikúsi níxin mutikwát éta lemíjzan eníxin záutzen, bána géro ohártu níntxun bidondotárra zatékela*.

**bigarrén** *zenb.* Bigarrena. Etxaidek (1989: 372) *bigarréna* bildu zuen / **bigarren kúsi** *iz.* Lehengusu txikia, lehengusina txikia. Ikus **kúsi**.

**bigota** *iz.* Luzaideko arotzaren liburuan ageri da: «Picocha bigotaco bat erracachiric», «bigotaco bat eracachiric», «bigota yorrai bat arriñatu» (Satrustegi, 1969: 169, 252, 258). Arruazukoak *bigó* aipatzen du eta dio bi hortzeko lanabesa dela; *OEH*-n bi hortzeko zurezko xixpa, antzarraztelua dela erraten da, baina irudi luke arotzarenean *bigó* gabe *bigota* dugula.

**bíhar, bíar** *adond.* Bihar.

**bíhi** *iz.* Pikorra, gariarena arrunki, guk dakigula: *Ogibihía*. Ikus **artopikór**.

**bihítu** *ad.* (du) Aletu: *Ártwa bihítzen dúxu, artó pikórren kéntzeko, buítxatekín*. Ikus **ogibíhi**.

**bihótz, biótz** *iz.* Bihotza.

**bihurgúne** *iz.* Bihurgunea, bueltagunea.

**bihúrtu** *ad.* (da-du) Bihurritu: *Kasumák! Besténaz lépua bihúrtuko deát!*; *aztalbehárrja bihúrtu záko tá wái páusan dó*.

**bíla** *adond.* Bila, xerka. Gutxi ibiltzen da. Ikus **xéka**.

**bilakátu** *ad.* (da) Bihurtu. Cf. *MAren* aipuño hau: «Gaizua, berak ez hil nahi haurrengatik eta haurrak Donianeko eta Arneiko bestetan tiraala jantzan. Mundia zer bilakatu den! Fonsian hilaindako berdin balio dixi; nor bera untsa presta dailela Jinkuain aitzinea juaiteko».

**bilarróxi** *iz.* *Úrte batekó ahátxja dá bilarróxja*. Ikus **míga**.

**bilátu** *ad.* (du) Bilatu. Gutxi ibiltzen da; hitz ohikoa **xekátu** da.

**bidóts** *iz.* Bildotsa. Ikus **axúri**.

**bíldu** *ad.* 1- (du) Bildu, sakabanaturik dagoena batu: *Belárra bílduko íxju eurín báno lén; zé sosáldja bíldu zín égún hártan értórrak méza náusjan*, 2- (du) Harrapatu (Goizuetan bezala): *Izígarriko, alímáleko mozkórra bíldu zján Ellándek; Pettáneek alímáleko marránta bíldwík errékan* ‘Beltranek izugarriko katarroa harrapatu du errekan’; *hóztu íxi tá alímáleko marránta bíldu íxit; tirála edáten aizántzén éta gáitzeko mozkórra bíldu zín*. Cf. gutunetako pasartetxo hau: «Gu denak untsa gituxu, ni marranta haundi batekin, ez hotz delakotz bildia, gaitzeko beruak ari tixi», 3- (da) Beste batekin elkartu: *alkátjaikilán bíldu díra herríko laborárjak égún góizjan*, 4- (da) Txikitu: *Pantalónak xuítzjan bíldu túk*, 5- (du) Erakarri, beretaku: *Mizélek Jwanés bíldu íxí; urdé zikín horrék hérrí gúzja bíldu dú*. Ez du, ordea, beste hizkera batzuetan izan ohi duen ‘paper batez edo ehun batez inguratu’ adiera. Hau **ingurátu** erraten da.

**bilgór** *iz.* Bilgorra.

**biligárrro** *iz.* Biligarroa, hegazti mota bat.

**bilíntxi-balántxa ibíli** *ad.* (da) Alderoka, zabaldua ibili.

**bilkúra** *iz.* Bilera: *Bihár baúxu bilkúra, bolántegúnain prestátzeko* ‘bihar baduxu bilkura, bolanteguna prestatzeko’.

**billét** *iz.* Billetea (frantseseko *billet*-etik, irudi duenez).

**bílo** *iz.* Ilea (≠ **ile** artilea ≠ **lén** trikota edo jertsea egitekoa).

**binpér** *iz.* Ifrentzua, ginberra / **binpérrez itzúli** *ad.* (da) *Hórjer óno lárrja binpérrez itzúli behártzjék* ‘berenak eta asto beltzarenak ikusiko dituzte’; *–Gízón hóri wái kanbjátia úxu, –Bá, geróztik binpérrez itzúlja dukéxu bá* ‘bai, geroztik erabat aldatu izanen da, bai’ / **binpérréz jáuntzi** *ad.* (du) Kontrako aldera jantzi, aldrebesez jantzi: *Egún gáltzak binpérrez jáuntzi tút* ‘gaur galtzerdiak ifrentzuz jantzi ditut. Satrustegik (1963-64: 262) *binperraz* dakar.

**biortxéko** *izlag.* Bi urteko ardia.

**bioztérra izán** *ad.* (du) Bihotzerrea izan: *Bárrda sobérra ján tá égún bioztérraikín jéiki núxu*.

**bipér** *iz.* Piper berdea. Ikus **pimentón**.

**bipéra** *iz.* Sugedorria.

**biperrálde** *iz.* Piper multzo handia.

**bipíl** *izond.* Ernea: *Gizón bipíla dá gúre Manéz.* Satrustegik dio (1963-64: 262) 'agudo' dela, jendearendako hain segur ere.

**bipíldu** *ad.* (du) Lumatu: *Ollásko hóri behárko dúzje bipíldu géro játeko.*

**birbirítta** *zenb.* Bihi bakan zenbait; bihi edo pikorrekin erabiltzen da bakarrik: *Eméxu árdjer ogibíhi bírbirítta.* Manezaundik (1990: 333) *birbira* darabil: «Gizona, zozoa hiza, edo? Aski duk hedatzea herrauts birbira bat ohearen zur xokoetan. Ez dituk gehiago agertuko... bi egunez bederen». Lhanderen arabera (1926: 174) *birbiratu* 'saupoudrer' da eta *birbirita* 'recolte pasable'.

**biribíl** *izond.* Biribila.

**biribildu** *ad.* Luzaideko arotzak zerabilen: «Marzelinok burdinat zilaturic biribilduric» (Satrustegi, 1969: 235).

**birika** *iz.* Satrustegik *txistorra* baino kalitate gutxiagoko hestebetea dela dio (1969b: 56). Ikus **andóila** eta **bulár**.

**Birjína** [birjína] *iz.* Andre Dona Maria.

**birla.** Ikus **fírla**.

**birún** *iz.* Urontzia (frantseseko *bidon*-etik, beharbada). Cf. Arbelbideren hau (2003: 100): «Iguzkiak kizkilduak ginen. Bi bidun banituen urez beteak».

**bisája** *iz.* Aurpegia (frantseseko *visage*-tik). Añes Kaminondok **aurpégi** ezagutzen zuen, baina erabiliena **bisája** da. **Begítárte** ere ibiltzen bide da, baina orokorra, erran bezala, izenburuko da. Satrustegik (1963-64: 262) *bisai* biltzen du, *-a* gabe, eta Luzaideko gutunetan ere hiru aldiz ageri da hitz hau, eta hiruretan *bisai* moduan. *Deurríten bisája* ere erraten da (ikus Kamino & Salaberri & Zubiri, 2004: 321). Cf. Manezaundiren hau (1990: 87): «Uhinak heltzen dituk, mendiak bezala, lerroka, aitzinatzen eta hurbiltzen. Bat bathian, burrunban leher eta zaphart egiten die harrokan bidiari hurbil, eta izigarriko gohoratasunerat altxaturik, dena hagunez xuritu, uhasate bak bezala bazterrak estaltzen ditik. Debrien bisaja! Zé bustialdia yasan nien!».

**bisíta** *iz.* Ikustaldia / **bisíta ín** *ad.* (du) Norbait ikustera joan.

**bisoséko** *iz.* Ikus **sós**.

**bísta, bíxta** 1- *iz.* Ikusmena: *Gázljan bísta húna nín, bána zahártzjaikin arrún gáldu út, 2- adlag.* Aurretik, hemendik, behingotan; arrunki *bísta húntaik* sintagman: *Háil bísta húntaik* 'alde egin ezak begien bistatik', *éa finítzen dún lán háu bíxta húntaik, okaztátwik bainíz, 3- adond.* Erabat segur, *bísta bezála* sintagman: *Hítz háu bearnésetik hélduxú bísta bezála.* E. Etxamendi ezterenzubiarrak ere ibiltzen du (1988: 140); cf. hau «Ba, eiten ginien: Ba, Zaaiztian hori samur diau ba bixta bezala! Hu-naat ez agertzen, ez agertzen! Gilenek aipatzen zitu aski eta ia guk ezagutzen bezela zituu» / **Bístan déna, bíxtan déna.** Errateko manera bat da hau, 'jakina' adiera duena: «...baixie bizitzeko manera pollita. Bistan dena, lanean aizan behar, bahatzeko gauzak eta fruitak eta saltzeko duzten guziak Miarritzeat eremaiten tixie» (MA). Ikus **jakína** eta **kláro**.

**bítamína** *iz.* Bitamina.

**bíxkár** *iz.* Mendi bizkarra, muinoa.

**Bíxkár** *iz.* Karrikatik hurbil den *Bíxkárja*-ko nagusia.

**bíxkótza, bíxkótza** *iz.* 1- Galleta, 2- Pastela.

**bíxkotxastatu** *ad.* Goxokiz bete: Satrustegik dakar (1963-64: 262); guk ez dugu biltzerik izan.

**bízár** *iz.* Bizarra.

**bízár nabála** *iz.* Bizarra egiteko labana. Ikus **ganít** eta **nabála**.

**bízárdún** *izond.* Bizarra duena.

**bízi** 1- *iz.* Bizitza, 2- *izond.* Piperminen zaporea, erdarazko «picante», 3- *izond.* Pertsona ernea.

**bízi izán** *ad.* (da) Bizi izan: *Amátxi bízi zélaik bétí eskwáraz míntzo gínen.*

**bízi izánki** *ad.* **Bízi izán** aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).

**bíziki, bíziki** *adond.* Oso; adjektiboaren edo adberbioaren mailakatzailea ere bada. Cf. **arrás, arrúnt, izigárrri:** *Mutíko háu bíziki pollíta úk, bíziki úntsa núxu denbóra puxkát húntan; bíziki pollíki hatzéman gínixin ttánta. Bíziki kóntentzen; bíziki bel-dúr zítzun egóiteko bjamún ártjo.* Mailakatzailea ez ezik aditzondo edo zen-

- batzailea ere bada ('anitz', 'asko'): *–Hítz hóri ibiltzen dea Luzáiden?, –Bá, bána éz bizíki; «X biziki kontent juiten duxu maestra ttortta hunekin, nahi bade erakutsi etxi biziki haur mutiko eta neskat[o], hoi-ta hiru lau»* (AB).
- bizitéi** *iz.* Bizitokia, bizitegia: *Hirítako étxek izáiten túzte anítz bizitéi.*
- bizkár** *iz.* Bizkarra. Satrustegik (1969b: 95) teilatuko goiko gapirioa dela dio.
- bizkarrezúr** *iz.* Bizkarrezurra.
- bizpahíru** *zenb.* *Wái díla bizpahíru úrte Páise-at jwántzén.*
- bizpalau** *zenb.* ABk darabil, behin: «Eztiaxu bate plazer iten; le[he]n afera haundian abiatu zitxun Orrian in behar [t]zutela, eta gero deuse. Etxu ez biziki, hemengoik bizpalau. Denborak errain dixi».
- blú** (*blúja* era mugatuan) *izond.* Urdina. Ikus **urdin**.
- bokadillo** *iz.* Ogitartekoa (espainoleko *bocadillo*-tik).
- bokáta ín ad.** (du) Lixiba egin. Ikus **xurikétak** eta **xúrru**.
- bokata itekoa** *iz.* Bokata egiteko ontzia behar-bada, **xúrru** deitzen dena; Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 221): «Qu-refierr bati zango bat berria bocata itequari».
- bokátalatsári** *iz.* Arropa garbitzailea. Ikus Satrustegi (1963-64: 262) eta **latsári** sarrera.
- bolandántza** *iz.* Luzaideko «jauzi» edo dantza ezaguna.
- bolánt** *iz.* Bolantea, Luzaideko «jantzaria».
- bolantegún** *iz.* Bazkoeguna, bolantak «jantzarra» ateratzen diren eguna.
- bolondrós** *izond.* Eskuzabala.
- bóltsa** *iz.* Boltsa. Ikus **móltsa**.
- bón!** *interj.* (Frantseseko *bon*-etik). Ikus **bwéno!**
- bonéta** *iz.* Txapela (frantseseko *bonnet*-etik, menturaz). Luzaiden bazen *Bonetpeltz* deitura. Ikus **xapél** eta **zapél**.
- bórda** *iz.* Aziendendako tegia ( $\neq$  **etxóla**): *Étxe-ai datxíkola baúxu bórdat.*
- borda borta** *iz.* Bordako atea. Luzaideko arotzak darabil: «Borda bortaco partadera pare bat aundiac», «bi partadera borda bortaco, pizu 11» (Satrustegi, 1969: 145, 146).
- bordálde** *iz.* Borda eta honek dituen funtsak, lurrak.
- Bordaxár** *iz.* Azoletako *Bordaxárrija*-ko nagusia.
- bordazain** *iz.* Luzaideko arotzak darabil, behin: «Simon andicoberrico bordazainac» (Satrustegi, 1969: 253). Arruazukoaren arabera 'casero', 'rentero' da (274). Ikus **etxetjár**.
- Bórdáa** *iz.* Azoleta edo Lezetako *Bórdáa* etxe-ko nagusia; **Borddésa** *iz.* *Bórdáa*-ko etxe-koandrea.
- Bordél** *iz.* Gaindolako *Bordélja*-ko nagusia edo etxe horretako edozein; **Bordelésa** *iz.* *Bordélja*-ko etxeoandrea / **bordeltár** *iz.* *Bordélja* etxeokoa. Etxe honetakoak ziren *Bordel* bertsolari ezaguna eta *California-tik kantuz* liburuaren egile den Juan Cruz Arrosagarai (ikus Satrustegi, 1965, Arrosagarai, 1983 eta Iñigo, 2005: 165).
- Bordérre** *iz.* Ondarrolan den *Bordérrija* etxe-ko nagusia. Aitzinetik izena ezartzen bazaio bertan sortu den edo bizi den edozein lagun adieraz dezake; **Borderrésa** *iz.* *Bordérrija*-ko etxeoandrea.
- borobildu**. Satrustegik (1963-64: 262) 'apel-mazarse', 'indigesto' adierak ematen dizkio. Guk ez dugu jasotzerik izan.
- borondáte, boondáte** *iz.* Borondatea, nahia.
- bórta** *iz.* Atea / **borta mitratua**. Satrustegik (1969b: 95) 'kristaldun atea' adiera ematen dio, baina izatekotz ere *borta mitratia* behar luke izan / **bortáño** *iz.* Atetxoa. Ikus **gáineko bórta** eta **peko borta**.
- borta buruko** *iz.* Satrustegik (1969b: 95) jasotzen du eta 'atalburua' adiera ematen dio.
- borta gaineko** *iz.* Satrustegik (1969b: 95) 'atearen goiko zatia' adiera ematen dio eta erraten leihotzat ibiltzen dela. Ikus **gáineko bórta**.
- borta krisketa** *iz.* Luzaideko arotzak darabil: «Borta crisqueta bat», «lau borta crisqueta berri» (Satrustegi, 1969: 174, 210). Ikus **kriskéta, krixkéta**.
- bortaga** *iz.* Satrustegik (1969b: 95) biltzen du eta 'atalaga' adiera ematen. Ikus **atalága**.
- bortako lona** *iz.* Satrustegik (1969b: 95) biltzen du eta 'ate eta leihotako barneko markoa' erranahia ematen.

- bortako partadera** *iz.* Luzaideko arotzak darabil: «Borda bortaco partadera pare bat aundiac», «bortaco partadera 7 gonzequin» (Satrustegi, 1969: 145, 174). Ikus **partadé-*ra***.
- bortako xeila** *iz.* Ateko langa. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 221): «Bortaco seilari buburdinac» (sic). Ikus **xéila**.
- bortapeko** *iz.* Satrustegik (1969b: 95) atearen beheko zatia dela dio. Ikus **borta gaineko** eta **gáineko borta**.
- bortítz** *izond.* Gogorra: *Laborántxa lán bortítza úxu* ‘nekazalgora lan gogorra da’; *aurténgo négja áski bortítz dják* ‘aurtengo negua aski gogor zihokak’.
- bortítzki** *adond.* Gogorki, gogorkeriaz: *Anájak bortítzki íbili zján Jwanés; erríntsak bortítzki mokokátu íxi mutíkwa*.
- bórtxaz** *adlag.* indarrez, gogoz kontra: *Bórtxaz etxi baljo jáitja*.
- bospaséi** *zenb.* Bost edo sei, bospasei: *Bospaséi aldíz izána nuxú hérrí hártan*.
- bóst** (normalean), **bórtz** (zenbait aldiz) *zenb.* Bost; *bósna, bosteún*. MAk *bots* ibiltzen du (*botspasei* eta *hamabots, hamots* ere bai).
- bóta** *ad.* (du) Jaurtiki. Ikus **tirátu**. ABk behin *botatu* darabil: «Anitz airegaisto botatu txi hemen».
- botíga** *iz.* 1- Denda, 2- Ezteusa, deustako ez den batendako erraten da. Satrustegik dio *botiga* ‘denda’ dela eta *bottiga*-z honela mintzo da: «Se dice del hombre chismoso. También de poco fuste» (1963-64: 262). Guk ez dugu zeharo horrela ulertzen. Sakretzat ere ibiltzen da: *botíga!, urdé botíga!, botíga zikína!, botíga zárra!, botíga zár zikína!, urdé botíga zikína!* Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 320) / **botíga** *iz.* Exdeuxa; indar gehiago emateko ibiltzen da palatalizazioa hemen.
- botigés** *iz.* Dendaria (gizona) / **botigésa** ‘dendaria (emakumea).
- botóila** *iz.* Botila.
- botóin** *iz.* Botoia; **botóin** botoi txikia.
- bótz** *iz.* Botoa. Ikus **bózka**.
- bózka** *iz.* Botoa, **bózkak** ‘hauteskundeak’.
- bozkárjo** *iz.* Poza. Cf. gutunetako etsenplu hau: «X-re bozkario haundiain bea dioxu» (AB).
- bozkátu** *ad.* (du) Botoa eman.
- brabán** *iz.* Lurra lantzeko tresna, golde baten modukoa.
- brakotx.** Satrustegik (1963-64: 262) ‘bikoitia’ dela dio. Ikus **britxi**.
- brettóin** *iz.* eta *izond.* Bretoia, behi mota bat.
- britxi** *izond.* Satrustegik (1963-64: 262) biltzen du eta erraten ‘parea’ dela. Ardurakoa ez dela ere erraten du, ordea.
- brója** *iz.* Trastea: *Ganbára háu brójez bétja djóxo*.
- brokátu** *ad.* (da) Bete-betea egon. Ikus **emo-kátu** eta **fundikátu**.
- brónkjoak** *iz.* Bronkioak: *Gázte denbóran ánitiz pipátzen zín éta orái brónkjoáiik arrúnt delikátu dá*.
- brontxíta** *iz.* Bronkitia (frantseseko *bronchite*-tik).
- brósta** *iz.* Zuhamuxka, sasia, zakarra (biarnesgaskoiko *brouste*-tik).
- bruñitja izán** *ad.* (da) Zale amorratua izan: *Éne máztja bruñitja dá xokolátjai*.
- buháme, buáme** *iz.* Ijtoa. Sakretako ere erabil daiteke, norbait iraintzeko: *Buháme bát dúxu hóri!* Ikus **zító**.
- buho.** Satrustegik ‘buroa’, ‘madarikazioa’ adiera ematen dio, eta formula batean erabiltzen dela erraten du. Guk ezin izan dugu bildu.
- bukéta** *iz.* Lore sorta (frantseseko *bouquet*-etik). Ikus **Jondonaaniko buketa**.
- bulanjér** (*bulanjérra* era mugatuan) *iz.* Okina (frantseseko *boulangier*-etik). Luzaideko arotzak *bolanyer* darabil XIX. mendean: «Bolanyerrari burdina bat berria» (Satrustegi, 1969: 254). Ikus **panadéro**.
- bulár** *iz.* 1- Bularra, 2- Titia, 3- Biririkak, pluralen erabilia.
- bullóta** *iz.* Boltsa beroa (frantseseko *bouillotte*-tik).
- búlta** *iz.* 1- Denbora tartea, laburra edo luzea, bolada: *Hunékin badjáu búltatendakó* ‘honekin badiagu tarte baterako’. Cf. «Konprenditzen dítxit xure lanak, eta hemen bezalatsu segitzen jendekin, anitz bulta galduz» (MA), 2- **búlta, búltta** ((t)xár) Atakea / **búltat izán, búlta txár bát izán** *ad.* (du) Atakea izan, atake bat izan. Cf. hau: «Aitzine hortan izan zixin bulta txar bat, bana pasatu zitziakoxun, eta berriz hu-

- neat eman dixi» (AB), «Bidondosak izan dixi berrize bultta xar bat» (MA). Ikus **kólpe** sarrera / **bultáño** iz. Denbora tartetxoa: «Ene pena zeait bazuxun; karrikan jakin nilaik ordian berian partitiak zineztela eta egon zineztela bultañoat» (MA) / **búltta** iz. Bulta txipia, bultañoa / **bulttáño** iz. Denbora tarte txipia.
- búltaka** adond. Aldika, tarteka: *Éne lána etxú bortítza, bána búltaka tokátzen zjáxu ártzja, frángo pollíki*. Ikus **aldíka** eta **artétan**.
- bulúte** iz. Burutea, buru gainean pisua eramateko jartzen den kuxin biribila.
- bulúzgorri** adond. Iarrugorritan: *Átea díra telebisjónjan néska átzu bulúzgóri*. B. Etxeparek (1980 [1545]) *buluzkorrik* (24), *buluzkorria* (28) darabil.
- bulúzi** ad. (da-du) biluzi: *Bulúzi núxu* ‘biluzi nauxu’ (nor), *bulúxixit* ‘biluzi dixut’ (normork). Etxaidek (1989: 254) *bulúzi*-ri ‘desnudo’ adiera ematen dio, baina hori, daki-gunez, *bulúzík* erraten da Luzaiden. B. Etxeparek (1980 [1545]: 24) «Goiz etarrats egiten duk buluz eta beztitzia» dakar.
- bulúzík** adond. Bilutsik.
- bunbúna** iz. Karamelua.
- burdíko** iz. Burkoa.
- burdín** iz. Burdina. Etxaidek (1989: 26) *burdína* bildu du eta Luzaideko arotzaren kontuetan (Satrustegi, 1969: 157) ere *burdína* ageri da: «Iru burdína tuguendaco», «bi burdína einic», «carruai bi burdína», «lau burdína zilatu», «bi arrasta burdína peza-tu».
- burdín barra** iz. Ikus **barra**.
- burdín sagarde** iz. Burdinazko sarde edo antzarratzelua; ikus **sagarde**.
- burdintzíri** iz: *Egúrríteko ibiltzen dén burdína dá burdintzírja*. Luzaideko arotzak ere jasotzen du (Satrustegi, 1969: 144, 149, 150): «Burdín ziri berri bat», «palanga bat, burdín ziri bat caldatu», «burdín ziri bat arriñaturic».
- burdintziri joiteko mailua** iz. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 186): «Burdín ziri yoiteko mailu bat arriñaturic».
- búrjan búru** adond. Mutur batetik bestera, alderen alde, bururen buru. Cf. Arnegiko AAren hau: «Ikusi behar xinuke nola X-k

erakusten dazkian eskolan eiten tien ixtorioak; izigarriko buru eta hartze huna dixi (alfabia). Oraikotz badiakixu burian buru eta gogoz».

**búrjan pasátu** ad. (da-du) Bururatu, burutik pasatu: *–Nauká ostátu hórtan sár gitén? –Éz, éz, búrjan pásaré!* ‘–Nahi al duk ostatu horretan sar gaitezen? –Ez, ez, inola ere ez!’.

**búrra** iz. Gurina (frantsesezko *beurre*-tik?).

**burrúnba** iz. Azantz handia.

**burrústa** iz. 1- Zurrusta (ikus **xirríxta** eta **zirrístá)**, 2- Euri erauntsi laburra, zaparrada. Ikus **tarrapáta** sarrera / **burrústán** (= **burrrústaka**) adond. Borborka, ugaritasunez: *Eurín dixi anítz tá túrritik húra hélduxú burrústán / burrústáño* iz. Burrusta ttipia, zaparrada ttipia.

**burrústaka** adond. Burrustan, borborka, ugaritasunez: *izérdja héldu zjáxu burrústaka*. Belarraz mintzatzean ere erabiltzen da: «Erraiten baituxu, ardiak untsa tuxu; orai ja fini hemengo afera, bana denbora hune-kin [belarra] heldu duxu mendian burrustaka» (MA).

**búru** iz. 1- Burua, gorputz atala, 2- Aitzindaria: *Jwanés zén fábrica hártako búrja dén-bora hétan*, 3- Azienda alea: *Artálde hórrrek batxí berreún búru séurik / -en burjan post*. ‘pasata’, ‘beranduago’, ‘en buruan’: *Méndirat láneat jwántzúxun, bána fíte eneátu tá híru egúnen búrjan hémentzúxun berríze; indízjónja emán zakotén ta híru egúnen búrjan untsátu zén / guzien burian* ‘azken batean’. Satrustegik (1969b: 82) biltzen duen honetan ageri da: «Guzien burian berek ez dixie hobenik» / (**arrúnt**) **búrjan hártja izán** ‘buruan zerbait erabat sarturik izan’, ‘nahitaez zerbait egin nahi izan’: *Búrjan arrúnt hártja íxi jwán behár díla Errómat Áita Sáindjain kústea / (arrúnt) búrjan izán* ‘buruan zerbait (erabat) sartua izan’; cf. ABren hau: «Orai arrunt burian omen dixi xingola mina diela, gaizua haren! Hain untsa baitzailan! Orai kartzen omen diakoxu frango, aldiaka. Ze nauxu! Haren estakuriak juain txu; berdin irauten ahal dixi» / **buru eman** ad. (du) Aurre egin: «Ba, konprenditzeko uxu karga haundia ziela buru

emaiteko eta karga haundia horien guzian intresen itia» (AB) / **buru in ad.** (du) Aurre egin. Cf. Luzaideko letretako pasartexto hau: «Bauxu ba, hane noat buru in, bana gauzak jiten diren bezala hartu behar!» (AB) / **búruas adond.** Txapelik edo buruko jantzirik gabe: *Elízan búruas sár-tzen dá jéndja.* Satrustegik (1963-64: 262) *buruats* 'a pelo' biltzen du / **burútik béiti emán ad.** (du) 'bereak eta asto beltzarenak eman', 'egurtu', 'joka erraustu': *Burútik béiti emáin diát ezaiz, géldik egóiten!* Ikus **gáinetik béiti emán, káskotik béiti emán** / **burútik jwán, burútik jwána izán ad.** (da) (esam.) Erotu, burutik egin: *Burútik jwána hizá?* Cf. MAren hau: «...burutik juan zela eta manikomioat eremaiten zutela bihamunian» / **burútik máingu ez izán ad.** (da) (esam.) Abila izan: *Hóri etxú burútik máingu, ez!* / **burútik úntsa ez izán ad.** (da) (esam.) Burutik joana izan, zozokerietan ibili, zerbait burugabekeria egin: *Gizón háu eztá burútik úntsa, sóizu zé burugabekérja ín dín!* / **búruz adlag.** Gogoz: *Hóri búruz kási / (-ri, -rat) buruz post.* Aldera, -rantz: *Méndjai burúz jwán dá Nikolás = méndi-rat burúz jwán dá Nikolás.* Cf. «Orai meza emaiten dixie guri, jendiai buruz» (AB). Antzekoa da, baina ez arrunt berdina, MAren hau: «Azkenian hasten nuxu xuri buruz [ixkiatzen], hoinbeste denbora huntan in beharrik».

**búru-ingúru iz.** Zorabioa: «Ez omen dixie nehor uzten ikustea, ez eta bere familia; ez dakitela zer pasatu zakon, bera erori dela, zerbait buru inguru izan ote din. Denetan ez duxu penaik bezik» (MA).

**buruáundi 1- izond.** Buru handia duena; sakretako ere ibiltzen da: *Urdé buruáundi zikína!*, 2- *iz.* Bestondoa, ajea: *Ázto bésta háundja ta égun buruáundi.* Estornéseak (1985: 64) Otsagabiko «astelenan (sic) buruandi. El lunés cabezón» biltzen du. Izan ere, erdaraz *cabezón* 'bestondoa', 'ajea' adierarekin ere ibiltzen baita.

**buruáuste iz.** Buruhausta.

**burubéltz izond.** Buru beltza duen ardia.

**buruberritu ad.** Luzaideko arotzaren kontu liburuan ageri da (Satrustegi, 1969): «Pade-

ra bat buruberriturik» (158), «macharro bat buruberriturik» (161), «guilza bat buruberriturik» (212). Ikus **ahoberritu, aztalberritu** eta **begiberritu**.

**burugábe izond.** 1- Fundamenturik, talenturik gabea, 2- Atzenkorra, gauzak ardura ahazten dituen.

**burugabekérja iz.** Burugabeak egiten duen ekintza gaitzesgarria: *Mutíko éro hóri béti burugabekérjetan ibiltzen dá, bátjan parapéntjan ibili behár díla, béstjan Himalájara jwán behár díla, éta hóla.*

**burugasna.** Satrustegik (1963-64: 262) heste-bete baten izena dela dio, *buruki* bezala.

**buruharro izond.** Satrustegik (1963-64: 262) 'urguluntzia' dela dio; guk ez dugu adiera zehazterik izan.

**burukáldi iz.** Burukada: *Burukáldi bát emán dakó samúrtu délakotz.*

**burúki.** Satrustegik (1963-64: 262) heste-bete baten izena dela dio, **burugasna** bezala. Guk 'azienda baten buruko haragia' adierarekin aditu dugu.

**buruko iz.** Satrustegik (1969b: 66) lehenik **motto** 'motoa, mototsa'-ren adierakidetzat ematen du, eta aitzinago (ibid., 95) 'marko baten goiko zatia' dela dio. Garmendiak (1969: 224) arrazteluaren pieza bat dela erraten du, giderrari zeharka doakiona, hortzak dituena. Ikus **tutúla**.

**burukomín iz.** Buruko mina: *Izígarriko burukomína jáuzja íxit.*

**burumuntatzále iz.** eta *izond.* Kitzikatzaila.

**burumúñak iz.** Muinak. Ikus **múñak** / **burumúñetan bárna sártu ad.** (da) Kaskoan sartu: *Burumúñetan bárna sártu zitákon Améiketat jwán behártzila* 'kaskoan ongi sartu zitzaion Ameriketara joan behar zuela'. Ikus **bárna**.

**burumutzítaka ibili ad.** (da) Axuriek, jostetan ari direlarik, egiten dutena: *Axúri hórjek burumutzítaka djáiltzatxu.* Azkuek eta Lhandek *burbutzika* 'brincando, bondissant' dakarte.

**bururátu ad.** (da-du) Bukatu. Ez da anitz ibiltzen; cf. ABren etsenplu hauek: «Xuk etxu etxian zuañatzaleik, beti noait ateratzen duxu. Don Jose Mari beti lanak ezin bururatzu, untsa akituik», «orai urte xaharra ari ixíu bururatzén. Izan dixíu grazia untsa pa-

- satzeko, artetan zeait arrangurekin». Ikus **buutátu** eta **finítu**.
- burutokiak** *iz.* Uztarriaren arku modukoak, Garmendiaren arabera (1969: 223), bestela **kazolak** deitzen direnak.
- Buruxúri, Buxúri, Buzúri** *iz.* Bixkarrean den *Buruxurínja* edo *Buxúinja*-ko nagusia. Aitzinean izena ezartzen bada pertsona hori bertan sortu dela edo bizi dela adierazten da; **Buxurísa** *iz.* *Buruxurínja* edo *Buxúinja*-ko etxeoandrea. Cf. gutunetako pasarte hau: «M<sup>a</sup> Doloresi igortzen dakot gure koñata Buruxurisa zer fonsian juaun zaun. Zenbait meza entzunik juaun da mundutik; nik uste baliatuko zazkon».
- buruzági** *iz.* Buruzagia.
- burwarín** *izond.* Kaskarina. Ikus **arín** eta **kaskarín**.
- burwaustále** *izond.* Buruhauste anitz ematen dituen.
- burwíl** *iz.* Iraila. Etxaidek (1989: 63) *βuruíla* biltzen du, hasierako ezpainbikoa igurzkarri edo frikaria dela eta hiatoarekin.
- bústi** *ad.* (da-du) Busti: *Léitzen ái nintzálaik perjódikwa húreat eróri tá bústi zjáxu*. Ikus **elur bústi**, **mullítu**, **paper** eta **trenpátu**.
- bustiáldi** *iz.* Bustialdia, trenpaldia: *Paisólaik gábe átea níz éta gáitzeko bustiáldja hártu út*. Ikus **trenpáldi**.
- busúntsa** *iz.* Makala. Cf. Luzaideko arotzaren hau (Satrustegi, 1969: 176, 249): «Busunsa taulac seiain gasnateico», «pedoi bat busunsa mozteco bat berria». Satrustegik (1969b: 125) *busuntza* dakar.
- buutátu** *ad.* (da) Bururatu, burutara etorri: *Mutíko mukúzu zikín hórri etzjakóxo gáuzá húnik buutátzen*. Ikus **gootátu** eta **okurrítu**.
- buútxa** *iz.* Artaburu aletua. Ikus **bihítu**.
- buútxa jóko** *iz.* Lokotx jokoa, arto-kozkor jokoa: *Zártzen txú buútxak lérrwan tá lérrro horrén búrjan zártzen dúxu sásksja tá bedé-  
ra-bedéra bíldu beártxú buútxak sásksirat*.
- buútzjaik ezín in ad.** (du) ezin burutu, ezin karrerarik atera: *Etxít buútzjaik íten ál mutíko hunékin; eztját buútzjaik íten ál hirékilan*. Cf. P. Narbaitzen hau (1999: 16): «Bainan zu ere, Ama zerukoa, ari izan zitazke burutzariarik ezin eginez... Eta halere barneko bakkea ez duzu sekulan galdu...», eta Saint-Pierre «Anxuberro»-ren beste hau (1998: 236): «Sukharra nausitu zitzaukun gehienari. Burutzariarik ezin eginez, oren laurden guziez egiten zuen medikuak: “Oinez ibiltzeko on diren guziak abia ditezela”. Satrustegik (1963-64: 263) «burutzariarik ezin egin» ‘ezin gauza onik egin’ biltzen du.
- buxér** *iz.* Harakina. Orain gehiago **karnizéro** ibiltzen da.
- buxérja** *iz.* Harategia. Orain gehiago **karnizería** ibiltzen da.
- buzóka** *iz.* Hegazia da, baina ez dakigu zehazki zein. Putrea, dena dela, ez da, hau **arráno** erraten baita (biarnes-gaskoiko *busòc* ‘mirua’ hitzetik). Hiriart-Urrutik (1972: 121) ‘zozoa’, ‘ergela’ adieran darabil: «Zer etzarion jaun arotz horri gutaz? Zozo ton-to buzoka eta huntz batzu ginela oro». Adiera hau biarnesean eta gaskoian ere ibiltzen da.
- buztárrri** *iz.* Uztarria. **Uztárrri** ere ibiltzen da.
- buztarri udi, buztarri udiri** *iz.* Satrustegiren arabera (1969: 285) ‘aro del yugo donde encaja el timón’ da. Luzaideko arotzak «buztarri udi berri bat», «buztarri udiria ezarriric», «buztarri udi berri bat» du (ibid., 154, 213, 226).
- bwéno interj.** (Gaztelaniako *bueno*-tik). Ikus **bón**.

## D

**-dáde** *buk.* Bakarrik *konformidáde* eta *umidá-de* maileguetan kausitu dugu. Ikus **-táte**.

**daldárika egón** *ad.* (da) Hotzez dardarka egon.

**dámu** *iz.* Normalean *dámu dén* + *izena* segidan ibiltzen da: *Dámu dén ahátxja!* ‘aratxe gai-xoa!’’. D. Intzak (1974: 159) Luzaideko esamolde hau bildu zuen: «*Damu den buriak ibili behar gorputz horrekin.* Buru ergela gorputz ederrean» / **damurik, dámwik, damwík, adond.** 1- Beharko, 2- Tamalez. Cf. gutunetako aipu hauek: «Anitz ohizen nuxu xutaz; damuik gitxu elgarretaik urrun. Ni ere orai arras polliki nuxu; bestiake denak untsa tuxu» (AB), «ari nuxu lanian, neure segidan. Damurik hoin hurrun gituxu; zoin gohotik inen nin itzuliñoat ikus nindezazien eta horgo ene adixkide horiek» (MA).

**dándá** *iz.* Danda, ezkilek eta erlojuek egiten duten soinua, ordua ematean: *Érna xíte, mézat jwáiteko dándak áitu baititút*

**daxíkola** *ad.* Ondo-ondoan, segidan; **atxíki** aditzaren forma ihartua, nahiz partizipioak orain ‘lotu’, ‘ondoan egon’ ez duen erran nahi (ikus **atxíki** sarrera): *Étxeai datxíkola baíxu bórdat.* Ikus **ségi**.

**ddántza** *iz.* Ikus **jántza**.

**ddantzári** *iz.* Ikus **jantzári**.

**debálde** *adond.* Alferrik: *Debálde dúk hóla ibíltzjan, eztúk já kontsegítuko* / **debáldetan** *adond.* Alferrik.

**debáldeko lána** *iz.* Alferreko lana, alferrikako lana.

**debekátu** *ad.* (du) Debekatu, galarazi: *Wái debekátu uté léku públíko guzjétan pipátzja.* Ikus **galázi**.

**debéku** *iz.* Toteltasuna; Baztanen *mintzo-debeku* ibiltzen da (Izeta, 1996: 131) / **debékja izán** *ad.* (da) Totela izan: *Gizón hóri debékja úxu.*

**deitatu** *ad.* (du) Deitu. Eskutitz batean aurkitu dugu: «Juan den igandian meztatik etxeatekuan deitatu nindixin xure berrien emaiteko, biziki gustatuik jin duxu eta kontent» (AB).

**déitzi** *ad.* (du) Jeitzi: *Bihár góizjan góizik jéiki beaíxit béhjen déizteko.* Ikus **jeitzi**.

**déja** *adond.* Dagoeneko: *Déja hemén baitzizté!* ‘dagoeneko hemen zarete!’ (‘¡Ya estás aquí!’), «Bixtan dena, hau bere alde eta bestiak berriz jakina zila berdin juain ziela, deia haur hori sortuzkioz beti aitamen etxian egon tuxu» (MA). Ikus **jadánik** sarrera.

**deláko** *izond.* Izenekoa: «Mari egona duxu arras eri, *fiebre malta* delako atekin eta anitz denboraz ez ezagutu» (MA).

**deliberátu** *ad.* (du) Erabaki; adlatiboa eskatzen du: *Deliberátu txju mendírat jwáitea;* «Especialistek erraiten dutela operatzia eta berare arrunt deliberatia» (MA).

**delibéro** *iz.* Erabakia / **delibérwa hártu** *ad.* (du) Erabakia hartu: *Medíkura jwáiteko delibérwa hártu níxin, ezaíziztán estómakako mína pásten.*

**delikátu** *izond.* eta *adond.* Delikatua, delikatu (gaztelaniako *delicado*-tik, antza): *Azíta delikátja dá hóri, kásumazú háutsi gabé; néska pollít hóri papér bústja bezáin delikátja úxu.* Cf. MAren hau: «Erran bezala Juanes beti delikatu bana arras negu polli-ta diamaxu, kasuinez, eta negiare ez baita bortitza». B. Etxeparek *delikatuia* darabil (1980 [1945]: 30). Ikus **méndre**.

**demónjo** *iz.* Deabrua, baina bakarrik zenbait erranairutan: *Zé míla demónjo áiz?* (< *ari hiz*); *zé demónjo pásten dá hémen?*; *zé míla demónjo pásten dá hémen?*

**déna** *zenb.* Dena. Izen baten ordainetan ibiltzen da: *Dénak jín dirá; déna jan dút.* Ikus **gúzi** eta **óro** / **denéta** *adlag.* Denera, dene-



tara: *Denéta gastátu txju ehún míla pezéta*.  
Ikus **orotat** forma, **óro** sarreran.

**denbóra** iz. 1- Denbora: *Horrén íteko etxú anítz denbóra behár*, 2- Eguraldia: *Denbóra húna, denbóra xárna, denbóra lorjagárrja, xarmánteke denbóra... Zé denbóra lorjagárrja dón!* Pluralean ere erabil daiteke: «Orai biziki denbora ederrak tixiu, bero iten dixi. Kanpua azkarki piztu duxu, bahatziak eder tuxu» (MA), 3- Sasoaia, garaia: *Éne háur dénboran bajjén Luzáiden anítz gwárdjazibíl, éta dénka españólak; gúre gázte denbóretan jéndjak géjo míntzo zí-txun eskwáraz / denbóraz* ‘antzina, garai batean’: *Denbóraz elúr géjo ítentzín*. Cf. Saint-Pierre «Anxubero»-ren hau (1998: 58): «Egiaren erraiteko begi ona du eta fina. Ardi toki izanak dire hauk denboran. Geroxeago, betarrabari loturik jendea, sukre moldatzeko lantegiak altxatu dire bazter guzietan».

**denbóra galgárrri** iz. Denbora galarazten duena. Ikus **galgárrri**.

**denbóra pasagáilu** iz. Denbora pasatzeko on den zerbait. Cf. Aintziburu & Etxarrenen hau (2002: 130): «Joko hori errexera zen ikasteko, baina denbora pasagailu ona, noiztenka begia atxikiz artaldeari eta etor zitekeen pizti edo basabereari».

**dendári** iz. Jostuna. Ikus **botigés**, **botigésa**.  
Orain ez da gehiago ibiltzen (ikus **jostun**).

**dentísta** iz. Hortz-haginez arduratzen den medikua (espainoleko *dentista*-tik segur aski).  
MAren gutunetan, behin, *dentistian* ageri da, hots, oinarritzat frantseseko *dentiste* duen aldaera.

**depósito** iz. Depositoa, likido biltegia: *Éuri frán-go ín dú tá depósitwa gáineano béte záu*.

**derétxo** iz. Eskubidea (espainoleko *derecho*-tik). MAK *dretxo* darabil.

**des-aurri**z. Gabetasuna, kontraktotasuna adierazten du: *Desbárdin, deséin – desín, desoragárrri, desóre*. Ikus **ez-**.

**desajunátu** ad. (da-du) Gosaldu. Ikus **baruráutsi**.

**desajúno** iz. Gosaria. Ikus **baruráuste**.

**desbárdin** izond. Desberdina, berdina ez dena. Ikus **berdín**. Ez da erabat, oker ez bagaude, **diferént**-en adierakidea. Erraterako txerrikumeak saldu behar direlarik itsusia

da *desbárdinak* izatea, batzuk handiak eta besteak txikiak; polita, berriz, denak *berdínak* izatea, hein berekoak. *Diferént*, aldiz, gaztelaniako ‘diferente’ da. Cf. ABren hau: «Sasoina orai in dixi ederra frangore; ze urrita xarmanta!, bana Luzaiden uso guti hil! Biziki desbárdin jin tuxu usuak». Lhandek (1926: 203) *desbárdin* hitzari ‘inégál’, ‘dépareillé’ adiera ematen dio.

**desérta** iz. Azkenburukoa (frantseseko *desert*-etik irudiz, baina –s- horrek menturaz biarnes-gaskoitik hartu dela adierazten duke, hizkuntza honetan Palayren arabera *dessèr(t)* «mot entré depuis peu dans l’usage» bada ere). **Póstre** ere erabiltzen da.

**desín, deséin** ad. (du) Desegin.

**desíra** iz. Nahia.

**desirátu** ad. (du) Nahi izan, opa izan.

**deskuráiutu** (du) Gogoia galdu. MAK darabil: «...tentsionia 25 zila 22eta jeutsi zakola, bana diabeta, eta oraiko aldian albumina puxkat bat eta bera biziki deskuráiutia (...)».

**desolátwik izán** ad. (da) Arrunt atsekabeturik egon (frantseseko *être désolé* edo espainoleko *estar desolado*-tik).

**desoragárrri** izond. Desohogearria.

**desóre** iz. Desohorea. Baina **ohóre** erraten da.

**despeítu** ad. (da-du) 1- Agurtu: «Gure jaun errotak despeitu gitixi, bazuala etzuala, azkenian korropilua trenkatu duxu» (MA), 2- Bukatu: *Éa despeítzen dún lán háu bísta húntaik* ‘Ea bukatzen dugun lan hau behin-goan’.

**déurru** iz. *Deurría sardákjon!*, *deurría sartú-ja!*, *deurría sarbalákjo!* ‘deabrua sartuko balitzaio!’, *deurría sarbalákite!* ‘deabrua sartuko balitzaie!’, *deurriék eremána* ‘deabruék eramana’ / **deurría izán** ad. (du) (esam.) Anitz izorratu: *deurría ziók Irúñe-at jwáitja!*, *Péjori deurría zjakók góizeko sejóntan jeikútzja!* / **deurriák ez izán, deurriék ez izán** ad. (du) (esam.): *Ikásiko dú, bá, deurríak ezpaitú!*, *ínen dúte bá lána, deurríak ezpáute!* ‘Arriaok ez badu’ / **deurriák ikúsi** ad. (du) (esam.) Gorriak ikusi: *Deurriák ikúsi nútxin árdjak bórdan ezín sártuz!*, *eskapátzen zítzjázjatzun!* / **deurriék hártja izán, deurriék jwána izán** ad. (da) (esam.) Burutik gaizki egon:

*Deurriék hártja hiza?, deurriék jwának zíteà?* Lehen formak 'arunt urduri egon' adiera ere badu, espainoleko *estar negro: Deurriák hártja núxu ez delakótz héldu*. Ikus E. Etxamendiren hau (1988: 63): «Aita ta Maurizio barrukitik heldu dira hanbestenarekin... Han ziren oraikoan xintximariak! Aldi huntan aita arunt jauzi zen, debruek harturik zen» / *iz.* (indartzaillea): *deurrú ergelá!, deurrú méntsa!, deurrú pekazína!, deurrú perréka!, deurrú rózwal / izond. Gízón deurrú húnek zé lána ín dáun! / interj.* 1- Deabrua, 2- Arraioa: *Deurrú...!; Deurria! Ze ajúta emán dán zérrí zikín hórrek!; zé déurru, jwáin gítxu hól-olá bezítwik!; zé déurru pásten dá hémen?; zé míla déurru pásten dá hémen? / deurrjén aríma*. Cf. Manezaundiren hau (1990: 86): «Debrien arima, Erramun, hori duk hori, garbitasuna, ez hemen bezala dena... ziztorrez betea» / **deurrjén bisája**. Zerbait gaizki ateratzen zaigunean erabiltzen da, ez da gogorra: *Deurrjén bisája, zé káska hartután! / deurrjén figúra: Deurrjén figúra, zé lána ín dáun zérrí zikín hórrek! / deurrjén kendén: Deurrjén kendén, eniz nehóntikané heméntik atéatzen ál! / deurrjén urdía / deurrú zahárria / deurrú zikína*. Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 320-322) *adond.* (mailakak.): *Fíte déurru jín zukán!*

**deurrukérja** *iz.* Etsakeria (ikus sarrera hau). Manezaundik (1990: 66) *debrukeria* ibiltzen du: «Etzakien gaizoak ez debrukeria zuten asmatu lagunek beraz trufatzeko. Nola sinets afaria xede hortan eginazute-la?».

**déus, déuse, déusez** *izord.* Deus, deus ere, deus ere ez: *Kusjuká déus? Eztját jéuse ikúsi*. Inoiz zenbatzailea-edo da; cf. hau: «Alde atetik ez gitxi denborak bate launtzen, beti denbora [t]xarrak, deuse lanik ezin in» (AB) (= *báte lanik ezín ín*). Luzaiden ez da *ezer* ibiltzen. Ikus **jéuse, jéusez**.

**-di** atziz. Txistukari ahoskabe ondoan *-ti* dago. Multzoa, ugaritasuna adierazten du: *Haitzi, zaakádi*. Cf., gainera, *Gaztainádja* eta *Saukádi* toponimoak.

**diabeta** *iz.* (frantseseko *diabete*-tik) Diabetesa. MAren gutunetan ageri da: «Aña Marire

beti kasuinez tentsioniai eta diabetai, biak baititu», «Aña Marire ez baita lehen bezala, bere diabeta zar horrek bista biziki laburtu diakoxu».

**diesol.** Satrustegik (1963-64: 263) 'agurra' adiera ematen dio eta Arruazuko eta Luzaidetkotzat jotzen. Guk bigarren herrian ez dugu kausitu.

**diferénki adond.** Beste era batera: *Baigorrrjérrak diferénki míntzo díra*.

**diferént.** Ikus **desbárdin**.

**diferéntzja, difeéntzja** *iz.* Desberdintasuna. MAk *liferéntzia* darabil gutun batean: «Ximon untsa duxu; aurten juan den urtian sasoin huntan bano hobeki duxu; zer liferéntzia!». Ikus **número** sarreran dioguna.

**diffízila** *izond.* Zaila: *Kanpótjarrendako Luzáiden bezála míntzátzja arrún difízila dá*. Ikus **áisa, néke izán eta záil**.

**díla** duela, orain dela (ABk *diela*): *Díla biúrte izán gíntxún itsáswan*.

**dilíndan adond.** Zintzilik: *Zíntza xíte, otói, múkjak dilíndan txú! / dilíndan zárri ad.* (du) Zintzilikatu: *Xérrja híl ondwan lukáinkak éta tripótak íten txú tá makíl bate-tík dilíndan zárzten txú*.

**dilíndátu ad.** (du) Zintzilikatu: *Lukáinkak hága zónbáitetaik dilíndátzen díra, idór dí-tén*. Ikus **dilíndan zárri**.

**dína** zenbat. Doia, justua: *Etzáxun mozkórtzen, bána edáten zixin kóntent jártzeko dína*.

**Diputazjone** *iz.* Foru Aldundia.

**dirdiríka** *iz.* Dardara. Satrustegik (1963-64: 263) *dardara* jasotzen du adiera honekin.

**direzione** *iz.* Gidaritza, zuzendaritza. Satrustegik bildu zuen (1969b: 84), MArengandik: «Emaztekiak etxeko direzionia behar du eremen (sic). Ofeak garbi, etxea odrian eta jatekuak tenorez».

**disgustátu ad.** (da-du) Atsekabetu, nahigabetu: *Sémja lánetik bóta ítje éta áita arrún disgústátja úxu*. Ikus **disgústja hártu, izán** eta **nahigábe hártu**.

**disgústu** *iz.* Atsekabea, nahigabea. Ikus **nahigábe / disgústja hártu, izán, disgústu edérra hártu, izán ad.** (du) Atsekabetu, nahigabetu: *Eztákixu zé disgústja izán dín ámak hóri áitu dláik / Ikus nahigábe hártu*.

**diskutítu ad.** (du) Eztabaidatu, eztabaidan, mokoka ari izan (espainoleko *discutir-*

- etik): *Hórjek eztúte pasátzen egúnik diskutitu gábe, bėti bérdin*. Ikus **gér lan aizán**, **gér la górrjan aizán**, **mokóka aizán**, **patáskan aizán**.
- ditáre** *iz.* Titarea.
- djók, djón, djózu...** *ad.* *Zér djóze?* ‘zer moduz zaudete?’, *Zér djó Péio?* ‘zer moduz dago Peio’, *aitámek zér djóte?* ‘nola daude gurasoak?’.
- dóbla** Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena da.
- dóbla ta híru** Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena da.
- doblátu** *ad.* Bikoiztu: *Azkén úrte hótan píswen prézjoak doblátu díra Iruñen*; «Behieke biziki untsa in omen dixie ferietan; iten ahal dixi[e] gauzek, zergak doblatu baitira» (MA). Ikus **pleátu**. MAK *doblátu* ‘okertu’, ‘leher egin’ edo antzeko adierarekin darabil behin, segur aski espainoleko *estar doblado* ‘leher eginik egon’-etik hartu duelako: «X doblatuik jartzen ari duxu, batian geruntzetan min díla edo beste nunbait, karga puxkaten ibiltzeko ez hun».
- dóble** *zenb.* Halako bi: *Améiketako ótwak dóble háundjak tük / dóbljak* *iz.* Doubleak, musean erabiltzen den hitza.
- doháin** *iz.* Patua, halabeharreko gauza. Cf. Arnegiko AAren hau: «Abion handi bat 248 soldadorekin eta 8 langile –abioneko langiliak–denak lurrerat juanak. Gaizo soldaduak helduki Eguberri eta Urthatsen pasatzerat etxerat eta zer gertakari izigarria! Guhaur hoinbertze ibiliak abion horietan, halako bat egin daut neri seurik eta ez daut kuraia handirik eman berriz airian juaiteko. Errazu ez dela hori burian hartu behar; ez da beti holakorik gertatzen. Hori dohai bat dela».
- doí** *iz.* Justua: *Gizón hóri lánjan ánitzen ártzen dúk, bána bizítzeko dója béstiek eztk iráztan*. Ikus **dína**, **jústu** / **doí-dója** *adond.* Justu-justu: *Doi-dója arribátu níntxun autobúsain hártzeko*. Ikus **jústu-jústjan** / **doí-dójetaik** *adond.* Oso gutxigatik, gutitarik: *Doi-dojetaik enúk eróri*. Ikus **anítzek ez ín**.
- dolore**. MAK darabil: «Beti segitzen duxia doloreik gabe?». Guk beti **mín** eta **uñáze** aditu dugu.
- dólu** *iz.* Dolua: *Amátxi híltzelaik éne ámak dólja éreman zixin úrte díez*.
- doludun** *iz.* Dolua duena: «Ikusten nixin arrotz bat doludunetan, eta Jes! Enixin ezagutzen! Gero oroitu minduxen senarra zenak ba ziila sematxi bat Frantzian» (Satrustegi, 1969b: 69).
- dolútu** *ad.* (da) Damutu, penatu. Cf. MAren pasarteño hau: «Ondoko egunetan jakinen tuzie berriak xeheki; seurki gure gizon[ak] ez tuxu dolutiak horrat jítiaz».
- doministíko**: *Norbáitek urtízntz íten dílaik emátien zakón errepóstja* ‘norbaitek atriya egiten duenean ematen zaion erantzuna’.
- donádo** *iz.* eta *izond.* Mutilzaharra. Ikus **zikí-ro**.
- donjandár** *iz.* eta *izond.* Donibane Garazikoa.
- dookona**. Satrustegik dio (1963-64: 263) maiztasun handiz ibiltzen den adizkia dela; irudi duenez batuko *dagokiona* bera da.
- Dorái** *iz.* Gaindolako *Dorája* etxeko nagusia; **Doráisa** *iz.* *Dorája*-ko etxekoandrea. Cf. 1614ko aipu hau (Arbizu, 1992: 354): «...y otro (mojon) en el camino sendero de entre las dos piezas de sembradura de la casa de Nabarlaz: y por otro en donde Aldacecoeguia, y por otro nombre Doraycobordandondoa (...) y pasan por la puente de Doray (...)».
- dórpe** *izond.* 1- Traketsa, baldarra, 2- Pisua: *Mekanika háu frángo dórpja úxu*, 3- Gogorra: *Háu bízi dórpja!*
- dozéna** *iz.* Hamabi unitatekoa: *Kattalín, ttúku-ttúku, Kattalín ariná, zónbana sáltzen dúzu, dózena sardiná?* (*Pasaiaiko herritik bertsoaren airearekin*).
- dozenérdi** *iz.* Dozena erdia, sei unitatekoa.
- dremendén** *adond.* Gutxienekoa, ahal den gutxiena: *Hígi xíte dremendéna* ‘mugi zaitez ahalik eta gutxiena’; *dremendéna áskixi samúrtzeko* ‘edozein huskeria nahikoa du (xuka) haserretzeko’.
- drénde** *izond.* Samurra (frantseseko *tendretik*): *Atzó janíkako harágja drén-dréndja zén*. Ikus **uxtér**.
- dróle** *izond.* Arraroa (frantseseko *drôle*-tik). **Arráro** ere ibiltzen da.
- drolekérja** *iz.* Arrarokeria.
- dúda** *iz.* Zalantza. / **dúda ín** *ad.* (du) Zalantza izan, duda egin: *Etzaxúla dúdaik ín*.

**dúda-múdaigábe** *adond*. Dударик gabe, indartua: *Hóri érten dauzután bezála dá, dúda-múdaigábe*.

**dúdaigábe** *adond*. Ikus **dwáike**, **dwaikabé**.

**-dún** *atziz*. Ahoskabe ondoan *-tun* bihurtzen da, baina ez beti. Duena, jabegoa, egilea adierazten du: *Bizardún, doludun, erakustún, erdaldún, erostún, eskwaldún, esnadún, hobendún, lunetadún, mustaxdún, pinttadún, sosdún, xixtadún, zordún*.

**dupín** *iz*. Eltze handia. Jendearendako, gure berriemailearen arabera, **tupín** erraten da. Ikus sarrera hau.

**-dúra, -kúra, -túra** *atziz*. Izenak sortzen ditu: *Akidúra, azpildúra, bilkúra, elkordúra, er-*

*lastúra, etendúra, fartzidúra, goaindidúra, hestúra, ilundúra, izjaldúra, lotúra, musidúra, oljadúra, ubeldúra, zoladúra, zurta-dúra*.

**durdúrikan egón** *ad.* (da) Zalantzan egon, erabakia ezin hartuz egon.

**dúte** *iz*. Tea (frantseseko *du thé*-tik): *Zitróinai-kilako dútja edán ginín*.

**dwáike, dwaikabé** *adond*. ‘Dirudienez’ erranahia du, ez ‘dударик gabe’. Azken hau errateko **dúdaigábe** ibiltzen da, edo **dúda-múdaigábe** (hau indartua): *Luzáideko karrétera arrañátu beáute, dwáike*.

## E

**éa** zehargalderetan ibiltzen den partikula; ABk *era* ibiltzen ohi du.

**ebáindja izán** *ad.* (da) Leher eginik egon: *Ebáindja núxu egún gúzja lánjan aizáne.*

**Ebarísto** *iz.* Gainekoletako *Ebaristóinja*-ko nagusia.

**ebaska adond.** Satrustegik (1963-64: 263) biltzen du, eta 'ezkutuka, 'a escondidas' adiera ematen.

**ebásko** *iz.* Lapurreta, ohointza.

**ebastále** *izond.* eta *iz.* Lapurra. Ikus **ohóina**.

**ébats.** Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena.

**ébats ta híru:** Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena.

**ebátsi** *ad.* (du) Lapurtu. Ikus **arroátu** eta **ohóin**.

**edále** *izond.* eta *iz.* Edaten duena, edateko zaltetasuna duena.

**edán** *ad.* (du) Isurkari bat hartu.

**edári** *iz.* Edatekoa.

**Edarrét** *iz.* Pekotxetan den *Edarréta*-ko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan: *Péjo Bartzelóna, Féli Kittérja, Lúrdes Okaztrán.* Bestela *-ko* + *persona* izena erabil daiteke: *Bartzelóna-ko Péjo, Bidárteko Ferránddo, Hargináingo Fakúnda, Xaindjáingo Jwanés...*e.a.  
**Edarretésa** *iz.* *Edarréta*-ko etxekoandrea. Ikus **Bártzelóna** eta **Tolóxa**.

**edér** 1- *izond.* Ederra, 2- Handia: *akiáldi edérra bíldu* 'nekaldi handia hartu', *disgústu edérra hártu, izán* 'atsekabe handia hartu, izan', *fálta edérra ín* 'falta handia egin, behar handia izan', *húts edérra izán* 'huts, hutsune handia izan', *makúr edérra izán* 'oker, zorigaitz handia izan', 3- Mailaka-

tzailea, balio intentsiboa duena, **biziki**-ren zentzuan; ez da ohikoa: *Kánpwa xúri edér djóxo.* Cf. Lizarraga Elkanokoaren hau (JMESB, 405): «Batzuk ta geienak ematen direla munduari, Demonioari, ta aragiari goiz ederr, atzendus, ta utzis Jangoikoa atzerat!» / **edérra ín** *ad.* (du) (esam.): *Edérra ín djáuxute xúre ahíde zikín hórjek;* cf. MAren hau: «Ederra in diakoxute osebai; sobera untsa gintuxun gu orai holako azindaikin». Cf. **lána ín / edérretaik eskapátu** *ad.* (da) (esam.) Ederretik, onetik libratu: *Edérretaik eskápatjak txú, garbítzen albaítzjén berén óto horrékin.* Cf. **haunditik eskapatu, haunditaik salbatu.**

**edergáilu** *iz.* Apaingarria, edergailua, 2- *adond.* Apaintzeko, edertzeko dagoena: *Zéndako eztúxu jáunzten presént ináuxun eráztuna? Zértako náuxu?, Edérgailutako?*

**edérki** *adond.* Ongi, modu ederrean. Cf. Luzaideko gutunetako pasarte hau: «Apezetxiare finitia ixie; orai garbitzeko. Biziki ederki gelditu dela erran dixie».

**edertasún** *iz.* Ederra denaren nolakotasuna.

**edérto** *ad.* (da-du) Eder egin, edertu: *Hólako arrópekin etxí néska hórrek bére búrja sobéra edértzen!*

**édo junt.** Edo: *Gísatea édo béstea; góiz édo béant azidénteat behártzixín izán ótwaikin.*

**edózein, edózoín** *det.* eta *izord.* Edozein, zeinahi / **edózein gísaz, edózoín gísaz** *lok.* Nolanahi ere. Ikus **zernái déla, zernái gísaz.**

**egárrri** *iz.* Egarrria: *Zé egárrja után béro zikín hunékin / egárrjak zuhítja izán* *ad.* (da) (esam.) Egarrriak akabatzen egon: *Gáitzeko bérwa úxu tá egárrjak zuhítja núxu.*

**egarrítu** *ad.* (da-du) Egarría nabaritu: *Marlúza ján díxit éta órai egarrítja núxu arrúnt.*

**egártsu** *iz.* Gaztelaniazko 'resecó' da: *Báixit egártsu bát izigárrja!*

**égi** *iz.* Egia: *Égja érteko, áski akítja núxu.*

**Egi** *iz.* Ondarrolako *Hégja* etxeko nagusia.

**eginbide.** Eskutitzetan ageri da, 'eginbeharra, betebeharra' adieraz edo: «Arren heldu nitzauzu urte berri hun baten desiratzera, osagarri hun batekin eta Jinko hunaren launtza haundi batekin eginbide guzieren behar bezala betetzeko» (MA).

**egjázki** *adond.* Zinez, benetan: *Egjázki bajézt!*

**egoiki** *ad.* **Egón** aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).

**egoiljár, egoiljér** *iz.* 1- Maizterra-edo: «Ez diakixut erran zauxuten, X hunen etxian baitzen, lehen estaian, bera erdikuen duxu eta gainekuan bazixien egoiljerra, eta juan ziaxoxu». Ikus **etxetjár**, 2- Turista: *Luzáiden údan ánitx egoiljér izáiten díra.*

**egoitza** *iz.* Satrustegik biltzen du (1969b: 18, 95) Luzaideko etxeaz mintzatzean eta 'estancia' adiera ematen.

**egón** *ad.* (da) Egon. Mugaz hegoaldean baino franko gutiago ibiltzen da Luzaiden, Iparraldeko gainerateko hizkeretan bezala. Honen ordeaz ardurakoa da *izán*. **Egón** perifrasi hauetan ibiltzen da, besteak beste: *só egón, géldik egón, ló egón, jatzárrjan egón; hílik egón...*, eta zenbait eguraldi hitzekin: *askóri egón, denbóra edérra egón...*e.a.

**egonáldi** *iz.* Nonbait ematen den denbora.

**egósi** *ad.* (da-du) Egosi: *Arrúltze egósjak, gátz píxkatekin, máite txít izígarrri.*

**egoskín** *iz.* Zer bait egosi ondoan gelditzen den salda.

**égún, égun** 1- *iz.* Eguna 2- *adond.* Gaur: *Egún góizeko bostóntan jéiki níz méndirat jwáiteko*, «Egun ekarri tixie ardiak behiti Azoletako mendirat. Gure Ximonek etzixin geio utzi nahi, egunetik biharrea elur bat iten ahal baitu» (MA); ikus **gaur**. Denbora adierazten duten izenokin erakusle singularra erabil daiteke, aurretik zenbatzaile bat duenean, beste toki anitzetan bezala (Goizuetan bezala, konparazione): *Zonbáit egún húntan éri egóna núxu*. Etxaidek (1989: 76) *égún* bés-

*ta egúna dá dakar / égun bát árte adond.* Aldizka, egun batean bai eta hurrengoan ez. Cf. MAREN hau: «Eman diazkoxtu pikurak eta biziki kausitu diaxoxu, bana biziki flako duxu. Orai emaiten diazkoxtu berriz azkartzeko egun bat harte» / **egúño**. Cf. MAREN hau: «Egon xite trankil; Jinko hunak nahi badu seurik oraiko ukaldi hau bezala, nehor oroit ez delaik, ez luze ez, bi egúño aski tixit».

**egúndaino éz adond.** Inoiz ez (= **sékula(n) éz, béine éz**): *Etzjáxu egúndaino holákoik gertátu / egúndainoko gúzjak, egúndainoko gúzitaik* (esam.) Kristorenak: *Ilóba hórrri úti djázkotxo étxja tá egúndainoko gúzjak* '(gizon zaharrak) iloba horri etxea eta ondasun guztiak utzi dizkio', *egúngo egúnjan zaldárer sártzen djéxute egúndainoko gúzitaik!* (behi eroen gaitza zelarik solasa).

**egunún** Egun on. -*Egunún, -Baixurjé* (bakarra delarik, xuka) / -*Egunún, -Baizurjé* (bakarra delarik, zuka) / -*Egunún, -Báizjerré* (bat baino gehiago direlarik). Satrustegik (1969b: 43) hilerriko agur eder hau bildu zuen Joana Zihigoienetxengandik 1958an: «Jinkuak daiziela egun hun / hilak eta biziak, hemen zitzen guziak. / Ziek gu bezala izanak / Gu ziek bezala beharrak».

**egúr** (≠ **zúr**) *iz.* Egurra.

**egúr xehátzen aizán** *ad.* (da), **egúrra xehátu** *ad.* (du) Egurra txikitzen ari izan, egurra txikitu.

**egúrketa ibíli, jwán** *ad.* (da) Egur bila ibili, joan: *Ojánjan ibíli ginén egúrketa.*

**egurráldé** *iz.* Egurketa handia, egur multzo handia.

**egurtéi** *iz.* Egurtegia.

**egurtórnú** *iz.* Egur zama. Ikus **tórnú** eta **záma**.

**egwérdi** *iz.* Eguerdia: *Egwérditan jínen níz zjéngana.*

**Egwérri** *iz.* Eguberri eguna: *Egwérritan Luzáiden izánintzán*. ABK normalean *eguerri* idazten du, baina pare bat aldiz gutxienez *eguberri* osoa ere badakar. Etxaidek (1989: 75) *egwérri* jasotzen du.

**Egwérri biamún** *iz.* Eguberri bihamuna. MAK *eguerri bihamuna* darabil: «Atsal-

- dian izan nuxu Bidartian, egun Eguerri bihamuna baitzen».
- Egwérrjak** *iz.* Eguberriak, Gabonak: *Egwérritan Luzáiden izánintzán.*
- ehai.** Satrustegiren hitzak (1969b: 52) ongi ulertu baditugu, 'garia'-edo da, *eho* + *gaitik* menturaz.
- ehántzu** *iz.* Lanerako gaitasuna edo: *Gizón hórrek eztú báte ehántzwick láneko, ehántzu gútiko gizóna dá.* Izetak (1996: 74) *enanzu* 'enantzua, ahalmen handia' dakar.
- ého** *ad.* (du) Eho. Etxaidek ere bildua zuen (1989: 310): *ogjáí ehótzja.*
- ehule.** Cf. **ehúndu.** Luzaideko arotzaren liburuan *eule* agertzen da: «Beti eulian condia» 'Betti ehulearen kontua', Satrustegi (1969: 245).
- ehún** *zenb.* Honen eratorriak hauek dira: *berreún, hirueún, laweún, bosteún, sejeún, zazpjeún, zortzjeún, beátzjeún.* Satrustegik (1963-64: 265) *ameka eun* '1.100', *amabi eun* '1.200'...e.a. biltzen ditu, 1.900 arte; salbuespen moduan dio *ogeitasei eun* '2.600' aditu duela. Guk ez dugu honelakorik biltzerik izan. Hondarrekoa dela eta, izatekotz *hogoitasei e(h)jun* beharko luke izan Luzaiden. Etxaidek *éhun* 'ehun' bildu zuen (1989: 369) / **ehún déurrjen zítzjan jwán** *ad.* (da): *Ehún déurrjén zítzjan bádjatzík úrtjak!* Ikus **áirez áire jwán, áirez míla demónjo jwán / ehún púta ezpaúk, ezpáuzje...** Sakrea da: *Kásu ínén duzjé, ehún púta ezpáuzje* 'kasu eginen duzue, ehun deabru ez baduzue'. Baztanen ere erabiltzen da sakre hau / *ehúna.* Ehuna, bakoitzari ehun.
- ehúndu** *ad.* (du) Ehundu.
- ehúnka** *adlag.* Ehunka.
- eihe.** Etxaidek (1989: 193) *éihja* bildu zuen 'ehe, lixiba' adieraz.
- ejertzíjjo** [exerzízjo] *iz.* (espainoleko *ejercicio*-tik), 1- Ariketa fisikoa, 2- Gogo jarduna.
- ekáin** *iz.* Ekaina, ereiaroa: *Ekáina baljátu behár dú méndirat jwáiteko, góizik argítzen báitu.*
- ekarri.** Ikus **kárri.**
- ekípa** *iz.* Kirol taldea (frantseseko *équipe*-tik): *Sokatíran bí ekípak tíraka ártzen txú bí mutúrretaik.*
- éla** *interj.* Etxe batean sartzeko baimena eskatuz bezala erraten den hitza. Erantzuna *ai(n)tzina* izaten da. Satrustegik (1963-64: 267) *hela!* jasotzen du.
- eláka, eléka** *adond.* Berriketan / **eláka, eléka aizán, hási** *ad.* (da) Solasean, berriketan aritu, hasi: *Maztéki hórjek gústu-gústjan ái txú eláka elgárrekilan.*
- elakári, elekári** *izond.* Hiztuna, berriketaria: *Zé elakárja dén erríntsa bérria, denbóra gúzja kalákan!*
- elakátu, elekátu** *ad.* 1- (da) Berriketan ari izan: *Elakátu núxu ámaikin,* 2- (du) Norbaitekin mintzatu. Ez da erraten *eskwáraz elakátu, eskwáraz mintzátu* baizik. *Nornork* saileko aditza da: *elakátu dját / elakátuixít ama.* Cf. letretako pasarte hau: «Eduardo elekatu nixin; zien konpañan lau egun pasatu zitiela. Biziki kontent zela idurri zixin». Ikus **mintzátu.**
- elapídjja emán** *ad.* (du) Norbaitek besteak beraz gaizki mintzatzeko aukera, bide ematea. Satrustegik (1963-64: 263) 'habladuría' erranahia ematen dio.
- elaska** *iz.* Mintzatzeko manera drolea, solasñoa. Luzaideko gutunetan ageri da, behin: «Ageriko uxu falta, ba, Toloxan, haren elaska».
- eldér** *iz.* Lerdea: *Eldérra darjóla jíntzúxun; xakúrta heldérra darjóla hélduxu.* Ikus **hagún.**
- eldértzu** *izond.* Lerdezua.
- éle** 1- *iz.* Hitz, solasa; adiera gaitzesgarria du. Bestela **hítz** ibiltzen da: *Étxje éleike errán bilkúra gúzjan,* 2- Elasturia, hitz jariora: *Élja dn hórrek! / déna élja izán* *ad.* (da) (esam.): *Hóri déna élja úk* 'asko hitz egiten du, baina horretan gelditzen da'-edo da hau, *!qué palique tiene!* espainolek / **éle ín** *ad.* (du) Solasa eman: *Pító zikín hórrek eztjáxu aspaldjan éleik íten* 'pito zikin horrek ez dit aspaldian solasik ematen' (xuka).
- elegánki** *adond.* Dotoreki: *Elegánki bézti djáxu hóri* 'dotoreki jantzirik doa hori'.
- elegant** *izond.* Dotorea (frantseseko *élégant*-etik).
- ellexuritze** *iz.* Satrustegik bilzen du (1963-64: 263) eta honela definitzen: «Poner en claro lo que malas lenguas propalan».

**elezar.** Satrustegik jasotzen du (1963-64: 263), eta 'palabrota' adiera ematen.

**elgár** *izord.* Elkar. *Kúsiko íxju elgár.* Satrustegik (1969b: 83) etxean arduradunik ez dela adierazten duen erranairu hau bildu zuen: «Juan tirulí, denak elgar iduri». Guk *tanti-rurí, bják elgár idúri* bildu dugu, bi lagun direnean, eta *tantirurí, dénak elgár idúri* gehiago direnean. Biak edo denak berdintsuak direla erran nahi du.

**elgár ezín ikúsi** *ad.* (du) Elkar ezin ikusi. Satrustegik (1963-64: 263) *elgar ezin ikus* biltzen du eta 'elkar gorrotatu' adiera ematen.

**elgár hártu** *ad.* (du) Satrustegik (1963-64: 263) 'ados jarri' adiera ematen dio; ez dirudi sobera ibiltzen denik. Ikus **akór(t) izán.**

**elgárretátu** *ad.* (da-du) Elkarretaratu, bildu. Gehiago **juntátu** ibiltzen da.

**elíza** *iz.* Eliza.

**elíza bórta** *iz.* Eliza ataria.

**elizakuak hartu** *ad.* (du) Hiltzeko zorian daudenei ematen zaizkien sakramentuak, jaunartzea bereziki. Gutunetan kausitu dugu: «Bidondosare egon duxu biziki eri, Elizakuak, Oliadurak eta oro hartuik. Orai iduri pollikiño dela, bana biotza eri dila biziki, *una lesión* erran diexu medikiak» (MA).

**elkór** *izond* eta *iz.* Gorra: *Gizón hóri érđi elkórra dá bána hálaré bíziki apál míntzo dá.* Ikus **sór.**

**elkordúra** *iz.* Gorreria (behin baizik ez dugu aditu).

**elkorrérja** *iz.* Gorreria.

**elkórta** *ad.* (da) Gortu.

**elórri** *iz.* Elorria. Etxaidek (1989: 94) *elhórria* biltzen du. Honelako multzorik (*lh, nh* silaba banatan) ez dugu sekulan aditu Luzaiden. Satrustegik dio (1969b: 11) *elorri xurria* eta *elorri beltza* bereizten direla.

**éltze** *iz.* Eltzea.

**eltzekari** *iz.* Eltzekoa, eltzekaria; Satrustegik biltzen du (1969b: 48).

**eltzeondóko** *iz.* Eltzeburdina, eltzei eusteko ibiltzen zen burdinazko tresna.

**eltzestálgi** *iz.* Eltze estalkia.

**elúntzi** *izond.* Hitzontzia, berritsua: *Háuxilik, elúntzi hastjála!*

**eluntzikérja** *iz.* Hitzontzikeria, berritsukeria: *Etzakóxola káswik ín, hórjek eluntzikérjak bésteik etxú.*

**elúr** *iz.* 1- Elurra: *Elúrra zánpa-zánpa ai dík* 'elurra mara-mara ari dik'. Ikus **beldúr izán, ukán,** 2- Elurtea; cf. MAren hauek: «Izan dixiu elur haundia eta gaixtua, luzaz egon baita eta gainea karróina», «egun ekarri tixie ardiak behiti Azoletako mendirat. Gure Ximonek etzixin geio utzi nahi, egunetik biharrea elur bat iten ahal baitu» / **elur berri** *iz.* Elur erori berria: «Mendian elur berria bazuxun; lehengo xaharrek erraiten zutela Ganderailu hotz negia motz» (MA) / **elúr bústi** *iz.* Elur bustia / **elúr xipíta** *iz.* Elur maluta txikia / **elúr zapáltza** *iz.* Elur maluta: *Zé elúr zapáltzak ái tín!* / **elúr zipíta** *iz.* Elur maluta txikia baino handixeagoa / **elúr eraúntsi** *iz.* Elur erauntsia / **elúrrín** *ad.* (du) Elurra egin: *Elúrrín díxi ánitx Ibañétan.* Zenbait aldiz pluralean ere erabiltzen da, beste eguraldi hitz batzuk bezala: «Egun, igandia, biziki denbora huna dixiu, bana izan tixiu bixiki egun txarrak, elurrak eta oro» (MA). Ikus **elúrta.**

**elúrta** *ad.* (du) Elurra egin: *Gáu hártan ízga-rriko hótza íntzixin éta biamúnjan ezítu puxkát éta beála elúrta zixin.* Cf. **eurítu.** Ikus **elúrrín.**

**emáile** *iz.* Emailea, ematen duena.

**emáintsa** *iz.* Emagina.

**emakume.** Luzaiden ez da ibiltzen, baina ABren gutunetan ageri da, behin besterik ez bada ere.

**emán** *ad.* (du) 1- Eman: *Ezpáxirá géldik egóiten emáin dauxút beharrondókwat,* 2- Ezarri: *Éta géro ítentzjén, sártzentzjén... leénik torroskátzentzjéntxaónaíkin, géro emáitentzjéntxúrrián éta emáitentzítzákon húra gainétk* (F. Camino, Euskaltzaindia, 1999: 110), 3- Bota: *Éztjakoxót gátzik áski emán húni.*

**emaxte gizon** *iz.* Satrustegik (1969: 83) biltzen du: «Tienen un nombre despectivo para los hombres que queman demasiadas horas en casa, con abandono de las faenas del campo: *emaxe gizon*».

**éme** *izond.* eta *iz.* Emea, arra ez dena. Ikus **urríxa.**



**eméki-eméki** *adond*. Pixkanaka-pixkanaka.

**emendátu** *ad.* (da-du) Berretu, gehitu: *Botfgetan ardúra ibilizkjóz gúre sósa eztá ánitiz emendátuko*.

**emokátu** *ad.* (da) Bete-betea egon. Ikus **brokátu** eta **fundikátu**. *Arbóla sagárrez emokátja úxu*. Satrustegik (1963-64: 264, 268) *emokatu* eta *imokatu* biltzen ditu eta 'lohiz zeharo zikindu', 'erabat zikindu' adiera ematen, baina, dakigula, hori **fundikátu** da Luzaiden. Beñat Dagorretrek (Darricau, 2000: 87) ere Luzaideko adiera beraz darabil: «Igan ziren ere Alfama auzora: jendez emokatu, etxeak batzuk besteen gainean, Erdi Aroa eta arabiar hiriak gogora emaiten baititu». Etxebarnek (1989: 95) igeltseroek gaztelaniaz *manchar* erraten dutena adierazteko erabiltzen du, hots, paltetarekin gotele zakar modukoa bota, paretara: «Eta huna nun egun batez ukaiten dutan Esnausutik galdea eliza hura behar nuela dena emokatu edo zartatu. Lan alde ederra ba zen hor ere, eta aldamu egiten lan handia».

**emozjonátu** *ad.* (da-du). *Améiketako sémja jíntzéléik áma emozjonátu zén izígarrí*.

**emozjone** *iz.* Emozioa, zirrara.

**Enáut** *iz.* Pekotxetako *Enauténja*-ko etxeko nagusia; **Enautésa** *iz.* *Enauténja*-ko etxe-koandrea.

**enbído** *iz.* Musean erabiltzen den hitza.

**éne, enékin, enétako, éni...** *izord.* Nire, nirekin, niretako, niri... Ikus **ní**.

**eneátu** *ad.* (da) 1- Aspertu: *Eníz zíneat jwáuten gejénetan eneátzen bainíz*, 2- Nazkatu edo, nekatu edo. Cf. MAren hau: «Bueno Mª Dolores gaizua, beharko dixit finitu, hasi bainiz puxkat eneatzén».

**enferméra** *iz.* Erizaina (espainoleko *enfermera*-tik).

**enganátu** *ad.* (du) Tronpatu (biarnes-gaskoiko *enganà*-tik). Ikus **tronpátu**.

**engóitík** *adond*. Honezkero: *Engóitík híl datéke* (erdaraz *desde ahora se habrá muerto* erraten dute). Satrustegik (1981: 344) *ingoitíc* bildu zuen eta MAK ere *ingoitík* du; ABk *engontík* ibili ohi du.

**enkás** Baldintzazko menderagailua da eta *ba, balinba*-rekin batean agertzen ohi da. Frantseseko *en cas de*-tik hartua dela irudi

du: *Oséba enkás jiten báda errákoxu iha-kóitzjan dúla ardimóxtja*. Cf. MAren pasarteño hauek: «Emozionatu duxu, nigarra eskapatu ziaokoxu eta erran diaxu ixkia dezaxun Ameriketat eta enkas ez balinbaduxu adrezaik eman diaxu», «oraiko ustez jinen nuxu heldu den asteazkenian, heldu baita 9<sup>am</sup>, xuk erran bezala Montañesian. Enkas zerbait gerta baladi arte hortan telefona-ukaldi bat igorriko dixit, eta zieke gauza bera».

**enkorgátu, enkorgátja izán** *ad.* (da) Idortu, idortua egon, ezin kaka egin (frantseseko *engorger*-etik, irudiz): *Gúre hérrjan, léhen séurik, kabálak enkorgátzentzjélaik olígwa emáiten zéten purtzílotik, kakíntzézáten*.

**enpóildu** *ad.* (du) Modu txarrean gastatu (gaztelaniaz *malgastar*): *Améketan irázi sós gúzja enpóildu íxi*. Satrustegik (1963-64: 264) 'atiborrarse' dela dio, bai eta ere 'pentzeetan sobera haunditua izateagatik etzanda dagoen belarra'. Arruazuarraren lehen erranahi hori beste herri batzuetako (Goizuetakoa, konparazione) *enpotu, enpo-enpo* egin 'entriparrarse'-ren adierakidea dela irudi du.

**entablatu, entaublatu** *ad.* Luzaidekoa arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 137, 138, 139): «Tailu bat entablatu, eraztun berri bat», «tailu bat entaublatu», «bi tailu entablatu, bat pezatu, bat aztala ezarri, bi tailu eraztun». Arruazuko euskaltzainak dio (ibid., 276) segari zurruntasuna eta gogortasuna ematea dela.

**enterraméndu** *iz.* 1- Hileta elizkizuna, 2- Ehorzketa. Ikus **hilárjo**.

**enterrátu** *ad.* (du) Lurperatu. Ikus **ihórtzi**.

**entráda** *iz.* Txartela, saarrera: *Kontsegítu dját entrádat pilóta partidáin ikústeko*.

**entra** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 227, 249): «Sega entra bat», «entra bat berria». Arruazukoak dio 'mordiente de los dientes de la sierra' dela.

**entrégu** *izond.* Ausarta. *Enúxu entrégu lán horrén íteko* 'ez naiz trebe lan horren egitera', 'ez naiz gai lan hori egiteko'. Satrustegik (1963-64: 264) 'capaz, de mucha disposición' adiera ematen dio.

**entsájo** *iz.* Saioa, entsegua (gaztelaniako *ensayo*-tik). MAK darabil, behin: «Liturjia es-

plikatu diauxu lehenik eta gero ensaiua kantuz» (MA).

**entsaláda** *iz.* Entsalada, barazkiz, olioz, gatzez eta ozpinez egindako nahasketa.

**entseátu ad.** (da) Saiatu: *Entseátu nintzan sós géjoin iráztea, bána undárrjan kánpwan geldítu nintzan láni(k) gábe.*

**entzuljér** *iz.* Entzulea.

**entzún ad.** (du) Entzun. Normalean *méza entzún* erraten da: *Méza entzún díxit égun góizjan.* Bestela usaian **áitu** ibiltzen da (ikus sarrera hau), baina artetan *entzún* ere bai.

**epatítis** *iz.* Hepatitis, gibelesko eritasuna.

**epél** *izond.* Epela: *Áno háu epél dúxu, eztúxu edáten ahál.*

**epéldu ad.** (da – du) Epeldu. *Béro záxu, otói, sálda háu bérri, epéldu baitá puxkát.*

**epér** *iz.* Eperra.

**erakaxi.** Luzaideko arotzak ibiltzen du (Satrustegi, 1969). Arruazukoaren arabera ‘añadir’, ‘empalmar’ da hitz honen errahia (ikus **lótu**): «Are bat eracachiric», «bi aizur eracachiric» (145). Usu *aracachi* ere ibiltzen du arotzak.

**erakustún** *iz.* Erakusten, irakasten duena: *Lu-záideko ddántzak ikási gintílaik ukán gínin erakustún bát izfgarri húna.*

**erakútsi ad.** (du) 1- Erakutsi: *Erákus zakóxo háu anájai, éa zé idurítzentzakón,* 2- Irakatsi: *Éne háur denbórako erríntsek etzáuten báte úntsa erakústen, ník séurik enín já eré ikási.*

**erási ad.** *Zér dásak?* ‘Zé míntzo híz?’, ‘¿qué leches dices?’. Satrustegik (1963-64: 264) ‘revolver cuentos’, ‘chismorrear’, ‘decir tonterías’ adiera eman eta ondoan dio trinkotako ibiltzen dela: *Zer darasazu?* ‘¿qué estás diciendo?’ Ikus **erasjátu**.

**erasjátu ad.** (du) Recriminar, repender: *Ámak erasjátu ík anája* ‘amak erasiatu dik anaia; áitak erasjátu ník ní; apézak erasjátu zín háurra mézat behánt arribátu zélakotz. Ikus **mokokátu**.

**eráuntsi** *iz.* Zaparrada. Ikus **elúr eráuntsi**, **auri erauntsi**, **hárrí eráuntsi** eta **ortzántz eráuntsi**. Laburra delarik **burrústa** edo **tarrapáta** erraten zaio.

**eráusi** *iz.* Zaunka. Satrustegik (1963-64: 264) *erausi* biltzen du eta ‘acometida de

perro’ dela dio, baina ez dugu uste hau zuzena den / **eráusin ad.** (du) Zaunka egin: *Eráusin djáuxu* ‘zaunka egin digu’ (xuka).

**erásuka adond.** Zaunkaka. Satrustegik (1963-64: 267) *haunka* ‘zaunka’ biltzen du; guk ez dugu horrelakorik jasotzerik izan: *Zakúr zár zikín horrék pástu íxi gáu gúzja eráusika tá eztjáxu loítea útzi* / **erásuka aizán ad.** (da) Zaunkaka aritu.

**eráuzi ad.** (du) Gaztainak zuhaitzetik haga batez bota; *gaztáina eráuzi* sintagman ibiltzen da: *Jéndja gaztáina eráuzten ibiltzen zúxun lehén.* Gaztelaniaz *varear* erraten diote. Cf. ABren hau: «Artuak bildu txiu biziki untsa aurtin; gaztainaik etxiu bildu bate. Ze falta! Orai eztixie nehoke gaztaina erauzten aizanahi».

**eraztún** *iz.* Eratzuna. Luzaideko arotzak ardurara ibiltzen du, ‘burdinazko pieza biribila’ adierarekin, antza (Satrustegi, 1969: 137, 139, 181): «Tailu bat entablatu, eraztun berri bat», «bi tailu eraztun», «liña gatina eraztun bat».

**érbi** *iz.* Erbia.

**erdaldún** *izond.* Erdalduna: «...lehenbiziko astian nexkato gaztiak eta bestian emazteki erdaldunak, españolak eta gizon eskualdunak, eta mutiko gaztiak elgarrekin, eta undarrik eskualdun emaztekiak eta gizon españolak» (MA).

**erdára** *iz.* Erdara.

**érdi:** 1- *iz.* Erdia, 2- *ad.* (da) Ume egin: *Béhja érdi úk* ‘behia erdi(tu) da’; cf. MAREN hauek: «Ardiak hemen tixiu, Andikoberriko bazkak tixiu, erdixiak tixiu» ‘ia-ia erdiak, ia-ia erdituak’, «in tixi biziki denbora hunak; ardiak ja erdixe tuxu» / **erdítik ín ad.** (du) Bitan zatitu, erdibitu.

**erdíkala adond.** Erdiraino, ontziekin: *Kátxu báswát erdíkala hír* ‘ekar ezaxu baso bat ur erdiraino beterik’.

**erdízka** 1- *adond.* Erdízka: *Lán hóri eztúxu finítu, erdízka útzi úxu,* 2- *adond.* Erdi bana: *Péntze hóri erdízka ín dú;* Luzaideko arotzaren kontu liburuan «errezibitia icazquia erdizca» dugu (Satrustegi, 1969: 251), 3- *iz.* Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena. Ikus **bietan** eta **láwetan érdízka**.

**érdizka ta híru:** Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena da. Ikus aitzineko sarrera.

**eré. ré e lok.** Ere. Aldaera osoa gutxitan ibiltzen da, pertsona izenordain batzuekin gehienbat, absolutiboan direlarik: *Ní eré, hí eré, xú eré, zú eré, gú eré...*e.a. Bestela, hitza bokalez bukatzen bada *ré* agertzen da: *Alábaré, eskólaré, háriré, háuré, húra-ré*, ‘hura ere’, *kásiré úntsa kási dú* ‘ikasi ere ongi ikasi du’ *oráiré. sémendakoré*, ‘Semeendako ere’. Hitza kontsonantez bukatzen delarik *e* ibiltzen da: *Báte* ‘bat ere’, *déuse* ‘deus ere’, *heméne* ‘hemen ere’, *hó-rre* ‘hor ere’, *neháte* ‘inora ere’, *níke* ‘nik ere’, *xúke* ‘xuk ere’.

**eréin, erín** (bigarren hau gehiago) *ad.* (du) Etxaidek ‘sembrar’ adieraz *eréitja* bildu zuen (1989: 104).

**eréman, eremán** *ad.* (du) Eraman; **jwán** ez da ibiltzen, Etxeparerenganik hasita Nafarroa Beherean agitzen denaz bestera, ‘eraman’ adieraz (ikus Camino, 1997, 241). Bide beretik, **jín** ez da ‘ekarri’ adieraz ibiltzen.

**eremánki** *ad.* **Eréman** aditzaren aldaera hantatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).

**ergél** *izond.* Zentzu edo adimen txikikoa, mentsa, zozoa: *Zé zozokérjak erráiten tén ergél hórrek!*, *etzakóxola káswik ín.*

**ergéldu** *ad.* (da) Menstu, zozotu: *Kúsja plaxénta zúxun bíziki, bána horrékilan abjatzukjójz arrúnt ergélduxú.*

**ergelkérja** *iz.* Menskeria, tontakeria, zozokeria.  
**éri** *iz.* 1- Behatza. Ikus **behátz** eta **kikíl** sarre-rak, 2- Gaixoa: *Péjo éri dá egún. Éri háundi* ‘gaixo larria: «X gaizua beti beza-latsu, zenbait aldiz mintzatzen dela kutsia, begiak zerratuik. Ze eri haundia, ez hila eta ez bízi!»; **éri xahár** ‘aspaldidanik gaixo dagoena’, ‘eri kronikoa’; cf. letretako hau: «Hil izan duxu Gaindola-Martinoineko nausia, aspaldiko eri xaharra», «egun hil izan duxu Amallauneko etxekanderia, Madalen, aspaldiko eri xaharra».

**éri áire** *adond.* Eriantza, erixko: *Ttántta jwan-dén ástjan kúsi níxin tá éri áire zjáilaxún.* Ikus **eríska, eríska**.

**éribehátz** *iz.* Behatz lodia.

**érikikíl** *iz.* Behatz txingarra. Ikus **kikíl**.

**érimamól** *iz.* Behatzaren mutur mamitsua (gazelaniaz ‘yema (del dedo)’). Ikus **zángomamól**.

**ériméri** *adond.* Erixka, pixka bat eri.

**erio** *iz.* Herioa. MAK darabil: «Pena hartu duke-zie andere horren hiltziáz, naiz ez nin eza-gutzen, anitz balio zina zukexun, bana erio-ak nehore ez errespetatzen, bana hura juanike badukexu beste norbait segituko denik».

**eríska, eríxka** *adond.* Erixko, pixka bat eri: *Eríska íbílí úxu ardúra.* Ikus **éri áire**.

**eritasún** *iz.* Gaixotasuna.

**erítu** *ad.* (da) Gaixotu: *Alkátja erítuxú.*

**-érja** *atziz.* 1- Multzoa: *Aisérja, gaztérja, gizonérja, leherrérja, zibalérja* (baina ez da *zibal*-en modukorik ibiltzen), *zureri*, 2- Eritasuna, akatsa edo (ikus **-kérja**): *Elkorrérja, eskasérja, gohorrérja, main-gérja, tirritérja, zaharrérja, zirinérja*, 3- Aurreko bien batuketa irudi duena: *Girgillérja* (baina ez dago *girgill*-en tan-kerakorik).

**erjótze** *iz.* Heriotza. MAK *eriotze* eta *erio* darabilta, biak. Ikus **erio**.

**érkin izán, egón** *ad.* (da) Erditzeko puntuan egon: *Xáxi bórdat zálu-zálja, béhja érkin baitá.* Izetak ere biltzen du Baztanen (1996: 76).

**erlástu** *ad.* (da) Marrantatu, eztarria urratu: *Erlástja núk* ‘ahotsik gabe nago’. Ikus **marrrantátu**.

**erlastúra** *iz.* **Erláts**-en eratorria da: *Badját zintzúrrijan kéntzen etzaitán erlastúrat.* Sa-trustegik (1963-64: 264) *erlastadura* ‘afonía’ dakar.

**erláts** *adond.* Ahotsik gabe / **erláts izán** *ad.* (da) Ahotsik gabe egon: *Bánda sobéra kantátu níxin éta egun erláts núk.* Ikus **marrránta**.

**érle** *iz.* Erlea.

**erlóí** *iz.* Erlojua, eskumuturrekoa edo paretakoa (cf. biarnes-gaskoiko *arrelòdje* eta frantseseko *horloge*). Ikus **múntra**.

**erlúme** *iz.* Erlearen kumea.

**ermáiru** *iz.* Armairua: *Léhen bagínixin alimá-leko ermáiru zahár bát sukáldjan.*

**ernári izán, egón** *ad.* (da) Animaliek sabelean umea izan. Ikus **espeántxetan izán, egón**.

**ernátu** *ad.* (da) Ernatu, erne ibili: *Érna zizté mutíkwak, béste gisan ez duzjé déus inen míndu húntan.* Cf. MAren hau: «Aurten ez duxu bazkaria[i]n eremaiteare juaiten, ni ez bainiz juaiten. Alta, ernu ordu lukexu».

**érne** 1- *izond.* Anitz mugitzen den pertsona, geldí egoten ez dena: *Érnja dá zjén mutíko hóri, ezta lo egóiten djén horjétaik, 2- adond. érne ibíli ad.* (da) sintagman ibiltzen da: *Góizetan érne ibíli behá úxu autobúsain hártzeko, zortzi óntan xúxen pásten baitá.*

**ernéta** *izond.* eta *iz.* Errege-sagarra (biarnes-gaskoiko *renét*-etik?, frantseseko *reINETTE*-etik?).

**-éro** *buk.* Mailegu multxo txiki batean kausitzen dugu; 'egilea' edo 'zaletasuna' adierazten du: *Kloskero, putéro, saltséro, xikitero.*

**éro** *izond.* eta *iz.* Eroa, zoroa: *Maztéki érwa zén tá méndjan íbílzentzén ortótzik, báita ízgarriko elúrretané.*

**erokérja** *iz.* Erokeria, zorakeria.

**erolái** *izond.* eta *iz.* Eroska: *Hítz húnek eróska, puxkát érwa errán náhi dú.*

**erórgi** *iz.* Herentzia, senipartea: *Áita híltzen délaik sémjak erórgi edérra bílduko íxi.*

**eróri** *ad.* (da) 1- Jausi, 2- Egokitu (loteria). Ikus **tokátu** sarrera. «Jaz bezala errain dakoxu Don Jose Mari [era] Eguerriko loteriatik billet bat hartuko din, erortzeko ilusionian» (AB).

**eroríko** *iz.* Eroria, erorikoa / **eróríko át ín** *ad.* (du) Erori bat egin «Politeneko Eloisekine egon nuxu atzo. Untsa duxu, bana egona duxu hurare Fondazionian eroriko zenbait inik» (MA).

**erórtzeko mín** *iz.* epilepsia. Barandiaranek (1974: 95) Donoztiriko *erorteko mín* bil-tzen du eta 'vertigo' eta 'epilepsia' adierak ematen dizkio.

**erósi** *ad.* (du) Erosi: *Éne haurrídjak Donjáne-at jwáiten txá komisjónen ítea.*

**eróska** *izond.* Eroantza, pixka bat eroa: *Egún-go gáztjak frángo eróskak dírá dénak, ótwa hártu tá érwak bezála íbílzten díra.* Ikus **erolái**.

**erostún** *iz.* Eroslea: *Agorríljan herríko botígak erostúnez iháurri ízáiten díra.*

**erótu, ehótu** *ad.* (da-du) Erotu, zoratu: *Ehótu uxú hóri.*

**errábja** *iz.* Amorrúa: *Ze errábja emán dán! 'Zer amorrúa eman didan!' / errabjátu ad.* (da) Amorruta: *Zakúr hóri errabjátja úxu.*

**errái** *iz.* Erraia. Guk *bihótzerrájak átea* aditu dugu, zerria hiltzean.

**erráin** *iz.* Ardien ipurdiaren gaineko aldea (cf. frantseseko *rein*). Hiztegi batuan Iparraldeko 'giltzurruna' adiera ematen zaio, baina Luzaiden ez da hori. Ikus **giltzurín**. Ardiak bereizteko kolore izenekin erabiltzen da: *Ardi hórjek érrain blú txú.* Ikus **úzki** sarrera. Barandiaranek (1974: 96) Donoztiriko *erreinetako-mina* 'lumbago' dakar.

**erráiteko manéra** *iz.* Esamoldea. Ikus **hizkúntzak / erráiteko manéran** *adlag.* Esateko moduan, *como quien dice: Larresóroko eskwára gúrja bezálakwa úxu, erráiteko manéran.*

**erráiki** *iz.* Errekia.

**errámu** *iz.* Ereinotza / **Errámu, Errámu egún** *iz.* Erramu eguna. Luzaideko arotzak (Sartrustegi, 1969: 182) «condia einic erramuz» 'kontua eginik Erramu egunean' dakar. Gutunetan ere kausitzen dugu: «Pentsatzen ez ginilaik Erramu egunian presentatu zituxun; meza nasirat juaiteko prestatzen ari ninduxun (...)» (AB).

**Erramúnto** *iz.* Pekotxetako *Erramuntóinja*-ko etxeko jauna; **Erramuntósa** *iz.* *Erramuntóinja*-ko etxekoandrea.

**errán** 1- *ad.* (du) Esan; **errák, errán, errázu, erráxu** 'aizak', 'aizan', 'aizu', 'aixu', 2- Inoiz, aditza delarik, 'aipatu'-edo adiera du eta instrumentala gobernatzen du: «Erraiten baituxu X-en ardiez, untsa tixi ba, kontent tuxu, baina orai Y-en falta eza gutzen» (MA) / **ertékoik ez izán** *ad.* (du) Eguraldiarekin erabiltzen da, ona dela, kezaxterik ez dela adierazteko: *Denbóra húnek etxi értékoik.*

**erranjak.** Ikus **errebañak**.

**erránka** *adlag.* Usaian *zernái erránka aizán* esamoldean erabiltzen da: *Zernái erránka ái dúk ahalgegábe hóri! Ikus zernái.*

**errápe** *iz.* Errapea. Ikus **érro / errápeko mín** *iz.* Behiek errapeetan duten eritasuna.

**erráustja izán** *ad.* (da) Leher eginik egon’.

*Egún gúzja lánjan ta orái erráustja núxu* ‘egun guzia lanean eta orain leher eginik nago’.

**erráuts** *iz.* Hautsa. Ikus **háuts**.

**errázgóra, errázgóiti** *adlag.* Hankaz gora: *Errázgóra eróri nindúxun.* Ikus **pítoz góiti, pítoz góra** sarrera.

**érre** *ad.* (da-du): *Kozínan ái nintzálaik éskja érre dút* ‘sukaldatzen ari nintzenean eskua erre dut’ / **erréztzeko bérwa aizán, ín.** Ikus **béro.**

**erreálki** *adond.* Zinez, benetan: *Erreálki gizón húna úxu hóri.* Cf. Nicolas Politen hau (Satrustegi, 1987: 274): «Egia da maluros oriek bizi diren bitartian jaten dutela, edaten, irri egiten, libertitzen, munduko untasunez eta plazerrez gozatzen, eta gizon uros batzu iduri dutela; bana errealki dira miserable batzu (...)».

**errebañak** *iz.* / **errebañak izan** *ad.* (du). Bordelek honela dakar (Satrustegi, 1965: 158): «Iruretan ogoi ta / Emeretzi urte / Tratamendu oriek / Asirik badute; / Geroztik termino bat / Guria in dute, / Gu afrontu guzien / Korrespondiente; / Errebañak baitugu / Oray konpon bite». Arruazuko euskaltzainak dio *errebaña* ‘norberaren puska’ dela. Aintziburu & Etxarrenek (2002: 51) bertsoa sartzen dute, pixka bat aldaturik: «Hiruetan hogei ta hemeretzi urte / Tratamendu horiek hasirik badute / Geroztik termino bat gurea han dute / Gu afrontu guzien korrespondiente / Erranyak baitugu: orai konponbite» eta jarraian *erranyak* zer diren azaltzen: «“Erranyak” hitza ez dago euskal hiztegiatan. Norbaitek eskukaldi bat egiten dizularik, ordainez zuk ere beharrorduan beste eskukaldi bat eginen diozu. Baina beste gisa batetara ere ordaintzen ahal duzu, zure ikustatea erakusteko, hala nola opari bat eskainiz edo apairu bat edo beste zerbait. Ordaintze desberdín horri zaio erraiten “erranyak”». Egia da *erranyak* ez dagoea hiztegiatan, baina *OEH*-n *errebaña* biltzen da, Bordele bertsua eta Satrustegiren iruzkina besterik agertzen ez bada ere.

**errébés** 1- *izond.* Aldrebesa: *Hóri muttko errebésa úk.* Ikus **háize** sarrera / **errébesetik**

**emán, jó** *ad.* (du) Zerbaiten ginberreko aldearekin eman, jo. Cf. «atera zitzakon Bolo-kiko (i)turrian gatu itsusi bat marrumaka, eta iziturik gizona zeinatu zen eta (e)man zakon errebesetik makil ukaldi(a)» (Satrustegi, 1999: 498).

**errebeskérja** *iz.* Aldrebeskeria, okerkeria: *Hargín horrén errebeskérjak etxít jasáiten ál, etxí déus xúxen íten.*

**errebéski** *adond.* Aldrebes, oker: *Muttko hóri arrúnt potrétagábja úxu, lán gúzjak errebéski íten txí.*

**errebéstu** *ad.* (da) *Gúre muttkwa léhen húna zén bána wái errebéstu záu arrúnt.*

**erreferra** *iz.* Luzaideko arotzaren liburuan ageri da (Satrustegi, 1969), baina ez dakigu xuxen zer den, ferra mota zenbait edo bestela: «Biferrac, bi erreferra» (155), «bi asto erreferra» (162), «azaruan asia bei erreferra bat sei ize» (165), «lau erreferra» (189).

**erreferratu** *ad.* (du). Ez da **ferrátu**-ren adierakidea eta ez dakigu xuxen erreferratzea zer zen, segur aski zer den ez dakigun erreferra ezartzea: «beorra erreferraturic» (Satrustegi, 1969: 167).

**errefúsa** *izond.* Erosleak ezin aukera ditzakeen ardiak. Bestelakoei, erostunak aukeratzten dituenei, **háutak** erraten zaie. Ikus **jabal, jabel.**

**errefusátu** *ad.* Ezetz erran (cf. gaskoiko *arrefusa* eta frantseseko *refuser*). Cf. MAren hau: «Xure eta Dn Jose Maririn (sic) komitai errefusatzia ez baita aisa».

**errége** *iz.* Erregea.

**Errége, Errége egún:** *Errégetan elgárrekilan izáin gítxu = Errége egúnjan elgárrekilan izáin gítxu.* Luzaideko arotzak *erreguez* darabil (Satrustegi, 1969: 148): «Erreguez condíac ein».

**erregebide** *iz.* Errepidea. MAk darabil, behin, *karretera*-rekin batean. Ikus **karretéra.**

**erregin** *iz.* Erraina. Satrustegik (1969b: 68) *erregina* ‘nuera’ jaso zuen eta Etxaidek (1989: 222) *erreína*. Guk ezin izan dugu argitasunik erdietsi.

**erregína** *iz.* Erregina.

**erregu** *iz.* Neurri bat, erregua. Luzaideko arotzak darabil: «Errezibitia azitaco erregu bat arto» (Satrustegi, 1969: 223).

**erreguerdi** *iz.* Erreguaren erdia, neurria. Cf. Luzaideko arotzaren hau (Satrustegi, 1969: 172): «Bi aldiz bi erregu erdi».

**erreka** *iz.* Erreka, ibaia. Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 197): «Eiaran bi egun garbizen errecaín».

**Erréka** *iz.* Pekotxetako *Erréka* etzeko nagusia: *Mizél Erréka, Errékako Mizél*.

**errekáitu** *iz.* Tresna: *Zé errekáitja hizán (besténaz)! '¡Qué elemento estás hecho!' , errekáitu húna úxu hóri!* Zaraitzun (Camino, 1997: 619) 'mandatua, esaterako norbaiti langunera eramaten zaion jana' zen, hots, Uxueko *companaje* bera.

**Errekálde** *iz.* Gaindolako *Errekaldéinja*-ko nagusia.

**errekésta** *iz.* Arrakasta.

**erreklamátu** *ad.* (du) Galdatu, erreklamatu (frantseseko *réclamer*-etik edo gaztelania-ko *reclamar*-etik).

**errekontrátu** *ad.* (da-du) Aurkitu (frantseseko *rencontrer*-etik). *Errekontrátu núxu Mikelekin karríkan; errekontrátu íxit Mizél botígan*.

**errekóntru** *iz.* Istripua edo. Erdarazko *percan-ce*-tik hurbil da: *Zázte pollíkiño, errekón-trwik gabé; errekóntru háundi bát ukántzín ótwaikín tá órdjan mutútu zén, geróztik eztá géjo mintzátu*. Ikus **azidénte**.

**Errekulúsa** *iz.* Gainekoletako *Errekulúsa* etzeko nagusia.

**errematixíma** *iz.* Erreuma: *Amátxi egóiten zú-xun errematixímaikin*. MAk *erromatisima* darabil: «Noizbait pasatu duxu, bana erromatisima aurten hala duxu».

**erremediátu** *ad.* (du) Sendatu. MAren letra batean kausitu dugu: «Arras eri egon txu biak. Gosta zixeu erremediatzia; orai untsa tuxu».

**erremédjo** *iz.* Sendagaia: *Léhen ibiltzen zutéla urín gazgábja erremédjotako, óllo kákai-kin nahásik, erredúren kóntra*. MAk *erremeditotari* (*izan*) du, hots, 'botikak hartzen ari izan'.

**erremesiamendiak** *iz.* Eskerrak, eskerrak ematea (frantseseko *remerciement*-etik): «Mehexi zixin leheno igortzia erremesiamendiak» (MA).

**erremesiátu** *ad.* (du) Eskerrak eman (frantseseko *remercier*-etik): «Beraz, anitz erremesia-

tzen zitut eta berrize zerbaitetan launtzen ahal bazituz nitan kondatzen ahal duzu» (MA).

**errénduka adond.** Goiti botaka / **errénduka aizán** *ad.* (da) Gora botatzen ari izan. Normalean *góiti bótaka aizán* erraten da, eta inoiz *errénduka aizán*. Ikus **góiti errénduka aizán**.

**erreparazjóné** *iz.* konponketa. **Arrañaméndo** gehiago ibiltzen da.

**errepáro, errapáro** *iz.* lanerako jende anitz izatea: *Hémen badéla errepáro!* 'jende anitz dago hemen (lanean, lanerako)'.

**errepartítu** *ad.* (du) Banatu: *Errepartí dezáun bizkótxa dénen ártjan*.

**errepikátu** 1- *ad.* (da-du) Errepikatu, 2- *izond.* Esamolde honetan ere ibiltzen da: *Gáixto errepikátja; Satrustegik* (1963-64: 264) 'malo redomado' itzultzen du.

**errepóski adond.** 1- Mantso, **errepóski-errepóski** Mantso-mantso: *Xáxi errepóski-errepóski*, 2- Berandu. Cf. MAren pasarteño hauek: «Nahiz erreposki, hasten nuxu egun etsi-etsia xurekin lehenik eta hasian hasi in behar tutan guzien aldeat egiten», «Geio ezin egonez hasten nuxu, erraiteko aspaldi errezibitu nila xure letra, hainbeste berrikin eta nik beti bezala erreposki».

**errepóstu** *iz.* Erantzuna / **errepóstu emán, errepóstu in** *ad.* (du) Erantzun (**ihardésti** ere bai, baino gutxiago). Mugatzailearen forma ere erabiltzen da. Cf.: «Orai meza emaiten dixie guri, jendiai buruz, eta meza ari delaik behar txiu denek errepostiak eman» (AB). MAren eskuizetan, behin, *kontestatu* agertzen da.

**erreprótxu** *iz.* Erdarazko *reproche* da (frantseseko *reproche*-tik?) / **erreprótxu in** *ad.* (du) Norbaiti zerbait leporatu edo.

**erresa** *iz.* Lehen xikorrarekin egiten zen ogi beltza (Satrustegi, 1969b: 54). Ikus **xikór**.

**errespetátu** *ad.* (du) Begiratu, errespetatu.

**errespétu** *iz.* Begiramena, begirunea, errespeta. Ikus **kustáte**.

**erréstaka, erréstan adond.** Arrastaka / **erréstaka, erréstan eréman; erréstaka, erréstan kárrí** *ad.* (du): *Bilótaik hártu tá erréstan erémantzíxin ganbárano, ójfino*.

**errésto** *iz.* 1- Arrastoa: *Átzo jiten ál nín txun bána enixin gutíjza erréstoike* 'atzo etortzen ahal ninduxun baina ez nixun gogo arrastorik ere', 2- Oinkuntzea, arrastoa, aztarna / **errestua** *in ad.* (du) Aztarna utzi: «Negia pasatu dixiu aski untsa, marranta zenbait, bana ez geiokoik; gripak in dixi bere herrestua» (MA).

**erretirátu** *ad.* (da-du) 1- Etxera joan: *Átzo afá-rja bagínin bána ní gózik erretirátu nín-tzan*, 2- Pentsionatu, erretreta hartu: *Orái jéndjak ahál bezáin gázteik erretirátzen díra*.

**erretíro** *iz.* Erretreta.

**erretólika** *iz.* Solas luze eta nekagarria.

**erréx** *izond.* Erraza. Bakarrik izenondotzat ibiltzen da eta, gainera, gehienetan **aiséta** erraten da.

**erreximéta** *iz.* Fruta dultzea (sagarrarena, irasagarrarena). Satrustegik (1963-64: 264, 1969b: 57) *erreximenta* jasotzen du eta dio dultzea gereziarena, aranarena nahiz sagarrarena izan daitekeela.

**errexítu** *ad.* Satrustegik (1963-64: 264) 'consentir, conformarse' adiera ematen dio. Guk *mína ezín erresítja íxit saéts húntan* 'min jasanezina dixut saihets honetan' bildu dugu. Azkuek adiera desberdinak jasotzen ditu *erresítu* sarreran, herriaren arabera: 'moderatu' (Erronkari), 'hezi' (Oztibarre), 'aurreztu' (Zaraitzu).

**errezelátu** *izond.* Andeatua (biarnes-gaskoiko *recellà*, *recellà* 'susmatu'-tik? *OEH*-n biltzen den *errezelu*-ren 'défaut léger', 'infirmité intérieure et cachée, restée a la suite d'une maladie'-rekin lotua dateke Luzaideko adiera). Cf. MAren hau: «Errekako Domingore biziki gaizki eta Behorleiko nausi izanare ba. Aurten xahar eta errezelatiak badiatzitxu».

**errezibítu** *ad.* (du) Hartu, jaso (biarnes-gaskoiko *recébe*, *arrecébe*-tik?, gaztelaniako *recibir*-etik? Ohart Axularrek ere ibiltzen zuela, eta beste askok ere bai): *Errezibítu íxit xúre pakétta anítz bunbúnekin*.

**errínt** *iz.* Maisua.

**erríntsa** *iz.* Maistra.

**éro** *iz.* 1- Erroa, zaina, 2- Errape muturra. Ikus **záil**.

**errobinéta** *iz.* Iturria, kanila (frantseseko *robinet*-etik): *Ohártu náxu errobinétai húra eskapátzen zákola*.

**errónða** 1- *iz.* Erronda, edarialdia: *Páha zák erróndat béden, urdé tupetáundja!*, 2- *izond.* Biribila (frantseseko *rond*-etik): *Errékan harrapátu ginín hárrri errónða pollít bát*.

**errosaar**. Satrustegik biltzen du (1963-64: 264) eta 'errapea' adiera ematen. Cf. **zángosagár**.

**erróta** *iz.* Gurpila (≠ **ihára** 'errot'): *Órgain errótat hárrri bát eróri dá*.

**errúle** *izond.* eta *iz.* (Franko) erruten duena: *Gúre óllo hórjek errúle gáitzak txú*.

**errún** *ad.* (du) Errun, arrautza egin: *Óllwak errún dú; óllwak errún txí* ('errun ditixu) *bóst arrúltze*.

**ertemaia**k. Satrustegik biltzen du (1963-64: 264) eta dio erdi behar duen edo erdi den emakumea zaintzeko lanak direla. Nola-nahi ere, orduko ia ez zela erabiltzen gehitzen du.

**ertéro** *izond.* Erdi eroa: *Hóri ertéro bát uxú*.

**ertór** *iz.* Erretorea. Cf. pasarteño hau (Satrustegi, 1981: 344): «Gure jaun ertorrek despeitu gitixi». Ikus **apez nausi**.

**ertsura** *iz.* Herstura. Satrustegik (1963-64: 265) biltzen du.

**-ésa atziz.** Bukaerako *-a* horrek erakusten duen bezala, femeninoak egiteko ibiltzen da beti, maiz etxe izenetan oinarriturik daudenak: *Agerrésa*, *Aitzurrésa*, *Aldatsésa*, *Altzonésa*, *Antxwisésa*, *Arjasésa*, *Artxésa*, *Atxwésa*, *Auntxainésa*, *Bartzelonésa*, *Benttésa*, *Bexinésa*, *Bidartésa*, *Bidondósá*, *Borddésa*, *Bordelésa*, *Borderrésa*, *botigésa*, *Edarretésa*, *Enautésa*, *Ferranésa*, *Garnadésa*, *guardjésa*, *Harginésa*, *Inozentésa*, *Karrikaburúsá*, *Kiterjésa*, *Koxinésa*, *Kutzarrésa*, *Lapitzésa*, *Lasarrésa*, *Maatxetésa*, *Maestrúsá*, *Marjaurrésa*, *Martinésa*, *Okaztranésa*, *Paisésa*, *Pellósá*, *Putilésa* – *Puttilésa*, *Toloxésa*, *Urtxelésa*, *Xaparrésa*, *Xapitelésa*, *Xatanésa*, *Xehjésa*, *Xerosésa*, *Xualdésa*, *Xurginésa*. Inoizka *-sa* dugu, ez *-esa*: *Alkatésa*, *emáínsa*, *errínsa* (*errínt* < *erriént* da maskulinoa), *Xaindúsá*. Maskulino bakarra *botigés* dugu.

**eskáini** *ad.* (du) Eskaini: *Sósa frángo eskáini záuten hát jwáiteatik bána hémen geldítu gínen, hérrjan; lán húna eskáini zjákoxoten Donjánen bána etzín hártu náhi izán. Ikus ofreítu.*

**eskáinka** *adlag.* 1- Eskainiz, 2- Mehatxuka. Gutunetan *eskeinka* agertzen da: «Hemene anitz euri in dixi, egun egun huna duxu biziki, bana egun guzia euria eskeinka» (MA) / **eskáinka aizán** *ad.* (da) Eskaintzen ari izan: «Ora[i] baixiu ba ardi!, erosi txie Buruxuringo Pelloin ardiak. Hor aspaldian Ximoni eskeinka hari zitziakoxun» (MA). **eskáintza** *iz.* Eskaintza. ABk *eskeintza* darabil: «Igandian besta pollita ginixin, apez beharrain eskeintzain ofreitzia gure Jinkuari; ono diakono uxu».

**eskalapín** *iz.* Eskalapoia. Ikus **klóska**.

**eskalapínile** *iz.* Eskalapoi egilea. Luzaideko arotzaren kontu liburuan (Satrustegi, 1969: 177) *escalapineilia* ageri da eta Satrustegik berak (1969b: 66) *eskalapinailia* jaso zuen. Garmendiak (1969: 221) *eskalapineilia* dakar. Ikus **kloskero**.

**eskalér,** **eskalérrak** *iz.* Eskailera, eskailera: *Xáxi eskalérrér góiti / béiti.*

**eskalérpe** *iz.* Eskaileraren azpikoa, zenbait aldiz itxia egoten dena; atea eta guzti izaten du batzuetan.

**eskapátu** *ad.* (da) ihes egin: *Ohítzen núxu nóla aspáldi Segóvjatík práso átzu eskapátu zjén.* Ikus **edér** eta **háundi**.

**eskápu(ka) ibíli, jín, jwán** *ad.* (da): *Méndjan ibíli zítzun eskápu(ka) zenbáit egúnez, bána undárrjan atzéman zítzjen.*

**eskasérja** *iz.* Gabezia, eskasia. Satrustegik (1963-64: 265) ‘penuria, ‘estrechez’ adierak biltzen ditu.

**éske ibíli, jín, jwán** *ad.* (da) Eskean ibili, etorri, joan, batez ere eskaleek egiten dutena. Ikus **gáldez**.

**eskéla** *iz.* Eskela, norbait hil dela iragartzen duen egunkariko berria.

**eskelári** *iz.* Eskalea. Cf. txori baten izena den *éuri-eskálja*.

**eskér** *posp.* Datiboa eskatzen du eta mugagabean nahiz pluralean ager daiteke: *Xúri eskér erósi nixin étxja, eskérrak emán behár dázkitut.* Cf. hauek: «Gu denak untsa gitxu. Nike aspaldian etxit marrantaik eta eztulik

izan; biziki untsa nuxu Jinkuari eskerrak» (AB), «gu hemen oro untsa gira, Jinkoari esker eta arazi zieke hala kausitzen zizte denak» (MA) / **eskermíla, eskermíla ánit, eskérrak, mílesker.** Eskerrak emateko erabiltzen dira. Ikus **mértzianítz.** ABk *anitz eskermíla, anitz eskermíla anitz, eskermíla anitz, eskerrak, eskerrak anitz, míla esker, míla eskermíla, mílesker, mílesker anitz* ibiltzen ditu. MAK, berriz, beste hauek: *Anitz esker míla, eskermíla, eskerrak, eskerrek anitz.* Cf. pasarte hauek: «Don Jose Mari emain dazkotxu eskerrak anitz loteriako paperrain igortziaz, anitz eskermíla emain dazkotxu ene partez, tokatu izan balitzau horra jinen nintzala eskerren emaita, eta zoin go[ho]tik!», «mílesker anitz ene partez; sobera in dila atenzione horren ukaitia, eskermílain emaiteko» (AB). Inoiz *eskermíla erran* dio ABk, normalena, aitzineko adibidean ikus daitekeenez *eman* bada ere: «Errain dakoxu eskermíla; ník usaian bezala, izan dixit aski marranta azaruau». MAK *eskerrak eman* ibiltzen du, aditza sartzen duenean. ABk eskerrak emateko formula hauekin instrumentala (normalean), destinatiboa (behin) eta datiboa (behin) ibiltzen ditu: «Bana edozein gisaz eni plazer haundia in diaxu, biziki untsa ziztela, eta anitz eskermíla igorri daxun bizkotxa hunaz», «eskerrak emaiten dauzkitut igorriak dazkiatxun letra guziendako», «bani-xin obligazione frango xuri ixkiatzeko, xure atenzione guzier eskerren emaiteko». MAK instrumentala du horrelakoetan: «Biziki kontent jin tuxu; eskerrak anitz zien atenzione guzitaz eta ene parteze ba» / **eskér ttíjja ín** *ad.* (du) Grazia gutxi egin. Cf. MAren hau: «Beste mehe (t)xar horiek eni esker ttíjja iten baitahate» / **eskérrak bi(h)úrtu** *ad.* (du) Eskerrak eman. Bestela **bi(h)úrtu** ‘bihurritu’ adieraz ibiltzen da: *Aztálbehárrja bi(h)úrtu zítzin mutíkwaq;* cf. Bordelen hau (Satrustegi, 1965: 34): «Aitamez gira oroitzen / Eta begiak bustitzen / Ez tugulakotz aurkitzen; / Gure aurtasunean bazakiten / Hek gure ongi altzatzen, / Etsenplu onen emaiten, / Gutaz ziren urrikaltzen; / Eskerrak deztegu biurtzen» eta Manezaundiren beste hau (1990: 379): «Atsoa, eskale



- xahar okhitu bat zen, eman nakon bi soseko bat, eta eskerrak othoitz bathekin bihurtu zuten...» / **eskérrak emán** *ad.* (du) Eskerrak bihurtu: *Lánain harrápatzen laúndu źxin éta eskérrak eman źjázkotxon bihózetik.* Manezaundik (1990: 37) *eskerrak* itzuli darabil.
- eskóla** *iz.* Eskola.
- eskolatei** *iz.* Eskolak. Luzaideko arotzaren liburuan ageri da (Satrustegi, 1969: 193): «Eskolateico labaa (sic) gatinaiquin berria».
- eskórga** *iz.* Orgatxo. Bestela **karretilla** erraten da.
- ésku** *iz.* Eskua.
- esku-aizkora** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 188): «Esqu aizcora berri bat». Ikus **aizkóra**.
- eskukáldi bát emán** *ad.* (du) Lagundu: *Eskú-kaldi bát emánakón laintzeko.* Cf. frantseko *donner un coup de main*. P. Narbaitzek (1997: 57), halarik ere, *eskukaldi (bat) egin* darabil: «Bainan, zer ari niz? Auzo gisa, bixtan da eskukaldi zonbaiten egiterat joan behar nitzaiotela».
- eskulárru** *iz.* Eskularrua: *Gáldu txít eskulárrjak; jáuntzi txít eskulárrjak binpérez.*
- eskumango**. Satrustegik biltzen du (1963-64: 265) eta 'arrantza egiteko sarea' adiera ematen.
- eskupilátu** *ad.* (du) Eskuztatu: *Etxít náhi botíga hórtako frwíta, arrúnt eskupilátwik atxikúzen baituté* 'ez dut nahi denda horretako fruta, arrunt ukitua, eskuztatua izaten baitute'. Cf. **eskustátu**.
- eskursjóne** *iz.* Txangoa.
- eskús izán** *ad.* (da) Zerbait egin gabe pasatu. *Eskús zuxún, bá, hóri ín gabéré.* Satrustegik (1963-64: 265) *Ez gira eskus mutilik gabe* 'ezin dugu pasatu morroirik gabe' biltzen du.
- eskustátu** *ad.* (du) Zenbait aldiz ukitu: *Árdi hóri eskustátu íxit ernári dén ikústeko.* Ikus **eskupilátu**.
- eskwaldún** *izond.* eta *iz.* Euskalduna: «...lehenbiziko astian nexkato gaztiak eta bestian emazteki erdaldunak, españolak eta gizon eskualdunak, eta mutiko gaztiak elgarrekin, eta undarrik eskualdun emaztekiak eta gizon españolak» (MA). Era mu-
- gatuan *eskwaldúna* erraten da, ez Etxaidek (1989: 258) nahi duen bezala *eskwálduná*. Ikus **nafartár**.
- eskwalduntasún** *iz.* Euskalduntasuna.
- Éskwalérrri** *iz.* Euskal Herria.
- eskwára** *iz.* Euskara.
- eskwín** 1- *iz.* Eskuina: *Európako léku gejeñetan eskwínetaik gidátzen dú ótwa, bána In-glatérran ezkérretaik jwáiten díra,* 2- *izond.* Pilotan, futbolean edo beste zerbairetan eskuinarekin aritzen dena: *Olaizóla anájak bják eskwínak díra.*
- eskwínaitzín, eskwínaintzín** *izond.* Tresna bat bi eskuekin hartzea, aitzinena eskuina ezartzen delarik: *Belárretan ártzen gjélaik ní arrestéljaikin béti eskwínaintzína núxu.* Ikus **ezkérraitzín, ezkérraintzín**.
- eskwingáin** *iz.* Sos erresaldua: *eskwingáina sósain izáitja dá.* J. Etxepare medikuak eta beste idazle batzuek *eskwigáin* ibiltzen dute, erdarazko 'capital' errateko. Cf. hau: «Boltsako tituluak, piran-piran ari dira urtzen. Ezinbertzearekin, armairu-xokoetako azken eskugainak, alfer baitzauden han, gobernamentuko maileguak iretsi dauzki-gu» (J. Etxepare, 1996: 52).
- eskwínukáldi** *iz.* Eskuinkada (pilotan, futbolean eta).
- esnadún** *izond.* Esne anitz ematen duen aziendak: *Béhi esnadúna erósi dú gúk.*
- ésne** *iz.* Esnea. Etxaidek (1989: 154) *ézniá* bildu zuen. Egia da guk jasotako hitzeko apikaria aski ahostundua dela, aldameneko sudurkariagatik, baina ez da, inola ere, bizkarkari ahostuna. Etxaidek berak *gásna* biltzen du, ez \**gázna* / **ésne emán** *ad.* (du) Aziendek beren umeei esnea eman: «Ardiek esne guti eta ari tuxu axurier esne emaiten» (MA) / **ésnja emán** *ad.* (du): *Gúre béhjek áurten bíziki ésne gúti emán díte* / **ésnja hártu** *ad.* (du) Ikus **baruráutsi** eta **desajunátu** / **ésnja míndu** *ad.* (da) Esnea ozpindu. Ikus **míndu** sarrera.
- esnegáin** *iz.* Esne gaina. Ikus **gáin**.
- esneketári** *iz.* Esnea eroatera etortzen dena.
- esneopíl** *iz.* Flana, budina.
- esnúntzi** *iz.* Esneontzia.
- espántu** *iz.* Harrandia-edo da: *Zé espántjak ibíltzen t́n hórrek!* Salaberri Ibarrolakoak (1856: 57) 'vanterie' adiera ematen dio. Cf.

Manezaundiren hau (1990: 69): «...kausitzen dute norbait, noiztenka, hiri haundi batian izan berria, espantu gaitzetan ari dena haundikeriak kondatzen, hau eta hura ikhushi dituela, eta denak hari so daudenak tetelduak», edo beste hau: «–Debrien arima! Nahi dukana izanikan ere, hi beti kexu hiz, Manez. / –Ba, hori atsaldian hiauk ikusiko uk, Pello; etzakala espantu haundirik in. Oraiko egunetan ustegabe gerthatzen ez denik ez duk» (1990: 28) / **espántjak ibíli ad.** (du): *Eztú já eré bána zé espántjak ibíltzen tín!* Ikus ondoko bi sarrerak.

**espántuáundi izond.** Ahoaundia: *Hóri gízón espantuáundja*. Cf. Baztango erranairu hau (Izeta, 1996: 208): «Gizon ttallak, espantu aundie». Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 322-323).

**espántuka adond.** Panparroikeriatan / **espántuka aizán ad.** (da) Panparroikeriatan ari izan: *Hóri bėti espántuka ártzen dúk* ‘panparroikerian aritzen duk’.

**espánól** 1- *iz.* eta *izond.* Espainola, Espainiakoa, 2- *iz.* Gaztelania: «Orai arrosarioa beti españolez Elizan, bana etxian eskuaraz iten baitu, gaurre gure Frantxixak hala in baitu» (MA), 3- Gaztelaniaz mintzo dena: *Españólek erráiten duténa*, «...lehenbiziko astian nexkato gaztiak eta bestian emazteki erdal-dunak, espánolak eta gizon eskualdunak, eta mutiko gaztiak elgarrekin, eta undarrik eskualdun emaztekiak eta gizon espánolak» (MA),

**espáre iz.** Ezpara.

**espartín iz.** Espartina.

**espeántxa iz.** Itxaropena. Eskutitzetan *esperantxa* agertzen da: «...eskuineko alderdia hartia omen, zangoa eta besua, bana pollikiño omen duxu. Medikiak omen dixi esperantxa sendatuko dela» (MA) / **espeántxa ukán ad.** (du) Espero izan (usaian pertsonekin, baina gauzekin ere bai): *Zú espeántxa zítut* ‘zu espero zaitut’, *hóri espeántxa út* ‘hori espero dut’, *áma espeántxa úte bazkáitea* ‘ama espero dute bazkaltzeko’. Cf., gainera, letretako pasarte hauek: «Erten daxu Maria Alfaro esperantxa xinila», «Bestaberrian esperantxa ixit bazkaitea Eloixa» (AB), «...udan lan anitz baitute eta kasik hobe finituik solasa, bana

nik uste esperantxa tixie nexkatuain aita-amak egun zenbaitez bazkaitea» (MA). Beste erabilera hurbileko baina desberdixe pare bat ere bada: «Huntan gelditzen nuxu. Xure berri hunen esperantxan, errezibituko tuxu gure familia guzaiain partez milaka goraintziak» (AB), «artuake ba aurtan, Amerikanua dixiu; artoalde ederrain esperantxa baixiu» (MA), «xure ikusteko esperantxan gaudela denak kontent, haurrake ba, eta jiteazkioz xato asteain pasatzeko esperantxan» (AB), «milaka goraintziak D” Jose Mariri eta xu besarkatzen xitut bien partez biotzez, fite ikusteko esperantxan» (MA) / **espeántxetan izán, egón ad.** (da-di) Haurdun egon: «Oro egon tuxu eri. X esperantxetan dixie; kontent tuxu, arrazoinekin» (MA). Ikus **ernári izán, egón / esperantxa ekarri ad.** (du) Itxaropena izan edo. MAk darabil, letra batean: «Ageri zuxun haren solasetaik prestatzen ari zela eta Esteban lehenbiziko ikusi nineko ez nixin nik esperantxaik ekarri, bana hoin fite, bana eri haundia baitzen».

**espezjalista iz.** Mediku espezialista.

**esplamia iz.** Satrustegik (1969b: 95) biltzen du eta honela azaltzen: «Corte achaflanado en el hueco resultante de ventanas y puertas abiertas en muros muy gruesos».

**esplikátu ad.** (du) Azaldu: «Liturjia esplikatu diauxu lehenik eta gero ensaiua kantuz» (MA).

**espós iz.** Senar edo emaztea / **espós izán ad.** (da) Ezkondu: *Héldu dén igándjan Ferránjota Aña espós txú* ‘heldu den igandean Ferranddo eta Aña ezkontzen dira’. Luzaideko gutunetan **espos eguna** ‘ezkonteguna’ agertzen da / **esposátu ad.** (da) Ikus **ezkóndu**.

**esprés adond.** 1- Propio, berariaz: *Esprés jín-núk híre kústea*; «Pentsatzen dixit ingoitik arrunt berantetsia xirela xure letrain errepotia, bana espres egon nuxu, bainakin baxinila Luzaidetik berri frango» (MA); cf. **esprésuki**, 2- Txantxetan: *Esprés ái dá hóri, ez serjóski*.

**esprésuki adond.** Propio, berariaz: *Esprésuki jín-núk híre kústea*. Ikus **esprés**.

**estagorri.** Satrustegik (1963-64: 265) ‘hestegorria’ adiera ematen dio, baina Luzaiden

- guk ez dugu jasotzerik izan. Izatekotz *her-tze-*, *hertza-* behar luke izan.
- estái** *iz.* Solairua (biarnes-gaskoiko *estàdjetik?*): *Ni lánjan ártzentz zazpigárren estájan.*
- estakúru** *iz.* Aitzakia / **estakúru ezárri** *ad.* (du) Aitzakia paratu. Eskutitzetan zenbait aldiz ‘erreprotxu’, ‘kexa’ edo menturaz ‘arazoa’ adiera ematen zaiola irudi du: «Gaizua! Haren estakuriak finitu txu. Orai gizonain hiltzia etxu deuse! Besteik etxu aitzen» (AB), «Peiore estakuriak ba, bana bere eginbidetan zintzo», «batere ez diakixut ze estakuru ezarri behar dauxutan, hoinbeste denbora ixkiatzeko egoitiaz» (MA). Ikus **kulísa**.
- estalázi** *ad.* (du) Estalarazi, emeari arra eman: *Béhi adarmótxa susára dá, behár dú estalázi.* Luzaideko arotzak forma osoa erabiltzen du (Satrustegi, 1969: 194): «miga estalarazi apirilian», «beia estalarazi apirilian», «beia estalarazi urtarrilian».
- estálgi** *iz.* Estalkia. Ikus **etxestálgi**, **lejór**, **mahajestálgi** eta **ofestálgi**.
- estáli** *ad.* (du) Estalkia ezarri, estali. Satrustegik (1969b: 41) igarkizun hau bildu zuen: «Egun guzian kakiten eta atsian bere kakaz estalzen» (*sic*, sua). Ikus **tapátu**.
- estazjone** *iz.* **1-** Tren geltokia. Ikus **gára**, **2-** Gurutzebideko estazioa: «Garizuma guzian batixu estazioniak asteazken eta ortzialetan, eta jendia frango untsa segitzen duxu: atseko zazpitan uxu eta segidan meza» (MA).
- estekátu** *ad.* (du) Soka batekin-edo lotu ( $\neq$  **lótu**): *Estékazkitxú zapétak.* Ikus **kórda**.
- ésti** *interj.* Behiegi gibelerat joateko erraten zaien.
- estimátu** *ad.* (du) Eskertu: *Ánitz estimátzen dú gurékilán izán duzún atentzójnja.* Satrustegik dioenez (1969: 277), Luzaideko arotzak ‘tasar’ adierarekin darabil aditz hau: «Garraldat ernauti beia emanic umiac erdiz sei urteindaco iru urtetan umiac estima tesiguac borderre cristobal macharde».
- estómaka** *iz.* Urdaila (cf. biarnes-gaskoiko *estoumàc*). Cf. MAREN hau: «X-re egun operatu behar zutela; hunek berriz estomakan zila arrangura».
- estonátu** *ad.* (da) Harritu: *Estonátwik egón* ‘harriturik egon’; *etzá estonátzeko* ‘ez da harritzeko’. Ikus **harrítu**.
- estrena** *iz.* Presenta, oparia (cf. biarnesezko *estrée*). Gutun batean ageri da: «Bi mila libera emaiten dakotela eguneko eta beste mila liberakoat biltzen dila estrenetaik erran diaxu asteartian» (MA).
- estu artu** *ad.* (du), **estu ibili** *ad.* (da). Satrustegik (1963-64: 265) jasotzen ditu, baina ez dira Luzaiden ibiltzen.
- estudjánt** *iz.* eta *izond*. Ikaslea, ikaszalea (biarnesetik? Cf. *estudia*, *studiar*, *estudeya* hizkera honetan).
- estudjátu** *ad.* (du) Ikasi, estudiatu (espainoleko *estudiar*-etik irudi duenez; cf., hala ere, **estudjánt**).
- éta, -kéta** *atzi.* **1-** Garaia adierazten du, irudiz, *urríta* (< *urrieta*) ‘larrazkena’, ‘udazkena’ hitzean, **2-** Toki-ugaritasuna: *Amériketa – Ameikéta, ilarríta, Azoléta, Ganikólta, Lézta, Pekotxéta...* e.a., **3-** Ekin-tza, jarduera: *Gogwéta, jostéta, pentsakéta, xintxukéta, xurikéta – xwikéta.* Ikus **-kéta**.
- éta, tá** **1-** Emendiozko juntagailu eta lokailua; **2-** Zera, pentsatzeko makulua: *Errántzjakoxón etá... jwán behartzíla béste hérrí hártara; etxéko arrópa xúri gúzjak etá... xúitzentzjén bátjan* (F. Camino, Euskaltzaindia, 1999: 110)
- etendúra** *iz.* Hernia.
- etsái** *iz.* **1-** Etsaia, **2-** Behatz bixarra.
- etsaikérja** *iz.* Deabrukeria (ikus **deurrukérja**). Zerbait gaizki ateratzen zaigularik erabiltzen den hitza. Erdarazko ‘contratiempo’-tik hurbil dago: *Háu etsáikerja! Háutsi zják ótwa gejeník behár nílaik.*
- etsáitu** *ad.* (da) Etsaitu, etsai bihurtu.
- etsénplu** *iz.* Adibidea / **etsénplu, etsénplia emán** *ad.* (du) (espainoleko *dar ejemplo*-tik edo frantsesezko *donner l’exemple*-tik): *Áitain lána dá séme-aláber etsénplu húnain emáitja*; cf., gainera, Bordelen hau (Satrustegi, 1965: 34): «Ait-amez gira oroitzen / Eta begiak bustitzen / Ez tugulakotz aurkitzen; / Gure aurtasunean bazakiten / Hek gure ongi altxatzen, / Etsenplu onen emaiten, / Gutaz ziren urrikaltzen; / Eskerrak deztegu biurtzen» eta Manezaun-

- diren beste hau (1990: 235) «Zé ikhusbide edo etsenplua emaiten daukuten mendiez bertze aldeko eskualdunek» / **etsénplu hártu** *ad.* (du) (gaztelaniako *tomar ejemplo*-tik hain segur ere): «Gaixua ama familiako huna zuxun; oraiko anitz amek behar likexie etsenplu hartu» (MA). Cf. Bordelen adibide hau (Satrustegi, 1965: 189): «...Hetaz oroiturik / Gauden doloturik, / Umiliaturik, / Etsenplu arturik, / Noiznahi partitzeko / Lur triste huntarik».
- étsi-étsja** *adond.* Gure berriemaileak ‘fite’ adiera eman zion. Cf. MAren pasarte hau: «Nahiz erreposki, hasten nuxu egun etsi-etsia xurekin lehenik eta hasian hasi in behar tutan guzien aldeat egiten» / **étsja hártu** *ad.* (du) Etsia hartu, amore eman. Cf. pasarteño hauek: «Etxinezake sinets ze bisitak izana[k] tin; bazitxin adixkidiake, gaizua!, eta ono iduri sendatu behar diela! Etxi ez etsia aisa hartzen» (AB), «X geruo eta apaltxoño; ja orai iduri dixi etsia hartu dila. Jinko hunak sobera sofritu gabe ereman balea, gaixua» (MA).
- etsítja izán** *ad.* (da) 1- Etsita egon, 2- Aspertu: *Etsítja núxu béa egóitez* ‘arrunt aspertua nago esperoan egoteaz’, 3- Sinetsirik egon. Cf. letretako pasarteño hau: «X-i etzakotela telefonatu hain [t]seur ofeat juanak zirelakuan, eta ono sukaldian hatzeman! Etsitiak zirela etziela juain duaike. Biziki untsa hatzeman duztela biak, denak kontent» (AB). Alegia, ‘etsiak, sinetsiak, komentzi tuak zirela ez zirela joanen dirudienez’.
- etxálde** *iz.* Etxea eta honen funts, ondasun guztiak.
- Etxáundi** *iz.* Azoletan den *Etxáundja*-ko nagusia arrunki, baina bertako beste norbait ere izan daiteke, partikulazki aitzinetik izena ezartzen bada; **Etxaundísa** *iz.* *Etxáundja*-ko etxeoandrea. MAk *Etxandirat*, *Etxaundikuak*, *Etxeaundirat*, *Etxeaundikuek* darabiltza, eta ABk *Etxeaundi* ‘Etxeaundiri’, *Etxeaundiko Peio*.
- étxe** *iz.* Etxea. Satrustegiren arabera ‘familia’ adierazteko *etxeoak* erratan da (1969b: 67) / **etxéño** *iz.* Etxe txikia / **etxéxka** *iz.* Etxetxoa.
- etxeaintzin.** Satrustegik (1963-64: 256, 1969b: 96) *etxe aintzina*, *etxeaintzina* ‘fachada principal’ biltzen du.
- etxealda in** *ad.* (du) Etxealdaira egin. ABk erabiltzen du: «Mari Sarrike in dixie etxealda; atzo in dixie». Larresoron *álde in* erratan da (Epelde, 2003: 230).
- Etxebérri** *iz.* Karrikako *Etxebérrja*-ko nagusia; **Etxeberrísa** *iz.* *Etxebérrja*-ko etxeoandrea.
- etxegiél, étxe gielekálde** *iz.* Etxearen atzeko aldea.
- etxekandére** *iz.* Etxekoandrea: *Xaparréko etxekandérja zátuten díxit*.
- etxékoz etxéko** *adond.* Etxekoak bakarrik, etxe barrenean, etxeo gauzeekin: *Eztéjak ín gín-tin etxékoz etxéko, bakárrik famíljakwak gínen; kabáalak behár txú etxékoz etxéko bazkátu, kanpótik erósiz aizán gábe*. Cf. Larrerren hau (2001: 219): «Erasia marmarika batzu bai eginen ziozkan Margaritak bere kusi apezari, bizia baitzen, bainan etxekoz etxeo egiten diren heietarik, osagarriaren biltzeko, erraiten den bezala (...), edo Aintziburu & Etxarrenen beste hau (2002: 185): «Ez zen lehengo denboretan oraingo garbikari errautsik, baina gure aitzinekoek bazekiten nola egin, etxekoz etxeo, gauzen garbitzeko, nolana hika an-deatu gabe».
- etxeparetak** *iz.* Etxearen kanpoko murrak direla dio Satrustegik (1969b: 96).
- etxestálgi** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) ‘estalkia, eraikin baten teilatua’ adiera ematen dio. ikus **estálgi**.
- etxetjár** *iz.* Maizterra. Ikus **egoiljár, egoiljér**.
- etxezáin** *iz.* Etxezaina, etxe zaintzen gelditzen dena: «X-n bestan ni etxezáin ninduxun, guardier jatea emaiteko» (MA).
- etxiki** *ad.* Irazeki. Luzaideko arotzak biltzen du (Satrustegi, 1969: 182): «Bi burdina arrosina echiquizeco».
- etxóla** *iz.* Mendiko eraikuntza ttipia, partikulazki artzainek ibiltzen dutena: *Méndjan íbílí gínélaik sártu gíntxun etxólatjan*.
- etzán** *ad.* (da) 1- Etzan: *Ostátjan zélaik tren-petxártu zén éta lúrrjan etzán*, 2- Oheratu: *Égun akitja núxu tá etzáin núxu góizik*. B. Etxeparek (1980 [1545]: 14) *etzítian* da-

kar; Salaberri Ibarrolakoak (1856: 59) *etzan* biltzen du.

**etzangi** *iz.* Etzauntza.

**étzi** *adond.* Etzi.

**etxidámu** *adond.* Etziren ondoko eguna.

**éuri** *iz.* Euria / **éuri eskáile** *iz.* Txori baten izena da / **éuri erauntsi** *iz.* MAK darabil: «Alta aurten iten dixi aski bero; egun in dixi euri erauntsi bat, bana bazterrak idortiak tuxu». Eskuarki euriarena delarik **erauntsi** erratearekin aski da / **éuri xórta** *iz.* Euri tanta: *Etxétik átea nizálaik éuri xórtatzú hási txí.* Ikus **xórta** / **eurín** *ad.* (du) Euria egin: *Os-tjan eurín dú ánitx / éurja aizán ad.* (du) Euria ari izan: *Éurja ái díxi jóutsala;* «Juan egun batzuz in tixi izigarriko beruak eta orai, atzo eta egun, jeuts ahala euria ari dixi». Eskutizetan mugagabeen ere ageri da, inoizka: «Atsalde guzia haize eta euri ari dixi, eta ez nuxu menturatu, hainbeste erraiten diaxute kasu iteko», «egun izigarriko denbora (t)xarra dixiu, euri eta hortzantz tirala goiz guzia» (MA) / **éurjak ín:** *Jwan dén primadéran izígarriko éurjak íntzítin hémen.*

**eurítu** *ad.* (du) Euri egin: *Beldúr núxu ez óte dín eurítuko, izígarrí ilún baitó* ‘Beldur nauxu ez ote duen euria eginen, izugarri ilun baitago’.

**euríxka** *iz.* Langarraren eta euriaren artekoa / **euríxka aizán** *ad.* (da) Langarraren eta euriaren arteko zerbait ari izan.

**ez-** *aurriz.* Gabezia, kontraktotasuna adierazten du: *Ezazóla, ezdéus – eztéus, ezúntsa.* Ikus **des-**.

**éz** 1- *adond.* Ez, 2- *iz.* Eza, falta. Apostu egiterakoan, *ez* + aditz jokatu + -la ibiltzen da: *–Eztákixula nóla érten dén «supurar» eskwáraz!* *–Éz, aiséz, kárrí érten dúxu / éz oixó* (xuka), **éztó** (zuka), **baitóren** kontra-koa da: *–Hítz hórí etxú Luzáiden ibíltzen –Éz oixó, ibiligábe!*; *–Hítz hórí eztá Luzáiden ibíltzen;* *–Eztó!* / **ez óte:** *–Etxít hérrí hórta géjo jwán behár!* *–Ez óte?* / **éza emán** *ad.* (du) Ezetz erran. Cf. pasarteño hau: «Izan nuxu beste bi atsaldez bakarrik nihaur. X-k nahi xixin Y, bana eza eman zakola» (MA) / **éza.** Hau *ez* adizlagunaren galderetako era da: *–Heméntik aitzína etxú arrosárjoik izáin, –Ezá?* Cf. **bajá** / **ezpáda-**

**teké ezdáiteke, ezpádaiteké eztáiteké; ezpádaiteké ezdjáitekexú, ezpádaiteké eztjáitekexú; ezpádaiteké ezdjáitekek/n, ezpádaiteké eztjáitekek/n** Ezin bada, ezin da, ezin bada ezin duk/n’, ezin bada, ezin duxu (esam.).

**ezagutu, ezautu.** Ikus **záutu.**

**ezazól** *izond.* Axolagabea: *Eztút horrékin jóúsé jakínáhi, arrínt ezazóla baitá!* Ikus **axolagábe.**

**ezdéus, eztéus** *izond.* Deustako balio ez duen, ona ez den pertsona: *Ezdéus aláinal,* *ezdéusa aláin ezdéusa!* Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 323).

**ezézt** *ezetz:* *Galdínakón éa náí zín ésne xórtatá éztz errántzán.*

**ezeztátu** *ad.* (da) Deuseztatu: *Márka ín núnbait éta dénboraikin ezeztátzen dúxu.* Satrustegik (1963-64: 265) ‘kikildu’ adiera ematen dio; guk ez dugu horrelakorik jasotzerik izan.

**ezín** *iz.* Ezina, ezintasuna / **ezín izán** *ad.* (dadu) Ahalik ez izan: *Ezín sártuz íbílí gintxún;* *ezín ín níxin (= enín ín ál izán), ezín jwán níntxun (= eníntzan jwán ál izán).* Baina *ezin dut egin* edo *ezin naiz joan-en* modukorik ez da ibiltzen.

**ezinján** *iz.* Jateko gogorik ez izatea: *Ezínjána íxit ‘ez dut apetiturik’.* Satrustegik (1963-64: 265) ‘inapetencia’ dela dio, eta erranire hau biltzen du: *Goseak ez du neore hiltzen;* *ezin janak hiltzen du jendea.*

**ezkaátze** *iz.* Ezkaratza.

**ezkábi** *iz.* Ezkabia, larruaren eritasuna. Satrustegik hau bildu zuen (1969b: 40): «Sarnafera, huna barnera gaistoa kanpora! / Arto ta ogia Espaiñiara, ezkabia Frantziara». Irudi du *Sarnafera* hori, edo horren lehen partea behintzat, ez dabilela biziki urrun *ezkabia*-tik.

**ezkér** 1- *iz.* Ezkerra, eskuinaren kontrakoa, 2- *izond.* Ezkertia. Ikus **eskwín.**

**ezkerraitzín, ezkerraintzín** *izond.* Tresna bat bi eskuekin hartzea, aitzinenik ezkerra ezartzen delarik. Ikus **eskwinaitzín, eskwinaitzín:** *Ní ezkerraitzína níz, bána anája eskwinaitzína, xíxpaikin.*

**ezkerrajén** *iz.* Landare igokaria.

**ezkerrukáldi** *iz.* Ezkerkada (pilotan eta).

**ezkíla** *iz.* Ezkila.

**ésko** *iz.* Argizaria (gaia). Satrustegik (1969b: 43) *bela* biltzen du: «Bela benedikatu, gu zuri gomendatu». Ikus **tórtxa**.

**ezkóndu** *ad.* (da) Ezkondu: *Denbóraz gizón zahárrak, sós bázo bazúzten, néska gáztekin ezkóntzentzjén zomáit aldíz. Espós izán* eta **esposátu** ere ibiltzen dira.

**ezkóntza** *iz.* Ezkontza.

**ezkúr** *iz.* Haritzaren fruitua.

**ezpáin** *iz.* Ezpaina / **ezpáinak lehértu** *ad.* (da) Ezpainetan ebakiak egin. Ikus **mándo**.

**ezpáta** *iz.* Ezpata.

**ezteiljár** *iz.* Ezteikidea: *Éne kúsjaín eztéjetan ehún báno géjo ezteiljar bazúxun.*

**eztéjak** *iz.* Ezkondu ondoko oturuntza ugaria.

**eztén** *iz.* Eztena.

**eztera** *iz.* Luzaideko arotzak darabil, behin (Satrustegi, 1969: 230): «Eztera arriñatu». Iru-di du 'eztera', 'geztera' dela, menturaz 'zorroztarria' adiera duena, baina errotarekin lotutako hitza ere izan daiteke. Ikus **OEH**.

**éztí** 1- *iz.* Eztia, 2- *izond.* Goxoa, lasaia: *Áita gizón éztja zúxun.*

**eztíka, sagár eztíka** *izond.* Sagar mota bat, ez-tia dena, hori-gorria: *Sagár hóri eztíka úxu.*

**eztítu** *ad.* (da-du) 1- Eztitu, norbaitek edo zerbaitek gogortasuna galdu, 2- Epeldu: *Eztítu íxi puxkat, eztúxu góizjan bezánbat hótz.*

**eztúl** *iz.* Eztula. Cf. MAREN hau: «Anastasia Bidartekuare gripaikin zuxun. Izan ninduxun; jeikia zuxun. Harek etzixin eztulik; nik eztul haundia izan dixit eta buruko mina» / **eztúln** *ad.* (du) Eztul egin.

**eztúlka aizán** *ad.* (da) Eztulka ari izan.

**ezúntsa, ezúntsz** *adond.* Ezongi(an), ondoezik: *Ezúntsa(z) zón Kattín átzo.* Cf. letretako pasarte hauek: «Heke egon diela ezuntsaz gaitzeko marranta eta gripa[ikin], haurrake biziki eri; orai denak untsa diela», «egonuxu bi ilaite pastuik ezuntsaz. Orai iduri ziaxu puskat hobekitzen ari nizala; bestiak denak untsa txu» (AB).

## F

- fabóre** *iz.* Mesedea. ABk *fabore* darabil. Bestela, beste hizkera batzuetako *faborez* ‘mese-dez’ adierazteko **otói** erraten da. B. Etxeparek ere *fabore* darabil, pare bat aldiz (1980 [1545]: 4, 114): «Bere lengoaie propioaren faboretan» ‘bere hizkuntzaren defentsan’, «emazten fabore» ‘emaztekiaren defentsan’.
- fallituik utzi** *ad.* (du) Ahul utzi (frantseseko *faillir*-etik?).
- fálta** *iz.* 1- Gabezia, eskasia. Normalean genitiboa eskatzen du; ikus **éz**, 2- Pilota jokoan ibiltzen den hitza, 3- Hobena, errua / **fálta (edérra) ín ad.** (du) Beharrezkoa izan (gaztelaniako *hacer (buena) falta*-tik): «Alta, zenbait aldiz bano falta gutio iten dixi» (MA) / **fálta izán ad.** (da-du) Eskas izan: *Árdi bát fálta dút*, «oraire Luzaiden etxu meza sariak falta izain» (AB), «ez dixie deusen faltaik» (MA) / **fálta záutu ad.** (du) Falta nabaritu, faltan bota; genitiboa eskatzen du: *Léhen anítz pipátzen nín, éta géro útzí, bána bazkálondwan harén fálta záutzen dút óno*.
- faltátu ad.** (du) Besteren aitzinean gaizki gelditu (gaztelaniako *faltar*-etik). Cf. pasarteño hau: «Nik pentsatzen nixin nehontike ahal baxinin ez xinila faltatuko; nik pena nixin ez ikustiaz, bana Ximoni ez niakoxun ekendu nahi, bere Pelo baitzen» (MA).
- fáltsu izond.** Fidagarria ez dena: *Húra bizíki fáltsja úxu, etxitéla fída hártaz! / urdía bezáin fáltsja izán ad.* (da) (esam.) Arrunt falttua izan, arrunt zuria izan: *Urdía bezáin fáltsjak túk hórjek, ehíz hétaz fidátzen ál!*
- faltsukérja iz.** Faltsua denak egiten duen maltzurkeria: *Hórrek erráiten tín gúzjak faltzukérjak túk, etzjakók já eré sínésten ál!*
- famátu** 1- *izond.* Ospetsua, 2- *ad.* (du) Jendeak erran: «X famatzen dixie Y-in alaba Z-ikin» ‘Jendeak erraten du X Y-ren alaba Z-rekin ateratzen dela’.
- famílja iz.** Sendia (gaztelaniako *familia*-tik, irudi duenez).
- familjátu ad.** (da) Familia egin edo izan, ezkondu-eta haurrak ukan.
- fanfarrón iz.** Harroputza. Ikus **urgulúntzi**.
- fantési izond.** Satrustegik (1963-64: 265) ‘coquetería’ dela dio eta *fantesi utsa* ‘presumidilla’ aipatzen du. Gure irudituan **fantésiko**-ren iruditsua da (ikus ondoko sarrera): *Zé fantésja dén mázteki hóri!*
- fantéstiko izond.** Harroxkoa, pertxenta. Jendearendako erraten da: *Zé fantéstikwa dén néska hóri* ‘zer harroxkoa, zer pertxenta den neska hóri’.
- fardan.** Hots hitza, mantsotasuna, trakeastasuna aditzera ematen duena. Ikus **firdun** sarrera.
- fardél izond.** 1- Gaizki beztitua ibiltzen dena, 2- Lanerako trebea ez dena, gauzak errebeski egiten dituen: *Gizón fardél hórrek eztú xagónjan sobéra gastátzen, bétí urdekátwik jwáiten dá.*
- fardílak iz.** Zerria puskatu ondoan gelditzen diren haragi puxka ez handiak: *Zérrjain bazterkínak túk fardílak*. Ikus **bazterkín**.
- fartzidúra iz.** Haragi xehetua, perrexilarekin eta, egun handietan jaten dena, oilaskoarekin. Ikus **fartzítu**.
- fartzítu ad.** (du) Bete (frantseseko *farcir*-etik): *Ollwa fartzítwik játen ál dúxu*.
- fartzúntzi izond.** Urguluntzia, harroputza: *Gizón fartzúntzi tá urgulúntzja dá gúre oséba*.
- fattáljan egón, izán, útzí ad.** (da) Gaizki, ahul egon, utzi. Cf. MAren hauek: «Gripa gaix-

- tua duxu aurten; ez dixit medikuik izan. Pasatu duxu jeiki etzanka, bana fattalian utzi nixi», «egon nuxu hamabots bat egunez arras fattalian; zintzurretik lotu zuxun eta jateko gutiziaik bate gabe».
- faxós** *izond.* Atsegina ez dena (biarnes-gaskoiko *fachous*-etik?): *Háize faxósa* ‘atsegina ez den haizea’.
- felizitátu** *ad.* (du) Zoriondu (frantseseko *féliciter*-etik edo espainoleko *felicitar*-etik).
- felizitajóne** *iz.* Zoriontzea (gaztelaniako *felicitation*-etik edo frantseseko *félicitation*-etik).
- ferblankier** *iz.* Satrustegik dioenez (1969: 277) ‘hojalatero’, ‘estañador’ erran nahi du (frantseseko *ferblantier*-etik). Luzaideko arotzak darabil: «Ferblanquierraiquin aeza echiai estalzen amarretan yinic» (198).
- férja** *iz.* Feria: *Áita zénak xarmánteko behór bát erósi zixin úrte atéz Aurízko férjetan.*
- férra** *iz.* Ferra. Luzaideko arotzak ere bada-rabil (Satrustegi, 1969): «Lau zamari ferra» (136), «beorrai lau ferra azaruan» (137), «beorrain lau ferra» (153), «bi asto ferra» (162). Inoiz **berra** idatzirik ageri da arotzaren liburuan: «Lau idi berra» (183), «lau mando berra» (189). Ikus **erreferra**.
- Ferrán** *iz.* Karrikako *Ferranénja*-ko etxeko jauna; **Ferranésa** *iz.* *Ferranénja*-ko etxe-koandrea. Oikonimoa *Ferran* deituratik atera da; lehenago *Janpjarrénja* zeritzan etxeari, irudi duenez.
- ferrátu** *ad.* (du) Ferratu, ferrak ezarri: *Háil antzára ferrátzea ta útz nezák tránkil!*
- ferréta** *iz.* Suila, ontzi mota bat: *Húrain kár-tzeko ibíltzentzén úntzja, pétik zahálo dúxu gáinetik banó.* Luzaideko arotzak ere ibiltzen zuen hitza: «Ferreta ustai bat guiderrac ezarririk» (Satrustegi, 1969: 160). Lan honetan *ferreta* ez ezik *berreta* ere azaltzen da: «Berreta bati guiderrac ezarririk» (ibid.).
- fída izán** *ad.* (da) Fidatu. Datiboa gobernatzen du: *Enúxu báte fída gízón hórri.* Aditzizenaekin –ko eskatzen du: *Eztíra fída gúre étxeat jíteko.*
- fídátu** *ad.* (da) Fida izan, fidatu: *Urdía be-záin fáltsjak túk hórjek, ehíz hétaz fídátzen ál!*

- fidél** *izond.* Leiala: «Zure familia guziari gure komplimendurik hoberenak emain deztezu; gelditzen niz zure adixkide fidel neure bizi guziko» (MA).
- filete** *iz.* Haragi zerra. / **fileteño** *iz.* Haragi xerra. Cf. hau: «Atzo jan zila fileteño at gohotik; nik uste hasiko den ba. Erran diako-xut behar lukela zerbait hartu azkartzeko; orai X-n beha diaudexu».
- filúsa.** Satrustegik dio (1963-64: 265) ‘caricia fingida’, ‘sin naturalidad’ dela. Guk bada-kigu hitz hau Luzaidian erabiltzen dela, baina ez dugu erranahia argitzerik izan.
- fíni izán** *ad.* (da-du) Norbaiti zerbait bukatu: *Hórrek léhen ánitx edátentzín, bána giéla andedátu záko tá heméntik aitzína fíni izán dú ostátutan ibíltzja; éri bát móztu dakóte tá wái fíni dú pilótan ártzja; Manézi medíkjak errán dakó xángrrja díla, orái fíni dá gúre gízóna.*
- finítu** *ad.* 1- Bukatu (da-du): *Lán hóri úste báno lehéno finítuté hék,* 2- Hil (da) «San pedro atsaldian 7 orenetan izan omen zixin lehen bulta xarra, hura fite pasatu, bestia bizpahiru orenen burian, hura arras fierra, uste zutela finitzen zela» (MA). Ikus **bururátu, híl eta pausátu.**
- fir fir fir.** Satrustegik (1963-64: 265) «para indicar ligereza; cosa de poco fuste» adiera ematen dio.
- firdun.** Hots hitza, nolabaiteko arintasuna, trebetasuna adierazten duena. Satrustegik (1969b: 30) honela dio, irute lanak solasgai harturik: «Cierta noche le esperó el dueño de la casa. La lamia notó la diferencia en el ritmo de trabajo y así se lo comunicó (Lehen fir-dun, fir-dun eta orai far-dan, fardan...?)».
- fírla** *iz.* Maratila. Satrustegik (1963-64: 265) ‘bolo jokoko peza’ ere badela erraten du. Aintziburu & Etxarenek (2002: 103) *birla* darabilte: «Beste jostatzeke molde bat: bir-lak».
- fírletan aizán** *ad.* (da) Boloetan ari izan.
- fíte** *adond.* Agudo, laster (frantseseko *vite*-tik).
- fítexko** *adond.* Franko fite, agudo samar. *Méndjan kúsi gintín baxaának fítexko prést díra játeko.*
- fixatu** *ad.* (du) Zehaztu (frantseseko *fixer*-etik, irudiz); MAK darabil behin: «...bana nik



- uste esperantxa tixie nexkatuain aita-amak egun zenbaitez bazkaitea; ordian fixatuko duten».
- fjér** *izond.* eta *adond.* Sendo, sendoa, azkarra, gogor, gogorra (≠ biguna) (frantseseko *fier*-etik, beharbada): *Fjér xáiltxea?*; *gizón fjérra* 'gizon azkarra, sendoa'. Cf. eskutizetako pasarte hauek: «Egun hotan denbora hotzak biziki, egunaz iruzkiak berotzen dixi bana gauaz karroin fierrak ari tixi», «amare delikatu, oraire gripak arrapatu dixi eta nekez pasatzen. Bietan izanak tuxu Iruñen medikian; amatxi ohono fierrenik» (MA); ikus **ázkar** / **fjérsko** 1- *izond.* Sendo samarra, azkar samarra, 2- *adond.* Harrokoa: «Fiersko zira, ba, aitatxiturik! Eta bietan ohono, sematxia bai zinin!» (Satrustegi, 1969b: 69).
- flakátu** *ad.* (da-du) Ahuldu: *Gázte dénboran gizón azkárta zén, bána ánwak arrúnt flakátu dú.* Cf. MAren hau: «Ohono ez dauxut erran X arras eri dela, orai pollikiño dela, bana ni beldur, gaixua flakatia baita».
- flakézja** *iz.* Ahulezia: «Medikiake bisitatia zuxun eta etzila deuse flakezia bezik, jan zeza-ten untsa, gauza azkarrak» (MA). Honek *flakeza* ere badarabil, baina ez arras adiera berarekin: «Jadanik lehene bazixin buruko flakeza hori jua den urtian eri egonezkioz».
- fláko** *izond.* eta *adond.* Ahul(a): *Estómakatik operátu uté éta óffjan hainbéste dénborá egón óndwan fláko dá orái.* Cf. MAren hau: «Nik uste gripa zuken, orotarik minez egon dela eta partikularzki gerruntzetaik, bana eztulik ez dixi izan, bana flako gelditu, eta apétituik batez». Ikus **ahúl** eta **méhe**.
- flakósta** *izond.* Mehea. *Árdi méhendako erráiten dá flakósta.* Ikus **arrakóil**. Baztanen, *akal*-ekin batean, *measta* dago (Izeta, 1996: 37. 130).
- flóka** *iz.* Ziriztiloa: *Flókat ín beáixit.*
- fóltsu** *iz.* Pultsua: «Errezibitu tixit xure bi letrak; egon nuxu ezin menturatuz, bana ohono naski ikusiko duxun bezala ene foltsia ez duxu sobera azkar» (MA).
- fórni** *adond.* Horniturik: *Sósez úntsa fórní jwána úxu; úntsa fórní úxu háu!*
- fornítu** *ad.* (du) Hornitu: *Étxja úntsa fornítja íxju egúrréz. Karnízérwak fornítzen dáu harágiz.*
- frángo** 1- *zenb.* Franko: *Izáin tik eróslja frángo / eróslje frángo / frángo eróslje, 2- mailakat.* Franko: *frángo fíte jín dúxu egún.* Cf. Satrustegiren hau (1981, 344): «Bana espres egon nuxu, bainakin baxinila Luzaidetik berri frango». Cf. orobat, Manezaundi (1990: 27): «Holako behi ederrak fite izain ditik frango erosle», eta AB: «X frango untsa uxu, ni bano azkarro uxu, ba»; «X frango gaizki dela erran dixie». Cf., halaber: «Sasoina orai in dixi ederra frangore» (AB).
- fránko** *iz.* Frankoa, Frantziako lehengo dirua.
- frantsés, frantzés** 1- *izond.* eta *iz.* Jatorriz Frantziakoa dena, 2- *iz.* Frantses hizkuntza.
- freskátu** *ad.* (da-du): *Léhen béro háundja ái zíxin, bána freskátu íxi azkárki, peko háizja sártu íxi dwáike.*
- frésko** *izond.* Freskoa.
- friko** *iz.* Janari hauta, gaztelaniako 'manjar'.
- frikún** *izond.* Lotsagabea, ausarta (ikus **atrebítu** eta Kamino & Salaberri & Zubiri, 2004: 323): *Zé frikúna hizán!, nóla héldu híz gúre étxeat bazkáitea nehók komitátu gábe?*
- fritátu** *ad.* (du) Frijitu. Ikus **unkáilu**.
- frontón** *iz.* Ikus **pláza**.
- frúta, frwíta** *iz.* Fruta: *Etxít náhi botíga hórta-ko frwíta, arrúnt eskupílátwík atxikítzen baituté.*
- frwítu** *iz.* 1- Fruitua, 2- Ondorea / **fruitu ekarri** *ad.* (du) Fruitu eman: «Ordian misio- niak untsa pasatu zitxun eta fruitu ekarri, Jinkuari eskerrak» (MA).
- fundaméntu** *iz.* Fundamentua, zintzotasuna: *Etxí fundaméntwík báte hórrek / fundaméntugábe (= funsgábe, fonsgábe)* Fundamenturik ez duena: *Fundaméntugábe horrekín etxú jéus ítekoik!*
- fundikátu** *ad.* (da-du) Zeharo zikindu: *Lóhi hórtaik pástu nízálaik arrúnt fundikátu níz.* Satrustegik (1963-64: 264) adiera hau *emokatu*-ri ematen dio. Guretako **emokátu** aditza **brokátu**-ren adierakidea da eta 'bete-betea egon' erran nahi du. Ikus **urde- kátu**.
- fundítu** *ad.* (du) Diru guztia xahutu (gaztelaniako *fundir*-etik?): *Améiketatik sós bátzo kárrí zítin, bána ostátu horjétan beréala fundítu zítin irázjak óro.*

**funsgábe, fonsgábe** *izond.* Fundamenturik ez duena (ikus **fundamentugábe**): *Etxú prótxwik funsgábe ménts horrékin!*

**fúnts, fóns** *iz.* 1- Ondasunak (lurrak eta): *Urrúntzén étxe hóri beré fúntsetaik* ‘urrun zen etxe hori bere funtsetarik’, 2- Fundamentua, zintzotasuna; ikus **funsgábe, fonsgábe**, 3- Modua: «M<sup>a</sup> Doloresi igortzen dakot gure koñata Buruxurisa zer fonsian juan zaun. Zenbait meza entzunik juan da mundutik; nik uste baliatuko zazkon» (MA) / **fúntsjan, fónsjan** *adlag.* Azken batean, berdin (‘total’), azkenean, egia erran, bi hitzetan. Cf. ABren hau: «Errain dauxt marranta nizala eta ene bronkioak ziztu iten dixie; eztula ttipitia ixit. Ni beti hatzemana, harrigarri uxu, negian sartu orduko beti zeait! Funtsian denek pasatu ixiu».

**funtzjonaméndu** *iz.* Funtzionamendua.

**funtzjonátu** *ad.* (du): *Erlói zahár húnek eztú báte úntsa funtzjonátzen, béti gielátzen dú.*

**funtzjone** *iz.* Funtzioa.

**furnégo** *iz.* Gaztelaniako ‘cocina económica’, ‘cocinilla’ (frantseseko *fourneau*-tik??).

Luzaideko arotzak ere bazerabilen, beste itxura batekin: «Furneuco burdina barra bat», «furneuco burdin barrac» (Satrustegi, 1969: 184, 193). Ikus **kozinilla** eta **kuzina**.

**furtxéta** *iz.* Sardexka (frantseseko *fourchette*-tik).

**futítu** 1- *ad.* (da) Zerbaiti batere garrantzirik ez eman, «paso» egin: *Futítzen núk hór-taz!*, 2- *izond.* Axolagabe eta lotsagabea: *Zé futítja dén hóri!, futítu zikína!* Satrustegik (1963-64: 266) ‘frescales’ adiera ematen dio.

**futitukérja** *iz.* Utzikeria: *Hórjek duténa úxu lazakérja éta futitukérja.* Ikus **lazakérja**.

**futxo!** *interj.* (‘¡caramba!’ edo). Manezaundik ibiltzen du (1990: 34): «Ixildura labur hau onhartze bat iduri zaiko gizon hanpuru-tsuari, eta kantitu gabe hurbiltzen zako nexkatoari soberaxko, futxo!». Guk ez dugu aditu.

**fwín** 1- *iz.* Lepazuria (frantseseko *fouine*-tik), 2- *izond.* Gaiztoa edo: *Zé fúña dén maztéki gizonketári hóri!* Cf. E. Etxamendiren hau (1988: 35): «Alo! Ze fuña xu! So’ik horri! Bana; nehok ez xitua ikusi?».

## G

**-gábe** atziz. Gabezia, eza: *Ahalgegábe, axolagábe, fundamentugábe, funsgábe – fonsgábe, garrik gabe, gazgábe, kustategábe, nahigábe, paregábe, potretagábe, zentzugábe.*

**gábe** Gabe: *Undárra arribátu nántzan bazkái-tea éta gábe geldítu nántzan, maháipetik xíxtu ín nín. B. Etxeparek (1980 [1545]) bage (6), gaberik (10, 12, 50), gabetarik (20), gabe (kausa gabe, 46) darabiltza.*

**gabetasun** iz. Eza, gabezia. ABk ibiltzen du, *atenzione gabetasun* sintagman: «Lenbizikoik galdeiten daixut barkatu beharko uxula gure atenzione gabetasuna. Alta, ez hola uxulakotz mehexi». Ikus **atentzjóne fálda**.

**gabinet** iz. Luzaideko arotzak darabil, behin (Satrustegi, 1969: 152): «Sapitelengo bordaco condia artia gabinet bat». Arruazukokak ‘gabinete’ erran nahi duela dio (277). Ikus **gaminét**.

**-gái** atziz. Materiala, izan behar duena: *Ahakái, andraái, apezgái, azkái, gizongái, ikazgai, marrogái, maztegái, senargai, sugái.*

**gái** iz. Zerbaiten egiteko gaia, materiala.

**-gáilu** atziz. Gaia, objektua. Zentzu aktiboa du gehienetan: *Berdagáilu, denbora pasagáilu, edergáilu, unkáilu, zokobetegáilu.*

**gáin** iz. 1- Gaina: *Mahái gáinjan úzi dazkitxút libúrjak*. Satrustegik *gaina* gorritu ‘labearen gaina berotu’ dakar (1969b: 53), 2- Goitia, etxearen goiko solairua; ikus **behére**, 3- Esnegaina. Ikus **esnegáin**. Postposizioa ere bada, jakina: *Teilátjain gáinjan bazén gátu zikin bát marrúma tá eztút gáu gúzjan bégik hésti / gaina hartu ad.* (du) Aurrea hartu, nagusitu. MAk darabil: «X-n hiltziak ondua ekarri dixi; batek beti iduri ixilik egon

behar dila, bana ez, azkenekoz batek berak ez dakila gaina hartzen diakoxute». Cf., gainera erabat Luzaideko euskaran ez den A. Aintziburu luzaidarraren aipu hau: «...baina barkatzen ez duen *eritasun horrek hartua* baitzen, berriz ospitalerat itzuli behartu zitzaion, baina oraikoa ezin izan dako *gaina hartu eritasunari* eta hilik ekarria izan da ospitaletik» (*Herrria*, 2002-1-04, 5. or. Etzana gurea da) / **gáinjan adlag**. Mendian: «Aurten goizik in tuxu, negu huna dixiu frango. Orai egun hotan haize haundia eta gainian elurra ari dixi», «Andikoberriko bazkak erosiak tixi Ximonek beti bezala, ohono gainian tixie ardiak bana biltzen tixie eta hasiak tuxu bazkatzen» (MA).

**gainázpika adond**. Elkar-gainka / **gainázpika ibíli ad.** (da) Elkar-gainka ibili: *Bórda bárnjan ahátxjak gainázpika djáiltzatxu.*

**gáinbehéra adlag**. Gain behera: *ótwa gáinbehéra eróri zén erréka zólano.* Ikus **gáinetik béiti**.

**gáindi post.** ‘-en zehar’; ablatiboa galdegiten du: *Péntze hártak gáindi jwán ginén bórdat; Aurítzeat jwáiteko Ibañétatik gáindi pástu behár dá.*

**gáindika jwán ad.** (da) Gainezka egin (likidoek eta, suan direlarik).

**gaindikátu ad.**(da) Gainezka egin: *Kentzáxu sálda hóri, kalkárika ái baitá éta gaindikátzeko lanjérta íxi.*

**gaindolár iz.** eta *izond*. Gaindola auzokoa.

**gáinea adond**. Gainera: *Etzán zórta paátu tá gáinea urdén zikin hórrek sósa galdín dáit bérrize, zé tupéta dín besténaz!*

**gaineatéko izond**. Gainerakoa: *Kúsja tá bják étxjan geldítu ginén, bána gainatékwaq ka-*

- rrikat jwántzjén, bolánten ikústea*. Ikus **béste gaineatékwán**.
- gáineko bórta** *iz.* Ateak dituen bi zatietako bat, goikoa, egunez irekita egoten dena. Ikus **borta gaineko**.
- gainekoltár, ganikoltár** *iz.* eta *izond.* Gainekoleta auzokoa. MAK *gainekoletar* osoa-goa darabil: «Guke bots edo sei bagielaik ekartzen dixiu frangotan Toloxano. 30 pts pahatzen dixiu. Gainekoletarrek berdin ez duxu geio nehor huñez ibiltzen».
- gáinekoz ázpira** *adlag.* Buruz beheiti: *Zárraxu hésol hóri gáinekoz ázpira* 'jar ezazu ta- ket hori buruz beheiti'.
- gáinetik béiti** *adlag.* Goitik behera: *Hargína teilátjan lánjan ái zélaik gáinetik béiti eró- ri tá hán bérjan séko geldítu zén*. Ikus **gáinbehéra** eta **pétig góiti, pétig góra** / **gáinetik béiti emán** *ad.* (du) Jo, egurtu. Ikus **búrutik béiti emán** eta **káskotik béi- ti emán**.
- gáinetik gáindi** *post.* '-en gainetik'; genitiboa eskatzen du: *Pástu zján murrjájín gáinetik gáindi* 'pasatu zuan murruaren, paretaren gainetik'.
- gáitz** 1- Eritasuna: *Etxi éz, híltzeko gáitzik hó- rrek!*, 2- Handia: *Bésta gáitza ín giníxin bárda* (= *gáitzeko bésta ín giníxin bárda*), 3- Garrantzizkoa. Cf. «Egun hotaik batez izan [t]ziazkixiu profesorra eta bi perito, gizon batzu gaitzak, nahi baginin igorri» (AB) / **gáitzeko** *izlag.* Izugarrizko: *Gái- tzeko bésta ín giníxin bárda* (= *alímaleko bésta ín giníxin bárda*); *Arrétxek undárre- ko áldjan gáitzeko partída íntzján Elkóro- kilán*. Ikus **alímaleko, ikaragárrri, iziga- rri, kristóin**.
- gaitzítu** *ad.* (da) Gaizki hartu: *Haundískila hári gaitzítu zitzákon ník errána; maztéki hóri frángo kóska úxu tá behála gaitzítzen díxu*.
- gaitzúru** *iz.* Gaitzerua, neurri bat. Luzaideko arotzak ere bazerabilen (Satrustegi, 1969: 152, 172, 202): «Artua sei gaizuru» 'artoa sei gaitzeru', «bi aldiz bira gaizuru» 'bi aldiz bina gaitzeru'; «ecainian zaldarriai condia bi gaizuru irin» 'ekainean Zaldarriari kontua bi gaitzeru irin' (*Zaldarria* Aurizko etxea da), «errezibitua artua borz gaizuru» 'errezibitua artoa bortz gaitzeru'.

- gaitzurútra** *iz.* Gaitzerukada.
- gaixtagín** *izond.* eta *iz.* Gaizkilea. Satrustegik (1963-64: 266) *gaixtagina* eta *gaistakina* biltzen ditu; B. Etxeparek (1980 [1545]: 28) *gaizkigilia* dakar.
- gaixtakérja** *iz.* Gaiztakeria.
- gaixtátu** *ad.* (da-du) Gaizto bilakatu.
- gaixto** *izond.* 1- Gaiztoa. Zenbait aldiz, inten- tzionalitatea badelako edo, gauzekin ere ibiltzen da: «Beti juaitekotan nioxu, bana denbora hunekin bide hori gaixtua duxu» (MA). Pilotaz mintzo *sáke gáixtwa* erraten da.
- gáizki** *adond.* Gaizki / **gáizkíxe izán** *ad.* (da) Arrunt ongi egon: *Gáizkíxe úxu!*, *gáizkíxe úxu oixó!* Erdarazko '¡poco bien que está!', '¡está poco mal!' errateko ibiltzen da, alegia, bat hagitz ongi dagoela adierazteko.
- gaizkítu** *ad.* 1- (da) Okerrago jarri: *Aitátxi gáiz- kítu dá*, 2- (du) Haserre eman, errieta egin: *Ámak gáizkitu níxi sós ánituz gastátu dwála- kotz*. Ikus **mokokátu**.
- gaizkóndu** *ad.* (da) Gaizkoatu: *Átzo táiljaikin ínín píkwá gaizkóndu zjáxu* 'atzo segarekin egin nuen ebakia gaizkoatu zait'.
- gáizo, gáixo** *izond.* Gizajoa, gaixoa. Bakarrik doanean, harridura perpausetan bigarren silaban darama azentua: *Gaizúa, gaixúa!* Lagundurik dagoenean, berriz, lehen sila- ban: *Mutíko gáizwa!* Hasmentan ere ezar daiteke: *Gáixo Kattálin, zé káska hártu dín!* Ikus **gizáizo, gixáixo**.
- gaizúma** *iz.* Garizuma. Etxaidek (1989: 71) *ga:izúma* jasotzen du. MAK *garizuma* da- rabil: «Garizuma guzian batixiu estazio- niak astezkenetan eta ortzialetan, eta jen- dia frango untsa segitzen duxu; atseko zazpitan duxu eta segidan meza. Ahal gu- zia juaiten gituxu». ABk, ordea, *gaizoma* du: «Etxu hemen geiagoko berririk konda- tzia balio dinik. Don Jose Mari ari dukexu anitz lanian. Orai Gaizoma Saindia eta xuk bauxia anitz lan? Badailea oraire jende? Beharrik baituxu usaia kozinain prestatze- ko».
- gajándu** *ad.* (da) Harropuztu, urguluntzitu, besteen gainetik jarri: *Frantsés hók puskát gajándjak zítxun, bána írriak sártu zjezté- xu bá!* Satrustegik (1963-64: 266) 'domi- nar', 'adueñarse' adiera ematen dio.

**gáko** *iz.* Giltza. Ikus **giltza**.

**gakótu** *ad.* (du) Giltzatu, giltza eman: *Bórta gakótu íxit*.

**galarróts, galarrótsak** *iz.* Zintzarri joaldia. Xehetasun gehiago nahi duenak Euskaltzaindiaren 1999ko lanean (141-142. orr.) biltzen den Arnegiko lekukotasuna ikus dezake.

**galázi** *ad.* (du) Denbora galarazi: *Denbóra galázten ái dáuxut*. Bestela **debekátu** erraten da.

**galdatu**. Satrustegik (1963-64: 266) biltzen du 'eskatu, 'galdetu' adierekin, baina guk ez dugu jasotzerik izan. Ikus **galdín, galdéin**.

**gálde** *iz.* Eskaria. MAK 'abisua' adieraz darabil behin: «Oseba untsa duxu, ikusi berria dixit; igorri ziaxun galdia etxia hustu behar zuela eta puska arropa batzu eta zapeta batzu eman ziazkiatxun, puskak» / **gáldez áizán, egón, ibili, izán, jín, jwán** *ad.* (da) Zerbait eskatzen ari izan, egon, ibili, izan, etorri, joan: *Árdjak marrákaka ái txú bórdan bázkain gáldez*. Genitiboa eskatzen du, ikusten denez / **galdja ukán** *ad.* (du) Eskaria izan: *Anájak gásnatén galdia ukán dixi*.

**galdín** (normalean), **galdéin** (gutxiagotan) *ad.* (du) 1- Eskatu: *Galdín dikwát kártzeko ótwa* 'eskatu diot ekartzeko autoa', 2- Galdetu: *Galdín dixi éa zónbat djén* 'galdegin dixu zenbat diren'. Ez dituzte bi esanahiak bereizten (cf. frantseseko *demande*).

**galdíntza** *iz.* Galdera. MAK *galdeintza* eta *galdeitza* darabiltza; ABk lehena bakarrik.

**galdu** *ad.* (da-du). Galdu.

**galérja** *iz.* Galeria, etxeaitzineko balkoia.

**galgárrri** *iz.* Zerbait galarazten duena. Ikus **denbóra galgárrri**. Uharteko Garaziko eskutitz batean ere ageri da: «Telebistaikine pasatzen dixiu anitz oren (galgarri bat duxu hau ere)».

**Gallúrru** *iz.* Ondarrolan den *Gallúrrja* etxeko nagusia.

**galtxamótx** *iz.* Azpantarra, 'polaina' gaztelaniaz.

**galtxarrótx** *iz.* Galtzorratza. Satrustegik (1963-64: 266) *galtxorratx* eta *galtxarrotx* biltzen ditu.

**gálta** *iz.* Galtzerdia, kaltzetina. Ikus **pantalón**.

**galta puntu biltzeko mekanika** *iz.* Trikotatzeko makina, irudi duenez. MAK darabil:

«X etxian duxu. Anaiek erosi diakoxute galta puntu biltzeko mekanika eta Iruñen ikasten egonik hasia duxu lanian».

**galtzále** *iz.* eta **izond**. Galtzailea.

**gaminét** *iz.* Armairu mota bat da, logetelan egoten dena. Mailegua dela garbi dago, eta irudi du frantseseko *cabinet*-etik (Erdi Aroan *gabinet*, antza duenez) hartua dela, nahiz espainoleko *gabinete* ere hor den. Ikus **gabinet**.

**ganbára** *iz.* Gela (≠ **sabája**). Ikus **gelári** sarrera. **ganbarazain** *iz.* Gelazaina, gela garbitzailea. MAK darabil, behin: «Sasoia in dixi X-k, maiatzain lehenetik hasik urriain erdi artio Miarritzen hotelian, ganbarazain; atsetan etxeat jiten homen zuxun».

**gandáilu** *iz.* Ganderailu eguna. Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969) *ganderairu* (irakurketa hutsa ote?) darabil behin eta *ganderailu* normalki: «Condiac einic martin barberaingo Mart(i)nequin einic ganderairuz» (225), «errecaldein condia ochailian ganderailuz einic» (184), «miga estalarazi ganderailuz» (233), «condiac einic ganderailuz» (235). MAK ere *ganderailu* darabil: «Mendian elur berria bazuxun; lehengo xaharrek erraiten zutela Ganderailu hotz negia motz».

**gandera** *iz.* Satrustegik dioenez (1969b: 43) hildakoen argiak dira *ganderak*.

**ganér** (*ganér*ra era mugatuan) *iz.* Etxeko bihittegia. Ikus **sabái**.

**ganít** *iz.* Labana edo aiztoa eta 'navaja', 'canif' (ez dakigu frantseseko *canif*-etik atera den, gaskoiko *ganibet(e)*-tik, edo bien arteko nahasketa, gurutzaketa gertatu den) (≠ **na-bála** 'bizarra egitekoa'). Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969: 169, 223) *canit* darabil: «Canit bat berria», «canit berri bat einic». Etxaidek (1989: 179) *kánitáin gide-rrá* bildu zuen lehenik eta *gánitá* gero (ibid., 180). Hondarreko azentuatze hau bitxia da arrunt.

**gantxigórrak, gantxjórrak** *iz.* Gantzigorak, gantza txigortu eta gero gelditzen diren pikor modukoak.

**gantxo** *iz.* Ikus **belar gantxo**.

**gántz** *iz.* Gantza, urin gogortua edo urtugabea: *Zérrja híltzen délaik hértzen ártjan ba ómen dúxu gántza*.

**gapa** iz. Ikus **kápa**.

**gár** iz. Sugarra. Ikus **hitzéman**.

**gára** iz. Tren-geltokia (frantseseko *gare*-tik).

Ikus **estazjone**.

**garaztár** iz. eta *izond*. Garazikoa.

**garbántzo** iz. Txitxirioa.

**gárbi** 1- *izond*. Zikintasunik gabea, 2- *adond*. Argiki, garbiro.

**garbíki** *adond*. Garbiro.

**garbimen** iz. Garbitasuna, argitasuna. Luzaidoko gutun batean ageri da: «Bizpahiru aldid izanak zitxun Iruñen, bana badakixu zer dien horiek, garbimen guti, ihihi eta ahaha eta deusez, bana azkenian medikiak erran diaxu nihauri» (MA).

**garbitasún** iz. Garbitasuna.

**garbítu** *ad*. 1- (du) Zikinkeria kendu, urik gabe: *Sukáldja garbítu játsaikin konpazjone*. Ikus **kúzi**, **xahútu** eta **xuítu**, 2- (da-du) Hil: *Frantsés bát garbítu zúkan áutwaikin hórگو bihurgúne hórntan; aitzurrukáldi batéz garbítu ik zakúrta; gáixo hárek undárrjan bére búrja garbítu íxi* 'gaixo hark azkenean bere burua hil du'.

**garíka** iz. *Egur mehe átzu txú*. Satrustegik (1963-64: 266) dio 'leña delgada' dela.

**garkóla** iz. Garondoa. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 67) *garkhora* dakar.

**Garnáda** iz. Gaindolako *Garnáda* (Granadatik) etxeko nagusia, edo bertako norbait;

**Garnadésa** iz. *Garnada*-ko etxekoandrea.

**garranga** iz. Zakurrei, otsoetik babesteko, jartzen zaien arantzadun lepokoa. Luzaideko arotzak darabil, behin (Satrustegi, 1969: 142): «Garranga pare bat berriac».

**garratóin** iz. Arratoia. Etxaidek (1989: 117) *garratóina* eta *arratóina* bildu zituen.

**garráxa** iz. Garrasia / **garráxa ín** *ad*. (du) Garrasi egin.

**garráxjaka aizán**, **hási** *ad*. (da) Garrasika aritu, hasi: *Érja érre zúxin supaztérrian éta hási zúxun garráxjaka tá nigár marráskaka*.

**-gárrí** *atzi*. Zerbait sortzen, eragiten duena. Zentzu aktiboa du: *Ahalgingárrí, akigárrí, altxagárrí, asegárrí, denbóra galgárrí, desoragárrí, galgárrí, harrigárrí, hunkigárrí, íkaragárrí, irringárrí, izígárrí – izígárrí, lorjagárrí, lotsagárrí, nigarringárrí, okaztagárrí, ondagárrí, peningárrí, tre-*

*sondagárrí, xoragárrí, zapartgárrí*. Bitan gutxienez izenak sortzen ditu: *Osagárrí, ungárrí*.

**gartak**. Satrustegiren arabera (1963-64: 266) 'témporas' adiera du.

**gasáila** iz. Sesioa, istilua: *Áma-sémek égungúzja gasáilan pástu íxje / gasáilan aizán ad*. (da) Sesioan ari izan: *Áma-sémjak égungúzjan gasáilan aizának txú*.

**gasjósa** iz. Gaseosa, gasdun edaria (gaztelaniako *gaseosa*-tik): *Nexkátu hórrek gasjósa ánitiz edán díxi éta zotínka hársu*.

**gásna** iz. Gazta. MAk *gasñaño* dakar honen txikigarriztat, baina guk aditu duguna *gasnãño* da. Satrustegik (1969b: 57) *ardi gasna* 'ardi esnez egindako gazta' eta *behi gasna* 'behi esnez egindakoa' jasotzen ditu, bai eta ere *gasna xuria* 'fresko saltzen den gazta', behi esnez egindakoa arrunki. Ikus **ardigásna**, **behigásna** eta **ésne**.

**gasnaálde** iz. Gazta multzo handia.

**gasnatéi** iz. Gaztategia. Luzaideko arotzaren kontu liburuan «Busunsa taulac seiain gasnateico» dugu, alegia, 'makal oholak Xehiaren gaztategirako' (Satrustegi, 1969: 176).

**gasóil** *izond*. eta *iz*. Burusoila, karsoila: *Ez áitak ez áitátxik etzúten báte bíloik búrjan tá mutíkwaré gázta dá bána arrúnt gasóila*.

**gasóildu** *ad*. (da): Burusoildu, karsoildu: *Gúre áita soldadógotik jintzénekó gasóildja zén*.

**gastátu** *ad*. (du) 1- Pestatu, mimatu (biarnesgaskoiko *gastà*-tik), 2- Dirua-eta xahutu (gaztelaniako *gastar*-etik). Cf., lehen adiera dela eta, P. Narbaitzen hau (1999: 20): «Egia erran, biligarro pollita heldu zauku Pettan: bortz urte baizik ez eta, zer xoria! Funtsean, guhaurek ere gastatzen dugu poxi bat, naski. Ttipiena...». Ikus **pestátu**.

**gástu** iz. Gastua, xahutzea.

**gatalabróxa** iz. Pastel mota bat (frantseseko *gâteau à la broche*-tik). Satrustegik (1969b: 51) *katalabrox* dakar.

**gatína** iz. Katea: *Négjan Ibañétatik pásteko elúrta délaik behártzen záu gatínen zár-tzea / gatína xixtadún* iz. Aezkoan *alanbre tziztadun* deitzen duten bera (Camino, 1997: 545), beste toki batzuetako *alanbre arantzaduna* alegia.

**gatina eraztun** iz. Luzaideko arotzak darabil: «Liña gatina eraztun bat», «gatina eraztun

bat» (Satrustegi, 1969: 181, 230). Ikus **eráztun**.

**gatina mail** Katzenbegia. Luzaideko arotzaren kontuetan ageri da (Satrustegi, 1969: 159): «Bi gatina mail berri», «lau gatina mail berri».

**gatinan zil** *iz.* Luzaideko arotzaren liburuan ageri da (Satrustegi, 1969: 135), baina behin bakarrik, eta ez dakigu xuxen zer erran nahi duen edo hutsa ez ote den: «Gatinan cil bat, ferra bat». Ez dakigu, ezta ere, *gatinan* hori zein kasutan dagoen, genitibo-boa balitz *gatinain* izanen baikenuke. Beste posibilitate bat inesiboan egotea da, alegia, 'katean zil bat' izatea. Ikus **xéna**.

**gatobázk** *iz.* Euskal pastela (frantseseko *gâteau basque*-tik).

**gátu** *iz.* Katua.

**gatu zilo** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) dio 'katzuloa' dela.

**gatukúme** *iz.* Katakumea.

**gátulu** *iz.* Katilua.

**gátz** *iz.* Gatza.

**gatzági** *iz.* Gatzagia. Satrustegik (1969b: 57) *gatzagia* jasotzen du.

**gatzúntzi** *iz.* Gatzontzia.

**gáu** *iz.* Gaua: *Éne máztja ardúra gáwaz jatzártzen dá améntsetaik / gáun* 'gau on'.

**gáur** *adond.* Gaur gauean. Ikus **egún** sarrera.

**gáuzá** *iz.* Gauza. Ikus **ló**.

**gawérdi** *iz.* Gauerdia: *Gawérditan óffjan sár-tzen gíra*.

**gawiñára** *iz.* 1- Gauenara, saguxaharra, 2- Gautxoria, gauez parrandan ibiltzen dena: *Gawiñára pollíta dá hóri, gáu gúziz hór gáindi ibíltzen dá kúrri*. Baliteke, dena dela, garai batean *gauxórja* ibiltzea (cf. *Gauxórja* eta *Gawelja* [*<\* Gaubelea*] oikonimoak). Etxaidek (1989: 110) *jinkoáin ólloa* bildu zuen, baina uste dugu oker dagoela; Bonapartek 'tximeleta' adierarekin jaso zuen (ikus **papillóta** sarrera).

**gaxúr** *iz.* Gazura. Ikus **zemeráun** eta **zirikota**.

**gazaita**. Satrustegik (1963-64: 266) biltzen du eta 'aita pontekoa, aitabitxia' adiera ematen. Hala ere, *aitatxi* eta *amatxi* gehiago ibiltzen direla gaineratzen du. Ondoko beste lan batean (1969b: 68) mendearen hasiera arte ohikoa izan zela dio eta bakarrik zaharrek ezagutzen dutela. Otoitz honetan

ageri da: «Mauma, gaur enuk ire beldur loan / ez ihatzarrian. / Jinkua diat aita / Anderdena Maria, ama, / Jondonahani (S. Juan) *gazaita*, / Jondoni Petri, kusi, /horiek denak ditiau askazi; / loiten ahal diau ausarki».

**gagzábe** *izond.* Gatzik gabea: *Léhen ibíltzen zutéla urín gagzábja erremédjotako, óllo kákaikin nahásik, erredúren kóntra*.

**gázi** *izond.* Gatz gehiegi duena.

**gazitéi** *iz.* Zurezko kaxa handi bat, gatzetz betetzen dena, gero bertan zingarrazpiak sartu eta gatzitzeko. Salaberri Ibarrolakoak dio *gatzitei* 'saloir' ('saladero') dela.

**gazítu** *ad.* (du) Gatzetan ezarri: *Zérrja híl óndwan xingarrázpjak zárrí tút gazítzen*.

**gaztáin** *iz.* 1- Gaztaina, 2- Gaztainondoa. Garbi dago bukaerako –a berezkoa artikulutzat hartzea berria dela, *Gaztainádja* toponimotan ikus daitekeen bezala / **gaztáina eráuzi** *ad.* (du) Gaztainak zuhaitzetik bota. Ikus **eráuzi**. Cf. ABren hau: «Orai eztixie neho-ke gatzaina erauzten aizan [n]ahi».

**gaztainadi** *iz.* Ez dugu izen arruntzat bildu ahal izan, baina *Gaztainádja* toponimoa ezaguna da, seinale hitz hau berriki arte bizirik zegoela.

**gaztainóndo** *iz.* Gaztaina zuhaitza. Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 139, 143, 248): «Sugaya gatzaina ondo batena», «errezibitiac gatzaina onduac», «gaztain ondo baten artiquizen». Ikus **gaztáin**.

**gazanbéra, gatzaméra** *iz.* Mamia. Etxaidek (1989: 159) *kallájta* ere bildu zuen, *gatzambéra* ez ezik, eta Satrustegik *mamia* harrigarria, Luzaidekoa irudi ez duena (1969b: 58).

**gázte** *izond.* Urte gutxikoa.

**gaztérja** *iz.* Gazteen multzoa.

**gaztétu** *ad.* (da-du) Gazte(ago) bihurtu.

**geézi** *iz.* 1- Gerezia, 2- Gereziendoa. MAK *gehezi* darabil eta Satrustegik *gereziak* jasotzen du (1969b: 57).

**gején** 1- *zenb.* Gehiena: *Gejénak hérrjan gel-dítu txú, 2-izond.* Seme edo alaba zaharrena: *Étxe hórtao sème gejéna híl dúxu; «Ahatzi gabe behar dauxut erran nexkato gehiena serora juan zela» (MA)*. Hemen ikus daitekeen bezala, hasperendun aldaera ageri da / **gejénik** *adond.* Gehien: *Háu dúxú gejénik gustátzen zána* 'hau da

- gehien gustatzen zaidana' / **gejenskwéna** *zenb.* Gehientsuena.
- géjo** 1- *zenb.* Gehiago. Gutunetan zenbaitetan *gehiago* aldaera osoa ere agertzen da; Ondarrolako 1841eko eskutitzean *guehiago* dago (Satrustegi, 1971: 294), 2- *adond.* Jadanik edo (frantseseko *plus*-en kalkoa irudi du). Cf. letretako hau: «Eztuxu geio ez adixkideik ez ahideik ez nehere» / **gejoxoño, gehixoño** *zenb.* 'gehixeagoño'. Izenaren aitzinean ere joan daiteke: «Finitu beharko dixit gaizo M<sup>a</sup> Dolores, ez baitu geio lekuik», «orai ja gehixoño jende eza gutzen baitu» (MA).
- géka mintzátu, minto izán** *ad.* (da) Frantzeseko [R] ubularea ebakiz mintzatu: *Donjándarrak géka minto díra eskwáraz; lehéngo zahárrak ez, bána oráiko gáztjak, dénak.* Erran [R]éka mintzátu erraten da, aipatu [R] ubulare horrekin.
- gelári** *iz.* Apezaren andre laguntzailea ('gela' errateko, ordea, **ganbára** ibiltzen da Luzaiden). Cf. J. Etxepare medikuaren pasarteño hau (1996: 199): «Gelaria eta andere serora akort doazkonean, ertora urus da».
- gélđi egón, gélđik egón, gélđi-gélđja egón** *ad.* (da) Mugitu gabe egon: *Arrúnt mutíko nerbjósa dá hóri, eztá gélđik egóiten ahál.* Cf. MAren aipu hau: «...han ez baitzin berak nahi zinik iten, hok betiko trastiak baitira. Ofian dioxu geldi-geldia».
- geldítu** *ad.* (da-du) Gelditu.
- gérła** *iz.* 1- Gerra: *Ené aitátxi gérlan íbílđi zú-xun,* 2- Mokokaldia: *Zé hastjálak djén mutíko hórjek, bétđi gérlan.* Bada erranairua: *Étxe hútsa óro gérla* 'etxe hutsa aharra hutsa' / **gérłan aizán, gérla górrjan aizán** *ad.* (da) Mokoka ari izan, eztabaidan, eztabaida gogorrean ari izan: *Gérła górrjan ái txú bi anájak.* Ikus **diskutítu, mokóka aizán, patáskan aizán.**
- gerléro** *izond.* Gerla plantatzen duena; sakretako ere ibiltzen da: *Húra gizóń gerlérwa!, harékílan eztá sékulan bákeik izáin étxe hártan!*
- géro** *adond.* Gero: *Géro geróko gísa* 'gero geroakoak'. Cf. *orái oráiko gísa.*
- gerrén** *iz.* Gerrena, haragiaren erretzeko ibiltzen den burdina: *Aótzain étxjan gerréna zúrez.* Luzaideko arotzaren kontu liburuan

ere agertzen da (Satrustegi, 1969): «Bi gatina mail, guerren bat» (161), «gu[e]rren bat bi suburdina arriñatu» (169).

**gerríko** *iz.* Paxa. Ikus **uhál.**

**gerrúntze, gerrúntzjak** *iz.* Gerruntzea(k) / **gerrúntzjan mín izán, gerrúntzjetan mín izán** *ad.* (du) gerrietan mina izan / **gerrúntzetaik mínez egón** *ad.* (da): Gerrietako mina izan, gerrietako minarekin egon, 'lumbago' izan: *Gerrúntzjan mín díxit; gerrúntzetan mín díxit; gerrúntzetaik mínez njóxo.*

**gertátu** *ad.* (da) 1- Gertatu: *Eztjakixúť zé gertátu déń étxe hórtan,* 2- Egokitu, suertatu: «Biziki denbora [t]xarra gertatu zixun bidian juaiteko» (AB), «Alcaldek erranak egiak gertatu» (MA). Ikus **pástu, pasátu.**

**gesal.** Satrustegik (1963-64: 266) *gesal, gesaldu* biltzen ditu eta 'deshielo, deshelar' adiera ematen.

**gesáldu** *ad.* (da-du) Elurra urtzen hasi: *Elúrra gesáldu úk.*

**gezúr** *iz.* Gezurra / **gezúrra errán** *ad.* (du) Gezurra esan / **gezúrra sakátu** *ad.* (du) Gezurra esan, sinetsarazi: *Zé gezúrra sakátu zakón saltzále harí!*

**gezúrťi** *izond.* Gezurteroa, gezurra erraten duena: *Díla hamár úrte izán ginín etxetjárra arrúnt gezúrťja zén.*

**-gi, -ki** *atiz.* Lekua: *Barríki, berógi, etzángi, hedági, sárgi.*

**gída** *iz.* Goiti doan zuhaitzaren adar nagusia; erdaraz *guía* ibiltzen dute gauza beraren errateko.

**gidári** *iz.* Gidaria.

**gidér** *iz.* Giderra, kirtena. Luzaideko arotzak ere ibiltzen zuen (Satrustegi, 1969): «Pre-dotuac gatina pare bat, borz guider, bat arriñatu» (182), «ferreta bati bi guiderrac ezarri...6» (212). Inoiz *kiderra* du: «Ferreta bati quiderrac ezarri» (137). Etxaidek (1989: 179) *kánitáin giderrá* jaso zuen. Ikus **tailugidér.**

**giél** *iz.* 1- Atzea: *Giéleat* 'atzera', *giéljan* 'atzean', *giéleko* 'atzeko', *giélekoz aintzín* 'atzekoz aurrera', *giéłaxo* 'gibelxeago', *gielatékwan* 'atzera etortzean, bueltan etortzean': *Gielatékwan kártzaz-jé ógja.* MAk pare bat aldiz *gibel* aldaera osoa darabil; ABk, berriz, *gibel* osoa eta



- gil-* laburtua (*gilo* ‘gibelago’, *gileat* ‘gibelera’) darabiltza, hondarreko hau beste baina gutiagotan, ordea: *giél* eta *giéla* ‘atzeraturik’ errateko ere erabil daitezke: *Lán hóri bihárko finítu behár ginixin, bána óno giél díxju, tá eztíxju bururátuko*; «hemen bauxu lan, belarrak puxkat giela tixiu», 2- Gibela, organoa.
- gielátu, gjelátu** *ad.* (da-du) Atzeratu: *Áurten sagárrak gielátu txú puxkát; jáz ilárrak gielátu zjén ánitx hótzaingatik*. ABk *gibelatu* darabil normalean, baina behin *gilatu*; MAK *gielatu* du: «Aizan tuxu etxetat jipabide iten eta lanak gielatu. Etxandirat in omen dixie xarmanta lehengo beretik (...)».
- gielekálde** *iz.* Etxe baten edo beste zerbaiten atzeko alde. Ikus **aitzinekálde, aintzinekálde**.
- gielerrájak** *iz.* Satrustegik (1963-64: 266) *gibelarriak* jasotzen du eta dio ‘asadura (en la matanza)’ dela. Luzaideko hitza, ordea, guk jaso duguna da, zeria hiltzen denean mihia, bihotza, biririkak... batera ateratzen dira eta horiek dira **gielerrájak**, nahiz eta **giéla, gibela** alegia, bereiz ateratzen den.
- giélka** *adond.* Atzeraka: *Giélka sártu gínin ótwa étxjan*.
- gielóndo** *iz.* Gibelondoa, lana: *Bórdako gielóndo gúzjak íník héldu txú*. MAK *gilondo* darabil: «Iduri dixi puxkat hari dela zerbaiten iten, behien gilondo eta hola».
- gielurdín** *iz.* Gibelurdina, ziza mota bat.
- giélxko** *adond.* Franko gibel: *Lasterkári húna zéla értentzúten bána fíte giélxko geldítu zén*.
- giistíno** *iz.* eta *izond.* Kristaua. Etxaidek (1989: 207) *girixtínoa* bildu zuen.
- gíle, -íle** *atziz.* Egilea, egiten duena: *Azantzíle, bestíle, langíle, tarrataíle, xwikítíle*. Ikus **-gin**.
- giltxurrín** *iz.* Giltzurruna: *Gizón hárek sobéra edáten zínin gastédanik tá berrói urtétako giéla tá giltxurrínak jodítjak zínin*.
- giltza** *iz.* Luzaideko arotzaren liburuan ageri da: «Guilza bat buruberritu», «guilza bat beguia berrituric», «guilza berri bat» (Satrustegi, 1969: 212, 221). Egun **gáko** erabiltzen da, ez **giltza**.
- gín** *atziz.* Egilea, egiten duena: *Gaixtagín, hargín, ikazkín, jostagín, zapatáin, zurgín*.
- ginárri** *iz.* Giharra, gizona ez dena: *Mutíko muturfín húni zérrjain ginárria bezík etzjakoxó gustázen, gízéna éxi máite*.
- girgillérja** *iz.* Bitxi merkeen multzoa. Cf. hau (Barbier, 1926: 53): «...Piarresek sinheste guti zuelakotz arras, eztul tzar bat azienderi emaiteko baizik ez diren girgilleria zikin hetan».
- gíri izán** *ad.* (da) Behorra bero, igel egon: *Xurgináineko behórra gíri úxu*.
- gísa** *iz.* Modua: *Bí gisetá erráiten dá hóri ‘bi modutara erraten da hori’ / -ko gisa(n)*: *Géro géroko gísa, orái oráiko gísa*; cf. MAren hau: «Gu ere bagiatzixu aitzina neguko gisan, marranta eta han min hemen min» / **bére(n) gísa egón** *ad.* (da), **bére(n) gísa útzi** *ad.* (du) Lasai utzi, dagoen bezala utzi: *Úzkitxú hórjek béren gísa; bégo hóri bére gísa / béste gísan adond*. Bestenaz, gainera-koan: *Hóbe dú estudjátu, béste gísan eztú áisa aprobátuko*. Cf. hau: «Trein hortan juanez arribatuko omen [t]zuxun lau orenetako eta beste gisan, oren batekuan juanez, atseko hamekak eta hola egun argiz arribatzen duxu» (AB) / **gísa bérjan** ‘berdin’: «Errezibitu tixit xure letra eta felizitazionia; nike eta Ximonek gisa berian desiratzen dauxiu, Jinko hunak nahi din bezala» (MA) / **gísa guzieta, gísa guziz** ‘beraz’ edo: «Ze gauza ederra familian hoinbeste urtein pasatzia! Eskerrak Jinkuari! Anitz estimatzen dixit xure atentzionia gisa guzieta» (AB), «kontent nuxu hoin untsa baitzizte gisa guziz eta xure minak hola juanik, lana frangore iten» (MA) / **gísa hortan** ‘beraz’ edo: «Gu denak untsa gitxu, eta zieke ba, gisa hortan, bisita frango errezibituz» (AB) / **gísalá** ‘antza, irudi duenez»; behin bakarrik ageri da Luzaideko gutunetan: «Egonak zitxun gísalá bezperan ene beha, bana gure X-k lanak untsa ibili tixi» (MA). Arnegiko AAren eskutitzetan, berriz, behin baino gehiagotan agertzen da: «Díela bi aste errezibitu dut Anaia X-n karta eta huna zer igortzen dautan: telefona ukaldi bat izan du Bordeletik, norbaitek gísalá nahi du jakin, Y eta Z nun diren eta nahi du horien adreza» / **gístatea édo béstea** ‘modu batera edo bestera’ / **gísatéz** ‘gisa ba-

tez', 'nolabait (ere)': «Eztiakixut urteberri-tan jinen den; eguerri-tan etzela jiten ahal. Gisatez kontent gintxun etzain jin; beti bidian akituik eta onokuan kontent untsa jiten baita» (AB).

**gisáko, gixáko** *izond.* Atsegina: *Zé gixákwa dén nexkátó hóri!*

**gítarra** *iz.* Gitarra, musika tresna (espainoleko *guitarra*-tik, itxuraz).

**gizáizo, gixáixo** 1- *izond.* Gizajoa (bakarrik gizonekin ibiltzen da), **gáizo, gáixo** (gizon nahiz emaztekiekin): *Mutíko gizáizo horrékin egón dá sós gúzja xahútu ártjo. Gái-zo, gáixo* usu maitasunez-edo ibiltzen da: «Beraz, gaixo M<sup>a</sup> Dolores, hamarrak eta erdia baduxu eta lo itea jua nahia nuxu», 2- *izond.* Inozoa: *Gáizo háundi bát dá nés-ka hóri, nautén gúzja íten dúte horrékin.*

**gizatxár, gizatzár** *izond.* eta *iz.* Gizon gaiztoa: *Kasumán gizatxár hórrí, zernái iteko kapáble baitá.* Bigarren aldaera lehena baino oraino gogorragoa da.

**gizén** 1- *izond.* Gizena, lodia, 2- *iz.* Gizena, gantza: «Ximon beti azkar, bana untsa akitia duxu eta gizenak aisa jasaiten tixi» (MA).

**gizéud** *ad.* (da-du) Loditu, gizendu: *Bésta egín hótan gizéudu níz izígarrí; étxjan zé-rrja gizéntzen díxje géro abéndwan híltzeko.*

**gizón** *iz.* Gizona.

**gizóndu** *ad.* (da). Gizon egin: *Gúre mutíkwa ohártu gábe gizóndu záu.*

**gizonérja** *iz.* Gizon pila. *Zé gizonérja bíldu zén kórwan kántuz ártzeko!*

**gizongái** *iz.* Senargaia. Senarra adierazteko, ordeá, ez da **gizón** erraten.

**gizonketári** *izond.* Gizon bila ibiltzen dena: *Ez gínin úste Gaxúxa hóin gizonketárja zéla, harrápátzen tin gúzjekin íbiltzen dá.* Ikus **maztekári**.

**gizontasún** *iz.* Gizontasuna.

**gizotsu**. Satrustegik (1963-64: 266) gizon berezia dela dio, basapiztiaren larrua eta indar handia duena.

**gijeltxáki** *iz.* Ardiei belarrian egiten zaien marka, ebakia. Ikus **aixintxáki** eta **sáki**.

**glizina** *iz.* Landare baten izena (frantseseko *glycine*-tik): «Felixek moztiaik tixi glizinak eta in behar dienak».

**glórja** *iz.* Loria: «Jinkuak bere glorian daukala» (AB). Ikus **lórjan egón**.

**-go atziz.** 1- Izena sortzen du: *Ahidégo, jelósko, samúrgo*, 2- Lanbidea, jarduera: *Artzáingo, apézgo, ahózko, soldadógo, xoférgo*; ikus **-tza**, 3- Ekintza: *Ebásko*.

**goaindidúra** *iz.* Egozgaea, goragalea. MA *gohaindidura* darabil: «Alta niharen us-tez ez dixit jati-ane golosokeriaik iten, bana gohaindidurat pasatzen dixit». Manezaundik, berriz, *gohaindi, gohaindigarri* eta *gohaindika* darabiltza: «Zonbait ere aldi-xartu ziren, denak nahasiak khe tzar haren ganik, eta etzul zalaparta haren ondorioz gohaindika eta okhaka gehienak kanpoan hustu zituzten sabelak...» (1990: 47), «han zagon ukhurtua mamu itsusia, buztan gaitz bilhodun bat: zabaldua, azta-parrak arras haundiak, eta sudurretik atheratzen zaiko halako buztan luze mehar eta buluzi baten itxurazko zenbait, bustia edo urindua iduri. Gauzarik gohaindigarriena» (ibid. 58), «eta gohaindirik gabe yan hintiena?» (ibid., 88).

**goaindítu** *ad.* (da-du) Goragaletu, egozgaletu: *Horrén usínak bérak goáindítzen níxi.*

**goén** *izond.* Goiena, goieneko alderdia: *Péntze goéna óno iteko íxju; pekáldja góizjan finí-tu íxju.* Cf. *Goenétxja* (euskaraz) / *Casa Goinétxe* (gaztelaniaz).

**gógo, góho, góo** *iz.* Gogoá. Cf. letretako pasarte hauek: «Arribatu ziaxu xurekin elektetzeko oreña; beti gogoz ari ninduxun ixkiatzen eta sekulan ez lotzen» (AB), 'gogoarekin', 'buruarekin' alegia / **gógo-ko, gógozko** *izlag.* Ohikoak dira: «*Zé gogózko ásja ín dún!*» *aníz denbóra eláka pásten délaik érten dá, gogózko, gústuko gáuzekin;* «...atzo partitu dela Ameriketat seme gaztenaikin; han bazi[t]xin duaik bere gogoko zenbait» (AB) / **gógóz** *adlag.* 'Gogoarekin', 'buruarekin' ez ezik (ikus atalño honetan berean, goitixeagoño) 'buruz' ere bada: *Gógóz kási íxi libúru gúzja.* Cf. Arnegiko AAren pasarte hau: «Ikusi behar xinuke nola X-k erakusten dazkian eskolan eiten tien ixtorioak; izigarriko buru eta hartze huna dixi (alfabia). Orai-kotz badiakixu burian buru eta gogoz» / **gógwa sáldja (ez) izán** *ad.* (du) itzuliak '(ez) amore eman' erran nahi du: «Orai lehenik jin behaxie gizonen, ez dixie gogua

saldia» (MA) / **gógwan atxíki, gógwan hártu, gógwan izán** *ad.* (du): *Gógwan atxíkaxu ník errán dauxútana / gohótik aizán* (da-du): *Gohótik ái zixin elúrra égun hártan / gohótik ín ad.* (du) / **gohótik jin, jwán** *ad.* (da): *Gohótik ínén dixju lán hóri (gústjan ínén dixju lán hóri)*, «untsa gohotik jin nindiaikexu» 'ongi gogotik etorriko nintzateke', xuka (AB) / Bestalde, **gog izán, gó izán** *ad.* (du) 'asmoa izan' da: *Eztút étxeat jingó 'ez dut etxera etortzeko gogorik', eztuzjé hérrira itzúligó 'ez duzue herrira itzultzeko gogorik', gáitzeko afárja íngo íxju = gáitzeko afárja góo íxju ín 'izugarrizko afaria egiteko asmoa dixugu'*. ABK honela dio: «Untsa muntatuik, bana bestez behar delaik etxu nahi dena ukaiten; orai ez balitu ereman eniakoxun geio errango». Bestela, beste hizkera batzuetako *gogo gutúzja* erraten da; ikus sarrera hau eta **idéja izán, idéja ukán**.

**gogwéta** *iz.* Gogoeta. Ez da biziki ibiltzen; honen adierazteko **pentsakéta** erraten da arruntean.

**gohór** *izond.* Gogor.

**gohórnu, goórnu** *iz.* Gobernua. Ikus **goornatu**.

**gohorrérja** *iz.* Idorreria (komunera joaten garenean).

**gohortasún** *iz.* Gogortasuna.

**gohórtu** *ad.* (da-du) Gogor bihurtu, gogortu: *Igándjan elúr púxkat intzixin, géro karróindu éta beréhala gohórtu*.

**gohótz** *iz.* Gorotza. Ez da, dakigula, sobera ibiltzen egun. Guk **gohótzta bezáin aférra izán** errateko maneran aditu dugu: *Gohótzta bezáin aférra úxu mutíko hóri*. Lesakan Etxaidek (1989: 247) *alfér gorotzá* bildu zuen. Ikus **afér**.

**gohóztu** *izond.* Goroztua. Sakreetan ibiltzen da, **afér**-ekin batean beti: *Hígi hadí hórnik, afér gohóztu zikína!*

**goianditu**. Satrustegik (1963-64: 266) biltzen du eta 'prepotente' adiera ematen.

**góibél** *iz.* Hodeia. ikus **hodéi** eta **láno**. Etxaidek (1989: 37) *hoibela* (<sup>h</sup>*oibela*) biltzen du.

**góiti** 1- *adlag.* eta *post.* Gora (ikus **góra**); normalean datiboa gobernatzan du: *Méndjai góiti jwán ginén; xáxi eskalerrér góiti*, 2- *post.* Ablatiboarekin, '-tik aitzina, aurrera'

adieraz: *Heméntik góiti hástico gítxu ejerzízo púxkatén iten*, 3- *iz.* Gorakoa, goitika, oka / **góiti bóta** *ad.* (du) Gora bota, oka egin. Ikus **errénduka aizán**.

**góiti bótake aizán** *ad.* (da) Errenduka ari izan: *Béti góiti bótake ái dúxu*.

**góiti errénduka aizán** *ad.* (da) Errenduka ari izan, goiti botaka ari izan.

**góitibéiti** *iz.* Gorabehera, harat-hunata / **púxkat góitibéiti** 'gutxi gorabehera': *Púxkat góitibéiti badákju zónbat góstako záun étxja; -Hóla deà hóri? -Púxkat góitibéiti bá*.

**goitítu** *ad.* (da-du). Ikus **altxátu, gorátu** eta **irán**. Prezioak **goitítu** edo **gorátu** egiten dira, ez **altxátu**.

**goíz** 1- *iz.* Goiza: *Goíz górrí, átseko itúrri* (esamoldea; arruntean *túrri* ibiltzen dute), 2- *adond.* Goiz / **goíz édo béant** 'tarde o temprano': *Goíz édo béant azidénte át behártzixin izán ótwaikin / góizik adond.* Goiz: *Igándjan góizik jéiki níntxun mén-dira jwáiteko*.

**goízizar** *iz.* Artizarra.

**goiztjár** *izond.* Goiztiarra, goiz ontzen dena: *Landátu íxju lusár goiztjárre*. MAK *goixtiar* darabil, behin: «Lusarre bauxu untsa; guk ez dixiu ohono dena ateiaia, goixtiar puskat».

**golátu** 1- *ad.* (da). Ardiek paparrekó gaitza hartu (ikus **gólo**), 2- *izond.* Sakretako ere ibiltzen da: *Urdé golátu zikína hí!*

**golde** *iz.* Goldea, nekazaritzako lanabesa. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 182, 242): «Golde burdina bazu», «zazpi gatina mail berri einic golde narredac».

**gólko** *iz.* Mordoa. Ikus **maháts**.

**gólo** *iz.* Ardien gaitza da, paparrekó. Izetak (1996: 114) *kolatu* 'tisiak jo <ponerse tísicas las ovejas>' dakar.

**golosokeria** *iz.* MAK darabil, behin; guk ez dugu inoiz aditu: «Alta nihauren ustez ez dixit jatiane golosokeriaik iten, bana gohaindidurat pasatzen dixit».

**gomendatu** *ad.* Satrustegik (1969b: 43) biltzen du: «Bela benedikatu, gu zuri gomen-datu».

**góntz** *iz.* Gontza, ate orpoa. Ikus **partadéra**. Luzaideko arotzak badarabil (Satrustegi, 1969: 146, 162, 174): «Bi partadera pare

gonzequin», «borz gonz berri partadera arriñatu», «bortaco partadera 7 gonzequin».

**Góñi** z. Gaineoletako *Goñinja* etxeko nagusia. *Góñi* azken jabearen deitura da; lehen *Koxinénja* erraten zitzaion etxeari, eta izendapen hau ez da erabat desagertu.

**goornatu** *ad.* (du) Gobernatu. MAk darabil, behin.

**goósti** *iz.* Gorostia.

**gootátu** *ad.* (da) Bururatu: *Gootátu zjákoxo loteria géjoin eróstja*. Ikus **buutátu** eta **okurritu**.

**gopór** *iz.* 1- Zurezko ontzia, 2- Animalien *va-gina* (≠ umeontzia). Ikus **umeúntzi**.

**góra** 1- *adlag.* Goiti (**góiti** normalagoa da adiera honetan): *Góra njáxu, elízat*, 2- *izond.* Garaia, altua (era mugatuan *gorája*): *Luzáide óndoko méndjak gorájak txú bíziki*, 3- *adond.* Ozenki: *Míntza xíte góro, besténaz eztauxút áituko*. Ikus **apál** / **góraik** *adond.* Goraturik, gora, xut: *Hórrek náixi dwáike péntzja beretakótu, tá óno búrja góraik íbílíko úxu* / **gorásko** *adond.* Franko gora. MAk *gohorasko* dakar: «Lehenore izana ninduxun, bana orai kenduzkioz aparato hori, polliki duxu biziki. Besua gohorasko goititzen dixi».

**goráintzi, goáintzi** *iz.* Goraintzi: *Goráintzi Pátxi!*, *goráintzjak Pátxi!* 'goraintzi(ak) Patxiri'. Luzaideko eskutitzetan *milaka goraintziak, goraintziak milaka, mila goraintziak, miliunka goraintziak, goraintziak* agertzen dira ondoan datiboa dutela, lehena batik bat. Mugagabeko aldaera ere azaltzen da gutunetan: «Dener goraintzi ene partez, eta auzoko andere horierre ba» (AB), «Ximonen parteze urte hun eta goraintzi» (MA) / **goráintziak emán** (normalean), **goráintziak errán** (zenbait aldiz) *ad.* (du) Goraintziak, eskumuinak eman. Luzaideko gutunetan **goraintzi erran** ere badago: «Goraintzi errexu ene partez», «Juan den astelehenian izan ninduxun Donianen eta X-n ikusten, bistan dena. Erran diaxu goraintzi eta jinen giela denbora lazatzen delaik», «erran diaxu goraintziak erraiteko haren partez» / **goraintziak errezubitu** *ad.* (du) Goraintziak hartu. Eskutitzetan agertzen da: «Errezi-

bituko txu gure familia guzian partez goraintziak. Don Jose Mari gisa berian» (AB).

**góraki** *adond.* Ahots goran, ozenki: *Gizón húra béti góraki míntzo zén; míntza xíte góraki, áitzeko gísan*; MAk *gohoraki* dakar, pasarte berezi batean: «X-n hiltzia ez dixie hain gohoraki hartu; igorria omen zixun berak etzela bate untsa».

**gorapén** *iz.* Ilgora.

**goratasún** *iz.* Garaiera: *Goratasún háundia íxi méndi hórrek; zapéta ttípjak íbílízen tú dín goratasúnaindako*. Manezaundik (1990: 87) *gohoratasun* darabil: «Uhinak heltzen dituk, mendiak bezala, lerroka, aitzinatzen eta hurbiltzen. Bat bathian, burrunban leher eta zaphart egiten die harrokan bidia hurbil, eta izigarriko gohoratasunerat altxaturik, dena hagunez xuritu, uhaste batek bezala bazterrak estaltzen ditik. Debrien bisaja! Zé bustialdia yasan nien!»

**gorátu** *ad.* (da-du) Igo, goititu: *Píswak undárrreko úrte hotán ánitiz gorátu txú Iruñen, inférnutan góiti jwának txú!* Ikus **altxátu** eta **goitítu**. MAk *gohoratu* darabil, 'goretzi, laudatu' adieraz: «Gaixo apezak, zoin hunak dien Luzaidendako, dien lekutaik nola ari dien Luzaide aski ezin gohoratuz».

**górbe** *iz.* Behiei zaldarea emateko lekua.

**górde** *ad.* (da-du) Ezkutatu: *Ermáiru horrén bárnjan górdé níz* 'armairu horren barruan ezkutatu naiz', *ermáiru hórta górdé dút*. Ikus **altxátu** eta **beirátu**.

**górdeka** *adond.* Ezkutuka / **górdeka íbílí** *ad.* (da) Ezkututzen ibili: *Hórjek etxje enékin míntzátu nái tá górdéka djáiltzatxú*.

**gorkáil** *izond.* Gorrixka. Cf., atzizkia dela eta, **zarkáildu**.

**gormandíza** *iz.* Goxokia (frantseseko *gourmandise*-tik): *bizkótxa, bumbínak...e.a.*

**gormánt** *izond.* Goxozalea, goxokizalea (cf. frantseseko *gourmand*): *Gátjak gormántak tíra*.

**gorpútz** *iz.* Gorputza.

**górri** *izond.* 1- Kolorea, 2- Zerbaiten intentsitate adierazten duen hitza: *Bixkáiko zakúrra etá Unajáingwa ahárran ái txú, kalapí-ta górrjan; gérla górrjan ái txú bí anájak*, 3- *iz.* buru gorria duen ardia, 4- *iz.* Bolant

- eguneko pertsonaia, gorriz beztiturik joaten dena. Eskuarki bi edo lau izaten dira, bikoteka ateratzen baitira.
- gorrínak** *iz.* Helgorria: *Mixel gorrínekin djóxo.*
- gorríngo** *iz.* 1- Arrautzaren gorringoa, 2- Ziza mota bat, horixka Satrustegiren arabera (1969b: 57).
- gorritu** *ad.* (da-du) Gorritu: *Léhen gásnak sújain óndwan gorrítzentzjén, azálain íteko.*
- gosáil** *izond.* Dena jan nahi duena, dena bere-tako bildu nahi duena (< *gose* + *hil*, menturaz. Cf. beste hizkera batzuetako *gosekila*).
- góse** *iz.* Gosea / **góse izán** *ad.* (da): *Góse nizá-laik ógi púxkat ján éta xarmánki geldítzenúxu / gósjak amarrátja izán ad.* (da): *Égun gúzjan lánjan aizána núxu éta wái gósjak amarrátja núxu.*
- gosétu** *ad.* (da-du): *Baruráustetik ján gabé nó tá arrúnt gosétu níz.*
- gosta izán, gostátu** *ad.* (da) Kostatu: *Gósta zjé-xu arrañátja ‘kostatu zaie konpontzea’, mutiko hórri zernái gostátzen zjókoxo kabálen arrañátja; gostáko záko ánit; gostátuko zé ánit / gostája izond.* Kostatua: *Anítz gostája íxit óto bérja / gostátzen déna gósta ‘kosta ahala kosta’: Óto bérja erósi beháixju gostátzen déna gósta.*
- góstuz** *posp.* Genitiboarekin erabiltzen da ‘-en kontura’ adierazteko: *Aitámen góstuz bízi dá hóri.*
- goxáro** *adond.* Izugarri gustura: *Goxáro edán nezaké báswat áno.* Ikus **goxóki, goxókixko.**
- góxo** *izond.* Goxoa / **góxo (ez) izán** *ad.* (da) Atsegina (ez) izan: *Eztá góxo lánetik lán-da béjen déiztea jwán béhar izáitja.* Cf. letretako pasarteño hauek: «Gelditzen nuxu xure berri huren esperantxan; biziki goxo ziaxu xure letráin leitzia» (AB), «zernahi dela, ez duxu goxo bezperan untsa utzi eta bihamunian bietano hilik atzeman», «lanak akitzen dixi ba, bana ez dea goxo, atsetan, etzatea juaitéan kontzientzia trankil, eguna untsa beteik?» (MA). Ikus **plazér izán.**
- goxóki** *adond.* Gustura, gustuan / **goxókixko** *adond.* Goxaro: *Báswat áno hártu íxit goxókixko.* Ikus **goxáro.**
- gozátu, goxátu** *ad.* (da-du) Gozatu. Cf. Letretako pasarteño hauek: «Denbora guti pasatu ixie hor; etzizte biziki goxatu hemengo berritan, bana pentsatzen dixit printzipalak ihardoki tuziela» (AB), «orai guri iduritzen zitziáuxun haurrak hazik behar zila puxkat gozatu, bana Jinko hunak ez baitzin nahi» (MA).
- grama** *iz.* Gramoa (frantseseko *gramme*-tik). Cf. MAren hau: «20 egunendako ohian ezarri dixi; lehenbiziko 10 egunez berdura eta fruita bakarrik eta orai utzi diakoxu 100 grama arrain eta ehun grama haragi erreik».
- granpóin** *iz.* Satrustegik dioen bezala (1969: 278) ‘grapa’ adiera du gaur egun ere, konparazione *gatína xixtadúna* atxikitze-ko ibiltzen dena. Luzaideko artzak ere badarabil: «Granpoin bat bi abisequin» (202), «zinta bat amasei granpoin» (212), «iru maquilen zinta, sei granpoin berri» (215), «granpoin bat pincheta pare bat arriñatu» (254).
- grázja** *iz.* Grazia / **grazia eman** *ad.* (du): «Nike jiten nizalaik Jinkuak grazia emaiten badaít, errain dauzkitxut» (MA) / **grázja ín** *ad.* (du) Grazia egin: *Etzán báte grázjaik ín hórrek errántzának.*
- grilla** *iz.* Erretokia, ‘parrilla’ (frantseseko *grille*-tik). Luzaideko artzak darabil (Satrustegi, 1969: 165, 182): «Grilla pare bat arriñaturic», «grilla bat furneucó».
- grípa** *iz.* Gripea (frantseseko *grippe*-tik). *Grípa* izena ardura *gáixto, izígarri* eta *zár* izenondoeekin ibiltzen da: *Harrápatu íxit grípát izígarria!* Cf. MAren hau: «Ikusten dixit jakina duxula ez untsaz egon nizala, ama hil zelaik egon ninduxun hoin eri, 15 urte. Gripa gaixtua duxu aurtén; ez dixit medikuik izan» / **grípa atzémán, bíldu, harrapátu** *ad.* (du) Hotzeria harrapatu. Ikus ondoko sarrera.
- gripátu** *ad.* (da): *Átzo méndirat jwán, bústi éta gripátu nintzán / gripátja izán ad.* (da) Gripearekin egon, gripea izan.
- gú, gúk, gúre, gurékin, gurékilan, gúri, gú-taz, guháur, guháuk, guháuri...**e.a. *izord.* Gu, guk, gure, gurekin, guri, gutaz, guhaur, guhaurk, guhauri...e.a. Cf. hau: «Guk orai guarendako ez ginikixi holako

trakasa beharrik, nahiz Ximone hola gustatzen den» (MA). Satrustegik (1969b: 84) kanpoko mutil bat Luzaideko neska-  
ren batekin harremanetan hasten zenean  
herriko mutilek ibiltzen omen zuten esa-  
moldea jasotzen du: «Urdia! ¿zertá jiten  
da hunat? Guk etxiu guaunak guaundako  
sobera...». Nolanahi ere, pasarte hau xu-  
kan dago, franko gauza bitxia testuinguru  
honetan.

**gudronoztátu** *ad.* (du) Enbreatu (frantseseko  
*goudron, goudronner* oinarritzat harturik).

**gukúlu** *iz.* Artoaren muturra: *Móztén zúxun lé-  
hen bérdian, ganít bátekin, béjer emáiteko.  
-gúne atziz.* Lekua: *Bihurgúne, haizeitzalgúne,  
itzalgúne, zelaigúne.*

**guraso** *iz.* (Satrustegi, 1969b: 67). Ikus **aitá-  
mak**.

**gúri** 1- *izond.* Biguna: *Bizkótxa hórjek arrúnt  
gúrjak txú, kátxu bésteát,* 2- *adond.* Bigun:  
*xokolátja irúzkitá egóna úxu tá wái gúri  
djóxo arrúnt.*

**gurítu** *ad.* (da-du) Bigundu: *Ógja plástikwáin  
bárnjan sártzen báuzu, gurítuko záuzu.*

**gustátu** *ad.* (da) 1- Gogokoa izan, 2- Ongi pa-  
satu. Cf. gutunetako bi aipu hauek: «Juan  
den igandian meztatik etxeatekuan deitatu  
nindixin xure berrien emaitako, biziki gus-  
tatuik jin duxu eta kontent», «guk orai gua-

rendako ez ginikixi holako trakasa beha-  
rrik, nahiz Ximone hola gustatzen den»  
(MA).

**gústu** *iz.* Gustua: *Gústu-gústjan ján dút* ‘gustu-  
gustura jan dut’, «engontik etxia ari duke-  
xu xeure gustian zartzen» (AB). Ikus **gógo**.  
**gúti** *adond.* eta *zenb.* Gutxi; *gútjo* gutxiago,  
*gutjéna* gutxiena.

**gutízza** *iz.* Gogoa / **gutízza izán** *ad.* (du) Go-  
goa izan: *Eztút gutízzaik* ‘ez dut gogorik’,  
*eztút hóri íteko gutízzaik* ‘ez dut hori egi-  
teko gogorik’, *átzo jíten ál nín txun bána  
eníxin gutízza erréstoike* ‘atzo etortzen  
ahal nintzen baina ez nuen gogo arrastorik  
ere’. Ikus **gógo**.

**gúzi** *zenb.* Guztia: *Gízón gúzjak ján dirá.* Ez da  
eskuarki segurik *gúzja ján dút* erraten –ho-  
nen ordezt *déna ján dút* ibiltzen da–,  
baina gutunetan honen modukoak kausi-  
tzen ditugu: «Huntan gelditzen nuxu, ema-  
nez guzien partez milaka goraintziak Don  
Jose Mari, Maria Jesusire hor bada», «X  
gaizua eztiakixut jinen ahalko den; untsa  
plazer ginikexi guziek» (AB). Ikus **déna**  
eta **óro**. Formari doakionez, nabarmendu  
daiteke B. Etxeparek ere (1980 [1545]: 18)  
*guzia* darabilela.

**gwárdja** *iz.* Guardia zibila / **wardjésa** *iz.*  
Guardia zibilaren emaztea.

## H

**haatásko** *adond.* Franko harat: *Háurra haatásko jwána úxu.* Ikus **hára**, **hárat**.

**haatekálde** *iz.* Hango aldea, **haatekáldetik** *adlag.* Hango aldetik.

**haatékwán** *adond.* Hara joatean: *Haatékwán géldi xíte botígan éta erós zaxú botóilat áno.* Ikus **hunatékwán**.

**hága** *iz.* Haga, makila lodi eta luzea. Ikus **atalága**.

**hagín** *iz.* Hagina (ahokoa).

**hagún** *iz.* Lerdea, aparra. Ikus **eldér**.

**haidór** *izond.* Lanean trenpean, martxa onean aritzen dena. Cf. Manezaundiren hau (Irigarai, 1958: 69): «Ez, ez diat adituko holako erdeinuak, eta ikusiko die adixkideek ez nizala pikaren azken umia, ez eta ere irri egiteko errekaitu bat, tetela, ergela, edo mentsa, bainan gizon bat haidorra, eta buru bipilekoa».

**háil** *ad.* Hoa, joan hadi. Aginteran *hoa*-ren partez ibiltzen da: *Háil áitainganà ta érrakok jín dáin beréhala.* Erabilera honen ondorioz mespretxuko erranairuetan ere agertzen da, jakina: *Háil antzára ferrátzea, háil kakíteá, háil pórru landátzea, háil zakúrrain púrdira(t).* Bestela, *jakín* aditzaren laguntzarekin edo hori gabe, 'auskalo' balioa du, *notáki*-k duenaren antzekoa: *Háil (jakíteá).* Xuka eta zuka ari direlarik *jwán* aditzaz baliatzen dira: *Xáxi (jakíteá), zázi (jakíteá).* Ikus **nór**.

**háin**. Hain: *Háin dúxu pollíta!* ABk eta MAK *hain*-ekin batean *hoin* ere usu ibiltzen dute. Cf. **hainbéste**, **hoinbéste**.

**háin justóki** *adond.* Hain zuzen ere. Ikus **justóki**.

**hainbat**. Ikus **hamagáixto**.

**hainbéste**, **hoinbéste**, **hoinbertze** Hainbeste: *Nún egóna xíra hainbéste denbóra hún-tan?* ABk eta MAK *hainbeste* eta *hoinbeste*-rekin batean *hoinbertze* ere badarabilte, baina ardurakoenak lehen bi aldaerak dira gutunetan, eta bi hauetan duarik gabe *hoinbeste* da gehien agertzen dena, alde handiz. Satrustegik (1969b: 44) ekaitzak urruntzeko ondoko hitz hauek erraten direla dio, eta gehitzen du Aezkoako euskararen eragina jaso dutela: «Jangoikuak duela parte, Aingeriak bertze ainbertze, Etsaiek batre».

**haintséur**, **haintséurre** *adond.* Segur aski (ere): *Gú etxéa ordukó anája haintséur hán dukúxu.* ABk *-g-dun* aldaera erabiltzen zuen: «Potretake igorri dizkixie biziki pollitak. Xurire igorriko dauxute hain [t]segur». Ikus **setír**.

**haítz** *iz.* Haritza. Luzaideko arotzak *ariz ondo* du: «Errezibitia bi ariz ondo» (Satrustegi, 1969: 161).

**háize** *iz.* Haizea / **háizja aizán** *ad.* (du), **háizja ibíli** *ad.* (da): *Háize azkárta djailak!* 'haize handia ari du'; *háize látza djailak, háize látza ái dík* 'haize mehea ari du' (*aizán* gutxiago ibiltzen da), *háize errebésa djailak!* (batez ere hegoaizea dabilenean, haize handia), *háize faxósa* 'haize desatsegina' edo, *háize háundja* 'haize handia', *háize mírja, háize míru bát* 'haize hotza'. Cf. MAren hau: «Fruitare guti, sagarrik erreximeta iteko doia eta orai ibili dixi izigarriko haizia, denak bota baititu». Añes Kaminondorendako *háize látza* hegoaize hotza zen eta *háize mírja* pekoaize hotza. Ikus **haizégo**, **iruzkiáize**, **peko háize** eta **zejarráize**.

**háize-tirurítu** *iz.* Haize zurrunbiloa: *Bárdako háize tirurítjak eréman djáuxu teilátu gúzja*. Ikus **tirurítu**.

**haizégo** *iz.* Hego haizea. Ikus **háize** eta **hégo**.

**haizeitzalgúne** *iz.* Haize gerizpea.

**haizeukáldi** *iz.* Haize kolpea.

**haízti** *iz.* Hariztia.

**hála** *adond.* Hala. Euskara batuko *honela*-ren kiderik ez dute; ikus **hóla** / **hálalá** *adond.* Hala-hala, bere horretan. Ikus **hólolá**. MA-ren eskutitzetan *hala-hala* ere ageri da behin: «...eta hor (...) atzeman dixie erorik, karrikatik heldu delaik, eta harek, jakina –beldurtia beti– hala-hala utzia».

**hálaiké** *lok.* Halarik ere.

**haláko** *izond.* Halakoa.

**halátsu** *adond.* Goiti-beheiti hala.

**haláxe-oláxe** *adond.* Hola-hola: *–Nóla zúra egún? –Haláxe-oláxe.*

**háltz** *iz.* Haltza.

**hamagáixto** (*esapidea*) Hainbat zuretako kaltea. Ez da ohikoa; dakigula hurrengo esamoldean ibiltzen da: *Hamagáixto hór sár-tzen baxíra!* ‘hainbat zuretako kaltea hor sartzen bazara!’.

**hámar** *zenb.* Hamar; *hamárna*, *haméka*, *hamékara* ‘hamaikana’, *hamábi*, *hamábira* ‘hamabina’, *hamátru* (Etxaidek [1989: 358] <sup>h</sup>*amahíru* jaso zuen), *hamaláu*, *hamóst* (normalean. ABk *hamabost* erabiltzen du; Etxaidek [1989: 360] <sup>h</sup>*amabóst* bildu zuen), (*h*)*amabórtz* (F. Camino, Euskaltzaindia, 1999: 110), *hamaséi* (Etxaidek [1989: 361] *amaséi* bildu zuen), *hamazázpi* (Etxaidek [1989: 362] *amazázpi* jaso zuen).

**hamarréko** *iz.* Mus jokoan bost puntuz egiten den tantoa.

**haméketako** *iz.* Hamaiketako edo. Ikus *Satrustegi* (1969b: 49).

**hán** *adond.* Han, **hántik** (ABk *handik* eta *hantik* ditu batean, MAK *hantik* baizik ez), **hángo**, **háat**, **hára**, **haráno** / **hántik aitzína**, **hántik góiti** ‘handik aurrera’.

**hanbáteko** *izlag.* Izugarrizkoa (= **izigarriko**). Gutxi ibiltzen da. Ikus **alímaleko**, **gáitze-ko** eta **izigarri**.

**háneménka ibíli** *ad.* (da) Hantxe-hementxe, harat-honat ibili. Ikus **hántxeméntxe ibíli** eta **hát éta húnat ibíli**.

**hánka** *iz.* Aldaka, iztargaina. Ikus **zángo**.

**hanpátu** *ad.* (da) Hanpatu, enpotu; ase handi bat egin ondoan *hanpátu níz* erraten da.

**hántu** *ad.* (da) Kolpe baten ondorioz handitu (≠ **hértu**): *Hántu zjaxú zángwa; hántu dén lékutik hértuko úxu*. Haserre dagoenaren-dako erraten da, pasatuko zaiola aditzera emateko.

**hántxe** *adond.* Han berean.

**hántxeméntxe** *adond.* Harat-honat: *Igánde gúzja pástu íxit Iruñen hántxeméntxe / hántxeméntxe ibíli* *ad.* (da) Harat-honat ibili. Ikus **háneménka ibíli** eta **hát éta húnat ibíli**.

**hapátu** *ad.* (da) Hatsankatu, hatsanditu. Ikus **hatsankátu** eta **hatsbahítu**.

**hár** *iz.* Harra.

**hára** *Adlag.* Hara (adlatiboa); **hárat**, **haát**, **hát** ere ibiltzen dira.

**hará** *Interj.* Harridura adierazteko hitza: *Hará! Hémen dá bérrize gúre mutíkwa.*

**harági** *iz.* Haragia.

**hardít** *izond.* Ernea (gaskoiko *hardit* ‘ardi’, impudent’-etik). *Satrustegik* (1963-64: 257) «*ardíta*.- Espabilado, listo» dakar.

**hargín** *iz.* Igeltseroa. Luzaideko arotzak *arguin mailu* dakar (*Satrustegi*, 1969: 186).

**Hargína** *iz.* Azoletako *Hargináinja* etxeko nagusia. Aitzinetik pertsona izena sartzen bada, etxe horretakoa dela adierazten da, nagusia izan edo ez izan. **Harginésa** *iz.* *Hargináinja*-ko etxekoandrea.

**hargíntza** *iz.* Igeltserotza.

**hári** *iz.* Haria.

**háro** *iz.* Kalapita edo. Cf. MAren hauek: «Deuse ez dinat senditzen, ez diakinat zere-dako plantatu duten holako arua», «...bana beste aferarik jin baita, nahiz baden lekia denendako, izigarriko harua diai-laxute». Cf. **áro**.

**harrabóts** *iz.* Kalapita. Ikus **azántz** eta **kalapí-ta**.

**harrapátu** *ad.* (du) 1- Harrapatu, hartu (Biarne-sez eta gaskoiz *arrapà*, *rapà* da aditza): *Hágo íxtánpat ágo, harrapátzen bahút kísko úk!*; *óto aték harrapátu íxi*, 2- aurkitu, kausitu: *Harrapátu dját gáldu nín pilóta; harrapátu íxit gáldja nín peténta, gambá-ran; harrapátu hút* ‘harrapatu haut’; *gáitzta, marránta... harrapátu*. Ikus **atzéman** eta



**kausitu / búztanetik harrapatu** *ad.* (du) Erranairua da, ‘joan eta harrapatu’ adiera duena: *Zózwa idúri zján bána bánkuko direktóra in djé, harrápa zák buztanetik, tó!*

**hárrí** *iz.* 1- Harria; giltzurrunetakoa ere *hárrjak* dira, 2- Harriabarra, ale larriko kazkabarra: *Baázizkórre báno haundjógwa úxu hárrja.*

**hárrí eráuntsi** *iz.* Ale larriko kazkabar erauntsia. Ikus **eráuntsi**.

**harri landu** *iz.* Satrustegik (1969b: 95) ‘piedra de sillería’ adiera ematen dio.

**harrígarri** *izond.* 1- Estonagarria, 2- Beldurgarria: *Zonbáit gázte zé irrískutan ibíltzen djén! Harrígarri úxu bá!*

**harríka** *adlag.* Harri botaka: *Harríka igórri gintján hérritik.*

**harríketa** *adond.* Harri bila. Luzaideko arotzaren kontu liburuan *arriqueta* ageri da (Satrustegi, 1969: 156, 197).

**harristátu** *ad.* (du) Harriztatu. Satrustegik (1963-64: 258) *arristatu* ‘empedrar’ dakar. Manezaundik, berriz, *harriztatu* darabil (1990: 304).

**harrísu** *iz.* *Péntze batén zerrátzeko íten den harrízko múrru típja.*

**harrítu** *ad.* (da-du) 1- Estonátu, 2- Arrunt izutu, kikildu. Cf. Elkanokoaren *lotsatu* ‘beldurtu’, eta *lotsarritu* ‘biziki beldurtu’. *Hótzak harrítja izán* erranairuak ‘hotzak akabatzen egon’ adiera du. Ikus **hótz**, **izítu** eta **lotsátu**.

**harriukáldi** *iz.* Harrikada, harriarekin ematen den kolpea.

**harriukáldika aizán, hási** *ad.* (da) Harri botaka ari izan, hasi.

**harrjái** *iz.* Izialdura: *Zé harrjájja emán daxún!* ‘Zer izialdura eman didazun!’ Ikus **izjaldúra**. Izetak (1996: 45, 102) *arrialdure* eta *izialdure* biltzen ditu Baztanen.

**hárrro** *izond.* 1- Bestaegilea, parrandazalea, 2- Harroa, harrotua: *Bílo hárrro bátzukin jéiki zúxun.* Ikus **urgulúntzi**.

**harroáldi** *iz.* Harrotua: *Gáitzeko harroáldja emán dakóu íljai.* Satrustegik (1963-64: 258) *arroaldi* ‘sacudida, meneo’ bildu zuen. Ikus **harrótu**.

**harróia** *iz.* Harrobia.

**harrótu** *ad.* 1- (da-du) Harrotu (zentzu fisikoan, ez ‘harropuztu’): *Bílwa harrótu, ílja*

*harrótu* ‘artilea harrotu’, *erráutsa harrótu*; cf. letretako pasarte hau: «Izan nuxu bi atsaldez Joakinaikin Juanitoin matalazain iten. Ile berria eta eskuaz harrotu nahi zixin; in dixiu matalaz bat ederra. Oihalare ederra» (MA), 2- (du) Erabili, ibili: «M<sup>a</sup> Jesus ez dela untsa? Ez dikexi gauza haundik arai. Pentsatzen dixit hemengo berriak harrotu tuziela» (MA), 3- (da) Mugitu, egoera jakin batzuetan (ohatzetik eta): *Ník úste mutíkwak hásjak tjén harrótzen (ófetik jeikítzen) / búrja harrótu, káskwa harrótu* *ad.* (da) Burutik egin, erotzen hasi edo; norbait zozokeriak egiten hasten delarik erraten da: *Zé, búrja harrótzen hásjá ukà?; zé, káskwa harrótzen hási zéjà?*

**hartáko** 1- *izord.* Hartarako, 2- *adond.* Horregatik: «Bihar Inesen ttanttain urteburia; juan beharko dixit, hartako ari nuxu» (MA).

**hártu** *ad.* (du) Hartu: *Libúru bát hártu níxin éta jwán níntxun ófeat harén léítzea.*

**hártz** *iz.* Hartza.

**hartzále** *iz.* eta *izond.* Hartzailea. Luzaideko gutunetan ageri da: «Orai egoiten nuxu pentsatzen ttanttak nola utzi ote tin; gutaz eztukexu ez ohitu, hane hartzalia frango ba» (AB).

**hártze** *iz.* Ikasteko erraztasuna. Cf. Arnegiko AAren hau: «Ikusi behar xinuke nola X-k erakusten dazkian eskolan eiten tien ixtorioak; izigarriko buru eta hartze huna dixi (alfabia). Oraikotz badiakixu burian buru eta gogoz».

**hartzeko** *iz.* Hartzekoa, kobratzekoa. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969): «Arzeco baratu 2,10» (195), «arzeco baratia» (205).

**hásasa átea, íbili, jwán** *ad.* (da) Arropa gutirekin atera, ibili, joan: *Etxétik átea níxu hásasa, béro délakotz.* Cf., gainera, **atórras**, **búruas**, **larrwaséko**.

**hasberapén** *iz.* Hasperena.

**hási** *ad.* Hasi (da-du): *Érja érre zúxin supaz-térrjan éta hási zúxun garrájjaka tá nígár marráskaka; lán hún batén harrápatzeko behárko uxú inglésain ikásten hási.* Zerbait aldiz *artio*-rekin batean ibiltzen da, abiapuntua eta abiaburua adierazteko: «Sasoina in dixi Karmelok, maiatzain le-

henetik hasik urriain erdiartio Miarritzen hotelian ganbarazain» / **hásjan-hási** esamoldea ere ibiltzen da 'hasi bainaiz, baitzara, baikara...' adierarekin: «Nahiz erreposki, hasten nuxu egun etsi-etsia xurkin lehenik eta hasian-hasi in behar tutan guzien aldeat egiten» (MA).

**hastapén** iz. Hastea, hasiera: *Hastapénjan ení-xin jáeré konprendízen, bána wái áski ún-tsa arrañátzen núxu; hastapénjan úste ní-xin presúna húna zéla.*

**haste** iz. Hasiera: *Haste-hástetik núxu hémen; háste-hástetik njákixun nólakwa zén; hást-tjan kónten(t) zuxún bana beála hási zuxún nigárrrez / bérriz háste* 'vuelta a empezar'. Ikus **bérriz**.

**hastéko** lok. Behintzat. *Ník hastéko etxí jwán náhi léku hórta* 'nik behintzat ez dixut leku horretara joan nahi'. P. Larzabalek ere ibiltzen du (1998: 153): «Goiz aldera, meza erran behar bainuen, urrundu nintzen handik eta goiz hartan berean hil zen gizona. Ez dakit familiakorik nehor bazuenetz, ez zen hasteko nehor agertu ni gana».

**hastjál** adond. Nekagarria, gogaikarria (biar-nes-gaskoiko *hastiàu* 'qui dégoûte, qui donne du dégoût, de la répugnance', 'fastidieux' hitzaren arbasotik, \**hastial*-en moduko batetik, azken batean latineko *fastidium*-en eratorri batetik. Ikus Coromines & Pascual, 1998, *hastío* sarrera): *Zé hastjála dén gizón hóri; zé hastjála dén mekánika zikín hau!* Ikus **asegárrri**. Satrustegik (1963-64: 258) «astiala *insoportable, inaguantable*» bildu zuen.

**hát éta húnat** adlag. Itzulika: *Atsálde gúzja pástu dú hát éta húnat, geldítu gábe / hát éta húnat ibíli* ad. (da) Hantxe-hementxe ibili. Ikus **háneménka ibíli** eta **hántxeméntxe ibíli / hát-hunátak** iz. Gorabeherak, hikamikak: *Péjo ta bjék izán txjú guháun hát-húnatak*. Ikus **góitibéiti / haátik ez hunátik ez izán** ad. (du) Esamoldea da, gaztelaniazko 'no tener vuelta de hoja' -ren parekoa: *Hórrek etxí haátik ez hunátik, náusjak manátu djáuxu éta obedítu behár*. Ikus **hára**.

**hátik, ahatik** lok. Haatik. Guk *hátik* aditu dugu beti eta ABk ere aldaera hori bera darabil, baina MAk *ahatik* du: «X egoiten

duxu ohian erreposkixoño, bana gero, ahatik, egunaz okupatzen duxu bere ardiekin», «hemen urte huna dixiu, artuak biziki ederrak tuxu eta ilar anitz. Ahatik ohono ez bildiak denak».

**háts** iz. 1- Arnasa, 2- Indarra. Cf. hau: «Bazkal onduan jinak zitxun; polliki duxu, mehatia duxu anitz, hola behar zila biotzaindako, bana ez dixi hats haundik» (MA) / **hats zár** iz. Aho kiratsa: *Gizón hórrek izígarriko háts zárra íxi, etxíra horrén óndwan egóiten ál / hátsa hártu* ad. (du) Arnasa hartu: *Áitak, gáztjan, ánitx pipátzen záxin éta zahártzjaikin hátsa etzíxin hártzen ál*. Cf. eskutizetako pasartetxo hauek: «Mariaurre-sare atzo juana uxu Iruñeat; etzuxun hobeki kausitzen, pasatzen zitxin hatsa ezin hartuzko bultta batzu» (AB), «X-ke izan dixi bulta (t)xar bat; hatsik ezin hartia, aski luze, gauaz ofetik ateraik eta medikiare ekarrazik goizeko oren batian» (MA).

**hatsankátu** ad. (da) Hatsanditu: *Lastérka jín núxu ta hatsankátja núxu wái*. Ikus **hapátu** eta **hatsbahítu**.

**hatsbahítu** ad. (da) Hatsankatu, hapatu, hatsanditu. Ikus **hapátu** eta **hatsankátu**.

**hátz** iz. Hazgalea, azkura. Ikus **hazkile / hátza izán** ad. (du) Hazgalea izan. Ikus **hazkátu** eta **hazkílja izán**.

**hatzéman, hatxéman** ad. (du) 1- Harrapatu: *Ohítzen níz éne gázte dénboran zító bátzuk baztérretxe átjan ebátsi zutéla tá beála hatzémantzuztéla*, 2- Aurkitu: *Bíziki polliki hatzémán giníxin ttántta*.

**háu, húnek, húni, hunékin, hunéndako, hunéngatik**...e.a. *izord.* eta *izond.* Hau, honek, honi, honekin, honendako, honengatik...e.a. *Háu zér dá* (esamolde modukoa): *Járrrik idúrixí «háu zér dá»* 'jarririko, eserita, irudi du zerbait badela, ongi dagoela'.

**háugi** ad. Hator. Ikus ondoko sarrera.

**háuk, háuk, háuk... gí, gí, gí interj.** 'Haugi', behiak deitzeko egiten diren soinuak. Ikus, dena dela, *auk, auka* sarrera OEH-n.

**háundi** 1- *izond.* Handia, 2- *adond.* Ugari: *Luzáiden béstetan jénde háundja bíltzentzú-xun léhen, wái éz;* cf. MAren hau: «Izigarri untza duxu, ez dixi berehala deliberratu, badakixu sos haundia eman behar delakotz, bana nik beti erraiten niakoxun azindak beti

- eta geio balio dila» / **háundi ín ad.** (du) Gauza handia egin: *Háundi ín xínin ámain ospítaleat eremáitja* ‘gauza handia egin xenuen ama ospitalera eramatearekin’ / **háundi izán ad.** (da) Harrigarria izan: *Háundi úxu nóla ez dutén eréman* ‘harrigarria duxu nola ez duten eraman’ / **haunditik eskapatu ad.** (da) (esam.), **haunditik, haunditaik salbatu ad.** (da-du) (esam.): «Ba, Igande ilunarrian mezat juana zuxun eta desku[i]datia zuxun duaik; errota zanguain gainetik pasatu, hexur ttipi zenbait bazixin hautsia duaik. Aski bazixin, bana haunditik eskapatia uxu», «Ferranengo gaxo horiek izan duten makurra, bana haunditaik salbatu txu!» (AB). Cf. **edérretaik eskapátu.**
- haundiskíla iz.** eta *izond.* Jauntxo uste handikoa: *Éni jénde haundískilen ártjan etzáxu gustátzen ibiltzja.* Ikus **muturzúri.**
- haunditasún iz.** Handitasuna.
- haundítu ad.** (da-du) Handitu: *Mutíko hóri azkén bí urtétan haundítu úxu izígárrí.*
- haundíxko izond.** Handi xamarra.
- haundízki adond.** Handiro. Cf. Luzaideko gutunetako pasarte hau: «Eskerrak haundízki emaiten dauzkítxu, guretako dituxun atenzione guziez».
- haunka iz.** Zaunka. Satrustegik (1963-64: 267) biltzen du; guk ez dugu aditu eta, arruntean, dakigunez, **eráusi** eta **eráusika aizán** erraten da.
- háur iz.** Haurra. Animaliekin **kúme** ibiltzen da, eta pertsonekin **háurra.** ABk, halere, *ume* ere ibiltzen du *haurra*-ren partez / **háurño iz.** Haurtxoa.
- haurride, aurride iz.** Senidea, anaia edo arreba. ABk *abride* ibiltzen du maiz. Cf. emazteki honek erabiltzen ere duen *nebraljia* ‘neuralgia’.
- háurtu ad.** (da) Haur bihurtu, txotxolotu. Cf. Uharteko hau: «Ttanta Luzaidekua biziki polliki duxu; oseba X etxiu ikusi aspaldian, ez diauxute ekartzen, bainan haurtia izan behaxi».
- haurtzáin iz.** Haurrak zaintzen dituená.
- hauskaldór iz.** *Bokátain íteko háutsa dá hauskaldórra.* Barandiaranek (1974: 97) *auskaldar* biltzen du Donoztirin. Aintziburuk eta Etxarrenek (2002: 185-186) «Nola egi-
- ten zen hauts galdorra?» izeneko atalean azaltzen dute prozesua.
- hausko iz.** Hauspoa. Satrustegik (1969b: 28) *ausko* dakar, *h-rik* gábe.
- hauskór izond.** Hauskorra.
- haustále izond.** Hauslea.
- háuste, háuste egún iz.** Hausterre eguna. *Egún háuste úxu; háustez jwáin gítxu étxeat.* Etxaidek (1989) *háuste egúna* bildu zuen. Luzaideko arotzak hau dakar (Satrustegi, 1969: 213): «Bi bei estalaraziric ochilian 23 auste egunia(n) echechurico bordan».
- haustéi iz.** Haustegia, hautsa, errautsa atxikitze-ko lekua.
- háuta izond.** 1- Bikaina: *Harági háu háuta úk,* 2- Erosleak aukera dezakeen ardía; ikus **errefúsa** eta **jabal, jabel.**
- hautemán, hautémán ad.** (du) Nabaritu, sumatu. Ikus **séndi, sendítu.** Azantzekin ibiltzen da: *Hautemán dját bárdako lurrikárrja; hautemán díxít étxjan sártu délaik; hautemán txít míntzo átzo* ‘somatu ditut ahots batzuk’. Gorputz sentsazioak adierazteko ere ibiltzen da: *Egún góizjan lánjan fjér áizaníz tá géro gorpútzak haute-máitentzín.*
- háuts iz.** Errautsa. Ikus **erráuts.** Satrustegik erranairu hau dakar (1969b: 41): «Etxeko sua etxeko hautsaikin estali», eta dio familiakideen arteko tirabirek ez dutela etxetik atera behar erran nahi duela. Lan berean aitzinxeago (44), Hausterre egunean, hauts bedeinkatua elizan hartu, etxera eraman eta familiakide guzietan paratzerakoan erraten dena jasotzen du: «Hautsa zira eta errhauts bilakaturen zira» ‘eres polvo (ceniza) y en polvo te has de convertir’ (Xuhialde).
- háutsi ad.** 1- (da-du) Apurtu, puskatu, 2- (da) Buruz edo gorputzez jaitsi, galdu. Cf. MAren pasarte hau: «Gaixua hari duxu hausten buruz anitz. Alta huna zixin. Izan gintxun Auritzen bazkainen; hurare hari duxu hausten, bana buruz untsa duxu», 3- (du) Zati-tu, txerri-hiltzean. Cf. E. Etxamendiren hau (1988: 58): «Ferranjo berriz jin zen gure etxerat oren baten buruan nunbait han. Zerria hautsia induen eta gazitzen ezarria». Ikus **kraskátu.**
- háutsi-máutsi iz.** Konponketa, arrainamendua, hitzarmena. Cf. Manezaundiren hau

(1990: 307): «Saraizuko ibarrak edo haranak, bai eta Aezkoakoek ere urthe guziz egiten dituzte antolamendu eta hautsimautsiak Baxenabarrekoekin, heien eta hemengoen alhapidetan azinden bazkatze-ko».

**haxít** *izond.* Arina: *Kadéra hóri biziki haxíta úxu.*

**házka adond.** Hatz eginez / **házka aizán, hási ad.** (da) Hatz egiten ari izan, hasi: *Béhja arbóla hórri kóntra házka ái dúxu.*

**hazkátu ad.** (du) Hazka egin: *Búrjain hazkátzen ái núxu meméntu húntan.*

**hazkíle iz.** Asenahia, azkura. Ikus **hátz / hazkílja izán ad.** (du), **hazkíljak izán** (da) Azkura izan: *Lásto gáinján ló ín díxit éta orái hazkíljak núxu; hazkílja íxit bizkárrijan.*

**hedági iz.** Hedagua, arropa hedatzeko tokia.

**hedátu ad.** (du) Xuriketak hedatu: *Wái denbóra húna baitá behar tút xwikétak kánpwan hedátu.*

**héde iz.** Hede, uhal txikia: *Uhál ñimñwa, juáretan íbiltzen déna, mhjain atxikítzeko.* Ikus **uhál.**

**hegál iz.** Txorien hegoa, hegala. Satrustegik (1969b: 95) *h*-rik gabeko aldaera jasotzen du eta 'etxe baten hegala' adiera ematen.

**hegaldátu ad.** (da) Hegalkatu: *Ikúsi gintín úso átzu arbólatján éta gú hurbildu ginélaik hegaldátu zjén.*

**hegátz iz.** Teilatu hegala.

**hégo iz.** Hego haizea. Ikus **háize** eta **háizego.** *Hégwa béltza sártu íxi Astabizkárretik.*

**héin iz.** 1- Neurria, maila: *Eskwáraz badáki héin bátjan; bétezaxú botóila héin hórtano.* Cf. MAren hauek: «Hura juan den urtian eri egonezkioz etzuxun lehengo heinian jarrri», «ni biziki kontent nuxu, ja lehengo heinea jin nuxu» eta Barbierrin beste hau (1926: 50): «...otharreak, saskiak, zuzeko untiak, leher egíteko heinean betheak!», 2- Unea, sasoa, adina edo antzeko zerbait. Cf. MAren pasarte hauek: «Eni pena haundia emaiten diaxu; beharrik fede haundia baitu, bana makur haundia haurrendakore, holako langilia bere heinik hobeanian», «...juaiten duxu gohotik eta etxiane langilia duxu biziki. Fonsian hiruak hala tuxu, orai heiniane baitira» / **héin bátjan adlag.**

Hainbatean, hainbestean: *–Nóla xíra Mañéx?, –Héin bátjan, njáun bétiko arrángu-rekin.*

**hék, hér, hén bátjan, hétan, hétako, hékin, héndako...** *izord.* eta *izond.* Haiek, haiei, haiengan, haien baitan, haietan, haietako, haiekin, haiendako...

**héla interj.** Ikus **éla.**

**héldu ad.** (da) Etorri: *Heldwén igándjan Záráutzeat jwáin gítxu egúnain pástea; héldu ginén Iruñeat 'Iruñera gentozen', héldu girá Iruñeat 'Iruñera gatoz', eník héltzen gáinea 'ez nauk ailegaten gainera'.* Baina *frúta, frwíta húndu* erratan da, ez \**fruta, fruita heldu.*

**helménjan izán ad.** (du) Irispidean izan: *Gáníta helménjan díxit, kásumaxu.*

**hémen adond.** Hemen, **heméngwa / heméntik** (ABk batzuetan *hemendik* du eta beste batzuetan *hementik*) / **heméntik aitzína, heméntik goíti adlag.** Hemendik aurrera.

**heméntxe adond.** Hemen berean.

**hemerétzi zenb.** Hemeretzi; Etxaidek (1989: 364) *emerétzi* bildu zuen.

**hemezórtzi zenb.** Hemezortzi; Etxaidek (1989: 363) *emezórtzi* bildu zuen.

**héneun adond.** Herenegun.

**heneunágwan adond.** Herenegunago.

**herábe iz.** Beldurra edo. Ezaguna da Luzaiden egun, baina ez da anitz erabiltzen; beldurra bezala da. Cf. «Egun hotaik batez izan [t]ziazkitxiu profesorra eta bi perito, gizon batzu gaitzak, nahi baginin igorri. Amak bazixin bere herabia igortzeko ttipia delakotz; hok izain dutena gaixtua irakoitz guziez etxeat jítia, eta negia bestalde» (AB).

**herdóil iz.** Herdoila / **herdóildu ad.** (da-du) Herdoildu.

**hérra iz.** Gorrotoa: *Zé hérra dakón hórri! / hérran izán, hérran egón* (norbaitendako) *ad.* (da) Arrunt hasere egon norbaitekin. Cf. Uharte Garaziko letra bateko pasarte hau: «Geroztik pasatzen tuxu hemen medikurat juaiteko eta Undarlarat, bainan etxu oseba jeusten ototik. Herran duxu guretako. Hara 26 ilabeten burian zertaratu giren».

**hérrri iz.** Herria.

**Herriko Étxe iz.** Udaletxea. Irudi du eraikin berria egin zutelarik hasi zela jendea

- Ajuntamédu** erraten. 1863ko zerrendan (Sarustegi, 1969b: 94) *Erricoechea* ageri da.
- hérico mutíl iz.** Almirantea. Ikus **ojantzáin**.
- herrítár iz.** Herrikidea.
- herríxka iz.** Herri ttipia.
- hértsi izond.** Estua; ez da sobera ibiltzen. Ikus **hétsi** eta **mehár**.
- hértu ad.** (da) *Hantu*-ren antonimoa: *Hántja nín zángwa hértu zjáxu* ‘handitua nuen zangoa jaitsi zait’; *hántu dén lékutik hértuko úxu*. Haserre dagoenarendako erraten da, pasatuko zaiola aditzera emateko.
- hértze iz.** Hestea. Etxaidek (1989: 136) *hértzjak* bildu zuen ‘erraiak’ errateko baina bistan da gauza bana direla. Alabaina, aitzinago ‘hesteak’ adieraz ere jaso zuen *hértziak* (ibid., 140. or.).
- hertzartéko iz.** Zerriaren hestean artean dagoen gantza: *Zérrja híltzen délaik hértzen ártjan ba ómen dúxu gántza edó, tá hóri úxu hertzartékwa, tá kéntzen dúxu. Húni erráiten zjákoxo «trípen iakúrtzja», trípen garbítzja, hértzen beéxtja... Géro hértze horjékin íten txú lukáinkak*.
- hési iz.** Hesia.
- hesól iz.** Taketa. Ikus **zútibalántzan** sarrera.
- hestúra iz.** Estualdia (ustez). Satrustegik (1963-64: 265) *ertsura* ‘estrechez’ jasotzen du.
- hétsi ad.** (da-du) Itxi; eskuarki **zerrátu** erraten da. Ikus, orobat, **hértsi**.
- hezúr iz.** Hezurra / **hexúr iz.** Hezur txikia. Cf.: «Behi pare atekin zezenetik heldu zelaik behiak izitu eta lurreat bota eta gainetik pasatu behiak, eta zanguan hexur bat hautsi» (AB) / **zázpi hexúrrak**: *Zérrja híl óndwan játen djén zázpi kostelét ttípjak*.
- hí, híre, hírékin, hírétko, híáur, híáuk, híáuri... izord.** Hi, hire, hirekin, hireztat, herori, herorrek, herorri...e.a.
- higátu ad.** (da-du) Higatu: *Donjáneat joáiten nizálaik atórrat erósi beaíxit, háu higátja baitút*. Satrustegik (1963-64: 268) *igatu* eta *igatuxea* biltzen ditu, *h*-rik gabe.
- higimédu iz.** Mugimendua. Normalean **mohimédu** erraten da.
- higítu ad.** 1- (da-du) Mugitu: *Hígi adí hórtik, urdé afér gohóztu zikína!* Hau **mohítu** baino aise gehiago ibiltzen da Luzaiden,
- 2- (du) Belarrari buelta eman: *Beláro atéa íxi tá behár txjú belárrak hígitu*.
- híl 1- ad.** (da-du) hil. Ikus **finítu** eta **pausátu**, 2- *ad.* (da-du) Itzali; bigarren adiera honekin ezagutzen dute, baina erabili guti; normalena **itzáli** da, 3- *iz.* Hildakoa; cf. *MA*-ren hau: «Hemengo berriak nik ez igorrike pentsatzen dixit badazkitxula, bi hil izan tula Azoletan, eta xu betiko kunplítia».
- hílárjo iz.** 1- Hileta-elizkizunak, 2- Ehorzketa. Cf. Luzaideko eskutitzetako pasarte hau: «Atzo izan ninduxun otoiizen iten eta gero X-n mezan ninduxun; atsaldeko bost eta erditan zuxun hilarioa, jende haundia. Sortziak hiltzia zor; badiaxu frango Luzaide-ne, denbora puskat huntan (sic). Hau denek zor». Orain arruntean **enterramédu** erran ohi da.
- hílárrí iz.** Hilobia. Satrustegik (1963-64: 268) *ilarri* biltzen du adiera honekin, eta *ilobi* ere bai, gauza beraren errateko. Guk bigarren hau ez dugu sekulan aditu. *MAK* ere *h*-rik gabeko aldaera dakar: «Omia Saindutan ez baxira jiten ahal egon trankil, nik ezarriko tixit ilarrian liliak, nekez ibiltzeko ez baitu balio jítia». Ikus **túnba**.
- híldo iz.** Ildoa. Satrustegik (1963-63: 268) «*Il*-dua.- Surco del arado» dakar.
- híljan izán ad.** (da) Merke egon: «Berrize baxixu hiru xerri ernari, izan tuxu puxkat hili-lian xerriak, bana orai berrize badiatzitxu frantsesain ikastea» (MA).
- hílkéta iz.** Gorpua hilerrira eramatea; Satrustegik (1963-64: 268) *ílketa* du.
- híltzále iz.** eta *izond.* Hiltzailea.
- híltzéinu iz.** Norbait hiltzen delarik elizako ez-kilekin egiten den deia. Ikus **mezazéinu** eta **zéinu**.
- hípet egón, izán, járrí ad.** (da) Anitz gizendu: *Nóla gízéndja dén Benát! Hípet járrja úxu*. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 97) *iphete* ‘plein de graisse’ dakar eta ondoko etsenplua biltzen: «*Gizon hori iphete egin da cet homme est devenu tres-gros et gras*». Geroko hiztegi-gileek baxenabartarraren lanetik hartzen dute hitza.
- híri iz.** Hiria.
- hiritár iz.** Hirikoa.
- híru zenb.** Hiru; *hírwak* hirurak’, *hírwétanóí* hirurogei (Etxaidek [1989: 367] *irúetano-*

gói dakar), *hirína* hiruna, *hirunázka* hirunaka.

**hirúzpaláu** *zenb.* Hiru edo lau: *Eztakít zónbat básó áno hártu dín, hirúzpaláu séurik bá.*

**híts** *izond.* Zurbila / **híts izán** *ad.* (da) Zurbil egon: *Zóin híts xjén egún! Etxírea úntsa?* ABk 'triste', 'ilun' adieraz ere erabiltzen du, eguraldiaz mintzatzean: «Gu denak untsa gitxu mementian; orai denbora hitsak tixiu biziki, goiz guziz lano behereano. Ez-tiakixut eztei haundi hok ze denbora behauten, [t]xarra bada ni ez nuxu juain; gaitzeko jendia izan behaixe».

**hítz** *iz.* Hitza (ikus **éle**): *Eztját hitz báte konprendítu, eztját hitz báte konpreintu.*

**hitzártu** *ad.* (da) Hitzartu: *Hitzártu ginén góizeko zortzjöntan méndirat jwáiteko.* Manezaundik (Irigarai, 1958: 50) aditz iragan-kortako ibiltzen du: «Bana errak, Erramun, harat yoaitian artzaingorat ¿ez hiena aitzinetik hitzartu mutilgoa nausi batekin?».

**hitzéman** *ad.* (du) Agindu, prometat: *Hitzéman djáxu kárrí behár dála presént pollít bát Bajónatik; hitzémantzán jíntenzéla, bána undárrjan etzén agértu, urdé zíkína.* Cf. letretako hau «Arrazoin haundia uxu, beti erraiten ari gitxu eta beti hitzemaiten eta sekulan ez eremaiten! Jende eternal garrik gabekuak!» (AB).

**hizkúntzak** *iz.* Errateko manerak, esamoldeak. Ikus **erráiteko manéra.**

**hizkúntzazár** *iz.* Jurementua, sakrea.

**hóbe** *izond.* Hobe: *Luzáideko apégwak Etxalárwak báno áisa hóbjak tíra, éta ník úste paátzen dutén géjo.*

**hobéki** *adond.* Hobeki / **hobékixoño** *adond.* Hobekixegoño.

**hobekítu** *ad.* (da) Hobetu, hobeki jarri: *Frán-go éri egón dá Áña, bána fíte hobekítu dá.* Ikus **pollikítu** eta **untsátu.**

**hobén** *iz.* Errua. Pluralean ere erabiltzen da: «...eta nigar eta nigar hasi zela, eta berak tila hobenak, zendako ez den eman» (MA) / **hoben in** *ad.* (du) Errua bota: «Hotzain hoben iten dixie, bana ni beldur gaitz (t)xarra den horire» (MA) / **hobena eman** *ad.* (du) Errua bota: «Medikiak emaiten diakoxu hobena, orai bultta huntan hartzen zixin egun guziz injekzionia diabetaindako eta undarreko Iruñen izan zelaik dosia doblatia

ziakoxuten eta hunen iduriko sobera zela, biotza etzilakotz azkar» (MA). Cf. Xalbadorren hau (1989: 63): «Goraxago aipatu estatu hortan aurkitzen garen hok, zainen hoben emaiten dugu gehienek, zainek edukitzen gaituztela airean» / **hobena izan** *ad.* (du). Satrustegik (1969b: 82) biltzen duen honetan ageri da: «Guzien burian berek ez dixie hobenik».

**hobén** *izond.* Onena. Etxaidek (1989: 330) *obéenak* 'hoberenak' bildu zuen; azentuaztea drole kausitzen dugu guk. MAK *hoberena* eta *hobena* darabiltza; ABk lehena behin du eta bigarrena bakanka baizik ez. Aldaera errepikatua ere, **hobén-hobéna** alegia, ibiltzen da: *Hobén-hobéna egjáin erráitja úxu.*

**hobendún** *izond.* Erruduna.

**hóbi** *iz.* Oia (haginena eta hortzena).

**hodéi** *iz.* Hodeia. Normalean **goibél** erraten dute (ikus sarrera hau eta **láno**), baina behin **uréste** edo uholde handi batzuk izan ziren Luzaiden eta *hodéi bát lehértu zéla* aditu genuen.

**hógoi** *zenb.* Hogeia, *hoitamárr* hogeita hamar. Etxaidek (1989: 365) *ógoi* bildu zuen; *hogóira* hogeina.

**hogóisoséko, hoóisoséko** *iz.* Pezeta. Ikus **sós** sarrera. Donoztirin Barandiaranek (1974: 66) 'libera' adiera zuela bildu zuen.

**hoin.** Hain: «Anitz plazer egin daxu berriak hoin xeheki igortziaz» (MA). Ikus **háin.**

**hoinbéste.** Hainbeste. Ikus **hainbéste.**

**hók, hón, hókin, hóndako, hóngatik...** *izond.* eta *izond.* Hauek, hauen, hauekin, hauendako, hauengatik...e.a.

**hóla** *adond.* Horrela. Ikus **hála** / **hólolá** *adond.* Hola-hola: *Útzak hólolá.* Cf. **holáxe, holáxet** eta **hálalá.** MAK *hola-hola* darabil: «Bordaxarre hola-hola ahatxe batekin minartuik duxu; orai ekendia diakoxute plastria».

**holáko** *izond.* Holakoa.

**holátsu** *adond.* Goiti-beheiti hola: «Holatsu duxu X-re, biziki eri egonik, bihotza hareke».

**holáxe, holáxet** *adond.* Horrelaxe. Hau adierazteko **hólolá** ere erraten da; ikus **hóla.**

**hópexix.** Erronka jo nahi denean erraten den hitza, norbaitek gu harrapatzea nahi dugu-

- nean. Duny-Pétrék (1996: 80) euskaraz *Hope Manex! Hope!...* biltzen du eta frantsesez *Chiche Jeannot! Chiche!* Azken hizkuntza honetan *chiche* ‘ezetz...?’ balioarekin erabiltzen da; Luzaideko hitzean berriz biak, euskarazko eta frantseseko hitzak, biltzen dira, batean.
- hór adond.** Hor; **hórgwa, horráno, horrát, hóríik.**
- horáil izond.** Horixka. Ikus -**káil.**
- hóri, hórrek, horrékin, hórren, horréndako, hortákwa...** *izord.* eta *izond.* Hori, horrek, horrekin, horren, horrendako, horretakoa...e.a.
- hórjek, horjékin, hórjen, horjéndako...** *izord.* eta *izond.* Horiek, horiekin, horien, horiendako...e.a.
- hortaátu, hortátu ad.** (da-du) Horretaratu: *Zékhortaátu xítu?* Ikus **huntaátu, nolakátu** eta **zertarátu, zertaátu.**
- hórtaik ári (ez) izán ad.** (da) Zerbait egiteko asmorik (ez) izan: «Ez diakixut igorri nauzun nahi zutela Etxeandirat bildu, bana ez duxu seur hartatik hari» (MA): *Étxu hórtaik ári.* Cf. Minaberrinen hau (1998: 181): «Oihanean denek bazakiten “Herabe” eta “Itxulingo” elgarrendako eginak zirela, adinerat heldu eta elgarrekin biziko zirela. “Itxulingo” ez zen hortarik ari». Zerbait aldiz baiezkotan ere agertzen da: *Bá, hórtaik ái dúxu.*
- hórtxe adond.** Hor berean.
- hórtz iz.** 1- Hortza; -*ortxéko*, aitzinean zenbakia duela, ardiaren adina bereizteko ibiltzen da: **bíortxéko** ‘bi urteko ardia’, **láwortxéko** ‘hiru urteko ardia’, **séjortxéko** ‘lau urteko ardia’, 2- Edozein tresna edo mekanikak duen ateragunea: *Arrestéljain hórztak, belár pikátzeko mekaníkain hórztak...*e.a. / **hórtzez irúzkíta béa egón** (esam.): *Egóiten ál txíra hórtez irúzkíta béa!* ‘ya puedes esperar sentado’.
- hórtz adár iz.** Ostadarra. Etxaidek ere (1989: 39) *hórtz adár*ra bildu zuen, bi hitzetan.
- hórmóztu izond.** Hortzak galtzen hasten den ardia.
- hóstoa iz.** Hostoa.
- hótz iz.** eta *izond.* Hotza: *Hóztúk* ‘hotza ari dik’, *hóztá* ‘hotz da, hotza ari du’, *hóztúxu* ‘hotz duxu’, *zé hótza ái dín!*, *hótz háundja*
- úk* / **hótzak harrítja izán** (esam.) ‘hotzak akabatzen egon’: *Hótzak harrítja núk* ‘hotzak akabatzen nagok!’.
- hóu interj.** Norbaiten atentzioa deitzeko egiten den oihua, gaztelaniako *eh!*-ren parekoa. Ikus **ajázi.**
- hózka ín ad.** (du) Edozein gauzari puxkaño bat kentzea: *Hózkat ín behár dézu gatzáiner padéran sártu aitzínetik, besténaz jáuzika hásten díra.* Ikus **ausíki.**
- hozpíl izond.** Hozpera.
- hoztasún iz.** Hoztasuna.
- hóztu ad.** Hoztu (da-du): *Hóztu núxu bídjan, hóztu dú éta méntwaz elúrrínen dú.*
- hún 1- izond.** Ona. Baina ikus **egunún, gaún,** 2- *iz.* Eguraldi ona: «Deuse ez dixi erran nahi hunek, gero berdin huna iten ahal baitu» (MA), 3- *iz.* Polilikitzea, untsatzea: «Orai ditutan erremedio guziak bitaminak tixit. Egunetik egunea ezagutzen dixit huna, bana gaixo M<sup>a</sup> Dolores hau paliza gaitza duxu» (MA) / **hun hartu ad.** (du) MAk darabil, guk **ametítu** erraten duguna adierazteko: «Iduri dukexu makurro izan dela, bana ene kontzientziak etzi axun hun hartzen geio» / **hún izán ad.** (da) Ehin izan: *Enúxu hún karríkat atéatzeko óno, sukár háundja baitút.* Cf. MAren hau: «Aste batendako jua zuxun eta ardien jeiztea X-k beharko [juan], hun bada eta ez bada» / **hún daizúla, hún daixúla, hún daizjéla,** otordueta ibiltzen den formula: *Hún daizjéla* ‘on dizuela’ / **húneat emán ad.** (du) Onera egin, ongitu, untsatu: Cf. letretako pasarte hau: «Aitzine hortan izan [t]zixin bulta [t]xar bat, bana pasatu zitziakoxun, eta berriz huneat eman dixi» (AB) / **húneat ín ad.** (du) Onera egin: *Gúre kúsja arrúnt gáizki zén, bána erreposki-erreposki húneat ín dú.*
- hunáno adlag.** Honaino.
- húnat adlag.** Hona; **hunátekaldetik** hemengo aldetik, **hunátekáldea** hemengo aldera... Ikus **hára.**
- hunatékwán adond.** Hona etortzean: *Hunatékwán errákoxu Mizéli bíhar jwán behár dúla iúzira.* Ikus **haatékwán.**
- húndu ad.** (da-du) Ondu, heldu: *Béro hókín ahának behála húnduko díra.* Ikus **héldu.**

**hunkigárrri** *izond.* Zirraragarria. Cf. gutuneta-ko pasarteño hau: «Ze pena haundiak dien alderdi horietan; hunkigarri uxu, ze behar den aitua!».

**hunkítu** *ad.* (du) 1- Ukitu, 2- Kobratu (frantse-seko *toucher* bezala). Satrustegik (1963-64: 267) *hunki* biltzen du eta dio 'ukitu' eta 'kobratu' izan daitekeela. Cf. MAren pasarte hauek: «Izan tixiu ereman zauzki(u)ten behien sariake. Ez gitxu meskontent, 44 mila pezetakoat hunkitu dixiu», «ahatik pahatzen dixi 300.000 franko, urtian hunkitzen din zahar arranda». Ikus **koberatu**, **kobrátu**.

**húnsko** *izond.* Onskoia, on samarra.

**huntaátu** *ad.* (da-du) Honetaratu: *Drógak huntadatu íxi*. Ikus **hortaátu**, **hortátu**, **no-lakátu** eta **zertarátu**, **zertaátu**.

**huntasún** *iz.* 1- Ondasuna, 2- Ontasuna.

**húntz** *iz.* Hontza.

**huntzósto** *iz.* Huntza.

**huñáze**, **uñáze** *iz.* Oinazea.

**huñetáko**, **uñetáko** *iz.* Oinetakoa.

**huñez** *adlag.* Oinez (baina **zángo** 'oina'). B. Etxeparek *Huin eskuia*k darabil, hots, oin-eskuak (1980 [1545]: 28) / **huñézkako** *iz-lag.* Oinezkoentzakoa: *Huñézkako bíde bé-rrí bát ín duté étxe hártat jwáiteko*. Angel Aintziburu luzaidarrak *Herria*-n izkiriatu-tako artikuluxketan ardura ibiltzen du *oinezkako* 'oinezkoa': «Goizean oinezka-koak atera dira Luzaideko elizatik Orreagarat buruz goizeko 6 ak eta erdietan, arribatu dira 9 ak aldera Orreagan» (2606. zkia., 2001-5-17, 5. or.).

**húr** *iz.* Ura. Bonapartek (1881: 163) aspiraziorik gabe biltzen du, baina orain garbia da *h-*. Era mugatua **húra** da.

**húr** *iz.* Hurra (aspirazioa ez bide da hain garbia). Era mugatua **húrra** da.

**húr turrústa**, **húr zurrústa** *iz.* Zurrusta, ur txirri handia. Ikus hurrengo sarrerak eta **ttirrila**, **xurrústa**, **zurrústa**.

**húr xirríxta** *iz.* **Ttirrila** baino handiagoko ur txirria.

**húr zirrístá** *iz.* **Húr xirríxta** baino handiagoa den ur txirria, baina **húr turrústa** eta **húr zurrústa** baino txikiagoa.

**húra**, **hárek**, **háren**, **harékin**, **haréndako**, **haréngatik**, **hártá(t)**, **hártáik**, **hártan**,

**hártano**, **hártaz...** *izord.* eta *izond.* Hura, hark, haren, harekin, harendako, harengatik, hartara, hartatik, hartan, hartaraino, hartaz...e.a. *—Nóla xíra? —Hártan-hártan —Háuxilik urdé espántwánd-ja!* 'hago ixilik, urde espantu, panparroi handia'.

**húrbil** 1- *adond.* Hurbil: *Péjo heméntik húrbil bízi úk*, «kalapitan abiatia duxu berrize; enfin, hunen ixtoriak, hurbiltxo bagina beden» (MA), 2- *post.* Datiboa eskatzen du: *Étxjái húrbil díoxo béhja*. Ikus **húrran**, 3- *izond.* Hurbilekoa: *Manéz éne ahíde hurbíla úxu*.

**hurbíldu** *ad.* (da-du): *Frántzjat jwán ginélaik frángo hurbíldu gínen Paríseat, bána ez gínen arribátu; tírila gáldez ái zén éta undárrjan bákjá emántzezán hurbíldu nákon aítzúrra*.

**hureztátu** *ad.* (du) Ureztatu. Ikus **hurtátu**.

**hurkéta jwán** *ad.* (da): Ur bila joan, iturrira.

**húrran** *adond.* Hurbil. Ikus **húrbil**.

**hurrándu** *ad.* (da-du) Hurbildu.

**húrrats** *iz.* Urratsa, pausoa.

**hurrítz** *iz.* Hurrítza, hurrak ematen dituen zuhaitza.

**hurtátu** *ad.* (du) Ureztatu. Ikus **ihiztátu** eta **hureztátu**.

**hurúntzi** *iz.* Urontzia, ura iturritik ekartzeko ibiltzen zen ontzia.

**hústu** *ad.* (da-du): *Jwán dén igándjan Mánezek hústu zíxin botóilat áno tá mozkór arráildwik jwantzúxun étxeat*. Ikus **lékjak hústu**, **léku** sarreran.

**húts** 1- *izond.* Barnean deus ez duena: *Étxe hútsa óro gérla* 'etxe hutsa aharra hutsa', 2- *iz.* Falta: «Nahiz gu bano hobeki den, familiain pena duxu eta hutsa, hoin fite juaiten delaik», 3- *iz.* Huts egitea: *Zé hútsa ín dún!*, 4- Sakreen indartzeko ibiltzen den hitza: *Hóri zózo hútsa dá, eztáuzu gáuzá húnik ínén; háu astapíto huts-hútsa dá!* / **hútsik** *adond.* 1- Beste deusekin nahasi gabe: *Frantsesér káfjain hútsik hártzja gustátzentzé; étxjan ésnja béti hútsik hártzen díxju*, 2- Barnean deus ez dela: *Jan-dármak arribátu zjéneko étxja hútsik zén!* / **hútsín** *ad.* (du) Ez asmatu, gauzak gaizki egin.



# I

**iakúrta** *ad.* (du) *Trípak iakúrta*. Ikus **hertze-artéko**.

**iasagár** *iz.* Irasagarra (fruitua eta zuhaitza): *Éne étxjan iasagárrezko erreximéta íten zíxjen*.

**íátze, íhátze** *iz.* Iratzea. ABk beti *iratze* erabiltzen du eta MAK *ihatze*. 'Iratze lanetan' adierazteko *iratzean, ihatzean ari izan* izkiriari dute ABk eta MAK (ikus **belár**): «Orai iratzean ari txu gizonak; denbora freskua arixi biziki. Etxu uso aro» (AB), «gizonak ari tuxu ihatzean, bana orai ja usuak abiatu tuxu eta badakizie zer pasatzen den hemen» (MA). Ikus **jasáil**.

**íatzeálde, íhatzeálde** *iz.* Iratze multzo handia. Cf. MAren hau: «Kontent tuxu gure gizonak; seur sabaiak untsa beteik gelditu tuxu aurten. Ihatze aldeate baixie inik».

**íatzeakéta, íhatzeakéta** *adond*. Iratze eske, garo bila: *Jwán ginén méndira íatzeakéta*. Luzaidoko arotzaren kontu liburuan «irazequetan», «beiequin (i)razequeta egun bat», «irazequetan egunac 1» ageri dira, besteak beste (Satrustegi, 1969: 146, 148, 165, 181). Arruazuko euskaltzainak (1969b: 12) *iratzeaketa* biltzen du.

**íatzeméta, íhatzeméta** *iz.* Iratze meta, garo meta.

**íatzetórnu** *iz.* Iratze zama. Ikus **tórnu** eta **záma**.

**íbíli** *ad.* 1- (da) *Ibíliz íbíliz háutsi zítin zapéetak*, 2- (du) *Erabili: Hítz hóri eztá bate íbílzen Luzáiden*. Ikus **háil**.

**íbílki** *ad.* **Ibílki** aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).

**-íde, -kíde** *atiz*. Kidea: *Aixkíde, ahíde, (h)aurríde*.

**ídéja** *iz.* 1- Ideia, 2- Asmoa / **ídéja izán, idéja ukán** *ad.* (du) Asmoa izan: *Írúñeat jwáite-*

*ko idéia dú* 'Iruñera joateko asmoa dut'. Ezezkoan 'ez jakin' adiera du, espainolez eta beste bezala: *eztút idéjaiké* 'ez dakit batere'.

**ídi** *iz.* Idia.

**ídiki, idéki** *ad.* (da-du) Ireki.

**ídór** *izond*. 1- Lehorra, 2- Lehortea; cf. MAren hau: «Jinkuari eskerrak ez dixiu arranguratzekoik; zenbait lekutan idorraikin deuse ez dutela», 3- Begikoa ez dena, murrizta, 4- Esne guti ematen duen behia edo ardía.

**ídórte** *iz.* Lehortea.

**ídórtu** *ad.* (da-du) Lehortu.

**ídúki** *ad.* (du) Eduki, musean ibiltzen den hitza. Aditz honen forma trinkoak ibiltzen dira: *dáukat, dáukazje, gináukan, záukatén...*; hemendik kanpo, ordea, **atxíki** erabiltzen da.

**ídúri** *iz.* Usu *éne idúriko* 'nire iritzian' sintagma erabiltzen da, baina *xú idúri bátúxu hóri* 'xure antzekoa duxu hori'-ren modukoetan ere ohikoa da, izaeraz ari garelarik; bestela **íte** 'eitea' ibiltzen baita. Ikus sarre-ra hau / **ídúri izán** *ad.* (du) Eman, itxura euki: *Ídúri dú kóntent déla*. B. Etxeparek (1980 [1545]) *irudi bazautzu* (6), *irudi propiara* (10) darabil, eta, beraz, metatesia, harrezkeroztik burutu dela pentsatu beharko dugu. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 92) *iduri, iduritu* dakar. Ikus **elgár / idurítu** *ad.* (da) Iruditu: *Etzjáxu únsta idurítzen hóri étxjan geldítzja*.

**iduripén** *iz.* Iruditzea: *Iduripéna íxit enganátu nutéla*.

**ígánde** *iz.* Asteko zazpigarren eguna.

**ígandekári** *adond*. Igandearrekin: *Nóla jín ziz-té igandekári?*

**ígél** *iz.* Igela.

**igérika aizán** *ad.* (da) Igeri egin, igerian ari izan.

**igin.** Satrustegik (1963-64: 268) jasotzen du, 'gorrotoa, ezinikusia' adieraz. Hortaz, batuko *higuina* bera da.

**igindua.** Satrustegik (1963-64: 268) biltzen du eta 'gaizki ikusia', 'gorrotatua' dela dio, 'ezin jasanezkoa', batuko *higindua* edo. Guk ez dugu aditu, baina izatekotz ere *igíndja* litzateke.

**igórri** *ad.* (du) Bidali: *Astapíto háundi húra undárrjan zakúrrain purdirát igórri nín.*

**igwál báljo izán** *ad.* (du) Berdin balio izan: *Igwál díxi báljo hát jwáitja édo hémen gel-dítzja.*

**ihakóitz, iakóitz** *iz.* Larunbata. Etxaidek (1989: 53) *iakóitza* dakar, baina oin-ohar batean «conoce también *larumbata*» gehitzen du. Ikus **launbát**. ABK *irakoitz* eta *ia-koitz* idazten ditu; badaiteke, nolana ere, hondarrekoaren azpian *ihakoitz* egotea: «Urte guziez sanjaka eta gazte ergel batzu jiten tuxu, irakoitz atsalde guziez lasterka beren etxetat juanez eta astelenetan noiz jiten dira? Untsa heldu zelaik». MAK, berriz, *ihakoitz* darabil / **Iakóitz Sáindu** *iz.* Larunbat Santua.

**ihára** *iz.* Errota. Luzaideko arotzak *eiara, eyara* ibiltzen du (Satrustegi, 1969: 170, 173...): «Eiaran egun bat aita semec» (209). Ikus **erróta, ihazán** eta **kafé ihára**. Arruazuko euskaltzainak *ehiaraldia* 'molienda' ere badakar (1969b: 52), 'eiheraldia', 'errotaldia' alegia, 'eiherara ehotzeko aldi bakoitz igortzen den bihi kopurua'.

**ihardétsi** *ad.* (du) Erantzun; gutxi ibiltzen da. Ikus **errepóstu emán**.

**ihardóki** *ad.* (du) 1- Iruzkindu: *Átzo Péjoikin ihardóki níxin*; cf. letretako pasarte hauek: «Jakinak nitixin denbora X-ainganak ze bisita izan duzien. Denbora guti pasatu ixie hor; etzizte biziki goxatu hengo berritan, bana pentsatzen dixit printzipalak ihardoki tuziela» (AB), «errain dakoxu D<sup>a</sup> Jose Mariri lan haundia in dila eta gure izenake behar zitxin ezarri. Atzo X-aikin ihardokitzen ginixin; fontsian erran diakoixut duaike liburutan ezarri tilaik hun zielako marka. Hola gu juaiten gielaike horiek hor geldituko tuxu» (MA), 2- Kontra egin edo; cf.

ABren hau: «Gaixua! Gero inket dukexu eta eritasuna ihardoki behar! Hane etzixin deusen faltaik beste gisan, bana zeait behar!».

**ihártu** *ad.* (da-du) Ihartu: *Irúzki soberakínak étxe ondóko líli gúzjak ihártu tú.* Etxaidek (1989: 250) *arbolá onék adarrák ejárteak tú* biltzen du. Ez du irudi hori Luzaideko euskara pur-purra dela.

**ihats ttípi** *iz.* Satrustegiren arabera (1969b: 28) *ihats ttípia* edo *imilitxa* 'beheko sua garbitzeko erratz motza' da. Autore honek *iats* 'isatsa' ere badakar (ibid., 55). Ikus **játs**.

**iháurgi** *iz.* Inaurkina: *Ardíer iháurgja bóta djéxut.*

**iháurri** *adond.* Gainezka, bete-beterik, muku-ru / (**zerbáitez**) **iháurri izán** *ad.* (da) Zerbaitetz bete-beterik egon: *Luzáideko béstetan ostátjyak jéndez iháurri izáiten txú; éne oséba sósez iháurri úxu; étxja ságuz iháurríxje.* Satrustegik (1963-64: 267) *iaurri* biltzen du eta 'desparramar, tirar por el suelo' adiera ematen.

**iháurto** 1- *ad.* (du) Inaurtu: *Béhjak iháurto txít*, 2- (Metaforikoki) beteak, estaliak (erdaraz 'forrados de'): *Hórjek aberáts okítjak txú, sósez iháurtjak txú.* Ikus **iháurri**, 2- *izond.* Mehea, baina mesprezuz erranik: *Ihártu zikín hórri húnat bérri ez jíteko errán nakón, bána agértu urdíá!*

**iháusi** *iz.* Zerriaren beroaldia / **iháusi izán, egón** *ad.* (da) Zerria bero egon. Ikus **arká-  
ra, susára**.

**iháustu** *ad.* (da) Zerria berotu, irausi. *Gúre zérrja iháustuxú.* Ikus **arkáldu, gíri izán** eta **susáldu**.

**iháut** *iz.* Inautea: *Iháut-igández jwáin núxu étxeat.* Luzaideko eskutitzetan *ihaut igandez, ihaut astearte* eta *ihaut asteartez* ageri dira. Ikus **ihautíri**. Satrustegik (1963-64: 267) *iauteigande* 'domingo de carnaval' jasotzen du; Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969: 225) «iautastelenia(n) predo eulia mutilac egun bat» dakar. Barandiaranek Donoztirin (1974: 75) alderantzizko ordena duten hitz elkartuak biltzen ditu: *igande-ihaut, astelehen-ihaut, asteart-ihaut*.

**ihautíri** *iz.* Ihauteria, aratustea. Arruntean **karnabálak** erraten da egun. Satrustegik (1963-64: 267) *iauteri* 'tiempo de carna-

- val' biltzen du; Etxaidek (1989, 47) *ihautiría* dakar.
- ihazáin** *iz.* Eiherezaina, errotazaina, erroteria. Luzaideko arotzaren kontu liburuan «Eiarazainain condia», «eierazainari iziac paratu»... ageri dira (Satrustegi, 1969: 192, 193, 214). Arruazuarrak (1969b: 72) 1644ko agiri batean azaltzen den Luzaideko *Errotaçayarena* oikonimo nahasgarria aipatzen du, eta nahasgarria diogu **erróta** Luzaiden, egun, gurpila delako eta Iruñerri aldean *-zai* zena hemen *-záin* delako.
- ihétsi** *ad.* (du) Irentsi. Cf. esamolde hau: *Jés, ník kakín ta hík ihéts.* B. Etxeparek (1980 [1545]: 54) «irestera aphaundurik ifernua azpitik» dakar; MAren eskutitzetan ere *iretsi* dago.
- íhi** *iz.* Ihia.
- ihíhi eta ahaha.** Irri-karkailaren onomatopeia. Luzaideko gutun batean ageri da: «Bizpahiru aldiz izanak zitxun Iruñen, bana badakixu zer dien hok, garbimen guti, ihíhi eta ahaha eta deusez, bana azkenian medikiak erran diaxu nihauri» (MA).
- ihítéi** *iz.* Igitai. Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969: 160) *ítai* darabil: «Bi ítai berri», «íitai bat arriñaturic». Etxaidek (1989: 178) *í'téja* dakar.
- ihítz** *iz.* ihintza / **ihítza jéiki** *ad.* (da) Ihintza idortu: *Údan eztúk belárre barreátzen ihítza jéiki artjó.*
- ihízi** *iz.* 1- Ehiza, 2- Basapiztia / **ihízin aizán, íbili** *ad.* (da) Ehizan ari izan, ehizan ibili: *Bihár góizik jeikitzen banítz ihízin ártzea jwáin núxu.*
- ihíziko pwésto** *iz.* Usoak harrapatzeko ehiza postua, usategia. Ikus **apégo**.
- ihiztári** *iz.* Ehiztaria.
- ihiztarjálde** *iz.* Ehiztari multzoa: *Zé ihiztarjálja bíldu zén Luzáiden jwandén úrrjan!*
- ihiztátu** *ad.* (du) Ur gutxirekin ureztatu. Satrustegik (1963-64: 268) 'rociar', 'regar' esanahiak biltzen ditu, baina guk bigarrena adierazteko **hurtátu, hureztátu** bildu ditugu.
- ihiztín** *iz.* Hegazti harraparria. Badirudi oinarrian *ihizi* duela.
- ihiztór** *izond.* Ehizakoa: *Zakúr ihiztórre* 'ehiza txakurra'.
- ihórtzi** *ad.* (du) Ehortzi, lurperatu (**enterrátu** gehiago ibiltzen da). Etxaidek (1989: 243) erdarazko *enterrar*-en baliokidetakoa *ihóstja* bildu zuen.
- ihortziri** *iz.* Ortzantza, ortotsa. Satrustegik (1963-64: 268) 'oinaztura' adiera ematen dio *ihortziri* hitzari, baina egun *ostótsa* ohi da. Etxaidek ere (1989: 30) *iórtziria* biltzen du, *ortzántza*-rekin batean, 'ostotsa' adieraz.
- ihortziri karráska** *iz.* Ostots, ortzantz handia. Cf. hau: «Ze denbora terribliak! Ze euriak eta ihortziri karraska itsusiak eta zimiztak» (AB). Ikus **karráska** eta **ortzántz karráska**.
- ihortzírka aizán** *ad.* (du) Ortzantzka, ostoska ari izan: *Atsálde gúzja ihortzírka aizána úxu, bána eztíxi báte éurik ín.*
- ikára, ikáre daldárika izán, geldítu** *ad.* (da) Dardaraka ari izan, egon, gelditu: *Gáitzeko izjaldúra hártu zíxin tá ikára daldárika geldítu zúxun.* Cf. Barbierren hau (1926: 23): «Herrestan eremaiten dute zaldiek ehun bat urhats oraino; bainan gero, leher eta zapart eginak hek ere, eta Piarres gibel-karga hazkarkiago eginik, zankez gelditzen dire, ikare-daldaretan». Satrustegik dio (1963-64: 268) «ikare»-k 'temblor' erranahia duela, eta adibidetzat *ikarea sartu zaio* biltzen / **ikára járri** *ad.* (da) Beldurtu: *Manéz kontrabándan ártzentzélaik arrúnt ikára jártzentzén.*
- ikaragárrri, ikáragarri izond.** Izugarria: *Ikáragarriko pixtáfla bíldu zutén igándjan* 'izugarriko mozkorra harrapatu zuten igandean'. Ikus **alúmaleko, gáitzeko, izigarri, kristóin**.
- ikási, kási** (bigarren hau normalean) *ad.* (du) Ikasi.
- ikátz** *iz.* Ikatza.
- ikazgai** *iz.* Ikatza egiteko gaia. Luzaideko arotzaren liburuan (Satrustegi, 1969: 144) ageri da: «Errezibitia icazgaia». *OEH*-k 'ikatza egiteko egurra' dela dio.
- ikazki.** Ikatza edo; Luzaideko arotzaren liburuan ageri da: «Errezibitia icazquia erdizca» (Satrustegi, 1969: 251). *OEH*-n, galdera ikurrarekin, 'madera para hacer carbón' dela diote.

**ikazkín** *iz.* Ikazkina, lanbidetzat ikatza egitea duena.

**ikúsi, kúsi** (gehienetan bigarrena, baina lehena ere franko ibiltzen da) *ad.* (du) Ikusi: *Ikústen eztutén bégjek etxjé nigárrik iten* (esam.). Cf. Axularren *ikusten eztuen begiak ez du minik / bérjak éta ásto beltxáinak ikúsi ad.* (du) Zuriak eta beltzak ikusi, gorriak ikusi, bereak eta asto beltzarenak ikusi / **kúsetakónda** (esam.) ‘ikus eta sinets’, goiti-beheiti.

**ikustate.** Ikus **kustáte.**

**-íla, -kíla** *atziz.* Txikigarria da: *Haundiskíla, jaunskíla, menskíla, puxkíla, turríla, xortíla, zortíla.*

**iláite** *iz.* Hila, hilabetea.

**ilár** *iz.* Babarruna. Satrustegik (1963-64: 268) *ilar bat ederra!* jasotzen du, ‘gezurra’ adieraz / **ilár apál** *iz.* Babarrun mota bat da, sobera goiti hazten ez dena / **ilár béltx** *iz.* Babarrun beltza / **ilár biribíl** *iz.* Ilarra. Etxaidek (1989: 89) forma hori bera dakar baina oin-ohar batean dio berriemaileak *etsilarra* ere ezagutzen duela. Bigarren forma hau Urdazubin eta Zugarramurdin ere jasotzen du / **ilár haragi.** *iz.* Ilardun haragia, antza duenez. Ikus **beldurka** sarre-rako aipua / **ilár pinttadún** *iz.* Babarrun pinttarduna / **ilár xúri** *iz.* Babarrun zuria.

**ilárbiribilálde** *iz.* Ilar biribil multzo handia.

**ilárgi** *iz.* Ilargia / **ilárgi béte** *iz.* Hilbetea. Ikus **beherapén.**

**ilárralde** *iz.* Ilar, babarrun multzo handia.

**ilárríta** *iz.* Hilerria: *–Nóat zazí?, –Ilárrítat;* ikus **hilárri.** Satrustegik (1963-64: 268) **ilerri** ‘hilerria’ biltzen du, baina guk ez dugu horrelakorik inoiz entzun.

**iláun** *iz.* Paperaren, lastoaren edo zernahi gai arinen errautsa.

**ildo** *iz.* Ildoa. *Íldwa xúxen éreman behár dá; leéngo denbóretako hízza dá hóri, wái ezá ártó háundik éreíten.*

**íle** *iz.* 1- Artilea, 2- Egilea; ikus **bílo** eta **lén.** Luzaideko arotzaren liburuan, XIX. mendean, *eile* ageri da ‘egilea’ aditzera emateko: *Escalapín eiliac zorra* (Satrustegi, 1969: 245).

**ilóba** *iz.* Dakigunez bakarrik ‘sobrino’ adieraz ibiltzen da / **iloba típia.** MAK ‘biloba’ adieraz ibiltzen duela irudi du: «Ez duxu ardura gertatuko holako familia eta denak

hemen, bere haurrak eta iloba ttipiak». *EDEL-k* ere (357 zkia.) *iloba ttipia* dakar adiera horrekin.

**ilórtu** *ad.* (da) Animaliek umea galdu, abortatu: *Béhja ilórtu dá.* Sakre gogorra ere bada, norbait iraindu nahi dugularik: *Ilórtu zikína, nóla érten dúk ní ítúsja nizála!*

**ilúmina** *iz.* Elementia: *Aurten sagárrez ilúmina gúzja báuxu.*

**ilún** *izond.* Iluna.

**ilunaár, ilunár** *iz.* Ilunabarra. Etxaidek (1989: 82) *itzúliko girá ilúnaárrian* dakar. Eguna-ren bigarren zatiaren banaketa hau da: *atsáldja, atsálda apála, ilunárra, átsa ta géro gáwa.*

**ilunbéltz.** Gauean, biziki ilun delarik: *Ilunbéltzjan arribátu zjén étxeat.* Cf. hurrengo hau (Satrustegi, 1999: 498): «Eldu zelaic carricatik ilumbelcia(n) Gañeoletacco gizonbat, atera zitzacon (...)».

**ilúndu** *ad.* (da-du) Ilun bihurtu, ilundu.

**ilundúra** *iz.* Hodei batzuk heldu direlarik, batean iluntzen duelarik erabiltzen da: *Zé ilundúra járri dín, fíte eurítuko íxi; zé ilundúra zén egún hártan, géro alimáleko ortzántzak ín zúxin.*

**ilúnkara** *adond.* Franko ilun: *Denbóra háu ilúnkara djók.*

**iluntasún** *iz.* Iluntasuna.

**ilusítu** *ad.* (da-du) Ilusionatu: *Lotería erósi dú tá arrúnt ilusíturik dó, pentsátzen dílakotz eróriko zakóla.*

**ilusjóné** *iz.* Ilusioa.

**imilitxa.** Satrustegik dio (1963-64: 268) ‘beheko suko isats ttipia’, ‘erratz motxa’ dela. Guk ez dugu bildu ahal izan. Autore berak adiera berarekin *ihats ttipia* ere biltzen du (1969b: 28).

**imínistánpatéz** *adlag.* Gaztelaniako *en un santiamén* bera da, hots, ‘begi itxi-ireki batean’: *Finútu zixín lána imínistánpatéz.*

**ín** *ad.* (du) 1- Egin, 2- Prezio bat iritsi; cf. hauek: «Erraiten daxu hor ahetsiak ze prezio iten dín» (AB), «hemen ez dixie ez ahatxek hor bezanbat iten ohono» (MA), 3- Atera, kobratu: «Behi bat saldu dixiu, 25 mila pezeta in dixiu» (MA), 4- (**néure báitan**) Pentsatu: *Ín nixin néure baitán hóri etzéla hóla izáiten ál,* 5- Urteak bete: «Haurrare biziki moñoña dutela, bi urte

- otsailian in behar eta ikustekua omen duxu zoin polliki ari den elaka» (MA), 6- Batzuetan lehentxeago aipatu aditza ez erre-pikatzeko ibiltzen da: *Eróri, bá, ardúra íten dá*. Cf. MAREN hau: «...bana biziki egun trixtiak pasatu ditut ziek juan eta, eta pentsatzen dut beste zenbaiteke berdin egin duzketela». Ikusten den bezala, gutu-netan *egin* ere azaltzen da.
- inála ín** *ad.* (du) Ahal den guztia egin, ahal guztia egin. MAk *inhala* eta *in ahala* darabiltza, aditzondotzat, *laundu* aditzarekin: «Nik laundu dixit in ahala eta erran diako-xut aitzinare inen duala».
- inarrosáldi** *iz.* Astindua, astinaldia: *Inarrosáldi bát ederra emán zjakoxón náusjak mutí-lai*.
- inarrósi** *ad.* (du) Astindu: *Páltwa inarrósi zí-xin háutsain kéntzeko*.
- indár** *iz.* 1- indarra, 2- Ahalegina: *Íntzazjé indár bát Egwérritan étxeat jíteko*.
- indárka aizán, ibíli** *ad.* (da): *Etxitéla lánjan indárka ár, otóí ibiltaxú búrja púxkat*.
- indizjóné, injezjóné** *iz.* Injekzioa / **indizjónja emán, hártu, zárri** *ad.* (du): *Indizjóné át zárri djákoxo*; «X-re marranta arrapatuik, ohono ez dila eztulik, hartu tixi injekzioe-ak; juan den urtiane arinkio pasatu zila» (MA).
- inférnu** *iz.* Infernua: *Inférnuko déurrja / infé-rnutan góiti jwán* ‘oso gora joan, anitz igo’ (esam.): *Píswak undárreko úrte hotán ánitx gorátu txú, inférmutan góiti jwának txú!* Etxaidek (1989: 206) *iférnja* jasotzen du.
- ingurátu** *ad.* (du) 1- Inguratu: *Bázko egúnjan bolántak jéndez ingurátwik aizán zjén plázain érdjan; zakurrér erráitentzé «ingura, ingura!»*, *árdjen ingurátzeko*, 2- Paperean-eta bildu: *Egwérritako preséntak papérrai-kin ingurátu gíntin ázto*.
- ingúru** *iz.* Ingurua: *Éne étxe ingúrjan batxú ánitx háitz*.
- ingúruka** *adond.* Arránwak *ingúruka dáiltza, kabála zónbáit hílik dúélako máрка*.
- inket** *adond.* Urduri edo (frantseseko *inquiet*-etik?). «X-k erran diaxu egun hotaik batez izan dela bisitan, erraiten [t]zakola lo guti iten diela. Gaixua! Gero inket dukexu eta eritasuna ihardoki behar! Hane etzixin deu-  
sen faltaik beste gisan, bana zeait behar!» (AB) / **inkét egón, izán** *ad.* (da) Urduri-edo egon.
- inkór, inkorritan.** Satrustegik (1963-64: 268) *inkor, inkorritan* biltzen ditu, eta ‘que arde bien’, ‘buen momento del fuego’ adierak ematen, hurrenez hurren. Guk *inkór* jaso dugu, Satrustegik ematen dion adieraz.
- Inozénte** *iz.* Karrikako *Inozentéinja* etzeko nagusia; **Inozentésa** *iz.* *Inozentéinja*-ko etxe-koandrea.
- inpórt(a) izán** *ad.* (da) Axola izan: *Etzájux báte inpórt(a) xúk ze íten dáxun*.
- inportánt** *izond.* Garrantzitsua (frantseseko *important*-etik).
- inportántzja** *iz.* Garrantzia (espainoleko *importancia*-tik, irudi duenez).
- inposible izán** *ad.* (da): *Inposible zén denbóra hártan wái bezála bizítzja*. Ikus **posible izán**.
- inposiblez bá** *adond.* Segur aski: *–Éuri hókin túrrjak atéako dirá, –Inposiblez bá!*
- inpresjóné** *iz.* Inpresioa (frantseseko *impression*-etik edo gaztelaniako *impresión*-etik) / **inpresjóné ín** *ad.* (du) Inpresio egin.
- interesánt** *izond.* Interesgarria (frantseseko *intéressant*-etik).
- interesátu** *ad.* (da-du) Interesa izan, interesatu (frantseseko *s’intéresser*-etik edo espainoleko *interesarse*-tik): *Ferránddo háurretik interesátu zén pilótaz*.
- interritu.** Satrustegik (1963-64: 269) ‘hablar mal de un ausente’ adiera ematen dio. Guk ez dugu kausitu.
- intrés, interés** (espainoleko *interés*-etik?). Cf. «Eta bestiaz ez gitxi prisatzen, intresa paha-  
tu eta» (Satrustegi, 1981: 345).
- intzáur** 1- Fruitua, 2- Zuhaitza.
- intzaurróndo** *iz.* Intxaurrondoa.
- inñára** *iz.* Enara.
- ipúko** *iz.* Idiak uztartzean ibiltzen den pieza. Luzaideko arotzak forma osoa, zaharra, darabil, *ipuruko* alegia (Satrustegi, 1969: 181, 183, 188): «Ipuruco berri bat», «ipuruco bat arriñaturic», «ipuruco berri bat e-  
nic».
- iragan.** Satrustegik (1963-64: 269) biltzen du, baina guk ez dugu kausitu. Arruntean behintzat **pasátu, pástu** erraten da.
- irakín, iakín** *ad.* (du) Irakin.

**irán** *ad.* (da-du) Igan, igo: *Teilátura irániz*. Etxeberriren dotrinan «Ceruetara igaraiten» ageri da (Seguro, 1985: 143). Manezandik gehienetan *igan* ibiltzen du, baina behin edo beste *iran* ere badu: «Eta ikhustekoa zen nola Yanpiarreeneko lasterbideko patar xuta iraiten zien dremenden akhidurarik gabe» (1990: 384). Iragankortzat eskuarki *altxátu* edo *goittu* erraten da.

**iránja** *iz.* Laranja. Gavelek dioenez (*Éléments*, 246) hitz hau gaskoierazko *l'iranye* 'laranja'-ren bitartez iritsi da euskarara.

**iránja jús** *iz.* Laranja zukua. Ikus **jús**.

**iraulde** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 255): «Iraulde egun bat aria egun erdi bat». Arruazukoak (278) *iraulden egun bat* ulertzen du, baina badaiteke, orobat, *-n-rik* gabeko forma zuzena izatea. Arotzak *iraulden* 'iraulden' eta *irauldequer* 'irauldeko' ere badakartza: «Irauden egun bat» (138), «iru gatina mail berri irauldequer» (160).

**iráulden adond.** Iraultzen / **iráulden aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Lurra iraultzen aritu, hasi, ibili: *Góiz gúzjan lúrriráulden aizának gitúk*.

**iráuli** *ad.* (du) 'Lurrari buelta eman' besterik ez da Luzaiden; bestela **uzkáli** ibiltzen da. Narbaitzek (1999: 17) *lur itzuli* darabil.

**irázi** 1- *ad.* (du) Irabazi. Ondarrolako 1841eko eskutitzean (Satrustegi, 1971: 293) *yrabaz bide* eta *yrabaztendut* ditugu. MAK *irahazi* ibili ohi du, behin *irazi* badu ere; ABk beti aldaera laburtua dakar, 2- *iz.* Irabazia: *Ník aféra hórtan etxít bate irázik ikústén*; MAK *irahazi* darabil: «Xuke M<sup>a</sup> Dolores badakixu zer duxun inik eta zer irahaziak in tuxun» / **irázjan izán** *ad.* (da) (dirua) irabazten ari izan. Cf. ABren hau: «Ze nauxu, denendako zeait jinen mundiaín uzteko! Horre orai goxoki ziaudexun familia guzia hazik eta denak irazian».

**iraztále** *izond.* eta *iz.* Irabazlea.

**irín** *iz.* Irina. Arotzak ere ibiltzen zuen (Satrustegi, 1969): «Boteroico condia irinetic uzia zaarra», «ecainian zaldarriai condia bi gairu irin» (172), «borz gairu irin mizquirizerat» (244). Ikus **ogi irin**.

**irindéi** *iz.* Irindegia, irina gordetzen zen gela. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 99) *irintea*

biltzen du eta honela definitzen: «Pièce ou l'on passe la farine, ou l'on pétrit le pain».

**iríndu** *ad.* (du) Irin bihurtu.

**irri** *iz.* Barrea / **irrin** *ad.* (du) Barre egin. MAK behin *irrin* du, bitan *irri in* eta beste batean *irri iten zixin* 'irri egiten zixun', 'irri egiten zuen' (xuka) / **irrijak sártu** *ad.* (da-du) Gaztelaniako *bajar los humos*-en parekoa da: *Frantsés hók puskát gajándjak zítxun, bána irrijak sártu zjétxu bá!* (Frantzian izandako uholdeei erreferentzia eginez); *sártuko djázkotxòt bá, irrijak hórrí!* Cf. P. Larzabalen hau (1992: 84): «Jakín-azu, ez naizela batere irrigura. Eta ere, gaur hemen irri egin nahi lukenari, sartuko diozkatala nik bere irriak».

**irrigóse izán** *ad.* (da) Irri egiteko gogoia izan: *Enúxu irrigóse*.

**irrikarkáila** *iz.* Barre algara, barre karkara. Satrustegik *-l-z* bukatu aldaera biltzen du, baina, dakigunez, *-a* du hitz honek amaieran. **Karkáila** hutsa ere erabil daiteke.

**irrikarkáilaka aizán** *ad.* (da) Barre algaraka ari izan: *Írrikarkáilaka ái zjén*.

**irrimuníka** *iz.* Irribarrea / **irrimunika ín** *ad.* (du) Irribarre egin: *Írrimunikát ín dáxi*.

**irringárrí** *izond.* Barregarria / **irringárrí geldítu** *ad.* (da): *Írringárrí geldítu dá gáizo gízón hóri, pitokérjak bésteik extítu értén!*

**irringarrikérja** *iz.* Barregarrikeria.

**irrintzína** *iz.* Zaldi-jendeak egiten duen soinua.

**irrintzínaka aizán** *ad.* (da) Irrintzika ari izan.

**irriskátu** *ad.* (da-du) Arriskatu: *Eztját éne sós gúzja operazjóné hórtan irriskátu nái, balekibále*.

**irrisku** *iz.* Arriskua: *Zonbáit gázte zé irriskutan ibíltzen djén! Harrígarri úxu bá!*

**irún** *ad.* (du) Irun.

**irunddár** *iz.* eta *izond.* Iruñekoa.

**Irúñe** *iz.* Iruña: *Irúñe ederra dá, Irúñen, Irúñeat, Irúñeano, Irúñetik, Irúñeko karríak, Irúñek zónbat jénde tú?*

**irúzki** *iz.* Eguzkia.

**iruzkiáize** *iz.* Ekialdeko haizea. Ikus **háize**.

**iruzkistátu** *ad.* (da-du) Eguzkitatu: *Léjwak idéki tú éxia iruzkísta dán*. Satrustegik (1963-64: 269) *iruzkitatu* 'solearse' jasotzen du.

- irúzkit** *egón ad.* (da) Eguzkitara, eguzkitan egon.
- iruzpegi** *iz.* Egutera, eguzkiagerria, eguzku-nea. MAK darabil: «Behiek bezalako erra-riak baduztela eta untsa bazkatzen baitira Andikoberriko bazkekin. Kanpo haundiak tuxu eta iruzpegian, azinda beti gohotik egoiten duxu».
- istfil** *iz.* Putzua, euria egiten duenean egiten den ur geldia. Ikus **putzu**.
- itáte** *iz.* Egitatea, egikaria. Juan Cruz Arrosaga-rik ere (Satrustegi, 1967, 114) badara- bil: «Etsenplu hartzen bada / Horien itatiaz / Baliatu dira ongi / Zauketen sekretiaz».
- itazúr** *iz.* Itaxura, itogina: *Teilátu hóri itazúrez bétja úxu*. ABk *itaxur* darabil, eta Satruste- gik *itasura* (1963-64: 269, 1969b: 83), *ita- xura* (1969b: 96) dakartza.
- íte** *iz.* Eitea, antza: *Áitain íte háundja íxi sém- jak*. Izaeraz ari garenan *idúri* erabili behar da; ikus sarrera hau. Manezaundik *eite* da- rabil (1990: 347): «Baztan'go Mutil dan- tzak badu eite zerbait harekin, eta nik uste dut handik hartua dela, bainan neri etzait hain ederra».
- itékoik ez izán** *ad.* (da) Zer eginik ez egon: *Haur hókin etxú júus itékoik, etxjé báte ká- swik íten!* Ikus **prótxwik ez izán**
- ító** *ad.* (da-du) Ito: *Aspáldjan áitu út norbáit íto zéla Luzáideko errékan, gérla óndwan náski*.
- itóka ján** *ad.* (du) Fite eta anitz jan: *Jín dúxu gósjak amarrátwik tá hór ai dúxu itóka já- ten!*
- itots**. Satrustegik (1963-64: 269) biltzen du; honela dio: «ITOTS. El que va delante del ganado en las faenas del campo. *Itauts emaitea*».
- itótsemáile** *izond.* eta *adond.* Idien edo behien aitzinean gidari joaten dena, itzaina.
- itsáso** *iz.* Etxaidek (1989: 107) *itxáso* biltzen du *itxásoan bada anítz árrain* esaldian.
- itsasórro** *iz.* Luzaidetik aditzen (omen) den itsasoaren azantza.
- ítsu** *izond.* eta *iz.* Itsua / **itsúra** *adlag.* Itsu- itsuan. Cf. MAren hau: ««Xure letra altxa- tu nixin errepostaiari iteko eta ez dixit atze- maiten ahal. Arren itsura haizan beharko».
- itsúsi** *izond.* Itsusia.
- itsuskérja** *iz.* Itsuserkia.
- itsúski** *adond.* Izugarri: *Itsúski lodítja úxu ojantzáina*
- itsustasún** *iz.* Itsustasuna.
- itsústu** *ad.* (da-du) Itsusi bihurtu, itsusi utzi: *Karmútza hórrekin itsústén dúxu xéure búrja*.
- itsutasún** *iz.* Itsutasuna.
- itsútu** *ad.* (da-du) Itsu bihurtu.
- itúrri**. Ikus **túrri**.
- itxáin** *iz.* Itzaina. Etxaidek (1989: 113) *icáina* bildu zuen, *itxáina* alegia, baina hau beste- rik da. Ikus **itzáin** sarrera.
- itxalóskan aizán, hási, íbili** *ad.* (da) Ihalozka, iraulka ari izan, hasi, ibili: *Gúre ástwa itxa- lóska ái dúxu kórljan*.
- itxalóskátu** *ad.* (da) Ihalozkatu, iraulkatu: *Ástwa kórljan itxalóskátuxú*.
- itxíndu** *iz.* Ilentia. Satrustegik (1963-64: 269) 'piztu' adiera ematen dio, baina badirudi beste hizkeraren bateko hitza dela (cf. *itsin, itxina*...). Donoztirin ere (Barandiaran, 1974: 21) *itxíndia* dago. Etxaidek (1989: 190) *itxíndja* 'tizón' jasotzen du.
- itxúra** *iz.* Irudia, itxura / **itxúretan** *adlag.* Itxu- raz, irudiz: «Ez diakixut M<sup>a</sup> Dolores, batek ez ote din hobe hiltzia hola bizitzia bano. Jinkuak hola nahi baitu duaik; itxuretan biziki untsa duxu, kasik gizen», «polliki duxu itxuretan; haure biziki untsa gizen- dia, bana ez duxu kontent bronkiotako zi- rrinta hori etzakolako juaiten» (MA).
- itzáin** *iz.* Itzaina.
- itzalgúne** *iz.* Toki ospela. Satrustegik (1963- 64: 269) *itzalgun* dakar.
- itzáli** *ad.* (da-du) Itzali. Ikus **hál** sarrera.
- ítze** *iz.* Iltzea.
- itzeile**. Satrustegik (1963-64: 269) biltzen du, 'iltzegilea' adieraz.
- itzílipúrdi** *iz.* Itzulipurdia: *Itzílipúrdi bát ín gi- níxin*.
- itzílipurdika** *adond.* Itzul-amilka, itzulipurdi- ka: *Erórizúxun itzílipurdika béiti*.
- itzúli** 1- *ad.* (da-du) Bueltatu: *Atzó itzúli nintzán étxeat*, 2- *ad.* (du) Teilaberritu, etxe edo eraikuntza bati teila zaharrak kendu eta berriak ezarri; cf. Luzaideko arotzaren liburuko aipu hauek (Satrustegi, 1969: 210, 228): «Burusuric bi egun echiain izulzen» 'Buruxurik (Buruxurine- ko nagusiak) bi egun etxea teilaberritzen',

- «bordain izulzen», 3- *iz.* Buelta: *Gwázen itzúli batén emáitea, itea / itzúli bát emán, itzúli bát ín ad.* (du) Buelta bat eman / *itzulíño iz.* itzulixka, bueltaxka / *itzúlixka iz.* Itzuliñoa, bueltatxoa: *Behá-xit itzúlixkát ín hérrjan gáindi.*
- itzulikatu.** Satrustegik (1963-64: 269) ‘revolver’ adiera ematen dio, baina Luzaideko gutunetan ‘lan egin’, ‘landu’ adiera du: «Bi lerro erraiteko denak untsa girela; ni ere biziki pixkor eta ikusten dixit xure untsa xiela, lan guziak itzulikatuz», «bi lerro erraiteko gu denak untsa girela, eta ikusten dixit xure letretan untsa ziztela, lana frango itzulikatuz» (AB). Cf. P. Larzabalen hau (1998: 182): «Geroztik, 1960ean, Biarritzeko irratitik, Michel Labéguerie gure laguna hasi zen bere gitarrarekin kantu berri zenbaiten itzulikatzen». J. Etxepare medikuak ere erabiltzen du (1988: 220), honek Satrustegik biltzen duen adierarekin edo: «Hemen azken egunetan jin depexa batek itzulikatatu ditu eta nahasi hainitzak».
- ixil** *izond.* Isila, hitz egiten ez duena, zaratarik ateratzen ez duena / **ixil-ixila** *adond.* Hagitz isilik: «Zernahi dela denbora badiaxu ixil-ixila» / **ixilik** *adond.* Isilik, mintzatu gabe, zaratarik atera gabe: *Háuxilik í, pto zikína!* ‘hago isilik hi, pito zikína!».
- ixildu** *ad.* (da-du) Isildu.
- ixiltasún** *iz.* Isiltasuna.
- ixkilíma** *iz.* Izkilinba.
- ixkjátu** *ad.* (du) Izkiriatu, idatzi: *Lehéngo zahár zombáitek xarmánki ixkjátzen zúten eskwáraz.*
- ixkjatzále** *iz.* eta *izond.* Idazten duena.
- ixkjátzeko mekaníka** *iz.* Idazmakina.
- ixkjóne** *iz.* 1- Idazkera, 2- Izkribua. Cf. Luzaideko letra bateko pasarte hau: «Barkatu ene ixkione makurraz; orai buruko mina jina ixit».
- ixó** *interj.* Ixilik. Norbait isilarazteko erraten da.
- ixpíxo** *iz.* Apostua. Satrustegik (1963-64: 269) *ixpíxu* biltzen du. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 90) «Ichpicho ‘pari, gageure’» dakar.
- ixtánt** 1- *iz.* Unea, momentua: *Xáuri húnat ixtántpát; baúxu ixtántpáteko lána!* ‘izuga-

- rrizko lana duxu!’; *hágo ixtántpat ágo, arrapátzen bahút kúsiko úk!*, «Izigarriko denbora xarmanta dixiu, soruak in tixiu ixtanpatez, anitz eta hunak» (MA), 2- *adlag.* Berehala: *Ixtánteko ina íxit* ‘berehala eginen dixut’; *ixtántjan bétéko txít laétanói úrte* ‘berehala beteko ditxut laurogei urte’ / **ixtáño** *iz.* Une laburra: *Xáde ixtáñwat.*
- ixtápe** *iz.* Iztapea, hankartea, izartea. Satrustegik (1969b: 46) ondoko konjuru formula honetan *iztape* bildu zuen: «Pues, pues, aparta satán / berrehun iztapetan».
- ixtikátu** *ad.* (du) Oinkatu: *Ihiztári zikín hórjek arrúnt ixtikátu djáuxute ógi alór gúzja.* Ikus **zápaka aizán** eta **zapátu**.
- ixtoria** *iz.* MAren letra batean kausitu dugu: «Kalapitan abiatia duxu berrize; enfin, hunen ixtoriak, hurbiltxo bagina beden»; guk **ixtórjo** erabiliko genuke hemen.
- ixtórjo** *iz.* Kontakizuna, kondaira, afera.
- izán** *ad.* 1- (da) Izan: *Héneun Irúñen izán nintzán, ospitáljan,* 2- (du) Eduki: *Títjja nintzálaik banín atórra górrí-górrí bát,* 3- (du) Hartu, jaso, errezipitu: «Joakinaire eman diazkoxtut goraintziak; arrangura duxu paketta izan xinín» (MA), 4- (du) Denbora adierazteko ere erabiltzen da: *Bá-íxi anítz denbóra enizála mézan izána; bá-íxi bi áste Luzáiden izán nintzála.* Ikus **egón** eta **ukán**, 5- MAK, behin, ‘joan’ adierarekin-edo darabil: «Aña Maringana izan nuxu».
- izánki** *ad.* **Izán** aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).
- izár** *iz.* Izarra.
- izári** *iz.* Neurria. Ikus **izártu** eta **néurri**.
- izarkítu** *ad.* (du) Txingarrak gauean estali, hurrengo egunean sua pizturik egon dadin. Satrustegik *izarki* dakar lan batean (1963-64: 269) eta *izargitu* beranduagoko beste batean (*suiain izargítzia*, 1969b: 38). Aezkoan Caminok (1997: 602) *edazarki* bildu du eta Zaraitzun Aranek (2003: 154) *izarki*.
- izártu** *ad.* (du) Neurtu: *Izárkitxu pantalónak, éa nóla héldu zázkitxun.* Etxaidek *izartú gáuza bát* biltzen du (1989: 78).
- izérdi** *iz.* Izerdia: *Izérdja burrústaka héldu zitzjáxun / izérdi trénpan izán ad.* (da) Izerdi patsetan egon / **izérdi(ak) trenpátu**



- izán ad.** (da): *Lánetik izérdi trenpátwik átea ní; éta bánwa étxeat aldátzea; izérdjak trenpátja níxu.* Ikus **trénpán atxiki, trénpan zárri.**
- izértu ad.** (da) Izerditu: *Lastérka jíníz Arnéitík tá frángo izértu níz.*
- izigárrri, izigárrri** 1- *izond.* Handia: *Gizón izigárrja zén húra, 2- adond.* Biziki, **arrás**-en pareko mailakatzailea, **arrúnt** baino behe-ragoko mailakoa: *Izigárrri úntsa íntzín lána mutíko hárek; izigárrri húna; izigárrri pollíta, 3- izlag.* Ikaragarrikkoa: *izigárrriko pás-wa emántzakón.* Ikus **alímaleko, gáitzeko, ikaragárrriko, kristóin.** B. Etxeparek ere (1980 [1545]: 38) *izigarri* erabiltzen du, 4- *adond.* Anitz eta anitz; **ausárki** baino gehiago da. Cf. MAren hau: «Ilar anitz bauxu eta leka izigarri izan dixiu».
- izikór izond.** Izukorra, aise izutzen dena.
- izítu ad.** (da-du) Beldurtu, izutu, ikaratu. Cf. ABren pasarteño hau: «Behi pare atekin zezenetik heldu zelaik behiak izitu eta lurreat bota eta gainetik pasatu behiak, eta zanguan hexur bat hautsi». Satrustegik hau biltzen du: «Ez haila izi! Hire anaia nuk.
- Hail behala eta emazkik bi meza Orriagan enetako» (1969b: 75). Ikus **beldúrtu, harrúrtu** eta **lotsátu.**
- izjaldúra iz.** Ikara, ikaraldia, *susto* gaztelaniaz / **izjaldúra emán, hártu ad.** (du) Sustoa eman, hartu: *Ze izjaldúra emántzán* ‘zer sustoa eman zidan’, *gáitzeko izjaldúra emán dáxu!* Luzaiden gauza bera adierazteko **harrjázi** ere erraten da; Izetak (1996: 45, 102) *arrialdure* eta *izialdure* biltzen ditu Baztanen.
- izorrátu ad.** (da-du); ikus **zorrátu.** Satrustegik (1963-64: 269) *izurratu* dakar; guk ez dugu horrelakorik bildu ahal izan.
- izótz iz.** Izotza: *Zé izótzá bóta dín!, zé izótzá dén égun!* Ikus **karróin.**
- izóztu ad.** (du): *Bárda gárbi egóna dá tá izóztu dú izígarrri, déna xúri-xúrja dó.* Ikus **karróindu.**
- iztatrok.** ‘Andar los niños a caballo sobre el cuello’ (Satrustegi, 1963-64: 269). Guk ez dugu bildu ahal izan; honen ordainez **arri-konkolótx** edo **konkolótx** aditu ditugu.
- iztér iz.** Izterra. Ikus **ázpi.**
- izun atziz.** Ordezkoa: *Amáizun.*

## J

**já.** Jada, jadanik: «Aspaldian ezin menturatz bezala nindon, zuri bi lerroren egitea. Orain ja deliberatu dut iduritzen baitzitzaitan faltatzen ari nintzala» (AB).

**já** [xá], **já eré** [xá eré] *zenb.* Batere, deus ere: *Jáunzkixú lunétak, béstenaz etxú já eré kúsiko.*

**jabal, jabel** *izond.* Satrustegik (1963-64: 267) 'kalitate txarrekoa' dela dio eta *lur iabeleko artoa* 'maíz de tierra pobre' jasotzen. Cf. MAren pasarte hau: «Behi bat saldu dixiu, 25 mila pezeta in dixiu, eta etxeko ttipienaikin, ardi zenbaite saldu dixiu, jabalenetaik, zaharrak; nahi izan bagintu saldu hautak bira mila pezeta emaiten ziaxoxuten». Hemen *jabal* hori 'ahula, 'kaskarra'-edo da, segur aski usaian **errefúsak** deitzen direnak, hots, erosleak ezin aukera ditzakeen ardiak. Bestelakoei, erostunak aukeratzan dituenai, **hautak** erraten zaie.

**jábe** *iz.* Jabea.

**jabétu** *ad.* (da) Zerbaiten jabe egin.

**jadánik** *adond.* Ja. Cf. MAren hau: «Jadanik lehene bazixin buruko flakeza hori jua den urtian eri egonezkioz». Ez da sobera ibiltzen; honen ordez **déja** nahiago izaten da. Ikus sarrera hau.

**jájá, jájájá, jájájájá** *interj.* Espainoleko ¡qué va, qué va! edo ¡no, no, no!-ren baliokidea da, hots, 'ezta pentsatu ere'-edo da horren adiera: *–Gáur jwáin gírea sanferminetá? –Jájájájá, arrún leherrína núk tá eztját báte gutzjaik.* Hau eta **baitó, eztó** ez dira arras gauza bera.

**jaketá** *kausazko mend.* Normalean aditzari *–en* menderagailua ezartzen zaio: *Jaketá étxeat héldu xjén, kárzkixú bí ógi.* Eskutizetan pare bat aldiz *–az gainian* adiera-

kidearekin batean ageri da: «...hera zerbaitetaik biltzen tuan gastatu tuainandako, jaketa gure Jinko hunak laneko hoin hun utzi ninaz gainian, nahi dixi har nain» (MA). Bestela, *–az gainian* bakarririk ere ager daiteke, erranahi berarekin: «Nike untsa plazer hartuko nixin ikusi izan baxintut Iruñen; X-k erran [t]ziaxun ikusi xintila. Ni ere kusi nahiko ninduxula han [n]jintzanaz gainian» (AB). Gutunetan *jakeeta* jatorrizko aldaera ere agertzen da.

**jáki** *iz.* Otordu bateko bigarren platera.

**jakín** *ad.* (du) Zerbaiten berri ezagutu, jakin / **jakína.** Zerbait agerikoa dela adierazteko ibiltzen da: *Hórrek sós ánitx irázten dú, bána, jakína, hortáko lánjan lehér ín artjó aizán behár;* ikus **bístan, bixtan dená** eta **kláro.** Bada esamoldea edo erraiteko manera bat Luzaiden, **jakíten ahál izán,** 'seguru izan, egon' adiera duena: *Jakíten al dúk jinen déla* 'seguru egon haiteke etorriko dela', *jakíten al dúk (bajétz)* 'seguru egon haiteke (baietz)'.  
**jakínki** *ad.* **Jakín** aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).

**jakíntsún** *iz.* eta *izond.* Anitz dakiena, jakintsua: *Értén dúte gizón hóri jakíntsún háundja déla.*

**jakitáte** *iz.* Jakinduria: *Jakitáte háundiko gizóna úk hóri.*

**jakítu** *adond.* Neurritz, emeki, jateko gehiegi gastatu gabe jan: *Jántzák jakítuz.* Cf. J. Etxepare medikuaren pasarteño hau (1987: 81): «Penarekin ikusten diat ehizala izanen, hi, sekula deustako; aseko hiz behar bada noizean behin, jaki onaren jakituz ja-

- ten jakinen dukan ez diat uste». Ikus Izeta (1996: 185) eta *OEH*-ko *jakitu* sarrera.
- jále** *izond.* eta *iz.* Jatuna: *Áita izígarrri jále háundja zúxun.*
- jalgi** Satrustegik (1963-64: 267) 'salir, provenir' adiera ematen dio; guk ez dugu sekulan aditu. Cf. B. Etxepareren «jalgi adi plazara» ezaguna (1980: [1545]: 250).
- ján** *ad.* (du) Jan.
- janári** *iz.* Jatekoa.
- jandárma** *iz.* Jendarmea (frantseseko *gendarme*-tik). Satrustegik (1969b: 83) 'marimandona', 'marisarjenta' adierarekin bildu zuen.
- Jandenaki.** Manezaundiren arabera (1990: 282) Luzaiden lehen *Yandenakitan* ibiltzen zen orain *Santjágotan* erraten dena adierazteko: «Ohartzekoa da Benabarren, Laphurdin eta Xuberon nola deitzen duten Santiago eguna. *Yandenaki*, (Yaundone Yaki = santo señor Yako). Ene sortherrian (Luzaide) galdegiten balinbaduzue noiz diren herriko bestak ihardetsiko dauzutue (sic): "Yandenakitan" (Santiagotan). Ikhesten dugun bezala mendiez beste aldekoek, (eta bai ere Iruñekoek lehengo denboretan), bethi *yaun* ezartzen zuten *done* aitzinetik».
- janíza** *iz.* Apetitu handia: *Zé janíza dín mutíko húnek!*
- jankatu** *ad.* (du) (Anitz) jan. Luzaideko gutun batean ageri da: «Ehun eta laueta hogoi launena manatia omen dixie. Ze jankiak ditun hok! Denak jankatzen txie hok!». Eskuarki *xaflátu* erraten da. Cf. **itzulikatu**.
- janki** *izond.* Jatuna. Luzaideko letra batean kausitu dugu; normalki **jále** erabiltzen da. Ikus aitzineko sarrera.
- jantéi** *iz.* Aziendei belarra emateko tokia, bordetan egoten dena.
- jántza** *iz.* Dantza: «...eta haurrak Donianeko eta Arneiko bestetan tiraala jantzan» (MA) / **jántzan aizán** *ad.* (da) Dantzatu.
- jantzári** *izond.* eta *iz.* Dantzaria.
- jarráiki** 1- *ad.* (da) Norbaiten gibeletik segitu. **Segítu** ibiltzen da bestela, 2- *Izond.* Jarraitu, jarraipena duena: *Gizón jarráikia* 'hombre constante' (guti ibiltzen da), 3- *adond.* Gelditu gabe. Cf. MAren hau: «Alta, hartzen ahal gituxu jarraiki-jarrai-
- kia» 'alta aritzen ahal gaituxu gelditu gabe'.
- járri** *ad.* (da) 1- Eseri: *Bétti, gambáran sártu, éta bórtá ondwán zén kadéran járri zén,* 2- (da) Jarri: *Járradí telefonan,* 3- Ohitu, usatu: «Egun meza apezak guauri so eman dixi. Hor hasiak ziztea? Apezendakore lan haundia duxu jarri artio» (MA). Iragankorra denean **zárri** ibiltzen da.
- jasáil** *iz.* Irasaila, iralarrea. Ikus **íátze**. Satrustegik (1963-64: 268) **ihatsail** 'helechal' dakar.
- jasaille.** Satrustegik (1963-64: 267) biltzen du eta 'víctima' adiera ematen. Hurrengo lekukotsasuna ere badakar: «Alakuen egile bano obe da jasaile *se dice en casos de injusticia manifiesta*».
- jasán** *ad.* (du) 1- Jasan: *Pízu hóri eztút jasáiten ál!; hí ejút jasáiten ál!*, 2- Haurra jaso, haurra besoetan hartu, bataiatzean (Satrustegi, 1969b: 68).
- jastátu** *ad.* (du) Dastatu, probatu: *Jastátu beháut artzáin famátu horrén gásna hórtáik, solása baitá háuta déla.*
- jatéko** *iz.* Janaria: *Hotél hártan xarmánki egón ginén, tókja pollíta tá játékwaré húna.*
- játs** *iz.* Isatsa, erratza.
- jatsilárre** *iz.* Isatsainarra, txilar erratza. Satrustegik (1963-64: 267) *iats ilar* biltzen du.
- jatzárrjan egón** *ad.* (da) Iratzarririk egon: *Bi orén húntan játzarrjan njóxo.* Satrustegik (1969b: 68) *ihatzarrian* bildu zuen. Ikus **gazaita**.
- jatzártu** *ad.* (da-du) Iratzarri: *Égun góizeko bostóntan játzártu núxu.* Etxaidek (1989: 298) *irátzartú* dakar.
- jáun** *iz.* Jauna: *Jáun apéza, jáun medíkja, jáun alkátja...* e.a. / **jáũño** *iz.* Jaunskila.
- jáunskíla** *iz.* Adiera gaitzesgarria du: *Jáunskíla ménts horrékin eztút jéuse jakín náí.*
- jaúntto, jaúnttoño** *iz.* Jaunskila. Ikus aitzineko sarrera.
- jaúntzi** *ad.* (du) Jantzi: *Jaúntzi txít eskulárrjak bínperrez; jáunzkitxú lunétak, béstenaz etxú já eré kúsíko.* Ikus **beztítu**.
- jáuzi** 1- *iz.* Jauzia, saltoa, 2- *iz.* Luzaideko «jantzetako» bukaerako saltoa, 3- *iz.* Dantza: *Luzáideko jáuzjak* 'Luzaideko dantzak', 4- *ad.* (da) Atera, jarri (ikus **lótu**): *Burúko mína jáuzten zjáuxu ardúra; burúko mína jáuzja íxit.* Cf. Luzaide-

ko gutunetako pasarteño hauek: «...eta goizian hoztu baitzen, sahetsian punta bat ('min bat') jauzik, egun pareat egon homen duxu ohian», «X-e operatuik duxu eta orai flebitis jauzi ziaxoxo» / **jauzín ad.** (du) 1- Jauzi egin, 2- Fite alde egin: *Úswak héldu djélaik ihiztárjek jáuziten díxje méndirat* / **jáuzjak ín ad.** (du) Fite alde egin: *Zákurrak ikústen nlaik jáuzjak íten txí etxétik* / **jáuzjan jwán ad.** (da) Ahalik lasterren joan: *Sósa galdín zjáxun tá wái kústen nlaik jáuzjan jwáiten dúxu ník ez dezátan hatzemán.*

**jáuzika aizán, ibíli, hási, jín, jwán... ad.** (da) Saltoka aritu, saltoka ibili, hasi, jin, joan... Ikus **jáuzteka aizán, ibíli.**

**jauzikári iz.** eta *izond.* Jauzilaria, jauzi egiten duena.

**jauzimózka aizán ad.** (da) Haur josteta da; Sastrustegiren arabera (1963-64: 268) 'bi oinak aldi berean mugituz jauzika aurrera joan' da honen erranahia. Axuriak jauzika ari direlarik ere *jauzimózka* ari direla erraten da.

**jáuzteka aizán, hási, ibíli ad.** (da) Jauzika ari izan, hasi, ibili. Ikus **jáuzi.**

**jáz adond.** Joan den urtean, iaz.

**jeíki ad.** (da) Jaiki.

**jeíki-etzánka ibíli ad.** (da), **jeíki-etzánka pasátu ad.** (da-du) Jaiki eta etzan, behin baino gehiagotan. Cf. Luzaideko gutun bateko pasarte hau: «Gripa gaixtua duxu aurren; ez dixit medikuik izan. Pasatu duxu jeiki-etzanka, bana fattalian utzi nixi» (MA).

**jeitzi.** Ikus **déitzi.** MAk erabiltzen du; cf. pasarteño hau: «Ximone ardiak jeitzita, egun aizina baitzin, juan duxu etzatea».

**jelós izond.** Bekaiztia: *Gizón hóri izgarri jelósa dúxu* / **jelós izán ad.** (da) Susmoa izan. Cf. Arnegiko AAren pasarte hau: «Itzuli xarmanta eginik Kanadan jin gintuxun eta ez pentsatzen holakorik gertatuko zitzakula. Bakarrik han ere jelostia ninduxun puxka bat; etzixin jaten usaian bezela (sic) eta orduko zerbeit hasia zuke-xun haren estomakan».

**jelósko iz.** Jeloskeria, bekaizkeria.

**jelóskór izond.** Bekaiztia.

**jenatu ad.** (da) Haserretu edo (frantseseko *gêner-etik*). Gutunetan aurkitu dugu: «Or-

dian eninduxun bate jenatu eta ekarri zixien hiru gizonendako sei atorra, heldu baita bira atorra botigako» (MA).

**jendáki iz.** Ahaidea. Ikus **ahíde eta askazi.**

**jénde iz.** Jendea. Pluralean ere erabil daiteke, singularrean ez ezik: *Jénde húnak léku gúzitan badirá; jénde gáitza bíldu zén bolánten egúnjan Luzáiden; hérrí ttípi hórtañ ehún bát jénde bízi díra; jénde háundja 'jendetza handia', jénde anítz, anítz jénde 'jende asko', alimáleko jéndja 'jendetza handia'.* Cf. letretako pasarteño hauek: «Hortatik ageri uxu jende atxikimendu haundia badauzietela», «ehun bat jende bazuxun» (AB), «juan den ortzalian Iruñen gintxun Josepein ezteietan; alimaleko jendia bazuxun, 80 lagun», «konprenditzen ditxit xure lanak, eta helen bezalatsu segitzen jendekin, anitz bulta galduz» (MA).

**jendeálde iz.** Jendetza: *Ze jendeáldja bíldu zén bázko egúnjan bolánten ikústeko! Jendeáldje gáitza!*

**jendekín izond.** Jendekoia.

**jés harridurazko interj.** «Ikusten nixin arrotz bat doludunetan, eta jes!, enixin ezagutzen. Gero oroit u ninduxun senarra zenak bazila sematxi bat Frantzian. Eta ura zuxun!» (Saturstegi, 1969b: 69). *Jés!, zé déurru aí dá gízón hóri hémen?*

**jéuse, jéusez.** Gehienetan forma hau erabiltzen da, baina *déuse* ere ibiltzen dute. *Jéuse galdín dúxa?* 'ezer galdetu al duzu?' (xuka). Ikus **déus.** *Etxí jéustako báljo (= etxi sós báte báljo 'ez du deus ere balio') / jéusetané ez* 'inola ere', gaztelaniako *por nada del mundo*-ren baliokidea: *Jéusetané éndindjáitekexù léku hórtañ sár!*

**jéutsalá adond.** Goian-behean (euria): *Euría jéutsalá aí díxi.* Satrustegik (1963-64: 268) *ieustiala* biltzen du eta «torrencialmente. Se dice de la lluvia» gaineratzen du. Ikus **gohótik** (**gogo** sarrera), eta **zurrúpitaka aizán.**

**jéutsi ad.** (da-du) Jaitsi.

**jín ad.** (da) Etorri. Batzuetan *joan* erabiliko genukeen tokietan agertzen da, gutunetan: «Ondoko egunetan jakinen tuzie berriak xeheki; seurki gure gizon[ak] ez tuxu dolutiak horrat jitiáz» 'hurrengo egunetan jakinen dituzue berriak zehazki; zalantzarik

gabe gure gizonak ez daude penaturik horra joateaz’.

**jínki** *ad.* **Jín** aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Inigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).

**jínko** *iz.* Jainkoa: *Jínko máitja!*; *behárrik e-tzjákoxò jéuse pástu, jínkwai eskér díla!*

**jínkwain óllo** *iz.* Tximeleta. Etxaidek (1989: 110) *jínkoáin óllo* biltzen du erdarazko ‘murcielago’-ren kidetzat, baina hau **gawiñára** erraten da. Etxaidek bildutakoa Bonaparteren arabera (*Yinkoain ollo*, 1881: 163) ‘tximeleta’ da; egun hau adierazteko normalena **papillóta** da.

**jípa** *iz.* Jeep-a, lur orotakoa. ABk *xipa* idazten du.

**jipabide** *iz.* Lur-orotako ibilgailuentzako bidea. MAK darabil; ikus **gjelátu**, **gjelátu**.

**jó** *ad.* (du) 1-Jo, kolpe bat eman, 2- Musika tresna bat jo, 3- Oinetako batek oinean mina eman: *Zapéta zikín hók jóiten djáxute* (erdaraz *estos zapatos me pegan* erraten dute), 4- *iz.* Joa, gaztelaniako ‘pegada’: *Zé jóa zín Arrétxek!* / **jó éta xintxirikátu** *ad.* (du) Jo eta akabatu: *Géldik egóiten ez paíz jó ta xintxirikátuko hút!* Ikus **xintxirikátu**.

**jodítu** [xodítu] *ad.* (da-du) Izorratu: *Jodítu íxit álú hóri*. Ikus **zorrátu**.

**jóile** *iz.* Jotzailea.

**jóka aizán** *ad.* (da) Jotzen aritu: *Bí anájak jóka aizának túk* ‘bi anaiak joka ari izanak dituk’.

**jokátu** *ad.* (da-du) 1- Tartean dirua dagoenean ibili ohi da ( $\neq$  **aizán**  $\neq$  **jostátu**), baina ez beti, jakina: *Lépwá jokátzen deát hík báno lehéno finítuko utála lána*. Cf. ABren hau: «Familia juntatuxu; orai ageriko nola plantatuko dien, era buruz jokaturko dien», 2- Oilarra oiloaren gainean jarri, ernaltzeko: *Oilárrak óilwa jokátu dú*.

**jóko** *iz.* Jokoa. Ikus **ártzain jóko** eta **buútxa jóko**.

**jokolári** *izond.* eta *iz.* Jokalaria, kartetan edo beste edozein jokotan dirua jokatzen duena.

**Jondanaaniko buketa** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) ‘ramo de San Juan’ adiera ematen dio eta erraten Jaun done Joanes eguneko goizean borta nagusiko atalburuan ezartzen dela.

**Jondanaaniko elorri xuria** *iz.* Done Joanes goizean, argitu aitzinetik, etxeko atean eta

bordetan zurezko gurutze txikiak ezartzen dira, eta bedeinkatutako elorri adaxka (*Iondanaaniko elorri xuria*) (Satrustegi, 1969b: 44).

**Jondonahani** *iz.* Jaun done Joanes. Luzaideko arotzaren liburuan *Sanguanez* eta *Yondunaniz*, *Yandunaaniz* ageri dira (Satrustegi, 1969: 283). Ikus **gazaita**.

**Jondonimarti** *iz.* Cf. Intzak (1974: 161) Luzaidean bildu zuen erranairu hau: «Yondoni Marti, prest dena, parti!».

**Jondonipetri** *iz.* San Pedro eguna. Ikus **gazaita**.

**-jóné** (**-jón** inoiz) *atziz.* Izenak sortzen ditu: *Abjón, adorazjóné, atentzjóné, benedizjóné, diputazjóné, emozjóné, erreparazjóné, eskursjóné, estazjóné, felizitazjóné, funtzióné, ixkjóné, ilusjóné, indizjóné, inpresjóné, kamjón, kestjóné, komiñóné, kondizjóné, konpazjóné, konfirmazjóné, misjóné, nazjóné, obligazjóné, okasjóné, okupazjóné, pentsjóné, peregrinazjóné, rogazjóné, satisfazjóné, separazjóné, telebisjóné, tentsjóné, unjóné...a.*

**jóri** *izond.* Ugaria edo; jatekoekin ibiltzen da, irudi duen baino gehiago betetzen duena edo irauten duena adierazteko. Cf. Manezaunderen hau (1990: 30): «Eta hitz horien ondotik, Manezek sakelatik ateratzen ditu diru-paper yoriak».

**jornál** *iz.* Eguneko soldata. Arotzak ere baze-rabilen (Satrustegi, 1969: 163): «Gu[e]ro bazcarria bat yornalaindaco paraturic». Ikus **soldáta**.

**jórra** *iz.* Jorra, jorratzea / **jórran aizán** *ad.* (da) Belar gaiztoak kentzen aritu. Ikus **artojórra**, **jorrátu** eta **lusarjórra**.

**jorrái** *iz.* Jorratzeko ibiltzen den aitzur txikia. Cf. Luzaideko arotzaren liburuko etsenplu hauek (Satrustegi, 1969: 136, 139): «Bi agotaco yorrai bat arriñatu» ‘bi ahoko jorrai bat konpondu’, «yorrai bat eracachiric» ‘jorrai bat eratxirikir’...e.a.

**jorrásta** *iz.* Bigarren jorra. Satrustegik (1963-64: 269) ‘escardillo’ dela dio (ikus **jorrái**), alegia, ‘jorratzeko ibiltzen den aitzurkoa’. Guk bigarren adiera honetan ez dugu aurkitu.

**jorrátu** *ad.* (du) Jorratu, belar gaiztoak kendu. Ikus **jórran aizán**. Ikus **sarátu**.

**jósi** *ad.* (du) Josi.

**jostagín** *izond.* Jostuna, jolastaria: *Zé jostagí-na dén mutíko hóri!*

**jostagúra** *iz.* Jostatzeke, jolasteko gogoia: *Eníxu jostagúra* ‘ez dut jostatzeke gogorik’, xuka.

**jostátu** *ad.* (da) Dibertitu. Ikus **ári**, **jokátu**, **jostétan aizán**.

**jostéta** *iz.* Jolasa: *Kukúka ártzja jostéta pollíta dá/ jostétan aizán ad.* (da) Jolasean ari izan: *Háurrak jostétan ái txú herríko plázan.*

**jostun.** Satrustegik (1963-64: 269) ‘costurera’ adieraz jasotzen du, baina badirudi hitza ez dela Luzaidekoa. Lehen **dendári** erraten zen.

**joáre** *iz.* Joarea. Hiru silabatan ebakitzen da; Satrustegik (1963-64: 269) **ioale** biltzen du.

**júdu** *iz.* Judua.

**júje** *iz.* Epalea (biarneseko *judge, judye*-tik?). Kontuan hartu behar da, jatorriaz mintzatzean, B. Etxeparek ere *iuge, iuye* ibiltzen zuela (1980 [1545]: 34, 52...e.a.).

**juntátu** *ad.* (da-du): *Héldu dén iakóitzjan hérríko kínto gúzjak bílduko gíra.* Ikus **elgárrretátu**.

**juramentu** *iz.* Hizkuntzazarra, sakrea, biraoa / **juramentu ín** *ad.* (du): *Zé juramentjak ín-tzítín Péjok égun hártan!*

**juramentuka aizán** *ad.* (da) Biraoka ari izan: *Éskja bórtáikin harrapátu éta juramentuka aizán zúxun búltatez.*

**jús** *iz.* Salda, zukua (frantseseko *jus*-etik). Ikus **iránja jús**.

**justóki** *adond.* 1- Hain zuzen ere. Cf. MAren aipu hau: «Añain launtzen ez ninduxun han, justoki Bixkarrian ninduxun Graxiain launtzen xerriain arranjatzen, Carmen ai-

taikin baitzen gaizua». Ikus **háin justóki**, 2- Doi-doi: «Justoki atzeman nintixin (sic) Barkoxekuak eta erran niexun nik entzun behar nila D<sup>n</sup> Jose Mari eta heke enekin segitu zitxun» (MA).

**jústu** Doia. Cf. Luzaideko gutunetako pasarte hau: «Treineko tenoraien bea aburrituik egon ninduxun; gero X-e gibealeat juaiteko tenoria frango justian [t]zixin». Ikus **doí** / **jústu-jústjan adond.** Doi-doi: *Jústu-jústjan harrápatu íxju tréina.* Ikus **doí-dója**.

**jwá interj.** Behiei gelditzeko erraten zaiena. Ikus **áida** eta **ésti**.

**jwáiki ad.** **Jwán** aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).

**jwán ad.** (da) 1- Joan, 2- Hil: «M<sup>a</sup> Doloresi igortzen dakot X zer fontzian juaun. Zenbait meza entzunik jua da mundutik; nik uste baliatuko zazkon», «hamar bat ardi orotat jua duxu, lehen Frantzian juaiten zien bezala» (MA), 3- Desagertu, pasatu: «Kontent nuxu hoin untsa baitzizte gisa guziz eta xure minak hola juanik» (MA). Zenbait aldiz *jakíte*a-rekin edo gabe ‘auskalo’ adieraz ibiltzen da: *Xáxi (jakíte) zónbat denbóra huntákwa dén!* (sukaldeko goilaraz errana) ‘auskalo zenbat urte di-tuen’. Ikus **háil** eta **nór** / **jwantxe ad.** (da) Ia-ia joan: «Orai idurixi X-i juantxe zakola (‘ia-ia joan zaiola) faringitis; iraua diakoxu bi ilaite seurik» (AB). Ikus Kamino & Salaberri (2001: 84).

**jwánjín** *iz.* Joan-etorria: *Jwánjín bát ín beháixit Irúñeat.*

## K

- ka** atziz. 1- Txikigarria: *Behóka, pittíka*, 2- Errepikapena (**-kan** zenbaitetan): *Abríztuka, ahapéka, aldíka, aráuka, arkúmaka, eláka, karkáilaka, kaskárikaka, kiríkaka, kokorázkaka, kukúka, lastérka, lawázka, nóizjan béhinka, noizténka, óhju patárraka, zotínka*...e.a. Ikus Kamino & Salaberri (2001: 77-78).
- kaatéra** iz. Izaera: *Zé kaatéra txárra dín ustél zikín horrék!* ABk *karatera* ibiltzen du.
- kabála, kaála** iz. Azienda: *Bi kaála, bi kabála; gúre hérrjan, léhen séurik, kabálak enkorzántzjélaik olígwa emáiten zéten purtzílotik, kakíntzézáten*. Ikus **azínda**.
- kabalgáta** iz. Errege egunaren bezperako ikus-kizuna.
- kabalier** iz. Ezteietan neska bakoitzari lagundu behar dion mutila (Satrustegi, 1969b: 69). MAK ere badarabil, 'senarra' adierarakin: «Duten makurra Ferminek lau bano geio ez eremaiten ahal, seurrenik jinen tuxu hor izan ginen lauen kabalierrak».
- kabila** iz. Satrustegik dio (1969: 274) 'gurdientzako tornu txikia' dela eta zamari eusteko balio duela. Luzaideko arotzak darabil: «Bi cabila», «bi orga cabila einic», «cabila bat gatina mail bat», «bi cabila arriñatu» (ibid., 153, 183, 184, 221).
- kabrón** izond. Alua: *Kabrón zikína!, úrde kabróna!, úrde kabrón zikína!*
- kadána** iz. Kadena, katea, ume egin eta ondolan botatzen dena: *Xáde bórdan béjak kadának bóta ártjo*.
- kadéra** iz. Aulkia (≠ **álki** 'bankua').
- kaésa** iz. Fereka, balakuzko eta maitasuneko tratamendua (frantseseko *caresse*-tik). Baztanen Izetak (1996: 110) *karesa* dakar.
- kaesánt** izond. Pertsona balakatzaila, maitasuna ematen duena (frantseseko *caressant*-etik, *caresser* aditzaren oraineko partizipiotik, irudi duenez).
- kafár** (*kafár*ra era mugatuan; frantseseko *cafar*-etik) iz. Labezomorroa.
- káfe** iz. 1- Habia: *Óllo káfia úxu óllwak arrúltzjak errúten tén lékja*, 2- Kafea: *Eztút és-neik náhi, átea záxu káfe hútsa*.
- kafé ihára** iz. Kafea ehotzeko errotaxka.
- kafésne** iz. Kafesnea.
- káiil** atziz. Azkuek (1969 [1923-33]: 200, 202) txikigarritasuna adierazten duten hizki mailakatzailen arean sartzen du, *-ail*-etik aparte, baina bistan da atzizki beraren aldaerak direla. Luzaiden *gorkáiil* 'gorraila', 'gorrixka' izenondoan eta *zarkáiil*du (< \**zarkail*) 'andeatu' aditzean kausitu dugu, *horáiil*-en ez ezik.
- káka** 1- iz. Kaka. Iraintzeko noiznahi ibiltzen da: *Kakála híre!, káka déla híre!, káka déla híre tó, kakála híre tó!* 'kaka izan dadila hiretako', *káka déla háren, kakála háren, káka déla zjén, kakála zjén*...etab. Duhauk (2003: 401) forma hauek bildu ditu Beskoitzen: *Káka híre!, káka hietzat!, kakaala harrentzat!*, 2- izond. Kakazu: *Zé káka dén maztéki hóri!*, 3- interj. Haserrea adierazten du: *Káka!, bérrizé érja harrapátu dját bórtaiкин!* / **káka zahár** interj. Haserrea adierazteko ibiltzen da: *Káka zahárra!* / **kakín** ad. (du) Kaka egin: cf. esamolde hau: *Jés, ník kakín ta hík ihéts*. Satrustegik (1969b: 41) igarkizun hau bildu zuen: «Egun guzian kakiten eta atsian bere kakaz estalzen» (sua). Ikus **háil**.
- kakamárlo** iz. Gaztelaniaz *ciervo volante* da.
- kakaméta** iz. Kaka pila.

**kakamokórdo** 1- *iz.* Kaka mokordoa, 2- *izond.* Kakazua, sakretako ibiltzen da: *kakamokórdwa aláin kakamokórdwa!*, *kakamokórdwa aláina!*, *kakamokórdwa!*, *kakamokórdwa ezbértzja!*, *kakamokórdo zár zikína!*, *kakamokórdo zárra!*, *kakamokórdo zikína!*, *urdé kakamokórdo zár zikína!*, *urdé kakamokórdo zárra!*, *urdé kakamokórdo zikína!* Duhauk (2003: 401) *kaka mokhordo harrentzat!* biltzen du.

**kakázu** (*kakazúja* era mugatuan, sakretako ibiltzen delarik; bestela *kakázja* eta *kaká-xja* erraten da) *izond.* Kakazua: *Kakazúja!*, *kakazúja aláin kakazúja!*, *kakazúja aláina!*, *urdé kakazúja!* Salaberri Ibarrolakoak (1856: 101) *kakazu* ‘qui a de la merde’ biltzen du. Ikus **káka**.

**kakáfe** *iz.* Kakagalea, kakagura / **kakíljak egón** *ad.* (da) Kakagaleak egon: *Kakíljak njók* ‘kakagaleak negok’. Ikus **mókwan izán**, **móko** sarreran.

**kakólak** *iz.* Txalma, aziendetan ezartzen zen tresna; **kakóla** (singularrean) *izond.* Kalkua. Satrustegik (1963-64: 270) bigarren adiera biltzen du eta dio ‘poco mañoso’ dela.

**kakótz** *iz.* Matxarda, sardeia (gaztain morkotsak hartzeko pintza modukoak).

**kakurrín** *iz.* Kaka urrina, kaka usaina. Ikus **pi-zurrín**, **urrín**, **zipilurrín**.

**-kala atziz.** Bakarrik **erdíkala** ‘erdiraino’ (ontziekin) hitzean kausitu dugu.

**kalákan aizán** *ad.* (da) Eleka ari izan. Ikus **elakári**.

**kalakári** *izond.* Elekaria.

**kalapíta** *iz.* Zarata handia. Ikus **azántz**, **háro** eta **harrabóts**: *Zé kalapíta zén Luzáideko ostátu hártan bolánt egúnjan!* Satrustegik (1963-64: 257) ‘grito, griterío’ erranahia ematen dio / **kalapíta plantátu** *ad.* (du): *Zé kalapíta plantátu utén háur hórjek!* / **kalapitan abiatu** *ad.* (da): «Kalapitan abiatia duxu berrize; enfin, hunen ixtoriak, hurbiltzo bagina beden» (MA).

**kalapitaháundi** *izond.* Burrunberoa, azantzilea: *Hágo géldik éta ixílik, kalapitaháundja aláina!*

**kálda** *iz.* Bero sapa: *Zé kálda, erréztzeko bérwa ái díxi!*

**kaldatu** *ad.* Satrustegiren arabera (1969: 275) ‘templar el hierro’ erran nahi du Luzaideko arotzak darabilenak: «Mazeta bat caldatu-ric» (195), «mazeta bat caldatu» (199), «bi burdin ziri caldatu» (101), «bi mazeta caldatu» (207).

**kalefakzjón** *iz.* Kalefakzioa (espainoleko *calefacció*-etik, antza). MAK **kalifakzionia** du behin.

**kalíjjo** *iz.* Kalipua, adorea. Satrustegik (1963-64: 270) *kalapio* jaso zuen.

**kalítu** *ad.* (du) Sugeak hil. Satrustegik (1963-64: 270) ‘matar (se dice de las alimañas)’ dakar.

**kalítza** *iz.* Garatxoa.

**kalkárika aizán** *ad.* (da) Borborka ari izan: *Kentzáxu sálda hóri, kalkárika ái baitá éta gaindikátzeko lanjérra íxi.*

**kalla**. Satrustegik (1963-64: 270) biltzen du, ‘galeperra’ adieraz (frantseseko *caille-tik?*). Guk ez dugu aditu.

**kallarri** *iz.* Uharria. Satrustegik (1963-64: 270) biltzen du.

**kalostrápe** *iz.* Eliza aurreko arkupe modukoa. Satrustegik (1969b: 96) ‘atalaurrea’, ‘atarria’ adierak ematen dizkio, hitza edozein etxetakoa adierazteko erabiltzen ahalko balitz bezala.

**kalota** *iz.* Kapela, txanoa (frantseseko *calotte-tik*). MAK darabil: «Ikusi baxinu Eliza bortan X enegana jinik haurra nola atxik manatzea!, buruko kalotare ez utzi nahi kentzea!, ohono holakoik ez dixiu entzun!».

**kálte** *iz.* Kaltea / **kálte ín** *ad.* (du) Kalte egin: *Jwandén egúneko xíxek kálte íntzjúxuten.*

**kamamíla** *iz.* Kamamila, landarea eta infusioa.

**kamiséta** *iz.* Barne jantzia (gaztelaniako *camiseta-tik*). **Atorrabarnéko** eta **larrwaséko** ere erabiltzen dira, baina gutxiago.

**kamjón** *iz.* Kamioia (frantseseko *camion-tik* edo gaztelaniako *camión-tik*).

**kamjóntra** *iz.* Kamioikada: *Jwandén egúnjan jíntzén kamjóntrat lásto.*

**kána** *iz.* Artokana: *Ártwa ihártzen délaik gél-dítzen dén makíla; léhen bíltzen zítzun iháurgítako.*

**kambjakór** *izond.* Aldakorra. Ikus **sanjakór** eta **sanjant**, **sañant**.

**kambjátu** *ad.* (da-du) Aldatu (gaztelaniako *cambiar-tik* edo biarnes-gaskoiko *cambià-tik*). Ikus **aldátu** eta **sanjatu**, **sañátu**.



- kánbjo** *iz.* 1- Aldaketa (espainoleko *cambio*-tik): *Denbóra húnék baixi kánbjoa*; cf. MAren hau: «Orai egun hotan marranta, denborak kanbio handia hartu baitu», 2- Diru xehea. Ikus **xéhe**.
- kaneta** *iz.* Luzaideko arotzak darabil, baina ez dago guztiz garbi zer erran nahi duen: «Caneta bat iziac» (Satrustegi, 1969: 186). *OEH*-k 'tuyau, orifice d'une source', 'petit tube', 'godet en metal avec anse' adierak ematen dizkio.
- kankáil** *izond.* Gizon handi, lodi eta trakets antza.
- kanpatasún** *iz.* Beheitikoa, kakeria. Biziki gutitan aditzen den hitza da hau; lehen gehiagoko ibiltzen bide zen.
- kánpo** *iz.* 1- Kanpoaldea: *Zázi kánpwat; záude kánpwan*, 2- Mendia edo, pentzeak eta (gaztelaniako *campo* bera): *Áurten góizo hási dá kánpua pírtzen*.
- kanpokálde** 1- *iz.* Kanpoaldea: *Kanpokáldjan baúxu nóáit xúre béa*, 2- *post.* (genitiboarekin): *Étxjain kanpokáldjan bazjén líli pollit bátzu*.
- kanpoko leio** *iz.* Satrustegik jasotzen du eta 'contraventana' adiera ematen (1969b: 96). Ibarak (1995: 661) *kanpoleio* bildu zuen Ultzaman erranahi horrekin.
- kanpotjár, kanpotjér** *izond.* eta *iz.* Kanpotarra: *Orái Iruñe kanpotjárrez jójsa úxu*.
- kantári** *izond.* eta *iz.* Kantatzen duena.
- kantátu** *ad.* (du) 1- Abestu, 2- MAK 'atera, atarramentu izan, gertatu...' adierarekin darabil eta Añes Kaminondok ere ezagutzen zuen erabilera hau: «Ez diakixut undarrian gaizo gure X-k zer kantatuko din; berak iduri dixi untsatu dela, untsa jaten dixi, lo itene ba, bana sukár dezima horiek segitzen».
- kantero, kanteroerdi** *iz.* Txanbila. Luzaideko arotzak darabiltza (Satrustegi, 1969): «Canteroerdi bat ano» (197), «cantero bat ano» (228). Ikus **pegár**.
- kantítu** *ad.* (da). Ezezkoan ibiltzen da, 'ez handitu' adieraz: *Mutíko hóri típi geldítu dá, ezta kantítu* 'ez da handitu'.
- kantóin** *iz.* Izkina.
- kanton arri** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) jasotzen du eta 'kantoi harria' adiera ematen.
- kántu** *iz.* Kanta, abestia: «Liturjia esplikatu diauxu lehenik eta gero ensaiua kantuz» (MA) / **kántuz áizán** *ad.* (da) Kantatu, abesten ari izan.
- kántzer** *iz.* Minbizia (espainoleko *cáncer*-etik). Ikus **xángre**.
- kañíka** *iz.* Puxtarría (espainoleko *canica*-tik; palatalizazioa adierazkorra dateke): *Kañíketan ái txú mutíko hórjek*.
- kápa** *iz.* Kapa; hilarioan dolua adierazteko besoan eramaten zen jantzia. ABk *gapa* ibiltzen du; honela dio, argazki batez ari delarik: «Irriz aizana nuxu ene baitan; kaputxinaikilako hau etxit zautzen eta nahi nikexi jakin nor den. Errekoxu Don Jose Mari eztela geio manteletaik zartzen eta gizonak gapaiek ez enterramendutan».
- kapáble izán** *ad.* (da) Gauza, gai izan (frantsesezko *capable*-tik): *Kapáble xíra horrén íteko; hóri kapáble úxu zernáitako*.
- kapilon** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) biltzen du eta erraten 'vigüeta inclinada del tejado' dela.
- kaputxína** *iz.* Lehengo emaztekiek ezkondu ondoren karrikan eraman behar zuten lurrerainoko kapa txanoduna. Cf. hau: «Errekoxu Don Jose Mari errezibitu duala igorri dan liburu menderen mendetakua, istorio pollitekin, aizina dualaiek zenbait pasaldi emain dakotala. Irriz aizana nuxu ene baitan; kaputxinaikilako hau etxit zautzen eta nahi nikexi jakin nor den» (AB). Ikus, hitz hau dela eta, Satrustegi (1969b: 64).
- kaputxúljak (kaputxúlu)** *iz.* Supazterrean ibiltzen diren burdinak. Satrustegik (1969b: 28) *kaputxiliak* dakar.
- kara atziz.** Antza: *Ilúnkara, zalúkara*.
- karakól** *iz.* Marraskiloa.
- kárga** *iz.* Zama: *Záku húnék zé kárga dín!* ('zer pisua duen!'). Ikus **tórnú** eta **záma** sarrera.
- kárjo** 1- *iz.* Garestia; Etxeparek *carioqui* darabil (1980 [1545]: 28), 2- *adlag.* '-en kariaz', '-en karietara', '-ela eta'; *zér kárióz* itzulian ibiltzen da bakarrik: *Eztjakixút zér kárjoz errántzín, ín dúxun, jwán den...* 'ez dakit zer dela-eta erran zuen, egin dúxun, joan den...e.a.
- karjótu** *ad.* (da-du) Garestitu.
- karkáila** *iz.* (Barre) Algara. Ikus **írrikarkáila**.
- karkáilaka áizán, írrikarkáilaka áizán** *ad.* (da) (Barre) algaraka ari izan.
- kárki** *ad.* **Kárrí** aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).

**karkúla** *iz.* Kalkulua (frantsesezko *calcul-etik?* Gaskoiz-biarnesez *calcul* eta *carcul* erratan da) / **kárkulak ín ad.** (du) Kalkulatu.

**karkulaméndu** *iz.* Kalkulua, zerbaiten kalkulatzea / **karkulaméndjak ín ad.** (du) Kalkulatu.

**karkulátu ad.** (du) Kalkulatu (gaskoiz-biarnesez *carcula*, *calculà* ‘kalkulatu’ ibiltzen dira).

**karmañól** *iz.* Kolore bizi desberdinak dituen arropa (fr. *carmagnole*): *Zé atórra karnañóla damázun!* Satrustegik ere (1963-64: 270) biltzen du eta ‘desfundamentado, simple’ adiera ematen.

**karmútzá** *iz.* Zimak, kalparra: *Mótxaxù, otói, karmútzá hóri, xuháun búrja itsústén dúxu!*

**karmutzáundi** *izond.* Zimaluzea, kimazua: *Urdé karmutzáundja, nóiz móztu behár tük bílo lúze zikín hórjek?*

**karnabálak** *iz.* Ihauteriak. Ikus **iháut** eta **iháutíri**.

**karnizería** *iz.* Harategia. Ikus **buxérja**.

**karnizéro** *iz.* Harakina. Ikus **buxér**.

**karrákaka 1- iz.** Eztarria garbitzeko, eztarriko lakarra kentzeko egiten den ez tul modukoa. Satrustegik (1963-64: 270) biltzen du, 2- *adond.* Karrakatuz: *Zártáin hóri karrákaka garbítu behárko úxu, béstenaz ezta-kóxo dín zóldra kénduko.*

**karrakalátja egón, izán ad.** (da) Adinagatik ajeturik, zahaturik egon. Izetak Baztanen (1996: 110) adiera bertsuko **karrakaildu** bildu du.

**karrakátu ad.** (du) *Raer, racler: Konpazjóné zartáinek éta éltzek dutén zóldrain kéntze-ko karrakátzen díra.* Cf. eskutitzetako pasarteño hau: «X gaitzeko obran ari uxu gaineko pisuan; denak, paeta guziak, karrakatuik, artemurru guziak botaik, denak adailiekin in omen txi eta zoladurak plastratu» (AB). Zeria ere, hil eta erre ondoan, ganibetekin **karrakatzen** da (Satrustegi, 1969b: 55). P. Narbaitzek (1999: 18) *bide karrakatu* darabil: «Joanes ari zaut gogotik lur itzultzen, bai eta ere, behar orduan, aza landatzen edo bide karrakatzen».

**karráska** *iz.* Ihortziri edo ortzantz handia: *Zé karráska ín dín!* Cf. Gutunetako pasarte

hau: «Ze denbora terribliak! Ze euriak eta ihortziri karraska itsusiak eta zimitzak» (AB) / **karráskan aizán ad.** (da) Lanean jo eta ke ari izan: *Zé, karráskan ái zizteá?* Ikus **ihortziri karráska** eta **ortzántz karráska**.

**karrera** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) ‘viga inferior’ dela dio.

**karretéra** *iz.* Errepidea. Ikus **erregebide**.

**karretílla** *iz.* Orgattoa. Ikus **eskórga**.

**karréun adlag.** Garraioan: *Égun gúzja pástu íxju egúr karréun / karréun aizán, íbili ad.* (da) Garraioan aritu, ibili.

**karreúza** *iz.* Garraioa: *Léhen gáwaz gáitzeko karreúza zúxun hémen.*

**kárri** (Luzaideko eskutitzetan **ekarri** ere agertzen da) *ad.* (du) 1- Ekarri, 2- *Supurar, supurer:* «Orai arrunt burian omen dixi xingola mina diela, gaizua haren! Hain untza baitzailan! Orai kartzen omen diakoxu frango, aldiaka. Ze nauxu! Haren estakuriak juain txu; berdín irauten ahal dixi» (AB), «orai artio egunian bietan iten zia-xun medikiak kura; egun behin bakarrik. Ja zerratia dixit, guti ekartzen diaxu, seur baitu zerbait ekarrik» (MA). *OEH-k ekarri* sarrean ez du ‘supurar’ adiera biltzen, baina *ekartze-n*, berriz, ‘supuración’ jasotzen da bigarren erranahitako. Ikus **esperantxa ekarri, obedentzia karri, ondorio ekarri**.

**karríka** *iz.* 1.- Kalea, 2- Luzaideko erdigunea, elizaren ingurua. Bigarren kasu honetan **Karrika** idatzi behar da, izen berezitua baita.

**karríka baztér** *iz.* Guk ‘ostatua’ adieraz aditu dugu: *Zé bárda karríka baztér hórjetan íbiljak zizteá?* Ikus **baztér** eta **bidebaztér**.

**Karrikabúru** *iz.* Karrikan den **Karrikabúrja**-ko nagusia gehienetan, baina bertako beste norbait ere izan daiteke, bereziki aurrean izena paratzen bada: *Anpér Karrikabúru*. Leku genitiboaren hondarkia ere ibil daiteke: *Karrikabúruko Anpér*. **Karrikaburúsa** *iz.* *Karrikabúrja*-ko etxeoandrea. XIX. mendean, Luzaideko artozaren kontu liburuan, «carricaburusac» ageri da (Satrustegi, 1969: 179), ergatiboan.

**karrikatár** *iz.* eta *izond.* 1- Karrikan ibiltzea gustatzen zaiona, 2- Karrikakoa dena.

**karro**. Ikus **órga**.

**karróin** *iz.* Horma. Usu *háundi* edo *fiérra* du aldamenean: *Aurténgo négjan karróin háundjak ín tú;* «Egun hotan denbora hoztak biziki, egunaz iruzkiak berotzen dixi bana gauaz karroin fierrak ari tixi» (AB).

**karroin itze** *iz.* *OEH*-ren arabera 'horma, izotz puntzoia' da honen adiera. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 136, 159, 235): «Lziac, carroin iziac», «ferra bat, carroin iziac», «carroin iziac 8».

**karróindu** *ad.* (da-du) Hormatu: *Húra karróindu úk; hótz hunékin karróindja núk;* «Aurten izigarriko betarrak batixiu; justoki bildiak gintxin, bertzenaz oro karroindiak izain baitzien» (MA).

**karrósa** *iz.* 1- Zalgardia, jendea eramateko gurdia (biarnes-gaskoiko *carròs*-etik segur aski). Erran digutenez, lehenbiziko autoei **súzko karrósak** erratan omen zieten Luzaiden. Luzaideko arotzak ere bazerabilen: «Suteico icaza carrosain arriñazen», «carrosai bi zinta» (Satrustegi, 1969: 188, 206), 2- Tobera. Ikus *OEH*.

**karróta** *iz.* Azenarioa (frantsesezko *carotte*-tik hartu dela irudi du). **Pastanáda** ere ibiltzen bide da.

**kartjér** (*kartjérra*, era mugatuan, frantseseko *quartier*-etik) *iz.* Auzoa (tokia). Ikus **áuzo** sarrera.

**kartsuki** *adond.* Sutsuki: «Beti bezala bezperetat juan ginen eta ez apezik ez bezperaik; ordian pentsaketa egon nintzan elizan apezik gabe zein trixte zen eta otoiitz egin nin kartsuki sekulan ez ginten apezik gabe geldi» (MA).

**kasátu** *ad.* (da-du) Desagertu, desagerrarazi. *Asúnak behár txú pikátu béhin éta bérriz kasátu ártjo.* Cf. MAren etsenplu hau: «X-re ez baita lehen bezala, bere diabetaz horrek bista biziki laburtu diakoxu. Hartzen tiki injezioniak noizian behin, bana hori duaike ez baita aisa kasatzen».

**kási** *ad.* (du) Ikasi. Ikus **ikási**.

**kásik** *adond.* Ia. *Elúr hunékin kásik hóbe hémen geldítzen bagíra, etxétik átea gábe.*

**káska** *iz.* 1- Bolantek lehen ibiltzen zuten kapela (frantseseko *casque*-tik?), 2- Kolpea: *Píta zikína, zé káska hártután!*, *Zé káska hártu dwán káskwan* 'zer kolpea hartu du dan buruan'. Cf. MAren pasarteño hau:

«X-re berrize minartuik eroriko batetaik, bana ez dixi deuse hautsik, kaska bakarrrik».

**kaskárikaka aizán, egón, hási** *ad.* (da) Hotez dardarka ari izan, egon, hasi: *Méndirat jwán gínen tá sukárraikilan kaskárikaka hási nítzan.* Satrustegik (1963-64: 270) *kaskarika* biltzen du.

**kaskarín, kaxkarín** *izond.* Buruarina, txoriburu: *Bestáldi batéz etxitéla háin kaskarína izán!*

**kaskarot.** Satrustegik (1963-64: 270) 'sardina' adiera ematen dio; guk ezin izan dugu bildu.

**kásko** *iz.* 1- Burua / **káskotik béiti emán** *ad.* (du) Egurtu: *Káskotik béiti emáin déat ezipaíz géldik egóiten!* = *burútik béiti emáin déat ezipaíz géldik egóiten!*, 2- Mendi gailurra: *Astabizkárreko káskwa xúri-xúrja djóxo.* Ikus **harrótu**.

**kaskóin** *iz.* eta *izond.* Euskaraz ez dakiena; ikus **beharrimótz**: *Ikásak eskwáraz urde kaskóin zikína!*

**kasú** *interj.* Kontuz / **kasúman** *ad.* (du) Kontuz ibili: *Ganíta helménjan díxit, kasúmaxu!* / **kaswín** *ad.* (du) Kontuz ibili: *Kánpwat jwáiten xjélaik kaswín behár déxu ótwer.*

**kaswalitáte** *iz.* Halabeharra, kasualitatea: *Zé kaswalitátja!, sóixu nún héldu dén Putíko zahárra!*

**katexíma** *iz.* Katixima, kristau-ikasbidea: *Háurrrjan eskólan apéza jítan zítzáun kateximáin erakústea.*

**kattalingórri** *iz.* Marigorringoa.

**-kátu** *atziz.* (< -ka + -tu) Eskuarki errepikapena adierazten duten aditzak sortzen ditu, baina ez beti: *Abarrikátu, aldizkátu, besarkátu, elekátu, emokátu, laukátu, laurdenkátu, marruskátu, torroskátu...*e.a. Ikus Kamino & Salaberri (2001: 79).

**katzáka** *iz.* Borroka, eztabaida: *Zé katzáka ibíli utén étxe hórtan!* / **katzákan áizán, ibíli** *ad.* (da) Borrokan bezala aritu, elaka, eztabaidan: *Katzákan ibíli zineztén hán.*

**kauséra** *iz.* *Buñuelo, beignet.* Menéndez Pidalék dioenez (1962: 29-30) Luchairek ikusi zuen lehenengoz hitz hau euskaraz gaskonismoa dela, hots, gaskoitik (*caussere*-tik) hartu duela gure hizkuntzak.

**kausítu** *ad.* (du) 1- Aurkitu: *Kausítu diát Péllu Aurítzen*, 2- Asmatu: *Tírwat bóta ta kausítu diát 'tiro egin dut eta eman diot'*; *telebisiójnjan errán díxje elúrrín behár díla bána ezjááxiut kausítuko utén ala ez*; *-Eztukála kausítzen háu nóla dén!* – *Éz, aiséz, kausítu gábe!*

**ká[x]a** *iz.* Kaxa (gaztelaniako *caja*-tik). Ikus **késa**.

**káxa** *iz.* Giderdun eltzea.

**kaxinéta** *iz.* Bufanda (frantseseko *cache-nez*-etik?).

**kazolak** *iz.* Uztarriaren arku modukoak, Garmendiaren arabera (1969: 223), bestela **burutokiak** deitzen direnak.

**ké** (*kéja* era mugatuan) *iz.* Kea.

**kedárre** *iz.* Kedarra.

**kéfa**. Ikus **pikún** sarrera.

**keinátu** *ad.* (du) Keinu egin.

**kéinu** *iz.* Imintzioa, zeinua, seinalea / **kéinu ín** *ad.* (du) Zeinu egin, seinale egin: *Kéinu bát ín dakót*; *hoitaméka níla kéinu ín dakót* 'hogeita hamaika nuela keinu egin diot'

**kéndu** *ad.* (da-du) Kendu: *Kén hádi bidétik!*; *kéntxaxú hóri hórtik!* MAK *ekendu* ibiltzen du zenbait aldiz, nahiz ardurakoena *kendu* den emazteki honen eskutitzetan: «Bordaxarre hola-hola ahaxte batekin minartuik duxu; orai ekendia diakoxute plastria». ABk, berriz, beti *kendu* du.

**-kérja** *atziz.* Izenak sortzen ditu, beti adierari gaitzespena gehituz: *Aferkérja*, *ahalgegabekérja*, *alukérja*, *astokérja*, *astapitokérja*, *bandilkérja*, *burugabekérja*, *deurrukérja*, *drolekérja*, *eluntzikérja*, *ergelkérja*, *erokérja*, *errebeskérja*, *etsaikérja*, *faltsukérja*, *futitukérja*, *gaixtakérja*, *irringarrikérja*, *itsuskérja*, *lazakérja*, *menskérja* – *mentskérja*, *nahaskérja*, *pitokérja*, *sorginkérja*, *trampakérja*, *urdekérja*, *urgulukérja*, *zerrikérja*, *zikinkérja*, *zozokérja*. Ikus **-érja**.

**késa** *iz.* Kaxa (frantseseko *caisse*-tik). Ikus **ká[x]a**.

**kestjóne** *post.* Instrumentala eskatzen du eta 'ela eta' balioa du (frantseseko *question*-etik). Cf. Luzaideko letretako pasarte hauek: «Ba, hemene izan zituxun eta erran xiaxien nola ideia bazuten zien etxea jiteko, paperren itiaz kestione, noizko plantatuko zinezten». Ikus, halaber, Saint-Pierre

«Anxuberro»-ren hau (1998: 54): «Berri on bat aireplanez kestione; egun hautan aurdiki dauzkigute etsaien xori gizonek eskualdeko presuneren listak. Hiltzat ginazuekan batzu bizidire».

**-kéta** *atziz.* 'Bila', 'xerka' adiera du: *Abarkéta*, *belarkéta*, *belar[t]zamaketa*, *egurkéta*, *harriketeta*, *hurkéta*, *hilkéta*, *iatzekéta* – *ihatzekéta*, *medikuketa*, *oholketa*, *onddokéta*, *pitralqueta*, *tablonqueta* – *taulonqueta*, *ungarriketeta*, *zurketa*.

**-ketári** *atziz.* Bila, xerka doana: *Esneketári*, *gizonketári*, *zerriketári*.

**kexátu** *ad.* (da): *Langíle txarra zúxun*, *ardúra kexátzentzúxun tá undárrjan náusjak bóta íxi*.

**kéxu izán** *ad.* (da) Atsekabeturik egon: *Kéxu níz ez dálakotz zór dán sósa emáiten* 'atsekabeturik nago ez didalako zor didan dirua ematen'; *hóri béti kéxu!*

**kézka** *iz.* Kezka. Hitz hau ibiltzen da, baina **arrangúra** baino aise gutiago.

**-ki** *atziz.* 1- Modua: *Ausárki*, *azkárki*, *bíziki* – *bíziki*, *edérki*, *elegángi*, *errebésiki*, *garbóki*, *goxóki*, *ohíki*, *pollíki*, *potretagábeki*, *seúrkí*, *tínki*...e.a., 2- Zatia: *Ahatxéki*, *ahatéki*, *ardíki*, *arráinki*, *erórgi*, *erráki*, *ikazki*, *ollaskóki*, *zerríki*...e.a., 3- Zaletasuna edo: *Janki*, 4- Tresna, objektua: *Estálgi*, 5- Zehaztugabea: *Maztéki*.

**kiáts izond.** Mikatza: *Íránja hóri kiáts dá*. Ikus **samín**.

**kikíl** *iz.* Eri txingarra. Ikus **behátz**, **éri** eta **érikikíl**.

**kilíka** *iz.* Kilima / **kilíkak ín** *ad.* (du) Kilikorrrak egin, kilimak egin.

**kilikátu** *ad.* (du) Kilikak egin, kilimak egin: *Enezázula kilíka*.

**kilikór izond.** Kilikabera.

**kílo** *iz.* Pisu neurria.

**kilómetra** *iz.* Kilometroa (frantseseko *kilometre*-tik).

**-kín** *atziz.* 1- Gelditzen den, ezin balia daitekeen zatia: *Arkín*, *bazterkín*, *egoskín*, *soberakín*, *xwikín*, 2- Zalea: *Jendekín*, *launkín*.

**kinkila-kankala** 'Sostenerse con dificultad' da Satrustegiren arabera (1963-64: 270).

**kinkur** *iz.* Satrustegik (1963-64: 270) 'nuez de la garganta' adiera ematen dio, baina guk ez dugu bildu ahal izan. Irudi du hau Saka-

- nako aldaera dela, ez Luzaidekoa. Ikus Erdozia (2004: 175).
- kintal** *iz.* Pisu neurria (46 kilo zenbait lekutan). Luzaideko arotzaren kontu liburuan ardura agertzen da (Satrustegi, 1969): «Iru quintal soro emanik» (146), «lastuac quintalac 6» (148), «errezibitia belarrac lau quintal» (159).
- kirikaka aizán, ibili** *ad.* (da) Sartu-ateraka ibili, ezkutuka ari izan: *Primadéran ardúra irúzjka kirikaka ibiltzen dúxu.*
- kirkirika** *iz.* Satrustegiren arabera (1963-64: 270) ‘prurito’ da. Guk ez dugu biltzerik izan, baina bai irudiko adiera duen **kirkiríta**.
- kirkiríta** *iz.* Zintzurreko hazgalea: *Baíxit zintzúrrijan kirkirítat.*
- kirrikili-karrákala** *adond.* *Hémen njáilaxu, kirrikili-karrákala* ‘hemen nabil, mainguen modura’.
- kiskún-kaskún** *adond.* Erdipurdi: *Hóri eskwáraz kiskún-kaskún míntzo úxu.* Cf. Izetak Arizkunen bildutako erranairua (1996: 213): «Ixxun kaskun, bas-euskaldun». Caminok Aezkoan *triskun-traskun* bildu du (1997: 613), adiera berarekin: «Makeski edota ahal bezala mintzatzea; norbait gutzizko hizkuntz gaitasunera oraino iritsi ez den kasuetan erabiltzen da».
- kísu** *iz.* Karea (≠ **plástre** ‘igeltsua’).
- kisulábe** *iz.* Galtzina-labea.
- Kitérja** *iz.* Gaindolako *Kittirjájinja* (*Kiteriarena*-tik) etxeo nagusia; **Kiterjésa** *iz.* *Kittirjájinja*-ko etxeoandrea.
- kítoik** *adond.* Dohainik: *Átea zazú híru zalítira ilár, kítoik baitá.*
- kitzikan aizán, hási, ibili** *ad.* (da) Zirika ari izan, hasi, ibili: *Kontíno kitzikan dí zjáxu déurru zikín háu!*
- kitzikátu** *ad.* (du) Zirikatu: *A urd é zikína! Béti éne kitzikátzen ibiltzen dúxu!*
- kixkáildu** *ad.* (da-du) Zipilatu, arrunt erre. Gutxi ibiltzen da.
- kixkíl** *izond.* Gaiztoa edo. Jendearendako erraten da: *Zé gízón kixkíla hóri!* Satrustegiren arabera (1963-64: 270) ‘que hace charradas’ adiera du.
- kixkildu** *ad.* Satrustegik (1963-63: 270) ‘abrasarse’ adiera ematen dio; guk **kixkáildu** bildu dugu adiera honekin.
- kixkíta** *iz.* eta *izond.* Ardietan adar ttipi-ttipiak dituen. Ikus **mándo**.
- kixkorakátu** *ad.* (da-du) Arrunt idortu: *Belár hók arrúnt kixkorakátu txú, béro itsúsi hunékín.*
- klankanátu** *ad.* (du) Zerbait kontatu, kontatuz hedatu. Ardura ezezko perpausetan aditu dugu, baina baiezkoetan ere erabil daiteke: *Otói etxaxíla hóri klankána, etxít náhi jéndjak jakín dezán.*
- klár** (*klárra* era mugatuan) *izond.* eta *adond.* Argia, argiro (biarnes-gaskoiko *clà*-ren jatorri berekoa, irudi duenez, *clar*-etik alegia): *Atór klárra erósi uxú* ‘atorra argia erosi duxu’, *etxít klár ikústén* ‘ez dixut argi ikusten’, *wái gáuzak klárro ikústén txít* ‘orain gauzak argiago ikusten ditixut’. Leizarragak (1571) *claro* darabil.
- klárki** *adond.* Argiki: *Míntza xíte klárki!* B. Etxeparek ere (1980 [1545]: 58, 184) *klar*-ki zerabilen; Leizarragak, berriz, *klaroki* du 1571n.
- kláro** *interj.* Zerbait agerikoa dela adierazten duen mailegu berria (gaztelaniako *claro*-tik). Ikus **bístan** edo **bíxtan dená** eta **jakína**.
- kláse** *iz.* Mota: *Bána, bána, zé jénde kláse dá hóri?* Ikus **móta**.
- kláska, kláxka** *iz.* Behietan ibiltzen den joalkoa. Ikus **tulúnta**.
- klíka** *iz.* Lagunartea, koadrilla (frantseseko *clique* ‘lagunartea’-tik): «Bixtan dena, orai bertzenaze bauxu orai Luzaiden nexka gaxte klikat jostatzia bezik pentsatzen ez dutena» (MA).
- klikátu** *ad.* (du) Harraldi bakarrean edan: *Zérrí hórjek botóila óswa klikátu íxje.*
- klínika** *iz.* Erietxe pribatua (espainoleko *clínica*-tik). MAREN gutunetan *klinika* dago; ABrenetan *glinika* agertzen da gehienetan eta *klinika* hiru aldiz.
- klisketa**. Satrustegik (1963-64: 271) ‘cerradura’ adiera ematen dio. Ikus **kriskéta**.
- klóka sóinu** *iz.* Oilo-koloka soinua: *Óllo hórrek baíxi klóka sóinja* ‘oil horrek koloka soinua du’. Ikus **koróka**.
- klóska** *iz.* Zurezko eskalapoia. Ikus **eskalapín**.
- kloskero** *iz.* Satrustegik dio (1969: 275) ‘eskaloigoilea’ adiera duela. Luzaideko arotzak darabil: «Basoco eiaraco bi partadera pare

closqueruaindaco» (230), «closqueruar(en) paguen marcazen lanian bentaco onduan paratia» (238), «zurguinec closqueruac bi ano oguia undarla sosan bi pinta ano» (238). Lehen *Kloskeróinja* Karrikako egungo *Prasedesénja* etxearen izena zen. Ikus **eskalapiníle**.

**-ko atziz.** 1- Txikigarria: *Mutíko, oháko*, 2- Ukalidia, kolpea: *Beharrondóko, ostíko* (?), *zabletáko*, 3- Tresna: *Kopetáko, muturréko*.

**koberatu.** Ikus **kobrátu**.

**kobrátu ad.** (du) Dirua irabazi, dirua jaso. ABk *koberatu* darabil: «Ono etxie deuse koberatu», «ene iduriko sobera fite aitzinatia zuxun Iruñeko pisuain erosteá; sosa koberatutare bazixin, ba, denbora aferá horietan behala plantatu gabe». Luzaideko arotzak ere *coberatu* du (Satrustegi, 1969: 139, 188): «Lastoetaric mailia coberatia» «eiaraco arn(au)d coberatia». Ikus **hunkítu**.

**kofóin iz.** Erlauntza, erlategia.

**-kói atziz.** Joera duena: *Berkói*.

**kokalúxe iz.** Gaztelaniako *tos ferina* (frantseseko *coqueluche*-tik). «X-an haurrak hobeiki txie; kokaluxia zixien eta gehienak brontxita eta biak» (MA).

**kokátu ad.** (da) 1- Sartu, kabitú: *Pakéta hóri sobéra háundja úxu, etxú órwan kokátzen*, 2- Kokatu: *Óllwa kokátu úxu úntsa arrúltzen gáinjan*. Cf. hau: «X-en letrare egun errezibitu ixíu; denak untsa diela, Bakersfieldetik jinak diela Pasadenat. Agian hor kokatuko txu!» (AB).

**kokín izond.** Gaztelaniako *pillo, pilla* da; haurrekin ibiltzen da: *Háu mutíko kokína!, zórtzi úrte bésteik ezítu ta sóizu zé deurrukérjak íten tín!*

**kokorázka adond.** Kokorokoka.

**kokorázkaka aizán ad.** (da) kokorokoka ari izan: *Gúre óllwak kokorázkaka ái txú*. Satrustegik (1963-64: 271) *kokorázka* ‘caca-reando’ biltzen du.

**kokótz iz.** Kokotsa.

**kóliko iz.** Kolikoa (espainoleko *cólico*-tik). MAK *kolika* darabil (frantseseko *colique*-tik): «Juan den astian nihaurek izan dixit kolika bat gaixtua».

**kolóre iz.** 1- Kolorea, 2- Zentzua: *Ixtórjo hórrrek etxí kolóreik*. Cf. Beskoitzeko hau

(Duhau, 2003: 404): *Ezkontzik eztik kolo-reeikee, gístino bidez kanpo* ‘le mariage n’a aucun sens en dehors d’une perspective chrétienne’.

**kolpátu ad.** (da-du) Zauritu. Ikus **kólpe** eta **záuri**: *Gazán azkárki kolpátu zén díla hogói úrte, Ibañetatik béiti héldu zélaik*. ABk *kolpatu* eta *golpatu* darabiltza.

**kólpe iz.** 1- Kolpea, 2- Zauria; ikus **ukáldi** eta **záuri**, 3- Osasun arazoekin lotutako ‘atakea’ adiera ere izan dezake. Cf. MAREN hauek: «X-re paarlesia kolpe bat izanik duxu», «ingoitik badakixu izan zila tentsione kolpeat. Anitz sendi in diakoxu eta gero magasinain uztiak in diakokexu bere aferá». Ikus **búlta**.

**komédja iz.** 1- Artetan herrian egiten zen antzerki lana, 2- Komeria *iz.* *Háu komédja, lánjan aizánái tá ezín!*

**koméni izán ad.** (da) Komeni izan: *Etzáuxu koméni néska horrékin ibíltzja; ámak errántzakón etzitzákola koméni sobéra edátja*. Luzaideko eskutitzetan *konbeni* agertzen da beti.

**komiñóne iz.** Jaunartzea. Luzaideko letra batzuetan (AB) *kominione* agertzen da, eta inoiz *kunionone* ere bai: «Biziki kontent hatzeman nixin, goiz hartan errezibitia ziele kominionia, Don Javierrek eremantzakola. Biziki apez gisakua uxu», «igandian pasatu uxu haurren kunionia; hemezortzi bazituxun. Biziki besta ederra; jende gaitza zuxun meza nausian».

**komijióne iz.** Mandatua: *Banjáxu karríkat komisjiónen ítea*.

**komít izán, ukán ad.** (da): «Ximon Andikoberrian zuxun bazkaiten eta niere komit ninduxun, bana ez ninduxun joan» (MA).

**komíta iz.** Gonbita: *Komíta igórri nákon afáitea jintzáin, bána etzén agértu*.

**komitatéi iz.** Komuna: *Bánwa komitatéira(t)*. ABk behin *komitate* dakar («komitateá jeiki eta han lurrian hatzeman zixin goizian barrian»), dudarik gabe J. Etxepare medikuaren (1988: 177) *komoditate* bera dena (cf. frantseseko *commodité*): «Abereen edateko aska baitatxikite sahetsean edo barrokiaeren beraren barnean. Zonbaitek ixurkia eman ere dakote komoditatetarat». Ikus **-téi**.

**komitátu** *ad.* (du) Gonbidatu: *Héldu én iha-kóitzjan komitátu gitxe kúsi báten eztéietá.*

**komodós** 1- *izond.* Erosoa, 2- *adond.* Eroso.

**komúzki** *adond.* Arrunki: *Komúzki atsáldeko zortzútan jítén dúxu.* Satrustegik *gomuzki* biltzen du (1963-64: 267). Gehiago **normálki** erraten da.

**konbéntu** *iz.* Komentua.

**kondaira**, **kondera**. Bi sarrera hauek Satrustegik (1963-64: 271) biltzen ditu. Guk ezin izan ditugu jaso. Dakigunez **ixtórjo** erraten da.

**kondátu** *ad.* (du) 1- Kontatu, erran, 2- Zenbaitu. Pertsona izenordainekin 'nire, zure, haren... laguntza izan' adiera duen *nítan, zútan, hártan, gútan...* *kondátu* erabiltzen da; gutunetan ere ageri da: «Beraz, anitz erremesiatzen zitut eta berrixe zerbaitetan launtzen ahal bazituz nitan kondatzen ahal duz» (MA). *OEH*-n «kondatu norbaiten gainean» ageri da horren errateko, segur aski frantseseko *compter sur quelqu'un*-en kalkoa dena.

**kondizjone** *iz.* Baldintza.

**kóndu** *iz.* Kontua. *Gastátzen dúnain kóndja eréman beáixju* 'gastatzen dugunaren kontua eraman behar dugu', xuka. Cf. Luzaideko arotzaren «beti eulian condia» 'Betti ehulearen kontua', Satrustegi (1969: 245) / **kondia ein, in** *ad.* Kontua egin. Luzaideko arotzak darabil: «Eierazainai condia einic azaruan 15», «ochailian einic condia leenian», «doraico condia erreguez inic» (Satrustegi, 1969: 199, 203) / **kondia hasi** *ad.* Kontua hasi. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 215, 233): «Pedromariin condia apirilian asia», «ei(a)raco condia urrian asia» / **kondian pasatu** *ad.* Kontuan sartu. Luzaideko arotzak darabil: «Picocha bat baratía condian pasazeco» (Satrustegi, 1969: 200) / **kóndu emán** *ad.* (du) Kontu eman, kontu errendatu.

**konfesatu** *ad.* Ikus **koosátu**.

**konfiántxa** *iz.* Konfiantza.

**konfirmazjone** *iz.* Sendotza.

**konformátu** *ad.* (da) Etsi. Cf. MAren pasarte pollit hau: «X duxu han, bana deus ez itekoik, zintzur guzia hartia. Orái ja behar omen diakoxute, deuse itekotz, moztu eta tuiua ezarria (sic), eta horire gauza trixtia,

eta makurro dena, bera ez konformatzen, adsolutoki sendatu nahi».

**konformidáde** *iz.* Etsipena: «Biziki kontent duxu; atea behar zin egunian mediku eskualdun batek erran omen diakoxu polliki dela bana kasu in behar dila, "biotzetik daukazu, nehoke ez baitzan erraiten; Jinkuak igorri dian", hori erraiten ziaxun. Gaixua, fede haundiko presunain konformidadia!, eta berari erraitiare konbeni, hola kasuin dezan hobeki» (MA).

**konkolótx** *adond.* Hankalepotan. Ikus **arri-konkolótx**.

**konkorrian**. Satrustegik (1963-64: 271) 'mutur egon' dela dio; guk ez dugu bildu ahal izan.

**konpañía** *iz.* Laguntza, lagunartea. ABk *konpañía* darabil: «Zien konpañian lau egun pasatu zitiela».

**konpazjone** 1- *iz.* Konparazioa, 2- *adond.* Adibidez: *Doi-dója zútik egóiten dénai erráitentzjákoxo, konpazjone hesól bát «zútibalántzan dúxu» erráiten dúxu.*

**konprendítu, konpreíntu** *ad.* (du) Ulertu: *Eztjáját hítz báte konprendítu; eztjáját hítz báte konpreíntu.*

**kónten(t)** *adond.* Pozik, kontent: *Etzizté sékula kónten*; aditzizen batekin instrumentala galdegiten du: «Kontent gituxu jakitiaz Dn Jose Mari jin zakola anaia» (MA). Bestela *bait-* menderagailua ager daiteke: *Izgarri kónten níntzan kúsja tenóreko jín baitzén.*

**kontésko, kontensko** *adond.* Franko kontent. Bigarren aldaera MAren gutun batean ageri da: «Anastasiare kontensko duxu bere liburíaiakin». Idazle honek normalean *kontesko* ohi du.

**kontinatu** *ad.* (du) ABk erabiltzen du, 'segitu' adieraz; «Ze apiril tristia in din! Betti euria eta lohitaik ezin ateraz. Egun maiaztzain le[he]n eguna ze kanbioa! Haize hegua azkarrík atera íxi, ez baitakit kontinatuko din».

**kontíno** *adond.* Etengabe: *Láneat kontíno faltátzen dúxu*; cf. ABren hau: «Orái ari gitxu kontinoko lanetan, sasoinak manatzen din bezala lur lanetan». Lizarraga Elkanokoak ere badarabil: «Baña ignoranzia gonen kastos juizioko egunean sazerdoteek espezialki eman bear dute kontu, ezpadiote beren kargukoei predikatu nai kontino, zer gaiz-

- kiak ta nolakoak datozin ordikeriatik» (Apezetxea, 2004: 250) / **kontinuan** 'eten-gabe(an)': «Gexina han dioxu kontinuan eta gure haure egon duxu» (MA).
- kontorlatu ad.** Luzaideko arrotzaren liburuan ageri da, *paper* hitzari erreferentzia egiten diola (Satrustegi, 1969: 252): «Paper marcatia contorlaturic». Ez dakigu xuxen zer erran nahi duen; badaiteke *kontrolatu*-ren aldaera izatea, baina ez da segurua.
- kóntra post.** Datiboa gobernatzan du edo genitiboa: *Paétai kóntra jwán zúkan órwaikin; béhja arbóla hórrí kóntra házkaka ái dúxu; horrén kóntra etxu déus íten ál, ótwa jwántzúxun paétain kóntra*. Hondarkirik gabe ere ibil daiteke; cf. ABren hau: «Egun sobera bero iten dixi, sasoin kontra».
- kontrabánda iz.** Kontrabandoa (frantseseko *contrebande*-tik): *Gúre hérrjan gértatu izán dúxu norbáitek béste norbáit salátu díla kontrabándan ái zélakotz*.
- kontrabandísta iz.** Kontrabandoan ibiltzen dena.
- kontrapása iz.** 1- Usoen Europa alderako hegaldiko ehizaldia, 2- Luzaideko «ddantzetako» urratsa.
- kontrazintzúrretik jwán ad.** (da) Kontrako zintzurretik joan.
- kontsegítu ad.** (du) Lortu: *Kontsegítu dját entrádat pilóta partidáin ikústeko*. Ikus **ajendrátu, ardjétsi, atrexátu**.
- kontseilátu ad.** (du) Aholkatu. *Kontseilátu nindín géldi egón nindáin*.
- kontséilu iz.** Aholkua: «Beti goguan atxikitzen ditut eta atxikiko zure kontseilu hunak eta etzitut sekula ahazten ene kominione onduan iten dutan sakramendu sainduaren bisitan» (MA).
- kontsérba iz.** Kontserban jartzan den edozein gauza / **kontsérban zárrí ad.** (du) Kontserban paratu, jarri.
- kontserbátu ad.** (du-da): *Wáiko frigorífikoe-tan xarmánki kontsérbatzen díra janárjak, játekwak*.
- kontsolaméndu iz.** Kontsolatzea.
- kontsolátu ad.** (da-du) Norbaiten gogoa arindu, soleitu.
- kontze[x]ál iz.** Zinegotzia. Satrustegik (1967: 79) *zinahuzia* bildu zuen, baina guk ez dugu aditu.
- kontzjéntzja iz.** Kontzientzia. Cf. MAREN pasarteño hau: «Lanak akitzen dixi ba, bana ez dea goxo, atsetan, etzatea juaitean kontzientzia trankil, eguna untsa be-teik?».
- koñát iz.** Koinatua, koinata.
- koosatéi iz.** Aitorlekua: *Elízan batxú bí koo-satéi*.
- koosátu ad.** (da-du) Aitortu, elizan: *Bekátjak koosátu txít Bázkoz; átzo koosátu nín txun apéz bérrjaikin*. MAK *konfesatu* darabil: «Ni mezan ninduxun; ordian konfesatu zixin D<sup>o</sup> Migelek eta 11 orenetan eman zia-koxun komunioia». Ikus **aitórtu**.
- kópa iz.** 1- Segapotoa, 2- Likoreak edateko ontzia, 3- Karta paloa. Luzaideko arrotzak 'lanabesen burdinazko zatia' adierarekin edo ibiltzen duela irudi du, baina ez da segurua. Cf. **kopatu**.
- kopatu ad.** Luzaideko arrotzak zerabilen, baina ez dakigu adiera zehatza zein zen: «Mailu bat copatu», «bi mailu copaturic» (Satrustegi, 1969: 195, 255). Ikus **kopa**.
- kopéta iz.** Bekokia. Ikus **tupéta / kopéta húnjan, xárrjan izán, egón ad.** (da) Haserre egon, mutur egon: *Guré mutíkwa arrúnt kopéta xárrjan dúxu!* Ironiaz *kopéta húnjan izán, egón* ere erraten da, kontrakoa adierazteko: *Kopéta húnjan dúxu Pjarrés egún!* / **kopéta txárra ín ad.** (du) Beltzuri egin, betozkoa jarri: *Sósa galdín nakólaik amátxik kopéta txárra íntzán* 'dirua eskatu nionean amonak beltzuri egin zidan'. Ikus **beltzúri ín**.
- kopetáko iz.** Uztarrian ezartzen dena.
- kór, -tór atziz.** Joera duena, zaletasuna duena: *Ahalgetór, ahazkór, hauskór, ihiztór, izikór, kanbjakór, kilikór, lerrakór, pixkór, sanjakór, sarkor, sendikór, umekór, zikinkór*.
- korál iz.** Abesbatza.
- kórda iz.** Lokarria, soka: *Kórden estekátzen ái núxu* 'lokarriak lotzen ari nauxu'. Ikus **estekátu, soka** eta **sokatúra**.
- korkóila izond.** Satrustegik (1963-64: 271) 'torpe' adiera ematen dio.
- kórle iz.** Korralea. Etxe ondoko lur eremua edo mendikoa, bigarren hau itxia, ardiak be-reizteko, eskuarki borden eta etxolen ondoan egoten dena. Satrustegik (1969b: 47, 96) *korralia* dakar.



**koróka** *iz.* (Oilo) loka / **koróka izán** *ad.* (da) Koloka egon: *Óllo hóri koróka úxu.* Satrustegik (1963-64: 271) *koloka* eta *koro-ka*, biak, biltzen ditu. Ikus **klóka sóinu**.

**koropilakor.** Satrustegiren arabera (1963-64: 271) *koropilakorra* ‘bihurritzen eta nahastenen kalitate txarreko haria’ da.

**koropilo.** Satrustegik (1963-64: 271) ‘korapiloa’ adiera ematen dio. Ikus **korropilo** sarrera.

**korropilátu** *ad.* (da-du) Korapilatu.

**korropilo** *iz.* Korapiloa / **korropilo ín** *ad.* (du) / **korropilwa trenkátu** *ad.* (da) Korapiloa askatu, zerbait argitu: «Gure jaun ertorrek despeitu gitixi, bazuala etzuala, azkenian korropilua trenkatu duxu» (MA). **Ez trénka ez korropilo** (esam.): *Aférat deliberátzen eztélaik ez álde átea ez béstea.* Duny-Pétrék hau dakar (1996: 158): «Zertan da gizon totala? / Hor dugu, beti bezala, / Ez aintzina, ez gihila, / Ez trenka, ez korropila!». Honela azaltzen du idazle honek: «Ez trenka, ez korropila: *expression proverbiale de l'indécision. On la trouvait surtout parmi les artisans de la couture ou du tissage*».

**kortxila** *iz.* Bordako izkina batean dagoen leku itxia, axuri gaitzetsiak eta amak atxikitze-ko ibiltzen dena, berriz ere ardiak umea maíta dezan.

**kosetxa** *iz.* Uzta (espainoleko  *cosecha*-tik). MAren gutunetan kausitu dugu, behin. Arnegiko AAren letretan, berriz, *errekolta* ageri da, frantseseko *récolte*-tik.

**kóska** *izond.* Aise gaitzitzen dena: *Zé maztéki kóska dén hóri, etzjakoxó jéus erráuten ál.* Duhauk (2003: 394) Beskoizko *koska bol-da-atzu batik* ‘koska bulta batzuk badituk’ dakar / **kóskan egón** *ad.* (da) Mutur egon, haserre egon.

**koskóil** *iz.* Barrabila. Ardura pluralean ibiltzen da hitza: *Zé koskóilak tín urdé zikín hórrek!* Ikus **barrabíl**.

**koskoiláundi** *izond.* Barrabilandia, potroandia: *Hóri mutíko koskoiláundja!, alimáleko lána úteko éta eztú píkoik tirátzen.* Ikus **barrabíláundi**.

**kostelét** *iz.* Saiheskia (biarnes-gaskoiko *cous-teléte*-tik, antza): *Axúrki kostelétak zéin góxwak tjén!* Uharte Garaziko gutunetan

*kosta* ageri da ‘saihets hezurra’ adierarekin. Satrustegik (1969b: 41) *kostelet* bildu zuen ondoko haur igarkizunean: «Agotik so egin eta kostelet guziak ageri» (labea).

**kostúma** *iz.* Ohitura (biarnes-gaskoiko *costume, costume*-tik): *Atxiki behar tjáu kostúma húnak.* Ikus **usája**.

**kótxu** *iz.* Ontzia, kaikua.

**Koxín** *iz.* Gaineoletako *Koxinénja* etxeko nagusia, orain gehiago *Goñínja* (azken jabearen *Goñi* deituratik) deitzen dutenekoa; **Koxinésa** *iz.* *Koxinénja*-ko etxekoandrea.

**koxkál** *iz.* Arraultza azala. Ikus **arrúltze-koxkál**.

**kóxko** *iz.* Ogi kozkorra.

**koxkór, kozkór** 1- *izond.* Koskorra, kozkorra, aski hazia: *Mutíko kozkórra dá hóri, 2- iz.* Handitua: *Átea zjakoxó kopétan kozkór bát, 3- iz.* Indarra: *Zé kozkórra dín xúre kúsi hórrek! Kóxkor erran edo kozkór erran bada alde.* Ikus **zukrekoxkór** sarrera.

**kozínan aizán** *ad.* (da) Sukaldean ari izan, sukaldatu.

**kozinilla** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 206): «Burdin barra cozinillaco». Ikus **fuernégo** eta **kuzina**.

**krabáta** *iz.* Gorbata (frantseseko *cravate*-tik).

**kráko** *iz.* Arropa hedatzeko pintza.

**kraskátu** *ad.* (da-du) Puskatzen hasi edo, arraildu edo. Bada errateko manera bat: *Sartxíte xú hórjen ártjan makíl kraskátu batékin!* Erran nahi du fidagarriak ez diren pertsonak elkarrekin liskarrean ari direlarik hobe dela erdian ez sartzea. *Háutsi-rekin ere ibiltzen da: Sartxíte xú hórjen ártjan makíl háutsi batékin!* Cf. Leitzako hau: *Sar tzattea makill autsikín!* *Ollo utse da. Gizonak bizimodu txar ikeraarrie ematten ziola ta, senidek bere alde aurre in tzioan gizonari, da ordun gizonan alde yarrí bera* (B. Lizarraga, 2006).

**kráxa** *iz.* Karkaxa (frantseseko *crachat*-etik): *Egún góizjan eztúlka hási núxu etá kráxatzo bóta txít.*

**krefier, grefier** *iz.* Luzaideko arotzak darabil; Satrustegik dio (1969: 282) ‘trébede’, ‘parrilla’ dela: «Crefier berri bat» (165), «bi crefier furneuco» (180), «grefier bat arriñatu» (196), «qurefierr bati zango bat berrria bocata itequari» (221).

**kriskéta, krixkéta** *iz.* Kisketa, atea ixteko gailua. Luzaideko arotzak ere bazerabilen (Satrustegi, 1969: 212): «Lau crisqueta bi aizur alzairatu». Ikus **borta krisketa**.

**krisketa pintuna** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 198, 213): «Crisqueta pintunac zorzi», «lau crisqu(e)ta pintuna, bat urtarrilian pintuna bat». Ez dakigu zer erran nahi duen.

**kristóin** *izlag.* Arrunt handia: *Kristóin mozkórra bíldu zín bárdá!* Ikus **alímaleko, gáitzeko, ikáragarriko, izígarriko**.

**kuhutzátu** *ad.* (da-du) 1- Gurutzatu: *Kásamáxu karríkain kuhutzátzjan*, 2- Harremanak izan: «X ez duxu geio kuhutzatzen Y-in mutiko harekin».

**kúja** *iz.* Kalabaza. Cf. Manezaundiren hau (1990: 40): «Bat, zozoa, buru haundi batekin, kuaia alimale baten heinekoa, erdi mensa erdi ergela, urratsak herremel eta hurri, lepo gainian duen aztak nekatzen duela ibiltzeko iduri».

**kúku** *iz.* Kukua.

**kúkuka aizán** *ad.* (da) Altxapeka, ezkutuka aritu.

**kukurrúku** *iz.* Oilarrek egiten duten soinua.

**kukurrúkuka adond.** *Ollárra áitu nín kukúrrukuka etxéit partítzjan / kukurrúkuka aizán, kukurrúkuka hasi* *ad.* (da): *Hási uxú ollárra bérrize goízjan goízik kukurrúkuka*.

**kukurústa** *iz.* Oilarraren galdurra.

**kukúso** *iz.* Arkakusoa.

**kulinka adond.** ‘Erixko’, ‘ukitua’ da hau Satrustegiren arabera (1963-64: 271).

**kulísa** *iz.* Aitzakia edo. Cf. Angel Aintzibururen hau (*Herria*, 2001-11-23): «Lehenago pagoa edo haritza zuten hautatzen, pahatxa edo ezcurraren kulisan, aurten goseak baino gehiago bortxatu ditu egarriak (...)». Ikus **estakúru**.

**kulléra** *iz.* Koilara (frantseseko *cuillère*-tik?).

**kullératra** *iz.* Koilarakada: *Emázu kullératrat sálda béro*.

**kúme** *iz.* Animalien umea: *Gúre xakúrrak ín tú bóst kúme*. Ikus **háur** eta **úme**.

**kunpliméndu, konpliméndu** *iz.* Kunplimendua: *Maztéki horrén kunpliméndjak etzazkít báte gustátzen*.

**kunplítu** *izond.* Kunplítua, adeitsua (biarnes-gaskoiko *coupli*-tik edo gaztelaniako

*cumpli*-etik). Cf. ABren hau: «Pentsatzen dixit engontik ene letra berantetsia uxula; arrazoinekin, ez gitxu ez xu bezain kunplitiak letren errepuestien eiteko». B. Etxeparek *konplitu* eta *konplimendua* darabiltza (1980 [1545]: 4, 92).

**-kúntza** *atziz.* Ekintza: *Hizkúntza, hizkúntzazár*.

**kurája** *iz.* Kemena (biarnes-gaskoiko *courâdje*-tik segur aski). Cf. gutun bateko ondoko pasarteñoa: «Ez gitxu ez xu bezain kunplitiak letren errepuestien eiteko. Ni egon nuxu bate kuraiarik gabe ixkiatzen artzeko eta beste lanetakore berdin» (AB).

**kurjós izán** *ad.* (da) Jakin-minez egon (cf. frantseseko *être curieux*): *Kúrjos núxu zé pástuko dén*. Cf. *jakín[n]ája núxu zé pástuko dén*.

**kúrri ibíli** *ad.* (da) Harat eta hunat ibili: *Gázte hók béti kúrri djáiltzatzú; gawiñára pollíta dá hóri, gáu gúziz hór gáindi íbílzen da kúrri*. Ikusi **pottakúrri**.

**kurrída** *iz.* Harat-hunata. Cf. MAren pasarteño hau: «Ximone puxkat akitia diailexu; beti beldurez nindioxun, hainbeste kurrída ardi hokin».

**kurrínka** *iz.* Zerriak egiten duen soinua / **kurrínka ín** *ad.* (du): *Zérrjak jóiten duxúlaik kurrínka íten díxi*.

**kurrínkaka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Kurrínkaka aritu, hasi, ibili.

**kurrítu** *ad.* (da) Laster egin (frantseseko *courir*-etik): *Híre ótwa énja banó fítjo kúrritzen dúk = Híre ótwa énja banó fítjo íbílzen dúk*.

**kurutzebide** *iz.* Gurutzebidea. MAK darabil: «Bueno Mª Dolores maitia, finitu beharko dixit; atsaldian nahi nikexi jua kurutzebidia baitu eta gero atseko mezat». Ikus **kuúzte**.

**kurutzekari** *iz.* Satrustegik dio (1969b: 68) norbait hiltzen denean gauzak antolatzeaz arduratzen dena dela eta segizioko buru jouten dela.

**kús, ikús** *iz.* Begiratu, soa / **kús bát ín** *ad.* (du): *Xáxi kús báten ítea ‘xoaxi begiratu bat ematera’*. Ikus **só**. Cf. MAren pasarteño hau: «Juan den urtian lukainka guziak handeatu homen baizitzezen. Araiz aurten ez duxu inen. Egun jua behaixit ikus baten itea». Ikus **ikúsi**.

**kúsi** 1- *iz.* Lehengusua, lehengusina, maila zehaztu gabe / **lehén kúsi** *iz.* Lehengusu, le-

- hengusina propioa / **bigarren kúsi** *iz.* Lehengusu, lehengusina txikia. Etxaidek (1989: 224, 225) *leénk<sup>h</sup>úsia* bildu zuen erdarazko *primo, prima*-ren euskal baliokidetako, baina *lehen*-dun forma 'lehengusu, lehengusina propioa' adieraz erabiltzen da, eta, bestalde, aspirazioa tokiz aldatua dagoela dirudi. Satrustegik (1969b: 68) *lehen-kusi* eta *bigarren kusi* dakartza, 2- *ad.* (du) Ikusi: *Kúsetakónda* 'ikus eta sinets' (esam.). Cf. **ikúsi**.
- kúska ibili** *ad.* (da) Zerbeit ikusten ibili: *Átso zíkín hóri kúska ibiltzen dúxu étxe ingúru hótan!*
- kusljér** *iz.* Kuslea.
- kustáte** *iz.* Ikustatea, begirunea, gaztelaniako *consideración*. Izetak (1996: 116) *kustete* 'agradeciminetu' eta *kustetea in* 'agradecer' dakartza; Aintziburu & Etxarrenek (2002: 51) *ikustatea erakutsi* 'errespetua erakutsi' darabilte: «Baina beste gisa batetara ere ordaintzen ahal duzu, zure ikustatea erakusteko, hala nola opari bat eskainiz edo apairu bat edo beste zerbeit. Ordaintze desberdin horri zaio erraiten "erranyak"».
- kustategábe** *izond.* Ikustaterik, begirunik ez duena. *OEH*-n ez da *ikustategabe* biltzen, baina bai *ikustategabekeria* 'errespetu falta', 'esker txarra'.
- kutsári** *iz.* Honela dio Satrustegik (1963-64: 271) hitz honetaz: «KUTSARI.- Presente que se lleva en la visita de enfermos (etimología *ikus-sari*)».
- kutsátu** *ad.* (du) Kutsatu: *Éne láneko laún baték kutsátu dáit gripa.*
- kútsu** *zenb.* Pixka bat. Usaian *kútsja* 'pixka bat' erratan da eta artetan *kútsu bát* ere bai, baina gutiago. Bestela **puxkát** erran daiteke. **Puxínwat, mikónwat** baino gehixeago da.
- kútxa** *iz.* Hilkutxa.
- Kutzár** *iz.* Gaindolako *Kutzárria* (*Kurutzeza-harrea*-tik) etxeko nagusia; **Kutzarrésa** *iz.* *Kutzárria*-ko etxekoandrea.
- kuúzte** *iz.* Gurutzea. *MAK kurutze* eta *kuhutze* darabiltza: «...eta hura arrokekin jin orduko beste bultat jin eta hartan berian moimendu bat egin gabe pausatia zuxun, bi eskiak kuhutzian». Ikus **kuhutzátu, kurutzebide** eta **kurutzekari**.
- kuxín** *iz.* Kuxina.
- kuxkúla** *iz.* Txintzarria ('cascabel' gaztelaniar). Ikus **pinpilín** eta **xintxa**.
- kúzi** *ad.* (da-du) Ikuzi, urarekin garbitu: *Bisaja kúzi, éskjak kúzi*. Baina: *arrópa xútu, sukáldja garbitu játsaikin* 'sukaldea isatsarekin garbitu', *sukáldja xahútu* 'sukaldea garbitu': *Ái txú mítren kúzten* 'kristalak garbitzen ari dira' (urarekin) ≠ *ái txú mítren garbítzen* (urik gabe).
- kuzina** *iz.* Luzaideko arotzak darabil: «Qusina bat beguia einic» (Satrustegi, 1969: 182). Ez dakigu zer erran nahi duen, baina *cosina*-ren partez egon liteke, hots, *kozina*-ren eta **furnégo**-ren baliokide izan liteke. Ikus **kozínan aizán**.

## L

**laandai, lahandai** *iz.* Labean ogia sartzeko pala (Satrustegi, 1969b: 30, 52); *OEH*-k biltzen duen *labendai*-ren aldaera, *labe*-ren eratorria, itxuraz.

**laátz, lahatz** *iz.* Laratza. Satrustegik (1969b: 29) *laatza* biltzen du lehenik eta *lahatzian* gero, bitan: «Itsusia! Halta, moda xaharrian, iru aldiz inguratia nixin lahatzian!», «utzak geldirik lahatz hori! Gure Jinkua zerutik jeutsiko huk...». Lan berean, aitzinxego (41), negoziogizon aseeginarendako edo diruzale-zeken amorratuarendako honela erraten dela dio: «Hemengo lahatza hemen utzirik joain».

**labadóra** *iz.* Garbigailua.

**lábe** *iz.* Labea.

**labe burdina** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 255): «Labe burdina bat pizu 13».

**labe garbitzeko** *iz.* Satrustegiren arabera (1969b: 52) *labe garbitzekua* adar berdez egindako isatsa da.

**labe gorritu** *ad.* Adar iharrekin labea berotu, Satrustegiren arabera (1969b: 53).

**laborántxa** *iz.* Nekazaritza.

**laborári** *iz.* Nekazaria: *Laborárjak ardúra kéxu díra*.

**laborári étxe** *iz.* Baserria: *Peningárrja dá ikústia nóla geldítzen ái djén Luzáideko laborári étxjak, dénak hútsjak, zahárrak híl tá segídaik éz*. Ikus **bazterrétxe**.

**labúr** *izond.* Laburra.

**labúrto** *ad.* (da-du) Laburtu.

**laburzki** *adond.* MAk darabil: «Biziki denbora ederra dixiu; seur ez gitxu eneatuko, ez baitu lana falta. Laburzki uzten xitut; Car-men jin duxu, etxit ohono ikusia».

**lahár** *iz.* Laharra.

**laharrósto** *iz.* Lahar hostoa: *Árdjek játén díxje laharróstwa*.

**laka** *iz.* Eiherazainak ehotzearen ordainez gelditzen zuena eta neurgailua bera. Luzaideko arotzaren kontu liburuan ageri da (Satrustegi, 1969: 153, 164): «Errezibitia sei gai[z]uru a[r]to laca bat guti», «errezibitia erregu bat arto laca eta erdi guti».

**lakásta** *iz.* Akaina.

**lakét izán** *ad.* (du) Gustatu; dakigunez guti ibiltzen da (ikus **gustátu**): *Ánwa lakét (d)ú*.

**lakétu** 1- *ad.* (da-du) Lekukotu: *Undárrjan Iruñen lakétu ník*, «errain daxu era jendia segitu den, Don Jose Mari era kontent den, eta era laketu din», 2- *izond.* Zerbait egiten ohitua: *Úso lakétjak*. Ikus **úso**.

**láko** *iz.* Mahatsa edo sagarrak prentsatzeko tresna; F. Kaminok darabil (Euskaltzaindia, 1999: 110).

**láma** *iz.* Pikatzeko mekaniketan ezartzen den burdinazko xafla zorrotza (frantseseko *lame*-tik, antza).

**lamatu** *ad.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 167, 212): «Tailu bat lamaturic», «bi tailu aztal berritu bat lamaturic». Arruazukoak dioenez, ‘lanabesa zorrotzu’, ‘dar corte a un instrumento’ da honen adiera. Ikus **láma**.

**lamína** *iz.* Lamina, pertsonaia mitologikoa.

**lán** *iz.* 1- Lana, 2- Jukutria: *Gizón hórrek, norbáitaré, alúja beháxi izán lán hórren iteko*; cf. MAren hau: «Enfin, erran niakoxun hera zerendako in zan lan hori» / **lan in** *ad.* (du) Lan egin (normalean **lanjan áizán** erraten da): «Hura ni bano hobe lukexu ba lanian hartzeko, bana ohono harek bano lan geio iten dixit» (MA) / **lána in** *ad.* (du) Jukutria bat egin / **lának emán, lának izán**

- ad.* (du) Lan handia eman, lan handia izan, zama izan: *Zé lának emáiten deztén aítá-txik; Zé lának duztén étxe hortan áitaikin / lanjan áizán ad.* (da) Lanean aritu: *Lánjan áizán gira zortzjónak ártjo; lánjan ánitx áizán gintxún ungárrí emáiten;* «ikusten dixiu D<sup>a</sup> Jose Marire anitz ari dela lanian, eta Luzaiden ohoratzen, Azoletare aipatuz» (MA).
- lanbro** *iz.* Herlaino fina.
- lanbróts** *iz.* Langar fina.
- lánda** 1- *iz.* Toponimian ageri da (*Landalúxe*, Azoleta-Parisko pentzea, *Lándaáundi*, Ondarrola-Xaparreko pentzea), baina egun ez dago bizirik, 2- *post.* (ablatiboa galdegiten du): *Mézatik lánda jwán beá-xit komisjónen ítea* ‘mezaren ondoan mandatuak egitera joan behar dixut’; *hántik lánda Donjáneat jwán ginen* ‘handik aterata, hura finitu-eta Donibanera joan ginen’, *bilkúratik lánda ostátjan sártu zjén* ‘bilkura bukatu-eta ostatuan sartu ziren’. Cf. MAren hauek: «Aurten xerriare kario. Nik udan saldu nixin baño a 38 – 83 kilos eta orai saldu dixit 47 peseta[s] 139 kilos, gaztainetaik landa ez baituzte soberra gizen nahi eta orai pahatzen tixie 49 eta 50», «holaxet juaiten nuxu noizian behin. Urte berritan izana ninduxun; bihar atsaldian juain nuxu bezperetatik (sic) landa X-ikin egoitea itxanpat».
- lanegun** *iz.* Luzaideko arotzak darabil, behin (Satrustegi, 1969: 143): «Catalin frantses aizur bat erracachi 2 laneguna II, 1879, 1».
- langár** *iz.* Zirimiria: *Langár xéhea, langár lárrja* (ikus **euríxka** eta **lanbróts**): *Óstjan ái zíxin langárra frángo lárriki / langárra áizán, hási ad.* (du) *Étxeat héldu ginélaik langárra hási dú tá trenpátu gíra / langárxka iz.* Langar xheha, larría ez dena.
- langile** *iz.* Langilea, langina: «Mundiaín azken puntara juanike langilia denak lana atzemain» (MA).
- lanjér** *iz.* Arriskua.
- lanjerós** *izond.* Arriskugarria.
- láno** *iz.* 1- Herlainoa, 2- Hodei finak; **hodéi** ere erratan dute, baina komunzki **goibél** ibiltzen dute batuko ‘hodeia’ adierazteko. Etxaidek (1989: 36) *lánhoa* (*lán<sup>h</sup>oa*) biltzen du; guk ez dugu aspiraziodun forma-rik jaso. Ikertzaile berak *lán<sup>h</sup>oa* biltzen du (ibid., 133. or.) ‘vapor’ adieraz. Ikus **bapór** / **láno izán ad.** (da) 1- Herlainoa egon, 2- Goibel egon. Mailakatzailea ere onartzen du: «Baixi hiru egun arrunt lano dela» (MA).
- lanótu** *ad.* (du) Lainotu: *Ibañétan denbóra edérra zúxun egwérditan, bána atsálde apádeko lanótu zíxin arrínt tá etzúxun gídátzen ál, ezpaítzén já eré kústen.*
- lanpústu** *ad.* (da-du) Kamustu.
- lanpúts** *izond.* Kamutsa: *Ganít hóri lanpúts dí-xit.*
- lantéi** *iz.* Lan egiten den mendiko tokia.
- lantzúrda** *iz.* Elur maluta tiki eta hormatua. Cf. ABren hau: «Egun biziki egun hotza arixi, gaitzeko lantzurda eta peko haize hotza».
- lapásta** *iz.* Elur geruzano bat, ia-ia ageri ez dena: *Ibañétan pástu gjélaik bazukán lapástañwát.* Satrustegik (1963-64: 271) ‘nieve a corros’ adiera ematen dio, baina ez da hori, erran duguna baizik. Hau bat heldu da Azpirotzek Leitzan bildu zuenarekin: «lapashta. *Elur lapashta* ‘capa delgada de nieve’. *Elur lapashta bat egin du*» (1963-64: 326).
- lapatín** *iz.* Landare baten izena, lapa-belarra, lapatsa.
- lapín** *iz.* Untxia (frantseseko *lapin*-etik).
- lapínki** *iz.* Untxi haragia.
- Lápitz** *iz.* Gaindolako *Lapitzénja* etxeko nagusia; **Lapitzésa** *iz.* *Lapitzénja*-ko etxekoandrea. Luzaideko arotzak ere badakar: «Lapizec are berri bat» ‘Lapitzeneko nagusiak are berri bat’ (Satrustegi, 1969: 264). Arruazuko euskaltzainak (1969b: 94) bildutako 1863ko Luzaideko etxeen zerrendan *Lapitzesa* ageri da, segur aski Lapitzeneko etxekoandrea adierazi nahi zelako. Izan ere, zenbait aldirio oikonomioetan oinarritutako antroponimoak kausitzen ditugu aipatu zerrenda horretan.
- lapitz harri** *iz.* Satrustegik biltzen du eta ‘arbel harria’ adiera ematen (1969: 58).
- lardai** *iz.* Satrustegik dio ‘timón (del carro)’ dela (1969: 279). Luzaideko arotzak darabil: «Bi orga lardai zintac ezarriric», «lardaya tincaturic» (159), «orga lardayai bi zinta» (234).

- lardérja** *iz* Errespetua.
- larrabóta** *iz.* Matxinsaltoa.
- larraótte** *iz.* Kilkerra.
- larrazkén** *iz.* Udazkena: *Gaztáinak erórtzen ái txú pírti-pírta sasóin хүntан, larrazkén-  
jan.* Ikus **urríta**.
- lárre** *iz.* Oihanik gabeko mendia, otea, elorria eta horrelako landareak hazten diren alderdia. Ikus **sóro**. Intzak (1974: 159) esaera hau biltzen du: «Andredena martxoko, behia larrean aseko: Erramu egunerako zezena da beldurxko».
- larre aitzur** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 188): «Larre aitzur bat berria». Ikus **aitzúr**.
- lárri** *izond.* Handia. Cf. ABren hau: «Egun atsaldian in diauxu harri erauntsi bat frango larria, itsusia. Gure gauzak, ze pena! Seur nuxu frutake golpatu tiela biziki». *Gátz lárria / gátz xéhja; hárrri lárria / hárrri xéhja; langár lárria / langár xéhja...e.a.* Ikus **xéhe**.
- lárriki** *adond.* Handizki, gogorki: *Óstjan ái zí-xin langárna frángo lárriki.*
- larriskwén** *izond.* Handiena: *Eurítu báno lén beár txjú larriskwénak bíldu.* Salaburuk & Lakarrek (2005: 407-408) *larriskoén* biltzen dute, antzeko testuinguruan.
- lárriu** *iz.* Larrua. Era mugatuan *lárria* da, Etxaidek *lárroa* bildu bazuen ere (1989: 151).
- larrútu** *ad.* (du) Larrua kendu: *Bíhar bazkáiteko beháut lapína larrútu.*
- larrwaséko** *iz.* Orain **kamiséta** gehiago ibiltzen da; ikus **atorrabarnéko**. Barandiaranek (1974: 24) *larruarraseko* 'camiseta de franela' bildu zuen Donoztírin, eta hori da, izan ere, Etxepare medikuak darabilena, atorraren azpikoa adierazteko: «Arropak erauntzirik da hobekienik ohean, atorra eta larru arrasekoa bakarrik soinean» (1985: 252).
- lasár** *iz.* eta *izond.* Lasakoa, Lasa herrikoa.
- Lasárria** *iz.* Gaingolako *Lasarráinja* etxeko jauna; **Lasarrésa** *iz.* *Lasarráinja*-ko etxe-koandrea.
- lastér** *iz.* Hitz hau *lastér batéz* ('en una corrida' erranen genuke hau gaztelaniaz) sintagman baizik ez da ibiltzen: *Kátxu lastér batéz húra; xáxi lastér batéz péko túrrira-  
no húr xéka / lásterrín ad.* (du) Laster egin: *Lásterrín behárko dú ezpálin badú bústi nái.*
- lasterbide** *iz.* Bidezidorra edo. Satrustegik ere (1963-64: 272) biltzen du eta 'atajo' erranahia ematen. Izetak ere (1996: 119) badakar.
- lastérka** *adond.* Lasterka: *Lastérka átea ginén karríkat.* Cf. MAren hau: «...eta hor prisak eta lasterka, guri deuse erran gabe presatatu dixie». Emazteki honek 'fite, berehala' adieraz ere badarabil: «Ez dauxtu deus geio ezartzen, Jinko hunak nahi badu laster ikusteko esperantxan eta anitz berri kondartzeko» / **lastérka aizán, hási, ibíli, jwán ad.** (da) Lasterka, presaka aritu, hasi, ibili, joan.
- lasterkári** *izond.* eta *iz.* Laster egiten duena.
- lasterkátu** *ad.* (da): *Lasterkátu núxu árdjen giéletik éta alímaleko lehérraldja hártu íxit.*
- lastíma** *adond.* Tamalez, damurik.
- lásto** *iz.* Ahotza: *Áurten idór jwán díxi éta behártu zjúáxu Erribérat jwán kamjóntrat lásto érostea.*
- lásto-pakéta** *iz.* Ahotz multzoa, aisekiago erabiltzeko trinkotzen dena.
- láta** *iz.* Zurezko teilatuetan *ohóla, téila* edo *láuza*-ren azpian ezartzen zen taula ttipia. Izetak ere biltzen du Baztanen (1996: 119).
- latsári** *iz.* Bokata edo lixiba errekan egiten duena. Ikus **bokátalatsári**.
- láu** *zenb.* Lau; *láuna, launázka, lawetanói* edo *laetanói* 'laurogei' (Etxaidek [1989: 368] *láwetano<sup>a</sup>ói* jaso zuen), *lawetanóitahámarr, lawetanóitaámarr, laetanóitahámarr* edo *laetanóitaámarr* 'laurogeita hamar'.
- laudátu** *ad.* (du) Goretsi. Ez dakigu zer neurritan den herrikoia hitz hau Luzaiden, ez ote den eliza elea.
- laudórjo** *iz.* Goresmena. Ikus aitzinekoan erran duguna / **laudorioak igorri ad.** (du) Goretsi, laudatu; MAk behin darabil: «Dn Jose Mariri goraintziak milaka, segi dezan hola-hola lanian. Ikusten dixiu horrek Luzaidendako igorri tin laudorioak eta *Diario*-an ikusi dixiu horrendako jin dienak eta potretare ba».
- laukátu** *ad.* (du) Tiraka ibiltzeko bigarren behi pareá ezarri.

**laún** *iz.* Laguna. MAK behin *lahun* izkiriatzen du, baina gainerako guztietan *laun* darabil.

**launbát** *iz.* Mañex Kamino Hazketek erran zigunez (1913-1982), lehengo zaharrek **launbáta** ibiltzen zuten. Ikus **ihakóitz**.

**laúndu** *ad.* (du) Lagundu: *Étxeat laúndu nú aixkíde aték; lán horréñ ítea laúndu út.*

**launkín** *izond.* Lagunkoia, lagunzalea.

**laúntza** *iz.* Laguntza.

**launtzále** *izond.* eta *iz.* Laguntzailea.

**laupa** *iz.* Luzaideko arotzaren kontuetan ageri da: «Beorain laupa» (Satrustegi, 1969: 155), baina ez dakigu zer den.

**laurden** *iz.* Laurdena. *Axúrki laurden bát erósi nixin karnizerían ihakóitzjan*

**laurdenkátu** *ad.* (du) Abere bat hil eta gero lau partetan zatitu.

**láuso** *iz.* Elurra metatzen den lekua.

**láuza** *iz.* Arbelezko harlauza, teilatuetan ezarzen dena, *láta*-ren gainean. Ikus **láta**. Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 147, 149): «Sisel berri bat lauzaco», «bi sisel lauz aterazeco». Arruazuko euskaltzainak *lauzo* dakar (1969b: 96), baina bukaerako *-o* hori huts bat besterik ez dela irudi du.

**lawázka** *adond.* Lauhazka (animaliak) / **lawázka abjátu**, **hási**, **jwán**, **jín** *ad.* (da) Lauhazka abiatu, hasi, joan, etorri: *Behórrak jwán txú lawázka tírwak áitu duztélaik.*

**lawetan érdizka** *iz.* Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena da.

**lawortxéko** *izlag.* 1- Hiru urteko ardia, 2- Hortz makurtuak dituen antzarrastelu edo zizpa.

**laxátu** *ad.* (da-du) Askatu. Ikus **ahúr** eta **lazátu**. Cf. MAren pasarteño hau: «Elizako obrak ohono ez tuxu fini, bana orai ahantxu ari tuxu, ez dixi berdín balio. Aurten beste berogiaño at duxu, orai ohoitzen bagira gastía badila horrek eta ahurrain laxatzea».

**láxo** *adond.* Aske: *Zakúrra láxo útzí giníxin bárda / láxwan útzí* *ad.* (du) Aske utzi: *Zakúrra láxwan útzí giníxin bárda.* Ikus **láxo**.

**lazakérja** *iz.* Utzikeria: *Zé lazakérja jénde horjéna, bórda erórtzea útzí djé potretagábe-ki!* Ikus **futitukérja**.

**lazátu** *ad.* (da-du) Eztitu, epeldu. Cf. eskutitzetako pasarteño hau (MA): «Juan den as-

telehenian izan ninduxun Donianen eta X-n ikusten, bistan dena. Erran diaxu goraintzi eta jinen giela denbora lazatzen delaik».

**lázo** *izond.* Utzia, zabarra: *Gizón hóri arrúnt lázoo úxu. Lázo zárra, lázo zár zíkína, urdé lázwa...e.a.;* cf. MAren hau: «Hoben-hobena egiaren erraitia, lazo zar nizala». Ikus **láxo**.

**-le, -tzále** *atzi.* Egilea: *Andeatzále, arrañatzále, belarpáile, burumuntatzále, ebastále, galtzále, garbitzále, hartzále, haustále, hiltzále, íle, iratzále, prestatzále, salbatzále, xwitzále...e.a.*

**leatxúnak** *iz.* Belarra eramateko zurezko tresna, partikulazki pentze edo leku maldetan ibiltzen zena, orgarik sar ezin zitekeen tokietan. *Lera*-rekin lotua?

**lehén, léen** *zenb.* Lehena, lehenbizikoa: *Lehén egúnjan etzín gáuza húnik ín, bána hántik góiti xarmánki atzán zén / lehén, léen, lehéno, leéno adond.* Antzina / **lehénik, leénik, lehén-lehénik** *adond.* Lehenik, aurren-aurrena / **lehénbailén, leénbailén, lénbailén, lehénbanolén, leénbanolén** *adond.* Lehenbailehen / **lehéntxoño** *adond.* Lehentxeagoño / **lehemizíko, lemi-zíko** *izond.* Lehenbizikoa (Etxaidek, 1989: 371, *léemizíkoa* bildu zuen) / **lemízjan** ‘hasieran’ (ez da bestela *lemizi* erraten): *Bánkatik kárrí ginín béhja lemízjan arrúnt bása zén, bána orái idúri dú maltxátzen hásjá déla / Beste hizkera batzuetako lehen óstjan* erraten da, orain bi minutu, bi ordu edo lau ordu gertatu bada ere.

**lehén kúsi** *iz.* Lehengusu, lehengusina propioa. Ikus **kúsi**.

**lehéntxa** *iz.* Lehen aldiz erdi behar duen edo erdi den ardia. *Orotariko Euskal Hiztegia*-n *arlentx* eta *arlentx* jasotzen dira adiera berarekin.

**lehér** *post.* Anitz (instrumentala eskatzen du): *Luzáideko béstetan jéndež lehérra bazúxun pláza bérrjan pilóta partíden ikústen; úsoz lehérra pasátu dá áurten.* Cf. Saint-Pierre «Anxubero»-ren hau (1998: 33): «Oraino segurik bazterrak ixil daude. Alanbrez leherra igorri berria daukute, erreken gerizatzeo. Ez dute zeren alemanek sudurrik ager» / **lehér ín, lehér etá zapárt ín** *ad.* (du) Leher egin, izorratu,

unatu, erabat nekatu: *Lehér ín bezá, tó!* 'izorra dadila'. Cf. E. Etxamendiren hau (1988: 96): «Deurriek juana! Ba to azkenian leher in beza!»; *lehér eta zápart ín baléza úrde zikín ustél hórrek!*; *lánjan anítz áizanúk tá leher ína núk; lánjan anítz áizanúk ta lehé etá zapárt ína núk; góizeko bostóntan arribátu gíntxun étxeat lehérrinik; lehérríteko ájsa ín djáu.* Cf. Barbier-en (1926: 23) hau: «Herrestan eremaiten dute zaldiek ehun bat urhats oraino; bainan gero, leher eta zapart eginak hek ere, eta Piarres gibel-karga hazkarkiago eginik, zankez gelditzen dire, ikare-daldaretan». Ikus **leherráldja bíldu, hártu** eta **zapárt ín**.

**leherráldi** iz. Gaitzeko akialdia. Ikus **palíza / leherráldja bíldu, hártu ad.** (du): *Fináljan pilotárjek leherráldi bát gáitza hártu zúten.*

**leherrérja** iz. Ardiek hanketan (azazkaletan) izaten duten eritasuna, **maingérja** baino are gaiztoagoa dena.

**lehértu ad.** 1- (da-du) Zapart egin: *Gáixo mutikwari glóbwa lehértu záko,* 2- (du) Zapaldu: *Zángwa lehértu dázu ohártu gábe* 'oina zapaldu didazu ohartu gabe'; *jwándén egúnjan, hérriko béstetan, béhi kakát lehértu, lerrátu tá pítoz góti eróri núnztan / lehérbajézt interj.* Gaztelaniako *¡como hay dios!* bera da: *–Zé, ehún úso híl tukála áurten?, ez dját sinéstén, –Bá, lehérbajézt!*

**léitu ad.** (du) Irakurri: *Nexkáto abíla zén húra tá ánitiz léitzentzína.*

**leizár** iz. Lizarra.

**léjo** iz. Leihoa: *Léjwa hétsi nín, bána mítra háutsja baitzén, péko háize azkár bát sárztzentzén zilotik.*

**lejór** iz. Estalkia: *Zerbáiti lejórra édo estálgja zárrí, konparazjóné étxe batí téilátja zártzen zakólaik lejórra zárrí zakóla erráiten ál dúxu.*

**léka** iz. Leka, beti berdean delarik. Ikus **baba-léka** eta **mántxa**.

**lekaálde** iz. Leka multzo handia.

**léku** iz. Tokia. Hau gehiago ibiltzen da **tóki** baino: *Etxítela gurégatik arrangúran egón, léku séurretik jwáin baigúra / lékjak hústu ad.* (du) Alde egin: *Apézak lékjak hústu zitján hántik / lékjak ín ad.* (du) Alde

egin: *Apézak lékjak ín zitikán hántik.* Frantsesez *quitter les lieux* erraten da hau. Ikus **lekútu**.

**lekútu ad.** (da) Alde egin: *Áire míla déurru lekútu zítxun hántik* 'ziztu bizian alde egin zixuten handik'. Ikus **lékjak hústu** eta **lékjak ín**.

**lén** iz. Trikota egiteko gaia (frantseseko *laine-tik*). Ikus **bílo** eta **íle**.

**lengwáia** iz. Hizkuntza.

**lepaméhe** izond. Sakretako ibiltzen da, 'gaiztoa', 'urdea', 'zerria' adierarekin: *Lepaméhe atrebítu horrékin kásumák!*

**lepamurrítz** izond. Lepoan lumarik ez duena: *Óllo lepamurrítza, oilo mota bat da, lepoan lumarik ez duena.*

**lépo** iz. Lepoa / **lépo zintzúrreanó ájsa izán ad.** (da): *Lépo zintzúrreanó áse gitúk; lépo zintzúrreanó ájsa núxu komédja húnztaz! / lépotik éta góro ájsa núk híre menskérjéz!* Fisiokoa izan daiteke, aserik gaudelako eta baita nazkatuik gaudelako ere.

**léra** iz. Lera. Ikus **líña**.

**lerrakór** ad. eta izond. Irristakor, irristakorra: *Bánda karróindu zítxin éta égun karríka lerrakór djóxa.*

**lerrátu ad.** (da): *Zonbáit aldíz, elúr lapástat íten dílaik éta géro karróintzen, áisa dá lerrátzja ta erórtzja.*

**lérró, lérró-lérró** iz. Ilara: *Háurrak eskólatik átea tá lérró-lérró jwántzítxun plázano, errínsa aintzínjan zutéla / lérrótan bíldu, zárrí* (belarra) *ad.* (du) *Belárrak, gáwain pasátzeko, sobéra idór eztjélaik zártzen díra lérrótan; besténaz, frángo idór djélaik zártzen díra métetan, tá arrúnt idórtjak djélaik sártzen díra sabáirat.*

**létra** iz. Eskutitza, gutuna (frantseseko *lettre-tik*).

**létxa** iz. Haragi zerra (*lèche-tik*). Lehen ibiltzen zen hitza da: *Ahatxéki létxa.*

**lezafín** iz. Liztorra.

**leztór** iz. Zomorro baten izena. Cf. *liztor* zabaldua.

**liaberkina** iz. Birabarkia. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 187): «Liaberquina bati guiderrac ezarri».

**librátu ad.** 1- (da) Haur ukan, 2- (da) Kaka egin: *Undárrjan librátu núxu éta orái*



- gústjan núxu*, 3- (du) Preso dagoena askatu, 4- (da) Zerbait egin behar ez izan (ablatiboarekin): *Librátuxú soldadogwáin ítetik*.
- libro izán** *ad.* (da) Libre izan, zilegi izan: *Anítz lékutan etxú libro pipátzja; etxú libro íhtizin ártzja sasóinez kánpa*.
- liho** *iz.* Lihoa. Etxaidek *líhua* eta *líhwa* biltzen ditu (1989: 88). Ikus **zimúrtu**.
- lili** *iz.* Lorea. Satrustegik (1969b: 83) *kanpoan uso, etxean otso* erranairuaren Luzaideko aldaera hau bildu zuen: «Kanpoan lili ta etxean elorri».
- lilitu** *ad.* (da) Loratu: *Geezjóndo gúzjak lilitjak txú*.
- lima** *iz.* Lima (espainoleko *lima*-tik): *Límak bezála játen dú* ‘anitz jaten du’ (gaztelania-ko *come como una lima*-ren kalkoa). Ikus **arráspa**.
- línja** [línja] *iz.* Emakumeak ezkon-dotetzat daraman arropa (frantseseko *linge* ‘lienzo’, ‘arropa zuria’-tik?).
- liña** *iz.* Lera; ikus **lera**. Hitz hauen etimologiarako ikus Mitxelenaren *FHV*, 67.
- liña gatina** *iz.* Cf. Luzaideko arotzaren hau: «Liña gatina pare bat beguia berrituric» (Satrustegi, 1969: 187).
- lipu** *iz.* Armiarma / **lípja báno tzárra izán, lípja bezáin zárra izán** *ad.* (da) (esam.) Arrunt gaiztoa izan: *Lípja báno zárro úxu hóri!*, *lípja bezáin zárra dá hóri!* (esam.). Etxaidek (1989: 112) *lypia* jasotzen du.
- lipusáre** *iz.* Armiarma sarea, amarauna.
- lisaburdín** *iz.* Arropa lisatzeko burdina. Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 167, 196, 198), *-a* itsatsiarekin, etimologiaz dagokion moduan: «Lisaburdina bat arriñaturic», «bi aizur eracachi bat alzairatu lisa burdina bat guiderra ezari», «lisa burdina bati guiderra arriñatu».
- lisátu** *ad.* (du) Lisaburdinarekin arropari zimurrrak kendu.
- listún** *iz.* Listoia? ABk ere erabiltzen du: «Listuna frango tatxatu xixi».
- liturgia** *iz.* Liturgia. MAk darabil: «liturjia esplikatu diauxu lehenik eta gero ensaiua kantuz».
- lizentzátu** *ad.* (da–du) Soldadogoa bukatu eta libre gelditu.
- ljár, -ljér.** Irudi du **-ár, -tár, -tjár, -tjér** atzizkiaren alomorfoa dela: *egoiljár, egoiljér, kusljér*.
- ljéra** *iz.* Libera, pezeta, frankoa. ABk *libera* ibiltzen du; Ondarrolako 184leko eskutitzean ere *libera* dago (Satrustegi, 1973: 293). *Badját sakélan míla ljérat*. Cf., forma eta edukia direla eta, ondoko pasarteñoa (Satrustegi, 1981: 345): «Berdin hola denak erosit, mila bedera libera pagatu baititu, arraz ez, etxola barne: 84 ardi eta etxola, 84 mila pezeta». Arruazuko eskualtzainak dio (1969b: 54) hiru *libera ttipi*-k kiloa osatzen dutela, eta, beraz, irudi du pisu neurria ere badela, honen arabera. Ikus **pezéta, pézta**.
- ló** *iz.* eta *adond*. Lo / **ló egón** *ad.* (da) Lo egon: *Háurra ló djóxo / loín* *ad.* (du) Lo egin: *Zé ló edérra ín dután!*; *loítea jwán dúxu*. Ez dira *lotan*, *lotara*, *lotatik*... e.a. ibiltzen. Cf. MAren hau: «Egun ez baitut siestaik in, juan behaixit loítea» (MA); *bjarrártizjeló* ‘bihar arte egizue lo’, gauean ohera joatean erraten da; erantzuna *gáuza béra* da.
- loále** *iz.* Logalea / **loále izán, loálja izán** *ad.* (da) Logaleak egon: *Loálja núxu ta banjáxu ófeat; háurra loálja úxu / loalétu* *ad.* (da–du) Logaletu: *Loalétja núxu ta banjáxu ófeat / loáljak egón* *ad.* (da) Logura izan / **loáljak izán** *ad.* (da) Logaleak egon, logura izan / **loáljak porrokátia izán** *ad.* (da) Logaleak akabatzen egon: *Gáur loáljak porrokátja núxu*. Zenbait aldiz hasperendun aldaera ibiltzen da, **lohále** alegia: *Loháljak porrokátja zúxun Pettán tá óffjat jwántzúxun áire míla demónjo*.
- lódi** *izond*. Lodia, gizona.
- lodítu** *ad.* (da–du) Gizendu: *Maztéki hóri gáztjan arrúnt méhe zúxun, bána wái nóla lodítja dén!*
- loditasún** *iz.* Gizentasuna, lodiera.
- lóhi** *iz.* Lokatza. Cf. hau: «Ze apiril tristia in din! Beti euria eta lohitaik ezin ateraz. Egun maizatzaín le[he]n eguna ze kanbioa! Haize hegua azkarrik atera xixi, ez baitakit kontinatuko din» (AB).
- lohítu** *ad.* (da) Lokaztu.
- lokártu** *ad.* (da) Loak hartu. *Lehér eta zapárt ina nintzán tá beála lokártu nintzán*. Eba-

kuntzak ere gaixoa *lokártwik* delarik egiten dira maiz.

**lokumulúxka** *iz.* Lo kuluxka / **lokumulúxkat ín ad.** (du) Lo kuluxka bat egin.

**lóló** 1- *izond.* Zozoa: *Zé lólwa dén gúre áuzo hóri!*, 2- *iz.* Esnea (haur hizkeran).

**lómo** *iz.* Solomoa. Solomo mota bati **urinéko** erraten zitzaion, urinetan sartzen zelako / **lómo ttípi** *iz.* Solomillo. Satrustegik *azpi-xiñ* (1963-64: 259) eta *expixun ttipi* (1969b: 56) biltzen ditu. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*-n *azpizun* 'solomoa' ageri da; Sarasolak *azpisuin* biltzen du *HLEH*-n, baina *azpizun* forma *Euskal Hiztegia* delakoan.

**lopéto** *izond.* Lotia: *Zé lopétwa dén mutíko hóri!*

**lorjagárrri** *izond.* Arrunt ederra. Eguraldiarekin anitz ibiltzen da: *Egún denbóra lorjagárrja dó.*

**lórjan egón, zéruko lórjan egón ad.** (da) Arrunt ongi egon: *Zéruko lórjan djóxu* 'arrunt ongi dago'. Ikus **glórja**.

**lorjátu ad.** (da) Liluratu: *Lorjártwik egón nintzán jantzári hér só.*

**lóte** *iz.* Epaitza (espainoleko *lote*-tik).

**lotería** *iz.* Loteria (espainoleko *lotería*-tik) / **lotería eróri, lotería tokátu ad.** (da) Loteria egokitu.

**lótza** *iz.* Beldurra ( $\neq$  **ahálge**). Ikus **beldúr**.

**lotsagárrri** *izond.* Izigarria. Cf. Luzaideko gutunetako pasarte hau: «Egun hotan ari gitxu azkar belarran; orai artio hotzak egon gitxu eta orai lotsagarriko beruak zenbait egun huntan» (AB).

**lotsátu ad.** (da-du) Arrunt beldurtu: *Lotsátzen níxi lán hórrek*. Ikus **beldúrtu, harrítu** eta **izítu**.

**lótu ad.** 1- (da) Itsatsi ( $\neq$  **estekátu**): *Lapatín bát lótu zjáxu* 'lapats bat eratxiki zait' (kuka), 2- (du) Sendaketa, kura egin. Ikus **lotúra**. 3- (da) Ekin: *Lót gíten lánai*, «Ez nuxu xu bezain aisa lotzen plumai» (AB), 4- (da) Jarri (ikus **jáuzi**): «Beti bezala usaiako lanak iten [t]zitixin eta egun hortane bazkaria prestatuik, gasna bilduik, jarria omen [t]zuxun, eta eguerditan erraiten omen diakoxu Ellandei buruko min bat lotu zakola». Ablatiboa ere goberna dezake: «Gerruntzetaik lotia nixin. Kontent ninduxun aurtengo negian ez niela deuse

izan, bana oraiko zioxun» (AB), «egon nuxu hamabots bat egunez arras fattalian; zintzurretik lotu zuxun eta jateko gutuziaik bate gabe, eta gero jateko gutuzia ba eta ezin jan, aho barne guzia zaurtia nixin, mihi gainak eta denak» (MA), 5- (da-du) Zuritu: *Jwán dén egúnjan elúrra íntzixin, bána etzixin lótu*, 6- Batu, gaztelaniazko 'empalmar', Luzaideko arotzaren liburuan, Satrustegik (1969: 279) dioenez: «Pala bat lotu» (154), «sagarde bat lotiuric» (sic) (155), «pala bat guiderra loturic» (167). Ikus **eraklatxi**.

**lotúra** *iz.* Sendaketa, zauri bat, min bat sendatzea: *Mín hártu níxin béswan tá medíkjak íntzjáxun lotúrat, lótu zjáxun*. Goñerriko testu batean ere adiera berarekin aurkitzen dugu *lotu*: «Bañ[e] Samaritano atek bidean zebillena, allegatu edo etor ze a[r]ren ondora eta ikusiriken ure, mugitu edo bete ze [mi]serikordie edo piedades. Urbildurik arregana, lotu zitio h[e]ridek, ixuritzen zuelarik olioia eta ardoa (...)» (Camino, 2004: 171).

**lukáinka** *iz.* Lukainka.

**lúma** *iz.* Luma.

**lúmatxa** *iz.* Txoriek eta hegaztiek ateratzen dituzten lehen lumak.

**lumerjátu ad.** (da) Oiloek-eta lumak aldatzea: *Gúre etxéko óllwak hási díra lumerjátzen*.

**lunetadún** *izond.* Betaurrekoduna.

**lunétak** *iz.* Betaurrekoak (frantseseko *lunettes*-etik): *Jáunzkitxú lunétak, bésténaz etxú já eré kúsiko*.

**lupéko** *iz.* Sagu txiki baten izena da (sataina?, luhartza?, satitsua?).

**lúr** *iz.* Lurra. Cf.: «Behi pare atekin zezenetik heldu zelaik behiak izitu eta lurreat bota eta gainetik pasatu behiak, eta zanguan he-xur bat hautsi» (AB).

**lurrikáre** *iz.* Lurrikara: *Bárdako lurrikárja hautéman giníxin; lurrikárjaikin etxéko paéat arráildu zjáxuu*.

**lurritzultzéko** *iz.* Baratzean ibiltzen den tresna, lurra iraultzeko, lau edo bost hortz zabal dituen. Sardearen antzekoa da, itxuraz.

**lusaár, lusár** *iz.* Patata. Luzaideko gutunetan *lugar* agertzen da ia beti; salbuespena MAK behin darabilen *lugar* da. **Patáta** ere erraten da, baina aise gutiago.

**lusarjórra** *iz.* Patata jorra. Cf. **artojórra**.

**lusarrálde** *iz.* Patata multzo handia.

**lusartéi** *iz.* Patata biltegia.

**luzaidár** *iz.* eta *izond.* Luzaidekoa.

**luzamén** *iz.* Luzamendua.

**luzátu** *ad.* 1- (da-du) Luze(ago) egin, 2- (du) Berandu, berandutu. Cf. letretako pasarteño hauek: «Errezibitu nixin xure azkeneko letra plazerrekin jakitiaz untsa ziztela. Luzatzen dixit puskat errepostia in iten» (AB), «otoi in errepostia nik bezala luzatu gabe» (MA).

**lúzaz** *adond.* Denbora luzez: *Agérrekwa lúzaz izántzén Améiketán.* Mailakatzaila onartzen du: *áski lúzaz, frángo lúzaz.*

**lúze** 1- *izond.* Luzea, hedadura handikoa, 2- Gora, altua, goratasun handikoa: «Santiagotan zautia nixin apez luze at, bana arrunt mehía. Gaixua! Ageri zixin, ba, lanian ari zela!» (AB), 3- *adond.* Luzaro: «Pastu ixit gripa puskat; hastetik ez iduri gauza haundia zela, bana aski luze ukan dixit» / **lúze jwán** *ad.* (da) Berandu, berandutu, franko iraun, atzeratu: «Ikusten dixit arrunt berantetsia xiela gure letra. Ba, gure ixiltasuna puskat luze juan duxu; egon nuxu beti bea, xuri nahiz erran noiz ukain ginin haurren komunioia» (AB).

**luzérna** *iz.* Alfalfa (frantseseko *luzerne*-tik).

**luzetasún** *iz.* Luzera.

## M

**Maatxét** *iz.* Azoletako *Maatxéta* edo *Maéxta* (*Madaritxeta*-tik) etxeko nagusia arruntean, baina bertako beste norbait ere adieraz dezake; **Maatxetésa** *iz.* *Maatxéta*-ko etxe-koandrea. Ikus **Madarítx**.

**madáma** *iz.* Anderea, baina adiera gaitzesgarria du (frantseseko *madame*-tik): *Ze úste dú madáma hórrek!*

**madarikátu** *izond.* Madarikatua; sakreetan ibiltzen da: *Mutíko madarikátja!, pilóta hóri énja dá ta értén dú bérja déla.* Cf. Manezaundiren hau (1990: 34): «To, Yuanes, hetiko madarikatu gizontto harek etzikiat zer uste nintzala iduri zitzaikon bere lizun-keriekin».

**Madarítx** *iz.* Azoletako *Maatxéta* etxeko nagusia. Ikus **Maatxét**.

**Maéstru** *iz.* Pekotxetan den *Maestrjájinja*-ko nagusia normalki. Luzaiden *errínt* 'maiusua' erraten baita, irudi du oikonimoaren oinarrian Iparraldeko *maístru*, *maesturu* 'zurgina' dagokeela; **Maestrúsa** *iz.* *Maestrjájinja*-ko etxe-koandrea.

**magasin** *iz.* Biltegia, denda (frantseseko *magasin*-etik). MAREN gutunetan ageri da: «Anitz sendi in diakoxu eta gero magasinain uztiake in diakokexu bere afera». Guk ez dugu aditu.

**mahái** *iz.* Mahaia. *Maháipetik xíxtu!* Erranairu edo formula modukoa da, eta norbait bazkaltzera edo afaltzera berant iristen delarik erraten da, jan gabe gelditu dela adierazteko. Baztanen (Izeta, 1996: 212) *Maipetik xixtu* erraten omen da, egileak zer adiera duen edo noiz, zer egoeratan ibiltzen den zehazten ez badu ere / **maháiño** *iz.* Mahaitxo.

**mahajestálgi** *iz.* Mahaiestalkia. Ikus **estálgi** eta **ofestálgi**.

**mahásti** *iz.* Ardantzea. Satrustegik (1969b: 72) biltzen duen Luzaideko 1644ko etxeen zerrendan *Pedro de Ardanche*, *Ardanche* ageri da. Honek erran nahi duke *ardantze* hitza garai hartan Luzaiden bizirik zegoela.

**maháts** *iz.* Mahatsa.

**maháts gólko** *iz.* Mahats mordo. Etxaidek (1989: 91) *mahaz gólkoa* dakar.

**máil** *iz.* Eskailera maila. Cf. **páuso**.

**máilu** *iz.* Gabia, mailu handia. Ikus **hárgin**.

**mailu kopa** *iz.* Mailuaren burdinazko zatia, irudi duenez. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 195): «Mailu copa bat alzairat(u)». Ikus **kopa**, **xixelkopa** eta **zizél**.

**mailúka** *iz.* Mailua.

**maingérja** *iz.* Ardiek hanketan (apatxetan) zenbait aldz izaten duten gaitza. Erdaraz *patera* erraten diote eta biziki normala da. Izetak (1996: 125) Baztango *maingueri*-ri 'fiebre aftosa' adiera ematen dio, baina Luzaiden ez da hau.

**maíngu** *izond.* eta *adond.* Herrena.

**maínguka ibíli** *ad.* (da) Herrenka ibili, herren egin.

**maitátu** *ad.* (du): *Behánt izán zíxjen háur hóri éta izígarri maitátzen díxje.* Cf. MAREN hau: «Frantxixa beti leku berian; biziki kontent tuxu, maitatia dixie anitz eta untsa irahazten dixi».

**maíte** *izond.* Maitea / **maíte izán** *ad.* (du) 1- Gustatu, gustuko, gogoko izan: *Etxít ánwa sobéra maíte, úisa mozkórtzen nizálakotz,* 2- Maitatu: *Behánt izán zíxjen háur hóri éta izígarri maíte íxje.*

**majátz** *iz.* Maiatza, urteko bosgarren hilaren izena.

**makíl** *iz.* Makila. Satrustegik dio (1969b: 87) haurrak sobera zigortzea ez dela zuzena, «astua makilai bezala» ohitzen direlako.

**makilári** *iz.* Bolantetako ddantzaria, makilarekin ibiltzen dena.

**makilukáldi** *iz.* Makilkada, makila kolpea. *Makilukáldi bát emán nakón búrutik béiti.*

**makilukáldika** *adond.* Makila kolpeka, makilakadaka / **makilukáldika aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Makilakadaka aritu, hasi, ibili.

**máko** *iz.* 1- Belarra ateratzeko ibiltzen den makila sudurduna, kakoduna, 2- Bastoia.

**makúr** 1- *iz.* Zorigaitza: *Zé makúrra gertátu den Eztenzúbin!*, 2- *izond.* Okerra, bihurria: *Gainekóltako bídjá makúrra úxu bíziki!* Cf. «Barkatu ene ixkione makurraz» (AB), 3- *adond.* Gaizki: «Gu ere untsa gutxu; ni ere ez nuxu makurro» (MA) / **makúrra izán, makúr edérra izán** *ad.* (du) Zorigaitza izan, zorigaitz handia izan: *Zé makúrra izán dutén étxe hórtan séme gáténa potréta hórtan gáldwik.*

**makúrto** *ad.* 1- (da) Makur bihurtu, okertu: *Lehén arrúnt zuzéna zén makíla, bána wái makúrto dá,* 2- (da-du) Bihurritu: *Zángwa makúrto íxit.* Ikus **ukúrto**.

**malba** *iz.* Satrustegik (1969b: 47) sendabelarizat hartzen du.

**malbaizka lili** *iz.* Landare baten izena; Satrustegik dio (1969b: 59) eztula sendatzeko erabiltzen dela.

**málda** *iz.* Aldapa. Ikus **patár**.

**malízja** *iz.* Malezia. MAK behin *malezja* darabil.

**maltxátu** *ad.* (da) Otzandu, apaldu: *Bánkatik kárrí ginín béhja lemízjan arrúnt bása zén, bána orái idúri dú maltxátzen hájsja déla.*

**máltxo** *izond.* eta *adond.* 1- (Animalia) otzana, 2- Apal, apala. MAK aldi batez *maltso* darabil: «Gaixo M.D., ni berrize maltso nixu; hartzen dixit pasaldi bat huna, bana konforme nuxu Jinko hunak hola nahi baitu, eta aitzinare harek nahi dina izan dailela» (Satrustegi, 1981: 346).

**maluros** *izond.* Zoritxarrekoa (biarnesez eta gaskoiz *malurous* ‘malhereux’ da). Luzaideko gutunetan ageri da, behin bakarrik: «Hor untsa duxu, ez bada eneatzan seurik; seroraño atzu gisakuak batxu, frango untsa pahatzen izan behaixi, bana ez duxu malu-

ros, baixi pahatzekua» (MA). Satrustegik (1969b: 83) *malurus* jasotzen du esaera honetan: «Angelus, senarrik ezteua malurus eta duena ez beti urus». Ikusten den bezala, euskara hau ez da Luzaidekoa, edo ez da ongi bildu. Guk honen errateko usaian **mi-seáule, mixeáule** aditu izan dugu.

**maluróski** *adond.* Zoritxarrez: *Maluróski eztú étxe bérrjain erósteko sósik áski.*

**mamútxa** *iz.* Eltxo mota bat. Ikus **zórka aizán**.

**manaméndu** *iz.* Agindua: *Áitak emán dáit manaméndja árdjen xéka jwán beútáta.*

**manátu** *ad.* (du): 1- Agindu (≠ **hitzemán** ‘prometatu’): *Erríntak manátu zjákoxon libúrja kártzezán, bána etzín obedítu, etzín káswik ín,* 2- Eskatu: «Dn. Javier izan zia-xu eta manatu diakoxut mezat eta erran diaxu egun hortan meza nausia izain dela guretako» (MA).

**mánddo** *iz.* eta *izond.* Adarrik gabeko ardi edo aharia. Ikus **mándo**.

**mándo** 1- *iz.* Astoaren eta zaldi edo behorraren umea: *Mándo háundja básta háundja* (esaera). Etxe handia izatea gauza ona da, baina lana ere ematen du; *mándo hílai púr-tik ólwa* (esaera) ‘mando hilari ipurditik oloa’, ‘hil eta gero salda bero’, 2- *iz.* Es-kuetan-eta berez egiten diren ebaki modukoak; ikus **ezpáinak lehértu**, 3- *iz.* eta *izond.* Adarrik gabeko ardi edo aharia. Ikus **kixkíta** eta **mánddo**.

**mandoúli** *iz.* Mandeulia.

**manéra** *iz.* Modua: *Zé manéra díra hók?* Cf. MAren hau: «Baixie bizitzeko manera pol-lita. Bistan dena, lanian aizan behar, baha-tzeko gauzak eta fruitak eta saltzeko duz-ten guziak Miarritzeat eremaiten tixie» / **manéra txár**. Itxura txarra: *Manéra txár-ra kústen dakót aféra hórrí.* Ikus **erráiteko manéra**.

**manikómjo** *iz.* Eroetxea.

**mantár** *iz.* Larruaseko modukoa: *Maztékjek íbílitzentzutéen kamiséta zúxun mantár-ra.*

**manteléta** *iz.* Emaztekiek elizkizunetara joateko buruan ezartzen zuten jantzi luze eta beltza. Barandiaranek ere bildu zuen (1974: 24), Donoztirin.

**mantelína** *iz.* Mantelina (biarnes-gaskoiko *manteline*-tik, antza). Elizkizunetara joate-

ko emaztekiek buruan ezartzen zuten jantzi motz beltza, *mantilla* gaztelaniaz, *mantille* frantsesez.

**mánto** *iz.* Emaztekiek berokia (frantsesezko *manteau-tik*). Ikus **pálto**.

**mántxa** *iz.* 1- Leka idortua; ikus **léka**, 2- Orbana, zikinunea (gaztelaniako *manchatic*), 3- Mus partidaren zati bat, erdaraz *chico* deitzen dena.

**mantxút.** Erantzuteko lehen ibiltzen zen hitza, honela, konparazioe: *–Benát!, Benát! –Mantxút –Xáuri húnat ixtánpát.* Satrustegik (1963-64: 273) *mantzut!* biltzen du eta ‘!Qué dice¡’, ‘ulertu ez den galderari ematen zaion erantzuna’ adiera ematen dio; *mantxut!* ere ibiltzen dela gehitzen du, «en tono familiar», xuka beharbada.

**mañatera** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) dio ardiei jaten ematen zaien erdiko gabela dela. Ikus **áska** eta **górbe**.

**maratela** *iz.* Luzaideko arotzaren liburuan ageri da (Satrustegi, 1969), baina ez daki gu xuxen zer erran nahi duen. Baliteke beste hizkera batzuetako *maratila* bera izatea, baina **fírla** erraten da egun Garaziko herrian. Hau da lekukotasuna: «Maratela bat berriac» (sic) (256).

**marimutíko.** Marimutilla, mutikoekin ibiltzea gustatzen zaion neska: *Gúre háur denbóran bazén nexkátó bát béti mutikwekin ibiltzentzéna tá hári erráiten ginákon marimutíko.*

**Mariño** *iz.* Azoletan den *Mariñoínja* edo *Mañoínja*-ko nagusia normalki; **Mañoása** *iz.* *Mariñoínja*, *Mañoínja*-ko etxeoandrea / **mañotarra** *iz.* eta *izond.* *Mariñoínja*-koa: *Baginíxin étxe hótako béhi bát tá mañotarra erráiten ginjákoxon.*

**Marjáurra** *iz.* Azoletako *Marjaurráinja* etxe-ko nagusia eskuarki; **Marjaurreása** *iz.* *Marjaurráinja*-ko etxeoandrea.

**márka** *iz.* 1- Seinalea. Ardura aitzinean *–elako* loturazko gailua duela ibiltzen da: *Sós ánitx gastátzen dú hórrek, aberátsa délako márka; arránwak ingúruka dáiltza, kabála zónbáit hílik dutélako márka.* Cf. MAren hau: «Atzo Joakinaikin ihardokitzen ginixin; fonsian erran diakoxut duaike liburutan ezarri tilaik hun zielako marka. Hola gu juaiten gielaike horiek hor geldituko

tuxu» / **márka ín** *ad.* (du): *Markát ín behár djákoxt behárrijan árdi húní.* Ikus **markátu**, 2- Nekazaritzako lanabesa, Satrustegiren arabera (1969: 279): «Marca zur bat zinta bat bi burdina» (136), «marca orz berri bat» (149), «ustai maraca bat» (157).

**markátu** *ad.* (du) Marka egin. Luzaideko arotzarenean ageri da (Satrustegi, 1969): «Closqueruar(en) paguen marcazen lanian bentaco ondun paratia» (238), «paper marcatia contorlaturic» (252).

**marlúza** *iz.* Bakailaoa.

**marmaro** *iz.* Satrustegik (1969b: 28-29) dio *ihats ttipia* edo *imilitxa* egiteko ibiltzen den landarearen izena dela.

**márra** *iz.* Marra: *Papér húnatan ín díxit márra háundi bát.* Ikus **zirrimarráko**.

**marráka** *iz.* Janba, ardiek egiten duten soinua / **marráka ín** *ad.* (du) Ardiek janba egin.

**marrákaka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Janbaka ari izan, hasi, ibili: *Árdjak marrákaka ái txú bórdan bázkain gáldex.*

**marrakakari.** Satrustegiren arabera (1963-64: 273) «miauka, ñarraukaka ari izaten den katua» da.

**marrakúku** *iz.* Gaztiz betetzen den taloa, antza.

**marránta** *iz.* Katarroa, hotzeria. Ikus **erláts** eta **erlastúra** / **marránta atzeman, bíldu, harrapátu** *ad.* (du) Katarroa bildu, harrapatu / **marránta izán, marrantátja izán** *ad.* (da) Marrantatua egon, katarrotua egon: *Jwandén ástjan puxkát marrantátja izánintzán.* Cf. MAren hau: «Anitz jende bauxu hemen marranta».

**marránta sóinu** *iz.* Mafrundi ahotsa edo: *Baúxu marránta sóinja* ‘baduxu katarro boza’. Ikus **sóinu**.

**marrantátu** *ad.* (da) Katarratu, mafrunditu: *Marrantátu ník.*

**marráska** *iz.* Haurrak negarrez ari delarik egiten duen soinua. Ikus **nigár marráskaka aizán, hási, ibíli, jín, jwán** / **marráska ín** *ad.* (du).

**marráskaka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Marraska soinua egiten aritu, hasi, ibili.

**marraxa, marraza** *iz.* Garmendiaren arabera (1969: 223, 224) arotzaren lanabesetako bat da, bi ahoko labanaren modukoa.

- marréa** *iz.* Marrega, zaku oihalez egindakoa (frantseseko *marégue*-tik? Lhandek [1926: 727] hala uste zuen).
- márro** *iz.* Aharia. Ikus **ahári**.
- marrogái** *iz.* Marrotako, aharitako uzten den axuria.
- marrúma** *iz.* Katuak, ohara delarik, egiten duen soinua / **marrúma ín** *ad.* (du) Marruma egin.
- marrúmaka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Marrumaka aritu, hasi, ibili. Cf. Satrustegik (1999: 498) bildutako pasarte hau: «Atera zitzakon Bolokiko (i)turrian gatu itsusi bat marrumaka, eta iziturik gizona zeinatu zen eta (e)man zakon errebesetik makil ukaldi(a) (...)».
- marruskátu** *ad.* (du) Zerbait bi eskuen artean bortizki estutu.
- marruskéta** *iz.* Zurgin zepilloa, marrusketa. Luzaideko arotzak ere bazerabilen: «Marrusqueta mii bat» (Satrustegi, 1969: 242). Sakana erdialdean *marraxko* erratan zaio tresna honi, Erdoziak (2001: 152) dioenez.
- marrusketa mihi** *iz.* Luzaideko arotzak ibiltzen zuen: «Marrusqueta mii berri bat» (Satrustegi, 1969: 150).
- martáilu** *iz.* Tailua pikatzeko, sega zorrozteko mailu berezia. Ikus **mailúka**.
- Martinenea** *iz.* Gaindolan den *Martinénja*-ko nagusia eskuarki; **Martinésa** *iz.* *Martinénja*-ko etxeakoandrea / **martinetarra** *iz.* eta *izond. Martinénja* etxeakoa.
- Martíno** *iz.* Gaindola-*Martinóinja*-ko eta Gainekoleta-*Martinóinja*-ko nagusia normalean; **Martínósa** *iz.* Gaindola-*Martinóinja*-ko eta Gainekoleta-*Martinóinja*-ko etxeakoandrea.
- martxandisa** *iz.* Satrustegiren arabera (1969b: 97) ‘salgaia’, ‘merkantzia’ da hitz honen adiera.
- martxanta** *iz.* Satrustegik dioenez (1969: 97) ‘merkataria’ erran nahi du.
- mártxo** *iz.* Martxo, urteko hirugarren hilaren izena.
- masakrátu** *ad.* (du) Txiki-txiki egin (frantseseko *masacrer*-etik edo espainoleko *masacrar*-etik). Cf. MAREN hau: «Xerri huna hil dixie, ba, eta X untsa duxu bere hartan, bana gaizua, masakratuik gelditu duxu hunen aurpegia, eta berare akitia duxu anitz».
- maskáil izán** *ad.* (da) Goibel egon: *Égun maskáil dúxu; méntwaz eurinen díxi*.
- maskáildu** *ad.* (du) Goibeldu: *Óstjan irúzki edérra zjóxon bána orái maskáiltzen ái díxi*.
- maskula**. Luzaideko arotzaren kontu liburuan ageri da, sobera garbia ez den pasarte batean: «Piziak masqula» (Satrustegi, 1969: 170). Gure irudiz ‘pisuak baskula’ dugu hor, ‘baskularako, pisagailurako pisuak’ edo.
- masóin** *iz.* Oiloendako egiten zen bazka. Ikus *OEH*-ko *mason* sarrera.
- master** *iz.* Maizterra. Luzaideko arotzaren liburuan ageri da (Satrustegi, 1969: 246): «Bid[o]ndoco master[r]ae zorra» (sic). Ikus **bordazain** eta **etxetjár**.
- mataláz** *iz.* Lastaira (frantseseko *matelas*-etik). Cf. Satrustegi (1981: 344): «Izan nuxu Felipaink Ferranenian bi egunez matalazen iten».
- matél** *iz.* Matela, masaila: *Matéljan emántzjakoxón páswat*.
- mateláki** *iz.* Zerriaren mazelatik ateratzen den artekiaren antzekoa. Caminok (1997: 609) *maxelki* ‘zerriaren matraileko alderdiko jaki gizen eta oso estimatua’ biltzen du; Otsagabian *maxela* erratan zaio erdaraz.
- mateláko** *iz.* Matelan, masailean ematen den kolpea.
- matelakóso** *iz.* Aurpegiko alde banatako atezagunea, erdarazko ‘pómulo’.
- matelezur** *iz.* Masailezurra. Etxaidek (1989: 131) *matél<sup>e</sup>ezúrra* jaso zuen.
- matoin** *iz.* Satrustegik dio (1969b: 57) gaztanbera hartu eta gazta egiteko zanpatzean ateratzen dena dela, ongi ulertu badugu.
- Matxarde** *iz.* Gaindolako *Matxardéinja* etxeakoa nagusia (ikus Jimeno [zuz.], 1996: 204). Guk ez dugu bildu, baina Luzaideko arotzaren liburuan «cristobal matxarde», «marcharde soru(a)c» ageri da (Satrustegi, 1969: 124, 133).
- matxarro**. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969): «Macharro bat, pincheta pare bat arriñaturic» (145), «pala bat: agoberritu macharro bat arriñatu» (254). Satrustegiren arabera (ibid., 279) ‘taloak egiteko pala biribila’ da edo zen. Behin *macharra* ageri da: «Macharra bat arriñatu, gatina pare bat» (144), eta beste bate-

- an *nacharro*: «Nacharro bat buruberritu-ric» (155).
- máuri** *iz.* Marrubia. Etxaidek (1989: 97) *ma-húria* biltzen du.
- máze** *iz.* Bahearen antzeko tresna, aski tupitua dena: *Idúritzen zjáxu báhja mázja báno ar-gálogwa déla*.
- mazeta** *iz.* Mailu mota bat, 'gabia', 'mazo' *OEH*-ren arabera. Guretako erdarazko *maceta* burdinazko mailu karratu edo kubikoa da, mailu normala baino pisuago eta handiagoa dena, nahiz giderra ohiko mailua-ren heinekoa duen. Luzaideko arotzak zerabilen (Satrustegi, 1969): «Mazeta bat caldaturic» (195), «mazeta bat caldatu» (199), «bi mazeta caldatu» (207).
- mázte** *iz.* 1- Emaztea (normalean), 2- Emakumea (gutxitan). Ikus **maztéki** sarrera / **maztéño** *iz.* 1- Emaztetxoa, 2- Emakumetxoa.
- maztegai** *iz.* Andregai. Ikus **andraái**, **gizon-gái** eta **prému**. *MAK emaztegaia* dakar.
- maztekári** *iz.* Gonazalea: *Gizón maztekári putéro zikína!* Cf. **gizonketári**.
- maztéki** *iz.* Emakumea, andrea, baina ez emaztea.
- mazúrtza** *iz.* Marrubia. Etxaidek (1989: 96) *ma:rzúza* biltzen du.
- medálla** *iz.* Domina / **medallaño** *iz.* Cf. *MA*-ren hau: «Medallaño hau Orrian hartu nixin M<sup>a</sup> Ignaziandako, aski dakoxu emaitia ene partez».
- médiak** *iz.* Erdiak, musean erabiltzen den hitza.
- medíku** *iz.* Sendagilea (gaztelaniako *médico*-tik): *Medíkura jwáiteko delibérwa hártu nixin, ezpaizítzán estómakako mína pásten* / **medíkúsa** *iz.* 1- Medikua emaztea, 2- Medikua den emaztekoa.
- medíuketa izán, jín, jwán** *ad.* (da) Medikua bila joan, etorri, medikuaren xerka joan, etorri. Cf. *MA*-ren hau: «Astelehenian Donianen ninduxun; ttantta arras eri atzeman dixit ohian bere biotzaikin. Gauaz oseba medíuketa izanik izitu dela anitz, hatsik etzila bate hartzen ahal».
- medjalúna** *iz.* Kisuskileek-eta ibiltzen duten tresna baten izena. Luzaideko arotzak ere bazerabilen: «Medialunak duruac 19» (Satrustegi, 1969: 216).
- mehakóil** *izond.* Biziki mehea. Pertsonen eta animalien erraten da, meheak izan eta gizenzen ez direnean. *Zé mehakóila dén Mixél!* Ikus **arrakóil**. Lhanderen arabera (1926: 722) 'svelte', 'mince' da *mehakoil*. Ikus, orobat, *OEH*.
- mehakóildu** *ad.* (da) Arrunt mehetu.
- mehár** *izond.* Estua (= **hértsi** ≠ **méhe** 'mehea'). Normalean **mehár** erraten da, ez **hértsi**.
- mehátu** *ad.* (da) Mehetu. Cf. letretako pasarte hauek: «Gaizo gizona! Gaztia eta langilia, undar artio aizan duxu beti lanian, bana biziki mehatia uxu. Medikiek erran dutela eztiela anitz egunen bizik. Hola uxu gure izaitia» (AB), «bazkal onduan jinak zitzun; polliki duxu, mehatia duxu anitz, hola behar zila biotzaindako, bana ez dixi hats haundik» (MA).
- mehatxátu** *ad.* (du) Mehatxu egin.
- mehátxu** *iz.* Mehatxua. Eguraldiaz mintzatze-ko ere erabiltzen da: *Denbóra húnek etxí mehátxwik* 'eguraldi hau ona eta ziurra da'. Satrustegik (1969b: 87) dio Luzaidarrek, haurrak sobera zigortu beharrean, bakoitzaren izaeraren arabera jokatu nahiago izaten dutela, «batzuk balakuz, bertzeak meatxuz» tratatuz / **mehátxu ín** *ad.* (du) Mehatxatu.
- mehátxuka adond.** Mehatxu eginez / **mehátxuka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Mehatxuka ari izan, hasi, ibili: *Mehátxuka ái dík álde hártak, fíte eurítuko ik*.
- méhe** *izond.* Mehea, gizona ez dena. Cf. *AB*-ren hau: «Santiagotan zautia nixin apez luze at, bana arrunt mehia. Gaixua! Ageri zixin, ba, lanian ari zela!». Ikus **arrakóil** eta **mehakóil**.
- méhe ín** *ad.* (du) Mehe eguna, bijilia eguna egin.
- mehéxi izán** *ad.* (du) Merezi izan: *Hórrek mehéxí zanpáldi hún bár*; cf. *MA*-ren hau: «Gaizo M<sup>a</sup> Dolores, ez nikexi mehéxi sekulan geio kasuik itia». B. Etxeparek (1980 [1545]: 32) *merexitu* du.
- mekaníka** *iz.* Makina: *Mekaníka zikín háu etxít nehóntikane arrañátzen ál*. Ikus **belár páiteko mekaníka**, **belár pikátzeko mekaníka**, **ixkjátzeko mekaníka**.
- melátu** *izond.* Ikus **píko melátu**.



**meleka** *izond.* Jale txarra: *Arrúnt jále meléka dá mutíko hóri.* Ikus **milingina**.

**melloátu** *ad.* (da) (Kordea galdutakoan) nor bere onera etorri, akorritu, akorduratu, nor bere baitara itzuli. Lhandek (1926: 723) *meilloratu* dakar eta «cf. béarn, *melhoura*» gehitzen du. Lespy-Raymondek *mielhura*, *mielhurar* dakarte eta Palayk *melhurà* eta *amelhourà*.

**melón:** 1- Meloia (fruitua), 2- Tokiloa, ergela (gutunetan): «Melona huni zonbat aldiz erran dakou?» (AB).

**meménto, meméntu** *iz.* Momentua, ueña / **meméntwan, meméntjan** *adlag.* Momentuan, oraingo / **meméntoko** *adlag.* Oraingoz: *Meméntoko entz hérriat jwáin, hémen úntsa níz.*

**-mén, -(ta)pén, -méndu, -méntu** *atziz.* 1- Ekin-tza: *Aitzinaméndu, arrañaméndu, atxikiméndu, baimén, barkaméndu, beherapén, gorapén, hastapén, luzamén, mohiméndu, pentsaméndu, sofriméndu, trataméndu...* e.a., 2- Gaitasuna edo: *Helménjan (izán)*, 3- Neurria edo: *Amén – hamén.*

**mendekátu** *ad.* (da): *Arneítar hórrek ántxu páre át ebátsi ómentzákon Wárteko artzáin batí, bána géro úntsa penátu zitzákon, edérki mendekátu baitzén artzáin hóri.* Ikus **amengátu**.

**Mendekóste** *iz.* Mendekoste. Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969): «Boryaco condi[a]c mendecoste[z] einic» (144), «condiac einic mendecostez» (181).

**mendéku** *iz.* Mendekua.

**méndi** *iz.* Mendia / **mendíxka** *iz.* Mendiñoa, mendittoa.

**mendikári** *iz.* eta *izond.* Mendizalea.

**méndre** *izlag.* Delikatua (osagarritz, osasunez): *Zé méndrja dén maztéki hóri.* Cf. **dremen-dén.**

**menskérja, mentskérja** *iz.* Zozokeria: *Zé men(t)skérja errán duzjén!*

**menskíla** *izond.* Xoxoa: *Deurrú menskíla!, zé astapitokérja ín dúk oráikwan?*

**ménstu** *ad.* (da) Tontotu: *Ménstu deá?* ‘ergeldu al da?’, *ménstja izá?* ‘tontoturik hago?’.

**ménts** *izond.* Ergela, zozoa / **ménts pástu, urd ménts pástu** *izond.* Ments alena (sakrea da): *Háuxilik, urd ménts pástja!* ‘hago isilik, ments alena!’ / **méntsa ín** *ad.*

(du) (esam.): *Zé méntsa íten dukán (besténaz) iháun behárrí lúze horjékin!* Norbait iraindu nahi dugunean ibiltzen da; lehen zatian egitura finkoa du, baina berez biraoa dena aldatu egin daiteke, nahiz ardurenik menturaz *pítwa* aditzen den; bigarrean, berriz, iraindu eta laidoztatu nahi den pertsonaren akats zenbait aipatzen da. Honen irudikoak dira, baina gogoragoak, **pítwa ín** eta **ustéla ín**. Mailakatzea hau da: **mén-tsa ín → pítwa ín → ustéla ín**. Ikus kami-no & Salaberri & Zubiri (2004: 327).

**menturátu** *ad.* (da) Ausartu: *Errán zjáxuten hát jwáiteko bána enúxu menturátzen;* «Errezibitu tixit xure bi letrak; egon nuxu ezin menturatuz, bana ohono naski ikusiko duxun bezala ene foltsia ez duxu sobera azkar. Polliki segitzen dixit, bana indarrak ohono ttipi» (MA). Gobernatzan duen aditza adlatiboan egoten da: *Entz menturátu jwáitea* ‘ez naiz ausartu joatera’. Zernahi dela, eskutizetan, inoiz, absolutiboan ere agertzen da.

**mentúraz, méntwaz** *adlag.* Beharbada: *Mentúraz bá* ‘beharbada bai’. Ikus **ágjan** eta **órwat**. Cf. MAren hau: «Lehenbiziko egunian ezarri balu hola menturaz sendatia izain zuxun, inen baitzitin behar ziti-nak behar bezala».

**merkátu** 1- *iz.* Azoka, 2- *ad.* (da-du) Merkeago jarri, prezioa beheititu, jaitsi.

**mérke** *izond.* eta *adond.* Merke(a), garesti edo karioaren kontrakoa.

**mertxíka** *iz.* 1- Muxika, melokotoia, 2- Muxikondoa.

**mértzianítz.** Mailegu berriaren itxura du; arruntean **eskermíla, eskermíla ánitz, mílesker** erraten da. Ikus **eskér** sarrera.

**meskontent izan** *ad.* (da) Kontent ez egotea, haserre antza egotea (cf. frantseseko *mécontent*. Irudi luke, halarik ere, biarnesa -edo tartean ibili dela; Palayk *mescountentà* ‘mécontenter’, *mescountentamén* ‘mécontentement’ biltzen du). Cf. MAren hau: «Ez gitxu meskontent, 44 mila pesetako at (sic) hunkitu dixiu; arras polliki arranjatu gitixie eta ohono batixiu 9 behi buru. Jendiak bano aiso muntatzen baitira behiak».

**méta** *iz.* Pila handia, beste toki batzuetako *meta*, edo pila txikia, bestetako *mukuru*. ikus **belarméta**, **ungarriméta**...

**metál** *iz.* Metala / **metal harri** *iz.* Burdin harria (Satrustegi, 1969b: 58).

**metátu** *ad.* (da-du). 1- Muku ruak egin: *Behár txjú belárrak metátu éurja hási báno lén*, 2- Bildu, metatu: *Múndja metátzen dúxu sanfermínetao entzjérotan Irúnen*.

**métra** *iz.* Metroa (frantseseko *mètre*-tik).

**metxa** *iz.* Arrazteluaren hortzak sartzen diren zuloak egiteko arotzak ibiltzen duen broka (Garmendia, 1969: 224).

**méza** *iz.* Meza: *Lehénbiziko méza, méza náus-ja, áseko méza*... Singularrean ibiltzen da: *mézan, mézat, mézatekwan, mézatic*... Cf. MAren hau: «Egun meza apezak guauri so eman dixi. Hor hasiak ziztea? Apezendakore lan haundia duxu jarri artio» / **méza emán** *ad.* (du) Meza eman / **méza entzún** *ad.* (du) Meza entzun.

**mezasári** *iz.* Meza emateagatik apezari edo Elizari ematen zaion dirua. Luzaideko arotzak ere badakar (Satrustegi, 1969: 227): «Meza sari bat yuanes surguinain». Ikus **sari**.

**mezazéinu** *iz.* Sinestunak mezara joan daitezen egiten den ezkila jotzea.

**mezkiiztár** *iz.* eta *izond.* Mezkirizkoa.

**miakúlu** *iz.* Mirakulua. ‘Harrigarria’ adierazteko ere ibiltzen da, ezezko perpausetan segurik: *Etxú miakúlu lánik gábe geldítzja, afér gohóztu bát baitá*. Galderetan, berriaz, *zé déurru* ‘zer arraio’, *nún déurru* ‘non arraio’, *nwát déurru* ‘nora arraio’ eta besteren adiera hartzen du: *Zé miakúlu íten dúzje zjék hémen, ténore húntan?, nwát miakúlu dwá hóri?*

**miátu** *ad.* (du) Miatu, aztertu. cf. MAren pasteraño hau: «Igorri dixi ospitaleat, letrat eman ziaokoxun, orai han miatuko dixie untsa duaíke». Honek inoiz <h>-rekin ere idazten du; ikus ondoko sarrera.

**miatzále** *iz.* eta *izond.* Miatzen ibiltzen dena: «Izan ziauzkitxu behien mihatzialiak tuberkulosaindako» (MA).

**míga** *iz.* Biga, bi bat urteko aratxe edo txekorra.

**míhi** *iz.* Mihia, mingaina, gizakiarena edo ezkila, xilintxa eta besterena/ **mihiz** *adlag.*

Ahoz, aurrez aurre: «Gaixo M<sup>a</sup> Dolores zenbat gauza nuken erraiteko mihiz ari bagina», alegia, ‘aurrez aurre ari bagina’, «nolazpait iduritzen ziaxu azkeneko letra puxkat trixtia igorri naukula, bana noizbait Jinko hunak nahi badu mihiz errain dauzkitxut» (MA). Ikus **ahoz aho**, **áho** sarrean.

**míhi gainak** *iz.* Luzaideko eskutitzetan ageri da: «Egon nuxu hamabots bat egunez arras fattalian; zintzurretik lotu zuxun eta jateko gutiziaik bate gabe, eta gero jateko gutizia ba eta ezin jan, aho barne guzia zaurtia nixin, míhi gainak eta denak» (MA).

**míhipéko záin** *iz.* Mihí haria.

**míhipúnta** *iz.* Mingain punta. *Míhipúntan díxit hítz hóri, bána étxi átea náhi*.

**míhíse, mííse** MA. Maindirea. Etxaidek (1989: 198) *míhíxia* bildu zuen; Satrustegik lihozko maindire lodiak adierazteko *míhixe lodiak* dakar (1969b: 67).

**Mikeláú** *iz.* Gaindolako *Mikeláinja* (*Mikelau* antroponimoaren gainean moldatua da) etxeko nagusia eskuarki, edo bertako norbait: *Patzíko Mikeláú; Mikeláusa* *iz.* *Mikeláinja*-ko etxekoandrea.

**míko** *iz.* Gutí: *Etxí mikoiké ján afári gúzjan, eztjakixút zé déurru dín / míkóño* *iz.* Pixka, gutiko bat: *Jántaxú harági mikoñoat jastátzeko béden*. Bestela **puxíño** ibiltzen da / **míkótta** *izond.* Nimiñoa, ttipi-ttipia: *Míkóttá txár hórrek pilotárja izán náhi díla? Nóla izáin dá bá, indárrik ezpádu?*

**míla** *zenb.* Mila.

**mílaka** *adond.* Milaka.

**milapeztáko** *iz.* Mila peztako billetea. Bada erdara-euskara nahasten dituen erranairua: *De la bisoseko se hace la milapeztako*.

**mílesker** Eskerrik asko. Ikus **eskér**.

**mílingína** *izond.* Jale txarra, jale meleka: *Zé mílingína den gúre nexkátwa, eztú déuse máite!*

**míliunka** *adond.* Milioika: «Arren finitzen díxit huntan. Míliunka goraintziak emain dazkotxu D<sup>n</sup> Jose Mariri» (AB).

**míljún** *zenb.* Milioia.

**mími** *iz.* Mina, haur hizkeran. Zaraitzun ere hitz hori bera ibiltzen zen; ikus Arana (2003: 197): «*Ama, mími!* aurrek erraten die».

**mín** iz. 1- Mina: *Buruko mína, gerrúntze(ta)ko mína, hagíneko mína, tripáko mína, zintzúrreko mína / hán mín (tá) hémen mín*: «Gu ere bagiatzixtu aitzina neguko gisan, marranta eta han min hemen min» (MA), 2- Zauria, 3- Zerriaren gibelari kentzen zaion boltsañoa (behazuna, gibelmina). Satrustegik (1963-64: 261) *beazuna* bil-tzen du Luzaiden; Barandiaranek (1974: 97) Donoztirin *xerrimin* jaso zuen / **mína izán** ad. (du): *Baút burúko mína; bazka-lóndwan tripáko mína nín; búrjan mín dú / mínaikin egón* ad. (da) Minez egon: «X oraire bere buruko minaikin egon duxu, biziki fier» (MA) / **mínez egón** ad. (da) Mina izan, minarekin egon; ablatiboarekin ibiltzen da: *Burútik mínez njóxo, trípatik mínez djáudexu; hagínetik, hagínetaik mínez gjáudexu; gerrúntzetik, gerrúntzetaik mínez djóxo, zintzúrretik mínez njóxo*. Cf. pasarteño hauek: «X-k oraire hartu dixi pasaldi bat, bana polliki duxu. Nik uste gripa zuken; orotaik minez egon dela eta partikularzki gerruntzetaik, bana ezulik ez dixi izan» (MA), «X besotik minez dioxu, anitz sofrítuz. Aita beharrik azkar baita!» (AB).

**minártu** ad. (du): *Nekáttwak, karríkan eróri, tá béswan minártu zíxin / minártwik, minártja izán, egón* ad. (da). Cf. MAREN pasarteño hau: «Bordaxarre hola-hola aha-txe batekin minartuik duxu; orai ekendia diakoxute plastría».

**míndu** ad. (da) Ozpindu. Esnearendako eta saldarendako erraten da: *Ésnja míndja uxú*. Ikus **ozpíndu** eta **píztu**.

**míntzátu** ad. (da-du) Hitz egin: *Famílja hór-tan eskwáraz míntzátzen txú; teléfonaz míntzátu ginjákoxon ihakóitzjan*. Bestalde, **míntza** musaren kentzeko ibiltzen den hitza da. Aditz honek datiboa (*norbáiti míntzátu*), absolutiboa (*norbáit míntzátu*) edo soziatiboa (*norbáitekin míntzátu*) galdegiten du. Ikus **elakátu, elekátu** sarrera.

**míntzo** iz. Mintzatzeko gaitasuna / **míntzo át ín** ad. (du) Gaztelaniako 'dar un toque'-edo da: *Beterínárjoa jíten délaik ínén dauxút míntzo át / míntzoik gabé gélditu* ad. (da) Mintzamina galdu: *undárrjan míntzoik gabé gélditu zúxun aítátxi / míntzo izán* ad. (da-du) 1- Hitz egin, mintza-

tu. Cf. «Haurreke biziki polliki mintzo omen dixie inglesa, eskolake hurbil duz-tela eta biziki errintsá gixakuak» (AB), 2- Erasi, murmurikatu: *Zé míntzo híz hí? = zér dasák? 'zer derasak?' / míntzwak áitu, míntzwak hautéman* ad. (du): *Hau-temáiten txít míntzo átzo kánpwan ('oir voces')*.

**miráila** iz. Ispilua (biarnes-gaskoiko *mirálh-etik*). Menéndez Pidalek dio (1962: 30) hitz hau gaskoitik heldu dela Luchairek ikusi zuela lehen aldiz.

**míru** 1- iz. Mirua (hegaztia), 2- *izond*. Hotza. Azken hau bakarrik *háize mírja, háize míru bát* 'haize hotza' esaldian ibiltzen da.

**mirula** iz. Belar baten izena, *hinojo* erdaraz (Satrustegi, 1969b: 59). Autore honen arabea tentsioaren kontra ibiltzen da.

**miseáule, mixeáule** *izond*. eta *adond*. Gixajoa, zoritzarrekoa, tristea, zorigaitzekoa: *Dró-gaikin íbíltsen djén hórjek miseáule háun-di átzo txú*. Ikus **maluros**. MAK *miserable* dakar: «Súpitoki ohian hilik atzeman omen dixie. Miserabilia!, undarrian zer eriotzia izan din!», baina ABk *miserable* eta *mise-raule* ditu: «Ze denbora miserauliak ditun! Guk artuak erinak tixiu; beste frango iteko». Ikus **erreálki** sarreraren ageri den N. Politen aipua.

**misjóne, misjónjak** iz. Misioa(k): «Ordian misioniak untsa pasatu zitxun eta fruitu ekarri, Jinkuari eskerrak» (MA).

**misjionést** iz. Misiolaria: *Oséba apéztu-etá jwántzúxun Áfrikát misjionést*.

**míta** iz. Pipia (frantseseko *mite*-tik). Euskal-tzaindiaren Hizkuntza Atlasak (1999) *bípu* bildu du Luzaiden.

**míttra** iz. Kristala, leihokoak ere bai (frantsese-ko *vitre*-tik?): *Ái txú mítren kúztén* (urarekin) 'kristalak garbitzen ari dituxu', *ái txú mítren kárlátsen* 'kristalak garbitzen ari dituxu' (urik gabe); *Léjwa hétsi nín, bána mítra háutsja baitzén, péko háize azkár bát sártzentzén zítotik*. Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969: 170) *bitra* darabil, behin: «27 eieraco, bitrac paratiac».

**míttra sasísa** iz. Kristala sartua dagoen zurezko peza. Ikus **sarisa**.

**miúri** iz. Gaztaina alea.

**mixkína** *izond*. Fundamentugabea edo.

**Mizelmáite** *iz.* Gaineoletako *Mizelmaiténja* etxeko nagusia.

**mizpíra** *iz.* 1- Mizpíra (fruitua), 2- Mizpíron-doa, mizpíra zuhaitza.

**móda** *iz.* 1-Moldea: *Móda bérrja, móda xahárra*: «X aitaikin ari duxu xerritei baten iten oraiko moda berri hotan» (MA) / **móda xahárrjan aizán, ín...** e.a. *ad.* (da-du): *Étxe hórtan lán gúzjak móda xahárrjan iten túzte*; cf. hau (Satrustegi, 1969b: 29): «Itsusia! Halta, moda xaharrian iru aldiz ingurata nixin lahatzian!», 2- Moda.

**móдахárrreko** *izlag.* Gauzak lehengo erara egiten dituen edo, gaztelaniako *chapado a la antigua*-ren baliokidea da: *Gúre Jwanés zóin móдахárrrekwá dén! Belárrak mekánikaikin íteko pártze táiljaikin pikátzen txí / móдахárrrekwak izán ad.* (da). Satrustegik dioenez (1969b:79) mespretxuz erraten da, gaztelaniako 'sois antiguos' adierazteko.

**mohiméndu** *iz.* Mugimendua. Cf. **higiméndu**. **mohítu** *ad.* (da-du) Mugitu: *Móhi adí 'mugi hadi'*. **Higítu** aise gehiago ibiltzen da.

**mokanés** *iz.* Mukizapia.

**móko** *iz.* Mokia / **mokoz moko izan ad. (da) Aurrez aurre egon. MAk darabil: «Bueno M<sup>a</sup> Dolores, finitu beharko dixit, ez baitut huntan geio igortzen ahal. Bagina mokoz moko geiore erranezakexu». Ikus **békoz béko izán / mókwán izán ad.** (da) Kakaleak akabatzen egon: *Jwán behar dját kakítea, mókwán baitút; káka mókwán díxit!* 'kagagaleak akabatzen nago!'.**

**mokóka aizán ad.** (da) Eztabaidan ari izan: *Mokóka ái txú bí mutíko hórrjek*. Ikus **diskutítu, gérla górrjan aizán, gérlan aizán, eta patáskan aizán**.

**mokokátu ad.** (du) Haserre eman, ahakar egin: *Ámak azkárki mokokátu níxi; erríntsak borítzki mokokátu íxi mutíkwa*. Ikus **gaizkítu**.

**mokóts** *iz.* Lakatza, karloa, morkotsa.

**molde** *iz.* Uztargileak uztarriaren arkuak edo burutokiak ongi egiteko ibiltzen duen plantillari *moldea* erraten zaio, Garmendiaren arabera (1969: 223).

**móltsa** *iz.* Sosa eramatekoa, diru-zorroa. Cf. **bóltsa**.

**mondóngo** *iz.* Adegua, lukainken egiteko prestatzen den haragi xehatua.

**moñoña, moñoño** *izond.* Polita. «Kusiko uxu ze haur moñoña» (AB).

**morrodo** *iz.* Ogi berezia, Satrustegiren arabera (1969b: 30)

**móta** *iz.* Mota: «Aurten iten dixie untsa, kabala mota guziak, eta ja beste alderdian bano kario hemen berian» (MA). **Kláse** ere ibiltzen da.

**motto** *iz.* Motoa, mototsa (Satrustegi, 1969b: 66). Ikus **buruko eta tutúla**.

**mótz** *izond.* Motza.

**Móxo** *iz.* Gaineoletako *Moxóinja*-ko nagusia eskuarki; **Moxósa** *iz.* *Moxóinja*-ko etxeko andrea.

**moxtále** *iz.* Ardi moztaila. Ikus **ardimoxtále**.

**móxtu ad.** (du) Ardiei ilea moztu. Ikus **móxtu**.

**mozkór** *iz.* eta *izond.* Hordia / **mozkór arráildwik adond.**: *Jwán dén igándjan Mánezek hústu zixin botóilat áno tá mozkór arráildwik jwántzúxun étxeat / mozkórra bíldu ad.* (du): *Izígarriko mozkórra bíldu zín éta errékano jwántzén púnpaka / mozkórtu ad.* (da-du) Horditu: *Bíziki mozkórtu óndwan pásoka hási zítján*. Ikus **pixtáfla**.

**móztu ad.** (du) Moztu: *Égun góizjan jwáníz bílwain mózteá*.

**múble** *iz.* Altzaria (frantseseko *meuble*-tik, irudi duenez). Ikus **mwéble**.

**múku** *iz.* Mukia: *Zíntza xíte, otói, múkjak dílándan txú!*

**mukúrru** *iz.* Hodei mota bat, espainoleko *cú-mulo* bera.

**mukúzu** *izond.* Mukizu: *Mukúzu zár bát dúxu tá pipátzen aizán beár!*; *mukuzíja!*

**mullítu ad.** (da-du) Zipatu (frantseseko *mouiller*-etik): *Eráuntsi baték harrapátu nú tá mullítwik sártu níx étxjan*. **Trenpá-tu** gehiago ibiltzen da.

**múndu** *iz.* 1- Mundua, 2- Jendea. Cf. MAren hau: «Aurten ez duxu karrikan mundia kontent xerriaren prezioaz. Esniare goititu duxu» / **múndutik jwán, múndu húntaík jwán ad.** (da) Hil. Cf. MAren hau: «M<sup>a</sup> Doloresi igortzen dakot X zer fontzian juan zaun. Zenbait meza entzunik juan da mundutik; nik uste baliatuko zazkon» / **munduz mundu izan ad.** (da) Munduan barna ibili. Cf. ABren hau: «Andre Dena Mariain aitzinian etxitut ahatzi, galdein dixit ene

- umendako munduz mundu baitira gaixuak, eta xuretako eta nik begiak untsa busti».
- muntátu** *ad.* (du) Antolatu (frantseseko *monter-etik*?). Cf. MAREN hau: «Ez gitxu meskontent, 44 mila pesetako at (sic) hunkitu dixiu; arras polliki arranjatu gitixie eta ohono batixiu 9 behi buru. Jendiak bano aiso muntatzen baitira behiak».
- múntra** *iz.* Eskumuturreko erlojua (biarnes-gasakoiko *mountré-tik*). Dena dela, ukaraikoari **erloi** ere erran dakiok.
- múñak** *iz.* Muinak. Etxaidek (1989: 126) *burumúñak*, *múñak* biltzen ditu ‘sesos’ adieraz, eta *múña* ‘tuétano’ errateko.
- muriko** *iz.* Satrustegik dio (1969: 280) Luzaideko arotzak darabilen *murico* ‘morillo’ dela, baina liburuan ageri diren bi lekukotasunak zalantzasak dira, oikonimoak direla irudi baitu, edo oikonimoan oinarritu izendapenak: «Muricoin bat ausiric arriñaturic» (150), «Muricoineco condia och[a]jailian einic» (252). Oikonimoa *muriko*-n oinarritua egotea besterik da, ordea.
- murrítz** 1- *izond.* Ele gutiko pertsona, 2- Soila edo; ikus **lepamurrítz**, 3- Triste (bakan zenbaitetan): *Sukáldja súi(k) gábe murrítzuxú*.
- múrru** *iz.* Pareta, horma, murrua. Ikus **artemúrru**.
- murruxóri** *iz.* Etxetxoria, paretaxoria.
- murtxikátu** *ad.* (du) Murtxatu: *Gósjak amarrátja zukán tá hexúrraké murtxikátu zítjan*.
- mús** *iz.* Mus jokoa / **músjan aizán** *ad.* (da) Musean jokatu.
- musarda** *iz.* Satrustegiren arabera (1969: 280) hortzak dituen mailua da, harria lantzeko ibiltzen dena. Luzaideko arotzak darabil hitza: «Bi musarda arriñaturic» (187).
- musidúra** *iz.* Urdina, lizuna. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 182) *zurmin* biltzen du adieraz honekin.
- músika** *iz.* Musika. Ikus **sóinu**.
- musikári** *iz.* Musikaria, musika jotzailea: *Bolantegúnjan musikárjak Donjánetik jiten zítxun lehén*.
- musítu** *ad.* (da) Urdindu, lizundu: *Ógia musítu úk*. Ikus **zurmíndu**.
- muslári** *iz.* Musean aritzen dena.
- mustátx** *iz.* Bibotea (frantseseko *moustache-tik*).
- mustaxdún** *iz.* eta *izond.* Biboteduna.
- mustúka** *iz.* Sukaldeko zapi bustia. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 129-130) «*Mustuka*, s. Poignée de vieux linges avec laquelle les domestiques frottent les meubles ou nettoient la vaisselle» biltzen du eta *mustukatu* «frotter des meubles avec *mustuka*».
- mustúpilka eróri** *ad.* (da) Muturrez aurrera erori: *Amátxi, etxétik atéatzjan, hárrí bá-tjan trabátu tá mustúpilka eróri zén*.
- mutíko** *iz.* 1- Mutil gaztea, 2- Mutila / **mutíkoño**, **muttíko**, **muttíkoño** *iz.* Muttíko ttí-pia.
- mutíl** *iz.* Morroia. ‘Gizon gaztea’ adieraz ez ohi da ibiltzen. Honen ordainez **mutíko** erabiltzen da.
- mútu** 1- *izond.* Mutua, ezin mintza daitekeena, 2- *adond.* Belarra egiteko garaian goibel egotea: *Egún belárretan aizán náí ginín, bána mútu dá éta ezín aizán*.
- mutúr** *iz.* Muturra / **mutúr egón**, **geldítu**, **izán** *ad.* (da) Haserre egon, haserre gelditu: *Anájai enjakoión ótwa úti éta wái mutúr geldítu úxu, tá héldu én ástjané mutúrr egóin dúxu, hóri hólakwa baitá*.
- muturfín** *izond.* Mokofina, muturzuria: *Mutíko muturfín húni zérrjain ginárrja bezík etzjakoxó gustátzen, gizéna étxi máite*.
- muturzikín** *izond.* Mutur zikina duena: *Auzoko mutíkoño muturzikín horrékin jwán dá gúre Jwanés*.
- muturzúri** *izond.* Muturfina, mokofina: *Hórjek jénde haundiskílak txú, arrúnt muturzúrrjak, etxú edózoín ostátuta komitázen ál*.
- mutútu** *ad.* 1- (da) Mintzamaena galdu: *Errekóntru háundi bát ukántzín ótwaikin tá órdjan mutútu zén, geróztik eztá géjo mintzátu*, 2- (du) Goibeldu: *Ník usté atsáldéko mutútuko dín éta méntwaz ortzántzuko*. Erdoziak *mututu* ‘eskuak hartzarekin ezin mugitu’ biltzen du (2001: 344); ez dakigu Luzaideko hitzarekin zuzeneko loturarik ba ote duen.
- mutxurdín** *iz.* Neskazaharra.
- muxár** *iz.* Muxarra.
- mwéble** *iz.* Altzaria (espainoleko *mueble-tik*). Ikus **múble**.

## N

**-na** (kontsonante ondoan), **-ra** (bokal ondoan) *atziz*. Banatzailea da: *Bána, bedéra, bíra, hirúna, láuna, bósna, séira, zazpíra, zortzíra, beátzíra, hamárna, ehúna...*e.a.

**naár, nabar** *iz.* Nekazaritzako lanabesa. Luzaideko arotzak anitzetan aipatzen du, maiz *ahajo, arriñatu, xorróstu* eta *eraktxi* aditzekin (Satrustegi, 1969).

**nabála** *iz.* Bizarra egiteko labana. Ikus **bizár nabála** eta **ganít**.

**nabar mutur** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (satrustegi, 1969: 186): «Nabar muturreco burdina bat». Arruazukoaren arabera aziendek goldetik tiratzeko dagoen burdinazko barra da (280).

**nabar zur** *iz.* Nabarraren zura dateke. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 181, 198): «Nabar zurai iru zinta», «bi zinta nabar zurari».

**Nabarlátz, Naharlátz, Naarlátz** *iz.* Gaindo-lan den *Nabarlátzja*-ko nagusia. Mitxele-nak (1964: 37) biltzen duenez, *Navarr Olatze* aurkintza baten izena zen 1284an.

**nabárту** *ad.* (du) Ilunabartu, Ilundu: *Nabár-tzen hájsa úxu* 'iluntzen hasi duxu'.

**nafartár** *iz.* eta *izond.* Nafarra. Etxaidek (1989: 257) *nafártarrá* dakar, baina azen-tuaketa hori ez da Luzaidekoa.

**nági** *izond.* Nagia: *Jéiki hádi ófetik, nági zikína!*

**nagítasun.** ABk darabil, behin; gainerakoetan *pereza* ibiltzen du: «Ikusten dixit gure berriak berantetsiak xiela; ba, ez gitxu ez gu xu bezain kunplitiak. Ixkiatzen hasteko nike nagítasuna». Ikus **peréza**.

**nagítu** *ad.* (da) Nagi bihurtu. Cf. MAren hau: «X aitaikin ari duxu xerritei baten iten orai-ko moda berri hotan. Lehengo ungarritei huntan iten dixie eta ohono ikusiko dienak

gazte hokin. In ditzatela, gu orai nagitu gituxu, launduko tixiu inahala. Gure X langilia duxu eta Y-[k] alimalekin gustu haundia dixi».

**nahási** 1- *ad.* (da) Zoratu, txorabiatu: *Nahási núxu bídjan áutwan*, 2- *ad.* (du) Nahasi: *Papér guzjak nahási djazkotxót*, 3- *izond.* Nahastaillea: *Zé gizón nahási zárra dén hóri!* (¡qué revolverdor...!, adiera txarrean), *urdé nahási zikína!*, *nahási ustelá!*, *urdé nahási zárra!*. Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 325) eta **ñaukéla**.

**nahaskérja** *iz.* Nahaspila, istilua. Cf. ABren hau: «Beti huelga langilen artian, ez tutelata aski irazten, eztuk holako naskeriaik bezik aitzen, pena anitz familietan».

**nahastéka** *iz.* Nahasketa: *Nahastéka háundja íxit búrjan*.

**náhi izán, náhi ukán, náí izán, náí ukán** *ad.* (du) Nahi izan. Beste aditz batekin doanean aitzinean nahiz gibelean ezar daiteke, **behár izán**-en kasuan bezala: *náhi dút ikúsi zónbat jénde jín dén* edo *ikúsi náhi dút zónbat jénde jín dén*. Cf. **nahítia izan, náhiz** eta **ná-hja(k) izán**. Batzuetan **náhixít** (< *nahi dixit* 'nahi dut' xuka) errateko manera da, 'jaki-na' adiera duena: «Nik bienak entzun eta ixilik, bana iduritzen ziaxu zerbait-zerbait iten dela, batzui eta bester eta arrarua delare nahixit (...)» (MA). Iparraldeko literaturan ardura agertzen da; cf. Hiriart-Urruti zaharraren hau (2004: 128): «Nahi dut hortan ere, bertze eginbide guzietan bezala, ez direla oro bardin hobendun. Ez jakinik edo bertzela, hein batez arinago ditake baten hutsa baino bertzearena».

**nahigábe** *iz.* Atsekabea, zorigaitza. Cf. ABren hau «Ikusia ixit periodikuan Antonio anaia

- hil izan zela; ene partez errekoxu parte hartzen duala izan duten nahigabian». Ikus **disgústú / nahigábe hártu** *ad.* (du) Atsekabetu. Cf. ABren pasarteño hau: «Gaizo gizona! Geiokoik eri egon gabe, eta ono gizon gaztia! Ze nahigabe haundia hartu din, eta familiak!». Ikus **disgustátu** eta **disgústja hártu**.
- nahikári** *iz.* Gogo: «X-en berri hunake bati-xiu, biziki untsa dela orotaz, hurrun salu. Eguerriko nahikaria permisionia iza[i]n zila, bana ez» (MA).
- nahitia izan** *ad.* (da-du). Eskutitzetan ardura agertzen da: «Ni ere nahitia nuxu X gai-zuain letra leitu» (AB), «igandian juan go dixit mezat, Jinkuak nahi badu nik bezala seurki. Aspaldian juainaitia (sic) nuxu», «X-k erran diaxu lehen bezala in behar dula itzuliñoat harek pahatuko dila, noiz ez baitakit, orai naski Paisen duxu. Nik erran diakoxut ikusi nahitiak ziuztetala» (MA). Normalean **náhja izán**, **náhja(k) izán** erraten da.
- náhiz** 1- *adlag.* Nahian; partizipio baten laguntza ohi du: «Orai artio ez dixit nik konprenditu X ez ikusi nahiz dailtzala» (MA). **Náhi izán**, **náhi ukán** bezala, aditzaren aitzinean ere ager daiteke: «Beti egon nuxu nahiz xuri plazer bat eman, erraiteko xure puska hok, erraiteko ereman duztela», «egon nuxu beti bea, xuri nahiz erran noiz ukain ginin haurren komunioia» (AB). Honelakoetan erdian *eta* juntagailua ere erabil daiteke: «Zien etxeanore jin go ginixin biek; beti egon gitxu gibealeat, nahiz eta belarrak finitu, ene jiteko, bana etxiu plazer hori ukan» (AB). Inoiz mendeko perpau osagarri batekin kausitzen dugu: «Ez ginixin karrazi ez nahiz han falta in zezan» (AB), 2- Perpau kontzesiboetan ibiltzen den menderagailua: *Náhiz kárjo dén behárko ún erósi*.
- náhja izán** *ad.* (da), **náhja(k) izán** *ad.* (du): *Ní eré náhja núxu jwán* edo *ní eré jwán náhja núxu. Nája xíra hóla ibíli!, níké nájak txít gáuza hók bísta húntaik eréman*. Ikus **nahitia izan**. Cf. Duvoisin (1986: 137) pasarteño hau: «Hori aditu nahia nintzen, ezen Eskal herrian (sic) atheratzen da probetxurik gehiena», G. Adéma-
- ren (1887: 52) beste hau: «Beraz baitez-bada han nahia zela, eta han berean kape-ra bat galdetzen zuela ezagaturik, berehala hasi ziren lanean» eta Elkanoko Lizarragaren beste hau (1994: 141): «Eta ala zego ansiatzen arara naiak; ta kunplitu zio Jangoikoak deseo».
- náhjo, nájo izán; náhjo, nájo ukán** *ad.* (du) Nahiago izan: «X-i erran omen ziaxoxun nahio zila han otuan ibili bano, Y-an astuan ibili, bana astua utzia dixie karrikatik seurrik» (MA).
- narredak** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 242): «Zazpi gatina mail berri einic golde narredac». Baliteke *golde nabarrac* terminoaren itxuratxartzea izatea.
- náski** *adond.* Irudi duenez. *Aspáldjan áitu út norbáit ito zéla Luzáideko errékan, gérla óndwan náski*. Cf. MAren hau: «Jakina dukexu, X ospitalian egonik etxeat jina duxu, bana naski sobera fite, berak ez baitzin egon nahi geio naski, han ez baitzin berak nahi zinik iten».
- natx** *iz.* Ardatza. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 184): «Nach bati bi abis lau ize».
- natx mutur** *iz.* Ardatz muturra. Luzaideko arotzak dakar (Satrustegi, 1969: 148, 222): «Bi nach muturreco burdina bi sorroila», «orga nach muturreco bi zinta bi burdina».
- náusi** *iz.* eta *izond.* Nagusia.
- nausitu** *ad.* (da) Nagusitu.
- naza** *iz.* Satrustegik (1969: 280) ‘encañonado del canal a la entrada del molino’ adiera duela dio. Luzaideko arotzak darabil: «Nazaco gastia burusuri egun bat» (170), «nazan egun bat» (186), «nazan burusurii paratu» (192).
- nazjone** *iz.* Nazioa.
- negél** *iz.* Larruaren eritasuna da, baina ez beste toki batzuetako ‘sarpullido’ (cf. Baztango *negala*) edo ‘herpes’ (ikus **xingolamín**), ‘hazteria’ baizik, gaztelaniaz *sarna* deitzen dena.
- négu** *iz.* Negua / **négu béltz** *iz.* Negu gorria: «X marranta arrapatuik, ohono ez dila ez-tulik, hartu tixi injekzioiak; juan den ur-tiane arinkio pasatu zila. Orotan zerbeit ba, eta negia beltza» (MA).

**nehát, neháte, nehátez** *adlag.* Inora (ere) (ez):  
*Etxit neháte jwán náhi; zé jénde ttúla hó-  
rjek, eztúra neháte higítzen!*

**nehón, nehónez** *adlag.* Inon, inon (ere) ez:  
*Etxit nehóne kúsi 'ez dixut inon ere ikusi' /  
nehón ezténa éz izán* *ad.* (da) (esam.) Bes-  
te mundukoa ez izan: *Hóri eztuxu nehón  
etztén étxja* 'esa no es ninguna casa del otro  
mundo'. Cf. Minaberriren hau (1998: 39):  
«Egun batez, oilar bat bazabilan pasean,  
baserri batean. Bat batean, zer ikusten du?  
Bide bazterrean, landare xume bat, ez ne-  
hon ez dena, bainan bazuen lore bat! Lore  
bat, ba, xoragarria: su pindarra bezain go-  
rria eta dirdiranta».

**nehóntikè, nehóntikanè ahál izán** *ad.* (du).  
Esamoldea da eta erran nahi du aukeraren  
bat baldin bada, den txikiena izanik ere, zer-  
bait eginen dela: *Nehóntikè ahál baút jwá-  
niz pilóta partidain ikústea; mekanika zikín  
háu etxít nehóntikanè arraíátzen ál.* Cf.  
MAren hau: «Seurki untsa estimatia dixie  
xure jítia. Nik pentsatzen nixin nehontike  
ahal baxinin ez xinila faltatuko; nik pena ni-  
xin ez ikustiaz, bana Ximoni ez niakoxun  
ekendu nahi, bere Pelo baitzen» (MA). Ipa-  
rraldeko izkribuetan *nihundik ahalaz* kausi-  
tzen dugu, antzeko adierarekin. Cf. *Herria-  
tik ateratako* hau (2005-2-24, 3. or.):  
«Muntadura frango ere beharko da araberan  
segurtatu eta besteak beste eskola berri bat.  
Bi hektarako lur peza badute jadanik begis-  
tatu hortarako. Bide batzu ere beharko dira  
berri eta nihundik ahalaz zabaldu».

**nehór, nehórez** *izord.* Inor, inor (ere) ez: *Ku-  
sjuká nehór?, ez dját nehór(e) ikúsi.* Egun  
ez da B. Etxepareren (1980 [1545]: 32)  
*ehor*-en modukorik ibiltzen.

**nekabídjak** *iz.* Nekeak, egoera gogorra; behin  
bakarrik aditu dugu.

**nekátto, nekáttoñó** *iz.* Neska ttipia. Ikus **néska**.  
**néke izán** *ad.* (da) Nekeza izan, zaila izan:  
*Frángo néke úxu horrén ítja.* Ikus **áisa, di-  
fízila** eta **záil**.

**nékez** *adond.* Erraztasunik gabe, aisetasunik  
gabe: *Mutíko hóri nékez ártzen dúxu es-  
kwáraz.*

**nerbjós** *izond.* Urduria.

**nerbjóstu** *ad.* (da-du) Urduritu: *Nerbjóstu níz,  
nerbjóstja níz.* Ikus **záin**.

**néska** *iz.* Neska (cf. **nekátto** 'neska ttipia').

**neskátto** *iz.* Neskamea. Ikus hurrengo sarrera  
eta **nekátto**. Satrustegik dio (1963-64:  
274) *neskato* 'eltzeei eusteko ibiltzen den  
burdinazko tresna' dela; guk adiera hone-  
kin ez dugu kausitu.

**néurri** *iz.* Bitan aditu dugu Luzaiden, esaldi  
berean, Anita Etxegarai (1898-1992) onda-  
rrolarraren ahotik. Esaldia hau da: *Harrá-  
xu (sálda húntaik...) nauxún néurrian.*  
Bestela, hitz hau ez da normala edo are  
gehiago dena, ezezaguna dela erran deza-  
kegu. Arruntean **izári** erraten da.

**nexkátto** *iz.* Neskatila. Ikus **neskátto**.

**ní, nítaz, niháur, njáuk, njáuri**...e.a. *izord.* Ni,  
nitaz, nerau, neronek, neroni...e.a. Ikus **éne**.

**nigár** *iz.* Negarra / **nigárrez aizán, nigárrez  
hási** *ad.* (da). MAK *nigar* eta *nigar hasi* da-  
rabil: «...eta nigar eta nigar hasi zela, eta  
berak tila hobenak, zendako ez den eman»  
/ **nigárrin** *ad.* (du) Negar egin.

**nigár marráskaka aizán, hási, ibíli, jín, jwán**  
*ad.* (da): *Érja érre zixin supaztérrian éta hási  
zúxun garráxjaka ta nigár marráskaka.*

**nigár zotínka adond.** Negar-zotinka. Ikus **zo-  
tínka** / **nigár zotínka aizán** *ad.* (da) Ne-  
gar-zotinka aritu: *Háurra nigár zotínka ái  
dúxu anájak zanpátu dílakotz /*

**nigarringárrri** *izond.* Negargarria.

**níni** *iz.* Ninia. Ikus **ñíni**.

**nó.** Tori (noka mintzatzean).

**noáno** *adlag.* Noraino. MAren eskutitzetan  
*nohano* agertzen da behin.

**noapáit adond.** Norabait. MAK *nohapait* dara-  
bil.

**nóat, nwát** *gald.* Nora: *Nwátwá, méntsa?  
'nora hoa, ergela?', nwátwá píto zikín  
hóri? 'nora doa pito zikin hori?'*

**noíz** *gald.* Noiz / **noízbait, noizbáit, nóiz-  
páit, noizpáit adond.** Noizbait, noiz edo  
noiz. Luzaideko gutunetan beti *noizbait*  
agertzen da / **noízezkjóz adond.** Noiztik,  
Cf. MAren hau: «Ordu balinbadu hasten  
nuxu bi lerroen egiten; ahatzia dixit ja  
noízezkiok xitutan zor letra. Altxatu nixin  
bana nun da?, bana ez dixi inport» / **noi-  
zjan bé(h)in adond.** Inoiz edo behin. Ikus  
**béhin, béin.**

**noízjan bé(h)inka adond.** Behin edo beste.

**noiznáit adond.** Noiznahi.



**noizténka** *adond*. Noizik behinka. Ikus **béhin, béin**.

**nóka aizán, hási, mintzátu** *ad.* (da) Emakumeekiko hika moldea erabili, hitz egitean.

Ikus **tóka aizán, hási, mintzátu**.

**nóla** *gald.* Nola, zer modutan.

**nolakátu** *ad.* (da): *Sóixu nolakátjak gjén!* 'Begira zertaratuak garen!'. Ikus **hortaátu, huntaátu, zertarátu, zertaátu**.

**nólako, noláko** *gald.* Nolakoa.

**nolanái** *adond*. Nolanahi, edozein modutan. Cf. MAren hau: «Pentsaketa ari ninduxun, xuk zor xinan errepostia hala nik ote nin, bana nolana izanik in go nixin eta hara nun errebitu duan xure letra, plazerrekin zien berri hunak jakitiaz».

**nór, nók, nóri, nóren, noréndako, norékin, norékilan, noréngatik**...e.a. *gald.* Nor,

nork, nori, noren, norendako, norekin, norengatik...e.a. *Notáki!* 'Nork daki!', 'batek daki!' Esamolde modukoa da (= *háil (jakíteá), xáxi (jakíteá), zázi (jakíteá)* 'auskalo').

**norbáit, noáit, nwáit** *izord.* Norbait, baten bat.

**normál** *izond.* Ohikoa, deus berezirik ez duena / **normáljan** *adlag.* Normalean, usaian, komuzki.

**normálki** *adond.* Arrunki, usaian.

**número** *iz.* Zenbakia. ABk behin bederen *lumero* darabil; cf., gainera, MAren *liferentzia* 'diferentzia'.

**nún** *gald.* Non: *Nún dirá jwán dén egúnjan útzi nazkítxun sósak?* / **núntsu** *gald.* Non-tsu, non goiti-beheiti: *Bazikját núntsu dén hérrí hóri.*

**nunbáit** *adond.* Nonbait: *Nún dá Patxi? Nunbáit dukék.*

## Ñ

**ñabár.** Bakarrik *béhi ñabár* ‘behi zuri-beltza’ sintagman eta besteren batean erabiltzen da, dakigunez. Ikus **nabártu**.

**ñapúr** *izond.* Zerratu batetik ihes egiten duen behia: *Béhi ñapúrra úxu zerrátu batetik eskapátzen déna.*

**ñáuuka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Zarrapoka, katuka ari izan, hasi, ibili: *Háurra hási úxu ñáuuka.*

**ñaukéla** *izond.* Nahasia, nahastailea: *Urdé ñaukéla, béti baztér gúzjak nahási behár; útz jéndjak bákjan, otói!*

**ñiki-ñáka aizán** *ad.* (da) Kitzikan, katzakan ari izan.

**ñimíño** *iz.* eta *izond.* Nimiñoa, biziki txipia: *Ondóko étxjan baíxje háur ñimíño át.* Gutunetan, behin, ‘haur txipia’ adieraz ageri da, izena ezabatu delako edo: «Eniakixun Pilartxuk ñimiñua bazila; gaixua, eztixi xantzaik» (MA).

**ñiñi** *iz.* Ninia; ikus **níni**. MAk darabil: «Moxoinian baixie beste ñiñi bat, nekattua. Oraire uste bano lehen omen duxu, bana untsa omen duxu».

**-ño** *atziz.* Txikigarria da: *Alabáño, amáño, aríño, báño, begíño, berríño, bultáño, jauño, mikóño, sudurño...*e.a. Ikus **bát, báño**.

## O

- obedentzia, obedjéntzja** *iz.* Esanekotasuna / **obedentzia karri** *ad.* (du) Obeditu. ABk darabil: «Soldaduek permisioniak kendiak omen [t]zitixien, ez omen txu untsa portatu. Denetan zeait! Nehoke etxie nahi obedentziaik karri nahi» (sic). Bordel luzaidar bertsolariak ere badarabil: «Nafarrua eta bertze / Iru Probintzia. / Etzuten karri nahi / Obedentzia: / Orai obe lukete / Umiliatzia, / Ez badute bilatzen / Esklabo jartzia» (Satrustegi, 1965: 182). *OEHN* ‘guardar (respeto, obediencia)’, ‘rendir (honor)’, ‘tener (envidia, amor)’ adierak ematen zaizkio *ekarri*-ri, besteak beste eta hori da, hain justu ere, hemen duena. Ikus **esperantxa ekarri** (**espeántxa** sarrera), **ondorio ekarri**.
- obligátja izán** *ad.* (da) Behartua egon: *Obligátjak gíra horrén itea* ‘nahitaez egin behar dugu hori’.
- obligatuki adond.** Nahitaez. MAK darabil, behin: «Jakiten ahal duxu ni ere ohoitzen nizala obligatuki zietaz, bana Jinkuak hola nahi baitu duaike».
- obligazjón** *iz.* Obligazioa: *Nikolásek etzín obligazjón* *ek* *mendírat jwáiteko, bána kúsjak jwáiteko errántzjákoxon.*
- odéi** *iz.* Ekaitza / **odéja lehértu** *ad.* (da) Izugarritzko ekaitza izan: *Ámak kondáztentzín béra háurra zélaik odéi bát lehértu zéla tá alimáleko uréstjak izántzjéla.* Dakigunez, biziki guti ibiltzen da; normalean **góibél** aditzen da. Aipatutako pasadizo horretaz ikus Aintziburu & Etxarren (2002: 89). J. Etxepare medikuak ere, lehenago (1992: 339-340), hitz egiten du uholde larri horretaz: «Zazpiak irian, huna nun hedoi beltz bat zaukun lehertzen herriaren gainera, or-  
tzantz burrunba ilun eta ximixta gar samin batzuen artetik».
- odéno** *iz.* Luzaiden eta bestetan edaten den likore gogorra, alkoholarekin eta intxaurrekin egina (frantseseko *eaux de noix*-etik). Luzaideko aldaera erdiesteko jatorritzko *odénwa* forma mugatuztat hartu zela kontu egin beharko dugu, eta oker interpretatu zela, *ólo* + *-a*, *óllo* + *-a* > *ólwa*, *óllwa* ereduaren arabera.
- odól** *iz.* Odola. / **odóla ín** *ad.* (du) Jan behar diren animaliei ganibetarekin odola ongi atera.
- odóldu** *ad.* (da) Odoletan egon, etorri...e.a.: *Muttiko gáixto hóri arrúnt odóldwik jiten zjáuxu egún guzíz eskólatik.*
- odolústu** *ad.* (da-du) Odolustu: *Xérrja híl óndwan odolústu behár dá, dénain úntsa jwáiteko.*
- ódre** *iz.* Ordena (frantseseko *ordre*-tik) / **ódrjan zárri** *ad.* (du) Ordenan paratu: *Xúre ganbára hóri arrún púrdiz góiti úxu; zár-tzaxú otóí ódrjan.*
- ófe** (eskuarki), **óhe** (behin edo beste). Etxaidek (1989: 196) *óhia* bildu zuen lehenik eta *ojetíg* ‘ohetik’ gero (ibid., 300). MAK bi aldaerak ibiltzen ditu, maiztasun bertsuarekin; ABk, berriz, *ofe* du beti.
- ofestálgi** *iz.* Ohearen estalkitako jartzen dena (*sobreccama* gaztelaniaz). Ikus **estálgi**, **le-jór** eta **mahajestálgi**.
- ofízjo** *iz.* Lanbidea.
- ofreítu** *ad.* (du) Gutxi ibiltzen da; askoz ohikoagoa da **eskáini**.
- ógi** *iz.* 1- Ogia, 2- Garia. Cf. Etxaidek (1989: 310) biltzen duen *ogjái* *ehótzja* ‘garia eho-tzea’.
- ogi irin** *iz.* Gari irina. Arotzak darabil (Satrustegi, 1969): «Ogui irina» (134).

**ogibíhi** *iz.* Gari pikorra. Ikus **artopikór**.  
**ogikóxo** *iz.* Ogi kozkorra. Ikus **kóxo**.  
**oháko** *iz.* Sehaska.  
**oháldu** *ad.* ( da) Katuak eta txakurrak berotu. Ikus **arkáldu**, **iháustu** eta **susáldu**.  
**ohantza** *iz.* Kamaina. Satrustegik biltzen du (1969b: 36).  
**ohára** *iz.* Katu eta txakurraren beroaldia / **ohára izán, egón** *ad.* (da) Katua edo txakurra bero egon: *Gúre gátja ohára úxu*. Ikus **arkára**, **iháusi** eta **susára**.  
**ohártu** *ad.* (da) Konturatu: *Ohártu núxu errobinétai húra eskapatzen zákola*.  
**oháska** *iz.* Oramahaia, ogia oratzeko mahaia, «gran artesa de madera» Barandiaranen hitzetan (Donoztiri, 1974: 21). Satrustegik (1969b: 30, 52) *oaska* ‘artesa’ biltzen du Luzaiden eta Izetak (1996: 143) *oramai* Baztanen.  
**ohaska karrakatzeko** *iz.* Satrustegiren arabera (1969b: 52) ohaskan itsatsita gelditu diren hondarrak biltzeko ibiltzen den burdinazko tresna (*rasqueta*) da *oaska karrakatzekua*.  
**ohátu** *ad.* (da) Ohean luzaz egon (eri edo). Cf. Narbaitzen hau (1999: 27): «Lauetan hogoi urte hurbil ditu ene senarraren amak...eta lau urte huntan kasik ohatua: haur bat gehiago etxean».  
**ohíki** (< *ohit(u)* + *-ki*) *adond.* Faltarik gabe, oroiki: *Xáxi ohíki Donjáneko matadéroat*. B. Etxeparek (1980 [1545]) *orhituki* darabil adiera honekin edo antzekoarekin: «Goiz etarrats orhituki haren izena laudatu» (14), «eta noren izenetan fundatu den eliza / Orhituki othoi egin, dakizkian balia» (20), «orhituki igandian behar dugu pensatu» (26). Oinarria *orhit* da (ibid., 129): «Nor da gizon modorroa harzaz orhit eztena / eta gero halakoa gaitz erraiten duiena?». Ikus **sinfált**.  
**ohíntza** *iz.* Ohointza, ebasgoa. Cf. **ohóin**.  
**ohítu, ohít izán** *ad.* (da) Oroitu. Bernat Etxeparekoak *orhit izan* darabil. Ikus **ohíki**. *Orhitu* (12) eta *orhit adi* (14), *daten orhit* (20) ere erabiltzen ditu aipatu idazleak (1980 [1545]). ABk ere ibiltzen ditu antzeko egiturak: «Ez ninduxun bate ohit Frantzian sortia zela. Xu ere arras untsa ateraia ziuzte (sic) [h]oja hartan». MAK *oroitu* eta *oroit izan* ere badarabiltza.

**ohitzapén** *iz.* 1- Oroitzapena, 2- Oroikarria. ABk ‘goraintzi’ adierarekin ere ibiltzen zuten: «Anitz eskermila igorri dazkiatxun ohitzapenez; errain daixut denak untza girela memento huntan».  
**óhju, óju** *iz.* Oihua. Era mugatuan *óhja* aditzen da / **ojwín** *ad.* (du) Oihu egin.  
**óhju, óju patárraka aizán; óhju, óju zapárraka aizán** *ad.* (da) Garrasika ari izan / **ohjúka, ojúka aizán** *ad.* (da) Oihuka ari izan.  
**ohóildu** *ad.* (du) Barreiatu: *Zakúrrak óllo gúzjak ohóildu txí*. Barbierrek (1926: 19, 25) adiera horrekin berarekin ibiltzen du *ohildu*, nahiz eta 1992ko argitalpenaren prestatzaileak ez duen ongi konprenitu. Honela dio: «Ezinbertzean ohilduko zaizte beraz, eta ihesari emanen, Otsans-behereko Madalenerat gero atheratzeko», «Piarres, arrats hartan berean, Donianen gaindi itzuli zen etxera. Haren lagunak, zoin bere alde, joanak ziren hek ere, bertze balentria bat arte zuhurki ohilduak». Manezaundik (Irigarai, 1958: 89-90) ‘bota’, ‘bidali’ adieraz ibiltzen du: «...zer gudu izigarriak izan dituzten beren artean, egundainoko herrakundeaz inarrosiak, saraski gorrienean odolztatua, frantses arrotzak ohildu nahiz *Nabarr-iria* auzotik, hok bizi zirelarik jaun done Satordi elizaren inguruan».  
**ohóin** *iz.* Lapurra. *Kásu horrékin, ohóin háundi bát baitá*. B. Etxeparek (1980 [1545]: 28) *Ohoineki* ‘lapurrekin’ darabil. Ikus **ebastále** eta **ohíntza**.  
**ohól** *iz.* Ohola, teiltatuan ezartzen zirenak, teilen partez. Ikus **láta**, **láuza** eta **téila**. Luzaideko arotzak *oola* darabil, ez baitu <h> sekulan izkiriatzen (Satrustegi, 1969): «Besinec oolac einic 550 ei(n)ta paratia» ‘Bexinek (*Bexinénja*-ko nagusiak) oholak eginik, 550, egin eta paratua(k)».  
**oholketa** *adond.* Ohol bila (joatea). Luzaideko arotzaren liburuan «amar asto oolqueta», «lau peon oolqueta» ageri dira (Satrustegi, 1969: 163). Ikus **tablonketa**, **taulonketa**.  
**ohorátu** *ad.* (du). Cf. MAren hau: «Ikusten dixiu Dn Jose Marire anitz ari dela lanian, eta Luzaiden ohoratzen, Azoletare aipatuz».  
**ohóre** *iz.* Ohorea. Cf. **desóre**.

**ohóts** *izond.* Aratxeetan arra ( $\neq$  **urríxa**). Ikus **ordóts**.

**óixo**, **óizu**. Orizu, tori (xuka, zuka). Toka mintzatean **tó** erraten da eta noka **nó**. Satrustegik (1969b: 40) hau dakar: «Jau-na oizu su zaharra eta ekatzu berria»; hortza erortzen delarik sutara bota eta «oizu zaharra eta ekatzu berria» erraten da (ibid.).

**ojál** *iz.* Oihala. Luzaideko eskutizetan *ohial* agertzen da: «Ohialen xuritzea. X-k eta Y-k hila atea zelaik biak gelditu zitxun eta ohial zikin guzien saka batzuta bilduik utzi zitxien» (MA).

**oján** *iz.* Basoa, oihana. Luzaideko gutunetan *ohian* ere ageri da: «X kontent duxu ba, eneatia zuxun ba, beti ohianian bere motosierraikin» (MA).

**ojantzáin** *iz.* Herriko mutila, albintea. Ikus **hérriko mutíl**.

**ojártzun** *iz.* Oihartzuna.

**okasjone** *iz.* Aukera: *Bajónan izán ginélaik okasjone izán ginín presént pollít báten erósteke*.

**okaztagárrri** *izond.* Nazkagarria: *Zé denbóra okaztagárrja, bétí éurja!*

**okaztátu** *ad.* (da) Nazkatu: *Okaztátu níz zuré erokérjez*.

**Okaztrán** *iz.* Gainekoletako *Okaztránja* (*Orkaztaran* dago oinarrian) etxeko nagusia eskuarki, baina ez beti; **Okaztranésa** *iz.* *Okaztránja*-ko etxekoandrea.

**okér** 1- *izond.* Begibakarra, 2- *iz.* Korroka: *Uz-kérra báno makúrro okérra / okerrín ad.* (du) Korrok egin: *Etzaxúla okérrik ín, zikína aláin zikína!*

**okérka aizán**, **hási** *ad.* (da) Korroka(ka) ari izan, hasi: *Zerbéza edán óndwan okérka hási nintzán*.

**okítu** *izond.* Arrunt, erabat: *Gizón hóri zahár okítja duxu; hórjek aberáts okítjak txú, sósez iháurtjak txú*.

**okupátu** *ad.* (da) Arduratu, kezkatu (kezka txikia denean): *Enúxu báte okupátja hórtaz 'ez nago batere kezkatua horrekin'*.

**okupazjone** *iz.* Eginbidea, eginbeharra edo; gaztelaniako *ocupación* eta frantseseko *occupation* bera da.

**okurrítu** *ad.* (da) Bururatu. Ikus **buutátu** eta **gootátu**.

**óligo** *iz.* Olioa.

**oljadúra** *iz.* Oliadura, hiltzeko zorian daudenek hartzen duten sakramentua / **oljadúra emán**, **hártu** *ad.* (du). Cf. MAren hau: «X-re egon duxu biziki eri, Elizakuak, Oliadurak eta oro hartuik. Orai iduri pollikiño dela, bana biotza eri dila biziki, *una lesión* erran diexu medikiak». (MA).

**olláki** *iz.* Oilo haragia.

**ollánda** *iz.* Oilanda: *Ólo txárra bétí ollánda* (esam.).

**ollár** *iz.* Oilarra.

**ollásko** *iz.* Oilaskoa.

**ollaskóki** *iz.* Oilasko haragia. Hitz hau erabiltzen da, baina normalagoa da *olláskwa ján dút* erratea *ollaskókja ján dút* baino.

**ollatéi** *iz.* Oilategia.

**óilo** *iz.* Oiloa.

**ólo** *iz.* Oloa, labore baten izena: *Mándo hílai púrtik ólwa* 'mando hilari ipurditik oloa', 'hil eta gero salda bero' (esam.).

**ómen** Aditzekin ibiltzen den partikula: *Behánt jín ómentzén*. Honen antzekoa da **izán behár izán** duen itzulia: «Pena haundia dixi Donianeko ttantaz; biziki eri egon gabe juan izan behaxi» (MA) 'oso gaixorik egon gabe hil omen da'. Honelakoak ahurtaka ageri dira Perurenaren *Leitzako errege erreginak* liburuan, leitzarren ahotan. Cf. MAren beste pasarteño hauek, non *omen* eta *bait-* batean ageri baitira: «Giltxurrinetik operatu dutela, bana gaurko esperantxa zixien, bihar behar omen baitute xerria hil», «...eta denak ezteietan omen baitzien eta ene berriak Kattalinek emanak».

**omjasáindu**, **omiñasáindure** *iz.* Domu Santuru eguna, Santu guztien eguna. Cf. MAren pasarteño hauek: «Aurten jinen xirea Omia Sainduz?», «Omia Saindutan ez baxira jiten ahal egon trankil, nik ezarriko tixit ilarrian liliak, nekez ibiltzeko ez baitu balio jítia», «Omia Saindure pasatu zuxun untsa; ezarri nitxin xure tonban liliak beti bezala». ABk *Kominiasaindure eguna* du: «Kominiasaindure egunian bazia[u]dixun xure kus bea. Borderresak galdein ziaxun era jin xinen eta beste atzuke ba; bestaldi bat izain duxu!».

**ondagarri**. Satrustegik (1963-64: 275) biltzen du eta 'ruinoso' adiera ematen.

**ónddo** *iz.* Onddoa / **onddobéltx** *iz.* Onddo mota bat.

**Ónddo** *iz.* Gainekoletako *Onddóinja*-ko nagusia normalki, baina etxeko beste norbait ere izan daiteke.

**onddoálde** *iz.* Onddo multzo handia.

**onddóketa ibíli, jwán** *ad.* (da) Onddo xerka ibili, joan: *Átzo áro háuta ginín onddóketa jwáiteko.*

**óndo** *iz.* 1- Aldamena: *Áma bėti éne óndwan izán nixin; Arnéiko óndo hórjetan badíra patár háundi bátzu.* Ikus **pár**, 2- Gibelegoa, atzekoa, hurrengoa: *Ondóko ástjan jínenuxu betíko tenórjan; kárrí dún xakúr ttípi hóri bėti éne ondótik ibíltzen dúxu / óndo-óndoko, óndo-óndora, óndo-óndwat, óndo-óndotik, óndo-óndwan: Basúrde batén óndo-óndwan egón gíntxun / ondua ekarri* *ad.* (du) Ondorio ekarri. MAK darabil, behin: «X-n hiltziak ondua ekarri dixi; batek beti iduri ixilik egon behar dila, bana ez, azkenekoz batek berak ez dakila gaina hartzen diakoxute». ABk, berriz, *ekarri* darabil adiera horrekin edo antzeko batekin.

**ondóko ín** *ad.* (du) Norbait oinordeko egin. Barandiaranek (1974: 34) *ondokoin* ‘hijo adoptivo’ bildu zuen Donoztírin. Cf. MAREN pasarteño hau: «Bera hemen delaik ustu dixie etxia eta nexkain etxeat Iruleirat juan tuxu, ondoko iten duztela (...)».

**ondórjo** *iz.* Ondorena / **ondorio ekarri** *ad.* (du) MAK darabil: «Aurten iten dixie untsa, kabala mota guziak, eta ja beste alderdian bano kario hemen berian. Ez baitakiu zer ondorio ekarriko din hunek, beti gauzak goiti. Hemen ez dixie ez ahatxek hor bezanbat iten ohono». Idazle honek berak *ondua karri* dakar, adiera berarekin. Ikus goitxeago / **-ren ondórjoz** *adlag.* *Zérri zikín hórrek uzkérin dú éta étxe gúzja urrín-du dá háren ondórjoz.*

**ondósta** *iz.* Lur lantze mota bat: *Lehénik jórra iten dúxu tá géro ondósta; mekaníka pás-ten dúxu tá lúrta bí alderdjétá baztértzen dúxu, tá hóri dúxu ondósta. Ártwaikín tá lusárraikín hásteko iten dúxu / ondóstán aizán* *ad.* (da).

**ondostátu** *ad.* (du) Ondosta egin. Ikus **ondósta**. **oneski.** Luzaideko eskutitzetan ageri da, ‘ongi jantziak’ edo adierazteko: «Etzeiake untsa

pasatu ziela erran dixie eta biziki oneski ziela denak» (AB).

**óno, ónore** *adond.* Oraino, oraindik, oraino ere, oraindik ere. Harridurako perpausetan ere erabiltzen da. Cf.: «Hemengo medikiak ereman [t]zixin Iruñeat; plastrin zarri ziakokuxuten, eta ono hortan delaik!» (AB). B. Etxeparek (1980 [1545]: 6) *orano* darabil eta badirudi Luzaideko aldaeraren jatorria hor bilatu behar dugula, ez *oraino*-n. Herri honetako MAREN letretan, ardura, *ohono* ageri da; ABk, berriz, beti *ono* laburtua darabil.

**operátu** *ad.* (da-du). Ebakuntza bat egin: *Éne lanéko laún bát bihótzetik operátu beaute.*

**operazjóné** *iz.* 1- Ebakuntza, 2- Negozioa edo: *Eztját éne sós gúzja operazjóné hórtañ irriskátu náí, balekibále / operazjóné át ín* *ad.* (du) Operazio bat egin: *Operazjóné át háundja íntzjakoxotén bihótzjan.*

**opíl** *iz.* Opila. Satrustegik *opil txabala* ere jasotzen du (1969b: 53). Ikus **arto opil** eta **ésneopíl**.

**orái, wái** *adond.* Une honetan, orain: *Orái oráiko gísa.* Cf. *géro géroko gísa / orái bérjan, wái bérjan* *adond.* Oraintxe / **oraiko ustez** ‘oraingoz’, gaztelaniako ‘en principio’ bera: «Orai emain dauxut beste berri bat, X-in letra izan dixit, emanez berria uztaillian bisitatu gituztela, oraiko ustez hamasei aire hartan jinen diela» (AB), «oraiko ustez jinen nuxu heldu den asteazkenian, heldu baita 9<sup>or</sup>, xuk erran bezala Montañesian» (MA).

**órdago** *iz.* Hordagoa, musean erabiltzen den hitza / **órdago jó** *ad.* (du): *Bi batéko zítxin tá órdago jó zítxin háundira.*

**órdjan** *adlag.* Une hartan, orduan: *Jwanés órdjan kúsi nixin karríkan.* Irudi duenez honen jatorria B. Etxeparek darabilen *orduan* forman (1980 [1545]: 30) bilatu beharra da.

**ordóts** *izond.* Zerrikumeetan arra (≠ **urríxa** ‘emea’). Ikus **akétx** eta **ohóts**.

**órdu** *iz.* Ordua, tenorea. Bakarrrik honelakoe-tan ibiltzen da: *Ba(h)in órdu jíteko!* ‘Bahuen etortzeko tenorea’, *Gúre mutíko húnék etxí bate lánik íten. Alá, érna órdu lukéxu.* Ikus **orén** eta **tenóre**.

**ordúko** *adond.* Orduko, une, sasoi, denbora hartako: *Ní arribátu ordúko belárrak sár-tjak zítxjen bórdan; ordúko fábrica hártan áí zén lánjan.*

**orén** *iz.* Ordua: *Zónbatónatirá?* ‘zer ordu da?’, *orén báta*, *orén báta púndu-púndjan*, *biónak*, *hirwónak*, *lawónak*, *bostónak*, *sejónak*, *zazpjónak*, *zortzjónak*, *beatzjónak*, *hamarrónak*, *hamekónak*, *hamabjónak*, *orén bát éta érdja*, *biák éta érdja*, *hírwak éta érdja*, *láwwak éta érdja*, *bóstak éta érdja*, *séjak éta érdja*, *orén bát éta hámar*, *orén bát hamár gúiti díra*, *bíziki orén txárrak pástu txít híre béa* / *Nóiz jinen zizté?* *Orén batján*, *bióntan*, *hirwóntan*, *lawóntan*, *bostóntan*, *sejóntan*, *egwérditan*, *orén bát éta érditan*, *bják éta érditan*, *hírwak éta érditan*, *bóstak éta érditan*, *orén bát éta laurdénetan*, *bják éta laurdénetan*, *hírwak éta laurdénetan*, *orén bát éta hamárretan*, *bják éta hamárretan*, *orén bát hamár gúititan*, *bják hamár gúititan*, *hírwak láurden gúititan*, *bják púndu-púndjan*, *seióntan xúxen jwáiníz zúre étxeat* / *Nóizko jinen iz?* *Orén batekó*, *bióntako*, *hirwóntako*, *lawóntako*, *bostóntako*, *bostóntako xúxen záurte húnat*. Gutunetan *oren* forma osoa kausitzen dugu: *Bi orenak*, *hiru orenetan*, *9 orenetako*...e.a. Ikus **púndu** eta **xúxen**.

**orénka** *adlag.* Orduka: *Orénka paátzen djáuxute botíga hórtan*.

**órga** *iz.* Gurdia. Luzaideko arotzaren kontuetan (Satrustegi, 1969: 157) «carruai bi burdina» dugu, *carrua* alegia. Etxaidek ere *kárrua* bildu zuen; guk, *ordea*, beti *órga* aditu dugu.

**orga arrasta** *iz.* Gurdi galga. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969): «Orga arrasta burdina bat eracachi» (206), «orga arrasta burdina eracachiric» (221). Ikus **arrásta**.

**orga kabila** *iz.* Gurdi tornua. Luzaideko arotzak darabil: «Bi orga cabila einic» (Satrustegi, 1969: 183). Ikus **kabila** eta **orga sorroila**.

**orga lardai** *iz.* Ikus **lardai**.

**orga natx** *iz.* Ikus **natx mutur**.

**orga sorroila** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 156): «Bi orga sorroila». Arruzuko euskaltzainak dio (284) gurdia-  
ren sokak tenkatzeko tornua dela. Ikus **orga kabila** eta **sorroila**.

**orgáno** *iz.* Elizako organoa. ABk *organa* darabil (frantseseko *organe*-tik).

**orgátra** *iz.* Gurdikada: *Kárrí ginín orgátrat belár*.

**óro** *zenb.* Biziki guti ibiltzen da: *Gizónak óro jín dirá*; *harrápatjak óro jan tík*. Arrunk **dénak** erraten da; ikus, orobat, **gúzi**. Cf. MAREN hauek: «Orai ja pasatu dira oro, baititu ba apez arras planttakuak, jinkuari eskerrak», «lehenik gripa zar horrekin oro batian atzemanak izan gitxu». Erranairua bada: *Oro ján, óro áse (zéin ún-tsa)! Otórdu bátjan déna játen délaik ta dénak asétzen djélaik erráiten dá* / **oro-tan** *adlag.* Denetan: «X-re marranta arrapatuik, ohono ez dila ezteilik, hartu tixi injekzioniak; juan den ertziane arinkio pasatu zila. Orotan zerbait ba, eta negia beltza» (MA) / **orotaf** *adlag.* Denera: «Hammar bat ardi orotat juan duxu, lehen Frantzian juaiten zien bezala» (MA). Ikus **denéta**, **déna** sarreran eta **total**.

**orrátz** *iz.* Orratza.

**orráxe** *iz.* Orrazia.

**orraxtátu** *ad.* (da-du) Orraztu: *Góizjan jeikítzjan dutxátu*, *bílwa xukátu éta géro orraxtátzeníz*.

**orrjatar** *iz.* eta *izond.* Orreagakoa. Cf., oinarraren formari doakionez, Luzaideko arotzaren kontu liburuko «orriaco bi aizur», «orriaco ostatian» (Satrustegi, 1969: 146 eta 177).

**órrwa** *iz.* Marrua, behiak egiten duen soinua / **órrwa ín** *ad.* (du) Marru egin: *Gúre béhi mañotárrak alímaleko órrwak ítentzítin érosi bérrjan*.

**órrwaka aizán** *ad.* (da) Marruka ari izan: *Bé-hjak órrwaka ái txú bórda bárrjan*.

**ortótzik** *adond.* Oinutsik. Etxaidek (1989: 255) *ortóxi*<sup>k</sup> bildu zuen; Satrustegik ere (1969b: 189) *ortoxik* dakar.

**ortzántz** *iz.* Ostotsa: «Egun izigarriko denbora (t)xarra dixiu, euri eta hortzantz tirala goiz guzia» (MA).

**ortzántz erauntsi** *iz.* Ekaitza. Cf. pasarteño hau: «Egun atsaldian in diauxu ortzantz erauntsi haundi bat, harri puskate ba» (MA). Ikus **erauntsi**.

**ortzántz karráska** *iz.* Ostots handia. Ikus **ihortzíri karráska**.

**ortzánzka aizán, hási** *ad.* (du) Ihurtzurika, ostoska ari izan, hasi: *Óstjan idúri zúxin ortzánzka hási behártzila, bána pástu íxi gejóko aférai(k) gábe*.

**ortzánztu** *ad.* (du) Ortosketa izan: *Ortzánztu beháxi* 'ortzantzta eginen du', *kasú ez óte dín ortzánztuko!*

**ortzeún** *iz.* Osteguna. Etxaidek (1989) *ortzeúna* bildu zuen; ABk beti *ortzeun* idazten du / **Ortzeún Sáindu** *iz.* Ostegun Santua. MAK *Ortzeun Saindu* du: «Ortzeun Saindu egunian ereman zixin Pedroi hemen berian 11 axuri».

**ortzjále** *iz.* Ostirala. ABk *ortziraile* ibiltzen du beti; MAK *ortziale* ohi du arruntean eta *ortzirale* behin. Etxaidek (1989) *ortziralja* bildu zuen, dardarkari ahulaz / **Ortzjále Sáindu** *iz.* Ostiral Santua. MAK «Ortzirale Sainduz elizan zuxun» dakar. Satrustegik dio (1969b: 87) senar-emazteak etxeko zaharrekin ongi konpontzen ez direnean elkarren arteko gauzak ere ez direla biziki ongi joaten, eta «aste bakoitzian izain dixie ortziral bat» erraten dela holakoetan.

**órwat** *adond.* Menturaz: *Órwat Pjárres jínen dá.* Ikus **ágjan** eta **mentúraz**.

**-ós** *atzi.* Izenondo mailegatuetan kausitzen dugu: *Komodós, lanjerós, malurós, nerbjós, satísfós, serjós, urós.*

**osagarri, osaárri, osárri** *iz.* Osasuna. B. Etxeparek *osagarri* izkiriatzen du (1980 [1545]: 4). Cf. MAren hau: «Arren heldu nitzauzu urte berri hun baten desiratzera, osagarri hun batekin eta Jinko hunaren laguntza haundi batekin eginbide guzieren behar bezala betetzeko».

**oséba** *iz.* Osaba. Ikus **óto**.

**oso** *izond.* Osoa, guzia: *Sukárra nín éta égun óswa ófjan egóna níz.* Ez da mailakatzailertzat ibiltzen; honen ordainetan **arrás, bizíki** edo **izígarrri** ibiltzen dira.

**ospitale** *iz.* Ospitalea, erietxea.

**ostáila** *iz.* Adar puska bere hostoekin. Azalpen gehiagotarako Arnegiko berriemaileak dioena ikus daiteke, Euskaltzaindiak egindako grabazioetan (1999: 143-144).

**ostáler** *iz.* Tabernaria (gizona). Cf., etorkia dela eta, biarnes-gaskoiko *oustalè* / **ostalértsa** *iz.* Tabernaria (emakumea). Satrustegik (1969b: 97) *ostalersa* bildu zuen.

**ostátu** *iz.* Taberna.

**ostíko** *iz.* 1- Putarra, uztarra, 2- Gaztelaniako *contrafuerte*.

**ostíkoka aizán, hási, ibili** *ad.* (da) Ostíkoak ematen ari izan, hasi, ibili.

**óstja** *interj.* Sakrea da: *Zé óstja ái zizté hór?; Óstja!, zé káska hártután káskwan!* Erraten dutenez bazen *órtja* erraten zuen norbait, segur aski eufemismo moduan, biraoetan-eta egiten den bezala, hitzari indarra kentzeko, edo nolabait ezkutatzeko.

**óstjan** *adond.* Arestian, lehen / **ostéko** *izlag.* Arestikoa: *Ostéko gizón húra éne lehénkusja zján; óstjan ái zxin langárta frángo lárriki.*

**óte** 1- Galderazko partikula: *Ba óte?* '¿de veras?'; ikus **ba óte**, 2- *iz.* Otea, lore horiak dituen landare ziztaduna.

**óto** *iz.* Autoa (frantsesezko *auto*-tik; azentua-keta, dena dela, ez da frantsesarena; cf. **déja**). **Áuto** ere erabiltzen da.

**otói** *interj.* Mesedez / **otói-otói!** (aldaera indartua).

**otóitz** *iz.* Otoitza / **otóitzin** *ad.* (du) Otoitz egin / **otóitzjan aizán** *ad.* (da) Otoitzean ari izan.

**otoiztu** *ad.* (du) Mesedez eskatu, galdegina: «...eta etziztu sekula ahazten ene komini- one onduan iten dutan sakramendu sainduaren bisitan, eta otoitzen zitut zu ere gutaz oroitz ziten» (MA).

**otórdu** *iz.* Oturuntza. Ikus **apáiru**.

**óto** *iz.* Otsoa / **ótswain búrja sálu béste gúzja izán** *ad.* (da) (esam.) 'denetarik izan': *Hán bazúxun ótswain búrja sálu béste gúzjak* (sic). Larek (2001: 219) ere badarabil, aditza pluralean ezarriaz: «Bazen, huntan ere, bigarren ganbara bainan ez hutsa batere: gazte horien guzieren tresneriaz beteagoiten zen, musika, teatro, pilota, balona, bakantze-tako ateraldietako ta beste mila jostagailu, liburuki eta orotan baliatzen zirenak. Hots, otsoaren burua salbu, denak baziren han».

**óto** *iz.* Osaba. Ikus **oséba** eta **ttántta**.

**otxáil** *iz.* Otsaila. Etxaidek (1989: 56) *otxaila* bildu zuen. ABk ere *otxail* erabiltzen du; MAK, berriz, zalantzako kasu batez beste guztietan, *otsail* du.

**ozítu** *ad.* (da) Hozitu, ernamundu: *Lusárrak ozítzen hásjak túk* (= *lusárrak pízten hásjak túk*). Ikus **píztu**.

**ozpín** *iz.* Ozpina.

**ozpíndu** *ad.* (da) Ozpín bihurtu: *ánwa ozpíndúxu* (≠ *ánwa píztu úxu*). **Píztu** mintzen hastea da; **ozpíndu** berriz erabat mintzea.



## P

**pá** *iz.* Musua, haurrekiko hizkeran / **pá emán** *ad.* (du) Musu eman, haurrekilako solasean: *Emáxu pá.*

**paaménu** *iz.* Ordainketa. MAk *pahamendia* darabil.

**paarlesia, paarlesia kolpe** *iz.* Perlesia (frantseseko *paralysie*-tik), perlesia kolpea. Cf. MAren hauek: «X-re paarlesia kolpe bat izanik duxu», «buruilain undarrian paarlesia kolpeat izanik ezkerreko besuan, ilaiteat Pauben pasatuik jina etxeat, medikiek erraiten dakotela sendatuko dela untsa, bana luze izain dela» (MA). Ikus **kólpe** eta **perlésja**.

**paátu** *ad.* (du) Ordaindu. Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969) usaian *paratu* erabiltzen du, baina zenbait aldiz *baratu* ere bai. Azken honetaz, Satrustegik (ibid., 273) ‘quedar pendiente’ dela dio, hain segur ere Luzaidean **barátu**-k, egun, ‘gelditu’ adiera duelako. Testuinguruak, halarik ere, eta nahiz arrunt garbia ez den, *baratu* eta *paratu* bata bestearen aldaerak direla pentsarazten digu. MAk *pahatu* ibiltzen du: «Axuriak erran bezala saldu gintxin denak, etxetik beretik, bazkak pahatu axuritaik eta 30 axuri aitzinako».

**paátxa** *iz.* Pago ezkurra, pagatxa.

**paatzále** *iz.* eta *izond.* Ordaintzailea. MAk *pahatzale* darabil: «Beti segitzen merke badira eta kario bada eta pahatzale seurra».

**padéra** *iz.* Gaztainak erretzeko tresna. Arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969): «Padera berri bat» (155), «padera bat buruberritric» (158).

**padéra gidér** *iz.* Paderaren giderra, kirtena. Luzaideko arotzaren kontu liburuan ere agertzen da (Satrustegi, 1969): «Padera

guider bat arriñaturic» (139), «padera guider berri bat» (165).

**paéta** *iz.* Paretá: *Lurrikárjaikin etxéko paétat arráildu zjáuxu*. Cf. gutunetako pasarteño hau: «X gaitzeko obran ari uxu gaineko pisan; denak, paeta guziak, karrakatuik, artemurru guziak botaik, denak adailiekin in omen txi eta zoladurak plastratu» (AB).

**págo** *iz.* Pagoa.

**País, París** *iz.* Azoletan den *Paisja*-ko nagusia;

**Paisésa** *iz.* *Paisja*-ko etxekoandrea.

**paisóla** *iz.* Euritakoa.

**pakéta** *iz.* Paketea (frantseseko *paquet*-etik): *Pakéat tabáko eróstea átea zúxun tá enín géjo ikúsi* / **pakétta** *iz.* Pakete txikia: «Joaquinaire eman diazkotxut goraintziak; arrangura duxu paketta izan xinín» (MA).

**pála** *iz.* 1- Igeltsero tresna. Cf. Luzaideko arotzaren etsenplu hauek (Satrustegi, 1969: 154, 167): «Pala bat lotu», «pala bat guide-rra loturic», 2- Edozein tresnaren zurezko osagai laua, zapala, 3- Pilotarekin aritzeko kirol tresna.

**palánga** *iz.* Palanka. Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 149, 151): «Palanga bat, burdin ziri bat caldatu», «palanga bat chorrosturic».

**palangeta** *iz.* Palanka txikia. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 139, 141, 156): «Palanguetac chorrosturic», «palangueta puntac», «lau palangueta berri einic».

**palátra** *iz.* Palakada: *Hárrak palátrat aríña* ‘har ezak palakada bat harea’.

**palíza** *iz.* 1- Leherraldia: *Zé palíza hartután belár sártzen égun*, 2- Zanpaldia, zafraldia: *Samáru zjén tá bátek béstjai alímaleko palíza emántzákon*. Ikus **leherráldi**, **pasal-di**, **zafráldi** eta **zanpáldi**.

**pálóte** *iz.* Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969). Arruazukoak ez du adiera zein den azaltzen; *OEH*-n ‘paleta, llana de albañil’ dela erraten da, nahiz bi gauza desberdin diren *paleta* eta *llana*. Arotzarenean behin ageri da: «Palote berri bat» (169).

**pálto** *iz.* Gizonen berokia, jaka (cf. frantseseko *manteau*): *Pálto háu hotzáindako erósi út*. Ikus **mánto**.

**panadéro** *iz.* Okina (espainoleko *panadero*-tik). Ikus **bulanjér**.

**panpátu** *ad.* (du) Jo, ipurdian eman. **Zanpátu** bera da, baina haur hizkeran: *Panpátuko xítut gèldik egóiten ezpaxíra*.

**pantalón** *iz.* Galtzak, prakak (espainoleko *pantalones*-etik edo frantseseko *pantalons*-etik). Eskuarki pluralean ibiltzen da: *Alajínkwa!*, *zé ajúta emántzakón erríntak pantalónetan kakín zílaik!*; *Bartzelóna, Tarragóna, púrti(k) zílo pantalóna!*

**pantxéta** *iz.* Hesteki mota bat. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 148) *phantxeta* ‘farcí fait avec des boyaux d’agneaux bien nettoyés’ dakar; Barandiaranek (1974: 30) *plantxeta* ‘ardiaren tripekin eta birikekin egiten den hestekia; típula eta piperra ere ematen zaizkio’ biltzen du.

**pantzóil** *iz.* Zerriaren urdaila. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 148) *phanzóil* ‘estomac des animaux’ dakar. Armendaritzen *phantzoila* ‘sabel handia’ da, Caminok (2004b: 456) dioenez.

**papér** *iz.* Papera (*papér* era mugatuan. Biarnes-gaskoiko *papè*-tik beharbada) / **papér bústi bezála izán** *ad.* (da) Biziki delikatua izan. Cf. «X-e berrize marranta, paper bustia bezala uxu» (MA). Ikus **delikátu**.

**papillóta** *iz.* Tximeleta (biarnes-gaskoiko *papillote*-tik). Bonapartek (1881: 163) *Yinkoain ollo* biltzen du; egun normalena izenburuko aldaera bada ere, baliteke Bonapartek jasotzen duena ere bizirik egotea. Ikus **jínkwain óllo**.

**pápo** *iz.* Paparra.

**papogórri** *iz.* 1- Txantxangorria, 2- Mezara urtean behin-edo joaten zirenak.

**pár** *iz.* Aldamena, ondoa: a) absolutiboarekin: *Xúre étxe párrortán baúxu xarmánte*

*ri bát*, b) leku genitiboarekin: *Arnéiko párrjan badíra patár háundi bátzu*, c) jabe genitiboarekin: *Gúre étxjain párrjan badá bihurgúne háundi bát*. Ikus **óndo**.

**paraísu** *iz.* Paradiua. Bonapartek (1881: 163) *parabisu* biltzen du.

**páre** *iz.* Bikoa. Cf. letretako pasarte hau: «Behi pare atekin zezenetik heldu zelaik behiak izitu eta lurreat bota eta gainetik pasatu behiak, eta zanguan hexur bat hautsi» (AB) / **paréño** *iz.* Pare txipi bat.

**parga** *iz.* Arotzaren liburuan agertzen da (Satrustegi, 1969: 202): «Parga bat alzairatu». Ez dakigu adiera zein den.

**parispunta, paispunta** *iz.* Satrustegik, arotzaren kontu liburuko hiztegia aztertzean, zazpi bat zentrimetroko iltzea dela dio, teilatuetan ibiltzen dena (1969: 281). Aipatu liburuan lekuko hauek ditugu: «Paris puntac» (135), «paispuncac donibanetic paqueta bat» (170), «paqueta bat paris punta», «parispuncac paqueta ba» (252).

**partadéra** *iz.* Gontzetik ateratzen den eta ateari lotzen zaion burdinazko zatia. Luzaideko arotzak ere bazerabilen: «Borda bortaco partadera pare bat aundiac», «bi partadera borda bortaco, pizu 11», «partadera andi bat berria» (Satrustegi, 1969: 145, 146). Ikus **góntz**.

**párte ín** *ad.* (du) Erdibitu: *Bí párt*e íntxaxú makíl hóri ‘erditik egin ezaxu makila hori’ / **-en partez** ‘-en partez, -en partetik’: ...*tá errákoxo ené partéz behála héldu nízála étxeat*. Cf. MAren hauek: «Milaka goraintziak D<sup>o</sup> Jose Marii gure partez eta besarkatzen xituz Ximonen eta ene partez», «erran diaxu goraintziak erraiteko haren partez» / **-teko pártez adlag.** ‘(aditz partizipioa) beharrean, beharbidean’, ‘-teko ordez’: *Hóri erráuteko partéz ixilík geldítu zén* ‘hori erran beharrean isilik gelditu zen’, *étxeat jwáiteko partéz sártu ginén ostátjan, edárja úzteko partéz lehén báno géjo edátén dú*.

**partída** *iz.* Etsaia, aurkaria / **partída izan** *ad.* (du) Etsaia izan, gogokoa ez izan: *Hórrek lána íxi partída* ‘horrek ez du lana sobera maite’; datiboa eskatzen du zenbait aldiz: «Lehene ezagutia dixit denbora gaixto hotan; hotzer partída dixi ene minak» (MA).

**partikulázki** *adond*. Batez ere, bereziki: *Frúíta gustátzen zják ánitx, partikulázki ahána*. MAk *partikulazki*-rekin batean *partikularzki* aldaera osoagoa ere ibiltzen du: «Ni jinezkióz euria dixiu, eta atzo eta egun partikularzki biziki denbora (t)xarra eta gainian elurra».

**partítu** *ad*. (da) Abiatu (biarnes-gaskoiko *parti*-tik edo frantseseko *partir*-etik): *Bíhar góizjan góizik partítuko gítxu Irúñeat*. Cf. Intzak (1974: 161) biltzen duen errainuru hau: «Yondoni Marti, prest dena, parti!». Ikus **abjátú**.

**pártz** *iz*. Zorriak erruten duen arrautza: *Pártza bezála mjátu dikíxi* ‘partza harrapatzeko bezala miatu izanen du’.

**pása** *iz*. Luze, pilota jokoan erabiltzen den hitza.

**pasáldi** *iz*. 1- Gaztelaniako *pasada*-ren baliokidea: *Zé pasáldja hártutén belár hók béro hunékin!*, «errekoxu Don Jose Mari errebitu duala igorri den liburu menderen mendetakuá, istorio pollitekin, aizina dualaik zenbait pasaldi emain dakotala» (AB), 2- gaztelaniako *paliza*-ren adierakidea: Cf. hauek: «Atzo izan nuxu Bidartian; Anastasiak oraire hartu dixi pasaldí bat, bana poliki duxu». Ikus **leherráldi**.

**pasátu, pástu** *ad*. (da-du) 1- Igaro: *Irúñeat jwáitjan Zubíritik pásten dá*, 2- (da) Gertatu: *Zé déurru pástu zén égun hártan? / ménts pástu, urdé ménts pástu izond*. Ments alena. Ikus **ménts**.

**páso** *iz*. Ukabilkada: *Emáin dauzút páso át káskotik béiti*.

**pásoka aizán, hási, ibíli** *ad*. (da) Ukabilka aritu, hasi, ibili: *Bíziki mozkórtu óndwan pásoka hási zitján* ‘arras mozkortu ondoan ukabilka hasi zituan’.

**pastanáda** *iz*. Azenarioa. Ikus **karróta**.

**pastílla** *iz*. Pastilla, pilula.

**patár** *iz*. Malda handia, malda gaiztoa: *Déna patárra úxu Luzáide, belárrjan ártzeko léku xárta*. Ikus **málda**.

**patáska** *iz*. Eztabaida (cf. euskara batuko *gatazka*): *Zé patáska plantátu utén zérri zikín hórjek!* / **patáskan aizán** *ad*. (da) Eztabaidan ari izan, eztabaidatu. Ikus **diskutítu, gérlan aizán** eta **mokóka aizán**.

**patáta** *iz*. Lursagarra; ikus **lusaár, lusár**.

**patítu** *ad*. (du) Ondorioak jasan, ondorioak ordaindu (biarnes-gaskoiko *pati*-tik edo frantseseko *pâtir*-etik): *Wái sobéra edáten baúk géro patítuko úk*. Cf. ABren hau: «Beldur haundia bauxu zeait na[h]skería planta dain. Hobenik ez tutenek patituko [i]xie, gaixuak!» ‘Baduxu beldur handia nahaskeriaren bat izanen ote den. Errurik ez dutenek ordainduko dute’.

**pattár** *iz*. Aguardienta. Satrustegik (1969b: 48) *patxarra* biltzen du.

**páusa** *iz*. Atsedendaldia / **páusat ín, páusa puxkát ín** *ad*. (du) Atsedendaldi(txo)a hartu: *Lánjan segítu báno léhen páusat ín behár dú gúk, zjék nauzjéna ítja áski uzjé*.

**pausáldi** *iz*. Atsedendaldia: *Báuxu bá pausáldi hún batén behárta!*

**páusan egón** *ad*. (da) Egonean egon, deskantsuan egon. Cf. Saint-Pierre «Anxuberro»-ren hau (1998: 10): «Bainan pausuan diren gizonen emanen diote egun handi horri dohakon ohorea».

**pausátu** *ad*. (da) 1- Atsedeen hartu: *Lánjan akítu gíra ánitx éta orái jwáin girá paúsátzea bulttát*, 2- Zendu (biarnes-gaskoiko *pausa*-tik): *Aitátxi lawétánoíta hámar úrtekin pausátu zúxun*; cf. MAren pasarteño hau: «Beraz, gu ere untsa gituxu eta kontent xu ikusik, eta bulttañoat pasatuik. Gaixua Juanita egun pausatu duxu». Ikus **finítu**.

**páuso** *iz*. Maila, harmaila, *escalón* gaztelaniaz. Ikus **máil**.

**pazjéntzja** *iz*. Eroapena, egonarría (gaztelaniako *paciencia*-tik): *Zé pazjéntzja behár dén hirékilan!*

**peatún** *iz*. Postaria. Ikus **pietun**.

**pedói** *iz*. Laharrak-eta mozteko tresna, ‘zarrakamalda’. Cf. Luzaideko arotzaren aipu hauek (Satrustegi, 1969: 216, 249): «Pedoi vida agoyo», «pedoi bat busunsa mozteko bat berria».

**peéstu** *izond*. Prestua, ona, esanekoa: *Ní tí-pjan izígarrí mutíko peéstja níntxun*.

**pegár** *iz*. Botaxa (biarnes-gaskoiz *pegà* gaztelaniako ‘cántaro’ eta ‘botijo’ izan daiteke, eta *pegarre* ‘jarra’): *Éne háur dénboran bagíníxin pegár pollit bát étxjan; húrain atxikítzeko ibíltzen gíníxin*.

**Pejomóxo** *iz.* Karrikako *Pejomoxóinja* (*Mamiténja* lehen, *Marimaiterena*-tik) etxeko nagusia eskuarki, edo bertako norbait; **Pejomoxósa** *iz.* *Pejomoxóinja*-ko etxekoandrea. Etxe izen honen oinarrian *Moxóinja* dago, edo zehazkiago erran, bertan sortu eta *Péjo Móxo* izena zuen norbait.

**pekálde** *iz.* Beheko aldea. *Étxe pekáldjan baíxju bórdá edér bát; zúhjaín pekáldjan atzéman zíxjen alímaleko arráin bát.*

**pekazín** 1- *iz.* Txori mota bat, *bécassin* Salaberriren arabera (1856: 143), 2- *izond.* Ergela.

**péko** (normalean mugatua, *pékwa*), **péko háize**, **péko áize** *iz.* Ipar haizea, behetik, Garazi aldetik heldu den haizea. Ikus **háize**. Gutunetan *norteko haizia* ageri zaigu *peko haize*-rekin batean: «Ze otxail txarra eztu in? Izigarriko haize hotza, norteko haizia, hegua bezain azkar, eta atsetan beti elurra; oraire in berri ixi», «egun biziki egun hotza arixi, gaitzeko lantzurda eta peko haize hotza» (AB).

**péko bórtá** *iz.* Atearen beheko zatia. Luzaideko artotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 174): «Peco bortai partadera gonzequin». Ikus **gáineko bórtá**.

**pekotxetár** *izond.* eta *iz.* Pektotxetakoa.

**pelátu** *ad.* (da) Zipatu, erabat busti, trenpatu: *Orzántz eráuntsi aték harrapátu gíntxin tá arrúnt pelátwik arribátu gíntxun étxeat.* Ikus **trenpátu**.

**pélla** *iz.* Azalorea.

**Pellóinja** *iz.* Ondarrolan den *Pellóinja* etxeko nagusia edo bertako beste norbait; **Pellósa** *iz.* *Pellóinja*-ko etxekoandrea.

**péna** *iz.* Nahigabea, bihozmina / **péna emán** *ad.* (du) *Péna emáiten dáit xakúrrain hóla ikústjak.* Letretan absolutiboarekin eta instrumentalarekin kausitzen dugu: «Untsa pena eman dixi jendeari forma hortan juaitiaz» (AB), «ohono jeizten tixi (ardiak), pena emaiten uztia (sic), denbora fresko baita eztuxu sobera gohora juaiten» (MA) / **péna hártu** *ad.* (du): «Le[he]nbizian pena hartu nixin, bana konprenditzen dixit etzie-la elgarrekin egoiten ahal, zortzi ilaite pasatu utela elgarrekin» (AB) / **péna izán** *ad.* (du): «Untsa pena nixin ez bainintzan juaiteko hun».

**penátu** *ad.* (da) Damutu: *Arneitár hórrek ántxu páre át ebátsi ómentzákon Wárteko artzáin bátí, bána géro úntsa penátu zitzákon, edérki mendekátu baítzén artzáin hóri / penátja izán* *ad.* (da) Nahigabeturik egon. Cf. MAren hau: «Pilartxure kontent dukexu bere haurra untsa juaitiaz, aski penatia zuxun gu izan ginelaik».

**peningárrri** *izond.* Penagarria: *Peningárrja dá ikústia nóla geldítzen ái djén Luzáideko laborári étxjak, dénak hútsik, zahárrak híl tá segídaik éz.*

**pentsakéta** *iz.* Pentsatzea, gogoeta / **pentsaketa in** *ad.* (du) Pentsatu, gogoeta egin: «Aferak ez dualaik (sic) nik nahi bezala, ez sobera pentsaketa iteko» (MA) / **pentsaketa ari izan**, **pentsáketa egón** *ad.* (da) Pentsatzen ari izan. MAk *pentsaketa ari izan* eta *pentsaketa egon* darabiltza: «Pentsaketa ari ninduxun, xuk zor xinan errepostia hala nik ote nin», «beti bezala bezperetat juan ginen eta ez apezik ez bezperaik; ordian pentsaketa egon nintzan elizan apezik gabe zein trixte zen eta otoitz egin nin kartzuki sekulan ez ginten apezik gabe geldi».

**pentsaméndu** *iz.* Pentsamendua. **Pentsáketa** ohikoagoa da.

**pentsátu** *ad.* (du) Pentsatu.

**pentsjóne** *iz.* Pentsionea. *Géro tá zahár géjo badá tá eztakít pentsjónja kobrántuko dún jubilatzen gjélaik.*

**péntze** *iz.* Euntzea, belatsoroa: *Étxe hórrek péntze edérrak eta zelájak tú erréka baztérrjan.*

**péña** *iz.* Haitza (espainoleko *peña*-tik, irudi duenez). *Larrakáizko péñak* (erdaraz *Las peñas de Larrakaitze*). Ikus **arróka**.

**peñon** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) bi isuriko teilatua dela dio, laukoa den *abillon*-i kontrajartzen zaiona.

**peón** *iz.* Peoia. Artotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 163): «Lau peon oolqueeta», «lau peon ool ezarzen».

**peontza** *iz.* Satrustegik (1969b: 97) biltzen du eta dio behin-behineko langilea izateari egiten diola erreferentzia.

**peregrinazjóne** *iz.* Ikus **béila**.

**peréza** *iz.* Nagikeria (espainoleko *pereza*-tik). Ikus **nagitasun**.

**perlésja** *iz.* Buruko infartoa. Ikus **paarlesia**.

**permisjone** *iz.* Ikus **baimén**.

**perreka**. Sakretako ibiltzen da, *pikalapórt* ‘ergela’-ren adierakidetako. Lhanderen arabera (1926: 857) ‘piltzarra’, ‘baliorik ez duena’, ‘ospe txarreko pertsona’ adiera du; hiztegitik honen ustez biarneseko *perreketik* heldu da. Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004).

**perrexil** *iz.* Perrexila.

**pérsu** *iz.* Bertsoa.

**pertsulári** *iz.* Bertsolaria.

**pesámen** *iz.* Doluminak ematea (gaztelaniazko *pésame*-tik; cf. Hegoaldeko hizkera batzuetako *besamena*). Cf. letretako lekukotasun hauek: «Eskerrak xure atenzione guzietz; errezi bitu ixiu xuk igorri letra, pesamena emanez Katalini» (AB), «hemengo berriak nik ez igorri pentsatzen dixit badazkitxula, bi hil izan tula Azoletan, eta xu betiko kunplitia. Ikusi nixin letra pesamenekua; pentsatzen dixit gure nexkek ekarri baitzuten» (MA).

**peškádo** *iz.* **Arráinki** ere erraten da; ikus sarrera hau eta **arráin**.

**peškeítu** *ad.* Satrustegik dio (1963-64: 276) ‘desagertu’, ‘aztarnarik ez utzi’ dela. Guk galdegin eta berriemaileak hitza ezagutzen zuela erran zuen, eta izenburuan ezarri bezala ebaki, baina etsenplurik ez zizun eman.

**pésta** *iz.* Balakua, lausengua (*mimo* gaztelaniaz) / **pésta ín** *ad.* (du) Balakatu: «Beraz M<sup>a</sup> Dolores gaizua, anitz esker mila ziek in dazkiatzen pesta guzietz eta Ximonen partez».

**pestatú** *ad.* (du) Balakatu, lausengatu: *Áma hórrek sobéra pestátzen txí háurrak*. Ikus **gastátu**.

**pestúntzi** *izond.* Lainezoso: *Etxitéla hóin pestúntzja izán, emáxu bákja!*

**peténta** *iz.* Belarritakoa: *Harrapátu íxit gáldja nín peténta, ganbáran*. Normalean pluralean ibiltzen da. Etorkia dela-eta garbi dago erdaratikako hitza dela (cf. frantseseko *pendre*, *pendant*), baina ez dakigu zuzeneko jatorria zein den.

**pétig góiti**, **pétig góra** *adlag.* Behetik gora: *Bórdat héltzeko pétig góra jwán behárra úxu*. ikus **gáinetik béiti**. Satrustegik sua itzaltzeko erremedio hau aditu zuen: «Ti-

razkik petigora iru tiro eta itzaliko huk» (Satrustegi, 1969b: 45).

**petikora** *iz.* Aldapa. MAK darabil: «Lehenik belauñ bat, ezkerrekua, hantu ziaokua eta gero bi zanguak, aztal beharriak. Orai heritu ziazkotxu, bana hatsa nekez hartzen dila petikoretan».

**petrél** *iz.* Tirantea, **petrélak** tiranteak (frantseseko *bretelle*-tik).

**pettittarrége** *iz.* Txepetxa, txori baten izena.

**péza** *iz.* Pieza. *Konparazjone arráin haundi bát harrapátu éta «zé péza!» erráiten ál dá*. Beraz, erdarazko «¡Qué pieza!» edo da. *Mekanikátén pézaré erráiten ál dá* ‘makinaren baten pieza ere erraten ahal da’.

**pezatu** *ad.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 139, 147, 157): «Bi tailu entablato, bat pezatu, bat aztala ezarri, bi tailu eraztun», «bi tailu pezaturic», «bi arasta burdina pezaturic». Arruazuko eskalatzainak ‘apetachar’ adiera duela dio (ibid., 282).

**pezéta**, **péza** *iz.* Pezeta. **Ljéra** baino gehiago ibiltzen da (ikus sarrera hau).

**piája** *iz.* Bidaia. ABK *pidáia* ibiltzen du, baina MAK *piáia* / **piája ín** *ad.* (du): «Bataioko zeremonia oro eskuaraz ederki eta haurrain aita eta amare han. Zer nahuxu, gastu puxkat in dixiu, bana biziki piáia goxua in dixiu. Goizian 8 eta erditan atera eta atseko tenore bereko hemen gintxun» (MA). Ondarrolako 1841eko eskutitzean (Satrustegi, 1971: 294) *bidaya* dago; B. Etxeparek, XVI. mendean *viage* darabil (1980 [1545]: 26). Irudi duenez, biarnes-gaskoiko *biatye*, *biatge*, *biàdje*, *biàje*-rekin lotua da.

**pietun**. ABren gutunetan ageri da (biarnesgaskoiz *pietou* da eta frantsesez *piéton*): «Egun hotan X frango apal duxu; Y-re hil izan duxu, ohit xira, Arneiko pietun izana». Guk **peatún** bildu dugu.

**píka** *iz.* 1- Míka, 2- Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena da / **píka lúze** *iz.* Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena da / **píka ta híru** *iz.* Luzaideko «ddantzetako» urrats baten izena da / **píka bezáin ergéla izán** *ad.* (da) Arrunt ergela izan: *Píka bezáin ergéla dá néska hóri, eztú gáuza húnik íten sékulan* / **píka bezáin mehía izan** *ad.* (da) Mehakoila izan, arrunt mehea izan.

ABren gutunetan ageri da: «X pika bezain mehe, bana berak hala nahixi» / **pika bezain ohóina izán** *ad.* (da) Arrunt lapurra izan: *Pika bezain ohóinak díra buhámjak, laborárjen ústesz.* Manezaundik, eta Iparraldeko literaturako beste idazle batzuek ere, «pikaren azken umea izan» darabilte, baina guk ezin izan dugu ahoz jaso. Honela dio idazle margolariak (Irigarai, 1958: 69): «Bainan egun batez ezin yasanez ihakintza eta irri horiek, erabaki zien Iruñerat yuaitea, bere baitan erranik: ‘Ez, ez diat adituko holako berdeinuak, eta ikusiko die adixkideek ez nizala pikaren azken umia, ez eta ere irri egiteko errekaitsu bat, tetela, ergela, edo mentsa, bainan gizon bat haidorra, eta buru bipilekoa’».

**pikabuztán** *izond.* Ergela: *Tá géro pikabuztán zónbáit jñen zázkju hérrirat erráneez gú báno géjo djéla.* Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 326). Hiriart-Urruti zaharrrak ere ibiltzen du (2004: 435): «Eta pikabuztan horrek ardietsiko duela, hori bano gehiagokoez ezin ardietsi dutena! Horren hitzari behar gu fidatu!!».

**pikalapórt** 1- *iz.* Txori baten izena da, Manezaundiren arabera (1990: 178): «Urria ilhabete ezitia, ihiztarien loria; xixpak bere erdoilduraz garbiturik eta urinduak, hor dira haize hegoaren beha. Usoak, biligarroak, uzkinazoak, pikalaportak, zozuak, apezxoriak, papogorriak, hots, hegaztin mota guzietarik milaka eta milaka iraganen dira errekarri goiti (...)», 2- *izond.* Guk Luzaiden jendearendako erabiltzen aditu dugu bakarrik, ‘ergela’ erranahiarekin edo, *urdé pikalapórt*a sintagman (ikus Kamino & Salaberri & Zubiri, 2004: 326). Lhandek (1926: 865) ‘pie-grieche’, ‘antzara-xori’, ‘suge-xori’ adiera ematen dio lehenik eta ‘femme d’humeur aigre et querelleuse’ gero.

**pikátu** *ad.* (du) 1- Ebaki: *Éskja pikátu íxit mítra hunékin* ‘eskua ebaki dut beira honekin’, *belárrain pikátzetik héldu gítxu* ‘belar ebatetik heldu gituxu’, 2- Tailua, sega ingudean pikatu, zorrotzu, mailukadaka: *Táilja ungdjain gáinjan zárrí tá martáilju batekín pikátzentzúxun.* Biarnez eta gaskoiz *pica* edo *picà* ‘piquer, ai-

guilloner, smiller, marteler, couper’ da. Cf. *pica lou dalh* ‘marteler, rebattre la faux’.

**píko** 1- *iz.* Píkua, 2- *iz.* Pikuondoa, 3- *iz.* Ebakia: *Píkwát ín díxít éskjan ganítaikin; zúrjain gáinjan píkwa* (esaera) 4- *adlag.* Gorputzaldi edo egoera onean egon: «*Enúxu píkwan egún*» *erráiten dúxu etxjéla arrás úntsa erráiteko; mekanika hóri etxú píkwan* ‘tresna hori ez dago erabat ongi’.

**píko melátu** *iz.* Piku pasa.

**píkoik tirátu gabé egón** *ad.* (da) Alferkerian egon: *Afér zikín hóri píkoik tirátu gabé djóxo atsálde gúzja.* Ikus **afér gohóztu**, **afér** sarreran / **píkoik ez tirátu** *ad.* (du) Alferkerian egon, kolperik ez jo: *Hóri mutíko koskoiláundja!, alimáleko lána íteko éta eztú píkoik tirátzen.* Léonek *pikorik ez eman* darabil (1993: 175): «Zer egin bada *pikorik eman gabe diru milatu haren biltzeko?*».

**píkokári** *izond.* Mokoka aritzen dena: *Zóin píkokárja dén ollár zikín háu!*

**píkor** *iz.* Arto alea. Ikus **artopíkor** eta **bíhi**.

**píkotín** *iz.* Píkotxa. Luzaideko arotzak ere bazerabilen, baina –a itsatsiarekin: «Pícotina bat eracachiric» ‘píkotx bat eratzikirik’, «pícotina bat chorrostu» (Satrustegi, 1969: 216, 226). Ikus **píkotz**.

**píkotz** *iz.* Luzaideko arotzak *píkocha* darabil: «Pícocha bat erracachiric», «pícocha bat baratia condian pasazeco» (Satrustegi, 1969: 135, 200). Arruazuko euskaltzainak dio ‘píkotxa’ adiera duela, baina Donoztirin Barandiaranek *píkotx* ‘azadón’, ‘aitzur handia’ biltzen du (1974: 55), eta Luzaiden ere hori bera dateke, baina ez gaude seguru. Izan ere, ‘píkotxa’ adierazteko usaiako hitza **píkotín** da.

**píkún** *izond.* (cf. espainoleko *picón*). Ahoaren goiko alderdia behetia baino ateraiago duenaz erraten da. Kontrakoa, irudi duenez, **kéfa** da. Baztanen *píkon* erraten da (Izeta, 1996: 149).

**pílare** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) ‘pilarea’ adiera duela dio.

**pílda** 1- *izond.* Fundamentugabea edo: *Hóri maztéki pílda!*, 2- *iz.* *Aswáin gáinjan zártzen dén arrópa.* Azkuek bere hiztegian ‘colgajo de ropa’, ‘lambeau de vêtement’

- eta ‘mujer de vida airada’, ‘rouleuse, femme de vie légère’ adierak ematen dizkio *fil-da*-ri. Lhandek (1926: 861) *philda* ‘terme de mēpris, homme ou femme de rien’ dakar; *filda* ere jasotzen du eta Azkueren adiera berak ematen dizkio. Izetak dio (1996: 84) *filde* ‘arropa zahar eta hondatua’ eta ‘traketsa, zitala’ dela; bigarren erranahia dela-eta *Mutiko filde orrek eztu gauz onik* adibidea dakar. *Filda*, *filde* Etxalar, Ituren eta Auzan ere erabiltzen da, azken erranahiarekin.
- pilóta** *iz.* 1- Pilota, 2- Pilota jokoa / **pilótan aizán** *ad.* (da) Pilotan jokatu.
- pilotáři** *iz.* Pilota jokalaria.
- piltzár** *iz.* Trapu zaharra. Ikus **trápu**.
- pimentón** *iz.* Potoko piper gorriak. Otsagabian ere ibiltzen zen *pimenton* ‘piperra’ adieraz; ikus Camino (2004: 237).
- pindár** *iz.* Txinparta, txinda.
- pindárka aizán, hási** *ad.* (da): Txinpartaka ari izan, hasi: *Egúr úmja erréztjan pindárka hásten dúxu*.
- pino** *iz.* Pinua, lerra.
- pinpilín** *iz.* 1- Zenbait ardik lepotik dilindan dituzten bolatxo modukoak, 2- Txintxarri ttipiak, soinurik egiten ez dutenak. Ikus **kuxkúla**.
- pinpirín** *adond.* Polit jantzirik: *Zóin pinpirín dwán gúre nexkátwa!* Izetak (1996: 149-150) *pinpin* ‘pinpirina, garbi eta apaina’ biltzen du.
- pinpirrindu** *ad.* (da). Oilandei galdurra gorritu. Izetak (1996: 150) Baztango *pinpirrin-du* ‘txispatu, arinki mozkortu’ dakar.
- pínta** *iz.* Isurkari neurria, hiru litro laurden: *Askáiteko píntat áno edán ginín bjén ártjan*. Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969): «Bi pinta ano» (238), «bi pinta ano undarlati».
- pintatia izan** *ad.* (da). MAK darabil, behin, gaztelaniako *ser pintado a*, hots ‘norbaiten biziki antzekoa izan’ adierarekin: «Gaizua, xarmanta duxu nexkatua, 25 urte, à Toulouse bizi duxu, biak postan enpletiak omen tuxu, urte bat dutela ezkonduik, aita pintatia duxu».
- pitérdi** *iz.* Neurria, pinta erdia. Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 239). Ikus **pínta**.
- pintuna** *iz.* Ez dakigu zer erran nahi duen. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 213): «Lau crisqu(e)ta pintuna, bat urtarrian pintuna bat». Ikus **krisketa pintuna**.
- pinxtétak** *iz.* Surako orrika modukoak (frantseseko *pincettes*-etik). Ikus **suhatsak**. Luzaideko arotzak ere badakar: «Macharro bat, pincheta pare bat arriñaturic» (Satrustegi, 1969: 145).
- píntza** *iz.* Baba; oin, esku eta bestetako handitsu urtsua.
- pipátu** *ad.* (du) Tabakoa erre: *Pipátzen duká?*
- pipatzále** *iz.* eta *izond.* Erretzailea.
- pirpiríka, pilpiríka** *iz.* Taupada, beldurraren eraginez-eta izaten dena / **pirpiríka, pilpiríka aizán** *ad.* (da): *Alímaleko izjaldura hártu út eta wái bihótzta pilpiríka ái záit, geldítu gábe*.
- pírti-púrta** *adond.* Hots hitza: *Gaztáinak erórtzen ái txú pírti-púrta sasóin húntan, larrazkénjan; herríko xahárrak híltzen ái díra pírti-púrta*.
- píru** *iz.* Belar izpia: *Péntze hórtan áurten étxju pírwike bíldu*.
- pitilín** *iz.* Pitilina, zakila.
- píto** 1- *iz.* Zakila, 2- *izond.* Tontolapikoa, zozoa edo: *Píto zárra!*, *píto zár zikína!*, *píto zikína!*, *pítwa aláin pítwa!*, *pítwa aláina!*, *pítwa ez béstja!*, *urdé píto zár zikína!*, *urdé píto zikína!*, *urdé pítwa!*, *zé pítwa hízan, besténaz, étxeat tenórez jin hindáin errán neán bárdá, tá hálaiké béti bezála behánt / pítwa ín ad.* (du) (esam.): *Zé pítwa íten dukán besténaz iháun búru háundi horrékin!*, *zé pítwa íten dukán besténaz iháun púrdi háundi horrékin!*, *zé pítwa íten duzjén zjáun sudúr háundi horrékin!*, *zé pítwa íten dutén besténaz béren úrri zózo horrékin!* Ikus **méntsa ín** eta **ustéla ín**.
- pitokérja** *iz.* Zozokeria, menskeria: *Etzákala pitokérjajk errán!*, *hóri hóla úk, ník dját arrazóina*.
- pitóti** *izond.* Pitoa: *Pitótja hí!*, *zé pitótja hízán!*
- pítoz góiti, pítoz góra** *adond.* Ahoz gora, lagun arteko solasean: *Jwán dén egúnjan, hérríko béstetan, béhi kákat lehértu, lerrátu tá pítoz góiti eróri nínztan*. Ikus **errázgóra, errázgóiti / pítoz góiti, pítoz góra egón, eróri** *ad.* (da) Ahoz gora egon, erori, lagun arteko hizkeran.

**pitráil** 1- *iz.* Habea, zutabea, 2- *izond.* Handia eta lodia, jendeaz ari garelarik. Duhauk (2003: 393) *petrela* dakar: «Ze gizon petrela! ‘quel homme déglingué, inintéressant’». Satrustegi (1969b: 96) *pitral*, *pitrala* ‘gapirioa’ jasotzen du.

**pitralqueta.** Luzaideko arotzaren liburuan *pitralqueta*, *pitralquetan* ditugu, alegia, ‘zuzerzko zutabe bila (joan)’ (Satrustegi, 1969: 183, 250).

**pittika** *iz.* Antxumea. Ikus **ahúña**.

**pitxer** *iz.* Pitxerra (biarnes-gaskoiko *pichè*, *picher*-etik, antza).

**pixítxi** *interj.* Katuei etortzeko erraten zaiena.

**pixtu** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 157, 210): «Lau eraztun pichuequin», «azpico pichuac bida». Ez dakigu zer erran nahi duen. *Pixu* ere irakur daiteke; cf. **pízu**.

**píx**, **píz** *iz.* Pixa (irudiak dira bi aldaerak); ikus **pizagórri** eta **urxúri** / **pixín**, **pizín** *ad.* (du) pixa egin. Lehena normalki eta haurrekin ibiltzen da; bigarrena haur ttipiekin ez.

**pixíle**, **pizíle** *iz.* Pixagalea / **pixíljak egón**, **pizíljak egón** *ad.* (da) Pixagaleak egon: *Pixíljak njok*, *pizíljak njók* / **pizíljak hántja egón**, **izán** *ad.* (da) Pixagaleak akabatzen egon. Ikus **pizatúrri**.

**pixkór** *izond.* eta *adond.* Azkarra, sendoa: *Maztéki hóri pixkór kausitu íxit* / **pixkórrjan izán** *ad.* (da) Azkar egon: *Pixkórrjan xírea?*, *zé*, *pixkórrjan?*, *zé*, *pixkórrjan híza?* Ikus **azkárrian izán**, **azkár** sarreran.

**pixkórtu** *ad.* (da, du) Azkartu, indartu: *Dénbora atéz arrúnt éri izántzúxun*, *bána erremédjo át hártu tá beála pixkórtu zúxun*.

**pixtáflla** *iz.* Mozkorra: *Ikáragarriko pixtáflla bíldu zutén igándjan*.

**pixtaflátu** *ad.* (da) Mozkortu: *Ihakóitz gúziz pixtaflátwik arribátzen dúxu étxeat*. Ikus **mozkór** sarrera.

**pizagórri** *iz.* Gorri koloreko pixa, behi zenbaiten zahartzearekin egiten dutena.

**pizatúrri** *iz.* Pixaldia, pixerreka: *Banjáxu pizatúrri batén ítea*, *pizíljak hántja bainíz*; *zé pizatúrrija ín dukán!*

**pizile** *iz.* Pixagalea / **pizíljak izán**, **egón** *ad.* (da) Pixagaleak egon / **pizíljak hántja izán** *ad.* (da) Pixagaleak akabatzen egon: *Pizíljak hántja núxu tá banjáxu komitatéira*.

**píztu** *ad.* (da-du) 1- Izeki: *Árgja píztu ík ta ófetik jéiki úk*, 2- Ozpintzen hasi: *Ánwa píztu úk*; ikus **ozpíndu**, 3- Hozitu: *Lusárrak píztan hásjak túk* (= *lusárrak óztzen hásjak túk*).

**pízu** 1- *izond.* Pisua, astuna: *Zé pízja dén gizón hóri!*, 2- Pisua *iz.* *Anájak etxí pízwik hártzen ál*, *gerrúntzetaik mínez baitá*, 3- Neurtezko tresna *iz.* Cf. Luzaideko arotzaren hau (Satrustegi, 1969: 168): «Pizu pare bat arriñatu».

**pizurrín** *iz.* Pixa usaina. Ikus **kakurrín**, **urrín**, **zipilurrín**.

**plaméta** *iz.* Birusa edo: *Hóri plaméta zár zónbáit dukéxu*. Lhandek *planeta* biltzen du eta ‘épidémie’ adiera ematen.

**plantátu** *ad.* (da) (biarnes-gaskoiko *plantà*-tik?) 1- Zerbaitetan hasi edo: *Anája jintzélaik beála plantátu gíntxun músjan*. Cf. MAren pasarteño hau: «Deuse ez dinat senditzen, ez diakinat zerendako plantatu duten holako arua», 2- *ad.* (da-du) Negozio bat jarri, zerbait ekin: *Lan hótan plantátu txú*, *laborántxan*; *oráiko gáztek etxje artzáin-gwan plantátu náí*; *horrén aítámak izigárrri aberátsak txú tá alábaindako plantátu íxe gáitzeko botíga Irúnen*. ABk, inoiz, espainoleko erabileratik hurbil dauden pasarteak ditu. Cf. hau: «Eztixit elekatia X galdeiteko era hunat jin zen ala ez. Orai Y-n bea egunak kondatuik. Z eztiakixut noiz plantatuko den», 3- *ad.* (du) Sortu, antolatu, eragin edo: «Galdein niakoxun “zer pasatu zain?”», “deuse ez dinat senditzen, ez diakinat zerendako plantatu duten holako arua”» (MA).

**planttáko** *izlag.* Plantakoa, ederra...: *néska planttákwa úxu hóri*. Cf. letretako pasarte hau: «Orai ja pasatu dira oro, baititu bi apez arras planttakuak, Jinkuari eskerrak» (MA).

**plánttan** *adond.* Polliki, ederki: *Lána plánttan geldítzen ái zjáxuxu*.

**plántxa** *iz.* Beheko suko burdinazko xafla (biarnes-gaskoiko *planche*-tik, gaztelaniako *plancha*-tik edo frantseseko *planche*-tik). Luzaideko arotzak ere badakar (Satrustegi, 1969: 74): «Bi ize pla(n)chaindaco».

**plastrátu** *ad.* (du) Igeltsua eman, ezarri. Cf. hau: «X gaitzeko obran ari uxu gaineko pisan; denak, paeta guziak, karrakatuik, ar-



- temurru guziak botatik, denak adailiekin in omen txi eta zoladurak plastratu».
- plástre** *iz.* Igeltsua (biarnes-gaskoiko *plàstre-tik*) ≠ **kísu** 'karea' / **plástrjan zárri** *ad.* (du): *Plástrjan zárri djáxute zángwa* 'igeltsua paratu didate hankan'.
- plát** *iz.* Azpila, plater handia (frantsesez *plat*). Ikus **aspíl**.
- plaxént** *izond.* Atsegina, begikoa (biarneseko *plasant*-etik). Ikus **ergéldu** eta **plazér**.
- pláza** *iz.* 1- Plaza, 2- Frontoia (bigarren adiera hau galduxe da), 3- Lekua edo. Caminok (2004b: 471) Gamarteko *biga baten plazan* aipatzen du, eta honelakoak normalak dira Luzaiden ere: *Juáin núxu háren plázan* 'joanen naiz haren lekuan' / **pláza ín** *ad.* (du) Lekua bete, (behar bezala) ordezkatu: «X ekarri dixie etxeat, bana hunek ez dixi arras X-en plaza inen» (MA).
- plazér** *iz.* Atsegina (biarneseko *pladze*, *plaseren* moduko forma batetik beharbada; halarik ere, gaztelaniako *placer* ere hor dago, jakina) / **plazér emán, hártu, ín, izán, ukán** *ad.* (du): *Zé plazérra hártu ginín ámain ikústjan!*; *plazér háundja dá holáko jénde plaxéntaíkin egóitja* 'Pozgarria da holako jende atseginarekin egotea'. Cf. gutunetako aipu hauek: «Beraz, anitz plazer in ziaxun xure letrak eta hain fite», «beti egon nuxu nahiz xuri plazer bat eman» 'beti egon nuxu xuri plazer bat eman nahian' (AB), «pentsatzen dixit hendakore plazer zela xure han ikustiaz», «plazer dixit untsa baitzizte eta lanian anitz ari» (MA).
- pleátu** *ad.* (du) Tolestu: *Mihísja pleátu behát-xju*. Lhandek (1926: 877) *plegatu* dakar, eta ez da dudarik Luzaideko aldaera hortik atera dela. *Plegatu*, bestalde, biarnes-gaskoiko *plegà*-tik atera dateke.
- pollíki, pollíki-pollíki** *adond.* 1- Ongi: *Frángo pollíki íntzín lána*, 2- Manto: *Zázte pollíki-pollíki, errekontrwík gabé* / **pollíkiño** *adond.* Polliki / **pollíkixoño** *adond.* Pollikixegoño.
- pollíkítu** *ad.* (da) Polliki jarri, sendatu: *Zjén oséba pollíkítu zená?* 'Zuen osaba sendatu al zen?'. Ikus **hobekítu** eta **untsátu**.
- pollít** *izond.* Polita. Hau da normalean erabiltzen dena; nolnahi ere, MAren eskutitzetan pare bat aldiz *polita* ageri da. Ez daki
- gu aldaera honek ez ote duen ñabardura zenbait: «Hoita hamar bat ardi jeizten dixie eta gasna polita iten dixiu», «jin duxu X bere senarraikin, lehengo X, biziki xinpleki eta polliki. Senarrare polita, gatzia, baigorriarra» / **pollíxko** *izond.* Franko pollita: *Nexkátu hóri pollíxkwa úxu, ámain ítja íxi*.
- porrokátja izán** *ad.* (da) Dakigunez bakarrik *loáljak porrokátja izán* sintagman ibiltzen da. Ikus **loále**.
- porróska** *iz.* 1- Purruska, 2- Ogi apurra. Usu pluralean erabiltzen da. Ikus **porróxka**.
- porroskátu** *ad.* (da-du) Porroskak egin, xehe-tu, txikitu.
- porróxka** *iz.* 1- Purruska ttipia, 2- Ogi apurtxoa. Usu pluralean erabiltzen da. Ikus **porróska**.
- pórru** *iz.* Porrua / **pórru landátzea jwán** *ad.* (da) Antzarak ferratzera joan: *Zázte pórru landátzea, urdé ustélak!* Ikus **háil**.
- posíble izán** *ad.* (da) (cf. espainoleko *ser posible* eta frantseseko *être possible*): *Eztá posible égun gúziz góizeko bostóntan jeikítzja*. Ikus **inposíble izán**.
- pósta** *iz.* Postetxea (frantseseko *poste*-tik): «Ez duxu Fundazionian, Donianeko Hospizioan duxu, garako bidian, Postako onduan» (MA).
- póstre** *iz.* Azkenburukoa (gaztelaniako *postre*-tik). Ikus **desérta**.
- potréta** *iz.* 1- Argazkia (frantseseko *portrait*-etik), 2- Modua, manera: *Zé makúrta izán dútén étxe hórtan séme gatzéna potréta hórtan gáldwik*.
- potretagábe** *izond.* Zabarra edo: *Hóri maztéki potretagábja, etxéko lán gúzjak óno íteko tá béra trankíl-trankíla proménan!*
- potretagábeki** *adond.* Zabarki, trakeski: *Hórrrek hargína déla erráuten dú bána lán gúzjak arrúnt potretagábeki íten tú; zé lazakérja jénde horjéna, bórdá erórtzea útzí djé potretagábeki!*
- pótt** *iz.* Musua. Cf. B. Etxepareren *potaren gal-datzia* 'musu eskatzea' (1989 [1545]: 168). Eskutitzetan beti *pot* izkiriaturik kausitzen dugu, baina ez dakigu zer neurritan den kontu grafikoa / **pótt emán** *ad.* (du) Musu eman.
- pottakúrri** *iz.* Ezteietan egiten den jolas modukoa; ondokoari pott eman behar zitzaion matelean, eta honek ondokoari, segituz. Ikus Satrustegi (1969b: 78).

**pottóka** *iz.* Zaldi txikia.

**potxótxa** *iz.* Alua, motza. Ikus **álu**.

**pozále** *iz.* Suila.

**pozalétra** *iz.* Suiltada: *Kárrak pozalétrat húr.*

**pozóin** *iz.* Pozoia.

**pozointsu**. Satrustegik jasotzen du (1963-64: 276); guk ezin izan dugu aurkitu.

**predikári** *iz.* Sermolaria, predikatzailea.

**predíku** *iz.* Sermoia.

**prému** *iz.* Etxea gelditu behar duen semea, normalean zaharrena. Ikus **andraái**.

**préntsa** *iz.* Prentsatzeko mekanika. F. Caminok darabil (Euskaltzaindia, 1999: 110).

**preónak ojwín** *ad.* (du) Ezkondu aurreko pregonak egin. Cf gutunetako adibide hau (AB): «Errain daixut Buruxurineko Rozaritoin preonak igandian oiuin zitxin; esposatugoe ixi duaik».

**Preóttwa** *iz.* Azoletako *Preottwáin*-ja nagusia eskuarki, baina bertan sortu edo bizi den beste norbait ere izan daiteke / **preottuar** *iz.* eta *izond.* *Preottwáin*ja etxekoa. Cf. MAREn hau: «... nik ez dixit ikusi operatia bainintzan, bana Preottuarra, Felix iduri bat omen duxu (...)».

**prepario** *iz.* Prestaketa, preparua. MAK darabil: «Gehezi sasoinian izan tuxu 4 senar-emaztiak; egun batez etxian presentatu zitxun nik deuse jakin gabe; prepario haundiak ikusten nitxin, bere sukalde garbitzen». Salaberri Ibarrolakoak ere biltzen du (1856: 146). Cf., forma dela eta, Iparraldeko hizkeretako –eta ondorioz literaturako– *gobernu* / *gubernio*, *kalipu* / *kalipio*, *mendeku* / *mendekio* pareak.

**presént** *iz.* Oparia (frantseseko *présent*-etik) / **presént ín** *ad.* (du) oparitu, oparia egin: *Améiketako osébak presént intzán urrézko erlói bát, hántik jíntzélaik* / **presénta ukán** *ad.* (du) Oparia hartu, jaso: «Zieke ikusten dixit Eguerri besta hunak pasatu tuziela, hoinbeste present ukanik, hori untsa marka huna baita jendia kontent dela ziekin» (MA).

**presentátu** *ad.* 1- (da) Agertu: *Étxjan presentátu zitázkjan báte abisátu gábe*, 2- (du) Aurkeztu: *Éne kúsjak presentátu zán bére maztegája*.

**présó** 1- *iz.* Gatibua, 2- *adond.* Atxilo / **présó atxíki, eréman, hártu, sártu... ad.** (du).

**presondéi** *iz.* Kartzela.

**prést** *adond.* Gertu: *Présnúk jwáiteko*. MAK, zenbait aldiz, baina ez beti, *prets* du, *bots* ‘bost’ eta *amots* ‘hamabost’ bezala.

**prestátu** *ad.* (da–du) Apailatu, atondu, prestatu: *Afárja prestátu dját izígarrí húna; Kárríkat jwáiteko prestátu zén*.

**prestatzále** *iz.* eta *izond.* Prestatzailea, prestatzen duena.

**prézio** *iz.* Salneurria (gaztelaniako *precio*-tik).

**príma** *iz.* Saria (cf. frantseseko *prime* eta gaztelaniako *prima*).

**primadéra** *iz.* Udaberria (biarnes-gaskoiko *primabère*, *primebere*-tik segur aski, baina ezin da gaztelaniako *primavera* ahantzi).

**prísa** *iz.* Lehia, presa (gaztelaniako *prisa*-tik, irudiz).

**prísaka adond.** Presaka. Ikus **lastérka** eta **tarrápataka** / **prísaka ibíli, jín, jwán** *ad.* (da) Presaka ibili, etorri, joan: *Prísaka gjáiltzatxú eta ezgítxu géldítzen ál*.

**prisátu, prisátja izán** *ad.* (da–du) Lehiatu, presaka ibili (cf. frantseseko *être pressé*): *Enúxu hémen egóiten ál, prisátja núxu*. Cf. «...eta bestiaz ez gitxi prisatzen, intresa pahatu eta» (Satrustegi, 1981: 345).

**profitátu** *ad.* (da–du) Baliatu (zerbait edo zerbaitez) (frantseseko *profiter*-etik segur aski): *Profitátu beháixju náusjai sós géjoin galdíteko; Majáundik piája profitátu zín alábain kústeko; nítaz profitátu túk béren bízi gúzjan*. Ikus **baljátu**.

**proména** *iz.* Paseoa / **proména ín** *ad.* (du) Paseatu / **proména ibíli** *ad.* (da) Paseotan ibili: *Nún ailá, proména?*

**promenátu** *ad.* (da) Paseatu (frantseseko (*se*) *promener*-etik): *Jwán dén egúnjan proménatu ginén xarmánki*.

**propína** *iz.* Eskupekoa (espainoleko *propina*-tik).

**prótxwik ez izán** *ad.* (da) Deus egitekorik ez izan: *Eztá prótxwik xanfarín horrékin!* Ikus **itékoik ez izán**.

**prozesjóné** *iz.* Prozesioa (gaztelaniako *procesión*-etik edo frantseseko *procession*-etik). Ikus **béila** eta **peregrinazjóné**: *Frantzésen prozesjónja zúxun átzo*. MAK *proszazione* darabil eta ABK *proszazione, prozesione*.

**prwéba** iz. Proba / **prwéba ín, prwébat ín ad.** (du) Proba (bat) egin: *Prwébat ín beaíxju, éa úntsa funtzjónatzen dín.*

**puda** iz. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 188): «Puda alzairatu». Arruazuko euskaltzainaren arabera 'hezurdun haragia mozteko sukaldean ibiltzen den tresna' da.

**Púdes** iz. Ondarrolan den *Pudesénja* etxeko nagusia, edo bertako beste norbait.

**púlló** 1- iz. Astokoa, 2- *izond.* Pertsona astoa: *Zé púllwa dén hóri!* Ikus **astopúlló**.

**pulmonía** iz. Alborengo (gaztelaniako *pulmonía*-tik).

**púlo** iz. Meta txikia: *Ungarrítéitk atéatzen zúxun ungárrja ta péntzetan úzten zúxun púlotan, géro barréatzeo.*

**púndu** iz. 1- Puntua, 2- Ziria: *Zé púndja sártu dakón álu zikín hórri! Izórra bédi,* 3- Puntuan, xuxen: *Bják púndu-púndjan díra; hirwónak púndjan zjén.* Denborazko perpausak egiteko ere erabiltzen da, **-t(z)eko púndjan** itzulian, batuko '-t(z)eko puntuan, -t(z)eko zorian' adierarekin: *Béhja gáineko patár hártan erróizteko púndjan zúxun* 'behia goiko patar hartan amiltzeko zorian zegoen', *Jwanés hiltzeo púndjan dúxu* 'Joanes hiltzeko zorian dago'.

**puniméndu** iz. Zigorra. Cf. MAren hau: «Zainak diela orai erran dakola medikiak, lanik bate-bate ez dezan in; ez diakoxu seur punimendu txarra eman».

**punítu ad.** (du) Zigortu (frantseseko *punir-etik*): *Mutíkwa punítu íxje, gáixtwa baitá.*

**púnepaka adond.** Boteka, itzulipurdika: *Izígárriko mozkórra bíldu zín éta errékano jwántzén púnepaka. / púnepaka hási, íbili, jwán ad.* (da).

**punpúla** iz. Bolanten bonetatik zintzilik dau-den boletako bakoitza.

**púnta** iz. 1- Punta, muturra: *Arbólátén púntan ikúsi nínin papogórria kántuz ári;* «mundiain azken puntara juanike langilia denak lana atzemain» (MA) / 2- Min sarkorra, oinaze bizia: «...eta goizian hoztu baitzen, sahetsian punta bat jauzik, egun pareat egon omen duxu ohian».

**punttalakúlo** *izond.* **Kakáxja** bezala zela erran ziguten, baina *OEH*-n *punttalakurlo* 'meti-culoso', 'punttiloso' definitzen da. Cf. Mixel Oronoz (2001: 100): «Aurrez aurre nuen

espainol ordezkartizan Racla deitu aholkularia, arrunt puntalakurloa, formalista, bihurria eta jukutrilaria». Duny-Pétrék (1996: 85) dio *punt ala kulo* jokoaren izena frantseseko *la pointe ou le cul-etik* heldu dela, baina *kurloa* 'iskilinba burua' da, eta, beraz, etimologia hori airean gelditzen da. Ikus, *OEH*-ko *punta ala kurlo*, «punta» sarreran.

**pupéta** iz. Pampina (cf. frantseseko *poupée*).

**pur** *izond.* Garbia, petoa: *Eskwáldun púr-púrrak tirá hórjek.*

**púrdi** iz. Ipurdia. Ikus **úzki** sarrera. Etxaidek (1989: 152) *ipúrdia* bildu zuen / **púrdiz góiti izán, egón ad.** (da) Hankaz gora egon: *Xúre ganbára hóri arrún púrdiz góiti úxu, zártaxú otói ódrjan / púrdja lástoz izán ad.* (du) (esam.) Beldurrez egon, beldurrez kaka eginik egon: *Sú emán dutén hórjek púrdja lástoz dikéite.* E. Lareren *ipurdia lastoz ibili* darabil (2000: 158): «Gero beharko zen aita superioraren bulegoan pasatu, eta han ukanen ginuen epaile ospetsu horien notatxoa, buruzagiaren aholku zonbaitekin. Gertatuko zen, aldi batzuez, ipurdia lastoz ibiliko zela bat lehen aldi heietan, mututua geldituz, gehiago hitz bat ezin ateraz».

**púrdi zikín** 1- iz. Bateko urrearen jokoa. *Átzo aizán gíntxun púrdi zikínjan atsálde gúzja,* 2- *izond.* Ipurdi zikina duena.

**púrdimazél** iz. Ipurmamia.

**púrdimilikatzále** iz. eta *izond.* Ipurdigarbitzailea, ipurloxintxeroa: *Púrdimilikatzále ustél zikína, lán hóri enétako zján!*

**purdjáundi** *izond.* Iraintzeko ibiltzen den hitz arina; usaian ipurdia gizen antza duenari erraten zaio: *Kén hádi bidéitk purdjáundja, ezpainíz pásten ál besténaz!*

**purifikátu** *izond.* Sakreen indartzailea da: *Zár purifikátja úxu hóri* 'gaizto baino gaiztoagoa da hori'.

**púro** iz. Erretzeko zigarro handia (gaztelaniako *puro*-tik).

**púrra-ttítta** *interj.* Oiloei etortzeko erraten zaiena.

**purzólo** iz. Ipurzuloa. Sakretako ere ibiltzen da: *Urdé purzólo zikína hí!*

**púsaka adond.** Bultzaka / **púsaka aizán, hási, íbili ad.** (da) Bultzaka ari izan, hasi, ibili.

**pusátu** *ad.* (du) Bultzatu, bulkatu (frantseseko *pousser*-etik, antza). *Zakurreré értentzé* «púsa, púsa!», *árdjen gjéletik pusátzeko* 'zakurrei ere erratan zaie «pusa, pusa», ardiak gibeletik bultzatzeko'.

**púska** *iz.* 1- Zatia, 2- Osagaia: «Santiagotan untsa ohoitu nuxu xutaz; bortz etxetako in tixit aurten roskillak, puskak berek emanik, bana kontent nuxu untsa atera baitzien», 3- Maletak eta, gaztelaniaz *bulto* erratan dena; cf. MAREN hau: «Eta orai beste etxia hustiaikin izigarri baita zer din puska eta mueble», 4- Gauza: «Egon dailela hor, untsa baita. 1.500 irazten dixi ilaitian eta anitz puska emaiten diakoxute» (MA). Ikus **púxka**, **púxkila** eta **púxkáño** / **púskan** *adlag.* Anitzek (alderaketako mailakatzaila): *Orái dután órwa lehéngwa báno púskan hóbja úk.*

**púskátu** *ad.* (da-du) Hautsi, puskatu: *Azíta lúrrreat eróri zitzákon éta púskátu zén.*

**púta** *izond.* eta *interj.*: *Púta zé áno húna!*; *púta zikína zé káska hártutan búrjan!* Izenondoa gizonekin eta emaztekiekin ibiltzen da: *Púta zárra!*, *púta zár zikína!*, *púta zikína!*, *urdé putá!*, *urdé putá zár zikína*, *urdé putá zikína!* Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 327).

**putár** *iz.* Uztarra, zaldi jendearen ostikoa: *Ellánde soberáxko hurbíldu zitzákon exéko mándwai tá húnek alimáleko putárre emántzakón púrdian.* Cf. Aintziburu eta Etxarrenen pasarte hau (2002: 65): «Baina horra non bi urtez gelditu ziren lanetik 1866an, berriz hasteko 1868an. Ez luzarako, oraino bi aldiz errea izan baitzen, lehenik 1869an, gero 1871n. Azken putarrak eman zituen (Orbaizetako Olak) 1873an».

**putárka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Uztarka ari izan, hasi, ibili.

**putarkari** *izond.* Uztar emaillea, ostikolaria. Manezaundik *Mando putarkaria* izeneko artikulua du (1990: 54): «Yaun anderiak. Orái atheratuko dugu mando putarkari eta izikor bat, eta norbaitek ardiesten balinbada haren gainean egoitea ehun liberaz saristatua izanen da».

**putéro** *izond.* Putanera, putaneroa, putetan ibiltzea gustatzen zaiona: *Putéro zikína, nóiz zentzátu beháuk?*

**Putíko** *iz.* Azoletako *Putikóinja* etxeko nagusia, edo bertako norbait; **Putikósa** *iz.* *Putikóinja*-ko etxekoandrea.

**Putíla, Putílla** *iz.* Karrikan den *Putiláinja* edo *Puttiláinja*-ko nagusia, edo etxe bereko beste norbait; **Putilésa, Putillésa** *iz.* *Putiláinja, Puttiláinja*-ko etxekoandrea.

**puttárgi** *iz.* Ipurtargia.

**pútz** *iz.* Putza (ipurdirekin egiten dena). Ikus **úfa** / **putza ín** *ad.* (du): *Pútz háundi bát íntzín éta ganbára gúzja urríndu zínin / pútzik salátu éz* (esam.): *Urdía! Ezti! hóloko pútzik salátu!* Gaztelaniaz: '¡Cabrón! ¡Qué calladico se lo tenía!' Cf. Etxarren-Lohigorriren hau (1993: 100): «Joanden arats batez, nik uste alimaleko izialdura, orroitzekoa, bildu duten zubi ondoan... Ez dute, ez, hemen holako putzik salatu, bainan nik jakin haatik Katixaren ganik». Izetak Baztanen (1996: 209) «eztik olako putzik saltzen» dakar, baina ez du adiera argitzen; hiru urte beranduagoko lanean, berriz (1999: 225), «ez dik holako putzik saltzen» (sic) bildu eta honela azaltzen du: «Pertsona batek gauza onak bakarrik agertzen tu, baño gaizki egiten badu, hori ez du agertzen». Patziku Perurenak (*Egunkaria*, 1999-2-12) hauek biltzen ditu: «Loteria tokatu zila Matteori? Urde alua, etzeak niri holoko putz haundik esan!», «estadun dola Mikela!?! Ezkontzen zelakoa bai, biño, etzeonan holako putz haundik esan gure amari». Honela bukatzen du Goizuetako idazleak: «Esamolde eder horietan ere, *putz haundia*, nolazpait isilean pasatako kontua duzu».

**Pútzí** *iz.* Karrikako *Putzínja* etxeko nagusia, edo bertako beste norbait.

**pútzú** *iz.* 1- Putzua: *Ník ezút béine pútzwik záutu Luzáiden, jéndjak túrritá jwáitentzjén*, 2- Istila: *Izígarríko éurjak íntzítin ázto ta orái bíde gúzjak pútzuz béteik díra.* Ikus **istíl**.

**puxíño** *iz.* Pittin bat, pixkatxo bat; *puxíñwat* 'puxiño bat'. Bestela **mikóño** (*mikóñwat*) erran daiteke.

**púxka** *iz.* Puska ttipia / **púxkáño** *iz.* Puxka ttipia / **púxkát** 1- *iz.* Pixka bat: *Denbóra púxkát húntan eníz méndja ukán* / **púxkila** *iz.* Puxka ttipia. Bestela **kútsu** erran daiteke; ikus sarrera hau eta **púska**.

## R

**rebísta** *iz.* Aldizkaria (gaztelaniazko *revista*-tik).

**resultádo** *iz.* Eraitza (gaztelaniazko *resultado*-tik).

**ré[x]ímen** *iz.* Erregimena / **re[x]ímena** *ín ad.* (du): «Ez dila regimena untsa in erran dakotela; gaixua, hunek apetitu haundia, eta regimen haundia in behar. Untsa sofritzen dixi ba» (MA).

**-ro** *atiz.* Behin bakarrik aurkitu dugu, *goxáro* aditzondoan.

**rogazjón** *iz.* Euriaren galdegiteko egiten ziren otoitzak (frantseseko *rogations*-etik): «Errain daixut ermitare biziki ederki arranjatu utela; rogazionetan han eman zixien meza. Lengo elizako ezkila ttipiare han zarrixie, biziki untsa» (AB).

**roskílla** *iz.* erroskila, pasta biribila (gaztelaniazko *rosquilla*-tik).

## S

**sabái** *iz.* Belartegia, baina bordetan bakarrik: *Jwán sabáirat éta kárrak besátrat belár.*

Ikus **ganér**. Cf. MAren hau: «Izigarriko denbora xarmanta dixiu, soruak in tixiu ix-tanpatez, anitz eta hunak. Kontent tuxu gure gizonak; seur sabaiak untsa beteik gelditu tuxu aurten».

**sagár** *iz.* 1- Sagarra, 2- Sagarrondoa / **sagár eztíka** *iz.* Ikus **eztíka**.

**sagarde** *iz.* Zurezko edo burdinazko sardea, antzarratzelua. Bigarrenari, burdinazkoari, **burdin sagarde** ere erraten zion Luzaideko artozak, **sagarde** ez ezik (Satrustegi, 1969: 155): «Sagarde bat lotiuric» (sic), «burdin sagarde bat beguiberritu», «burdin sagarde bat arriñaturic».

**sagarráno** *iz.* Sagardea.

**sagárrerroi** *iz.* Sagarroia.

**sagarróndo** *iz.* Sagar zuhaitza. Ikus **sagár**.

**ságu** *iz.* Sagua.

**saháts** *iz.* Sahatsa.

**sahéska** *adond.* Alde batera: *Kadéran járrik zólaik sahéska eróri zúxun; saéska eróri zúxun tá izigárriko mína hárture bá.*

**sahéts** *iz.* Saihetsa. Cf. MAren hau: «X-re atzo operatia, tumor bat bazila, kasik medikiek ez in nahi eta berak berriz absulutoki nahi. Tripa sahets batian omen zixin».

**sahets burdin** *iz.* Luzaideko artozaren kontu liburuan azaltzen da: «Bi saesa burdin 2» (Satrustegi, 1969: 235). Arruazukoak 'hierro lateral' adiera ematen dio.

**sáil** *iz.* Saila: *Artojórnan ártzen ginélaik bakótxak sáil bát hártzen zíxin, alórrain puskát.*

**sáindu** 1- *izond.* eta *iz.* Santua, 2- *iz.* Onomas-tika eguna. Etxaidek (1989: 208) *sáindwa* dakar, baina bistan da ebakera hori ez dela Luzaidekoa. Cf. gutunetako pasarte hau:

«Milaka goraintziak D<sup>o</sup> Jose Mariri, haren familiari eta xuri, ahatzi gabe, behant badare, felizitazioiak xure sainduko» (MA), 3- *izond.* eta *iz.* Sobera elizazalea (gaitzes-garria da): *Sáindu háundja bá, bána géro giéletik zerrikérja edérrak íten tú.*

**sáinduki** *adond.* Santuki.

**saindutasún** *iz.* Santutasuna.

**saindútu** *ad.* (da-du) Santutu, santu bihurtu.

**sáka-sáka aizán** *ad.* (da) Jo eta ke ari izan. Bereziki jaterakoan ibiltzen da: *Hémen ai núxu, sáka-sáka játen.* Cf. biarnes-gaskoiz *chacà, sacà* 'mâcher' ('ahoa xehe-tu, txikitu').

**sakadera** *iz.* Artozak darabil (Satrustegi, 1969: 170, 206): «Sacadera bat ausiric arriñaturic», «sacadera bat berria». Arruazuko euskaltzainak 'zuloetarik lurra ateratzeko koilara' dela dio (283).

**sakátu** *ad.* (du) 1- Maltzurkeriaz sartu edo: *Zé zírja sakátu dakón!; gezúrra sakátu zjákoxon ámai.* Biarnes-gaskoiz *chacà, sacà* 'ahoa xehe-tu' ez ezik 'chiquer' ere bada, hots, ziria sartu, 2- Lehen joa eman pilotari: *Xálak izíggarri únsta sakátzen díxi ezkérraikilàn.*

**sáke** *iz.* Pilota jokoan, lehen joaldia. Ikus **gáixto**.

**sakéla** *iz.* Poltsikoa.

**sáki** *iz.* Ebakia: *Ganítaikín in dú alimáleko sákja béswan, ezpáitakit zé gertátuko dén.* Ikus **aitxintxáki** eta **gjeltxáki**.

**sakraméndu** *iz.* Sakramentua: «Beti goguan atxikitzen ditut eta atxikiko zure kontseilu hunak eta etzitut sekula ahazten ene komi-nione onduan iten dutan sakramendu sain-duaren bisitan» (MA).

**sákre** *iz.* Biraoa (frantseseko *sacre*-tik, irudiz). Ikus **hizkúntzazár** eta **juraméntu**.

**sála** *iz.* Jateko, egoteko, gauzen atxikitzeko gela.

**salátu** *ad.* (du) Salatu: *Gúre hérrjan gértatu izán dúxu norbáitek béste norbáit salátu díla kontrabándan ái zélakotz.* Ikus **pútzik salátu éz** esamoldea. Cf. MAren hau: «Ar-dura batzuk edo bestek batxixe xure berriak eta badakixu eziuzteula ahazten, elgarretazkioz fite salatzen tula».

**salatzaile**. Satrustegik (1963-64: 277) jasotzen du; guk ezin izan dugu bildu. Zernahi gisaz, irudi du *salatzaile* izan behar lukeela, Luzaideko hizkeraren nolakoa ikusirik.

**salbája** *iz.* eta *izond.* Basa (irudi duenez biarnes-gaskoiko *saubàdge*-ren etorki berekoa da, albokoa bokaldu gabe zuen *salbatge*-ren moduko batetik-edo aterea).

**Salbatóre, Salbatóre egún** *iz.* Satrustegik dioenez erdarazko '(día de) la Ascensión' da. Arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 170): «Bernateneco condia salbatorez einic», «salbatoreco condia einic». Luzaideko gutunetan ere agertzen da: «Salbatore egunian izan ninduxun Bernatenian Juanitain ikusten; heke biak gripaikin egonak tuxu. Holaxet juaiten nuxu noizian behin» (MA).

**salbátu** *ad.* (du) Salbatu (gaztelaniako *salvar*-etik segur aski).

**salbatzále** *iz.* eta *izond.* Salbatzailea.

**salbu izan** *ad.* (da) Onik egon, salbu egon. ABren letra batean ageri da: «Gripa hunek frango atakatu gitxi; X-e egon duxu zombait egun ofian. Y-ek pasatu ixi arintxoño; Z onokuan salbu duxu, marranta puskatzu pasatu tixi bana geldituik etxu egon». Ikus **sálu**.

**sálda** *iz.* Saldá: *Lusár sálda háu etxú báte húna átea; sáldatén prestátzen ái xjélaik emáitentzazón gáuza hórjek, konparazjóné típúla, baatxúrja, pórrja... Hórjek txú berdagáiljak.*

**sáldu** *ad.* (du) Saldu.

**sáltsa** *iz.* Saltsa.

**saltséro** *izond.* Egoerak nahasten dituen pertsona: *Igórraxu saltséro háundi hóri zakúrrain púrdira!*

**sálu**. Salbu, izan ezik: *Jwan dén Egwérritan haurride gúzjak bíldu ginén Kattín sálu.* Ikus **salbu izan**.

**salutátu** *ad.* (du) Agurtu (irudi luke zuzenki latineko *salutare*-tik hartu dela, apika eliza bidez): *Zérrí zikín hórrek orái karríkan kústen nílaik eníxi salutátzen.*

**saltzále** *iz.* eta *zond.* Saltzailea.

**samín** *izond.* Mikatza, ondu gabeko fruitaren zaporea. Ikus **kiáts**.

**samúr** *adond.* Haserre. Ikus **drénde / samúr egón, samúr izán** *ad.* (da) (norbaitekin edo norbaitendako) Haserre egon: *Samúr núxu 'haserre nago';* cf. MAren hauek: «Erran diakoxut ezetz, samur ez nizala, ni ez nizala nehokin samur egoiten», «puxkat samur egona nuxu gure Jinkuaindakore, hainbeste galdeiten bainakon ez nindezan operatzea ereman».

**samúrgo** *iz.* Haserre.

**samúrto** *ad.* (da) Haserretu: *Sósa galdíntzjá-xun bérrize, éta ezpáinakón emán samúrto zúxun izígarrí.*

**San Bladi, San Blas**. Satrustegik (1969b: 39) *San Blas* eta *Jaun San Bladi* biltzen ditu. Lan berean Jose Maria de Luzaide izenekoaren *Jaun Sen Bladi* ere jasotzen du arruazurrak.

**sanja** *iz.* Aldaketa. MAren letra batean kausitu dugu: «Milaka goraintziak D. Jose Marii eta haren familiari; guk berrize apezá sanja dixiu».

**sanjája** *adond.* Aldatuz. Cf. ABren hau: «Urte guziez sanjaka eta gazte ergel batzu jiten tuxu, irakoitz atsalde guziez lasterka beren etxetat juanez eta astelenetan noiz jiten dira? Untsa heldu zelaik».

**sanjakór** *izond.* Aldakorra. Ikus **kambjakór** eta **sanjant, sañant**.

**sanjant, sañant** *izond.* Aldakorra (frantsese-ko *changeant*-etik). ABk darabil: «Orai puskat sanjanta diailaxu denbora eta frango fresko; orai hasi gitxu lur lanetan». Ikus **kambjakór**.

**sanjatu, sañátu** *ad.* (da-du) Aldatu (frantsese-ko *changer*-etik): *Telebisjónja andeátu záu tá behárko dú sañátu.* Luzaideko gutunetan *sanjatu* agertzen da usu. Ikus **aldátu** eta **kambjátu**.

**sanmigél** *iz.* Gaztaina mota bat; ikus **xerto-béltz** eta **xertogórri**.

**sáno** *izond.* Osasuntsua. Ikus **séndo**.

**Santjágo egún** *iz.* Santiago eguna, uztailaren 25a: «Biziki eleganki zarriak tixi, beztituik

- arropa zuri ederrekin; Santiago egunian es-trenatiak tixie. Frantzes hokin gaitzeko ba-tasun haundia ixie». *Santjágotan* ere erra-ten da, data edo garaia adierazi nahi denean. Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969: 172, 191) *santiago* ibiltzen zuen: «Diuria santiagotaco arrap(an)daco eman-ik» 'dirua Santiagoetarako arroparako emanik', «uztailian santiago astiaquin ba-ratia borz aste». Ikus **Jandenaki**.
- sápa** *iz.* Sargoria.
- sarátu** *ad.* (du) Baratzan belar gaiztoak kendu, erein baino lehen. Cf. **jorrátu**.
- sáre** *iz.* Sarea.
- sárgi** *iz.* Sartzea, sarrera.
- sari** *iz.* Saria, ordainketa. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 250): «Bien saria errezibitia 12» . ikus **mezasári**.
- sarisa** *iz.* Satrustegik (1969b: 96) jasotzen du eta 'bastidor de una ventana' adiera ematen dio. Ikus **míttra sasísa**.
- sarista** *iz.* Luzaideko gutunetan kausitu dugu, aldí bakar batez; 'saria'-edo erran nahi duela dirudi: «San Jose egunian ze lanak ibili txun, hainbeste haurren xokolaten xerbitxatzen; untsa mexitia uxu sarista hun bat» (AB). Irudi luke Manezaundik darabilen *saristatu* aditzetik atera dela, zatiketa faltsu baten ondorioz. Ikus **pu-tarkari**.
- sarkor** *izond.* 1- Barreneraino sartzen dena. Zentzu honetan Manezaundik (1990: 99) ibiltzen du lau aldiz: «Erraiten ohi dute idazti pollitenak eta sarkorrenak direla bihotzetik atheratzen zaizkigunak; ez adimendutik eta burutik zentzuz eta zuhurki agerrarazten ditugunak», 2- Go-gorra. MAren gutun batean kausitu dugu: «X-k erran ziaxun erran zazkola zenbait hitz sarkorrak (sic)».
- sarrátea** *iz.* Sar-atera / **sarráte át ín** *ad.* (du) Sartu-atera bat egin: *In díxju ahíde horjén étxean sarráte át*.
- sárrri** *adond.* 1- Gero, 2- Fitexko / **sarríxoño** *adond.* Gerxeago: «Halaike sarríxoño eman behar dixu ardier zaldare puxkat, axuriak ederro in ditzaten» (MA) / **sarrjártjo** Gero arte.
- sártu** *ad.* 1- (da) Barrura joan, barrura igaro, 2- (du) Barrura jonarazi, barrura igaroarazi.

- sáski** *iz.* Zarea baino handiagoko ontzia. Ikus Satrustegik biltzen duen istorioa (1969b: 83). Arotzak ere badakar (Satrustegi, 1969: 197): «Ungarr[i]a sasquiac 48 soro epaiten 2». Ikus **záre**.
- saskíttra** *iz.* Saskikada: *Alórrjan bíldu íxju saskíttrat árto*.
- sasóin** *iz.* 1- Urtarora: *Primadéra Luzáiden sasóin góxwa íxu, eztíxi ez hótzik ez béroik íten*, 2- Eguraldia: «Egun denbora xarra uxu; goiti elurra ari zixin goizian go[ho]tik, bana atsaldeko arindu ixí. Sasoi-na orai in dixi ederra frangore; ze urrita xarmanta» (AB), 3- Uztaldia edo: «Udan juan behar omen dixi Frantziat sasoinain itea, han geio iraziko omen dixi, iten ahal duna inen dixiu» (AB), 4- Garaia, denbora: «Gehezi sasoinian izan tuxu lau senar emaziak; egun batez etxian presentatu zi-txun nik deuse jakin gabe», «...bana arto ereiteko sasoina baitzen jin zuxun X-in etxeat» (MA). Ikus **trénpe**.
- sasóinekwa izán** *ad.* (da) Sasoian egon, sasoi-koa izan: *Záutu nílaik óno gizón sasóine-kwa zúxun húra*. Ikus **trénpe**.
- sásu** *iz.* Sasia, sasia. Irudi du analisi oker ba-ten fruitu datekeela aldaera hau, hots, *sasi + a → sásja → sásu, buru + a → búrja* ereduaren arabera (cf. bizkaierazko *lora* eta Luzaideko bereko **múku**, hemen azal-pena bestelakoa ere izan daitekeen arren).
- sasutéi** *iz.* Sasia.
- sasútu** *ad.* (da) Sasiz bete: *Iháranko péntzja útzi giníxin belárrítetik tá orái arrúnt sasútu íxu*.
- satár** *iz.* Ardien gaitz baten izena da hau ('car-buncó?'): *Árdi hórrek badú satárra / satár zuri*. MAk darabil; ez dakigu xeheki 'sata-rra'-ren erabateko kidea den edo antzeko beste eritasunen bat adierazten duen: «Bospasei ardí ixtanpatez hil zitxun, bate eri ezautu gabe. Lehen Frantzian zelaik be-zala orai hunat jin duxu (*vasquilla*), errai-ten diakoxute eskuaraz *satar zuria*».
- satisfajóne** *iz.* Gogobetea, gogobetetasuna (gaztelaniako *satisfacción*-etik edo fran-tsesek *satisfaction*-etik). Luzaideko eskuti-tzetan *satisfazione* ere agertzen da.
- satisfós** *adond.* Gaztelaniako 'satisfecho' da. Eskutitzetan behin bakarrik ageri da hitz



- hau, tarteko -s- hori gabe gainera: «Etxi iduri hain satifos dela; erran diakoxut “jarriko hiz, ba”, hori bakarrik usatia baita» (AB).
- satór** *iz.* Satorra.
- satór púlo** *iz.* Sator lurra.
- satorrárte** *iz.* Satorrak harrapatzeko artea. Arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 231): «Bi burdina sator arte baten».
- sáuka** *iz.* Intsusa. Cf. *Saukádi*, *Saukatéka* toki izenak.
- sauka lili.** Satrustegik dio (1969b: 59) sendabelartzat ibiltzen dela.
- Saukádi** *iz.* Bakarrik toponimotzat kausitzen dugu egun, baina bistan da ez biziki aspaldian izen arrunta, egunerokoa zela.
- seatu** *ad.* Arotzak darabil, behin baino gehiagotan (Satrustegi, 1969). Arruazukoak dio *xeatu* izan daitekeela (egungo **xehátu** alegia), baina egurra delarik *segatu* ‘zerratu’ ere uler litekeela.
- sedén** *iz.* Hotza, freskua (gaztelaniako *baroja*, *baroji*-ren parekoa da): *Ze sedéna sartzen den bórta hórtak!*
- seetárjo** *iz.* Idazkaria (espainoleko *secretario*-tik, irudi duenez).
- séga** *iz.* Zerra. Beste toki batzuetako *sega* hemen **táilu** erraten da.
- ségazáhi** *iz.* Zerrautsa. Izetak Baztanen (1996: 195) *zerrazagi* bildu zuen.
- ségi** 1- *post.* (datiboa eskatzen du) Ondo-ondoan: *Étxjai ségi baúxu bórdat.* Ikus **datxíko-la**, 2- *ad.* (du) **segítu** aditzaren aginterako forma.
- segída** 1- *iz.* Martxa, erritmoa: «Xuk ixkia xeu-re segidan, gustatzen baitzait anitz xure letrain leitzia» (AB), «horre hemengo segida bera duziela, gaztanbera jastatzen duziela», «ari nuxu lanian, neure segidan» (MA) / **segídan** *adond.* Jarraian: *Béstetan, atsáldjan izáiten txú pilóta partidak éta segídan sóinja herriko plázan.*
- segítu** *ad.* 1- (du): *Benátek úntsa segítzen díxi*, 2- (da): *Zakúrra segítu zjákoxo etxéano* ‘zakurra jarraiki zaio etxeraino’. Cf.: «Errain daxu era jendia segitu den» (AB).
- séhi** *iz.* Morroia edo neskamea.
- séi** *zenb.* Sei; *séira* ‘seina’, *sejeún* ‘seihun’.
- séjortxéko** *izlag.* Lau urteko ardia. Lau urte baino gehiago baditu **zerrátu** erraten zaio.
- séko (hílik) geldítu** *ad.* (da): *Órwaikin zoálaik bapátjan arbólat eróri tá séko hílik geldítu zén; hargína teílátjan lánjan ái zélaik gáinetik béiti eróri tá hán bérjan séko geldítu zén.*
- sékula (éz), sékulan (éz)** *adond.* Inoiz (ez): *Sékula(n) izán xírea Parísen?; etzizté sékula kóntent; sékulan étxeat jíten báda errán behár dazkót zénbait gáuza* (cf. **béine éz, egúndaino éz** ‘inoiz ez’). Alderaketan ere erabiltzen da: *Orái sékula báno hobéki dá aitáti.*
- séllu** *iz.* Zigilua (espainoleko *sello*-tik).
- semátxi** *iz.* Seme besoetakoa: «Fiersko zira, ba, aitaxiturik! Eta bietan ohono, sematxia baizinin!», «ikusten nixin arrotz bat dolidunetan, eta jes!, enixin ezagutzen. Gero oroitu ninduxun senarra zenak bazila sematxi bat Frantzian. Eta ura zuxun!» (Satrustegi, 1961: 225 eta 1969b: 69). Ikus **alabátxi**.
- séme** *iz.* Semea: *Étxe hórtako séme gejeña híl díxu / seméño* *iz.* Semetxoa.
- senár** *iz.* Senarra. Adiera honekin ez da **gizón** erabiltzen. Ikus **gizongái**.
- senargái.** Luzaideko gutunetan agertzen da; ikus **gizongái**.
- senármáztjak** *iz.* Senar-emazteak. MAK *senar-emaztiak* darabil.
- sendátu** *ad.* (da-du) Sendatu, osatu.
- sendatzále** *iz.* eta *izond.* Sendatzen duen pertsona.
- séndi, sendítu** *ad.* (da-du) Nabaritu, sumatu: *Etxít hótzik séndi = etxít hótzik sendítzen; bíhar eztúxu béroik sendítuko.* Ikus **hautemán, hautéman**. Cf. Lizarragaren pasarteño hau (2004: 540): «Ortara goazen orai. Eztut bada nik senti an probetxu ta gusto andirik, diozu (...). Ariman bada ez senti mejoría ta gustorik? (...) baña an senti bada loi-urrin, bekatu-urrin, infernu-urrin, nola senti erregalo gonon ona?». **Sendítu** izenondoa ere izan daiteke; ikus **sendikór**.
- sendi inazi, sendi inahazi** *ad.* (du) Nabariarazi. Luzaideko gutunetan agertzen dira: «Untsa gitxu denak; ni ere orai idurixi hasi nizala hobekitzen, bana erreposki. Juaiten nuxu mezat, Sanpedrotan izan nuxu eta aitzineko igandian. Orai arazi segituko ixit. Biziki sendi inazi diaxu [eritasunak]» (AB), «bana

eztulik ez dixi izan, bana flako gelditu, eta apetituik batez, sendi inahazi diakoxu» (MA).

**sendikór** *izond.* Sentibera. MAK behin *senditia* (*izan*) darabil, adiera honekin.

**séndo** 1- *adond.* Sendaturik: *Lótuko dáuxut mína ta bihárko séndo* ‘artatuko dizut mina eta biharko sendaturik’, 2- *izond.* Osasuntsua (baina **sáno** gehiago ibiltzen da adiera honetan): *Gizón séndwa úxu hóri.*

**sentoria** *iz.* Belar baten izena, gorrina edo elgorriaren kontra ibiltzen dena, Satrustegi (1969b: 59).

**separazjón** *iz.* Bereizketa (gaztelaniako *separación*-etik edo frantseseko *séparation*-etik).

**sérjo izán** *ad.* (da) Egoera serioa izan: *Gérla finítzjan etzén játekoik báte tá órdjan sérjo zén.*

**serjós** *izond.* Serioa (biarnes-gaskoiko *serious*-etik edo honen aldaera zenbaitetarik).

**serjostasún** *iz.* Seriotasuna.

**serjóstu** *ad.* (da) Seriotu, serio jarri, serio bihurtu.

**seróra** *iz.* Moja. *Seróreta jwán* ‘mojetara joan’, *seróretan ibili* ‘mojetan ibili’. Satrustegik (1969b: 43) ‘elizako lanen arduraduna’ dela dio («la encargada de las atenciones de la iglesia», hitzez hitz).

**seúr** 1- *izond.* Segurua (biarnes-gaskoiko *segù*-ren aurreko forma batetik, *segur*-etik; femeninoa *segure* da hizkuntza honetan): *Denbóra séurra úxu egún, ezíxi kanbjátu behár;* 2- *adond.* Seguru / **seúr izán** *ad.* (da) Seguru egon: *Séunúxu hóri hóla déla.* Cf. ABren esalditxo hau: «Seur nuxu bautela garbitzen lana» / **seurre** *adond.* Segur aski, hain segur ere: *Séurre egún atsáldjan eztukéxu Ferranddo jinen / séurreniké* *adond.* Seguruenik ere, hain segur ere: *Séurreniké bhár jwáin gítxu mendírat árdjen eremáitea.* Ikus **haintséur, haintséurre.**

**seúrik** *lok.* Behintzat ( $\neq$  **béden**): *Ní séurik jwáin núxu;* «Aurten ze negu arina duan, onokuan seurik» (AB). Cf. *xúk hóri ín baxinéza béden.*

**seúrki** ( $\neq$  **haintséur**  $\neq$  **seúrik**) *adond.* Espainoleko *desde luego*-edo da: *Lán hóri seúrki*

*úntsa pahátja dá, égja balín badá hainbés-te kobrátzen díla seúrik.* B. Etxeparek (1980 [1545]: 12) darabilen *segurki*-k, berriaz, ‘ziurki’ edo adiera duela irudi du: «Obra honak ukhenen du goaldardona frangoki / Baietare bekhatuak punizioa segurki».

**seúrkitalé** (< *segurki eta hala ere*) *adond.* Bai-ki; gaztelaniako ‘desde luego’: *Balukúxu behárta seúrkitalé* ‘¡buena falta haría desde luego!’. Bordelek *segurki alere* darabil (Satrustegi, 1965: 124); Izetak *segurki alere* biltzen du Baztanen (1996: 211), baina ez du adiera zein den erraten. Ikus **seúrki.**

**seurtámen, seúrtamen** *iz.* Ziurtasuna: *Améiketat jwántzén lán xéka, bána báte seúrtamén(k) gábe.*

**seurtátu** *ad.* (du) Segurtatu, ziurtatu: *Diputazjónjak seurtátu záun sósa emáin záula bíden arrañátzeko.*

**sinétsi** *ad.* (du) Sinetsi. *Gúre Péjok értén dazkóten gúzi-guziak sinésten tú.*

**sinfált** *adond.* Faltarik gabe, oroi-ki: *Kátxu hóri bihárko sinfált!* Ikus **ohíki.**

**sínka** *iz.* Eguzkiak hodeien artean bultza bat berotu duelarik *sínka pollíta* *egin* du erraten da. Ikus **askóri egón.**

**síno** *iz.* Sineskeria, zozokeria: *Háustez íten dén hóri sínwa úxu.* Satrustegik (1963-64: 277) ‘capricho tonto’ adiera ematen dio. Ikus **OEH**-ko *sinu* sarrera.

**sinúntzi** *iz.* eta *izond.* Zozokerietan sinesten duena. Satrustegik (1963-64: 277) ‘melindroso, caprichoso’ adiera ematen dio.

**sitwazjón** *iz.* Egoera (gaztelaniako *situación*-etik edo frantseseko *situation*-etik).

**sjésta** *iz.* Bazkalondoko lo kuluxka (gaztelaniako *siesta*-tik) / **sjésta ín** *ad.* (du) Bazkalondoko lo kuluxka *egin.*

**-ska, -xka** *atzi.* Txikigarria da: *Bidéxka, elaska, eríska – eríxka, eróska, etxéxka, euríska, herríxka, itzúlíxka, langárxka, lokumulúxka, mendíxka, tarrapatáxka, untzíxka.*

**-sko, -xko** *atzi.* Txikigarria da: *Fjérsko, gorásko, goxókíxko, haatásko, haundíxko, húnsko, kontésko, soberásko – soberáxko, ttípísko – ttípíxko, untzásko.*

**só** 1-*iz.* Begirada / **só egón, só gelditu** *ad.* (da) Begira egon, gelditu: *Telebisiójnjai só njók* ‘telebistari begira nagok’, *éni só geldítu dá*

*botíga zikín hóri / sóin ad.* (du) So egin, begiratu. Osagari zuzena onartzen du: *Hítz hóri beatxju sóin libúrjan* ‘hitz hori begiratu behar dixugu liburuan’, *sóik hórri* ‘begira horri’, *étxe hórri sóin dakót úntsa; xáxi só batén ítea (= xáxi kús batén ítea) / sóño iz.* So ttipia / *sóñwat ín ad.* (du) So ttipi bat egin: *Sóñwat ín dakót.*

**soberá adond.** Gehiegí: *Péjo soberá háundja úxu étxe típi hórta sártzeko; Añések soberá ján dú / soberáik adond.* Egún enúxu *soberáik úntsa / soberásko, soberáxko adond.* Gehiegitxo: *Egún soberásko adán dúxu; bárda soberáxko afáldu nján.* Ikus **soberakínik.**

**soberakín 1- iz.** Soberan dagoena. Cf. Luzaidko letretako pasarte hau: «Gaixua! Untsa pena eman diaxu haren etxetik juaitia (sic), iduriz hura dula soberakina». Baztanen ere erabiltzen da (Izeta, 1996: 159), 2- iz. Gehiegikeria: *Hóri soberakína úxu* ‘hori gehiegikeria da’, ‘eso es una pasada’, 3- izond. Izugarri ona edo: «Errezibitu ginixin X-kin igorri paketta, anitz esker mila bien partez. Soberakina xira gaizua eta beti badakixu plazer iten dutela beti behar dien gauza horiek» (MA). Nola sailkatu ez dakigun esaldi hau ere aditu dugu: *Jéndja soberakína járrja úxu* ‘jendea gehiegikeriak egiten ari da, pasatzen ari da’ (xuka) / **soberakínik adond.** Sobera, -egi: *Egún enúxu soberakínik úntsa.* Cf. Arnegiko AAren hau: «Erran behar dauzuz ez nintzala soberakínik untsa osagarriaren partetik, ilabete bat pasa egoniz ez eri handi, bakarrik ez tular batekin (...)». Ikus **soberáik.**

**sofriméndu iz.** Sufrimendua.

**sofrítu ad.** (du) Sufritu.

**sóho iz.** Ikus **sóro.**

**sohopíl iz.** Larreetako garbietan, soiluneetan izaten diren belar tokiak, hesitugabeak; ardiak gehiago ibiltzen dira honelakoetan bestelakoetan baino. Ikus **sohótza** eta **sóro.**

**sohótza iz.** Larreetako garbietan, soiluneetan izaten diren belar tokiak, hesitugabeak. Ikus **sohopíl** eta **sóro.**

**sóin iz.** Ardietan lepoaren gibleko aldea da. Hor tindua ezartzen zaie, besteatarik bereizteko: *Árdi hórjek soinbérdjak díra /*

**sóinjan adond.** Jantzita: *Jwanintxún páltwa sóinjan / sóinjan eréman ad.* (du) Arropa jantzita eraman: *Sóinjan atórra bérrja náman, Manézek kúsi nindílaik.*

**soinburu iz.** Soingaina, sorbalda. MAK darabil; ikus **alargúntsa** eta **sorbálda.**

**soinéko iz.** Janzkia. Ikus **arrópa** eta **beztiménta.**

**soingáin iz.** Sorbalda.

**sóinu iz.** 1- Musika: *Égun baúxu sóinja karríkan.* Ikus **músika**, 2- Soinua edo: *Óllo hórrek báixi klóka sóinja* ‘oilo horrek koloka soinua dixu’. Gaztelaniaz voz erraten denaren parekoa ere izan daiteke; ikus **marránta sóinu.**

**soka iz.** Luzaidko artzak darabil, behin (Saturtegi, 1969: 170): «Urtarrilian soca pare bat». Egun normalki **kórda** ibiltzen da. Cf. dena dela, **sokatíra.**

**sokatíra iz.** Sokatira: *Sokatíran bí ekípak tíraka ártzen txú bí mutúrretaik / sokatíran aizán, hási, ibíli ad.* (da) Sokatiran aritu, hasi, ibili.

**solás iz.** 1- Berriketa. Cf. ABren hau: «Oraiko solasen arabera kafeterare zarri diexu nau-siak», 2- Mintzagaia: «Ni ere juaiten ahal banintz juan nindiaikexu. En fin, ze gozko ilusioniak! Bueno Maria Dolores, solasa kanbia dezatan» (AB). Elkartu batean edo aitzinean genitiboaren hondarkia duela ere ager daiteke: *Úso solása, norbáiten ezkóntzain solása... / solása ibíli ad.* (da-du), *Sanfermínetan Irúñeat jwáiteko solása ibíli íxju;* cf. MAren hau: «Maiaztzian juan behar dixi soldado a Cadiz; hantik duaik Afrikat. Solasa diailexu hunek juan behar din lekia uzten dutela otsailain lehenetik goiti, bana ohono ez duxu seurrrik deuse». Mendeko perpausaren orde, genitiboko osagarria eraman dezake, jakina: *Améiketako ahíden solásak ibíli gíntin jwan dén egíneko afárjan / solása izán, solásak izán ad.* (da): *solása dá áurten gáitzeko bérwa ínén díla údan* ‘erraten dute aurten izugarriko beroa eginen duela udan’, *solása úxu apéz bérrí bát jín behárra déla; solásak txú apégwak kárjo subastátuko djéla / solásjan aizán, egón...e.a. ad.* (da-du) Hizketan aritu, egon: *Irúñeko kúsjak jntzjélaik solásjan pástu ginixin atsálde gúzja.* Mugagabean

ere erabiltzen da: *Solásetan pástu giníxin góiz gúzja*.

**solbezio, solbezio egun** *iz.* Irailaren zortzia; Luzaideko gutunetan ageri da: «Gu denak untsa gituxu, ni marranta haundi batekin, ez hotz delakotz bildia, gaitzeko beruak ari tixi; beti haize hegua gauaz eta egunaz Solbeziotan usaian bezala» (AB), «ni ez nuxu izan Orrian ez Solbeziotan ez Frantsesen egunian» (MA).

**soldádo** *iz.* Soldadua / **soldádo izán** *ad.* (da) Soldadu egon. Cf. ABren hau: «X-ri, soldado baita Irunen, tokatu zakola 180 mil pesetas. Ze soldadogo pollita! Ohituko txu beren denboran anitz soldadoi tokatu zela».

**soldadógo** *iz.* Soldaduska.

**soldáta** *iz.* Soldata. Ikus **jornál**.

**solíbo** *iz.* Gapiroa (cf. biarnese-gaskoiko *soulibeu* eta frantseseko *soliveau*). Satrustegik dio (1969b: 96) ‘vigueta de madera para pisos’ dela.

**sór** *izond.* Gorra. Ikus **elkór**.

**sorájo** *izond.* Hotzarendako, minarendako eta abarrendako minbera ez dena.

**sorbálda** *iz.* Zerriaren aitzineko hanka, jateko denean. Ikus **soinburu** eta **soingáin**.

**sorgín** *iz.* Sorgina.

**sorginkérja** *iz.* Sorginkeria.

**sóro** *iz.* 1- Bigarren ebakialdiko belarra; adiera hau duenean **sóho** ere erraten zaio. Cf., hala ere, pasarteño hauek «Orai ari gitxu sorotan, bana ez gitxi denborak launtzen; bero guti» (AB), «artuake ari tuxu anitz ahanzatzen, izigarriko beruak in tixi; profittatu ginixin soruen iten. Kontent gituxu; in dixiu soroaldeat» (MA), 2- Larreetako garbietan, soiluneetan izaten diren belar tokiak, hesitugabeak; ardiak gehiago ibiltzen dira honelakoetan bestelakoetan baino. Hau errateko **sohópil** eta **sohótza** ere erraten da. Ikus **lárre** / **sórotan aizán** (gehienetan), **sórwan aizán** (zenbaitetan) *ad.* (da), **sórwa ín** (bakanka), **sórwak ín** (normalki) *ad.* (du) Bibelarretan ari izan, bibelarrak egin: «Azindak biziki untsa tuxu aurten; behiake ba, aurten in baita belar eta soro frango. Halaíke sarrixoño eman behar diexu ardiar zaldare puxkat, axuriak ederro in ditzaten» (MA).

**soroálde, sohoálde** *iz.* Soro multzo handia.

**sorroila** *iz.* Satrustegiren arabera (1969: 284) gudiaren sokak tenkatzeko tornua da. Luzaideko arotzak darabil: «Bi nach muturreco burdina bi sorroila» (148). Ikus **orga sorroila**.

**sorseñále** *iz.* Orezta, orina. Barandiaranek dio (1974: 92) Donoziertin *sotsinale* dela. Cf. Txomin Artolak eta Amaia Zubiriak kantatzen duten *Anderea gorarik* abestiaren pasarte hau: «Eskutari jaun bilho urdin faltsuía / hi ote hiz nihaurren lehen semea / altxazak, altxa ezker aldeko begia / ene semeak han baitik sor seinalea».

**sortérri** *iz.* Jaioterria.

**sortétxe** *iz.* Jaiotetxea: *Éne sortétxa Arnéitík Luzáideat arribátu aitzíneko bihurgúne háundi bátjan dúxu*.

**sórtu** *ad.* (da) Jaió: *Gizón húra Luzáiden sórtu zén, bána géro Amériketat jwán éta etzén géjo itzúli*.

**sós** *iz.* Dirua: *Hóla ibíltzen báda sósik gábe geltúko dá beréala; étxi sós baté báljo* ‘ez du deus ere balio’ (= *etxí jéustako báljo*). *Dirua* hitza ez da ibiltzen egun, baina Luzaideko arotzaren kontu liburuan *diuria* maiz agertzen da: «Burusuric diuria eman, lan eta condia eini(c)» ‘Buruxurik (*Buruxurinea* etxeko nagusiak) dirua eman, lan eta kontuak eginik’. **Bisoséko, hogóisoséko** edo **hóoisoséko** ere erabili izan dira, lehena hamar zentimoko espainiar txanpon zaharra adierazteko, eta bigarrena ‘pezeta’ errateko.

**sosálde** *iz.* Dirutza: *Sosálde háundia metátu giníxin*.

**sosdún** *iz.* eta *izond.* Diruduna.

**sóto** *iz.* Sotoa: *Sótwa úk ánwa atxikítzen dén lékja*.

**sú** (*súja* era mugatuan) *iz.* 1- Sua, 2- Larruko pikorrak eta: «Lehenik jartzen txu gorputz guzia suz beteik gorrinekin bezala eta jartzen duxu koloriak sanjatuik, beharriak eta sudurra eta eskuko eriak ubelduik» (AB), 3- Garra, gogo bizia. Cf. MAREN hau: «X han dioxu kontinuan eta haure egon duxu, bana orai ez diakixut eneatzen hasia ote den; ez dixi iduri halako suia dila». Cf. Larrearen pasarte hau (2001: 22): «Anaia Janpier ez ginuen berez bihurria: etxean haurretik kabalak maite zituen eta

- gogotik zoan heien ondotik. Erran deza-  
ket su zuela ere etxeko ala auzoetako ha-  
zindetarat (...)». B. Etxeparek *suian* zera-  
bilen, inesiboan (1980 [1545]: 52);  
gogoan hartu behar da gure lehen idazle-  
ak *-u + -a* beti *-uia* egiten zuela.
- subásta** *iz.* Enkantea (espainoleko *subasta*-  
tik). Ikus **antxára**.
- suburdín** *iz.* Beheko suan egurra aitzina eror  
ez dadin trabeska jartzen den burdina.  
Luzaideko arotzak *-a* itsatsiarekin zera-  
bilen (Satrustegi, 1969: 160, 169): «Su-  
burdina bat zangua berria», «gu[e]rren  
bat bi suburdina erriñatu» (sic), «suburdi-  
na bat arriñaturic». Ikus **sutaitzineko  
burdina**.
- sudúr** *iz.* Sudurra / **sudúrño** *iz.* Sudur ttipia.
- sudurráundi** *iz.* Sudurrandia. Irantzat ibiltzen  
da, batez ere sudur handia duen norbait  
izendatzeko.
- sudursártu** *izond.* Sudurluzea, sartu behar ez  
duen gauzetan ere sartzen dena, ‘metete’,  
‘entrometido’ gaztelaniaz: *Zé sudursártjak  
ziztén zjék besténaz!*
- sudurzilo** *iz.* Sudur-zuloa.
- sugái** *iz.* Sua egiteko gaia: egurra, abarrak...e.a.  
Cf. arotzaren hau (Satrustegi, 1969: 139):  
«Sugaya gaztaina ondo batena».
- sugajálde** *iz.* Sugai multzo handia.
- súge** *iz.* Sugea.
- sugebandil** *iz.* Sugandila.
- sugemuskér** *iz.* Muskerra.
- sugemútu** *iz.* Suge mota bat, itsua omen.
- subhatsak** *iz.* Surako orrikak, formaz pintxetez  
bestelakoak direnak. Luzaideko arotzaren  
liburuan (Satrustegi, 1969: 153, 160, 162)  
«suas pare bat arriñaturic», «suas pare bat  
eracachiric», «suas pare bat arriñatu» kau-  
sitzin dugu. Ikus **pintxétak**.
- súhi** *iz.* Suhia. Satrustegik *suhiya* dakar  
(1969b: 68) eta Etxaidek (1989: 222)  
*súhia*, baina ez dirudi Luzaiden hiru sila-  
batan ebakitzen denik, era mugatuan *súhja*  
erraten baita.
- sukálde** *iz.* Sukaldea. Cf. **sulárda**.
- sukálde xóko** *iz.* Ikus **supaztér**. MAk *sukal*  
*xokua* darabil: «Ez dixie deusen faltaik. X-  
re negu guzia sukal xokuan»; ABk, berriz,  
*sukalde xokuan* ibiltzen du usaian, eta  
behin *sukaldeko xokuan*: «Errain daixut  
plazer haundi batekin errezipitzen tuala  
xure letrak; sukalde xokuan jarrita leitzen  
txit, hoinbeste berrikin eta jakitiaz untsa  
ziztela; gu ere orai mementian untsa gitu-  
xu».
- sukár** *iz.* Sukarra, kalentura.
- sukiléko** *iz.* Subila: *Sújain íteko zártzen dén  
trínko háundja úxu sukilékwa*.
- sulárda** *iz.* Sukaldearen ondoan den gela ttipia.
- sumíndu** *ad.* (da) Gorputz atal bat hozmindu.  
Eskuak-eta sumintzen dira, elurrarekin  
ibiltzean edo arrunt hozturik daudelarik.
- súnda** *iz.* Usaimena: *Zakúr húnek alímaleko  
súnda ík*.
- suntsítu** *ad.* (du) Txikitu, erabat desegin, bi-  
rrindu: *Suntstúko jút!* Bakarrik testuingu-  
ru honetan ibiltzen da. Ikus **xintxirikátu**.
- suntsúna** *izond.* Zozoa, ergela: «Nike jiten ni-  
zalaik Jinkuak grazia emaiten badait,  
errain dauzkitxut; suntsunat zela baniaki-  
xun, bana ez nixin uste hoinbeste» (MA).
- supaztér** *iz.* 1- Beheko sua: *Supaztér bérrja ín  
dáu hargínak*, 2- Sutondoa: *Supaztérrian  
járriko gíra*. Satrustegik (1969b: 28) *su  
bazterra* dakar.
- supazterzilo** *izond.* Sutondoazalea, supazterre-  
an egotea gustuko duena, supazterkaria.
- supítuki** *adond.* Bat-batean: *Osaárriz úntsa  
zéla idúri zín, bána jwán dén igándjan su-  
pítuki híltzén gízázwa*.
- susáldu** *ad.* (da) Behia berotu. Ikus **arkáldu**,  
**iháustu** eta **oháldu**.
- susára** *iz.* Behiaren beroaldia / **susára egón**,  
**izán** *ad.* (da) Behia bero egon: *Béhi adar-  
mótxa susára dá, behár dú estalázi*. Ikus  
**arkára**, **iháusi** eta **ohára**.
- sutaitzineko burdina** *iz.* Su aurrean paratzeko  
burdina. Luzaideko arotzak darabil: «Su-  
taizineko burdina bat» (180), «sutaizineko  
burdina bat eini(c)» (208). Ikus **suburdín**.
- sutei** *iz.* Sutegia. Luzaideko arotzaren liburuan  
ageri da: «Suteico icaza corrosain arriña-  
zen» (Satrustegi, 1969: 188).
- súzko karrósa** *iz.* Lehenbiziko autoei erraten  
eman zitzaizen horrela. Ikus **karrósa**.
- swertátu** *ad.* (da) Gertatu. «Nik uste apez hok  
harritu dien ze sosa bildu zen. Hok jin berri  
hartan hainbeste hil suertatu zuxun!» (AB).
- swérte** *iz.* Zoria (gaztelaniako *suerte*-tik). Ikus  
**xántza** eta **xórte**.

## T

**tablonketa, taulonketa** *adond.* Tabloi bila. Luzaideko arotzaren liburuan «tablonqueta egun bat» eta «taulonquetan egun bat» ditugu (Satrustegi, 1969: 183, 185, 250). Cf. **oholketa**.

**tailárri** *iz.* Tailua zorrozteko harria.

**táilu** *iz.* Segá.

**táilu unguide** *iz.* Satrustegik dio (1969: 284) sega zorrozteko lurrean sartzen den euskarria dela. Arotzak ere badarabail: «Tailu unguide bat alzairaturic» (152), «tailu unguide bat arriñaturic» (160).

**tailugidér** *iz.* Segaren giderra.

**tallari** *iz.* Segalaria. Dokumentazio zaharrea kausitu dugu: «...afronta con pieza de Arostegua o Ariña (...) y con Barda (...) una Borda en Azoleta con una pieza (...) afrontante a pieza de Grazianarena (...) un prado feneral en el paraje o endrezera llamada Errealburu de 5 tallaris» (Aurizko protokoloak, 42, 1878). Ikus daitekeenez, <ll>-rekin idatizirik dago hitza, nahiz egun **táilu** erraten den. Jaurrietan **tallária** hitz arrunta izan da; ikus Artola (2003: 239). Erdaraz **tallador** erraten zitzaion, antza duenez: «Yt un jirado y pieza de maiz traer llamados Landa-andia y Echeberrico alorra afrontante con camino vecinal, heredades de la casa de Bordel, de la casa de Yrauzqueta: yt una borda y prado llamado Gañecoborda y pencea de dos talladores» (Agoizko hipotekak, 3, 458. or., 1851).

**tálo** *iz.* Arto irinez egiten den opila. Ikus **marrakúku**.

**tapátu** *ad.* 1- Estali (da-du): *Ófjan mántaikin úntsa tapátzen núxu hótzik ez pásteko*, 2- Goibeldu (du): *Idúrixí denbóra húnek tapátu behár díla*. Ikus **maskáildu**.

**tapíza** *iz.* Oinpekoa, alfonbra (frantseseko *tapis-etik*).

**-tár** *atziz.* Edozein etxe izenekin erabil daiteke, bertakoa adierazteko: *bordeltár Bordélja* etxekoa, *mañotár Mariñoínja* edo *Mañoínja* etxekoa: *Mañoínjan erósi béhi batí mañotárta erráiten ginjákoxon*; *moxotár Moxóinja* etxekoa...e.a. Oikonimiatik kanpo, ordea, **-ár** nahiz **-tár** ibiltzen dira, noiz nola: *arneítár*, *auriztár*, *baxenabartár*, *baztandár*, *donjandár*, *lasár*, *luzaidár*, *undarlár*, *xuberatár*... Ikus Kamino & Salaberri (2001: 70-71), **-ár** eta **-tjár**.

**tarrapát, ttarrapátt** *iz.* Gauzak lasterregi eta axolagabekiro egiteko joera duena: *Gáuzak tarrápataka íten tínai «ttarrapátt» értén dakóu; hóla íbíltsen dénái erráiten zjákoxo «tarrapát» édo «ttarrapátt»*.

**tarrapáta** *iz.* Euri zaparrada laburra. Ikus **burrústa** eta **eráuntsi / tarrapatáxka** *iz.* Euri xaparrada, euri burrusta ttipia: *Jwan dén údan idórtja izán ginjín, etzín értéko manéran eurík ín, artétan tarrapatáxka átzu, bána gáuza háundik éz*.

**tarrápataka** *adond.* Lasterregi, modu txarrean, erdarazko «aprisa y corriendo». Caminok Aezkoan *ttarrapatta* 'sosegurik ez duen jendea' bildu du (1997: 613). Ikus **tarrapát, ttarrapátt**.

**tarráta** *iz.* Puzkerraren soinua: *Zé tarráta ín dúxín!*

**tarrataile**. Ikus **azantzile** sarrera.

**tartár** (*tartárta*, era mugatuan) *izond.* eta *iz.* Elakaria, solasturia. ABk *tartara* darabil: «Kondatuko dauzkixtu, ba, X tartara horrek».

**tar[x]éta** *iz.* Txartela (gaztelaniako *tarjeta*-tik).

**-tasún** atziz. Izenak sortzen ditu: *Aberastasún, argitasún, azkartasún, edertasún, eritasún, garbitasún, iluntasún, urostrasún, xehetasún...*e.a.

**-táte** buk. Izenetan aurkitzen dugu; inoiz, ozen ondoan, **-dáte** ageri da: *Borondáte, itáte, jakitáte, kaswalitáte, kustáte.*

**-tátu** atziz. Aditzak sortzen ditu; zenbait aldiz *-taratu* bukaera zaharrago batetik atera da (cf. *hortátu –hortaátu, huntaátu, zertarátu –zertaátu*), baina beste batzuetan *-tatu*-n berean bilatu behar dugu etorkia: *Buutátu, deitatu, elgarretátu, eskustátu, gootátu, hegaldátu, ihiztátu, iruzkitatu, okaztátu, orraxtátu, hurtátu, hureztátu, ihiztátu, xikitátu, zikitátu.* Beharbada oinarriko hitzean *t* zuten aditzak eredutzat harturik sortu dirateke, hots, honelakoetan oinarriturik: *Disgústatu → disgustátu, errespétu → errespétátu, fálda → faltátu, gáixto → gaixtátu, trístete → tristátu.* Inoiz atzizkia *-státu* dela dirudi: *Eskustátu, iruzkistátu, saristatu* (ikus **sarista**). Kasu batean *-ztatu* dago (*gudronoztátu*) baina *gudron*-etik abiatzen bagara azaldu gabeko *-o-* bat gelditzen zaigu, menturaz *-e*-tik atera dena.

**tatxátu** ad. (du) Zikindu (frantseseko *tacher*-etik). ABk erabiltzen du: «Listuna frango tatxatu xixi».

**táula** iz. Taula (≠ **ohól**; ikus sarrera hau) (biarnes-gaskoiko *taule*-tik, antza). Gaztagintzan ere erabili izan da (Satrustegi, 1969b: 58).

**taulén** iz. Baratzekari jakin bati eskainitako baratze puska: *Ilár taulén bát eréin dixit.*

**taulér** (*taulér* era mugatuan) iz. Mantala (segur aski biarnes-gaskoiko *taulè*-ren aurreko forma batetik atera dateke, *tauler*-en modu batetik alegia; cf. *taulere* femeninoa). Barandiaranek (1974: 24) *taulier* bildu zuen Donoztirin. MAk *bata* darabil.

**taulinéta** iz. Gau-mahaia. Barandiaranek Donoztirin (1974: 60) *tablo de nita* bildu zuen. Segur aski frantseseko *table de nuit*-etik hartutako forma da hau, euskal aldaeretak bukaerako horzkaria nahasgarrixera bada ere.

**-te** atziz. Denbora, garaia: *Aste, háste, idórte, úrte.*

**teatúlu** iz. Daratulua. Luzaideko arotzak *teatuli* zerabilen: «Teatuli pare bat arriñatu» (Satrustegi, 1969: 215), «teatuli pare bat ausiric eracachi» (ibid., 229).

**-téi** atziz. Ozen ondoan **-déi** ageri zaigu, baina salbuespenen bat ere bada. Tokia adierazten du (< *-tegi*): *Apeztéi, arditéi, behitéi, bizitéi, egurtéi, gasnatéi, gazitéi, haustéi, irindéi, jantéi, komitatéi* (< *komoditate + -egi, -tegi*, menturaz), *koosatéi, lantéi, lusartéi, ollatéi, presondéi, sasutéi, sutei, ungarritéi, untzitéi, xamindéi, xerritéi –zerritéi, zerrandéi.* Ardandéja eta Behorléja etxe izenak dira orain.

**téi** iz. Txerritegia.

**teila** iz. Teila. Ikus **láta, láuza** eta **ohól**. Satrustegik *teila atxikitze*ko *arria* ere biltzen du (1969b: 96) eta erraten teilei eusteko paratzen diren hariak direla.

**teilátu** iz. Teilatua.

**telebisjóne** iz. Telebista (gaztelaniako *televisión*-etik edo frantseseko *télévision*-etik).

**teléfono** iz. Telefonoa (frantseseko *téléphonetik*) / **telefonaka mintzatu, telefonatik mintzatu, telefonaz mintzatu, ad.** (da-du). Telefonoz hitz egin. Eskutitzetan ageri dira: «Atzo kontent ninduxun telefonatik xure mintzuain aitziaz, iduri onduan xintuala, nik ez baitut usaiak izan telefonatik mintzatzeko sekulan, hortako biziki arrotz nuxu», «ono bazitxin hamar egun hemen pasatzeko, bana X-k telefonaz mintzatu ziaxoxun, arrunt berantetsia zutela, beti telefonaka mintzaten, eta deliberatu zixin juaitia» (AB).

**teléfono ukáldi** iz. Telefono deia / **teléfono ukáldi bát ín** ad. (du) Telefono deia egin: *Ezpaxíra jíteen ál teléfono ukáldi bát ín éni.* MAk *telefono ukaldi igorri* dio behin: «Enkas zerbait gerta baladi arte hortan telefona-ukaldi bat igorriko dixit, eta zieke gauza bera».

**telefonátu** ad. (du) Telefonoz deitu, hots egin (frantseseko *téléphoner*-etik): *Teléfono záxoxo ámai ohíki; étxjan nintzálaik kúsjak telefonátu zjájxun erráiteko gúre Améiketa-ko aixkídja híltzéla.*

**téma** iz. Egoskorkeria / **téma izán, ukán** ad. (du): *Zé téma dín mutíko hórrek!* Hitz hau *OEH*-n 'obstinación' itzultzen dute.

**temoso** *izond.* Egoskorra, burugogorra, kasketosoa: *Horrékin etxi diskutitzen ál, temoso háundi bát báita.* Ikus **téma**.

**tenóre** *iz.* Ordua, garaia (espainoleko edo biarneseko *tenor*-etik, irudi duenez): *Zé ái híz hémen tenóre хүntan? Aláintso! Háu deá étxeat jíteko tenórja?; jwáiteazkjóz zasté tenórez* 'joaten bazarete zoazte garaiz', *bazkáiteko tenórja, méza tenórja.* Cf. **MA**-ren hau: «Barkatuko duxu ez tenoreko igortziaz felizitazioniak xure urte betetze-ko, bana biotzez iten xitut, eta agian anitz urtez, Jinko hunak nahi badu».

**tentsione kolpe** *iz.* **MAk** biltzen du: «Ingoitik badakixu izan zila tentsione kolpeat».

**tentsjone** *iz.* Tentsioa (gaztelaniako *tensión*-etik edo frantseseko *tension*-etik): *Medí-kjak tentsjónja hártu zjákoxon.*

**teté** *izond.* Ergela. Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 328).

**-ti** *atziz.* Joera: *Beldúrti, gezúrti.* Cf. *pitóti.*

**tindátu** *ad.* (du) Pintatu: *Ník záutzen dwán bátek hártzen tín libúru gúzjak tindátzen txí.*

**tindór** (*tindórra* era mugatuan) *iz.* Pintorea: *Sémjak etzín estudjátu náí, éta undárrijan tindór sártu zén.*

**tíndu** *iz.* Tindatzeko, pintatzeko gaia.

**tínkátu** *ad.* (du) Estutu: *Kórda hóri tinkátu behár dú, sobéra láxo baitá.* Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969): «Buztarri bat tincaturic» (155), «lardaya tincaturic» (159).

**tínki** *adond.* Estuturik edo: *Kórda hóri tínki atxíki beháuzje, xakúrta eztáin eskápa.*

**típúla** *iz.* Tipula.

**tíraka aizán, hási, ibíli** *ad.* (da) Tiraka ari izan, hasi, ibili: *Sokatíran bí ekípak tíraka ártzen txú bí mutúrretaik, «...orai Elizat juaiteko egunak baitira, beldur nuxu tíraka ote dailan; ageriko gero»* (MA).

**tírála, tírala** *adond.* Eginahalean: *–Zé ái zítzte? –Hémen, tírala lánjan* «Egun izigarriko denbora (t)xarra dixiu, euri eta hortzantz tírala goiz guzia» (MA). Idazle honek pare bat aldiz *tira ala* izkiriartzen du.

**tiran izan** *ad* (da) Mina izan (?): «Gure iloba X-k baixi mutikoñoat; puxkat tiran izan(a), bana orai biziki polliki» (MA).

**tíránta** *iz.* Tiradera (frantseseko *tirant* 'ce qui sert a tirer'-etik?): *Tírántan altxátu út* 'tiraderan gorde dut'.

**tírátu** *ad.* (du) (biarnese-gaskoiko *tirà*-tik?, frantseseko *tirer*-etik?, gaztelaniako *tirar*-etik? Ez jakinki) 1- Kolpea bota: *Ollárrak píkwat tírátu djáxu* 'oilarrak mokoarekin eraso egin dit' edo. Ikus **pikoik tírátu gabé egón**, 2- Erakarri: «Egun zortzi egun atera ginela etxetik; pentsatzen dixit arazi untsa diela, ni anitz ohitzen hemene familiaikin, bana ene xokuak tírátzen», 3- Tiro egin: «Tirazkik petigora iru tiro eta itzaliko huk» (Satrustegi, 1969b: 45).

**tírritérja** *iz.* Zirin kakeria.

**tírtírka.** Satrustegiren arabera (1963-64: 278) honen adiera 'lana beranduagorako utziz joan' da.

**tírúla** *iz.* Tila, belar baten izena (frantseseko *tilleul*-etik?).

**tíruúrútu** *iz.* Haize zurrumbiloa. Ikus **háize-tíru-rítu**.

**títi** *iz.* Bularra, titia.

**títimutúr** *iz.* Titi punta, titiburua.

**títipúnta** *iz.* Titiburua.

**-tjár, -tjér** *atziz.* Irudi du **-ár, -tár, -ljár, -ljér**-en alomorfoa dela: *Afaltjár, afaltjér, bazkaltjár, bazkaltjér, kanpotjár, kanpotjér.*

**-to** *atziz.* Txikigarria da: *Neskáto, nexkáto.*

**tó.** Tori (toka).

**tóka aizán, hási, mintzátu** *ad.* (da) Gizoneki-ko alokutiboa erabiliz mintzatu, mintzatzeko hasi. Ikus **nóka aizán, hási, mintzátu** eta **óixo**.

**tokátu** *ad.* (da) Egokitu: *Áurten etzáit báte tokátu lotería.* Ikus **eróri** sarrera.

**tóki** *iz.* Lekua. **Léku** gehiago erabiltzen da.

**Tolóxa** *iz.* Komunzki Azoletan den *Tolóxa* etxeko nagusia adierazten du, baina ez beti. Izen baten gibelean ezarria delarik erran nahi da eramailea etxe horretakoa dela, baina ez nahitaez etxeko jauna edo etxeko-andrea: *Náti Tóloxa (= Tolóxako Náti); Tolóxésa* *iz.* *Tolóxa*-ko etxekoandrea. Cf. **MA**-ren hau: «Toloxesare egon duxu ba aurtene juan den urtetan bezalatsu, bana orai pasatia dixi». Etxe batean bi bikote direlarik, gazteak eta zaharrak bereizteko *xahárra / gáztja* gehitzen zaio oikonimoaren gain moldatu izendapenari: **Tolóxa xahá-**



- rra, Tolóxa gáztja, Toloxésa xahárta, Toloxésa gáztja.** Ikus Satrustegi (1969b: 184).
- tomáte iz.** Tomatea (espainoleko *tomate*-tik).
- tomateáide iz.** Tomate multzo handia.
- tónto izond.** Zozoa. Gutxi ibiltzen da hitz hau Luzaiden. Ikus **zózo**.
- tórnú iz.** Zama: *Egurtórnja (belartórnja, iatze-tórnja, ungarrítórnja...)* kárrí nǎxin ojáne-tik. Cf. Luzaideko arotzaren hau: «Egur tornu bat ecariric», «as batez tornu bat» (Satrustegi, 1969: 187, 209). Ikus **kárga eta záma**.
- tornu burdina iz.** Tornuaren, lanabesaren burdina. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 188): «Tornu burdina berri bat», «tornu burdina berri bat arriñatu» (206).
- torroskáldi iz.** Masajea, igurtzaldia: *Gerrún-tzetan mín dút éta éa emáiten ál dazún torróskáldi hún bát, bána pollíkiño, kaswí-nez*.
- torroskátú ad.** (du) Igurtzi: *Éta géro ítentzjén, sártzentzjén... leénik torroskátzentzjéntxá-ónaikín, géro emáitentzjéntxúrrjan éta emáitentzítzákon húra gainétik* (F. Camino, Euskaltzaindia, 1999: 110).
- tórtta izond.** Arrautza tolotá, usteldua. Ikus **ttortta**.
- tórtxa iz.** Argizaria, kandela: *Kátxu ermáiruko tórtxa, árgja jwán baitá*. Ikus **ésko**.
- total iz.** Denerakoa, dirua edo beste edozein gauza kontatzen ari garenean. Luzaideko arotzak darabil, behin (Satrustegi, 1969: 221): «Totala pezetac 42,12 sosac». Ikus **denéta, déna** sarrerán, eta **orotat, óro-n**.
- tra (< -tara) atziz.** Neurria, -kada: *Ahútra, besátra, gaitzurútra, kamjóntra, kullératra, orgátra, palátra, pozalétra, saskátra, untzíttra, xixpátra, zakútra, zalíttra*.
- trabailatu ad.** (da) Lan egin. Luzaideko eskutitzetan agertzen da: «Errekoxu eztain sobera trabaila, horren buria anitz gisetan akitzen dela, eta xuke kasu eixu sobera aizán gabe» (AB). Ikus **lán**.
- trabáilu iz.** Lana. Komunzki **lána** erratan da. Cf. ABren hau: «Ikusten dixit untsa ziztela eta lana frangoikin; Don Jose Marike ze trabailia din hoinbeste lanekin eta jende errezi bitzen, eta xuke gisa berian».
- trabátú ad.** (da-du) Behaztopatu: *Amátxi, etxétik atéatzjan, hárrí bátjan trabátú tá mustúpilka eróri zén; hóri kiskún-kaskún míntzo dá eskwáraz, beála trabátzen dá*. Ikus **behaztapátú**.
- trábu iz.** Oztopoa. *Kén xíte trábutik!*
- trágo iz.** Zurrutada / **trágo ín ad.** (du): *Lána finítu íxju tá gwázen trágo atén ítea*.
- tragótu ad.** (da) Mozkorta: *Bárda tragótja jína, eh?*
- traidóre izond.** Iruzurtia, traidorea, saldukeria egiten duena.
- trakásu iz.** Lan handia edo, gaztelaniako *jaleo*. Cf. MAren hau: «Jakiten ahal duxu horien-gatik direla denak. Guk orai gua[u]rendako ez ginikixi holako trakasa beharrik, nahiz X-e hola gustatzen den» / **trakásan aizán ad.** (da) Bihurrikeriak egiten ari izan, lane-ko gauzak nahastan ari izan. Cf. MAren hau: «X untsa duxu bere hartan, buria juana eta elkor, bana trakasan hartzeko tren-pian, bigarren amatxi».
- trakasánt izond.** Bihurria, nahastailea, gaixta-rrtoa. Haurrekin erabiltzen da.
- traktór (traktórra, era mugatuan) iz.** Traktore, nekazari lanetan-eta erabiltzen den ibil-gailua: *Andikórrjan traktór háundi bát erósi bérri úte*.
- tránkil izond.** Lasaia.
- trankíldu ad.** (da-du) Lasaitu.
- trankiltasún iz.** Lasaitasuna.
- tránpa 1- iz.** Eskailburua, mailartea, 2- *izond.* Negozio zikinetan sartua dabilena: *Urdé tránpa zárra!* Irudi duenez gaztelaniako *trampa* hitzak duen adierarekin ('negozio zikina') loturik dagoke. Cf. Juan Cruz Arrosagarairén (Satrustegi, 1967: 113-114) bertso hauek: «Aspaldian diferente / Dituzte kondutak, / Batzuek dira onest / Eta bertziak tranpak. / Estimatzen ditut anitz / Azkeneko notak / jakitiaz tranperiak / Dituztela, ba, kulpak», «Arrazoina bazitaken / Ba, horien artian, / Erreklamatu beharra / Ba zegon aspaldian; / Izanikan ere tranpak / Abil zikanerian / Tronpatuak omen dira / Orai uste gabian». Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 328).
- tranpakérja iz.** Tranpak egin duen azioa. Satrustegik (1967: 113) *tranperia* biltzen du.

**trápa** *iz.* Ardien eritasuna; Izetak dioenez (1996: 166) Baztanen ‘arnasestua’ da / **trapátu** *ad.* (da): *Árdi hóri behárko íxju kén-du, trapátja baitá.*

**trápu** *iz.* Zapi zaharra; hau da eskuarki ibiltzen den hitza, **piltzár** ere ezaguna izanagatik.

**trástu** *izond.* Tresna, trastea, pertsoez mintzatzean. Zentzu txarra du. Cf. MAren aipu hau: «...han ez baitzin berak nahi zinik iten, betiko trastiak baitira. Ofian dioxu geldí-geldia».

**trataméndu** *iz.* Tratamendua.

**tratánt** *iz.* Tratularia: *Jwan dén egúnjan Aurízko tratánt bát jíntzúxun ahátxjain eróstea.*

**tratátu** *ad.* (du): *Étxe hártá jwán ginélaik izí-garri úntsa tratátu gíntxjen.*

**trátu** *iz.* Tratua, saleroste egiunea.

**tratulant** *iz.* Satrustegik biltzen du (1969b: 97) eta dioazienda tratularia dela. Ikus **tratánt**.

**trébe** *iz.* Trebea, iaioa.

**trebetasún** *iz.* Iaiotasuna.

**tréfla** *iz.* Hirusta (frantseseko *trèfle*-tik).

**tréin** *iz.* Trena (frantseseko *train*-etik): *Tréin-jan jwánúxu Paríseanó.*

**trenkasega** *iz.* Arpana edo trontza-zerra, Garmendiak dioenez (1969: 224).

**trenkátu** *ad.* (da-du) Eten (biarnes-gaskoiko *trencà*-tik): *Indárka aizán txú tá kórda undárrjan trenkátuxú.* Ikus **korropílwa trenkátu**.

**trenpáldi** *iz.* Bustialdia. Ikus **bustiáldi**.

**trenpan atxíki** *ad.* (du) (biarnes-gaskoiko *trempe*-tik edo frantseseko *trempe*-tik). Gaztelaniako ‘tener a remojo’, ‘poner a remojo’ da: *Marlúza trénpán atxíkixjú* ‘bakailaoa uretan izan dugu’ / **trenpan izán** *ad.* (da) *Izérdi trénpán níntxun sukár harékin* ‘izerdi patsetan ninduxun sukar harekin’. Ikus **izérdi** / **trenpan zárri** *ad.* (du) Gaztelaniako ‘tener a remojo’, ‘poner a remojo’ da: *Ilárrak trénpán zárri txít.*

**trenpátu** *ad.* (da-du) Zipatu, pelatu, pela-pela egin (biarnes-gaskoiko *trempe*-tik edo frantseseko *tremper*-etik): *Izérdjak trenpátja núxu; sanfermínetan lejótik húra botátzen dúte tá ázpján harrapátzen duténa arrúnt trenpátzen dúte.* Ikus **mullítu** eta **pelátu**.

**trénpe** *iz.* Gorputzaldia, gogoia (cf. espainoleko *temple*): *Trénpe txárra dú.* Ikus **trakása** / **trénpe txárrjan izán** *ad.* (da): *Banjáxu ófeat, trenpe txárrjan bainíz / trénpjan aizán* *ad.* (du) (Euria) gogor egin: *Atzó eurja zé trénpjan ái zín!* / **trénpjan izán** *ad.* (da) Sasoian, indar betean egon: *Trénpjan núk* ‘sasoian nago’. Ikus **sasóinekwa izán**.

**trenpetxártu** *ad.* (da) Alditxartu (cf. espainoleko *estar, ponerse de mal temple*): *Bazkáiten ái zélaik trenpetxártu zúxun tá behála híl.*

**tresondagarri** *izond.* Desohoragarria. Satrustegik (1963-64: 279) biltzen du.

**trikóta** *iz.* Jertsea edo artilezko edozein gauza (biarnes-gaskoiko *tricòt*-etik edo frantseko *tricot*-etik).

**trípa** *iz.* Tripa (biarneseko *tripe*-tik, frantseko *tripe*-tik edo espainoleko *tripa*-tik): *Ohítzen níz étxe hártako gizón zahár hárek zé trípa háundja zín / trípako mín* *iz.* Tripako mina. Ikus **mín**.

**trípa salda** *iz.* Satrustegik (1969b: 56) biltzen du eta honela erraten: «A veces, mandan caldo de morcilla (*trípa salda*), a determinadas familias. Se calienta, le añaden sopicones, y resulta un plato muy agradable».

**tripajóko** *izond.* Anitz jatea gustatzen zaiona. Ikus **tripáundi**.

**tripáki** *iz.* Ardien tripekin egindako salda.

**tripáundi** *izond.* Sabel handikoa, asko jatea gustuko duena. Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 328). Ikus **tripajóko**.

**tripóso** *izond.* Tripandia.

**tripóta** *iz.* Odolkia.

**tripustél** *izond.* 1- Iraintzeko ibiltzen den hitza, iraindua tripandia izan edo ez izan; ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 329): *Háuxilík, urde tripustél zárra, etzákala hólako zozokérjaik errán!*

**tristátu** *ad.* (da-du) Triste jarri.

**tríste, tríxte** *izond.* eta *adond.* Triste, tristea: *Tríste zúxun Kattalín étxeat jíntzélaik.*

**tronpátu** *ad.* (da-du) Atzipetu, engainatu: *Arrazóin, dúxu, arrún tronpátu núxu. Enganátu* baino gehiago ibiltzen da hau.

**troska** *iz.* Luzaideko arrotzak darabil (Satrustegi, 1969: 182): «Trosca aterazen egun bat». Arruazukoak (284) ‘rosca’ dela dio, eta

- hori da *OEH*-n biltzen den adiera, baina badaiteke, *toska* izatea.
- troxátu** *ad.* (du) Haurrari oihalak ezarri.
- trúnko** *iz.* Enborra.
- tsu** *atziz.* Gutxi gorabehera: *Berdínsu, bértsu, bezálatsu, holátsu, lehéntsutik, núntsu, zaintsu...*e.a.
- Ttálo** *iz.* Pekotxetako *Ttalóinja*-ko nagusia batez ere, baina bertako beste norbait ere izan daiteke. 1863ko zerrendan (Satrustegi, 1969b: 94) *Talo* ageri da etxe izentzat (ustez).
- ttánta** *iz.* Izeba (frantseseko *tante*-tik).
- ttarrapátt.** Ikus **tarrapát.**
- ttattóla** *iz.* Etxola txar bat. Ikus, honen inguruan, Satrustegi (1969b: 18, 97 eta 1970: 99).
- ttiliki-ttalaka** *izond.* Satrustegiren arabera (1963-64: 279) ‘fundamentu gutxiko gizona’ da.
- ttánta, ttinttáño** *iz.* Xortaño ttipia. *Tanta* hitza ez da erabiltzen; *ttánta*-k, berriz, ‘izeba’ erran nahi du, ikusi bezala.
- ttípi** *izond.* Txikia / **ttíþjan** *adlag.* Txikitan, haurrean: *Ní ttíþjan izígarrí mutíko peéstja níntxun.*
- ttipísko, ttipíxko** *izond.* Txiki samarra: *Áuto hórí enétako ttipíxkwa úxu.*
- Ttipittwa** *iz.* Gaindolako *Ttipittóinja*-ko nagusia, edo etxe bereko beste norbait; **Ttipittósa** *iz.* *Ttipittóinja*-ko etxeoandrea.
- ttipítu** *ad.* (da) 1- Txikitu: *Gáixo maztéki hórí nóla ttipítu dén zahártzan!*, 2- Gutxitu ( $\neq$  **emendátu, haundítu**): *Sósa ttipítu zjáuxu azkárki étxe bérrja eróstjan*; Cf. MAREN hau: «Hoinbeste denbora zor nila letra eta naski biga, fontsian berdin balio baitu. Orai ja lanak ttipitu baitira» / **ttipítja izán** *ad.* (da) Bukatu hurran egon, eduki; cf. MAREN hau: «Orai ilar biltzen, biziki denbora ederrak tixiu, ja ttipitiak tixiu».
- ttirríla** *iz.* **Xirríxta** baino meheagoko xurruxta (ikus **xirríxta, xurrústa** eta **zurrústa**).
- ttjúnnta** *iz.* Txorien txioa.
- ttjúnntaka** *adond.* Txioa / **ttjúnntaka aizán, hási** *ad.* (da) Txioa aritu, hasi: *Xórjak denbóra húna hautemáitjaikin hásten txú ttjúnntaka.*
- tto** *atziz.* Txikigarria da: *Jáuntto, nekátto.*
- ttonttoabíl** *izond.* Zozoa irudi duena baina ez dena: *Kasúmaxú ttonttoabíl horrékin, idúri dú zózwa, bána etxú báte hála.*
- ttortta** *izond.* Ttuntuna?, larderia gutikoa? ABren gutunetan kausitzen dugu: «Haurrak hirauk jauiten txu eskolat; X biziki kontent jauiten duxu maestra ttortta hune-kin, nahi bade erakutsi etxi biziki haur mutiko eta neskat[o], hoita hiru lau». *OEH*-n Lhandek biltzen duen ‘molle’ adiera ematen zaio, pilotaz mintzatzean. *Torta* sarrean, berriz, *Gure Herria*-tik ateratako pasarteñoa hartu dute, non, ikusten den bezala, izenondoa pertsona bati aplikatua baita. Ikus **tórta**.
- ttorttóil** *iz.* Usapala. Garbi dago mailegua dela, baina ez dakigu zein hizkuntzatatik hartua den (*Streptopelia turtur* izen zientifikoa, *tórtola* gaztelaniaz, *tourterelle* frantsesez, *tourte, tourtére* biarnes-gaskoiz). Salaberri Ibarrolakoak (1856: 166) *tturtterela* dakar.
- ttottáño** *iz.* Xorta ttipia. Ikus **xórta, xortáño** eta **xortíla**.
- ttótto** *ad.* (da) Jarri, eseri, haur hizkeran: *Ttótto xíte hór* ‘exer xaitez hor’. Zetaz (1996: 167) adiera bereko *ttutu* biltzen du Baztanen.
- ttúku-ttúku.** Hots hitza: *Kattalín, ttúku-ttúku, Kattalín ariná, zónbana sáltzen dúzu, dózzena sardiná?* (*Pasaiaiko herritik bertsoaren airearekin*).
- ttúla** *izond.* Energiarik gabeko pertsona, ernea ez dena, Duhauk (2003: 393) dakarren ‘personne sans énergie, pas dégoûdie’ bera: *Zé jénde ttúla hórjek, ezttira neháte higítzen!* Satrustegik (1963-64: 279) ‘de poco fuste, poca cosa’ adiera ematen dio. Cf., gainera, P. Larzabalen hau (1991: 162): «Bakea emazu, xoro ttula, zu!... Ez da, bi besoak kurutze biziz, sortzen etxean neguko xingarra».
- ttunttúr** *iz.* Konkorra.
- tturríndu** *ad.* (da) Porrot egin: *Gizón hórí tturríndu dá.*
- tu** *atziz.* Aditzak sortzen ditu: *Aitatxítu, aitzínátu, famíljátu, hobekítu, pollíktu...*e.a.
- tú** *iz.* Listua / **túja bóta** *ad.* (du) Listua bota.
- tuasa** *iz.* Arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 170): «Errezibitu bi tuasa lauza». Euskaltzain zenak ez du adiera zehazten, eta *OEH* Arruazukoarena jasotzera mugatzen da, erranahia argitu gabe. Irudi du neurria

dela; gu Nafarroako erdal dokumentazio zaharrean *toasa* ikusiak gara, oker ez ba- gaude, hiztegieta kanonizatu ez badugu ere.

**tuberkulosis** *iz.* Tuberkulosia (espainoleko *tuberculosis*-etik). MAk *tuberkulosa* du (frantseseko *tuberculose*-tik): «Izan ziauzkitxu behien mihatzialiak tuberkulosaindako».

**tújo** *iz.* Hodia (frantseseko *tuyau*-tik). Cf. MA- ren hau: «X duxu han, bana deusez itekoik, zintzur guzia hartia. Orai ja behar omen diakoxute, deuse itekotz, moztu eta tuiua ezarria, eta horire gauza trixtia, eta makur- ro dena, bera ez konformatzen, adsolutoki sendatu nahi».

**tulúnta** *iz.* Behietan ibiltzen den joare handia, dunba. Ikus **kláska**, **kláxka**.

**tunba** *iz.* Hilobia. MAk *tonba* darabil: «Omia Saindure pasatu zuxun untsa; ezarri nitxin xure tonban liliak beti bezala», baina ABk *tunba* du. Ikus **hilárrri**.

**túnpa** *izond.* Inoxoa edo: *Á gáizo túnpa hí, iká- siko úk, bá, denbóraikin!*

**tupéta** *iz.* Kopeta (ez gorputzekoa): *Zé tupéta dín hórrek!* ‘zer kopeta duen horrek!’. Cf. frantsesezko *il a un toupet!*

**tupetáundi** *iz.* Kopetandia, kopeta handikoa: *Páha zák erróndat béden, urdé tupetáundja!*

**tupín** *iz.* Jendearendako erraten da, sakre mo- duan edo. Cf. beste alderdi batzuetako *kai- kua*. Ikus **Atxétatupínak** eta **dupín**.

**Turbúru** *iz.* Azoletako *Turbúrja* etxeko nagu- sia, edo bertako beste norbait; **Turburúsa** *Turbúrja*-ko etxekoandrea. MAk hasieran bokala duen aldaera darabil, oikonimoaren kasuan: «Iturburuko Mikaelak baixi ba mutila, hor dutena bulta huntan, Sunbilla- koat, lehen Barberainbordan egona».

**turnatu** *ad.* Itzuli, bihurtu (biarnes-gaskoiko *tourna*-tik, antza). Satrustegik (1969b: 76) biltzen du: «Mutíl egon zen etxean saski bat maats ebatsi zila eta hura turna zezaten».

**túrri** *iz.* Iturria: *Túrri hóri agúrtxú; eurín díxi anítz tá túrritik húra hélduxú burrústan.*

Halarik ere, erranairu honetan *itúrri* ageri da: *Góiz górrri, átseko itúrri*. Ikus, orobat, **Turbúru**.

**turrústa** *iz.* Txorroa. Ikus **burrústa** eta **xirríxta**. **turtxwín** *iz.* Mandarra.

**tutúla** *iz.* Mototsa. Ikus **buruko** eta **motto**.

**tutúlu**, **ttuttúlu** *izond.* Eritasun baten ondorioz ahul gelditu dena eta burua ezongi duena / **tutúljan izán**, **ttuttúljan izán** *ad.* (da) Bu- rrua fier ez izatea, tutuluturik, ttuttuluturik izan: «X berrize puxkat tutulian; orai juan beharrak gitxu biak berrize Iruñeat medi- kurat» (MA). Arizkuneren ere *tutul dago* erraten delarik norbait ongi ez dela, franko eri dagoela adierazten da.

**tutulútu** *ad.* (da) Eritasun baten ondorioz ahuldu edo burua ongi ez izan.

**txamindeiko oial** *iz.* Satrustegik biltzen du (1969b: 28); ikus **bxamindéi**. Bitxia da ha- sierako *tx-* hori Luzaideko hizkeran; Arruazuko euskaltzaina zenak behin baino gehiagotan idazten du *tx*-rekin berez *x-z* hasten diren hitzak.

**txár** *izond.* 1- Txarra, ona ez dena, 2- Txikia: *Xakúr txár bát harrapátu nín ótwaikin; óllo txárra béti ollánda* (erranairua; ikus Intza, 1974: 161). **Xár** ere erraten da.

**txarpíl** *izond.* 1- Txar antza, 2- Ttipi antza: *Erósixít aizkóra bérri bát, bána txarpíla, tá wái ohártzeníz haundjógwa behár nílá.*

**-tza** *atziz.* 1- Lanbidea, batez ere *-gin* atzizkia duen hitz bati eransten zaionean: *Hargín- tza*, *peontza*, *zurgíntza*; ikus **-go**, 2- Ekin- tza: *Eskáintza*, *ezkóntza*, *galdíntza*, *lain- tza*, *ohíntza*, *zántza*, 3- Lekua: *Egoitza*, *ohantza*, *sohótza*. Ez dakigu atzizki hau duen *elúr zapáltza*-k; ez dakigu, ezta ere, *arráintza* zein sailetan sartu.

**-tzapén** *atziz.* Izena sortzen du: *Ohitzapén*.

**tzár** *izond.* Zarra, saiztoa. Sakreetan-eta ibil- tzen da. Ikus **zár**.

**-tzia** *atziz.* Bakarrik bi hitzetan aurkitu dugu: *Buítzja* (*buítzjaik ezín ín*), *zuhúrtzja*.

## U

**ubéldu** *ad.* (da) Ubeldu: *Alimáleko kólpja hártu út bégjan tá arrúnt ubéldu záit.*

**ubeldúra** *iz.* Ubeldura. *Kólpe át hártu óndwan atéátzen déna.* Ikus **uspél.**

**úda** *iz.* Uda, udara.

**udáre** *iz.* 1- Udarea, 2- Udareondoa.

**udáreóndo** *iz.* Udare arbola.

**udi, udiri** *iz.* Garmendiak dio (1969: 223) *udiria* uztarriak erdian duen zuloa dela, Gipuzkoako Beterrin *kurteriantzako zuloa* deitzen dena. Luzaideko arotzak «buztari udi berri bat», «buztari udiria ezarriric», «buztari udi berri bat» du (Satrustegi, 1969: 154, 213, 226). Ikus **buztari udi, buztari udiri.**

**Udiri** *iz.* Ondarrolan den *Udirínja* etxeko nagusia, edo bertako beste norbait; **Udirisa** *iz.* *Udirínja*-ko etxekoandrea.

**úfa** *iz.* Putza (ahoarekin egiten dena). Ikus **pútz / úfa ín** *ad.* (du) Putz egin (ahoarekin): *Íkoxo úfa sújai eztáin itzái.*

**ufáka** *adlag.* Puzka / **ufáka aizán, hási** *ad.* (da) Puzka ari izan, hasi: *Añés sújai ufáka ái dúxu.*

**uhál** *iz.* 1- Uhala, uztarriaren lotzeko ibiltzen den larruzko soka, beste toki batzuetan *hede* deitzen dena. Garmendiak (1969: 223) *ubala* dakar. Ikus **héde**, 2- Gerrikoa. Ikus **gerríko.**

**uháno** *iz.* Zakuetan-eta erosten den ongarría, ez aziendek egiten dutena.

**uhérri** *iz.* *Anitz euríten dílaik bídetan jéusten djén úr zurrústak dirá uhérrjak.*

**ukái** *iz.* Eskumuturra. ABk *ukarai* darabil; Etxaidek ere (1989: 144) *ukaraja* biltzen du.

**ukáldi** *iz.* Kolpea: *Alimáleko ukáldja emántzakón makílaikilán.* Elkartu franko sor-

tzen ditu hitz honek: *Adarrukáldi, aitzurrukáldi, arrestelukáldi, burukáldi, esku-káldi, haizeukáldi, harriukáldi, makílu-káldi, teléfona ukáldi, xixpaukáldi...*e.a. Cf. MAren hau: «Begitik operatia baita, tapatia dixi; gaizua, ze ukaldi itsusi izan din!, zer pasatu baitare, Joakina beldur duxu zerbait bulta izan ote din».

**ukáldika aizán, hási, íbili** *ad.* (da) Kolpeka ari izan, hasi, ibili.

**ukán** *ad.* 1- (du) izan: *Létrat ukán dút* 'eskutitz bat jaso dut'; *gúre áuzwak háurra ukán dú* (haurrak beti *ukaiten* dira. Cf. **érdi**), 2- (da) izan: *Iruñen ukának gitúk* (= *Iruñen izának gitúk*), 3- (du) Jaso, errezibitu: *Jwandén hi-láitjan létrat ukán ginín Parísetik.* Ikus **errezibítu** eta **izán.**

**ukánki** *ad.* **Ukán** aditzaren aldaera hanpatua. Ikus Iñigo & Salaberri & Zubiri (1995: 292).

**ukóndo** *iz.* Ukalondoa.

**ukúr** *adond.* Makur, oker / **ukúr egón, íbili, ízan** *ad.* (da): *Gázte dénboran gizón azkárra zén, bána wái ukúr íbiltzen dá.*

**ukúrto** *ad.* (da) Makurtu: *Ukúr xité papérrorren bíltzea.* Ikus **makúrto.**

**úli** *iz.* 1- Eulia, 2- «El hombre que se diluye en faenas de mujer» (Satrustegi, 1969: 83) / **ulia bezala izan** *ad.* (da) Anitz izan (esam.): «Españolez inguratuik jin ninduxun eta atentzione haundiekin; jeustian treinetik maleta berek jeutsi ziaxien eta nihaure ba. Española ulia bezala bauxu nunai» (AB).

**ulibéltz** *iz.* Eulibeltza, beltzulia.

**ulítx** *iz.* Eltxoa.

**úme** *iz.* 1. Umea, 2. Kumea. Ikus **háur** eta **kúme.**

**umekór** *izond.* Umezalea: *Árdi umekórra.*

**uméuntzi** *iz.* Umea egiten den lekua. Ikus **gopór** eta **kadána** sarrerak.

**úmi** *izond.* Hezea: *Belár hók úmi tuk* ‘belar hauek heze zeudek’, *xukáodor háu úmi úxu, behárko ixju sañátu* ‘eskuoihal hau heze duxu, aldatu beharko dixugu’.

**umidáde** *iz.* Hezetasuna.

**umíl** *izond.* Apala: *Gázte dénboran zernái espántuka ártzen zúxun, bána Améiketa jwán ta hántik umíl-umíla itzúli zúxun.*

**undár** 1- *izond.* Azkena: *Hók túk étxjan tún undárrak,* 2- Hondarra, edozein gauzaren bukaera edo: *Káfíain undárrak bóta txít.* Cf. gutunetako pasarteño hau: «X ukan [t]zuxun atsalde atez xure etxian undarren garbitzen» (AB) / **undárrjan** *adlag.* Azkenean (**azkénjan**), **undárreko** *izlag.* (**azkéneko**): *Undárreko aldíz osébain hilárjoan ikúsi nín kúsja; undárreko áldjan gúre kúsi húra ikúsi giníxin / undárreko adlag.* (**azkéneko**): «Ahantxu erdia pahatia dixiu eta bestiaz ez gitxi prisatzen, intresa pahatu eta, bana Jinkuak nahi badu behar ginikixi urte hunen undarreko pahatu» (MA) / **undárrekotz** *adlag.* Azkenerako (**azkéneko**): *Undárreko ez ginjáixun zé ín tá hólola útzi giníxin* ‘Azkenerako ez genekixun zer egin eta bere hartan utzi genixun’ / **undárrik** (**azkénik**): «...lehenbiziko astian nexkato gaztiak eta bestian emazteki erdaldunak, españolak eta gizon eskualdunak, eta mutiko gaztiak elgarrekin, eta undárrik eskualdun emaztekiak eta gizon españolak» (MA).

**undarlár** *iz.* eta *izond.* *Undarla*-koa, Ondarro-lakoa.

**undértze** *iz.* Hondoestea, ipurtestea. Baztanen *ondoertze* erratan da Izetaren arabera (1996: 141).

**ungárrri** *iz.* Ongarria.

**ungárrikéta** *iz.* Ongarriketa, ongari bila joatea: *Bíhar díxju ungarrikéta / ungarrikéta iblí, jín, jwán...*e.a. (da) Ongari bila ibili, etorri, joan...e.a.: *Iblí gitúk egún gúzjan ungarrikéta.* Luzaideko arotzarenean «ungarriquetan ba(t)» dago (Satrustegi, 1969: 196).

**ungárriméta** *iz.* Ongarri meta.

**ungárritéi** *iz.* Ongarrikuntzea, ongaria gordezteko tokia.

**ungárritórnú** *iz.* Ongarri zama. Ikus **tórnú** eta **záma.**

**ungíde** *iz.* Ingudea: *Táilja ungidjain gáinjan zárri tá martáilú batekín pikátzentzúxun.*

**unione** *iz.* Batasuna. Eskutitzetan ageri da, behin: «Agian ukain dixie grazia elgarrekin luzaz bizitzeko, bake eta unionian. Fite igorriko txie, ba, berriak» (AB). Ikus **bata-sun.**

**unkáilu** *iz.* Ongailua: *Olígwan baatxúri bát zárri, fritátu tá gáinetik botátzentzakóna, sáldai.*

**úntsa** *adond.* Ongi. Mailakatzailea ere bada: *Úntsa akítjak gítxu, ojánian aizán óndwan.* Etxaidek (1989: 268) *ontsa níz* bildu zuen, baina ez azentuaketa ez *ontsa* forma dira Luzaidekoak. B. Etxeparek (1980 [1545]: 10) *hongí darabil / untsáño adond.* Ongitxo, ongixko.

**untsalaik** *adond.* Untsalaz. MAk darabil, bitan: «Egun xure urte betetzia, untsalaik egun hor behar zixin izan [letrak], bana ikusten duxu ohitu nizala halaik», «emain dazkottxu erremesiamendiak ene partez; untsalaik niaurek ixkiatu behar niakoxun, bana baitakit ene berriak biek jakiten tziela».

**untsálaz** *adond.* Ahal bada, ahalbaz, ahalaz: *Behár ginikék huntsálaz Irúñeat jwán; lán háu untsálaz hóla behár ginikixi ín.*

**untsáski** *adond.* Aski ongi.

**untsásko** *adond.* Franko ongi.

**untsátu** *ad.* (da) Onera egin, sendatu. Cf. MAren pasarteño hau: «Bidarteko Anastasia untsatia duxu, abiatia duxu mezan; Aña Marire polliki». Ikus **hobekítu** eta **pollikítu.**

**-úntzi** *atziz.* Joera duena, *-ontzia.* Adjektiboak sortzen ditu: *Elúntzi, fartzúntzi, pestúntzi, sinúntzi, urgulúntzi.*

**úntzi** *iz.* 1- Ontzia, 2- Itsasontzia; ABk barkoz darabil behin. Salaberri Ibarrolakoak ez du biltzen / **untziño** *iz.* Ontzi txikia / **untzík-ka** *iz.* Ontzi txikia.

**untzitéi** *iz.* Ontzitegia: *Untzitéja dá azíten atxikítzeko paétan zártzen dén mwéblja, bána éz xurrútain gáinjan zártzen déna.*

**untzítza** *iz.* Ontzikada: *Kárrri zutéen untzítzat ésne.*

**uráunka** *adond.* Fite (pertsoneendako ibiltzen da): *Uráunka haundítu* ‘fite handitu’, *mutí-*

- ko hóri uráunka haunditzen ái dúxu.* Cf. E. Etxamendiren hau (1988: 39): «-Zer diok Xaixtian? / -Deusez! / -Ze deusez? Haunditzen seuriq ari hiz hur-hagunka!».
- urbíde** *iz.* Ubidea, pentzeetara ura eramateko egiten ziren bideak. Luzaideko arotzak ere badarabil, behin baizik ez bada ere (Satrustegi, 1969: 135): «Sei santel ize berr[i] urbideko». Arruazuko euskaltzainak dio (285) ‘conducción de agua’ adiera duela.
- urdandei** *iz.* Zerritegia. Satrustegik biltzen du (1963-64: 277, 280).
- urdé** *izond.* Zerria. Beti sakretako ibiltzen da: *Urdé astapítwa!, urdé háundja hí!, urdé kabróna!, urdé madarikátu zár zikína!, urdé madarikátu zikína!, urdé méntsa!, urdé pikalapórta!, urdé pítwa hí!, urdé nahási zikína!, urdé nahásja!, urdé urdía!, urdé ustéla!, urdé ustéldja!, urdé zár zikína!, urdé zárra!, urdé zikína!, urdé zikíro buzítan(a)!, urdé zózwa!, urdía!, urdía aláin urdía!, urdía aláina!* Ikus Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 329) / **urdía bezáin fáłtsja izán** *ad.* (da) (esam.) Arrunt fáłtsua izan, arrunt zuria izan: *Urdía bezáin fáłtsjak tík hórjek, ehíz hétaz fidátzen ál!* Ikus **zérri**.
- urdekátu** *ad.* (da-du) Zerritu, kakaztu: *Arrúnt urdekátwuik jínztíra bórdatik égun* ‘zeharo kakazturik etorri zara bordatik gaur’; *sanfermínetan jéndjak urdekátwik íbílzten txú.* Ikus **fundikátu**. Izetak (1996: 142, 173) *orakatu* eta *urdetu* biltzen ditu, izateko erranahiarekin.
- urdekérja** *iz.* Zerrikeria. Ikus **zerrikerja**.
- urdín** *izond.* Beltzantza: *Átzo árdi urdín bát erósi nján Aurízko férjan, bílo urdína* ‘bilo xuria eta beltza nahasirik dituen, baina franko iluna’. Ikus **blú**. Satrustegik (1969b: 85) etxeaz diharduen Maren ondoko pasarteño hau bildu zuen: «Etxea urdinago geldituta ere, bildu, bildu... denbora txarraikin ezin da bildu ta», eta honela itzultzen: ‘Aunque lo de casa quede a medias, es preciso recoger, recoger... que con mal tiempo no hay quien recoja’. Dena dela, bukaerako *ezin da bildu ta* hori, kausazko menderagailu hori, arrotza da Luzaideko hizkeran.
- uréste** *iz.* Uholdea; cf. **húr**. Uharte Garaziko KBen letra batean *hurestek* ‘uholdeek’ age-

- ri da, *h*-rekin. Manezaundik (1990) *uhaste* ibiltzen du: «Bat bathian, burrunban leher eta zaphart egiten die harrokan bidiari hurbil, eta izigarriko gohoratasunerat altxaturik, dena hagunez xuritu, uhaste batek bezala bazterrak estaltzen ditik» (87), «zerbaitek edo norbaitek erderaren uhaste horri ez balinbadu zalhukara oraidanik zedarrí azkar batekin ihardokitzen, ephelaburrik barne xahutuko eta suntsituko da gure eskuara maitia» (152-153). Aintziburu & Etxarrenek (2002: 88) *uraste* darabilte: «1927-ko Andredena Mariz, beraz agorriaren 15ean, beti bezala Donibane Garaziko bestak ziren. Haatik egun hartan izigarriko urastea izan zen gure eskualdean. Geroztik ukan ditugun erauntsiak ez dira izan ordukoaren idurikoak, hurbiltzekorik ere eta funtsean hobe guretako».
- urgúlu** *iz.* Harrokeria / **urgúlutan sártu** *ad.* (da) Harrotu, harropuztu: *Pító háundi hóri lotérja eróri zítákonetik urgúlutan sártja dá.*
- urgulukérja** *iz.* Harrokeria.
- urgulúntzi** *izond.* Harroa (≠ **hárrro**): *Zé urgulúntzja dén mutíko hóri!* Duhauk Beskoi-tzen (2003: 395) *urgulutsua* biltzen du. Ikus **fanfarrón**.
- urín** *iz.* Urina, koipea: *Léhen íbílzentzutén urín gazgábja erremédjotako, óllo kákaikin nahásik, erredúren kóntra / urinéko* *iz.* Ikus **lómo**.
- urinbrox** *iz.* Satrustegik ‘(bilgor) zopa txigortuak’, ‘migas tostadas’ dela dio (1969b: 30). Cf. **gatalabróxa**.
- urkátu** *ad.* (du) Urkatu: *Éne gázte denbóran gízón bát harrapátu zíxjen urkátwik bére etxéko ganérrjan.*
- urós** *izond.* eta *adond.* Zorionsua, zorionsuki: *Manéz urós bízi úk bakárrik* ‘Manez zorionsu bizi duk bakarrik’, *zéin urós bízi gjén gú!* (= *zéin uróski bízi gjén gú!*), *zé gízón urósa den Benát ihazáina.* Biarnesez eta gaskoiz *uouès* ‘hereux’ da. Ikus **malurós**.
- uróski** *adond.* Zorionsu(ki): *Zéin uróski bízi gjén gú* (= *zéin urós bízi gjén gú!*). Ikus aitzineko sarrera. ABK ‘beharrík’ adierarekin ere ibiltzen du (ikus **behár**): «Ahazten ziazkiaxu anitz gauza zartzeko ixkiatzen

hasita, uroski ez baitute inportantziaik. Adio gaixuak».

**urostasún** *iz.* Zoriona, zorientasuna.

**urráts** *iz.* Urratsa, pausa: *Urráts bát géjo ín izán bálu, errekat eróriko zén.* Ikus **páuso**.

**úrri** *iz.* Urria, urteko hamargarren hilabetea.

**urribázka** *iz.* Soroak egin eta ondoan, urrian ateratzen den belarra. Ikus **bázka** eta **ze-rribázka**.

**urrikári izán** *ad.* (du) Norbaitez errukitu: *Urrikári dú horrékin ezkóntzen déna, gáixo mutíkwa!*

**urrín** *iz.* Usain txarra. Ikus **kakurrín**, **pizurrín**, **usín** eta **zipilurrín**.

**urrínu** *ad.* (da-du) Usain txarra paratu, jarri: *Zérrí zikín hórrek uzkérrín dú éta étxe gúzja urrínu dá háren ondórjox.*

**urrita** *iz.* Udazkena. Cf. letretako pasartetxo hau: «Sasoina orai in dixi ederra frangore; ze urrita xarmanta!». Ikus **larrazkén**. Etxaidek (1989) *larrazkéna* biltzen du, eta hau da, oker ez bagaude, Luzaiden gehien ibiltzen den forma.

**urríxa** *izond.* eta *iz.* Emea ardietan, behietan, zerrietan... Bestela **árra** eta **émja** ibiltzen dira, katu, zakur... eta beste edozein animaliarekin. Ikus, hala ere, **ahári** eta **márro** sarrerak; ikus, orobat, **ohóts** eta **ordóts**.

**urrianmáu** *interj.* Belarrak eta soroak bukatzen direlarik erraten dena. Satrustegik (1969b: 44) *urriamau* dakar eta dio etxea estaltzen bukatzean adar berdea ezarri eta bazkaria egiten dela, ospatzeko.

**úrrun** *adond.* (≠ **húrbil**, **húrrian**): *Astabizkárre urrún djóxu* ‘Astabizkar urrun diagoxu’ / **urrunekuak** *iz.* Satrustegik (1969b: 68) urruneko ahaideak adierazteko ibiltzen dela dio.

**urtarríl** *iz.* Ilbeltza.

**Urtáts** *iz.* Urtezar arratsa edo gaua: *Urtátsetan júnéniz* ‘Urtezarretan etorriko naiz’.

**úrte** *iz.* Urtea.

**urteáldi** *iz.* Fruta zuhaitzek zenbait aldiz urte ona izaten dute, hots, fruitu franko ematen dute, eta beste batzuetan, aldiz, ez. Lehena da *urteáldi*-a: *Sagár húnék áurten eztú urteáldi*.

**Urtebérrí** *iz.* Urtearen lehen eguna: *Urtebérrí-tan itzúlíko dirá Irúñeat*. Luzaideko aro-

tzaren liburuan ere agertzen da (Satrustegi, 1969: 141): «Condiac eini(c) urteberriz».

**Urteberrikári** *adlag.* Urteberri egunean, Urteberriarekin: *Urteberrikári jintzén oséba Améiketatik*.

**urtebetétze** *iz.* Urtebetetzea, urtemuga.

**urtebúru** *iz.* Urteurrena: «Bihar Inesen ttanttain urteburia; juan beharko dixit», «bihar Aitzurreko Extebeni zenain urteburia» (MA).

**Urtxél** *iz.* Gaineoletan den *Urtxelénja*-ko nagusia batez ere, baina etxe horretako beste norbait ere izan daiteke; **Urtxelésa** *iz.* *Urtxelénja*-ko etxeoandrea.

**urtxíntx** *iz.* Katagorria.

**urtzíl** *iz.* Gauzen zutik atxikitzeo ibiltzen den makila, urkila itxurakoa.

**urtzíntz** *iz.* Atija, doministikua / **urtzíntzín** *ad.* (du) Atija egin, usin egin.

**urtzínzka aizán**, **hasi**...e.a. *ad.* (da) Atijaka, doministikuka ari izan, hasi...e.a.

**urúbi** *iz.* Uluu, zakurrak triste delarik egiten duen soinu / **urúbi in** *ad.* (du) Ulu egin.

**urúbjaka aizán**, **hási**... *ad.* (da) Uluka ari izan, hasi: *Zakúrra hási uxú urúbjaka*.

**urxúri** *iz.* Píxa: *Fínki mintzátzeko píxa edo píza erráiteko partéz, erráiten dúxu urxúrja*. Etxaidek (1989: 169) *úrtxuriá* jasotzen du, *píxa*-rekin batean, eta **MAk hur churia** darabil. Axularrek (1643: 409) ibiltzen duen *ur-isuria* bera dela dirudi: «Eta berehala Erresumako sazerdote, midiku, eta gaiñerako hartako ziren guztiak, konsulta eginik, erran zioten: bere senharraz bertze-ekin egitekorik izan etzuen emazte baten gernuaz, eta *vr-isuriaz* garbitu behar zituela bere begiak, eta halatan bere hala argituko, eta sendatuko zeitza» (etzana gurea da). Ikus **píx**, **píz**.

**usája** *iz.* Ohitura (biarneseko *usadge*, *usatgetik* edo frantseseko *usage*-etik). **Kostúma** baino gehiago ibiltzen da.

**usakostuman** *adlag.* Usaian edo. Cf. **MAren** hau: «Izan nixin xure felizitazionia, usakostuman ahazti gabe, anitz eskermila».

**usátu** *ad.* (da) Ohitu (biarnes-gaskoiko *usà* ‘avoir coutume’-tik). Adlatiboak eskátzen du: *Eník usátja horrén ítea* ‘ez negok ohitua hori egitera’. Ondoan izena daramalarik berau soziationboan joaten da: «Zola ho-



- tan eztuxu elurrik, bana gain horietan baxu. Ederraikin usatuta orai etxu goxo hola-ko kanbioa» (AB).
- usín** *iz.* Usaina: *Usín húna, usín gáixtoa, usín txárra*. Etxaidek (1989: 132) *usín hóna* bildu zuen ‘olor’ errateko. Ikus **urrín**.
- usíndu** *ad.* (du) Usaindu: *Zakúr ihiztór hórrek baxtér gúzjak usíntzen tú bėti*.
- úso** *iz.* Usoa. Etxaidek *úsua* biltzen du (1989: 108). Caminok dio (2004b: 456) Baxenabarren *urzo* edo *ur(txo)* ibiltzen dela, baina ez *uso*, oker, bistan denez, Luzaide Garazin sartzen badugu segurik. *Úso lakétjak*. Gaztelaniaz *palomas cebadas* erraten da; pasako usoak dira, besteak baino gehiago galditzen direnak.
- úso trópa** *iz.* Igarotzen diren uso taldeak: *Átzo kúsi nín alímaleko úso trópat*.
- usoáldé** *iz.* Uso multzo handia: *Alímaleko usoáldé ja pástu dá egún, ihiztárjak kóntent ditáke; egun híl dú usoáldé edérta*.
- usoaro** *iz.* Usotan, uso ehizan aritzeko eguraldi egokia. ABk darabil: «Orai iratzian ari txu gizonak; denbora freskua arixi biziki. Etxu uso aro; bat etxie hiltzen onokuan».
- uspél** *iz.* 1- Toki ospela, laiotza: *Hóri léku uspéla úxu arrúnt*, 2- Ubeldura (ikus **ubeldúra**). Beste herri batzuetako ‘ospela’ delakoari, hotzarekin ateratzen den gorriuneari, **anje-lúr** erraten zaio (frantseseko *engelure*-tik).
- úste** *iz.* Ustea, iritzia: *Eréman nixin askárja bórdat ústez hán zjén, bána etzítzun hán; enústez mutíko hórrek hobékjo íten al zítxin gáuzak / úste izán* *ad.* (du) Pentsatu.
- ustél** *izond.* Ustela. Sakretako ere ibiltzen da: *Zé gizón ustéla dén hóri! / ustéla ín* *ad.* (du) (esam.): *Zé ustéla íten dukán (besténaz) iháun ahó makúr horrékin!* Duhauk (2003: 400) Beskoitzen bildu duen *ze sakatrapuia íten diina!* honen modukoa da, ikusten denez *pítoa*-ren ordainez *sakatrapuia* badu ere. Ikus **méntsa ín** eta **pítwa ín**.
- usteldu** *ad.* (da-du) Usteldu. Biraotzat ere erabiltzen da: *Zé gizón ustéldja zén húra!*
- úsu** *adond.* Tapitukiro, trinkoki; ikus **bakán**: *Ártwa sórtu úk úsu*. ‘Maiz’ errateko **ardúra** ibiltzen da. Ondarrolako 1841eko esku-titzean, halarik ere, ageri da horren adie-razteko (Satrustegi, 1971: 294): «Eta igor zakadozie anaiari letra bat iskiriaturik untsa kausitzin nizala eta hunat gaztigatuko ahal bezain usu berriak hunat».
- usu belar** *iz.* Belar mota bat, Satrustegiren arabera (1969b: 59).
- usuala** *iz.* Anisa, Satrustegiren arabera (1969b: 48). Guk ez dugu Luzaiden bildu ahal izan.
- útzí** *ad.* (du) Utzi. Gobernatzin duen aditziZenak adlatiboan behar du egon: *Alkátjak herríko gázter frontónain ibiltzea útzí zén* ‘alkateak herriko gatzeei frontoia erabiltzen utzi zien’.
- uxtér** *izond.* Samurra. Satrustegik bildu zuen (1963-64: 280), eta gure berriemaileak ezagutzen du, baina erabili, **drénde** erabiltzen du.
- uzkáli** *ad.* (da-du) Irauli: *Órgat uzkáli záu ta belár gúzja lúrreat jwán dá*. Ikus **iráuli**.
- uzkér** *iz.* Puzkerra / **uzkérrin** *ad.* (du) Puzker egin. Ikus **urríndu**.
- uzkérka** *adond.* Puzkerka / **uzkérka aizán**, **hási**, **ibíli** *ad.* (da) Puzkerka aritu, hasi, ibili: *Ilárrak ján duzé tá orái tírala uzkérka ái dirá*.
- úzki** *iz.* Ipurdia, baina bakarrik ardietan ibiltzen da, kolore desberdinekin tindatzen direnean, elkarretarik bereizteko: *Guré árdjak úzki górrjak txú éta béste étxe hortákwak úzki blújak*. Ikus **erráin** eta **púrdi** sarrerak.
- uzkinázo** *iz.* Eskinosoa, uzkinaxoa, hegazti baten izena.
- uztái** *iz.* Uztaila: *Béhjer tá árdjer lépwan zár-tzen zéna, zurézkwa*. Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969) upel eta ferretei ezartzen zaizkienei ere horrela erraten die: «Sunru (*surru* ‘xurru’ behar luke izan) baten ustaya barrica bati» (157), «ferreta ustai bat ustai bat guiderrak ezarririk» (160).
- uztáil** *iz.* Uztaila, urtearen zazpigarren hila.
- uztárrí** *iz.* Uztarría. **Búztarrí** ere ibiltzen da. Ikus **udí**, **udíri**.
- uztártu** *ad.* (du) Uztartu, uztarría ezarri. Satrustegik (1969b: 83) liskar edo eztabaida batean hoben guztia liskarzaleetako baten gain uzten delarik erabiltzen den esatera hau biltzen du: «Idia ez da bakarrik uztartzen».

## W

**wartjár** *izond. eta iz.* Uharte Garazikoa

## X

**xaflátu** *ad.* (du) (Anitz) jan. Ikus **jankatu**.

**xagón, xaón** *iz.* Xaboaia: *Leénik torroskátzen-tzjéntxaónaikín* (F. Kamino, Euskaltzaindia, 1999: 110).

**xagonátu** *ad.* (du) Xaboiztatu: *Atórra hóri ún-tsa xagonátu beháuxu, béste gísan etzjakoxó zikína kénduko*.

**xahár** *iz.* Zaharra, maitasunez-edo erabilia denean. Ikus **xár** eta **zahár**.

**xahartasún** *iz.* Zaharrerria.

**xahártu** *ad.* (da-du). Ikus **zahártu**.

**xáhu izán** *ad.* (da) (esam.) Gureak, zureak...egin: *Ezpadú fíte euríten xáhu gítxu áurten, etxú belárrrik atéako* 'Laster euri egiten ez badu gureak egin du aurten, ez duxu belarrik aterako'. Cf. D. Intzak (1974: 43) Esteribarren bildu zuen erranairu hau: «Xau dire Uritz-en karakolen biltezeko ez badiote euritzen».

**xahútu** *ad.* 1- (du) Gastatu: *Sós anítz irázi zín Améiketán, baná hántik yín ta beála xáhútu zitín dénak*, 2- (da) Arrunt akitu, unatu, leher egin: *Pilótan aizánez xahútu núk* (= *pilótan aizánez lehérrínúk*), 3- (du) Garbitu (ikus, gainera, Satrustegi, 1981: 345): *Sukáldjain xahútzén ái dúxu áma*. Ikus **garbítu**, **kúzi** eta **xuítu**.

**Xáindu** *iz.* Pekotxetan den *Xaindjáinja*-ko nagusia, edo bertako beste edozein; **Xaindúsa** *iz.* *Xaindjáinja*-ko etxeoandrea.

**xakúr** *iz.* Normalean 'txakur txikia' adiera ohi du; bestela **zakúr** erraten da.

**xakurkúme** *iz.* Txakurkumea.

**xamar** *iz.* Brusa modukoa, orain dantzarietketa ibiltzen dutena.

**xamindéi** *iz.* Tximinia. Luzaideko arotzak «samideyain arrinazen», «samindeico burdina bat» du (Satrustegi, 1969: 162, 206).

**xanbrela** *iz.* Satrustegik dio (1969b: 97) 'jamba' adiera duela.

**xanfarín** *izond.* Kaskarina, txoriburua: *Néska xanfarín hórrek eztxi gáuza húnik íten ez étxjan, ez eskólan ez nehóne, bėti bésta gógwan; eztá prótxwik xanfarín horrékin!* Cf. Hiriart-Urruti zaharraren hau (2004: 435): «Ar bedi, jadanik hasia den bezala, arno emaiten burrustan. Baitezpada ezin egona duenaz geroz, dugun edan –ona balin bada– bainan bozik ez eman xanfarin horri».

**xángre** *iz.* Minbizia (biarnes-gaskoiko *chàncre*-tik edo frantseseko *chancre*-tik): *Láneko laún bát xángrejaikin híl dá jwan dén egúnjan*. Ikus **kántzer**.

**xánka** *iz.* Makulua.

**xánpa** *interj.* Zakurrari erraten zaio, erausi, zaunka egin dezan: *Xánpa, Lábri, xánpa!*

**xantxipárrak izán** *ad.* (da) (esam.) Gorriak ikusi: *Izáin txú óno xantxipárrak!* 'gorriak ikusiko dituzte oraindik'. E. Etxamendik (1988: 63) darabilen *xintximariak izan*-en parekoa da: «Aita ta Maurizio barrukitik heldu dira hanbestenarekin... Han ziren oraikoan xintximariak! Aldi huntan aita arrunt jauzi zen, debruek harturik zen».

**xántza** *iz.* Zortea (frantseseko *chance*-tik; cf., hasierako txistukariaz kestonea, **xarmánt**). Ikus MAren pasartetto hau: «Dena zozo ele, hau dela, hura dela. Naski xantza txarra behaixi». **Swérte** ere erraten da. Ikus, gainera, **xórtte**.

**Xapár** *iz.* Ondarrolan den *Xapárrja* etxeko nagusia, edo bertako norbait; **Xaparrésa** *iz.* *Xapárrja*-ko etxeoandrea.

**xapél** *iz.* Kapelua, *sombrero* espainolez. Ikus **bonéta** eta **zapél**. Satrustegik dio (1969b:

- 97) pilareen goiko partea dela, gapirioen oinari lana egiten duena.
- Xapitel** *iz.* Gaindolan den *Xapitelénja*-ko nagusia, edo hor sortu edo bizi den laguna; **Xapitelésa** *iz.* *Xapitelénja*-ko etxeoandrea.
- xár** 1- *izond.* Txarra: *Denbora xárra djóxu égun*, 2- *adond.* Ahul, ez bizkor. Cf. MA-ren hau: «X-n ez nuxu bultta huntan izana, untsa tuxu; Y xar dioxu eta ja kasik ama bezain sor». Ikus **txár**, **xahár** eta **zahár**.
- xardína** *iz.* Sardina. Ikus **zonbána**.
- xárga** *iz.* Zurkaitza: *Makíl lúzja úxu, ilárrer zártzen zéna*.
- xarmánki** *adond.* Ederki: *Jwán dén egúnjan proménatu ginén xarmánki*.
- xarmánt** *izond.*, **xarmánteko** *izlag.* Ederra (biarnes-gaskoiko *charmàn*-en aurreko *charmant* batetik [femeninoa *charmante* da]), edo frantseseko *charmant*-etik): *Xarmánteko denbóra djóxo égun!* = *denbóra xarmánta djóxo égun!*, *xarmánteko ótwa erósi zixin anájak* = *óto xarmánta erósi zixin anájak*.
- xarpóta** *iz.* Ezkaia, espainoleko *tomillo*. Barandiaranek (1974: 31) Donoztirin *xarbotá* bildu zuen, Salaberri Ibarrolakoak (1856: 36) *charpota* dakar eta Satrustegik (1969b: 50) *txarpota*. Ikus **basaxarpota** eta **txamindeiko oial**.
- xarrantxa** *iz.* Luzaideko arotzak darabil, behin: «Charrancha bat» (Satrustegi, 1969: 136). Arruazukoak dio (1969: 275) errota-ko lanabesa dela, errotarrien arteko aldea finkatzeko balio duena.
- Xatán** *iz.* Karrikako *Xatanénja* etxeko nagusia, edo bertako beste norbait; **Xatanésa** *iz.* *Xatanénja*-ko etxeoandrea. Lehen *Behotxainánja* erraten zitzaion etxeari.
- xatár** *iz.* Haur oihala. Salaberri Ibarrolakoak (1856: 36) forma hau bera biltzen du, baina horzkaria hasperendua duela, *chathar* alegia, *xathar* egungo grafian.
- xe atziz.** 1- Pittin bat: *Aríntxoño, giélxo, géixoño, juantxe, lehéntxoño, pollkixoño*, 2- Indartzailea: *Hántxe, heméntxe, holáxe, hórte*.
- xeakatu** *ad.* Txiki-txiki egin. Satrustegik biltzen du (1963-64: 281). Guk **xehátu** aditu dugu beti.
- xehátu** *ad.* (da-du) Txikitu, xehetu: *Egúr xehátzen aizán núxu góizjan; báswa eróri záko mutkwai tá xehátu dá, xintxirikátu; xéha záxu úntsa ihétsi báno léhen* ‘xehe ezazu ongi irentsi baino lehen’. Cf. ABren pasarteño hau: «Egun hotaik batez ari ninduxun kafiain xehatzen, xuk utzi iharai-kin».
- xehatzále** *iz.* eta *izond.* Txikitzailea.
- xéhe** *izond.* eta *iz.* 1- Tamaina txikikoa, pisu gutxikoa: *Gátz lárrja ta gátz xéhja, langár lárrja ta langár xéhja, éuri lárrja ta éuri xéhja, jénde xéhja* ‘gente humilde’. Ikus **lárri**, 2- Ganbioa (dirua): *Báuxja xéheik?*
- xehéki** *adond.* Zehazki: «Anitz plazer egin daxu berriak hoin xeheki igortziaz» (MA).
- xehetasún** *iz.* Zehaztasuna: *Bérrja emán zjáxutén xehetasún gúzjekin*.
- Xéhja** *iz.* Azoleta edo Lezetako *Xehjainja* etxeko nagusia, edo bertako beste norbait; **Xehjésa** *iz.* *Xehjainja*-ko etxeoandrea. Ikus **séhi**.
- xéila** *iz.* Ateka, langa. Luzaideko arotzak bazerabilen, XIX. mendean: «Seila azpico burdina bat» (Satrustegi, 1969: 188). Garaziko beste leku batzuetan barne-aspirazioa du (*xehella*); ikus Camino (2004: 456).
- xéka** *adond.* Bila; absolutiboa edo genitiboa galdegiten du: *Áno xéka jintzén ostáturat; jwánúxu ótwain xéka garájeat*. ABk *xerka* ibiltzen du. **Bila** ere erabiltzen da, baina biziki guti.
- xekári** *iz.* Zerbaiten xerka edo bila joaten dena: *Bihar góizjan góizik jinen dúxu ahátxjain xekárja* ‘bihar goizean goiz etorriko da aratxearen, zekorren bilatzailea’.
- xekátu** *ad.* (du) Bilatu. Hau da normalean ibiltzen dena: *Étxe gúzjan xekátu nixin paisóla zahárra, bána entxin harrapátu ál izán*. Ikus **bilátu**.
- xelaria** *iz.* Arotzaren lanabesetako bat da, Garmendiak biltzen duenez (1969: 224). Oinarriaren formaz kestone, ikus **arrakia** sarriaren erran duguna.
- xéna** *iz.* Katea (frantsesezko *chaîne*-tik). Barandiaranek (1974: 25) Donoztirin *urxexnak* ‘collares de oro’ bildu zuen. Ikus **gatí-na**.
- xéndra** *iz.* Bidexendra, mendietan animaliek egiten dutena.

**xerbitxári** *iz.* Zerbitzaria.

**xerbitxátu** *ad.* (du) Zerbitzatu: *Néska xarmánt baték xerbitxátu gíntxin.*

**xerbítxu** *iz.* Zerbitzua.

**Xeróra** *iz.* Arnegiko *Xeroráinja* etxeko nagusia, edo bertako beste norbait; **Xerorésa** *Xeroráinja*-ko etxekoandrea. Cf. MAren hau: «Izan ziazkiatxu Martxelin eta Mari Ezponda eta Xeroresa ikusten egon gintxun goxoki».

**xerrent** *izond.* Lan bat egiteko geroko gerotan ibiltzen ez dena, arduratsua (ikus Lhande, 1926). Cf. MAren pasarteño hau: «Errezibitu dixit xure letra berrize; gaizua, ni bano xerrentogua xira zien lan guzien hartetik».

**xérri** *iz.* Zerria. Ikus **zérri**.

**xerrihiltze, xerriiltze** *iz.* Zerri hiltzea: «Xerri hiltziak nik uste ja finitu dien» (MA). Ikus **zerrihiltze, zerriltze**.

**xerritéi** *iz.* Zerritegia. **Zerritéi** ere erraten da.

**xertátu** *ad.* (da-du) Txertatu: *Bórdako árdi gúzjak xertátu tú, balékibále; xertátu núxu gripain kóntra.* Cf. MAren hau: «Orai anitz prueben iten ari zazkola. Biotzea duan zain bat xertatu, naski xerria[i]na, plastikua ezartzen diela».

**xérto** *iz.* Txertoa / **xértwa zárrri** *ad.* (du) Txertoa jarri.

**xertobéltz** *iz.* Gaztaina mota bat; ikus **sanmigél** eta **xertogórri**. Izetak (1996: 179) *xertogorri* eta *sanmigél* biltzen ditu, eta hauekin batean *ostobeltz*, Luzaideko **xertobéltz**-en partez.

**xertogórri** *iz.* Gaztaina mota bat. Ikus **sanmigél** eta **xertobéltz**.

**Xertólo** *iz.* Gainekoletako *Xertolóinja* etxeko nagusia, edo bertako beste norbait.

**xétre ikúsi, xétre kúsi** *ad.* (du) Gorriak ikusi (irudi du biarnes-gaskoiko *chêtre* ‘chétif, piètre’-tik atera dela): *Gúre aítátxik, Améiketán egóntzélaik, lemíjzan xétre ikúsi zíxin lána ezín harrápatuz.*

**xifarrakátu** *ad.* (du) Ura mugituz garbitu: *Úntzjer zólain kúzteko emáitentzjúxu húr xórtat éta itzúlika higituz kúzten txú; xifarráka záxu kútsja esnúntzi hóri.* Cf. **kúzi**.

**xifrítja izán** *ad.* (da) Arrunt kezkatua, nerbios-tua egon: *Mutíkwa jwán dúxu méndira ta etxú héldu, xifrítja núxu!*

**xikán** *iz.* Iruzurra, jukutria (frantseseko *chicane*-tik). Ikus **zikaneria** sarrera.

**xikín** *izond.* Zikina, baina normalki iraintzeko ibiltzen da, biraotan: *Xikína, xáxi bíta hüntaik!* Ikus **zikín**.

**xikitátu** *ad.* (du) Zikiratu. Ikus **zikitátu**.

**xikitero** *iz.* Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 250): «26 urtarrilia lasaco siquiteruac». Argitaratzailearen irudiko ‘zikiratzaila’, ‘osatzaila’ erran nahi du. Beranduagoko lan batean (1969b: 97) *txikitero* jasotzen du.

**xikór** *iz.* Zahi xehe-xehea, zerriei zaldaretako ematen zaiena. Lehen *erresa* izeneko ogi beltza egiteko ibiltzen zen (Satrustegi, 1969b: 54). Ikus **erresa**. Luzaideko arotzak bazerabilen (Satrustegi, 1969: 134): «Ogui irina / erregu bat arto / sicorra (...)».

**xilátu** *ad.* (da-du) Xiloa egin. Ikus **zilátu**.

**xilíntxa** *iz.* Ardiei ezartzen zaien joare ttipia. Luzaideko arotzak «lau sincha mii» darabil (Satrustegi, 1969: 198). Arruazuko euskaltzainak (1963-4: 279) *txilíntxa* ‘campanilla’ biltzen du; lan berean (281) *xilíntz* eta *xíntxa* ‘campanilla’ ere jasotzen ditu. Ikus **zíntxa mihí**.

**xilíntxa míhi** *iz.* Ardiek ibiltzen duten joare ttipiaren mihia.

**xílko** *iz.* Zilborra.

**xílo** *iz.* Zulo ttipia. Ikus **zilo**.

**ximíno** (= **zimíno**) *iz.* Tximua.

**ximítx** *iz.* Zimitza. Ikus **zimítz**.

**ximíxta** *iz.* Oinaztura. Bonapartek (1881: 163) *shimishta* biltzen du, eta Etxaidek (1989: 28) *ximísta*. Ikus **zimízta** / **ximíxta bezála jín, jwán, pástu** *ad.* (da) (esam.) Aire mila demonio jin, joan, pasatu: *Ximísta bezála jíntzén; ximíxta bezála jwán gínen; ximíxta bezála pástu zjén* ‘ziztu bizian jin zen, joan zen, igaro zen’.

**xingár** *iz.* Urdaiazpiko zerra, erdarazko *magra*-ren adierakidea-edo da.

**xingár xáfla** *iz.* Urdaiazpiko zerra. **Zingár záfla** ere erran daiteke, baina orduan handiago da.

**xingarrázpi** *iz.* Urdaiazpikoa, zerri hanka, erdaraz *pernil*: *Erósi behár djakoxót xingarrázpi bát.* **Zingarrázpi** ere erraten da. Ikus **ázpi**.

**xingarxúri** *iz.* Urdai anitz duen zingar zafla, zerra.

**xingóla** *iz.* Kolorezko zetarekin egiten diren zerrendak, dantzariak gibelean eramaten dituztenak. Satrustegik biltzen duenez (1969b: 29), laratza mugitzen delarik ondoko hau erraten ohi da: «Xingola, mingola / paretai gora!».

**xingolamín** *iz.* Herpesa. ABren letra batean, ordea, *erpe* azaltzen da.

**xínple** *izond.* Xumea.

**xínpleki adond.** Xumeki: «Jin duxu X bere senarraikin, lehengo X, biziki xínpleki eta polliki» 'biziki xumeki eta ongi (jantzirik)'.

**xintxirikátu** *ad.* (da-du) Txiki-txiki egin: *Báswa eróri ta xintxirikátu zái!* Arlo honetako aditzen arteko mailakatzea hau da: **háutsi** → **xehátu** → **xintxirikátu**. Ikus, orobat, **jó** eta **suntsitu**.

**xintxukétan aizán** *ad.* (da) Zurezko edozein tresnaren egite edo konpontzea. Cf. Barbieren bertso hau (1987: 238) «Aitatto, jarrikan bere zizeluan, / Pafa pafa ari da pipa bat ahoan; / Aita, erne ernea, kanita eskuan, / Xitxuketan eman da supazter xokoan». Hemen, ikusten den bezala, tarteko sudurkaria ez duen aldaera ageri da.

**xinúrri** *iz.* Inurria, zinaurri ttipia. Ikus **zinúrri**.

**xíri, xiriño** *iz.* Ziri txikia. Ikus **zíri**.

**xirríxta, xirríxtaño** *iz.* Txirria mehea, iturritik erortzen dena. Ikus **ttirrila, turrústa, xurrústa, zirrústa, zurrústa**.

**xirúla** *iz.* Txirula: *Gaztáinaikin íten zítxun xirúlak Luzáiden, eta hóla erráitentzín xirúla ítentzínak, primadéran, barnékwáin kéntzeko:* «Xirúla-mirúla, kántarí, erreka-ko pútzjan sárradí, zís-zás atéradí».

**xíta** *iz.* Txita.

**xitún egón, geldítu, zárri** *ad.* (da-du) Isilik egon, gelditu, norbait bere lekuan ezarri: *Jakíten ál duxú xitún egón zjéla ník moko-kátu nitflaik*.

**xíxa** *iz.* Ziza.

**xixaálde** *iz.* Ziza multzo handia.

**xixelkopa** *iz.* Arotzaren lanabesetako bat ('formón de media cana'): ikus Garmendia (1969: 223). Luzaideko arotzak ere bazerabilen (Satrustegi, 1969: 184): «Tailu eraztun da siselcopa eracachiric». Ikus **kopa, mailu kopa** eta **zizél**.

**xíxka** *iz.* Lan ederra, lan handia: *Egún atsáldjan ín dú alimáleko xíxka*. MAk bitan *sisca* idazten du, eta behin *chichca*, egungo grafiarekin *xixka* emanen genukeena.

**xíxpa** *iz.* Antzarratzelua, sardea.

**xixpátra** *iz.* Sardekada: *Hárxkitzu bi xixpátra iátze*.

**xixpaukáldi** *iz.* Sardekada, antzarratzeluekin ematen den kolpea.

**xíxta** *iz.* Zizta; ikus **gatína xixtadún, gatína** sarreran. MAK 'injezkioa' adieraz darabil: «Nola dateke hunen gorputza hoinbeste xixta eta erremedio harturik?».

**xixtátu** *ad.* (da-du) Ziztatu: *Xixtátu núk elórri batékin*.

**xíxto** *iz.* eta *izond.* Behi eta zezenetan adar zorrotz-zorrotzak dituen: *Éne háur dénboran bagínxín étxjan béhi bát hóla, xíxto erráiten ginákona*.

**xixtór** *iz.* Txistorra.

**xíxtu** *iz.* 1- Txistua, ahoarekin egiten den soinua, 2- Haserre, **xíxtu izán** 'tener muchos humos' esamoldean. Cf. hau: «Jakiten ahal duxu han noaitek xixtu ziela» (AB), 3- Txistua, musika tresna / **xíxtu ín** *ad.* (du) Txistua egin. Ikus **mahái**.

**xíxtuka aizán, hási, íbili** *ad.* (da) Txistuka ari izan, hasi, ibili.

**xofér** *iz.* Gidaria (frantseseko *chauffeur*-etik).

**xoférgo** *iz.* Txofertza, gidaritza. Cf. MAren hau: «Íten diexu paper huna lili arranjatzen eta xoferguane».

**xóil** *izond.* Lurrik ez duena: «*Haizégwa xóilen hága*» (esam.): *Haizégwa íten dílaik gaztáinak erórtzen txú hágaik gábe tá órdjan xóilek profítátzen díxje gaztáinen lúrretik bíltzeko; artzáin xóila* 'lurrik ez duen artzaina'. Satrustegik dio (1969b: 98) 'Independiente. Que trabaja por su cuenta' dela.

**xóko** *iz.* Irudi du **zóko** baino txikiagoa dela; bestelako konnotazioekin ere erabil daiteke / **xokóño** *iz.* Cf. MAren hau: «Senarra aspaldi etzatea juana duxu, orai ez diakoxu alta X-k igortzen. Ni Jinkuari eskerrak xokóño huntan bero-berua».

**xokoláte** *iz.* Txokolatea.

**xokolátésne** *iz.* Txokolate eta esnea.

**xoragarri** *izond.* Zoragarria.

**xorátu** *ad.* (da-du) Zoratu.

**xóri** *iz.* Txoria / **xoríño** *iz.* Txoritxoa.

**xoriálde** *iz.* Txori multzo handia.

**xoribúru** *izond.* Ergela.

**xorikúme** *iz.* Txorikumea.

**xorróstu** *ad.* (du): *ganíta háu xorróstu behá-ixit, lanpústja baitút.* Luzaideko arotzak ere badarabil (Satrustegi, 1969: 137, 139, 140): «Are bat chorrosturic», «palanguetac chorrosturic», bi picotina chorrosturic». Cf. **zorróztu**.

**xorrótx** *izond.* Zorrotza: *Táilu háu etxú báte xorrótx, behárko íxit pikátu.* Cf. **zorrótx**.

**xorrotxárrri** *iz.* Zorroztarria.

**xórta** *iz.* 1- Pixka bat (likidoekin): *Edánján húr xórtat; úntzjer zólain kúzteko emáitentzjéxu húr xórtat éta ítzulika higítuz kúzten txú,* 2- Tanta. Ikus **éuri xórta**, **zórta** eta **zortíla** / **xortáño** *iz.* Xorta ttikia. Ikus **ttottáño** eta **xortíla**.

**xórte** *iz.* Soldadogora joateko zozketa: «Aurten, bihar, soldadogoko xortia» (MA); ez dakigu euskarazko **zorte** hitz zaharretik atera den edo frantses eta biarnesezko **sorte**-etik. Espainoleko **suerte** ere hor da, jakina.

**xortíla** *iz.* Xorta ttipi bat.

**xórtxe** *iz.* Satrustegik (1969b: 58) *xortxa* dakar eta dio zurezko eraztun malgu moduko dela, gaztak egiteko erabili izan dena. Ikus **zortze** sarrera **OEH**-n.

**xotín** *iz.* Zotina. Ikus **zotín**.

**xóxo** *iz.* Zozoa (hegaztia). Ikus **zózo**.

**xú**, **xúk**, **xúri**, **xúre**, **xurékin**, **xurékilan**, **xuréganik**, **xurégatik**...e.a. *izord.* Xu, xuk, xuri, xure, xurekin, xurekilan, xuregandik, xuregatik...e.a.

**Xuálde** *iz.* Gaindolako *Xuáldja* (Zubialde-tik, antza) etxeko nagusia, edo bertako beste norbait; **Xuáldésa** *iz.* *Xuáldja*-ko etxeko-andrea. Satrustegik (1964: 23) etimotik hurbilago dagoen *Xuhialde* jasotzen du.

**xuberatár** *izond.* eta *iz.* 1- Zuberotarra. Cf. «suberatarrac», Luzaideko arotzaren kontuetan (Satrustegi, 1969: 167), 2- Zubera: *Hórjek ái túk xuberatárrez.*

**xuhúr** *izond.* eta *adond.* Urria, urri: *Ésnja xuhúr áirjan kárrri úzje gáur.* Ikus **zuhúr** 'zekena'.

**xuítu** *ad.* (da-du) 1- Arropa ikuzi: «Berek iten tixie xuritzia eta oro; labadorat ederra errosia dixie, arrunt hedatzeko prets (sic) ezartzen diuzten horietaik» (MA), 2- Edo-

zein gauzari azala kendu: «Artuake bil-duik, xurituik ganerrian tixiu» (MA); ikus daitezkeen bezala, hemen *xuritu* osoa ageri da, 3- Zuri kolorea hartu, eman: *Áurten beháixju étxja xuítu*, 4- Elurrak lurra estali: *Úrrjan úrte hártan elúr háundi bát íntzín tá Garázi gúzja xuítu zín* / **egárrjak zuhítja izán** Ikus **egárrri**. Halaber, ikus **garbítu**, **kúzi**, **xahútu** eta **zurítu**.

**xuitzále** *iz.* eta *izond.* Garbitzailea.

**xúka aizán**, **hási**, **mintzátu** *ad.* (da) Xuka erregistroa erabiliz aritu, hasi, mintzatu.

**xukádor** *iz.* (*xukadór* era mugatuan) Eskuoihala.

**Xurgína** *iz.* Azoletako *Xurgináinja*-ko nagusia, edo etxeko beste norbait; **Xurginésa** *iz.* *Xurgináinja*-ko etxekoandrea.

**xúri** *izond.* Zuria / **xúrjak éta béltxak ikúsi** *ad.* (du) (esam.) Gorriak ikusi: *Egún batéz gáldu ginén méndjan éta xúrjak éta béltxak ikúsi gíntin etxéko bídja hatxéman beárrez.* Ikus **gásna**, **zernái ikúsi** eta **zúri**.

**xurikétak**, **xwikétak** *iz.* **Bokáta**-ren iruditsua da baina ez, antza, gauza bera. Ikus Euskaltzaindia (1999: 110) / **xurikétak ín**, **xwikétak ín** *ad.* (du) Bokata, lixiba egin.

**xúrru** *iz.* Lixiba egiteko ibiltzen zen ontzi handia: *Xwikéten íteko úntzi háundi bát zúxun xúrrja.* Ikus Euskaltzaindia (1999: 110). Baztanen *lixu-zurrute* ibiltzen zen (Izeta, 1996: 121).

**xurru uztai** *iz.* Irudi duenez lixiba egiteko ontziari ezartzen zaion burdinazko uztaia da. Luzaideko arotzak darabail: «Surre ustai berri bat» (Satrustegi, 1969: 185).

**xurrústa** *iz.* *Zurrústa ttípja* 'ur txirria txikia'. Txikia bada *xurrústa* erraten zaio, eta mehe-mehea bada, biziki txikia, *húr ttirríla*, *ttirríla*.

**xurrúta** *iz.* Harraska.

**xútik** *adond.* Zutik: *Háu akidúra!, lehérrina núxu!, akidúra hunékin eníxu xútik egóiten ál* / **xutík járri** *ad.* (da) Zutitu, zutik jarri / **xútik zárrri** *ad.* (du) Zutik paratu. Ikus **zútik**.

**xutítu** *ad.* (da-du). Ikus **zutítu**.

**xúxen**, **xuxén** 1- *izond.* *Xuzena*: *Órrjatik Aurítzea jwáiteko bídja xuxéna dá,* 2- *adond.* Zuzenki: *Ostátutik átea éta xúxen étxeat jwán gínen.* Orduekin ibiltzen da aldaera

txikigarri hau ardua, ‘puntu-puntuan’ adierazteko: *Bostóntako xúxen záurte hú-nat; sejóntan xúxen jwáiníz zúre étxeat.* Ikus **orén** eta **púndu** / **xún-xúna** *adond.* Zuzen-zuzen. Ikus **zúzen**.

**xuxéndu** *ad.* (du) Ikus **zuzéndu**.

**xwikín** *iz.* Zurikina, artoa zuritzen denean gelditzen den hosto ihartua. Satrustegik *xuhikina* jaso zuen (1969b: 67).

**xwikitfle** *iz.* Zuriketa egiten duena.

**Xwiláu áts** *iz.* Gabon gaua (ez da anitz ibiltzen egun): *Xwiláu átsjan jwáin gítxu afáitea.* Satrustegik (1969b: 40) *Xuhilau atsa* biltzen du, eta Etxaidek (1989: 74) gaizki ulertu eta gaizki zatitutako *sóila oatsa* dakar.



## Z

**zaáka** *iz.* Bago gaztea.

**zaakádi** *iz.* Bago gazteen multzoa.

**zabál.** Ikus **zahál**.

**zabletáko** *iz.* Zafla.

**záfra** *iz.* Zafla.

**zafráldi** *iz.* Joaldia edo / **zafráldja bíldu, hártu** *ad.* (du) *Gáitzeko zafráldja bíldu zixjen mutiko zár hórjek.* Ikus **palíza**.

**zafrátu** *ad.* (du) 1- Zaflatu, zafla eman: *Errínt gáixto hárek Ferránddo ttípja zélaik zafrá-tzentzín ardúra,* 2- Bukatu: «Hari gituxu lanian azkar orai belarrian; aurten denbora hunak diatzitxu, belarrak zafratiak tixiu. Juan den urtian bano gutixoño duxu, bana hunak iten tuxu biziki» (MA).

**zahági** *iz.* Zahagia, ardoaren atxikitzeke larruzko ontzia.

**zahál** (normalean), **zabál** (inoizka) *izond.* eta *adond.* Zabala, zabal: *Zahál-zahála eróri zén lúrreat.*

**zahár** *iz.* Zaharra. Cf. **xahár**.

**zahár arránda** *iz.* Pentsioea: «Ahatik pahatzen dixi 300.000 franko, urtian hunkitzen din zahar arranda» (MA).

**zaháro** *iz.* Makila malgua: *Erríntak zaháro batekín zanpátzen nindixin.*

**zaharrérja** *iz.* Zaharrerria.

**zahártu** *ad.* (da-du) Zaharra egin, zahar bihurtu. Ikus **xahár**.

**záhi** *iz.* Zahia (*salvado* gaztelaniaz).

**záil** *izond.* Gogorra edo, haragiaz-eta mintzatzean. Behiak edo ardiak jeiztean ere *érró záilak* dituztela erraten da, gogorrak direlarik. Ikus **érró**. Bestela, batuko *zaila izan difízila* edo *néke izán* erraten da, edo *áisa ez izán*.

**-záin atzi.** Zaintzailea, jagolea: *Artzáin, behizáin, etxezáin, ganbarazain, haurtzáin, ihazáin, itzáin, ojantzáin.*

**záin** *iz.* Zaina / **záinak jáuzjak izán** *ad.* (du) (esam.) Hagitz urduri egon: *Záinak jáuzjak txít* ‘oso urduri nago’ / **záinetaik éri izán** *ad.* (da): *Záinetaik éri zúxun maztékja; záinetaik éri úk* ‘está de los nervios’, baina gero **nerbjóstu** erraten da. Zenbait aldiz *éri* gabe ere erabiltzen da, hots, **záinetaik izán:** «Dioxute zainetaik dela» (MA).

**zain egon** *ad.* (da) Zaintzen egon. MAren gutun batean kausitu dugu «X negu guzia bere bronkioin zain egonik, juiten duxu meza». Ikus **béa egón, béha egón**.

**záindu** *ad.* (du) Zaindu: *Gúre xakúr hórrek eztú étxea báte úntsa záintzen.*

**zaintsu** *izond.* eta *adond.* Urduria. MAk darabil, pasarteño honetan: «Atzo Donianen ninduxun; X ikusi dixit, gaixua biziki zaintsu iduritu ziaxu, aspaldi ez nixin ikusia».

**zaintzále** *iz.* eta *izond.* Zaintzailea. *Gáúza háundja úxu xakúr zaintzále húnain izáitja.* Ikus **zoinatzále**.

**zája** *iz.* Emaztekien soinekoa (espainoleko *saya-tik??*). Salaberri Ibarrolakoak ere biltzen du (*zaya* ‘jupon’, 1856: 176).

**zakár** *iz.* Postilla.

**záku** *iz.* Zakua. Luzaideko arotzak ere ibiltzen du (Satrustegi, 1969): «Zaqu artua abenduain birano», «zaqu ogiac» (134), «11 ecaíniain erosiric zaqu artuac» (239), «amar zaqu arto» (240).

**zakúr** *iz.* 1- Txakurra, 2- Erdarazko *galbana* (Otsagabian *perra* esaten diote gaztelaniaz): *Béro háundi hétan bazkálondwan alimáleko zakúrta izáiten gínin, tá lánjan ártzeko kalípjo ttípja.* OEH-k D. Intzak Ultzaman jasotako «a ze zakurre arrapatu dun» biltzen du / **zakúr ihiztór** ‘ehiza txakurra’. Ikus **ihiztór** / **zakúrrain púrdira(t) igórri,**

- jwán** *ad.* (da) (esam.) Antzarak ferratzera bidali, joan: *Zázte zakúrrain púrdira(t), urde madarikátu zikínak!* Ikus **háil**, **pórru** eta Satrustegi (1969b: 92) / **zakúrrak ján** *ad.* (du) (esam.) Bakarrik *zakúrrak játen ál dú hólako bízja* esaldian aditu dugu. Ikus **xakúr**.
- zakurkúme** *iz.* Txakurkumea. Ikus **xakurkúme**.
- zakútra** *iz.* Zakukada: *Kárrri beháixit zakútrat irín.*
- zaldáre** *iz.* Pentsua: *Egúngo egúnjan zaldárer sártzen djéxute egúndainoko gúzitaik!* (behi eroen gaitza zelarik solasa).
- zaldí** *iz.* Zaldia.
- zaldízko** *iz.* 1- Zalduna, zaldi gainean ateratzen dena, 2- Bolant eguneko pertsonaia.
- záli** *iz.* 1- Zalia, burruntzalia, 2- Errota edo eiherrako tresna zenbait (Satrustegi, 1969: 283). Arotzak darabil: «Lau sali ustai einic» (189), «sali ustai bat berria» (237).
- záli xilátu** *iz.* Bitsadera: *Arrúltze fritátjain zartáinetik atéatzeko úntsa hélduxú záli xilátja.*
- zálitra** *iz.* Zalikada: *Áteazkítzu híru zálitra ilár, kítoik baitá.*
- zálu** 1- *izond.* Lasterra eta arina: *Mutíko hóri bíziki zálja dá tá ohártu ordúko arbólain gáineko púntara irána dá,* 2- *adond.* Agudo, laster: *Jwántzúxun zálu míla déurru heméntik / zálu-zália adond.* Arrunt agudo, arrunt laster, arrunt fite: *Xáxi zálu-zálja botítgat tá kárraxu botóilat áno.*
- zálukara** *adond.* Aski laster, agudo aski, franko zálu: *Mutíko húra zálukara jwántzúxun.*
- záma** *iz.* *Leatxúnak* direlakoekin egiten zen belar edo iratze zama. Ikus **kárga** eta **tórnu**. Cf. Luzaideko arotzaren hau: «Errezi-bitia lau zama lasto» (Satrustegi, 1969: 147).
- zangalúze** *izond.* Zangoak luzeak dituen: *Zangalúze zikín hórrek gezúrta errán dják bérrizé!*
- zángo** *iz.* 1- Hanka, 2- Oina / **zángoko érxak** *iz.* Oineko behatzak.
- zángomamól** *iz.* Zangosagarra. Ikus **érimamól**.
- zángosagár** *iz.* Zangomamola.
- zángozóla** *iz.* Oin zola, oinazpia.
- zánko** *adond.* Bat-batean. Cf. MAren hau: «Ikusi baxinu zanko nola ixildu zen!». Iparraldeko literatura *zankez* kausitzen dugu balio berarekin. Ikus, konparazione, J. Etxepare medikuaren hau (1987: 171): «Gain-behera xut luzesko baten zolan gelditzen gira zankez».
- zánpa-zánpa aizán** *ad.* (du) *Elurra* hitzarekin erabiltzen da, gogotik ari duela adierazteko: *Elúrta zánpa-zánpa ái dú.*
- zánpáldi** *iz.* Zafraldia, joaldia / **zánpáldja bildu**, **emán**, **hártu** *ad.* (du): *Éne herríko atí gázte dénboran izígarríko zánpáldja emántzakotén éta antxúño garbítu zutén.* Ikus **palíza** eta **zafráldi**.
- zánpátu** *ad.* (du) Jipoitu. **Jó** ere ibiltzen dute, baina bada alde; mailakatzea hauxe da: **jó** → **zánpátu**. Ikus **panpátu**.
- zánpatzále** *iz.* eta *izond.* Zánpatzen duena.
- zánpez** *adond.* Erabat: *Áurten sabáia zánpez béte djáu belárrez* ‘sabaia mukuru bete dugu belarrez’; *zánpez ló djóxo* ‘lozorroan da’, ‘erabat lo dago’.
- zántilítze** *iz.* Iltze biziki handiak. Luzaideko arotzak ere badarabil hitza (Satrustegi, 1969: 135, 222, 234): «Sei santel ize berr(i) urbideko», «bost santelize berri barraderaco», «sei santelize berri».
- zápaka aizán** *ad.* (da) ‘Sabaiko belarra zánpatzen ari izan’ adieraz aditu dugu guk. Ikus **ixtikátu** eta **zapátu**.
- zapárt ín** *ad.* (du) Leher in: *Lánjan anítz áizánuk ta lehér eta zapárt ína núk.*
- zapartgarri** *izond.* Zeharo barregarria; Satrustegik (1963-64: 282) biltzen du.
- zapata** *iz.* Satrustegik (1969b: 97) jasotzen du eta honela deskribatzen: «Sopote de maderá que va sobre el remate del muro». Ikus **zapéta**.
- zapatáin** *iz.* Zapatagina, zapataria.
- zapátu** *ad.* (du) ‘Sabaiko belarra zánpatdu, istikatu’ adierarekin aditu dugu. Ikus **ixtikátu** eta **zápaka aizán**.
- zapél** *iz.* Kapelu (‘sombbrero’) handi, zakar, itsusi... bat. Cf. **xapél**.
- zapéta** *iz.* Zapata: *Bajónat jwáuten nizálaik zapéta bérrjak erósígo txít.*
- zapúr** *iz.* Bolant eguneko pertsonaia, aizkora-ekin ibiltzen dena. Cf. Manezaundiren hau (1990: 327): «Heien aitzinean doa *banderaria*, gero *zaphurrak*, buruetan ardí larru ilelun beltz haundi bat, haizkorak bizkarrian».

**zár** *izond.* Tzarra, gaiztoa. Sakreetan-eta ibiltzen da: *Zé zárra dén hóri!*, *zár purifikátja!* Ikus **tzár**. Ikus, orobat, Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 330-331). Cf. Maren hau: «Lehenik gripa zar horrekin oro batian atzemanak izan gítxu». Satrustegik (1969b: 83) erraten du gizon biziotsuendako edo emazteki arin edo fama txarrekoak senarra aurkitzen duenean ondoko hau erraten dela: «Marizar bezanbat Joasneszar bada munduan».

**zäre** *iz.* Saskia baino txikiagoko ontzia. Ikus **sáski**.

**zarkáildu** *ad.* (da) (Eskuak eta) andeatu: *Éskjak zarkáildjak tút laborántxan aizáne.* Cf. J. Etxepare Landerretxeren hau (1991: 31): «Gizon zahar koskoildu bat hurbildu zen, alkoolak zarkáildua, itsustua, bortiztua». Cf. **gorkáil** ‘gorrixka’.

**zarpíl** *iz.* Atxetatupinek (ikus sarrera hau) eskuan eramaten duten jotzeko tresna. Kiderra zurezkoa da eta gero korda baten muturrean, estu-estu eginik, trapuzko pilota baten antzekoa du, jendearen jotzeko.

**zarramíska** *iz.* Atzaparkada, arramazka. Satrustegik (1963-64: 258) *arramíska* biltzen du, baina Luzaiden bederik z- du hasieran.

**zarramiskátu** *ad.* (du) Atzapar egin, arramizka egin.

**zárri** *ad.* (du) Ezarri, paratu: *Zartzák hóri mahái gáinjan, zarrák hóri mahái gáinjan.* Ikus **járri**.

**zartáin** *iz.* Zartagina.

**zartátu** *ad.* (du) Orearekin pareta berdindu, gaztelaniazko ‘revocar’ eta ‘lucir’ aditzen bidez adierazten direnak adierazten ditu: *Harginak arrín gáizki zartátu zixin paéta.* Cf. Letretako pasarteño hau: «X-e etxia arixi zartatzen. Besteat idurixi orai; kontent ikusiko uxu, ba, undar eguna finitzen dutelaik». Ikus **emokátu**. Dakigunez ‘leherthu’ adierarik ez du Luzaiden.

**zátí** *iz.* Puska. Ez da sobera ibiltzen, baina aditzen da zenbait aldiz: *Pikátu djáu alimáleko zátja.*

**záuri** *iz.* Zauria. Dakigunez *záurjain gáinjan píkwa* esaeran erabiltzen da. Bestela **záuri** eta **zaurtu** ez dira normalak Luzaiden; hauen ordainez **kólpe** eta **kolpátu** erabiltzen dira. Hala ere, MAK honela dio: «Eta

gero jateko gutizia ba eta ezin jan, aho barne guzia zaurtia nixin, mihi gainak eta denak».

**zaurtu** *ad.* (da-du) Zauritu. Ikus aitzineko sarrera.

**záutu** *ad.* (du) 1- Ezagutu. MAK *ezagutu* ibiltzen du normalki, eta pare bat aldiz *ezautu*; ABk, berriz, arruntean *zautu* ibiltzen du eta behin *ezautu*, 2- Nabaritu, hauteman: *Áma undarréko aldíz kúsi nílaik záutu nín etzé-la úntsa.* Ikus **fálta**.

**záutza** *iz.* Ezagutza: *Záutza gáldu* ‘kordea galdu’; kontrakoa **melloátu** da. ABk ‘ezagutza’ eta ‘errokonzimendua’ adieraz ibiltzen du: «Behar diren grazia guziak errezibituik juan duxu; igande atsaldian, seiak aire hartan pausatu omen [t]zuxun, zautza osuan, bana mintzua gelditu», «San Sebastianeko andere heke igorri zauxuten beren zautza, arras untsa. Zer da hendako?».

**zázpi** *zenb.* Zazpi; *zazpíra* ‘zazpina’, *zazpjeún* ‘zazpiehun’.

**zedárrí** *iz.* Mugarría.

**zéhe** *iz.* Arra betea.

**zéin** (gutxi), **zóin** (normalki), **zóinek**, **zóinen**, **zóinekin**, **zóinekilan**, **zóinendako**, **zénengatik**...e.a. *gald.* Zein, zeinek, zeinen, zeinekin, zeinendako, zeinengatik...e.a.: *Zóin dá pollítena?*

**zeinátu** *ad.* (da) Aitaren egin: *Elízán sártzjan zéina zíte.*

**zéinu** *iz.* Elizako ezkilekin egiten den deiaren modukoa. Ikus **hiltzéinu** eta **mezazéinu**.

**zeiru** *iz.* Garmendiak dioenez (1969: 223) arotzaren lanabesetako bat da *zeiria*, gaztelaniaz *azuela* deitzen den bera.

**zejár**, **zejarráize** *iz.* Mendebaleko haizea. Ikus **háize**.

**zelái** 1- *iz.* Zelaigunea: *Luzáiden anítz patár badá, zelái gúti*, 2- *izond.* Laua: *Étxe hórrek péntze edérrak eta zelájak tú erréka baztérrian.*

**zelaigúne** *iz.* Leku zelaia: *Zelaigúne hórtañ geldítuko gítxu istanpát pausátzeko.*

**zeláitu** *ad.* (da-du): *Péntze hóri beháixju zeláitu puxkát, sobéra málda baitá.*

**zemeráun** *iz.* Zenbera. Etxaidek (1989: 158) *zemberáuna* jaso zuen eta Satrustegik (1969b: 58) *zenberauna*. *Gásna ín óndwan geldítzen déna egósten dúxu tá atéatzen*

*déna zemeráuna úxu. Ta géro geldítzen dúxu gaxúra.*

**zén** 1- *izlag.* Zeren: *Eztá zén, etxú zén, eztúk zén* ‘ez da, ez duxu, ez duk zeren’, ‘ez horregatik’, *eskermíla*-ren errepostutzat erraten da / **zén tá (báit-)** 2- *mend.* Zeren eta (bait-): *Eztút hérrirat jwán behár, zén tá áutwa andeátja bainút.*

**zéna.** Berez *izan* aditzaren iraganeko hirugarren pertsona da, gibelean erlatiboa eta mugatzailea daramatzana. Batuan bezala, hila den norbait aipatzean ibiltzen da: *Bartzelónako Añés zéna.*

**zénbait, zónbait** *zenb.* 1- Batzuk, zenbait; hau izenaren aitzinean agertu ohi da: *Zenbáit jéndek eztjáixute gáuzak nóla íten djén;* *zenbáit aldíz jwáiten gítxu Bajónat itzúli batén ítea,* 2- ‘-ren bat’, ‘-ren batzuk’ gibelean ezarria delarik: *Egún zónbáitez jwáin gítxu xúre ikústea;* *turista ánitiz pasátzen dá Luzáidetik, éta bakár zónbáit geldítzen dá erósteko;* *lukáinkak hága zónbáitetaik dilindátzen díra, idór dítén.* Zenbaki baten ondoan ‘eta gehiago’ da batzuetan, erdarazko y *pico*-ren kide: *–Zónbat jín díra? –Hogoita zónbait ‘hogeí eta gehiago’.*

**zénbat, zónbat** *gald.* Zenbat: *Zénbat úrte dú Irúñen bízi gjéla?;* *zónbat afaltjár zineztén bárdá?*

**zéndako** *gald.* 1- Zertarako: *Hérrjan nehók ezatakí zéndako erósi utén étxe háundi hóri,* 2- Zergatik: *Eztakít zéndako jínizán, berdín hémen eztút jéuse íten.* Eskutitzetan *zerendako* osoa agertzen da: «Galdein niakoxun “zer pasatu zain?”, “deuse ez dinat senditzen, ez diakinat zerendako plantatu duten holako arua”». **Zértako** ere ibiltzen da, adiera berarekin.

**zentráil** *iz.* Argindarretxea. Hedaduraz zentral hauetako baten ondoan zen etxeari ere *Zentrála* erraten zioten.

**zentzátu** *ad.* (da) Zentzatu, fundamentua hartu: *Putéro zikína, nóiz zentzátu beháuk?*

**zéntzu** *iz.* Zuhurtasuna.

**zentzugábe** *izond.* Zentzurik ez duena, burugabea: *Hóri mutíko zentzugábja, sósik éz eta hólako óto kárjoa erósi behár!*

**zér, zé** *gald.* Zer. Joera da adizki trinkoekin *zer* aldaera osoa erabiltzeko eta gainerako in-

guramenduetan biak: *Zér dá, zér dirá, zér dáki, zér duté hórjek? Zér girá gú? Zérrizí? ‘zer haiz hi?’ ... Baina: Zé déurru! edo zér déurru! zé demónjo, zé demóntre pás-ten dá?, zé edán zutén? edo zér edán zutén?, zé gízón háundja!, zé maztéki itsúsja! Zé kánbjoak izán dirén Luzáiden undárreko hogóí úrte húntan! ABk beti, kasu guztietan, *zer* ibiltzen du, KB uhartearrak bezala; MAk, aldiz, *zer* eta *ze* darabiltza, lehena kasu guztietan eta *ze* aldamenean aditz perifrastikoa edo izena duenean, baina inoiz ere ez ondoan adizki trinkoa duenean / **zér djóxu?, zér djózu?** (esam.) Zer moduz? Ikus **badwajá?***

**zéra** *iz.* Espaloia (espainoleko *acera*-ren *cera* aldaera herrikoitik).

**zérbait, zéait** *izord.* eta *zenb.* Zerbait: *Zéait sós irázi náí dút, sós zéait irázi náí dút* ‘diru zerbait irabazi nahi dut’; *étxe hártan lánjan aizán nintzálaik zérbait ikási nún, tá zérbait báno géjore bá.*

**zerbéza** *iz.* Garagardoa (espainoleko *cerveza*-tik).

**zeremónja** *iz.* Ospakizuna edo (espainoleko *ceremonia*-tik).

**zérگا** *iz.* Zerga, ordaindu beharrekoa. Luzaideko arotzak ere badarabil, behin (Satrustegi, 1969): «Eiaraco zerga» (252).

**zernái** 1- *izord.* Zernahi, edozein gauza: *Zérrjek zernái játen díxje,* 2- *zenb.* Anitz: *Égun karríkan zernái jénde bazúxun / zernái déla lok.* Zernahi gisaz / **zernái erránka aizán ad.** (da) (esam. Ikus **erránka**) Kristorenak erran: *Éne kóntra zernái erránka aizán dúxu / zernái gísaz lok.* Zernahi dela, nolnahi ere. Ikus **edózein gísaz, edózoín gísaz / zernái ikúsi ad.** (du) Gorríak ikusi: *Zernái ikúsi giníxin árdjak bórdan ezín sártuz!* Cf. Saint-Pierre «Anxuberro»-ren hau (1998: 236): «Ilhunean karro tzar batzu jínik, higitzeko on ziren guziak heien barnean sakatu zituzten. Zer nahi ikusi ginuen, bideak eta oro gaixtoak baitziren, eta gero euria bizkar hezurreen». Ikus **xúrjak éta béltxak ikúsi / zernái izánik lok.** Zernahi dela: «Dioxute zainetaik dela; ez diakixut, zernahi izanik hein hortako gizona hola egoitia, nunbait zeait bau-xu» (MA).

**zerráma** *iz.* Urdama.

**zerrandéi** *iz.* Itxitura, zerratua: «Yt(em) una borda llamada de Enayonea (...) af(rentan)te a heredades de Recalde, Burdinerrec (...) yt(em) una Cerrandeguia, llamada (...) de Borya con árboles castaños contigua a la anterior» (1850, Agoizko hipotekak 3, 225-226). Egun *Tránpako zerrandéja* toponimoa dago. 1892ko katastroan *Cerrandeguia* ageri da eta 1914koan *Cerrandeguizarra* eta *Cerrandeguizola*.

**zerrapo** *iz.* Zerrapoa, sarraila. Luzaideko arotzak darabil (Satrustegi, 1969): «Zerrapo bat arriñaturic» (157), «bi zerrapo arriñaturic» (191), «bentaco zerrapo bat arriñatu» (221).

**zerrátu** 1- *ad.* (du) Itxi: *Gáu gúzjan etxít bégik zerrátu*, 2- *iz.* Lau urte baino gehiagoko ardia, hortz guztiak dituen. Ikus **hórtz**, 3- *iz.* Hesitua: *Béhi ñapúrta úxu zerrátu batetik eskapátzen déna*. Ikus **hétsi**.

**zérri** *iz.* eta *izond.* Txerria, zerria. **Urdé** ez bezala, animalia izendatzeko nahiz sakretako ibil daiteke: *urdé zérri zár zikína!*, *urdé zérri zikína (hí)*, *urdé zérrija!*, *zérri háundja hí!*, *zérri zikína!*, *zérri zárta!*, *zérri zár zikína*, *zérrija!*, *zérrija aláina*, *zérrija aláin zérrija!* **Xérri** ere erran daiteke animalia adierazteko, baina handia bada beti **zérri** izanen da / **zérri angéla** *iz.* Gizentzen ez den zerria. Satrustegik (1963-64: 257) honela azaltzen du *angela*: «Se dice de la nuez difícil de separar».

**zérri arrañátze** *iz.* Zerria hil ondoan egiten diren hauste, puskatze eta bestelako lanak. **Xérri arrañátze** ere erran daiteke.

**zerribázka** *iz.* Zerriari ematen zaion bazka. Ikus **ardibázka**, **bázka** eta **urribázka**.

**zerrihiltzále**, **zerrihiltzale** *iz.* Zerriak hiltzen duen pertsona.

**zerrihiltze**, **zerrihiltze** *iz.* Zerri hiltzea. **Xerrihiltze**, **xerrihiltze** ere erran daiteke.

**zerrikérja** *iz.* Ikus **urdekérja**.

**zerriketári** *iz.* Zerri bila joaten dena: *Egún atsáldjan zerriketárja jin beárta úxu zerrikúmen xéka*.

**zerríki** *iz.* Txerrikoa, txerri haragia.

**zerrikúme** *iz.* Txerrikumea. Hauetan **ordótsa** ‘arra’ eta **urríxa** ‘emea’ bereizten dira. **Xerrikúme** ere erran daiteke.

**zerrikutín** *iz.* Zerrikumea. Normalean **zerrikúme** erraten da.

**zerritéi** *iz.* Txerritegia. Arotzaren liburuan «serriteico bortaco lana parazeco» ageri da (Satrustegi, 1969: 199). **Xerritéi** ere erraten da.

**zértako** *gald.* 1- Zertarako: *Hérrjan nehók ez-takí zértako erósi utén étxe háundi hóri*, 2- Zergatik: *Ezakit zértako jinizán, berdín hémen ezítút jéuse íten*. Ikus **zéndako** eta hurrengo sarrera.

**zertarátu**, **zertaátu** *ad.* (da) Zertaratu. *Ez ginakín zertaátuko zén* ‘ez genekien zertara iritsiko zen’. Ikus **hortaátu**, **huntaátu** eta **nolakátu**. ABk eta MAK *zertako* ‘zertaratu’ darabilte: «M<sup>o</sup>Dolores, diela zombait egun errezibitu nixin anaia in letra; erraiten [t]ziaxun tantta etzuala hobekituz, etzakitela zertako zen» (AB), «tanttare berriz arras eri duxu; ez diakixut undarrian zertako den» (MA).

**zéru** *iz.* Zerua. Ikus **lórjan egón**.

**zezén** *iz.* Zezena. Cf. «Behi pare atekin zezenetik heldu zelaik behiak izitu eta lurreat bota eta gainetik pasatu behiak, eta zanguan hexur bat hautsi» (AB).

**Zeztáu** *iz.* Ondarrolan den *Zeztáwa* etxeko nagusia, edo bertako beste norbait; **Zeztáusa** *iz.* *Zeztáwa*-ko etxekoandrea.

**ziátika** *iz.* Ziatika gaitza (gaztelaniako *ciática*-tik edo frantseseko *sciaticque*-tik). MAK *zeatika* darabil.

**zibalérja** *iz.* Haur multzoa (cf. gaztelaniako *chavalería*): *Zé zibalérja dén hémen!*

**zigánte** *iz.* Bolant eguneko pertsonaia, erraldoia.

**zigantepéko** *iz.* **Zigántja** daraman laguna.

**zigárro** *iz.* Tabako multzoa, paperean bildua erretzen dena (gaztelaniako *cigarro*-tik).

**zikaneria**. Juan Cruz Arrosagaraik darabil (Satrustegi, 1967: 114): «Arrazoina bazitaken / Ba, horien artian, / Erreklamatu beharra / Ba zegon aspaldian; / Izanikan ere tranpak / Abil zikanerian / Tronpatuak omen dira / Orái uste gabian». Guk **xikán** ‘iruzurra, jukutria’ bildu dugu.

**zikín** 1- *izond.* Zikina: *Zikína!* Sakreetan anitz ibiltzen da, sakretako eta indartzailetako, biraoari indar gehiago emateko: *Madariká-tu zikína!*, *urdé zár zikína!*, 2- *iz.* Zikinke-

ria: *Alú horí ez díxit kústen ál bégjan zikína báno géjo* (esam.). Ikus **xikín** eta Kamino & Salaberri & Zubiri (2004: 330-331).

**zikíndu** *ad.* (da-du) Zikindu.

**zikinkérja** *iz.* Zikinkeria.

**zikinkór** *izond.* Aise zikintzen dena: *Xúrja kolóre zikinkórra úxu*. Beskoitzen ere ibiltzen da (Duhau, 2003: 263).

**zikíro** 1- *iz.* Zikiroa. Bonapartek dio (1881: 162) Luzaiden *ari* ibiltzen dela eta Baigorrrin *zikiro*, baina egun lehen herrian *zikírewa* da ohiko hitza honen errateko, 2- *iz.* eta *izond.* Mutilzaharra, donadoa (lagunarteko erregistroan; cf. Otsagabiko **bókea** 1- Akerra, 2- Mutilzaharra): *Zikíro tzár horrékilan éz gátzi neháte*. Ikus **ahári** eta **zikirobéstá**.

**zikirobéstá** *iz.* Zikiro jatea: *Léhen axúri ahá-rjak méndirat igórtzentzítxun buztána móztu gábe, hán gízéntzeko tá úda pasátu óndwan, gízéndu óndwan játentzítxun, éta hórri értentzítzákoxon zikirobéstá édo zikirojátja*.

**zikirobuztán** *izond.* Adiskidetasun giroan, jostetan ibiltzen den sakre gisako zerbaít: *Háuxtílik, zikirobuztána, etzákala pitoké-rjaik errán; urdé zikirobuztána, háu deá étxeat jíteko tenórja?* Luzaiden eta Iparraldean usaia izan da zikiroei buztana ez mozteko, hain segur ere gero aisekiago bereizteagatik.

**zikirojáté** *iz.* Ikus **zikirobéstá**.

**zikítátu** *ad.* (du) Zikiratu. Batuan –*ratu* bukaera duten zenbaít aditzek Luzaideko euskarán –*tatu* dute: **burutátu** ‘bururatu’ eta **gotátu** ‘bururatu’ erratan da adibidez.

**ziko** *iz.* Larrua jotzea, txortan egitea / **zíkwan** **áizán** *ad.* (da) Larrua jo, txortan egin.

**zikótu** *ad.* (du) Larrua jo: *Zikótu úte izágarri úntsa*.

**zila** *burdina iz.* Arotzak darabil (Satrustegi, 1969: 206): «Sila burdina bat». Irudi luke ‘zulaburdina’ dela, zuloak egitekoa alegia, erdarazko *barrena* edo.

**zilár** *iz.* Zilarra.

**zilátu** *ad.* (da-du): *Pilótan ártzen bazíra pantalónak zilátuko zazkítzu*. Ikus **xilátu**.

**zilo** *iz.* Zuloa. Ikus **xilo** / **zilo izán** *ad.* (du): *Pantalón hók púrtik zilo txít* ‘Galtza hauek ipurdi aldean zulatuak ditixut’.

**ziméndu** *iz.* Zimendua.

**ziménta** *iz.* Porlana (frantseseko *ciment*-etik).

**zimentatu** *ad.* (du) Porlandu, porlanez estali (cf. frantseseko *cimenter*).

**zimíko** *iz.* Atximurra (≠ **ximíko**; aldea *ta-mainan* dago) / **zimíko ín** *ad.* (du) Atximur egin: *Háur mukúzu gáixto hórrek alimáleko zimíkwa ín dakó béste hórri*.

**zimikobérri**. Norbaitek jantziren bat estreina-tzen, musten duenean, txantxetan zimikoa egiten zaio, *zimikobérri* erranez.

**zimíkoka adond.** Atximur egin / **zimíkoka aizán, hási, íbili** *ad.* (da) Atximurka ari izan, hasi, ibili.

**zimíno** (= **ximíno**) *iz.* Tximua.

**zimítz** *iz.* Gaztaren egiteko moldea. Ikus **ximítz** eta Satrustegi (1969b: 58).

**zimízta** *iz.* Inaztura. Cf. «Ze denbora terribliak! Ze euraki eta iortziri karraska itsusiak eta zimiztak» (AB).

**zimíztaka áizán, hási** *ad.* (du) Tximistaka aritu, hasi: *Zimíztaka ái díxi, fíte éurja*.

**zimúr** *iz.* Zimurdura.

**zimúrta** *ad.* 1- (da-du) Zimurtu, zimurrak atera: *Líhozko arrópak izágarri zimúrtzen díra; adínaikin jéndja zimúrtzen díxu*.

**zíné** *iz.* Zinema (gaztelaniako *cine*-tik).

**zínéz adond.** Benetan, egiazki / **zin-zínéz adond.** Bene-benetan: *Zin-zínéz erráuten dáuxut jwain nizála lán horrén ítea*.

**zingár** *iz.* Ikus **xingár**.

**zingarrázpi** *iz.* Urdaiazpikoa: *Erósi behár djakoxót zingarrázpi bát buxérrai*. Ikus **xingarrázpi**.

**zinkór** *izond.* Zuhurra, zikoitza. Cf. Ondarro-lako P. J. Etxamendiren erranairu hau (2004: 200): «Zinkorra izan balitz iruzki, berorik ere etzuen emanen nehoi».

**zinta** *iz.* Luzaideko arotzak darabil, Satrustegiren arabera (1969: 285) ‘banda de hierro’ adierarekin: «Carrosai bi zinta» (206), «are zurain zinta bat» (207), «zinta bat amasei granpoin» (212), «iru maquilen zinta, sei granpoin berri» (215), «lau zinta nabar (ba)tzuc» (215), «bi muturreco zinta» (216).

**zintxa mihi** *iz.* Luzaideko arotzak dakar (Satrustegi, 1969: 198, 207): «Lau zincha mii ezarriric», «lau sinch mii», «lau zincha mii ezarril (sic) ai[z]cora bat alzairatu», «bi sincha mii arrastelu bat ize bat». Satruste-

giren arabera (283) 'txintzarria', 'joare txikia' da *xintxa* (edo *zintxa*). Cf. **xilintxa**.

**zintzúr** *iz.* Eztarria: *Badját zintzúrrija kéntzen etzaitán erlastúrat*.

**zinúrri** *iz.* Inurria. Ikus **xinúrri**.

**zipilátu** *ad.* (da-du) Erre. *Béro astapító húnekin belár hók zipilátuko txú ixtántjan*.

**Zipíli** *iz.* Pekotxako *Zipilínja*-ko nagusia, edo etxe honetako beste norbait. Ez dugu **Zipilísa**-ren modukorik aditu, baina bazateke; cf. MAren hau: «Kontxita izan duxu, betiko serora pollita, Iruñen duxu; orai bultta zenbaitendako jina. Zipilingo Juaniñore gaizua hospitalian duxu, operatu behar dila; zer din ez diakixut».

**zipilurrín** *iz.* Erre usaina. Ikus **kakurrín**, **pi-zurrín** eta **urrín**.

**zíri** *iz.* Ziria. Txikia denean **xíri** edo **xiríño** da.

**ziribuztánka bóta** *ad.* (du) Enbor bat, hesol bat edo antzeko gauza luzexka eta pisua mutur batetik hartu, zutik jarri eta aitzina bota: *Bóta záxu tránku hóri ziribuztánka béiti*. Cf. *OEH*-n biltzen diren *buztanka*, *buru-buztanka*, *buruz-buztanka* eta *buztanka*. Izetak Baztanen (1996: 197) *ziripuztenka* 'tarrapataka', 'presaka' bildu zuen.

**zirikota** *iz.* Satrustegik dio (1963-64: 283) 'residuo de suero después de extraído el reqesón' dela. Guk **gaxúr** aditu dugu beti.

**ziríndu**, **ziríndja izán** *ad.* (da) Zirineriarekin egon, aziendak kakeriarekin egon: *Ahátxe hóri ziríndja úxu*.

**zirinérrja** *iz.* Animalien kakeria.

**zirimarráko** *iz.* Zirriborrea, *garabato* erdaraz. Cf. **márra**.

**zirrínta**, **xirrínta** *iz.* 1- Soinua, txistua: «Polliki duxu itxuretan; haure biziki untsa gizen dia, bana ez duxu kontent bronkiotako zirrínta hori etzakolako juaiten» (MA). ABK hau bera errateko *ziztu in* darabil: «Errain dauxt marranta nizala eta ene bronkioak ziztu iten dixie; eztula ttipitia ixit», 2- Errainua, izpia: *Árgi xirrínta*.

**zirrísta** *iz.* Xurruxta; **xirríxta** baino handiagoko txirria. Ikus **húr turrústa**, **turrústa**, **tti-rríla**, **xurrústa**, **zurrústa**.

**zirtzil** *izond.* Zarpazua, gaizki jantzia joaten dena: *Urdé zirtzil zikína!*, *nóiz aldátu behártúk pílda tzár hórjek?* Eguraldiarekin ere erabiltzen da: *Zé denbóra zirtzila!*, *béti éuri!*

**zirurikatu** *ad.* Gai baten ganean behin eta berri-ri ari izan. Satrustegik (1963-64: 283) biltzen du.

**zíto** *iz.* Ijitoa: *Ohítzen níz éne gázte dénboran zító bátzuk baztérretxe átjan ebátsi zutéla tá beála hatzémantzutéla*. Sakretako ere ibiltzen da hitz hau: *Donjáneko merkátjan ez erósi Lásako gízón hórri, zító hútsa baitá!* Ikus **buháme**.

**zitróin** *iz.* Limoia (biarnes-gaskoiko *citrou*-tik edo frantseseko *citron*-etik): *Zitróinaikilako dútja edán ginín*.

**zizél** *iz.* Zizela, lan tresna. Luzaideko arotzak (Satrustegi, 1969) *sisel* zerabilen, menturaz *xixel* ebakitzen zuelako: «Sisel berri bat lauzaco» (147), «bi sisel laua aterazeco» (149), «bi sisel chorrosturic» (166). Hau, hala ere, ez da segurua, /s/ (z idatzia) irudikatzeko ere <s> ibiltzen baitu. Garmendiak (1969: 223, 224) arotzaren lanabesa den *xixel-kopa* aipatzen du. Ikus **kopa**.

**zizel itze** *iz.* Luzaideko arotzak dakar (Satrustegi, 1969: 71): «Gonz bat bi sisel ize bi berri».

**zizpadun**. Satrustegik (1963-64: 283) 'burdinazko muturra duen makila' adiera ematen dio. Ikus **xíxpa**.

**zizpúr** *izond.* Kizkurra: *Bílo zizpúrta* 'ile kizkurra'.

**zíztu** *iz.* 1- Txistua, soinua, 2- Abiadura handia: *Zé zítzjan jwán dén zakúrta!* / *zíztu ín ad.* (du) Zarata atera, soinua egin. Ikus **zirrínta**.

**zjék**, **zjér**, **zjékin**, **ziháur** - **ziáur**, **ziháuk** - **ziáuk**, **ziháuri** - **ziáuri**, **zjén báitan**, **ziháun báitan** - **ziáun báitan**. . . e.a. *izord.* Zuek, zuei, zuekin, zeroriek, zeroriei, zuen baitan, zerorien baitan. . . e.a.

**zóhi** 1- *iz.* Zohia, lur zatia, 2- *izond.* Zoria, ondua. Cf. MA hau: «Hari gituxu anitz lanian; orai alderdi guzitat sointa lana duxu: ilar anitz bauxu eta denak zohi».

**zohítu** *ad.* (da) Zoritu, heldu, ondu: *Íllárrak zohítu díra éta beréhala behárko tú bildu*.

**zoinátu** *ad.* (da-du) Zaindu (frantseseko *soigner*-etik, irudiz): *Éne máztjak izígarrí úntsa zoinátzen nú éri nizálaik*. Gutunetan gehienetan *zuañatu* agertzen da, baina behin edo beste *suañatu* ere bada.

**zoinatzále** *iz.* eta *izond.* Zaintzailea. Luzaideko gutun batzuetan *zuañatzale* ageri da. Ikus **zaintzále**.

**zoko** *iz.* Zokoa. Ikus **xoko**.

**zokobetegáilu** Deusetako ez den gauza, baka-  
rrik lekua hartzeko on dena: *Zértako úk  
trésna háu étxjan zokobetegáilu?*; *etxít zo-  
kobetegáilu náhi libúru hók.*

**zokokári** *izond.* Besteren gauzak biltzen-eta  
aritzen dena: *Zokokárja úxu zókotan  
ibíltzja gustáztzentzakóna, etxú sobéra  
gáuza húna.*

**zola** *iz.* 1- Zolua, lurra, 2- Leku baten beheko  
aldea ere adierazten du. Cf. ABren hau:  
«Zola hotan eztuxu elurrik, bana gain ho-  
rietan bauxu. Ederraikin usatuta orai etxu  
goxo holako kanbioa». Ikus **behére**,  
3- Etxearen beheko solairua, 'beheitia'.  
Satrustegik (1969b: 53) 'labearen behea,  
zola' adieraz jaso zuen.

**zolahúra** *iz.* Zola: *Gúre etxéko zolahúra xahá-  
rra dá éta behár dú arrañátu* 'gure etxeko  
zola zaharra da eta konpondu behar dugu.  
Satrustegik (1969b: 97) 'tarima' adiera  
ematen dio.

**zolaípe** *iz.* Sapaia.

**zolatú** *ad.* Zola jarri edo. Luzaideko arotzak  
darabil (Satrustegi, 1969): «Zapata parre  
bat zolat» (sic) (218), «zolzaze» (223).

**zoldazu** *izond.* Zikina, ezdeusa. Satrustegik  
(1963-64: 283) biltzen du.

**zoldra** *iz.* Zolda, gauzei atxikitzen zaien zikin-  
keria: *Zartáin hóri karrákaka garbítu be-  
hárko úxu, béstenaz etzakóxo dín zoldra  
kénduko.*

**zombána, zembána** *banat.* Zenbana: *Kattálin,  
ttuku-ttuku, Kattalín áriná, zónbana sál-  
tzen dúzu dózena xardiná?* (kantua).

**zór** *iz.* Zorra, beste norbaiti ordaindu edo  
bihurtu beharrekoa / **zór izán** *ad.* (du) *Míla  
pécta zór dázkixut.* ABk gutunetan beti  
*nor-nori-nork* saila darabil aditz honekin,  
baina MAK sail hori ez ezik *nor-nork* ere  
badu, pare bat aldez: «Ordu balin badu has-  
ten nuxu bi lerroen egiten; ahatzia dixit ja  
noizezkioz xitutan zor letra».

**zordún** *iz.* Zorra duena.

**zórka aizán** *ad.* (da) Zorrien edo edozein ma-  
mutxaren hiltzen ari izan: *Óllwak zórka ái  
djélaik euríten díxi.* Azkuek hiztegian Zu-  
beroako *zorkan* 'matando piojos', 'picote-  
ando las plumas' bildu zuen. Horixe bera  
da Luzaideko adiera.

**zorrátu** (gehienetan), **izorrátu** (gutxitan) *ad.*  
(da-du) Izorratu, joditu (baina ez 'andeatu'  
adieraz): *Zorrátu behár dú pító zikín hóri*  
'izorratu behar dugu pito zikin hori', *izórra  
hádi, zórra bédi.*

**zórri** *iz.* Zorria / **zórria bezáin póbrja izán**  
*ad.* (da) (esam.) Arrunt pobrea izan: *Maz-  
téki hórri senárre híltzitzákon éta orái  
zórria bezáin póbrja dá.*

**zorripíztu** *izond.* Bat-batean, denbora guti  
barne aberasten dena: *Zorripíztu zikín hó-  
rrek, aberástu dénetik, eztáit éleik íten.*

**zorrízu** *izond.* Zorritzua: *Urdé zorrízu zikínal,  
nwát jín híz húnat, baztérren nahástea?*

**zórro** *iz.* (adier.) Sabela: *Zé zórroa ín dukán,  
urdíal, zé ján dúk?*

**zorroáundi** *izond.* (adierazk.) Tripaundia: *Zo-  
rroáundi hórrek egún gúzja pásten dú já-  
ten, núntik eztá gizénduko hóla?*

**zorrotz** *izond.* Zorrotza. Ikus **xorrotz**.

**zorrotzú** *ad.* (du) Zorrotzu. Ikus **xorrotzú**.

**zórta** *iz.* Xorta handia. Ikus **xórta**.

**zortíla** *iz.* Zorta ttipia. Ikus **ttottáño, xortáño**  
eta **xortíla**.

**zortzi** *zenb.* Zortzi; *zortzíra* 'zortzina', *zortzje-  
ín* 'zortziehun'.

**zóta** *iz.* Txota, karta bat.

**zóte** Luzaideko «ddantzetako» urrats baten  
izena / **zóte ta híru**. Luzaideko «ddantze-  
tako» urrats baten izena.

**zotín** *iz.* Zotina. Ikus **xotín**.

**zotínka adond.** Zotinka. Ikus **nigár-zotínka /  
zotínka aizán, hási** *ad.* (da) Zotinka aritu,  
hasi: *Nexkáto hórrek gasjósa ánit edán dú  
éta wái zotínka hási úxu.*

**zozo** 1- *iz.* Zozoa (hegaztia), 2- *izond.* Mentsa  
(jendearendako erraten da): *Zozo háundja  
híl, deurrú zózwal, zózwa idúri zján bána  
bánkuko diretórre ín djé, harrápa zák buz-  
tánetik, tó!* Ikus Kamino & Salaberri & Zu-  
biri (2004: 331), **tónto** eta **xóxo**. Cf. MA-  
ren aipu hau: «...eri eritasun drole atekin,  
zainak diela orai erran dakola medikiak, la-  
nik bate-bate ez dezan in; ez diakoxu seur  
punimendu (txarra eman. Dena zozo ele,  
hau dela, hura dela».

**zozokéria** *iz.* Menskeria: *Zé arrazoinaménd-  
jak dirá hórjek? Nóla érten al txú hólako  
zozokérjak?; zé zozokérjak erráuten tén er-  
gél hórrek!, etzakóxola káswik ín.*



**zozólo** *izond.* Zozoa, zozoxka: *Urdé zozólwa, zéndako ín dúk hóri!*

**zozótu** *ad.* (da-du) Menstu, tontotu: *Mutíko hóri léhen abila zúxun, bána orái arrúnt zozójtja úxu.*

**-zu** *atzi.* Ugaritasuna: *Bátzu, eldértzu, kakázu, mukúzu, zoldazu, zorrízu.*

**zú, zúk, zúri, zúre, zuháu, zuháuk, zuá-ri...**e.a. *izord.* Zu, zuk, zuri, zure, zerori, zerorrek, zerorri...e.a.

**zúhi** *iz.* Zubia: *Arméitik jíteakwán zuhítik béiti eróri zúxun.*

**zuhúr** *izond.* Zekena, zikoitza: *Aberáts okítja zén, bána zuhúrta, eta arrúnt póbreki bez-títzentzén.* Ikus **bolondrós** eta **xuhúr**.

**zuhúrtzja** *iz.* Zuhurtzia, burutsua izatearen nolakotasuna

**zúka aizán, hási, mintzátu** *ad.* (da) Zuketan aritu, hasi, mintzatu. Eztabaidako erregistroa da.

**zukurátu** 1- *ad.* (du) Azukrea eman zerbaiti, 2- *izond.* Azukrea duena: *Kafésnja zukrát-wik gustáztentzjáxu.*

**zúkure** *iz.* Azukrea (frantseseko *sucre*-tik).

**zukrekoxkór** *iz.* Azukre koskorra.

**zukremokór** *iz.* Azukre koskorra.

**zukreúntzi** *iz.* Azukre ontzia.

**zun-zuná** *adond.* Zuzen-zuzena: *Étxeat jwán zukán zun-zuná.* Ikus **zúzen**.

**zúr** *iz.* (*zúra* era mugatuan) Zura, landutako egurra.

**zureri** *iz.* Etxeko zureria da, Satrustegiren arabera (1969b: 97).

**zurgín** *iz.* Zurgina, zura lantzen duena.

**zurgíntza** *iz.* Zurgingoa, zurginaren lanbidea.

**zúri** *izond.* Zuria. Ikus **xúri**.

**zurítu** *ad.* (da-du) Zuritu, zuri kolorea hartu: «Azinda xuriaindako egun [t]xarrak; kanpuan etxie deuse jaten, karroinak denak arrunt zuritiak ditíxi. Ze inen da? Pazientzia!». Normalena *x*-dun aldaera da; ikus **xuítu**.

**zurketa**. Luzaideko arotzaren kontu liburuan «zu(r)quetan cantero erdi bat ano» dago,

hots, ‘zurketan, zur bila joatean pegar erdi bat ardo’ (Satrustegi, 1969: 238).

**zurmíndu** *ad.* (da) Urdindu, lizundu: *Ógi hóri zurmínduxú ‘ogi hori zurmíndu, lizundu duxu’.* Ikus **musítu**.

**zurpáil** *izond.* Zurixka.

**zurúpitaka aizán** *ad.* (da) Euria arrunt gogor egin: *Zurrúpitaka ái dú éurja ‘euria goian-behean ari du, arrunt gogor’.* Caminok (1997: 615) Aezkoako *tzurripitaka* ‘euria gogotik ari duenean esaten da’ dakar.

**zurústa** *iz.* Ur txirri handia. Txikia bada **xur-rústa** erraten zaio, eta **tírríla** arrunt txikia bada, mehe-mehea. Cf. **húr turrústa, húr zurústa**. Caminok Zaraitzun *zurrustaka* «turrustaka; esaterako, euria gogotik ari duelarik» bildu zuen (1997: 623).

**zurtaúra** *iz.* Gorputz handia edo (**zúr**-etik, irudiz): *Jántzaxu, ján. Xúre zurtaúraindako zeáit beháxuxu!* Behin bakarrik aditu dugu.

**zurúbi** *iz.* Eskuzko eskailera ( $\neq$  **eskalér**).

**zútibalántzan izán** *ad.* (da) Erori-ez erori egon: *Doi-dója zútik egóiten dénai erráit-entzjáxoxo, konpazjóné hesól bát «zútibalántzan dúxu» erráiten dúxu.*

**zútik adond.** Zutik. Ikus aurreko sarrera eta **xútik / zútik járri** *ad.* (da) Zutitu / **zútik zárri** *ad.* (du) Zutik paratu.

**zutíkako** *iz.* Zurkaitza, zerbait atxikitzeo ezartzen den taketa.

**zutítu** *ad.* (da-du) Zutik jarri: *Zakúrta eráusika hási zélaik áire míla demónjo zutítu zén éta lékjak íntzín hántik.*

**zúzen, zuzén** 1- *izond.* Okerra ez dena: *Aurízko bide hóri zuzén-zuzéna dá, 2- adond.* Zuzenki. *Étxeat jín tá zuzén jwántzén ófeat.* Kasu honetan indarra emateko hitza errepikatzean **zún-zúna** edo **xún-xúna** erraten da: *Étxeat jín tá zún-zúna jwántzén ófeat.* Ikus **xúxen**.

**zuzéndu** 1- *ad.* (du) Zuzen ezarri: *Jwán dén ástjan xíxpai zuzéndu ginjakoxón hórtz bát.* Ikus **xuxéndu**.

# BIBLIOGRAFIA

---

- ADÉMA, G. (1887): *Escualdun Pelegrinaren Bidaltzailea*, Baiona.
- AINZIBURU, A. & ETXARREN, J. B. (2002): *Luzaiden gaindi*, Elkarlanean, Donostia.
- ARANA, A. (2003): *Zaraitzuko hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Alegia.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA (1990): *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL)*, lehen atala, bigarren zatia, Donostia.
- ARBELBIDE, X. (2003): *Euskaldunak Aljerian (1954-1962)*, Elkar, Donostia.
- ARBIZU, F. (1992): *El conflicto de los Alduides (Pirineo Navarro)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- ARROSAGARAI, J. K. (1983): *California-tik kantuz*, Auspoa liburutegia 163, Tolosa.
- ARTOLA, K. (2003): «Zaraitzua aztertzeko ekarpen berriak. (3 - Eaurta: bukaera)», *FLV* 93, 211-245.
- AXULAR (1643): *Gvero*, Bordele. Guk Euskaltzaindiak 1988an egindako faksimilea erabili dugu. Bada, orobat, Villasantek 1976an egindako argitalpena, itzulpenaz hornitua, Jakin, Arantzazu-Oñati.
- AZKUE, R. M. (1969 [1905]): *Diccionario Vasco-Español-Francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, bi liburuki.
- (1969 [1923-1933]): *Morfología Vasca*, hiru liburuki, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- AZPIROTZ, J. M. (1963-64): «Azkue jaunaren iztegia osatzeko, Nafarroako Leitze-n bildutako itz-bilduma», *Euskera* VIII-IX, 31.
- BARANDIARAN, J. M. (1974): «Rasgos de la vida popular de Dohozti», *Ikuska 2º. Monografías de la Vida Popular*, in *Obras Completas*, IV. alea, 17-104, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo. Lan hau lehenago *Eusko-Folklore-n* argitaratua zen, 151-179. zenbakietan.
- BARBIER, J. (1926): *Piarres*, Baiona. Bada 1992an Ramón Sanchezek prestatutako argitalpena, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- (1987): *Supazter sokoan*, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo.
- BIDEGAIN, E. (2002): *Anbroxio*, Elkar, Donostia.

- BONAPARTE, L. L. (1881): «Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos», *Revista Euskara* IV, 161-166.
- CAMINO, I. (1997): *Aezkoako Euskararen Azterketa Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Lasarte-Oria.
- (2004): *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- (2004b): «Nafarroa Behereko euskara», *FLV* 97, 445-484.
- COROMINES, J. & PASCUAL, J. A. (1989): *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Madril, Gredos, lehen argitalpenaren bigarren berrinprimaketa.
- DARRICAU, B. (2000): *Beilaria, zertan da gaua?*, Elkarlanean, Donostia. Beñat Dagarretzek egindako itzulpena.
- DUHAU, H. (2003): *Hasian Hasi. Beskoitzeko Euskara (Beskoitzeko Heskuara)*, Euskal Kultur Erakundea & Beskoitze, Donibane Lohizune.
- DUNY-PÉTRÉ, P. (1996): *Xirula Mirula*, Eusko Press, Baiona.
- DUVOISIN, J. P. (1986 [1858]): *Laborantzako liburua*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarratz.
- EPELDE, I. (2003): *Larresoroko euskara*, Gasteizen aurkeztutako doktorego tesi argitaragabea.
- ERDOZIA, J. L. (2001): *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- (2004): *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea.
- ESTORNÉS, J. (1985): «Zoilo'ren uzta. La cosecha de Zoilo», *FLV* 45, 31-93.
- ETXAIDE, A. M. (1989): *El Euskera en Navarra: Encuestas Lingüísticas (1965-67)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ETXAMENDI, E. (1988): *Gilentegiko Gilen*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- ETXAMENDI, P. J. (2004): *California'ko bertsolari eta musikari*, Auspoa 288, Donostia.
- ETXARREN-LOHIGORRI, J. B. (1993): *Zubi madarikatua*, Pamiela, Iruñea.
- ETXEBARNE, E. (1989): *Erramun Harginaren Oroitzapenak*, Auspoa Liburutegia 198, Donostia.
- ETXEPARE, B. (1980): *Linguae vasconum primitiae (Edizio kritikoa)*, Patxi Altunak paratu argitalpena, Mensajero, Bilbo. Bada Akesolok eta Lafonek 1978an Donostian egindako argitalpena (1545. *Bernat Dechepare. Olerkiak*, Txertoa) eta Euskaltzaindiak egindako beste argitaraldi bat, 1995ean. Hondarreko honetan testua beste bost hizkuntzatara iraulirik dator.

- ETXEPARE, J. (1985): *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) Idazlanak. II Medikulas*, Piarres Xarrittonek paratu argitalpena, Elkar, Donostia.
- (1987): *Beribilez*, Klasikoak 17, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- (1988): *Jean Etchepare Mirikuaren Idazlanak. III Kazetaritza (A) (1903-1915)*, Piarres Xarrittonek prestatu argitalpena, Elkar, Donostia.
- (1992): *Jean Etchepare Mirikuaren Idazlanak. IV Kazetaritza (B) (1916-1935)*, Piarres Xarrittonek paratu argitalpena, Elkar Donostia.
- (1996): *Jean Etchepare Mirikuaren Idazlanak V. Euskalerriko Bizia*, Piarres Xarrittonek paratu argitalpena, Elkar, Donostia.
- ETXEPARE LANDERRETXE, J. (1991): *Mendekoste gereziak*, Inazio Mujikak paratu argitalpena, Erein, Donostia.
- EUSKALERRIA IRRATIA & MUXIKA, M. (1990): *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1999): *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa. Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*, Bilbo.
- (2000): *Hiztegi Batua*; lan hau *Euskera* aldizkariaren separata moduan argitaratu zen (2000, 2, 45) eta ez da hiztegi bukatua, *in fieri* dagoena baizik.
- GARCÍA-PELAYO, R. & TESTAS, J. (1998): *Diccionario Español-Francés / Français-Espagnol*, Larousse.
- GARMENDIA, J. (1969): «El “eskalapineilia” de Valcarlos», *CEEN* 8, 221-226.
- GAVEL, H. (1969 [1920]): *Éléments de Phonétique Basque*, *RIEV* XII, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- HIRIART-URRUTI (1972): *Zezenak Errepublikan*, Jakin, Aranzazu argitaletxea, Oñati
- (2004): *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*, X. Altzibar arg., Labayru & Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo.
- IBARRA, O. (1995): *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- IÑIGO, A. (2005): *Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*, Mendaur bilduma I, Nafarroako Gobernu - Euskaltzaindia, Iruñea.
- IÑIGO, P. & SALABERRI, P. & ZUBIRI, J. J. (1995): «-Ki aditz-atzizkiaren gainean», *FLV* 69, 243-295.
- INTZA, D. (1974): *Naparroa-ko Euskal-Esaera Zarrak*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- IRIGARAI, A. (1958): *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak*, PV, Iruñea.

- IZETA, M. (1996): *Baztango Hiztegia*, Nafarroako Gobernua.
- (1999): *Baztango kontuak*, Nafarroako Gobernua & Labayru Ikastegia, Bilbo.
- JIMENO, J. M. (zuz.) (1996): *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra (NTEM)*, XXXV alea (Auritz – Erroibar – Kintoa – Luzaide – Orreaga).
- JOANATEGI, G. (2003): *Alemaniarra deportatua*, M. Etxehandiren itzulpena, Elkar, Donostia.
- KAMINO, P. & SALABERRI, P. (2001): «Hitz eratorriak Luzaideko hizkeran», *FLV* 86, 67-86.
- (2001b): «Aditz trinkoen orainaldiko formak Luzaideko euskaran», *FLV* 87, 193-202.
- (2004): «Nafarroa beheko hiru eskutitz», *FLV* 95, 89-113.
- (2006): «Luzaideko eta Ondarrolako hiru gutun», *FLV* 101, 95-108.
- KAMINO, P. & SALABERRI, P. & ZUBIRI, J. J. (2004): «Luzaideko hizkera adierazkorra. I. Sakreak», *FLV* 96, 317-322.
- LARRE, E. (2001): *Ene artzain-etxolak*, Auspoa - Sendoa 273, Oiartzun.
- LARZABAL, P. (1991): *Piarres Larzabalen Idazlanak I. Etxahun eta...*, Piarres Xarrittonek paratu argitalpena, Elkar, Donostia.
- (1992): *Piarres Larzabalen Idazlanak III. Orreaga...*, Piarres Xarrittonek paratu argitalpena, Elkar, Donostia.
- (1998): *Piarres Larzabalen Idazlanak VII. Oroitzapenak*, Piarres Xarrittonek paratu argitaraldia, Elkarlanean, Donostia.
- LEGRAN, M. et. alii (1995): *Le Robert pour tous. Dictionnaire de la langue française*, Paris.
- LEIZARRAGA, J. (1571): *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, Arroxela.
- LÉON, L. (1993): *Alegia deus ez!* Elkar, Donostia-Baiona.
- LESPY, V. & RAYMOND, P. (1998): *Dictionnaire Béarnais Ancien & Moderne*, J. Lafittek egindako argitalpena.
- LHANDE, P. (1926): *Dictionnaire Basque-Français*, Paris.
- LIZARRAGA, B. (2006): «Leitzako hizkera adierazkorra: biraoak», *FLV*-en 103. zenbakian atera beharreko lana.
- LIZARRAGA, J. (1994): *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak (JMESB)*, J. Apeztexeak eta F. Ondarrak egindako argitalpen kritikoa, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

- (2004): *Doctrina Christioaren Cathechima*, J. Apezetxeak paratu argitalpena, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- MANEZAUNDI (ENRIQUE ZUBIRI) (1990): *Artikulu bilduma*, R. M. Pagolak prestatu argitalpena, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo.
- MENÉNDEZ PIDAL, R. (1962): *En torno a la lengua vasca*, Espasa-Calpe Argentina, Buenos Aires.
- MINABERRI, M. (1998): *Marijane konta zan*, Elkarlanean, Donostia.
- MITXELENA, K. (1955): «La DOCTRINA CRISTIANA de Betolaza», *ASJU* II, 43-60. *Sobre Historia de la Lengua Vasca*-n ere agertu zen («Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiko Urtekariaren Gehigarriak X, A. Lakarrak M. T. Etxenikeren eta B. Urgellen laguntzarekin egindako argitalpena, Donostia), 824-837.
- (1964): *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madril.
- (1987-2005): *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco (OEH)*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1990 [1961]): *Fonética Histórica Vasca (FHV)*, «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegiaren Gehigarriak IV, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 4. argitaraldia.
- NARBAITZ, P. «P. ARRADOY» (1999): *Kattalinen gogoetak*, Elkarlanean, Donostian.
- ORONoz, M. (2001): *Oilandoiko kapera*, Elkarlanean, Donostia.
- PALAY, S. (1991 [1974]): *Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes*, CNRS éditions, hirugarren argitalpenaren berrinprimaketa.
- PERURENA, P. (1996): *Leitzako Errege Erreginak*, Euskaltzaindia & Bilbao Bizkaia Kutxa, Bilbo.
- PICOCHÉ, J. (1994): *Le Robert. Dictionnaire étymologique du français*, Paris.
- SAINT-PIERRE, P. «Anxuberro», (1998): *14eko Gerla Handia*, Piarres Xarritonek paratu argitalpena, Klasikoak, 85, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- SALABERRI IBARROLAKOA (1856): *Vocabulaire de mots basques bas-navarraïts traduits en langue française*, Baiona.
- SALABERRI, P. (2000): «Luzaidoko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan», *Dialektologia gaiak*, Koldo Zuazo arg., Arabako Foru Aldundia, Araba, 221-259.
- SALABURU, P. & LAKAR, M. (lag.) (2005): *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Mendaur bilduma II, Nafarroako Gobernua – Euskaltzaindia, Bilbo.
- SARASOLA, I. (1984-1995): *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, CAP-GK, Donostia.

- (1996): *Euskal hiztegia*, Kutxa Fundazioa, Donostia.
- SATRUSTEGI, J. M<sup>a</sup>. (1961): «Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca», *Euskera* VI, 1961, 209-229.
- (1963-64): «Vocabulario popular», *Euskera* VIII-IX, 255-283.
- (1964): «Luzaideko otoitz ttipiak», *Egan* 1-6, 19-31.
- (1965): *Bordel bertsularia*, Auspoa 45-46, Donostia.
- (1965-66): «Las casas de Valcarlos», *Anuario de Eusko-Folklore* XXI, 13-34.
- (1966): «Folklore de Valcarlos I. Los numerales en el Folklore», *BRSVAP* XXII: 1, 17-36.
- (1967): *Luzaide'ko kantiak*, Auspoa 65, Donostia.
- (1968): «Las casas de Valcarlos», *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares* XXIV, cuadernos 1º y 2º, 120-45.
- (1969): «Libro de cuentas de un herrero de Valcarlos (S. XIX)», *FLV* 2, 133-286.
- (1969b): *Estudio del grupo doméstico de Valcarlos*, *CEEN* 2, 1969ko separata.
- (1969-70): «Toponimia de Valcarlos», *Anuario de Eusko-Folklore*, Sociedad de Ciencias Aranzadi, Donostia, XIII. Zenbakia, 129-158.
- (1970): «Notas al libro de cuentas de Valcarlos», *FLV* 4, 95-115.
- (1971): «Correspondencia familiar vasca del siglo XIX», *FLV* 9, 291-306.
- (1981): «Xukako aditz joskera Luzaideko mintzairan», *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, Iker-1, Euskaltzaindia, 343-354.
- (1986): «Luzaideko Echeverriren dotrinari oharrak», *ASJU* 20, 3-30.
- (1987): *Euskal testu zaharrak I*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1997): «Lesaka eta Luzaideko euskal testu parekatuak», *FLV* 74, 99-126.
- (1999): «Lamias y sirenas a través de la simbología», *CEEN*, 74, 497-520.
- SEGUROLA, I. (1985): «Etxeberri Luzaideko bikarioaren dotrina argitaragabea», *ASJU* XX-1, 129-197.
- XALBADOR (FERRANDDO AIRE) (1989): *Odolaren mintzoa*, Auspoa Liburutegia, Tolosa.